

Colección
MENDAUR
bilduma

VI



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

GERO
Axular
Blanca Urgell Lázaro (edizio kritikoa)



9 788423 530892

Colección **MENDAUR** bilduma

VI

GERO
Axular

Blanca Urgell Lázaro (edizio kritikoa)



Nafarroako
Gobernua



EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE





Colección **MENDAUR** bilduma

VI

GERO
Axular

Blanca Urgell Lázaro (edizio kritikoa)



Urgell Lázaro, Blanca

Gero (edizio kritikoa) / Blanca Urgell Lázaro – Iruña: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo: Euskaltzaindia, 2015. – (Mendaur ; 6)

432 orr. ; 24 cm

L.G. NA 42-2015

ISBN 978-84-235-3089-2

I. Nafarroa (Foru Komunitatea). Hezkuntza Departamentua II. Euskaltzaindia III. Mendaur

Liburuaren izenburua: Gero (edizio kritikoa)

Liburuaren egilea: Blanca Urgell Lázaro

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Testuen hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: Imprenta RGM, S.A.

ISBN: 978-84-235-3089-2

Lege gordailua: NA-42-2015

Nafarroako Gobernua

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fondoa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 IRUÑA

Tf.: 848427121

Faxa: 848427123

fondo.publicaciones@navarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel.: 94 415 81 55

Faxa: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.eus

www.euskaltzaindia.eus

Aita zenari,
ama denari,
Esti eta Manuri



EDIZIOAREN AURKEZPENA¹

Blanca Urgell

Aspalditxotik ari ginen Axularren liburua editatzen. Batean hau zuzendu, bestean hura aztertu, honela genbiltzan, denbora-pasa sarri, bestelako zereginetik hartarata erraz oharatu baikin alderdi filologikotik dena beharrean zegoela oraindik gure klasikoetan klasikoena. Euskaltzaindiari eta Nafarroako Gobernuari biziki eskertzen diegu lan hau argitaratzeko babesia ez ezik, amaitzeko zioa eta bultzada emana.

Edizioa inprentara joan zenetik sei urte joan dira. Luze joko luke zergatik eta nola izan den azaltzeak, baina artean aldaketa garrantzizko bi izan direnez, ezinbestean aitortu behar. Lehenik, Juanjo Zearreta ustez ustekabeen zendu izana: berarekin, bere ohiko inplikazio erabatekoarekin hasi zen istorio hau, eta utzi duen hutsu-neak beltzez tindatzen du lana. Bigarrenik, sei urtean euskararen gramatika historikoaren azterketak sekulako aurrerakada izan duenez, zorionez izan ere, baliteke hemen azaletik ukitu diren zenbait gai egun era zehatzago batez aurkeztu ahal izatea: barkatuko ahal zaigu aukera hori baztertu izana, testua hobetzea baitzen eta baita gure helburu nagusia, bestek Axularren hizkuntzan —eta gainerakoan ere, noski— konfiantza handiagoz lan egin dezaten.

Edizio hau ez da zerotik abiatu. Aitzitik, Aita Villasanteren edizioaren ondorengo duina izateko asmoz sortua da. Edizio hura euskara batua sortu eta garatu den garaiko *Gero*-ren edizio kanonikoa da, azken berrogeitaka urteetan liburu hau irakur-

¹ Lan hau Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak finantzaturako «Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)» (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren laguntzarekin hasi zen, eta MINECOren «*Monumenta Linguae Vasconum (IV)*» [= FF12012-37696], UPV/EHUren UFI11/14 eta Eusko Jaurlaritzaren «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) [= GIC.IT698-13] direlakoan laguntzarekin amaitu. Gidor Bilbao, Ricardo Gómez eta Joseba A. Lakarra proiektukideek iradokizun ordainezinak egin dizkirate edizioaren irizpideak erabakitzerakoan, eta Manu Padilla lankideak hitzurre hau irakurri du bere begi zorrotzekin. Bestalde, Euskaltzaindiak erraztasun guztiak eman ditu lana hastetik bururaino eramateko, oso bereziki azken txanpan lagundu didaten Joseba Zabaleta kudeatzaileak, Jon Artza Argitalpen zerbitzuko arduradunak eta, *last but not least*, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Bihoakie guztiei nire esker ona.

leengana iristeko bideak ipini dituen, berau aipatzeko zein aztertzeko, zernahitarako erabili dena eta, areago, gutako askorentzat beraren ikonoa ere badena. Ohorezko leku bat irabazi du, hortaz, euskal letren historian. Oraingo edizio honek alderdi askotan —baita egile eta eragileen asmoetan ere— edizio haren espiritua jasotzen du, guztiz irakurlearen gozamen eta probetxuari lehentasuna ematean.

Villasanterena bezalaxe, bada, edizio hau irakurketarako egina da, Axularren liburua jendarteratzeko pentsatua, eta ez gure artean «edizio kritiko» izenak hartu duen adiera *light*-aren arabera, hots, jatorrizko testua bere horretan utzi eta beste eragiketa filologikorik eskaintzen ez duena. Alabaina, testua arretaz aztertutik eta haren izaera edo egoerari buruzko hipotesi emankorrak erabiltzetik datozen hainbat berrikuntza eta hobekuntza ditu aurreko edizioen aldean.

Alde honetatik batez ere urruntzen da honako edizio hau Villasanteren ondoko edizio dohakabeetatik, zeinak maiz isilean haren testuaren bizkar eginak badira ere, aise frogatu daitezkeen, haren akatsak gutxieneko kontuan errepikatu eta deus ez gehiago eskainirik berriak bailiran aurkeztu baitira. Edizio berri bat aurreko edizioak gaudituz eta hobetu nahiak bakarrik zuri lezake, «filologo» izena merezi duen edozeinek dakienez, eta honegatik ez dago bekatu larriagorik, ez dago edizioegileen infernuko ateak zuzen gehiagoz zabal litzakeenik, aurrera gabe atzera egiten duen edizioa baino.

Esan dezagun, beraz, irakurleak *testu kritiko* bat aurkituko duela, hau da, xehe-xehe aztertua izan den testu bat, bai aurreko edizioetako ezin konta ahala kopia hutsetatik garbitzeko, bai eta arazoak azalarazteko ere eginahalak eginda. Eta, irakurketarako pentsatua denez, ahalegin berezi bat egin dugu, edizio honi oinarri eman dion lan filologikoa adituen eskura jartzeko aukera galdu gabe, ez ditzan honetaz gainerako irakurleak nahasi edo behaztoparazi.

Esanak esan, edizio hau ez da —ezin izan daiteke— Axularren behin betiko edizioa. Lehenik eta behin, zeren ez baitago halakorik egiterik: egungo ezagutza eta baliabideen heinekoa dena ahalik eta hobekienik egitea, gure talentuaren arabera, horixe izan dugu jomuga. Beharbada muga jotzera iritsi ez bagara ere, espero dugu gutxieneko kontuan besteren bat gure akatsak zuzentzera eta gure hutsuneak betetzera kilikatzea.

1. Edizioaren oinarriak

1.1. Testuaren zuzenketa

Muga argia ez izan arren, esan dezakegu bi zuzenketa mota daudela: mekanikoa eta filologikoa. Lehenengoaren helburua testuaren zuzentasuna ziurtatzea da, jarri behar duena jartzen duela egiaztatzea, alegia, eta bigarrenarena testuko arazoak aurkitzea, eztabaidatzea eta, ahal dela, konponbidea aurkitzea.

Gure kezka nagusia bietan irakurleari testu fidagarri bat eskaintzea izan da, aurreko edizio guztiak, lehendabizikotik beretik hasita, zipriztintzen dituzten kopia akats eta inprenta hutsetatik garbitua, aldi berean pasarte ilun, ustel eta zalantza-koak ahal beste konpondu edo bederen seinalaturik. Ondo dakigu, halere, inprenta-ko iratxoak ordenagailura aldatu direnez gero, eta bertan ostatu hartu, baten batzuk ezkutaturik egongo direla gure honetan ere, halabeharrez, irakurle zuhurraren be-gien zorroztarri.

Inprentako lekukotasunak baino gorde ez dituzten testuetan ohikoa da, eta gomendagarria, *oinarrizko testu* gisa (hots, gure testuaren oinarri gisa) lehenengo edizioa —*princeps* delakoa— baliatzea, baldin eta egilearen bizitzan irtendako ba-karra bada. Hauxe dagokio, bada, esku artean dugun liburuari: *Gero*-ren *princeps*-a da Axularrek begira lezakeen bakarra, baldin begiratzerik izan balu, adinean sartua eta heriotzako orenetik gertu baitzegoen ordukotz. Edonola ere, jakintzat eman ohi dugu egilearen jatorrizko testuarekin erlaziorik hurbilena duena behintzat badela.

Alabaina, gure honetan, testua gaurko grafian ematea helburu (§ 3.2), gomen-dagarriago zen Villasanteren ediziotik abiatzea, zehazkiago *Klasikoen Gordailua*-k denon eskura ipinitako haren bertsio elektronikotik. Dena dela, hitzez hitz eta letraz letra erkatu dugu testua *princeps*-arekin, batean zein bestean dauden akats nabariak zuzendu, eta akats usainekoak markatu eta analizatzearen.²

Zuzentzean bi arriskuren artean murgiltzen da edizioilea, eta eskuarki biak datoz garaiaz, hizkuntzaz edo egilearen ohiturez behar beste informazio ez izatetik: zuzena beharrik gabe zuzentzea eta okerra zuzendu gabe uztea. *Gero* liburuan biga-rrena izan da bekaturik usuena, eta ez da harritzekoa, zeren eta bai baitago klasikoen *princeps* edizioak sakralizatzekeo halako joera bat, akatsak aitortu baino, azalpenik xelebreenak eman nahiago izaterainokoa, *Kixote*-ren edizioen historiatik ere ikas dezakegun bezala (Rico 2005: 18-21).

² Villasanteren edizioan, akats txiki anitzez gainera, hitz solteak eta are sintagma eta lerro osoak eskas dira han-hemen, eskuarki eskas diren hitzak edo hitzek pasartearen ulerkeria larriki oztopatzen ez dutenean: posesibo bat, izenondo bat, *ere* partikula, *eta*-z loturiko zerrenda baten ataletako bat, etab. Adibidez, ondoko perpausetan haren edizioak taket arteko hitza eskas badu ere, besterik gabe ez dago sumatzerik: *handik zerbait [kalte] ethor zekion gogan beharrez eta beldurrez* (G 27, V 15), *Baina [baldin] mehe, leun eta bera bazuen* (G 32, V 19). Larrienak berdinetik berdinerako jauzien-gatik gertatu dira, hala nola *Bezitu zukeien, etxedun egin [zukeien, eta deus gusta gabe, behar zuen guztiarekin ibeni] zukeien* (G 25, V 14) eta *Aditzera emaitteagatik girstino on izanen denak, kan-poan eta barrenean, bietan [behar duela izan on eta eder: bie:] behar duela eduki kontu eta ardura* (G 402-403, V 262). Oharkabeko ordezkapen txikiak ere ohartezinak ziren irakurlearentzat: *benturan > benturaz* (44-34 testu-oharra), *hazi hartarik > eta hartarik* (57-5 testu-oh.), *edo > eta* (88-23 testu-oh.), *nahiz > nahirik* (206-11 testu-oh.), etab. Erreparatu baita Villasanteren edizioko eranske-ta antzemangaitz honi ere: *kandela [bere] eskuan harturik* (180-4 testu-oh.). Bistan da makinatu eta gero testua irakurritz beste gabe zuzendua dela, zuzendu baldin bazen. Honelakorik gerta ez da-din, ezinbestekoa da jatorrizko testuarekiko erkaketa zehatza, edozein edizioen oinarri-oinarrizko lana.

Axularrean, egiazki, pisu gehiena izan du testua bere osotasunean kritikoki aztertu gabe egoteak: mendeetan egin diren hurbilketa zatikako edo amateurren kariaz, maizago agian tradizio lexikografiko luze xamar batek zabalduta, Axularren lekukotasunaz bermatuta daude kopia huts baino ezin izan daitezkeen formak, hala nola *erain erein*-en ordez (98-35),³ *fidantza fidantzia*-ren ordez (74-5), *etxatier etxatiar*-en ordez (70-1), *errezuzitatu erresuzitatu*-ren ordez (149-32) eta *konplezino kondizino*-ren ordez (198-13), edo susmagarri bederen badirenak, *haserretua* ‘haserrea, amorrua’ (158-6), *buirakan* (158-11), *laxio* (189-31) eta *hausnaur* (328-14) lekuko. Izenkiak ez ezik, adizkiak ere zuzendu beharrak dira inoiz: adibidez, *etzuzte eztituzte*-rekin (119-20) eta *gare gara*-rekin (132-4) ordezkatu ditugu, *princeps*-aren lekukotasunaren aurka, baina egilearen *usus scribendi*-an oinarriturik. Lehen argitalpena larregi errespetatzeko joera horrek iratxoak ontzat emanarazi ez ezik, forma zuzenak galarazi ditu inoiz, hala nola gure iritziz duda gabe osatu behar den *tormentatsua* (119-20), *princeps*-ean *tormentatua* irakurtzen bada ere. Izan ere, *princeps* delakoa «...lekukotasun oinarrizko eta funtsezko bat da, jakina, baina inondik ere ez da bakarra, ez ukiezina, are gutxiago analisitik salbuetsia» (Rico 2005: 21-22; itzulpena gurea).

Lehenengo edizioaren akatsak direnean, gure oinarrizko testua izanik, egindako aldaketan kontu xehea eman dugu aparatu kritikoan (§ 2.2), baita ondoko edizioen bateko irakurketa ezberdinak jatorrizko testuaz zalantzarik sor lezakeenean ere. Zuzenketa askotan aurreko ediziogileek aurrea hartu digute, noiz jakinaren gainean, noiz beharbada oharkabean, batez ere beren artean oso antzekoak diren letrez den bezainbatean. Aldea honetan datza, alegia, guk banan-banan markatu ditugu lehenengo edizioarekiko egin ditugun aldaketak oro, hurrengoek, beharrik balekuskete, berriro haietaz gogoeta egiteko modua izan dezaten.

1.2. *Testu-arazoak (I): inprentaren balizko eragina*

Esan bezala, egilearen eskutik-edo bertsio inprimatua baino gorde ez dugularik, lehenengo argitalpenera jo dugu oinarrizko testuaren bila, ditugun lekukotasunetan Axularren borondatea hobeki islatzen duena horixe delakoan. Honek esan nahi du ia beti —laster zehaztuko «ia» horren zergatia— berak eskaintzen dituen irakurketak —bertan jartzen duena— onartu ditugula, gerokoek diotena diotela.

Alabaina, irakurleak argi izan behar luke lekukotasun garrantzizko honek aldez bakarrik jasotzen duela Axularren jatorrizkoan jartzen zuena jartzen zuen bezala, eta arrazoi ezberdinengatik aldez bakarrik islatzen duela, halaber, Axularrek nahi zukeena.

Egilearen borondatea bere xehetasun guztietan asmagaitza izan arren, baita guk daukagun baino testuaren lekukotasun eta garaiko berri gehiagorekin ere, aski ezagu-

³ Besterik esaten ez den bitartean, gure edizioko orrialde-lerro zenbakiak dira hauek.

na da non-nahi —eta, hortaz, jakintzat eman dezakegu— jatorrizkoan jartzen zuenetik alde batetik baino gehiagotatik ezberdina den zerbait baino ez zaigula iritsi inprimatuan, eta eskuarki inprentari egotzi ohi zaio errua, egilearen eskuzkoan leudekeen arazoez gainera (oharkabeko hutsak, pasarte irakurgaitzak, etab.). Honetan oinarritzen dira, ezaguna denez, argitaratuen edizio kritikoetan egin ohi diren zuzenketak, ustez eta inprentakoak inprimatzearen uneren batean okertu zirela.

Alabaina, gaur egun aski ezagunak dira eskuzko inprentaren garaiko liburuak egiteko prozedurak, eta hauen arabera egoera konplexuago bat irudikatu behar dugu, non idazleak ez baitzituen bere gain hartzen zenbait alderdi, baizik eta uzten zituen ofiziokoen eskuetan: lehenik inprentarako kopia garbia egiten zuen idazlariaren baitan, oso gutxitan baitzen egilearen beraren eskuzkoa, eta gero inprentako konposatzaileen trebeziaren eta batez ere bertako zuzentzaileen antzearen baitan. Konposatzailearen egitekoa zen grafia, puntuazioa eta letra larriak normaltzea (Gaskell 1999: 132; Rico 2005: 77-78). Grafiari buruzko iritzi bereziak ez izatera, orduko idazleek ez omen zuten pentsatzen hori beren egitekoen artean sartzen zenik.⁴

Gaia ezagutzen duena aurrekoa irakurtzerakoan berehala ohartu bide da ezen ez dakigula ezertxo ere inprentek euskal grafiaren historian izan duten eraginaz, nahiz Frantzian, adibidez —eta adibideak badu garrantzia guretzat—, Akademiaren aurreko garaian eurak izan ziren frantses ortografia normalduz joan zirenak (Catach 2001: 97-114).⁵ Hona hemen, beraz, gure lehen aitona: beharbada ez dugu sekula jakiterik izango ehuneko ehunean Axularrek euskaraz nola idatzi zuen, zein grafiarekin, baina egiantz handiz pentsa dezakegu zenbait puntu behintzat Millanges-en langileen eskuetan utzi zituela, eskarmentu handiko eta maila jasoko etxea izanik. Aukera honen aurka dator, jakina, hizkuntzaren berezitasuna, ez baitakigu euren artean euskaraz zekienik ba ote zen: ezinezkoa bederen ez da, orduan ere euskaldun anitz baitzebiltzan Bordelen lanean. Esan gabe doa inprenta beretik irtendako euskal lanen erkaketak bakarrik eman liezagukeela, ezerk ematekotan, honi buruzko daturik.

Inprentak esku gehiago zeukan aipatuez gainera. Testua *formaka* konposatu ohi zen, *forma* izanik pleguaren alde bakoitzaren berunezko moldea. Honek esan nahi du liburuko orrialdeak ez zirela liburuan agertuko ziren bezala bata bestearen ondoren konposatzen, baizik eta forma bakoitzean sartzen zirenak bakarrik eta han hartu behar zuten tokiaren araberrako hurrenkeran. Esate baterako, *Gero* bezalako 8ko baten kanpoko forman, aurrez aurre eta ezker-eskuin, 4-5, 13-12, 9-16 eta 8-1 orrialdeak sartzen ziren, eta barrukoan 7-2, 10-15, 11-14 eta 6-3, gero plegua toles-terakoan —kaiera eratzean— bakoitza bere lekuan ager zedin. Honegatik, testua

⁴ Rico (2005: 77-81, 154-155 *et passim*); zuzenketa prozesuaz oro har, ik. Gaskell (1999: 132-139, 163-165 eta 440-443).

⁵ Gauza bertsua esan daiteke Espainiaz: «salvo para cuatro excéntricos como Mateo Alemán o el maestro Correas, la ortografía (y no hablemos del capítulo de la puntuación) era entonces cosa propia de los tipógrafos, a ellos se la confiaban los autores y ellos fueron quienes consiguieron la relativa normalización vigente antes de la Real Academia Española» (Rico 2005: 357, 26. oh.).

«neurtu» egiten zen, eskuizkribuaren gainean markak jarritz, formatuak eskatzen zuen hurrenkera etenaren arabera saltatu behar ziren zatiak seinaltzeagatik. Neurtzaileak aliritzira markatzen zuen testu zati hura gero konposatzaileak nola edo hala egokitu behar zion eskura zeukan espazio tipografikoari; honegatik, konposatzaileak, inoiz zuzentzailearen laguntzaz, testua «luzatzeko» edo «laburtzeko» eskubidea bere zuen, zuriuneak sartuz edo kenduz, edo bestela, noiz nola, testua bera ukituz arazo larriren bat egotekotan (Rico 2005: 172-208).

Inprentan hartutako erabakien itzala salatzen duten irregulartasun zenbait antze-man ditugu ustekabeen *Gero*-ko paragrafoen banaketan: mutur batean, puntu eta aparte bakar bat ere ez duten orrialdeak, <en>-en ordezeko <ê> erako laburdura tildez beteak (cf. Rico 2005: 177), espazio eskasia salatzen dutenak; beste muturrean, bi-hiru lerroko paragrafoz osatutako orrialdeak, neurtzerakoan labur gelditu izanaren seinale. Adibide argi bat ikus daiteke Euskaltzaindiaren faksimileko 300 eta 301. orrialdeak erkaturik, hots, V pleguaren kanpoko aldearen ezkerreko bi orrialdeak (gure goiko 8koaren eredian 4 eta 5. orrialdeen kideak): lehenengoan ohi baino paragrafo gehiago daude, latinezko aipua eta haren itzulpena paragrafo banatan jarri izanak adierazi bezala (faks. 300-26/27);⁶ bigarrean alderantziz: lehen bi lerroak ez beste guztia paragrafo batean doa, eta azken hamar lerroetan <ê> erako laburdura ugari dago, «Platonek» behar zukeena «Plat.» laburtuta egoteaz gainera (faks. 301-21), ohi ez bezala.⁷ Horrelako gehiago seinalatu ditugu edizioan (ik. 106-1, 112-19, 162-27 eta 180-8 testu-oharrak, adibidez), bilaketa sistematikorik egin ez badugu ere. Hauek eta honelakoak, zalantzarik gabe, nagusiki orrialdean originaleko zenbat testu sartuko zen neurtu behar zuenak egindako hala-holako kalkuluen ondorioz gertatu dira; hain usua ez izan arren, baliteke menturaz bat edo beste forma osatu ondoko ustekabeko zuzenketa handiren batek eragindakoa izatea ere.

Salaberri Muñoak (2007a) egun ezagutzen diren *Gero*-ren ale urrietako batean, Urquijoren liburutegira baino lehen Jean Robinena izandakoan, ezberdintasunak aurkitu ditu M pleguan (faks. 169-184. or.), pleguaren alde batetik bakarrik (faks. 169, 172, 173, 176, 177, 180, 181 eta 184. or.): zehazki, hogeita bi akats xume, hizki baten gorabehera edota hitz banaketa kontuak, G alean⁸ zuzendurik, baina honetan zuzendu gabe daudenak. Hau azaltzeko, Salaberri ere konposatzeko prozedurara jo du: antza denez, bada, ezberdintasunok pleguaren ale hori inprimatu ondoren prentsa aurrean egindako zuzenketen ondorio dira.

Salaberri (2007a: 305) Robinen aleko M plegu hori zuzenketak egiteko proba gisako lehen inprimaketa delakoan badago ere, egiantzekoagoa dirudi liburua inprima-

⁶ Hemendik aurrera «faks.» laburdurarekin markatuko ditugu faksimileko orrialde-lerroak.

⁷ Honelakoetan oinarriturik jakin daiteke, nonbait, ez bakarrik zein trikimailu baliatu duen konposatzaileak testua egokitzerakoan, baita ere formaren zein alde prestatu zen aurrenik. Lekutan gaude honelako xehetasunak gure testuetan aztertzeak, baina ereduak aurki litezke, esaterako, *Kixote*-ren azterketan (cf. Sevilla 2008 eta Pereira 2011).

⁸ Edizio honetan erabili diren aleen laburdurak beherago azalduta daude (§ 2.2.1).

tu bitartean egindako aldaketen ondorio izateak, prentsa eten eta orduantxe egindako zuzenketak baino lehen botatuko pleguaren ale zuzendu gabeak erabili ohi baitziren liburuaren aleak osatzeko, papera gora saltzen zelako, prentsa berezi (normalean zahar-rago) batean eta nolana hiko papera erabiliz egin ohi zen lehen inprimaketa trakets xamarra ez bezala (Rico 2005: 212).⁹ Bideanabar, inprimatzerakoan egin eta aleren bateg eskas dituen zuzenketa hauek gure artean ezagunak dira aspaldi, Leizarragaren Testamentuaren aleen artean ere horrelaxe azaldu diren zenbait ezberdintasun baitaude, tartean pare bat hizkuntz aldaketa (Vinson 1907, 1911, 1912).¹⁰

Aparatu kritikoa osatzerakoan, Gbi alean ere zuzenketa gutxi batzuk aurkitu ditugu G eta AK-720 aleetan ez direnak,¹¹ guztiak liburuaren erdialdetik aitzina. Zuzenketa taldeño bat orrialde berean dago, baina oro har plegu ezberdinetan sakanatuak dira, halabeharrez denak azken lerroan edo azken hiru-lau lerroetan. Haie-tako bat behinik behin AK-720 alean ere zuzendua da (xehetasunetarako, ik. edizioan dagozkien testu-oharrak):

faks.	plegua	G	AK-720	Gbi
375-23	Aa	pœuersarius		Aduersarius
375-23/24	Aa	ex-/f llitur		ex-/pellitur
375-25	Aa	eahar		Çahar
445-25	Ff	eztuçul	eztuçula	eztuçula
495-29	Ii	hegal[ldatcen cena lurrean guel]di ([] artekoa eskuz)		hegaldatcen cena, lurrean gueldi
498-24	Ii	[atseg]luin ([] artekoa eskuz)		atseguin
594-30	Pp	cta (gainetik eskuz zuzendua)		eta

⁹ Hauxe da Ricoren pasarte osoa (guk itzulia): «inprenta zaharrean, forma baten botaldian errata bat erideten bazen (edo egileak ukituren bat erantsi nahi bazuen), ohikoa zen prentsa-lana eten, akatsa zuzendu eta ondoren botaldiari berriro ekitea; eta lana amaitu bitartean eragiketa bera behar beste aldiz errepika zitekeen akats berriak aurkitu ahala. Alabaina, papera garestia zenez, errata zuzendu gabe inprimatutako orriak ez zituzten suntsitzen, behin errata zuzendu eta gero inprimatzen zirenekin nahasten baizik, eta honela, proportzio aldakor batean batzuk eta besteak nahaste osatzen ziren liburuaren aleak. Hemendik dator liburu askok forma zenbaiten egoera [= zuzen-aldi] bi edo gehiago izatea, bai eta bi ale erabat berdina aurkitzea ia ezinezkoa izatea». Proba zuzenketaren prozesu osoaz, ik. Gaskell (1998: 132-139).

¹⁰ Lan filologiko hau, Vinsonek egin zituen aitzinamenduz gainerakoan egin gabe dagoenez euskal liburuetan, espero izatekoa da egiten hasiz gero adibideak biziki ugalduko direla. Esate baterako, 1828ko Laudioko dotrinaren aleen arteko aldeak sumatu ditu berriki Koldo Ulibarrik (a.e.).

¹¹ Kontuan har bedi ez ditugula erabilitako aleak osoki erkatu elkarrekin, G-ren edota Gesk-en irakurketaren bat bermatu beharra genuenean bakarrik baizik (§ 2.2.2).

Gbi eta AK-720 aleek M pleguko zuzenketak badituztela egiaztatu dugu.¹² Honezkerok, bada, Axularren *princeps*-aren lau *egoera* (hots, lau zuzen-aldi) antzeman uste ditugu: (1) M pleguko zuzenketak ez dituen Robinen aleak darakuskuna; (2) M pleguko zuzenketak bai, baina gainerako pleguetako zuzenketak ez dituen G aleak ordezkaturia; *egoera* honetan Ii eta Pp pleguetako zuzenketak eskuz egin dira, antza denez inprentan bertan (§ 1.3.2); (3) M pleguko zuzenketak bai, eta gainerako pleguetako bat bederen baduen AK-720 alearena; eta (4) zuzenketa hauek guztiok bere baitan inprimaturik batzen dituen Gbi alearena, zeina baita, antza denez, aztertutako aleetan zainduena edo, hobeto esanda, plegu zenbaiten bertsiorik berri eta zuzenduenak dituen. Hau dena polikiago aztertu behar da, jakina, ez baita zeharo ezohikoa ale berean *egoera* bateko eta besteko pleguak elkarrekin nahaste izatea.

Kixote-ri buruz idatzitako tinta uholdeak ikustean edota Shakespeare editatzea azken mendeetan Filologiak aurrera egiteko izan dituen bide emankorrenetako bat izan dela jakitean,¹³ jadanik goldatu, erein eta loratua nahi genukeen alorrari harri-koskor banaka batzuk baino kendu ez dizkiogula pentsatzea beste erremediorik ez dugu.

1.3. Testu-arazoak (II): Geroko gero-ren tokia Gero-ren transmisioan

Dena dela, filologiaren ikuspegitik Axularren testuak duen arazorik larri eta behinena *Gero*-ren eta *Geroko Gero*-ren, hots, 1643ko lehendabiziko edizioaren eta datagabeko bigarren edizioaren arteko erlazio iluna argitzea da. Izan ere, Manuel Lekuonak bere edizioaren hitzaurrean zioenez, bigarrenak «...baditu alderen batzuek. Ots, besteak beste, zuzentze batzuek, utsune-betetze batzuek... Uste bait-degu zin-zifietan, argitalte au egin zuanak, Axular beraren esku-idatziak begi-aurrean euki zituala...» (Lekuona 1954: xix).

Lekuonak berak eman zion irtenbide bat arazoari: «Birrargitaratzaillea, egillearen illoba ber-bera —ots, Axular gaztea— ote zan ere susmorik bai baitdegu...» (*ibid.*). Honen ondoan, hainbatek aipatu dute, inoiz ziurtzat eman ere, ezen Axular liburua argitaratu eta urtebetegarrenean hiltzean, illobak, erretoretzaren oinorde izan

¹² Badira bi ezberdintasun Salaberrik eman datuekiko. Alde batetik, 173-5 pasarteari dagokion irakurketa Gbi-n «bi.ha» da eta AK-720-n «bilha», baina honen <I> nekez ikusten da, tipoaren akats edo tinta eskasiagatik agian: hala bada, baliteke G eta Gbi-ko ustezko irakurketa ezberdina AK-720-n dagoen arazo berak sortutako lilura baino ez izatea. Bestetik, 176-10 pasarteari dagokion irakurketa zuzendua <peril handian iarrri nahi du> da gure bi aleotan, baita G alean ere, Salaberrik emana —<...iarrri nahidu>— bere testuko oharkabeko hutsa baita, izan ere.

¹³ «...egitasmo horietako bakoitzak [Shakespeare-ren lanak argitaratzekoak] etekinen bat atera du garaian garaiko filologiaren ezagutzetatik eta testukritikaren proposamenetatik. Are gehiago: neurri handi batean, halako ezagutzak eta proposamenak Shakespeare-ren edizioen lantegian landuak dira eta honen mesedetan eginak» (Rico 2005: 17; itzulpena gurea).

baitzen, *Gero*-ren eskuizkribua ere oinordetzan hartu zukeela eta, batera edo bestera, bigarren edizioari berak bide eman ziola edota berak zaindu zuela, lehenengoaren akats usuak zuzendu nahiz.

Hala eta guztiz ere, Vinsonek (1891-1898: 22b, 86-89) aspaldi emandako epaia aintzat hartu gabe egindako hipotesia da, datuen gainean oinarritzen ez den istorio bat:¹⁴ izan ere, berak argi ezarri zuen, ofizioko jakituria ohi bezain trebeki baliaturik, bigarren argitalpenak ilobaren heriotzaren ondokoa behar duela (1653 ondokoa, beraz), zehatzago ziurrenik 60-80 urte beranduagokoa lehendabizikoa baino, eta Millanges-enaz beste inprimategi batean egina, xehetasun tipografikoek salatu bezala, besteak beste.

Gaur egun *Gallica*-n¹⁵ edozeinek egiazta dezake *Geroko gero* ez dela Millanges *erregearen inprimatzailearen baitan* egina, *princeps*-aren —eta etxe hartan egindako beste liburuen— letra eta apaingarrien kalitatea bigarren edizioko kaskarrekin erkatuz. Areago, Millanges-ek 1649 arte baino ez zuen lan egin, handik aurrera Mongiron-Millanges ilobaren izena hartu baitzuen argialetxeak (Desgraves 1995: 197-198).

Gainerakoan, badirudi *Geroko gero*-ren data grafiatik ondorioztatu zuela Vinsonek nagusiki: *Gero*-n ez bezala, argitalpen berrian hala <i>-ren eta <j>-ren nola <u>-ren eta <v>-ren arteko banaketa modernoa erabili zen latinezko aipuetan —euskaraz ez, agian konposatzailea erdalduna izaki—, eta ortografia berri hau Mongiron-Millangesek, haren ondorengoek eta eremu hartako gainerakoek —Baionako Fauvet barne— ez zuten osoki onartu XVII. mendearen bukaera edo XVIII. mendearen hasiera arte. Vinsonek eman datu hau euskal liburuetan ere berrets dezakegu: Mujikaren ikerketaren arabera (2002: 172), <u> bokal eta <v> kontsonantearen arteko bereizketa ezak —*Gero*-n dagoenak— 1680-1690 arte iraun zuen Iparraldean: zehazki, Baionako Antonio Fauvet inprimatzailearenean egina den Arambillagaren liburuan (1684) dago kontsonantea sistematikoki <v>z adierazteko lehen euskal saioa.¹⁶

Vinsonen ustez, bada, *Geroko gero*, zalantza izpirik ere gabe, XVIII. mende hasierako faltsutze bat da —beste izenez «edizio pirata» deritzaguna—, inprentaren

¹⁴ Arestian iritzi honek gure artean bizirik dirauela egiaztatzeke modua izan dugu (Kaltzakorta 2006). Lekuonaren kasuan barkagarri bada ere (badirudi Vinsonen lana ez zuela ezagutzerik izan), bekatu larria da datu objektiboen eta espekulazioen artean bereizten ez dakienaren aldetik.

¹⁵ *Bibliothèque National de France*-ren liburutegi digitala: <<http://gallica.bnf.fr>>

¹⁶ Lehenagokoa da <i> dieresiduna erabiltzea hala bokal artean nola diptongoan (cf. *Cain G* : *Cain* GG 289-22 eta *Moisenen G* : *Moisenen* GG 290-7 testu-oh.): «XVII. mendearen bigarren partean, frantses ortografian bezala, *ï* dieresiduna erabiltzera jotzen dute idazle euskaldunek ere, Pouvreaurengandik hasita: *aï*, *aïa* eta horrelakoetan letra denak irakurtzen direla adierazten du dieresiak: *haïc*, *saihets*... Ohargarria da, ordea, *y* gutxiagotan erabiltzen duten lapurtarrak direla *ï* dieresiduna erabiltzen dutenak; *y* usu darabilten zuberotarren lanetan, berriz, ez da hura ageri» (Mujika 2002: 159).

izena lapurturik eta datarik gabe irtendakoa, halakoak ohi bezala, hain segur 1725 baino lehentxeago.¹⁷

1.3.1. Geroko gero-ren paratzaile euskalduna

Zaila da asmatzen nork egin zuen eta zergatik, argitalpenaz beraz beste leku-kotasunik heldu ez zaigunez gero, baina bertatik zenbait zantzu atera daitezke, hain non halako ziurtasun batez esan baitaiteke ez zela nolana egin, XVIII. mende hasierako apaiz lapurtarren baten ardurapean baizik. Datuetara baino lehen, zilegi begiku gogoratzea lapurtera klasikoaren epe joriaren ondoko garai arrexka eta ezezagun xamarrean murgiltzen ari garela: 1686an Bernard Gazteluzarren *Egia katolikak* argitara zen; 1720an, egilea hil ondoan, Mixel Xurioren *Jesu-Kristoren Imitazionea*, eta harik eta Martin Harrieten gramatika (1741) eta Jean Haranederren itzulpenak arte (*Philotea*, 1749; *Gudu Izpirituala*, 1750), ez dago ezer aipagarririk euskalari-tzan —Pierre Urte eta Jean Etxeberry Sarakoa berariaz utzi ditugu alde batera, noski—, ezpada 1733. urtean Baionako elizbarrutiko lehen seminarioa sortu zela, Larresoroko ospetsua, urte berberean jaio zen Martin Duhalderen eta bere ikaskide Bernard Larregi eta Jean Robin-en hazlekua izango zena, besteak beste.

Azaletik igartzen da ez dela deslaian egindakoa: izenburua bera aldatzeaz gain, «Bigarren Edicionea corrigetua eta emendatua» erantsi zuten *Geroko gero*-ren argitaratzaileek, eta eransketa hau lotuta dago, esan gabe doa, Lekuonak adierazi edizio batetik besterako aldaketekin. Konposatzea egin zitekeen erarik erosoenean egin zuten, alegia, *Gero* orriz orri eta lerroz lerro kopiaturik (ahaleginean behintzat, bigarren argitalpeneko letra etzanek toki gehiago behar dute eta), honela lehenagoko *formek* zuten banaketa ere erreproduzitu baitzuten, testua berriz neurtu beharrik gabe; haatik, konposatzaileak nahitaez akatsak egin eta, antza denez, inprenta hartan ez zegoen euskara duintasunez begiratzeko gauza zen zuzentzailerik: edonola ere, proba zuzenketa arin edo ez oso zaindu baten ondorioz, *buthun*-en ordeko *burhun* (faks. 318-6) bezalako oharkabeko akats berri andana bat bere horretan gelditu zen liburua behin betiko inprimatzerakoan.

Edizio pirata, edizio merkea ere nonbait, Millanges-en mailaz beherako inprenta batean egina, ezbaierik gabe, eta beharbada hasi eta buka bertako langile erdaldu-nen eskuetan utzia. Baina ez nolana hikoia. Izan ere, *Gero*-ko huts txikiak han-hemen zuzendurik ageri dira (adibidez, G *Iainoaren* > GG *Iaincoaren*, faks. 139-21; ik. hemen 79-37). Horrezaz gain, Vinson eransketa azalgarriak ere badirela ohartu zen: G *erremusina* > GG *erremusina edo limosna* (121-1), G *buiracan* > GG *buiracan edo buruan* (158-11), G *art-vrratce* > GG *argui-vrratce* (328-20), eta egilearenak ez zirela iritzi zion, zuzen, zeren eta, besteak beste, *buiracan edo buruan* horrek behintzat ez baitauka zentzurik (ik. gure oharra, *loc. cit.*).

¹⁷ *Auñamendi entziklopedia*-k (s.v. *Pedro Agerre Azpilkueta*) «sesenta y ocho años más tarde» egina dela dio (beraz, 1711n), baina, zoritxarrez, ez dakigu zertan oinarritu diren baieztapen hori egiteko.

Hala bada, *Gero*-ren eta *Geroko gero*-ren arteko ezberdintasun batzuek edizio berriaren arduradunetako bat euskaldun zela frogatzen dute, aldaketak eta inoizka are eransketak ere bere kasa egiten zekiena, eta hauen nolakoagatik are ziurrenik elizgizona zela. Batzuk eta besteak ugariago dira Vinsonek aditzera eman baino.¹⁸ Aldaketen artean, sistematiko xamarra da lehen edizioko *gaixto* eta *errax gaixto* eta *erraz*-ekin ordezkatzeko, adibidez.¹⁹ Eransketetan luzeena honako hau da (erantsia taket artean sartu dugu): *Eta handik bere burua eta bere erresumako giristinotasun guztia galdu zituen, [Lutherren heregiari entrada emanik]* (196-7/8), baina badago besterik, hala nola behin eta berriz dantzen aipua sartu izana: *solhasean, jan-edanean, [dantzetan,] jokoan eta atsegin hartzen* (267-29) eta *munduko atseginetan, [dantzetan,] jan-edanean, jokoan eta bertze plazeretan* (279-7); ondoko sinonimo eransketa: *baratzen [eta gelditzen] da* (27-16); eta normahik egingo ez lukeen hurrengo zehaztapena: *behar da [ongi] kofesatu* (292-5). Edukizko kontuak ere zuzendu zituen inoiz: adibidez, *Noeren semetarik bata* erreferentzia zehazgabea *Noeren ilhoba Chanaan*-ekin ordezkatu zuen (140-26), eta *trentena* behin ezabatu eta behin *meza*-z aldatu (129-17 eta 135-5, hurrenez hurren).

Osterantzean, bere buruaren arrastorik utzi zuen heinean, hein txikian dena den, Axularrez beste hizkera batekoa zatekeen, baina batez ere argia da bera baino beranduagokoa zela: *geroko gerokotz*-ekin ordezkatu zuen (1-7, 28-27),²⁰ *aitonen seme aitoren seme*-ekin (3-2),²¹ *euskal eskal*-ekin (3-20), *euskaldun eskaldun*-ekin (3-22, 4-1, 5-8),²² *errutzen erretzen*-ekin (14-11),²³ *anhitz hanhitz*-ekin (29-34, 35-16, etab.) zein *hanitz*-ekin (53-28, 320-29),²⁴ *urruntzea urrhuntzea*-ekin (49-18),²⁵ *alderakotzat alderatkozat*-ekin (186-29, 186-30)²⁶ eta *edergailu edergailuz* markatuagorekin (186-1); *zeurk* eta *euzu* arkaikoak²⁷ ez zituen ulertzen: *zeurk* hamahiru

¹⁸ Beragatik bide dio Auñamendi Entziklopedia-k (*loc. cit.*) bigarrena irten zela «con algunas correcciones y variantes de escaso número».

¹⁹ Lehenengoaz, ik. 26-20, 55-9, 62-32, 76-2, 160-9, 186-8, 190-11, etab. testu-oharrak; bigarrenaz, 50-25, 53-15, 77-17, 153-22, 169-24, 172-1, 178-12, etab.

²⁰ *Gerokotz*-en lehen erabiltaileak Haranburu eta Pouvreau dira (*OEH*, s.v. *gero*).

²¹ *Aitonen* s. Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, Pouvreauk, Urtek eta Etxeberri Sarakoak darabilte; *aitoren* s. Oihenartek, Tartasek eta Gasteluzarrek (*OEH*, s.v. *aitoren*, eta *EKC*).

²² Badira *eskaldun*-en lekukotasunak, lapurterazko testuetan batik bat, gutxienez Etxeberri Ziburukoarengandik (*OEH*, s.v. *euskaldun*).

²³ *Errutzen* Leizarragak eta Duhaldek darabilte, eta *erretzen* Etxeberri Ziburukoak, Voltoirek, Pouvreauk, Argainaratsek, Aranbillagak, Gasteluzarrek, Xuriok, Urtek eta Haranederrek (ap. *EKC*).

²⁴ Cf. *OEH* (s.v. *anitz*): «En cuanto a la aspiración, aparece tras -n- en los autores más antiguos hasta Axular, colocándose luego preferentemente en posición inicial».

²⁵ Lapurterazko idazleen artean ez dago *urhundu* Haraneder arte (*OEH*, s.v. *urrundu*; cf. s.v. *urrun* ere).

²⁶ *Alderakotzat* bera ez da Materre eta Axularrez bestetan lekukotzen (*OEH*, s.v. *alde*); grafia etimologikoa da, noski, edo «morfológico-analógico», Mujikaren terminologiaren arabera (2002: 264): hots, zalantzarik gabe *aldera*-ren ordez *alderat* esaten ohitua zegoen hiztuna behar du izan; testuetan behintzat [genit. + *alderat*] egitura ez da Larregi eta Monho arte lekukotzen (*OEH*, *ibid.*).

²⁷ Mendebaldean ondo gorde den *zeuk*-en lehenagoko formak lekukotasun gutxi ditu: *OEH*-n (s.v. *zeur*) Lazarragarenak bakarrik jaso dira, harrigarriki, baina ez dira askoz gehiago izango: *EKC*-ren arabera,

aldiz agertuko testuan, eta bederatzitan *zeure*-rekin ordezkatur da (129-19, 130-9, 130-32, 133-23, 135-39, 135-40, 143-20, 174-1 eta 184-21), behin *zeur*-ekin (283-33); *euzu* bost aldiz agertuko, eta lautan *enzu* dago bigarrenean (125-37, 125-38, 247-27 eta 251-17); *euzue* bi aldiz, eta batean *duzuen* bihurtua da (84-4). Ildo bere-tik, *daidi* arkaikoa *daidike*-rekin ordezkatu zuen (110-39),²⁸ *bira* ‘izan bitez’ aginte-razko forma *diren*-ekin (72-7),²⁹ *-onek* artikulu zaharra *hunek* erakuslearekin (50-25), *gaitzerizkoa* zaharrari sistematikoki *-a* berezkoa kendu zion (adibide pilatxo bat 148. orrialdean, faks. 272-273. or.), eta ez zuen onartzen posesibo mugagabea *Ira-gana eta ethorkizuna eztira gure* bezalako perpaus batean (88-5). Halaber, *lectio facilior* bat eginik, *itzurpide*-ren ordezkari *itzulpide* dakar (29-27, 29-36). Finean, aski sen ezberdineko hiztuna zela erakusten digute hamaika xehetasun gehiagok, hala nola *Seguituago [eta] nahiago; usatuago [eta] barrenago; aseago [eta] goseago* (216-25) segidan *eta* etengabe txertatuak, edo instrumentala sozietiboarekin ordezkaturak (73-20 eta 73-21), *harekiko berekiko*-rekin (205-25), *onez onetara onez onean*-ekin (208-14), *nahasteka nahasteria*-rekin (17-37, 18-9), *ixiritu dixiritu*-rekin (30-1, 30-2), etab.³⁰

Aurreratu bezala, edizioaren arduradunaren jatorriari buruzko datuak ez dira argiak. Dena dela, esanguratsua da *Geroko gero*-ren garaitsuko lapurtar idazle nagusiak —Xurio (Ch), Etxeberri Sarako (ES) eta Haraneder (He)— bat etortzea berearekin, batzuetan hirurak batera gainera, zenbait ezaugarritan, hala nola *erretzen* (Ch, ES, He), *erraz* (Ch, ES, He), *gaizto* (Ch, ES, He), *hanitz* (Ch, ES; *haiñitz* He), *gerokotz* (ES, He), *eskal-* (He; *eskual-* ES),³¹ *urrhun* (He; *urrun* Ch, ES) eta *daidike* (ES). Datuok pentsarazten digute *Geroko gero*-ren paratzailea kostako lapurtarra zela, bai eta, bidenabar, berresten bide dute edo mende erdi batean honelako aldaketak izan zirela hango hizkeran, edo —agian egiantz handiagoz, Altunak (1987) aldeztu zuenez— Axularren hizkuntza zenbait ezaugarritan behintzat bere jaioterriko euskarara lerratuago zela Sarakora baino.³²

Materrek eta Iztuetak ere adibide bana dute, eta besterik ez. **Edun* aditzaren *euzu* erako aginterazko formak, berriz, soilik *Refranes y Sentencias*, Materre, Harizmendi eta Tartasen liburuetan lekukotzen dira garai zaharretan. *Begira edun* esapidean fosilduta gehiago irau zuen (*OEH*, s.v. *begira*).

²⁸ *EKC*-ren arabera, *daidi* soila Etxeparek, Leizarragak, Lazarragak, Etxeberri Ziburukoak eta Haranederrek baino ez dute lekukotzen, eta *leidi* Lazarragak eta *Refranes y Sentencias*-ek.

²⁹ Oso lekukotasun interesgarria da *Geroko gero*-ren zuzentzaileak eskaintzen digun hau, zeren eta (*EKC*-en arabera) *bira* Leizarragak bakarrik lekukotzen baitu Axular baino lehen.

³⁰ Edizioaren paratzailearen aldaketak ez dira beti ulergarriak guretzat, haien sistematikotasunak berariazkoak direla esaten badigu ere: adibidez, hainbat aldiz *ontasun* > *onatasun* aldaketa lekukotu dugu (256-23, 256-26, 257-25, 258-4, 258-24, 259-32, 270-11 eta bakarren bat gehiago, agian), zerbait adieraztekoan behar bada *ontasun* orduan oso ohikoa ez zela adierazten bide duena. Esanguratsua izan liteke, berebat, *haserre*-ri <h> kentzeko joera (153-5, 153-6, 162-41, 167-27, etab.).

³¹ *Eskara* dute, halaber, Xurioren bi baimen egileek, J. Darretxe Ziburuko erretorak eta Dohalbide Azkaingo erretorak.

³² «Axularren hizkera ere lapurtera da, noski, baina ez Sarakoa ene ustez, edota ez erabat Sarakoa bederen, baizik Urdazubikoa, Sarakotik Ziburukoa baino gehixeago berezia. Horra zergatik esan dudan lehen gure Etxeberriren eta Axularren hizkera desberdin izanak ez duela nahitaez frogatzen

1.3.2. Gero-ko eskuzko zuzenketen egilea

Geroko gero-ko aldaketa garrantzizkoenak, pasarteak osagabe edo ustel daudela dirudienean testua zuhurki osatzen edo zuzentzen dutenak, eskuizkribuarekin zuzendua dela aditzera ematen duten horiek, hain zuzen (ikus, adibidez, 30-19, 81-3, 89-22, 153-2 eta 295-16), bat datoz G alean diren eskuzko zuzenketekin.³³ Beste euskarririk gabe, guk behintzat uste genuen *Geroko gero* erabiliz ale horretan norbaitek egindako zuzenketak ziratekeela.

Salaberri Muñoak (2007b, 2008 eta 2011) du eskuzko zuzenketa hauek gaur gordetzen diren *princeps*-aren dozena bat aleetatik G aleaz beste bitan ere —Euskaltzaindiaren liburutegiko AK-720 alean eta Paueko udal liburutegikoan— agertzen direla eta zuzenketok betiere esku berak eginak direla ohartzeko merezimendua. Datu hauetan oinarrituta, Salaberrik oso hipotesi jakingarria egin du: bere ustez, hiru aleok inprentan bertan zuzendutakoak dirateke, Millanges-en etxeko zuzentzailetako baten eskuz. Beraz, *princeps*-aren garaikideak dirateke, aleak argitaletxetik irten baino lehenagokoak, eta inprimatzeko erabili zen eskuizkribua bera aurrean zuelarik egindakoak, zuzenketon egokitasunagatik Lekuonak susmatu bezalaxe.

Prozedura hau ezaguna da gureaz beste tradizioetan:

Plegua inprimatu eta gero aurkitzen ziren akatsak era batera baino gehiagotara zuzen zitezkeen (beharrezkotzat jotzekotan). Errazena liburuaren bukaeran edo atarikoaren artean hutsen zerrenda inprimatzea zen; eta erabatekoena, berriz, pleguaren ale guztiak suntsitzea, eta berriro konposatu eta inprimatzea. (...) Inprimatu ondoan pleguak zuzentzeko beste bide batzuk: plegua berriz prentsatik paseaz gainetik inprimatzea; pleguaren ale bakoitzean tintaztatutako tipoak eskuz gaininprimatzea; zuzenketa akatsaren gainean itsasten ziren paper puskatan inprimatzea; eta *ale bakoitzean akatsak eskuz zuzentzea*. Batzuetan liburu berean zuzentzeko bide bat baino gehiago aurkitzen da (Gaskell 1999: 163 eta 165; itzulpena gurea da, baita letra etzanak ere).

Hipotesi honen ondorioz, baieztatu daiteke, berebat, *Geroko gero* egina izan zela inprentako zuzenketa eskuizkribatuok berok zituen aleetako bat oinarri hartuta (Salaberri 2007b: 197): honek azaltzen du *princeps*-aren pasarte ustelez eskaintzen dituen irakurketa berrien egokitasuna, eta argitalpen batetik bestera dagoen denbora tarte luzeak Axularren eskuizkribua bera erabili zelako hipotesiak sortzen zuen zantzantza handia uxatzen.³⁴

urte haietan Sarako hizkera aldatua zenik, nahiz eta aldatua izan. (...) Ez zaigu ahaztu behar, izan ere, Axular berrogeitaka urte zituela heldu zela Sarara» (Altuna 1987: 247).

³³ Urquijoren alean bi esku ezberdin antzematen dira, baina horietako bat bakarrik axola zaigu orain (bien arteko aldeaz, ik. § 2.2.2).

³⁴ XVII. mendeko inprimatuak eurak nekez heldu zaizkigu, eta batzuk galdu ere galdu dira, hala nola Materren dotrinaren, Etxeberriren *Noelak* eta *Elizara erabiltzeko liburua*-ren lehen argitalpenak (1617, c. 1630 eta 1636, hurrenez hurren). Oso oker ez bagaude, inprimatuak izan ziren euskal liburuaren lehen eskuizkribuak XVIII. mende bukaerakoak dira gehienez, eta guk behintzat Hegoaldeko

Hipotesia bermatzen dute eskuzko zuzenketen eta *Geroko gero*-ko irakurketen artean dauden ezberdintasunek: honen maneatzaileak — zehazki konposatzaileak, gure ustez—³⁵ badirudi bakan batzuetan ez zituela ikusi zuzenketa txikiak, hala nola *gogoetey gogoetey*-en ordezt (<y> <z>-ren gainean eskuz; 205-5) edo *baguèc ba-gueac*-en ordezt (<e> gainean azentua eskuz, eta <a> marraturik; 241-28/29).³⁶ Halaber, zuzenketa handixeago bat behintzat ez zuen behar bezala ulertu: *concupiscentiae, quam [malebam expleri quam] extingi* perpaus zatian (30-19) taket artekoa osatu beharrean, eskuak iradoki bezala, *concupiscentiae malebam expleri quam extingi* zuzendu zuen.

Salaberriren hipotesia egiantzekoa izateaz gain, emankorra da Axularren testua finkatzeko, zeren eta *Gero*, *Geroko gero* eta eskuzko zuzenketen arteko kronologia erlatiboa ezarri baitu, eskuzko zuzenketa *Geroko gero*-ren konposaketa baino lehenagokoak direla erabakirik edo, beste era batera esanda, *Gero*-ren eskuzko zuzenketa *Geroko gero*-n erabili direla, eta ez alderantziz. Haren etekin nagusia, hortaz, pasarte hauetan eskuak idatzi zuena Axularren originaleko irakurketetat jotzeko aukera garbia ematea da, auzi filologikoa konpondu eta aurreko argitalpenetako tarteko irtenbideak (taket artean eranstea, oharrean azaltzea, etab.; cf. § 2.2.2) eta zalantzak alde batera utzirik.

Millanges-eko zuzentzaileak, guri dagokigunez, nagusiki bi zuzenketa mota egin zituen: handiak, hitz batekoak edo gehiagokoak, eta txikiak, letra bat, bi edo hirukoak. Hitzak edo pasarte osoak eransterakoan, eranstekoa bera orri bazterrean eman ohi zuen, eta eransteko puntua lerro gainean marra luze batez markatu, baita aldi berean lerro azpian txertatzeko ohiko markaz ere (ikus, adibidez, faks. 157-28ko zuzenketa, non *orduco* erantsi baitu *valioco du* eta *vrthea*-ren artean).

zenbait baino ez ditugu gogoan: Añibarrorenak (Altzibar 1992), Agirre Asteasukoarenak (F. Altuna 1999), frai Bartolomerenak (Urkiza eta Baraiazarra 2000) eta Lardizabalenak (Urgell 1999). Kontuak zuzen ateratzeko, gogoan har dezagun ez bide dugula eskuizkribu bana galdu, bina baizik: egilearen autografoa eta inprentako kopia. Teorian behintzat: Añibarrok behinik behin, berak presatzen zituen inprentako kopia txukunak (Urgell 2001: xxxix). Nolanahi ere den, behin ere ez da gorde inprentakoa, dakigularik, Lardizabalen kasuan izan ezik (cf. Urgell 1999: xviii-xxi), aurreko zirriborroak edo direnak bakarrik baizik. Esan gabe doa galera honek inprentako lanaren nondik norakoak —puntuazioa eta grafian izan zituzten esku hartzeak, bereziki (§ 1.2)— aztertzea biziki zailduko digula. Cf. «Gogoan har bedi liburua inprimatu ondoren, [Espainian] *originala* batzuetan Kontseiluan [liburuari baimena eman behar zion Errege Kontseiluan] gelditzen zela (honegatik gorde dira hainbeste), eta lehenagoko autografoa Cervantes-en [hots, egilearen] eskuetan egongo zela» (Rico 2005: 266; itzulpena gurea).

³⁵ Orain arte bildu ditugun datuen arabera, egiantzekoa da Millanges-en etxetik eskuz zuzendurik irten ziren *Gero*-ren aleetako batean bertan gure apaiz euskaldunak bere zuzenketa eta eransketak ere egin izana eta, ale hori inprentako langileen eskuetan utzirik edizio berria para zezaten, ez dirudi ardurarik edo betarik izan zuenik proba zuzenketa ere parte hartzeko.

³⁶ Salaberrik (2008: 50, 27. oh.) aurkakoa azpimarratu du, arrazoiz egia esan, alegia, «...editore berriek arreta itzela jarri izan zuten lehen edizioko testuan eskuz zuzenduta zeudenak ezin artezago ematen eta, nonbait ondo inprimatua zegoena automatikoki ondo aterako zela edo pentsatuz, ez zuten horrenbeste arreta jarri beste gutzian eta, azkenerako, akatsez hornitua kaleratu zuten edizio berria».

Ordezkatu behar ziren hitzak ere lerro gaineko marra luzeaz markatu zituen (adib., *complecino* > *condicino* faks. 355-4) edo gainetik marratuz (adib., *enayte-* > *anarte* faks. 51-30). Letra kontua denean, orri bazterrean gabe, testuan bertan zuzendu ohi zuen, letra lekuaren gainean jarriz eta lerro azpian txertatzeko marka (adib. *labuzqui* > *laburzqui* faks. 82-6 edo *Iaincac* > *Iaincoac* faks. 159-1) edo hitz artean erantsiz (adib. *har* > *harc* faks. 130-10), lehengoaren gainean bertan idatziz (adib. *cines* > *cinez* faks. 15-23, *errex* > *errax* faks. 90-29) edo letra ezabatuz ezabatzea denean kontua (adib. *heriotceac* > *heriotcea* faks. 217-21, *duguo* > *dugu* faks. 250-13).

Salaberriren arabera eskuzko zuzenketak izanik gorde diren hiru aleetatik guk bi —G eta AK-720— soilik ikusi ahal izan ditugu. Bion erkaketaren bitartez, eskua bera dela egiaztatu ahal izan dugu, eta zuzendutakoak bietan bat datozela ehuneko oso gora batean. AK-720 alearen egoera eskasak, ordea, orrialde batzuetako zuzenketak bakarrik erkatzeko modua baino ez du ematen. Dena dela, gutxi batzuetan AK-720 aleak G-k baino eskuzko zuzenketa gutxiago ditu: *laxter* > *laster* (94-11, faks. 168-29), *hutzteaz* > *utzteaz* (116-13, faks. 210-9), *Cyrana* > *Lyrana* (121-19, faks. 220-7 *in m.*) eta *baten* > *bateâ* (125-37, faks. 230-3) eskas ditu, esaterako.³⁷ Honek zalantzaren bat sor lezake zuzenketa txiki zenbaiten egileaz, beti ez baita argi-argia esku honek eginak direnontz: letra marratzea edo marra ñimiño batez *e* > *a* bihurtzea ez da, jakina, esku zehatz bati egozten erraza. Haatik, letraren bat agertzen denean (*laster*-eko *s*, adibidez) esku berarena da beti. Gure ustez, hortaz, honek esan nahi du Urquijok bereziki zaindu zen ale bat erdietsi zuela. Gainerakoan, zentzuzkoa iruditu zaigu honen alean zehar ageri diren halako zuzenketa txiki guztiak —asko eta asko letra berekoak argi eta garbi, eta guztiak edo gehien-gehienak zuzenketa ziur eta zuzenak, honela esan badaiteke— ustezko inprentako zuzentzaileari egoztea (ik. § 1.3.2).³⁸ Urquijorena balitz zuzenketok egin ziren ale nagusia edo lehena, ulergarria litzateke honen arabera egindako gainerako aleetan zuzenketa txiki zenbait itzuri izana.

1.3.3. *Silvain Pouvrearen alea ote?*

Berriki Etxagibelek (2014: 189-194) hipotesi ausart bat egin du *Geroko gero* egiteko erabili zen ale zuzenduaren gainean: haren ustez, baliteke Pouvreauk erabili zuen ale bera izatea.

Lehenik eta behin, Pouvrearen lekukotasunak ere bermatzen du XVII. mendearen 60ko hamarkadan —Axularren iloba hil ondotxoan, alegia— eskura zegoen argi-

³⁷ Salaberrik ere (2008: 53, 76. oh.) seinalatu du lehendabizikoa, baina ez *Lyrana* zuzenketarena, eta beste biak ez dira bere zerrendan ageri.

³⁸ Salaberrik (2008: 49-50) irizpide gisa zuzenketak *Geroko Gero*-n ere agertzea erabili du; zuhurra da, baina, gorago erakutsi dugunez, laburregi gelditzen da, argitalpen berriaren konposatzaileak ez baititu beti zuzenketok ikusi (edo agian bere aleak, AK-720 aleak bezala, batzuk eskas zituen).

talpen bakarra 1643koa dela, hauxe baliatu baitzuen hiztegiak (Vinson 1891-1898: 88; Urquijo 1909: 509-510); oster, 1730 inguruan Larramendik — eta berdin haren ondoko guztiek — jadanik bigarrena baino ez zuen ezagutzerik izan (Urgell 2005).

Honetaz dena dela, badira Pouvreauk hiztegian jasotzen duenaren eta *Geroko gero*-n agertzen denaren arteko kidetasun harrigarri zenbait, gorago seinalatutako bigarren edizioaren eransketa azalgarrietan batik bat: Etxagibelek iruzkintzen dituen artean deigarrienak dira hiztegian *argui vrratcea* Axularren jatorrizko *art-vrratce*-aren aldean agertzea (328-20), eta *erremusina* eta *limosna* esanahikide pare (121-1). Berebat, badirudi Pouvreau bera dela *edergailu* izentzat ulertu eta erabili zuen lehendabiziko idazlea (cf. *OEH*, s.v.), nahiz Axularrek aditzondo modura darabilen (186-1); hiztegian hala jaso zuen, hain zuzen *Geroko gero*-n lehendabizikoz agertzen den *edergailluz* adizlagunarekin batera. Etxagibelek bildu aztarnei erants dakieke *geroko* > *gerokotz* aldaketa (1-7, 28-27; ik. 20. oh.), bigarren forma baita, izan, Pouvreak itzulpenetan darabilena.³⁹ Hauxe da Etxagibelek honelako datuetatik atera ondorioa:

Horrenbestez, galde daiteke halabeharrari gehiegi ematea ez ote den *Guero* *guero*-n dauden sei aldaketa garrantzizko horiek — *Guero*-ren ale eza-gunetan inprintako zuzentzaileak egindakoen artean agertzen ez direnak — Pouvrearen hiztegian era batera edo bestera agertzea eta, areago dena, Pouvrearen joera ezagunak islatzea (elkartuetako osagaiak azalertzeko eta sinonimo pareak biltzeko joerak). Demagun Pouvreauk *Guero* irakurri ahala horrelako oharrak egin zituela bere eskuz liburuaren ertzetan edo. Eta demagun Pouvrearen *Guero*-aren alea *Guero* *guero* moldatzeko erabili zela: horrela balitz, baliteke bere eskuzko zuzenketak inprinta zuzentzailearenak balira bezala zuzendurik eta inprimaturik geratzea. Horrek azalduko luke *Guero* *guero* edizioan agertzen diren zenbait aldaketaren zergatikoa (Etxagibel 2014: 194).

2. Aparatu kritikoaren azalgarria

Hemen aurkezten dugun edizio motak, esan bezala, Axularren *testu kritikoa* edo *testu garbia* eskaintzen dio irakurleari, liburuaren irakurketaz goza dezan. Alabaina, gure eskuetan egon den lan kritiko guztia egin dugu, eta alde honetatik esan dezakegu *edizio kritikoa* ere badela, eskaintzen dugun *testu kritikoa* ez baitago egiterik aurretiaz edizio kritiko lana egin gabe (cf. Sánchez-Prieto 1998: 69-70). Derragun, bidenabar, munduan zehar honek daukan adierarik ohikoenean *edizio kritikoa* ez dela testua jatorrizko grafian ematen duena, baizik eta aparatu kritiko batez lagunduta dakarrena.

³⁹ Agian ez dagoke soberan gogoratzea, halaber, Pouvreau izan zela <i> dieresiduna gure letretan erabili zuen lehen idazlea (ik. 16. oh.).

2.1. Ohar azalgarriak

Testua irakurketa jarrai eta lasaia oztopa lezakeen orotik ahalik gehiena arintzearren, ohar azalgarri gutxi batzuk baino ez ditugu jarri bertan. Gainerakoak edizioaren atzean daude, «testu-oharrak» izeneko atalean (§ 2.2).

Testuari laguntzen dioten ohar gehienak Villasanteren edizioan ageri ziren berak dira. Diren-direnean eman dira, salbu eta bi kontu xume: alde batetik, erreferentzia bibliografikoak hemen egungo modura ipini dira; bestetik, orduko kezken berri eman bai, baina gure iritzian gaurko irakurlearentzat sobera legokeen bat edo bat ezabatu ere ezabatu dugu, eta besteren bat laburtu.⁴⁰

Mitxelenarenak ere (1954a, 1974) jaso ditugu, Villasantek berak aipatu zituenez gainerakoak. Horrezaz gain, bereziki ilun edo zail iruditu zaizkigun pasarte edo formak azaldu nahian egindako ohar gutxi batzuk erantsi ditugu. Honetarako Lekuonaren oharrak ere berrikusi ditugu, eta berari zor diogu, besteak beste, adizkiak azaltzeko ideia, maiz hauek baitira —batez ere arkaikoak direnean— eragozpen nagusiak gaurko irakurlearentzat. Azkenik, kontuan izan bedi hasieran, duela sei urte, Villasanteren gaztelaniazko itzulpena ere emateko asmoa zegoela: honegatik, haren interpretazioa hobetu nahiz egindako oharrak ere badira tarteka.

OEH-ko erreferentziak liburutik eginak dira maiz: honegatik inoiz (sarrera oso luzea denean) orrialde zenbakia ere eman ahal izan dugu.

2.2. Testu-oharrak

Gehienetan testu-oharrak jatorrizko testua berreraikitzeke erabili ditugun leku-kotasunen (§ 2.2.1) irakurketa ezberdinak emateko eginak dira, hots, «aparatu kritikoa» deritzana besterik ez da. Dena dela, batzuetan gure oharrak eta azalpenak ere ageri dira, aparatutik [zeinuaz bereziak. Era askotako oharrak dira, testua editatu ahala garrantzizko edo interesgarri iritzitako guztiak iruzkintzeko edo azpimarratzeko eginak. Ez dute agortzen, ezta hurrik eman ere, testu honek esateko daukana, baina espero dugu baliagarri izatea testuko arazo filologikoez edo haren gramatikaz jakingura dutenentzat.

Aparatu kritikoa positiboa da, hau da, erabilitako lekukotasun guztien berri ematen duena. Oharraren hasieran, gure edizioko orrialde zenbakia eta lerro zenbakia agertzen dira, aurkezpen honetako aipuetan bezalaxe. Aipua hasten deneko lerroa eman dugu testu-oharraren erreferentzia gisa. Ondoren, lehenik, testuan onartutako irakurketa gogoratzen dugu, gaurko grafian testuan bezala; bigarrenik,

⁴⁰ Villasanteren oharretan dauden testuko erreferentzi zenbakiak ere bereak dira, hortaz (ik. § 3.1). Dena dela, banan-banan egiaztatatu ditugu eta baten bat zuzendu ere.

irakurketa hori bermatzen duten lekukotasunen laburdurak, halakorik balego, eta gero irakurketa horren aldaerak eta hauei dagozkien lekukotasunak.

Aldaeren zerrenda neurrigabeki ez luzatzeko eta, batez ere, irakurlearen arreta auzian den aldaketatik ez desbideratzeko, lekukotasunak bilduta ematen ditugu, euren grafia berezitasunei erreparatu gabe, oharraren nondik norakoa grafia horretan ez egotera. Honen barruan, lekukotasun zaharrak ez ezik, Lekuonaren edizioa ere sartzen da, zeren oso irizpide aldakorrek izan baitzituen hasperena markatzerakoan, esate baterako; beraz, ez diegu bere zalantza eta berezitasunei behin ere jaramonik egingo, Axularren testuaren harrerari dagokionez berez interesen bat izan balezakete ere, ez baitigute ezertxo ere esaten testuari buruzko lan kritikoari begira.

Lerro arteko banaketa goitik beherako barraz (/) markatu dugu, eta orri artekoa bikoitzaz (//), esanguratsua den orotan; honelakoetan, marratxoa dagoen ala ez ere kontuz jasota dago (adibidez, ea *gui / çona* ala *gui- / çona* agertzen den).

2.2.1. Gure lekukotasunak

Edizio hau prestatzeko erabili ditugun lekukotasunak (apartu kritikoan eman diren hurrenkeraren jasoak) honako hauek dira:

G = P. Axular, *Guero*, Bordele: G. Millanges. Faks. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988. Urquijoren ale bietatik onena da, gaur Koldo Mitxelena kulturunean gordea (J.U. 3376).

Gbi = Nafarroako Gobernuak *Binadi* liburutegi digitalean denon eskura jarri duen alea, gaur Aita Txotinodunen liburutegian gordea eta behinola Joakin Lizarraga Elkanokoarena izandakoa (Salaberri 2008: 48). Oso ale garbia da,⁴¹ eskuzko zuzenketarik gabekoa,⁴² eta itxuraz oso ondo kontserbatua, salbu eta ertzak, koadernatzeko ebakiak izan baitira, dirudienez, eta honegatik maiz orri bazterreko erreferentziak ere bai.

AK-720 = Azkue Liburutegiko alea, Lacomberen ondaretik etorria. Hauxe da Euskaltzaindiaren liburutegiko fitxan jasotako informazioa (ap. Salaberri 2008): «Azalezatugabeko alea. Ale osotugabea, ataria apurtuta, 3-56, 137-152, 251-262, 265-348, 421-422, 357-358, 411-412, 477-480, 559-560. orrialdeak eta 615.

⁴¹ Garbiegia ere bai, antza denez: Salaberrik (*loc. cit.*) aipatzen duen jabearen izena ez dugu ikusi digitalizatuan: oharkabea nahasi ez bagara, argazkiak garbituak izan direla esan nahiko luke honek. Aleak beren artean ezberdinak direla, eta liburuaren inprimatze eta transmisioari buruzko berri askoren emaile izan daitezkeela dakienak ez luke horrelakorik egingo. Bestalde, harrigarria da oso Salaberrik orri bat ere eskas duela (359-360. or.) esan arren, *Binadi*-ko digitalizatzeak orri hori osoki izatea. Azkenik, Salaberrik zehaztu bezala, «425-432 orrialdeen goiko zatiak kontserbatzailek berreraikiak izan dira eta testuak eskuz kopiatuak. Modu berean jokatu da 433-440 orrialdeetako zuloekin»: eragiketa honen zantzuak bai antzematen dira, nola edo hala, digitalizatuan.

⁴² Ez da erabat egia: gutxienez eskuzko zuzenketa bat antzeman dugu, *seminibus > hominibus* (ik. 147-14 testu-oh.), esku berak edo oso antzeko batek egina.

orrialdetik aurrera ments ditu. Eskuzko oharrak». Euskaltzaindiari esker, haren argazkiak erabili ahal izan ditugu. Argazkiak bereziki onak dira, eta batzuetan ale honetan aurkitu ditugu erraztasunik handienak letra zalantzezkoak egiaztatzeko.

Gesk = Honela izendatu ditugu G alean esku batek (inprentako zuzentzailearenak, agidanez) egindako zuzenketa garrantzizkoak, itxura guztien arabera Axularren auto-grafoa edo haren inprentarako kopia garbia aurrean izanik egindakoak (ik. § 1.3.2).

AKesk = AK-720 alean esku batek, G aleko berberak, egindako zuzenketak markatzeko erabili dugu. Alearen egoera dela eta, zuzenketon tinta batzuetan ez da nahiko genukeen bezain argia argazkian. Irakurketaz ziur ez gaudenean, «garbi ez» jarri dugu taket artean.

GG = P. Axular, d.g., *Guero guero*, Bordelen: G. Millanges. Axularren liburuaren bigarren argitalpen data gabekoa. Vinsonen epaia ontzat eman dugu, hots, XVIII. mende hasierako edizio pirata dela. Gure hipotesiaren arabera (§ 1.3.1), apaiz lapurtar batek hartu zuen bere gain edizioa prestatzeko ardura, eta honetarako Gesk eta AKesk-ekoen berdinak ziratekeen zuzenketak zituen *princeps*-aren ale bat erabili zuen, eta bertan bere zuzenketak eta eransketak ere jaso zituen eskuz; ale hau baliatu zuten inprentako langileek testua berriz orri eta lerroz lerro konposatzeko, bataren eta bestearen zuzenketak ere ahaleginean errespetaturik, baina oharkabean huts berriak egin eta behar bezala zuzendu gabe irten zen kalera. Beraz, honen arabera, Gesk-en aurrean GG bigarren eskuko lekukotasuna da.

GGbfb = *Geroko gero*-ren Bizkaiko Foru liburutegiko alea, sarean kontsultagai. Lehendik erabiltzen ari ginen jatorri ezezaguneko ale fotokopiatuaren akats eta iluntasunak argitzeko baliatu dugu.

L = P. Axular, 1954, *Gero*. M. Lekuonaren arg., Zarautz: Itxaropena. Argitalpen hau berezia da, ziurrenik nork eta noiz egina den jakinik bakarrik uler daitekeena. Bistan da, gure ustez, gipuzkera osoturako joera, batetik, eta testuko letraz letrakoari baino arreta gehiago jarri zaiola irakurketa errazteari. Gaur onartuko genukeen baino hizkuntz aldaketa gehiago eta nahi genukeen baino akats gehiago dituen arren, agerian dago argitaratzaileak begi zorrotzak eta sen handia zuela: testuko hainbat pasarte ondo ulertu zituen, eta ondo azaldu, puntuazioa ederki egokitu zuen euskaraz eta latinez, eta etengabe jaso zituen, behar bezala markatu ere, GG-ko irakurketa ezberdin garrantzizko guztiak.

V = P. Axular, 1976, *Gero*. L. Villasanteren arg., Oñati: Jakin.

2.2.2. Lekukotasunen erabilera

Oinarrizko testu gisa V-tik abiatu gara, esan bezala, betiere honen irakurketak G-koekin erkatu eta zuzendurik. Gure edizioan G-ren irakurketatik aldendu garen bakoitzean informazioa aparatu kritikoan jaso dugu beti. «Betí» horren salbuespen

bakarra <c> <ç>ren ordez egotea da, dudarik gabeko zuzenketak — argitaratzaile guztiek ohartuki zein oharkabean egindakoak — diren orotan. G-ko irakurketak ez dira beti argiak, batez ere esku ezberdinek zuzendu dutelako (edo lardaskatu, noiz nola). Hau gertatzen den bakoitzean, Gbi garbiak — batzuetan baita AK-720 ere — inprentatik ateratako letrak ziren-zirenean ikusteko parada eman digu, eta hau ere hala jasota gelditu da aparatu kritikoan. Dena dela, ez dugu Gbi aipatu, oro har, G-ren irakurketa gardena izanik biak bat datozenean.

G alean idazten aritu diren esku horiek ez dira bat; gutxieneko kontuan letra mota bi ikusten dira, eta jokabide bi. Batak — modernoagoa, guk uste — hasierako orrietan batez ere egin ditu zuzenketak, eta funtsean lexikoan bakarrik;⁴³ izan ere, Axularrenez bestelako iritziak ditu euskal hitzen erabileraz edo, zuzenago esanda, bera baino garbizaleagoa da: *probetxuaz onaz*-ekin (faks. 27-29) ordezkatu du, *desegin galdu*-rekin (faks. 29-224 eta 30-23) eta *frogatzen ikusten*-ekin (faks. 32-15), adibidez. Honen jokabidea (eta euskara) interesgarri den arren, dudarik gabe, gure oraingo asmo honetarako batere axolarik ez duen eskua da. Bestea, berriz, goian Gesk laburdurarekin izendatu dugun eskuzko zuzenketa garrantzizkoen egilea da.

Gure testua eratzeko, Axularren originalekotzat jo eta onartu ditugu Gesk-en irakurketa guztiak, Salaberriren hipotesiari heldurik (§ 1.3): gogora dezagun honen arabera Millanges-en baitako zuzentzailearen batek — ziurrenik 1643an bertan — egindako zuzenketak direla, liburuia inprimatzeko prozesuan, arrazoiak arrazoi, berunetan zuzendu ez ziren kontuak zuzentzearen.⁴⁴ Pasarte hauetan, bai eta susmo edo zalantzaren bat sortu diguten gainerako guztietan ere, baina ez liburu osoan inolaz ere, G-ko irakurketa edota Gesk-ena gure gainerako lekukotasunekin erkatu dugu, eta erkaketa honen emaitzak aparatuan bildu.

Bestalde, aspaldi burutu genuen G eta GG-ren arteko konparaketa osoa, eta lan horren fruitu jakingarrienak ere jasota daude aparatuan.⁴⁵ GG-ren irakurketa ezberdin guztiak ematea, akats argiak ez ezik, letren arteko aldeak (*ç* ~ *c* ~ *z*, edo *in* ~ *iñ*) edo ozen ondoan <ç> ala <tç> jasotzen duen (ez baita sistematikoa, ez koherentea) banan-banan jasotzea alferrikakotzat jo dugu.⁴⁶ Hala bada, GG-tik zer jaso eta zer ez erabakitzerakoan, hiru irizpide izan ditugu gogoan. Lehenik eta behin, *Gero*-ren

⁴³ 34. orrialdean dago esku honek egindako azken oharra. Letra zaila da ulertzen, baina baliteke nafarra izatea, Axularren *permittedu*-ren alboan idatzi zuen *nay icandu çue* oharraren arabera (faks. 29-1).

⁴⁴ Honek ere orain arte Axularren lekukotasunarekin ustez bermatuak ziren aldaera batzuk (cf. § 1.1) aldarazi behar dizkigu: adibidez, *errietatsu* (147-6) ez zen ezinezkoa, beharbada, baina eskuak *errietatsu* zuzendu du, eta *fido* (*izan*) ere hemendik aurrera gainerakoan beti erabiltzen zuen *fida*-ren ordezko akatsa baino ez zela aintzat hartu beharko da (156-11).

⁴⁵ Bitartean Salaberry Muñok (2007b) bien arteko ezberdintasunen erakusgarri zabal bat aurkeztu du, gertakarika antolatua. Bere lagina gurearekin erkatu dugu, garrantzizkorik ezer itzuri ez zaigula egiaztatzeko.

⁴⁶ Halere, zehaztu nahi genuke, jakingarria delakoan, Axularrek baino sudurkariaren bustidura gehiagotan jasotzen duela, eta deigarria da batez ere, hark ez bezala, hitz bukaeran jasotzeko duen joera

testua ahalik fidelena emateko helburu nagusia izanik, egiteko honetan laguntzen ziguten heinean jaso ditugu haren lekukotasunak: gehienetan Millanges etxeko zuzentzailearen lana jasotzera mugatzen da, baina baten batean zuzenketa berea da, dakigularik, eta hori aparatuan islatuta gelditu da. Bigarrenik, balizko paratzaile euskaldunaren hizkuntz ezaugarri direnak edo izan daitezkeenak, hots, oro har bere hizkuntza ezaugarritatzeko balio lezaketela iruditu zaizkigun guztiak. Eta, hirugarrenik, GG euskaldun askok (Larramendik, Añibarrok, Intxauspek...) eskura izan zuten bakarra denez, euren ulerpenean oztopa edo ilun zezaketen irakurketarik nabariak ere emateko ahalegina egin dugu, euskararen historiaren parte diren heinean, hala nola *itzulpide* iratxoa, Larramendik hiztegian jaso eta handik zertxobait hedatu zena (29-27, 29-36; Urgell 2002: 331; cf. *OEH*, s.v. *itzurpide*), edo Añibarro zeharo okertu zuen *eho gabe*-ren ordezkiko *ego gabe* hura (14-32), bizkaierazko itzulpenean *egoa бага* ipinarazi ziona (Urgell 2001: lxi).

Berezko irakurketak —beste ezein ediziok jaso ez dituenak— direnean, bere lekukotasuna bakarrik jaso dugu, egiaztatzeko zerbait izan ezean: honela, ekonomia-aren alde jokatzearaz gainera, uste dugu gardenago ageriko dela euren izaera berezi hori: batzuetan konposatzaileek egindako hutsak besterik ez dira, baina bestetan paratzaile euskaldunak *ope ingenii* egindako zuzenketak dira, oker edo ulergaitza zeritzona zuzentze aldera; hau da, GG-k gorde dizkigu XVIII. mende hasierako euskaldun baten judizioak Axularren hizkuntzari buruz. Horrelako lekukotasun gutxi ditugu, edo ditugunak gutxi aztertuak izan dira, ez jakin, baina urrea balio dute hizkuntzaren historialariarentzat.

Liburuaren historian, aipatutakoez gainera, erabateko garrantzia izan duten beste bi edizio hartu ditugu kontuan: L eta V. Bigarrena, G alearekin batera gure honen oinarri denez, etengabe aipatzen dugu aparatuan, hainbat eta hainbat hobekuntza egin baitzituen testuan.⁴⁷ Horietako batzuk L edizioan egin ziren lehenengoz; honegatik, beraz, bai eta hamaikatzotan V ez bezala (baina zuzen) irakurtzen duela-ko ere, ez sistematikoki, baina bai aukera zegoela iruditu zaigun bakoitzean, Lekuona «zaharrak» egindako argitalpena ere aipatu dugu, nahiz oso gorabeheratsua izan, askotxori liburu zaharrak «erretzea hobe» zeritzen garai hartan *Gero* den bezala argitaratzeko kemena izateari zor zaion errespetua ere erakutsirik, bidenabar.

G eta GG-ren arteko auziari dagokionez ere, L eta V-k ez dute beti berdina jokatzen; aitzitik, V-k Gesk-en proposamen gehiago onartu ditu, isilik onartu ere, G-ren

handia: *eguiñ*, *guztiarequiñ*, etab. Joera berbera dago garai bereko lapurtarretan (Gazteluzar, Xurio eta Haraneder, besteak beste; cf. § 1.3.1).

⁴⁷ Ostera, ez ditugu edizio honetako okerrak jaso, alegia, testua finkatzeko beharrezkoak izan direnez gainerakoak. Zenbait adibide ikus daitezke gorago (1. oh.). Pérez Priegok dioenez (2001: 130): «Komeni da aparatu kritikoa laburra izatea (...). Interes oso handiko kasuetan, aurreko edizio gileen aieruak jaso daitezke (...). Nolanahi ere, Avalor-k (1972: 124) aholkatu bezala, beste edizio gileen akatsak edo aieru okerrak salatzea saihestuko da eta, norberak testuan egindako hobekuntzak azpimarratu nahi izanez gero, badago sarrean edo artikuluan berezi batean egitea» (itzulpena gurea).

irakurketak estaltzen dituzten txikiak batik bat: oster, badirudi orri bazterrekoak ez dituela aintzat hartu (30-19, 34-20, 81-3, 89-22 eta 100-8ko zuzenketa garrantzizkoak, adibidez). Bigarren argitalpena bakanki aipatu du oharretan, gehienetan lehendabizikoaren hutsak zuzentzea edo forma zalantzazkoak egiaztatzeagatik (ik. Villasante 1976: 108, 127, 170, 174, 428, 474, 498, etab.), bakan batzuetan haren irakurketa onartu duela iragartzeko (*ib.* 318, 506, 541 eta 556), eta behin GG-ko irakurketa ezberdinaren berri emateko (*argi-urratze* ospetsua; *ib.* 675).⁴⁸ L-k, berriz, Gesk-en proposamen asko alde batera utzi ditu (cf. *goseac* G > *gose* Gesk, 215-29): itxuraz, Lekuonak oinarrizko testu gisa Gbi-ren antzeko ale garbi bat erabili zuen, hots, eskuzko zuzenketerik gabekoa (edo bestela eskuzkoei ez ikusiarena egin zien), baina ale horren irakurketak GG-koekin konparatzeko lana hartu zuen, eta betiere horren kontu ematen du garbi orri ertzean, zein ere den hartutako erabakia, aparatuan jaso dugun bezala.

2.3. Axularren arkaismoez hitz bi

Arreta berezia ipini dugu Axularren hizkuntzako arkaismoetan, orain arte haren eta oro har lapurtera klasikoaren alderdi honi jaramon handirik egin ez zaiolakoan. Vinsonek (1910: ix) aspaldi eman zuen lapurtera klasikoaren ezaugarri zerrenda laburrean hiru arkaismo ageri ziren, bi graduko artikulua («la double déclinaison en *a* et en *o*»), geroaldiko *-ke* marka («le futur aoristique en *ke*») eta adizki trinkoen ugaritasuna, aoristoa («les préterits en *cezan* et *cedin*») ordurako ez zela ageri azpimarratzeaz gainera. Testua xeheki arakatzerakoan aise ohartu gara hori baino askoz arkaismo gehiagok iraun zutela are kostako lapurteran ere Leizarragaren garaitik aurrera. Ez bide ditugu diren guztiak jaso, baina esperantza dugu jasoen oina emango dutela aurrerantzean honetan sakon dadin. Hona gure zerrenda-txoa, aldean gaia ukitu den lehen oharren zenbakia duelarik.⁴⁹

- *-teke* zehazgabetasuna adierazten (9-5 oin-oh.)
- *baliz* eta *lizateke* forma zaharrak (10-9 oin-oh.)
- *-gidi* erroa (15-9 oin-oh.)
- **ezan*-en *-ke* gabeko ahalera zaharra (18-7 oin-oh.)
- *-te -teke*-ren forma zaharra (18-17 oin-oh.)

⁴⁸ G itsuka edo ia kopiatzeko joera horrek batzuetan ondorio txarrak izan ditu: kasu, *zituztela* laguntzaileak argiki *gorputzak* pluraleko osagarri zuzena eskatu arren (gainerako lekukotasunak bat datoz honetan), *gorputza* dago V-n, G-n azken letra ondo ikusten ez delako, nonbait (ik. 4-24 testu-oh.; honen tankerakoa da 165-27 testu-oharrean iruzkindutakoa ere, besteak beste).

⁴⁹ Aipuok sakabanatu xamartuta direnez, honako laburdura hauek erabili ditugu, gure oharretako erreferentzietan bezalaxe: «oin-oh.» = testuaren azpiko ohar azalgarria; «testu-oh.» = testu-oharra, hots, aparatua kritikokoa.

- ahalera trinko zaharra *-ke* atzizkiarekin (19-2 oin-oh.)
- inesibo arkaikoa (20-9 oin-oh.)
- *-kidi-dun* **edin*-en adizkiak (20-30 oin-oh.)
- artikulu zaharra (23-18 oin-oh.)
- *-rik asko* (28-3 testu-oh.)
- **eradun*-en forma trinkoak (34-33/34 oin-oh.)
- alegiazko adizkien erabilera zaharra (35-7/8 oin-oh.)
- *eratzan* aditza (42-19 testu-oh.)
- hikako adizkien hasperenik eza (75-28 oin-oh.)
- **edun*-en agintera (84-4 oin-oh.)
- *ai-* aurrizkia (96-24 oin-oh.)
- *alba-* aurrizkia (126-8 testu-oh.)
- *zeur-* erroko izenordainak (130-32 testu-oh.)
- *-za* eta *-zate* ergatibo pluralaren adierazleak (177-21 testu-oh.)
- *eduki*-ren hiru pertsonako trinkoak (186-5 testu-oh.)
- *dio-* erako hiru pertsonako laguntzailea (238-10 testu-oh.)
- ahalerazko *-(k)ai* atzizkia (325-34 testu-oh.)

3. Testuaren antolamendua

«Villasanteren espirituaz» hitz egin dugu gorago, gure klasikoaren testua XX. mendeko irakurleengana hurbiltzeko hartu zituen erabakiak izendatzeko. Etsita gaude egingarria ez ezik beharrezkoa ere badela ahalik eta zorrotasunik handiena ahalik eta irakurtzeko erraztasunik handienarekin elkartzea, edukiagatik edo formagatik, edo biengatik, oraindik ere gaurko irakurleengan interesik sor dezaketen hau bezalako idazkietan.

Helburu honekin, bada, hemen ematen dugu Sánchez-Prietok (1998: 69-70) «aurkezpen kritikoa» deitzen duena, *mutatis mutandis* tradizio anglosaxoian *clear text* «testu garbia» deritzana, testuarekiko fideltasunaren eta irakurlearen ulergarritasunaren arteko oreka gorde nahi lukeena, testuak dituen interpretazio arazoak —grafiatik hasita— irakurlearen bizkar utzi gabe.⁵⁰ «Aurkezpen kritikoa» horren

⁵⁰ «Nik neuk, uste dut testukritikaren zorrotzarria maisulanen *clear text*-a egitean datzala, eta gainerrako gutzia horretan ikastea edo sakontzea besterik ez da» (Rico 2005: 324; itzulpena gurea).

barruan grafia, letra larriak, hitzen arteko loturak, azentuak eta puntuazioa sartzen dira. Alde honetatik oso gutxi alden du behar izan gara Villasantek hartutako erabakietatik. Ondoko lerroetan aurkituko du irakurleak gure aldetik egin ditugun eragiketen kontu xehea.

3.1. Zenbakiak

Edizio honetan Axularren testuari egindako erreferentziak oro, gero zehaztuko dugun salbuespena alde batera utzita, 185-7 erakoak dira, honaino lagundu gaituen irakurleak jadanik dakienez: lehen zenbakia bertoko orrialdeari dagokio, eta bigarrena orrialdearen barruan bertan markatuak diren lerroetako bati.

Hala ere, badira beste bi zenbaketa. Garrantzizkoena, Axularren *princeps*-aren orrialdeei dagokiena, <> artean emana da testu barruan bertan, hitza zatikatu behar zuen orotan haren ostean emateaz beste aldaketarik gabe, baina jatorrizko testuan diren zenbaki okerrak zuzendurik (ik. 110-16, 139-34 eta 174-11 testu-oh.), jakina.

Honi dagokionez, kontuan hartu behar da *Gero* eta *Geroko Gero* (hemendik aurrera G eta GG laburdurak erabiliko ditugu) beti bat datozela 440. orrialdera arte. Une honetan, Ef pleguaren hasieran hain zuzen, inprentako oker bategatik G-n bigarren aldiz ezarri ziren 439 eta 440 zenbakiak, 439-440-439-440-441... hurrenkera eraturik. GG-en okerra zuzendu zenez, 440. orrialdetik aurrera betiere bi orrialdetako jauzia dago batetik bestera. Gu G-koari atxiki gatzazkio, eta honegatik errepikatutakoak <439bis> eta <440bis> izendatu ditugu hemen.

Bigarren zenbaketa ezin ezagunagoa da: Villasantek *Gero*-ri ez ezik (1976: xxvi), argitaratu zituen liburu guztiei ezarri ohi ziena da. Ustez, testu barruko koherentziarekin lotua da, hots, gaiaren arabera. Zenbaki lartxo irudi lezaketan arren, ezinbestekoa iruditu zaigu, berak Axularrez egin zituen lan ugari eta bikainetan aipamen guztiak zenbaki horien arabera eginak direla jakinik, erreferentzia hori gabe hein handi batean erabilgaitz suertatuko edota aztertu eta azaldu nahi zuten testuarekin lotura galdurik geldituko ziren beldurrez.

3.2. Grafia

Villasanteren edizioak dagoeneko Axularren liburua gaurko grafiaren arabera aldatua eskaini zuen, biziki eskertu behar zaion benetako *tour de force* bat eginik. Erabaki horri heldu zaio edizio honetan ere. Batetik, orduan ez bezala, egun edozeinek duke jatorrizkoa ikusteko aukera, Euskaltzaindiaren faksimileari esker. Bestetik, Axularren liburua egun ere askoren eskuetan dabilena eta habororenetan ibili beharko lukeena izanik, Larramendik (1745: xxxv) zioenez, dudarik ez dago gozoago eta aiseago irakurriko dela gaurko grafian bestela baino.

XXX

Gaurko grafian emateaz edo grafia modernotzeaz mintzo garenean, uler bedi idazleak bere grafia zaharrarekin adierazi nahi zituen hotsak gure alfabetoko letrekin islatzen saiatu garela, eta ez besterik. Honetan, esan gabe doa, eskuarki Villasanteren erabaki artezak (1976: xxiv-xxv) osoki errespetatu ditugu, baina aldaketa txiki zenbait eginik. Izan ere, egun grafia batua eta honi dagokion ahoskera aski finkatuta daude irakurlearen gogoan, baita grafema eta hotsen arteko zenbait erlazio orduan baino aztertuago ere. Beraz, grafia are gehiago gaurkotzeko parada baliatu dugu, honako aldaketa berriok eginez:

- $i > j$ / — V (*iauna* > *jauna*, *ioan* > *joan*...)
- (i)ñ > in (*baiña* > *baina*...)
- (i)ll > il (*hilla* > *hila*, *trabailu* > *trabailu*...)
- *-tio* latinezko grafia etimologikoa > *-zio* (ik. 38-32 testu-oh.)

Hala ere, Villasantek nahi bezala, zenbait puntutan Axularren bide berezia errespetatu dugu, kutsu zaharra ere osoki ez ezabatzearen, besteak beste:

- hasperena (erran nahi baita, batuan hartutako erabakiak gorabehera)
- grafia etimologikoak: *utzteko*, *arintkeria*... (ik. Mitxelena 1974: 107-108 eta Mujika 2002: 264-266),⁵¹ *perfet-tasun* (179-37), *ingrat-tasun* (261-39), *utz-zailea* (315-36), etab.
- ‘ez + aditza’ bilkurak: *etzara*, *ezta*...
- Hitz hasierako *sC*- grafia etimologiko latindar bakanak: *spiritu*, *skitura*, *skriba*...

Zuzendu ere egin behar izan da grafia pare bat puntutan, Mitxelena maisuaren iradokizunen arabera. Lehendabiziko arazoa kontsonante hasperendunetan ediren dugu: <cc> ez da beti [k^h] herskari hasperendunaren baliokide, maileguetan grafia etimologikoa ere izaten delako, latinezko idazkeraren arabera, alegia. Hona Mitxelenak esana, zehazkiago: «Batuetan, ordea, ezin da [grafien eta hotsen arteko] unibokotasunera heldu. Ezaguna denez, Axularrek *cc* erabili zuen /kh/ adierazteko aurrekoak ez diren bokalen [hots, *e* eta *i*-z beste bokalen] aurrean. Baina ezin ziur egon hala ote den *accordu*, *occasino*, etab. hitzetan (...), non letra bikoitza agian kultura-hitzak izateari zor zaion, eta ez besteri: cf. lat. *occasio*, etab.» (1974: 108; itzulpena gurea). Arazo bera dugu inoizka <th> grafiarekin. Mitxelenaren adierazpenak baliatu ditugu ahal zen guztietan, eta gainerakoan *Orotariko Euskal Hiztegia*-

⁵¹ Mujikak bildu datuak eta egin hausnarketak aurrerapen handi bat dira alor honetan; zerbait esatekotan, ebakera eta idazkeraren artean egiten saiatzen den banaketa matizatu genuke, orduko lapurtarrek ahoskatzen zutena ahoskatzen zutela, nabarmena iruditzen baitzaigu ezen, Europako beste hizkuntzetan bezala, idazleok *ahoskatu behar zena* jasotzen ari zirela, hots, denborarekin ahozko hizkuntzan ageri diren uzkurdurak uxatu eta hitzak beren jatorrizko osotasunean agerrarazi nahiz. Honetan ere izan zuten jarraitzailek larramenditarren artean (cf. Urgell 2013: § 4.1.2).

ren irizpideari atxiki gatzaizkio. Esango genuke, dena den, badela hemen oraindik lana auzia garbitu nahiko lukeenarentzat.

Ez dira konpontzen errazagoak txistukarietako arazoak, egun dakigunaren arabera bederen. Mitxelena salatzen zuen Axularren liburuan txistukariak zalantzaz adierazita daudela, batez ere hitz bukaeran, eta halakoak zuzentzea aldeztu zuen, zeren etsita baitzegoen grafia okerrak zirela, «...fuera cual fuere su causa (acaso mero descuido)» (Mitxelena 1974: 108).

s eta *z*-ren arteko banaketari eta *ts* eta *tz*-ren artekoari dagozkienak dira zalantzarik deigarrienak, apika. Testuinguru batzuetan, batez ere hitz bukaeran eta konsonante aurrean, euskaldun askok *s* ahoskatzeko joera dute *z*-ren ordez (*istupa*, ez *iztupa*), eta leku hauetan hala neutraltzearen adibideak izan litezkeenak (*Badituste* 98-34, *cines* 9-11), nola hiperzuzenketak (*uzte* 35-15, *azco* 30-27, 89-3, etab., *escas* 183-12, *ihez* 226-23) aurkitzen dira. Axularren testuan ditugun adibideen ugariak beharbada pentsarazi behar liguke berak ere *istupa* (ik. 226-39) eta *zines* ahoskatzen zuela, batzuetan behintzat. Agian hau izango litzateke Patxi Altunaren interpretazioa (cf. 1990: vii). Mujikak (2002: 201) uste du, ordea, horrekin batera «...frantses ortografian guztiz ohikoa zen jokabide lasaia[k]» ere zerikusia izan duela.⁵²

Mujikarekin bat gatoz, balitekeela indar ezberdinen ondorio izatea. Konposatzaile gaskoien ohitura grafikoek aise eragin zezaketen hitz bukaeran *ts* eta *z*-ren ordez *tz* eta *s* ipintzeko joeran, *-s* erromantzezko ohiko plurala baita, eta *-tz* gaskoierazko zenbait pluralaetan agertzen dena.⁵³ Izan ere, afrikatuak ere (*ts* eta *tz*) sarri agertzen zaizkigu bata bestearen lekuan, arrazoi fonetiko argirik gabe. Beraz, azalpen fonetiko baina, prest egongo ginateke pentsatzera —Mitxelena bezala— gehienetan behintzat okerrak direla. Gertakari fonetikoak badirela ziurtatzeko, behinik behin, *s* apikariaren eta *z* bizkarkariaren arteko neutraltzearen historiaz eta garaian garaiko dialektologiaz dakiguna baina gehiago jakin behar. Batzuetan Milanges-eko zuzentzailearen eskuak (*hutz* > *huts* 33-7, *itzasoan* > *itsasoan* 110-25, *haztean* > *hastean* 141-30, *ihez* > *ihes* 157-29...) eta bestetan GG-k (*hautz* > *hauts* 272-13, *penoz* > *penos* 267-38, *guztua* > *gustua* 322-18...) G-ko txistukari «okerrak» zuzendu dituzte, gure ustea bermatuz.⁵⁴

⁵² Ez da erabat zuzena iritzi hori Aita Altunari egozte. Berak uste zuen idazle lapurtarretan diren *s* eta *z* arteko zalantzek oinarri fonetikoa dutela, bereizkuntza argi bat egin daitekeelakoan baitzegoen, batetik, zalantza ugari dituzten kostatarren (Etxeberri Ziburukoa eta Haraneder) eta, bestetik, egiten ez omen duten saratarren (Axular eta Etxeberri Sarakoa) artean. Oinarritzko arazo bat dago hausnarketa honen azpian, ikasi berri dugunez: Axularren faksimilea begiratu gabe egindakoa bide da, batez beste ez baitugu uste honek Etxeberri Ziburukoak baina zalantza gutxiago dituela. Izan ere, gorabehera hauek zuzentzeko joera izan dute Axularren edizio gileek, ez beti, baina bai oso maiz, aparatu kritikoa egiazta daitekeen bezala.

⁵³ Alde honetatik esanguratsua izan daiteke *arratsean* eta *arratz aldean* formen artean sumatu dugun banaketa (ik. 94-15 testu-oh.), bai baitirudi hitz bukaeran *tz* *ts*-ren ordez errazago agertzen dela.

⁵⁴ Esango genuke zuzenketa gehiago daudela afrikatuetan, deigarriago egiten bide baitzitzaizkien. Bistan da, dena den, gai honek ere hemen ezin egin izan dugun monografikoa eskatzen duela.

Villasanteren joerari jarraiki, hitz bukaerako txistukariak zuzendu egin ditugu, aparatu kritikoan beti aldaketa berri emanez, dena den, geroko ikerketa zehatzagoen zain. Egilearen ahoskeraren zalantzak izan litezkeen orotan (hau da, *istupa* erakoetan), aldaerak analizatu ditugu, eta analisi honen berri eman aparatuan, hala-ber, erabakia gorabehera.

Afrikatu (*ts*, *tz*) eta frikarien (*s*, *z*) arteko oposaketak ere badu arazorik: oso maiz zalantzak daude kontsonante ozenaren ondoan (*l*, *n*, *r*) bataren eta bestearen artean (*ansia* ala *antsia*, *diferentzia* ala *diferenzia*, *bertze* ala *berze*, *sarzen* ala *sar-tzen*...). Etengabe afrikatua aurkitzeak berak esaten digu hauen aldeko neutralteza oso indartsua zela Axularren hizkeran, hain non urdazubiarrak —belarri fina baitzukeen (Mitxelena 1974: 108, 3. oh.)— maileguren erromantzezko idazkera arauak hausteko kemena izan baitzuen.⁵⁵

Erabakia argia zenean, maizenik agertzen den formaren alde berdindu ditugu grafiak —bidenabar, betiere afrikatuaren alde—, zeren eta uste baitugu <tc> eta <tç> bezalako digrafoetan ezin errazagoa dela oharkabea <t> alde batera uztea, eta euskara lantzen eskarmentu gutxi zuten inprentakoek horretarako joera handia zuketela.

3.3. Puntuazioa

Honi dagokionez ere, gure lehen asmoa Villasanteren erabakiei atxikitzea zen, hitzaurrean dioena oso zentzuzkoa baita, izan: «Puntuazio manerak —hots, komak, puntua eta koma, bi puntuak eta abar jartzeko legeak— ez dira bat ere berdinak orai eta Axularren garaian. Hori gorabehera, gehienetan behintzat, haren usuarioa errespetatu dugu, inoiz edo behin aldatu ttipiren bat egin bada ere» (1976: xxv-xxvi). Alabaina, egin ditugun arakatzeetan iruditu zaigu ez dagoela erabateko koherentziarik: batzuetan Axularrena gorde da, akatsa baino ez izan arren; bestetan aldatu egin da, aldatzeko arrazoi argirik gabe.

Honezkero, aitortu behar puntuazioaren gai honek testu-arazoen bano bu-ruhauste gehiago sortu digula eta, hala eta guztiz ere, baliteke ondorioa asebetetzeko modukoa ez izatea.

Derragun, azkenik, interpretazio grafikoaren alde agertu direla berriki Gómez & Mounole (2013: § 3.2.2.2), arazo berak Iparraldeko testu gehiagotan aurkiturik.

⁵⁵ Zehatzago, Mujikak (2002: 216-218) ikusi du mailegutan afrikatua idaztea Aranbillaga ondoko idazleen kontua dela, afrikatua islatzen dutenen artean Axular dela nagusi, eta *-ntia* amaierako mailegutan ia beti afrikatua dakarrela. Aipagarria da, halaber, txandakatze bat sumatu duela Axularren idazkeran: «Normalean afrikatua idatzi oi duena igurzari [hots, frikari] bilakatzen du atzizkia erantsi eta ondoko silabetan beste txistukari afrikatu bat gertatzen denean: *mintçatu* (4), baina *minçatce-* (17), *minçatçaille* (538)» (*ib.* 218). Arau honek salbuespenak ditu (ik. *mintzatze*-179-8, 249-23 eta 261-6, besteak beste).

Alde batetik, betiere Axularrez gozatu nahi lukeen irakurlea gogoan, ezinbestekoa zen orduko puntuazioa gaurkotzea, hark dituen alferrikako berezitasunak ezabatzea. Bestetik, ordukoak —eta guztiz Axularrenak— badu abantaila bat, gaurkoak ia osoki galdu duena: esan liteke Axularri pulpitan entzun ahal zaiola, non egin zukeen eten labur, non erabateko geldiene, are ia-ia ahotsa non ozendu zukeen ere. Hitz batez esateko, gure iritzian garbia da orduko puntuazioaren zeregin nagusietako bat hauxe zela: ozen irakurtzerakoan arnasaldia markatzea, bai eta, ustez, eten erretorikoak non egin ere.

Erdibidean gelditu gara, bada, Axularren liburuko puntuazioa gure egunotara ekartzean: ez orduan bezain ugari, ez orain bezain urri. Aldaketa nolabaitekoa izanik, zalantza handiak sortu zaizkigu gertakari eta pasarte batzuetan, batera jarri edo bestera interpretazioa makur zitekeenean. Pasarterik zailenetan Lekuonaren gidaritzapean jarri gara, bere edizioan puntuazioa osoki eta ederki gaurkotu baitzuen. Erkatu ditugun pasarteetan egiaztatu ahal izan dugu, gure lasaitasunerako, ia beti bat gatzela hartutako erabakietan. Dena den, hutsak oro guri egotzi beharrekoak dira, jakina.

Puntuazioa gaurkotuz gero, ezinbestekoa zen kakotxak ere erabiltzea. Gure asmoa ez da izan maiz egiten dituen latinezko aipuen itzulpen eta egokitzapenak oro kakotx artean sartzea, baizik eta bereziak izateagatik hala eskatzen dutenak bakarrik, hala nola estilo zuzeneko hizketaldiak, jarduna eteten duten hitzez hitzeko aipuak, egileek lehen pertsonan egindako gogoetak edo bigarren pertsonan egindako erregruak, eta abar.

Paragrafoen banaketari dagokionez, oro har Villasanterena errespetatu dugu, eta berak, bere aldetik, oro har *princeps*-arena. Hala eta guztiz ere, formakako konposatzea dela eta esandakoak gogoan hartzen baditugu (§ 1.2), argi dago gai honetan ere hurrengo edizioek zereginik izango dutela. Honelakoetan, senari jarraituz edota Villasante eta Lekuonaren erabakiez fidatuz, paragrafoen banaketan egokitzapenen bat ere eginak gara.

3.4. Hitz banaketa

Honetan ere ez dugu lan handirik izan, Villasanteren testuak dagoeneko zamaika kontu konpondu baitzituen. Dena dela, ordutik hona aldatu diren zenbait ohituratan *Hiztegi Batua*-ri atxiki gatzazkio, noski, eta honek jaso ez dituenetan senari edota usadioari. Izan ere, Axularren hitzak literatur euskararen ohiko, edo ezagun bederen, aspaldi bihurtu direnez, ia ez dago gaurko idazkeran ebatzia ez denik.

Edonola ere, kontuan hartzekoa da orain bilduta idazten ditugun batzuk orduan ez zeudela oraindik erabat lexikalizatuta: beraz, *gaitzetsi* adibide guztietan honela eman badugu ere, behin ezinezkoa zen: *hain gaitz esten zuten* (18-22). Egoera ber-

tsuan daude *nornahi* eta *nolanahi* bezalakoak, bilduta emateko oztoporik izan ez arren: cf. *Nornahi den eta nolakoa nahi den zarella* (226-5/6).

Erabakia ez da erraza izan, ostera, *agatik* postposizioan eta *arazi* aditzean, informazio historiko garrantzizkoa estaltzeko arriskua baitzen: lehenengoa gaurko modura bilduta eman badugu ere (adib. *erranagatik* edo *zahartuagatik*), *athera agatik* adibide argiak —eta bakarrak— erakusten du Axularrek bereiz idatzi ez ezik, [partizipioa + *agatik*] analizatzen zuela (ik. 127-8 testu-oh.); bigarrenean, ordea, egoera bertsua izan arren, ez gara aurreratu *arazi* biltzera, egungo euskaraz beste oinarririk gabe hamaikatxotan bokal berdinak batu beharko zirelako (adib. *trabaila arazi* > *trabailarazi*) eta dardarkaria neutraltzen zela suposatu (adib. *bihur arazi* > *bihurrarazi*). Fonetikari dagozkion loturak, berriz, gorago azaldu ditugu (§ 3.2).

3.5. Azentua

Villasantek gorde egin zuen halako maiztasun batez *e* bokalaren gainean agertzen den azentua, zalantza baitzebilen «azentu horrekin *e* luzea edo bikoitza aditzera eman nahi ote zuen, baina hori ez dago bat ere garbi» (1976: xxv). Gaia gure aldetik azterturik, hauxe esan dezakegu: oro har, *e* bokalak bakarrik darama, bi aldetara jarria (*é* zein *è* erara berdin), salbuespen urri hauekin: *gorabeherà* (faks. 176-2/3), *amàgana* (faks. 476-21) eta *zeròk* (faks. 494-15). Liburu guztian zehar markatzen da *e* bokalaren gaineko azentua, baina defektiboki. Zeregin nagusi bakarra du: *a-z* edo *e-z* amaitzen diren hitzetan deklinabideko zenbait kasutan gertatu bokal batuketa eta asimilazioen ondorenak (*a + e* zein *e + e > ee > e?*) markatzea:

umètara (faks. 11-12), *obrèk* (faks. 17-3/4), *gerlèkin* (faks. 27-25), *antsi-kabèn* (faks. 28-2), *artéz*, *sarèz* (faks. 341-4), *gorèn* (faks. 344-23), *gauzétan* (faks. 374-12), *tragazéz* (faks. 379-25), *legètan* (faks. 405-21), *emazténtzat* (faks. 406-14), *emaztèi* (faks. 406-17), *tormentèk* (faks. 429-27), *maiténa* (faks. 564-29), etab.

Badirudi, beraz, silaba horien nolabaiteko erliebe fonikoa azpimarratzen zuela. Gauza da ez gutxitan bokal bikoitza ageri dela *é* agertzen den testuinguru berean (cf. *amén* faks. 476-19 vs. *ameen* faks. 24-27), baliokideak bailiran:

adiskideek (faks. 28-21), *arantzeek* (faks. 79-4), *semeen* (faks. 115-3), *pe-neetara* (faks. 139-24), *jendeekin* (faks. 146-20), *gauzeen* (faks. 154-14), *gauzteen* (faks. 171-19/20), etab.

Adituek erabaki beharko. Salbuespenak edo salbuespentzakoak ere oso urri dira, hain non hemen bilduta emateko moduan baikaude:

zètèn kolpez (faks. 35-26), *presentètik* (faks. 45-1), *zorrèn* (faks. 242-2), *Gizonèk* (faks. 253-11), *eritasunèn* (faks. 285-23), *jentilén* (faks. 351-30), *plazerèn* (faks. 352-7), *bertzeréntzat* (faks. 406-13), *onén* (faks. 445-14), *dirén* (faks. 469-2/3), *handienèk* (faks. 491-9), *bizitzé* (faks. 507-1), *parétetan* (faks. 568-13).

Errepara dakioker genitibo pluralaren maiztasun erlatiboari (hau ere **a* + *e*-tik sortua), batetik, eta bestetik, badirudi intuitiboki denak ere azentuera islatzeko aha-legendaren ildokotzat eman daitezkeela. Gauzak honela, kentzea erabaki dugu, azentuetara ohitua ez den gaurko irakurlearen mesedetan.

3.6. Latinezko testuak

Gidor Bilbaok tesian (2006b) Etxeberri Sarakoarena letraldatzeko erabilitako irizpideei atxiki gaitzaizkie. Hauek dira hartutako erabakiak:

— <u> eta <v>ren arteko banaketa estandarra berrezarri dugu, baina <i> eta <j>rena bere hartan utzi dugu.

— Oro har gure testuan ez dago diakritikorik, salbu eta à preposizioan, non maiz agertzen baita. Salbuespenak: *attentè* (faks. 14-4), *verò* (faks. 28-16), *Cùm* (faks. 28-17), *malé* (faks. 39-7), *Quòd* (faks. 40-15), *fortè* (faks. 69-8), *mané* (faks. 140-4), *Israël* (615-22). Euskaraz bezala, hauek guztiak ere kendu ditugu.

— Puntuazioa euskarazko testuan bezala hemen ere gaurkotu dugu. Honetarako, Lekuonak latinez gu baino nahikoa hobeto moldatzen zela jakintzat emanik, harena baliatu dugu, oso salbuespen gutxirekin.

— <ae> eta <oe>ren arazoa, aurrekoak baino zertxobait korapilatsuagoa da: antza denez, oso normala da <ae>, <oe> eta <e> soilaren arteko gorabeherak egotea «neolatina» deritzan latin berantiar honetan, eta ediziozileen artean ez dago adostasunik, banaketa klasikoa (etimologikoa) berrezarri ala dagoen-dagoenean utzi behar den. Hala gertatu da Axularren ediziozileen artean ere: Lekuonak harena gorde, eta Villasantek zuzendu. Bilbaoren irizpideari jarraiki, eta bidenabar Lekuonarenari ere, guk bere horretan utzi dugu Axularrek dakarrena, honelako xehetasunak bere iturriaren aztarna gisa baliagarri izan daitezkeelakoan.

3.7. Aipuak eta haien erreferentziak

Axularrek aipatzen dituen testu ia guztiak gutxi-asko ezagunak eta eskuragarriak izan arren, aurreko mendeetan kultura klasikoak izan zituen transmisio bideek oso lanbide zaila bihurtzen dute bere iturri zuzenen bilatzea, egiantz handiz maiz ez baitira aipatutako liburuak eurak, era bateko edo besteko aipu bildumaren bat edo batzuk baizik, hots, Salaberrik (1998b: 249) «mediatizazioaren hipotesia» deritzana. Berrikitan Gidor Bilbaok (2014) hipotesia baino gehiago dela erakutsi du, Axularrek hainbat *exempla* eta aipuren iturri gisa baliatu bide zituen bi obra ezagutzera eman baititu: Theodor Zwinger-en *Theatrum humanae vitae* (1565) Errenazimenduko entziklopedia eta Juan de Torres-en *Filosofía moral de príncipes* (Burgos, 1596).

Dena dela, *mediatizazioaren hipotesiak* ondorio ezagun zenbait ditu testuari begira: Axularren aipuak askotan ez datoz bat hitzez hitz eskura dugun delako liburuaren bertsioarekin. Filologiaren legeak diosku ez dugula eskubiderik, ez eta ziorik ere, egilearen bertsioa aldatzeko: izan ere, tarteka euskarazko testuak bermatzen du Axularrek erabili latinezko bertsioa, arrazoiak arrazoi, ezberdina zela; esate baterako, *Ne forte sufficiat et nobis* aipua (Mt 25, 9) *vobis et nobis* zuzendu zuen Lekuonak, baina euskaraz *geuretzat* bakarrik dio (ik. 41-15 testu-oharra).⁵⁶ Desadostasun hauek markatzea ezinbesteko urratsa da egunen batean haren iturri zuzenak aurkitu ahal izateko.⁵⁷ Oso antzekoa da erreferentzien kasua: behin baino gehiagotan egiaz-tatu ahal izan dugu okerrak direla, edo ezberdinak direla eskura ditugunekiko bederen, baina ez dakigu Axularren okerra den, ala bere iturriarena: azken hau balitz, berriro ere iturri zuzena aurkitzeko modua izango litzateke. Arrazoi beragatik ere, ez ditugu normaldu ezta era askotara agertzen direnak ere (*Chrys.*, *Chrysost.*, etab.).

Aurreko ediziozileak ez dira iritzi horretakoak izan.⁵⁸ Filologiaren ikuspegitik bekatutzat jo beharrak bagara ere, aitortu behar dugu lagungarri izan zaigula desadostasunak aurkitu eta markatu ahal izateko, baina ez gara tarteka baizik honetara eman, egokiera aurkitu dugunean. Aipuez eta haien egileez aurkitu dugun informazio beharrena aparatuan bildua aurkituko du irakurle jakingurak.⁵⁹

Akats txikiak, konposatzaileari egozteko modukoak direnak, <u> <n>ren orde-z eta antzerakoak, hauek zuzendu egin ditugu, jakina.⁶⁰ Dena dela, aparatuan aurkituko du irakurleak betiere honen aitorra.

Amaitzeko, gogoan har bedi hala aipuen erreferentziak nola Materren grafia-
ren araberrako aldaerak denak agertzen direla orri ertzean *princeps*-ean. Lehenak Villasantek jarri lekuan berean erantsi ditugu guk ere testu barruan. Bigarrenak aparatu kritikoan jaso dira, *in m.* «in margine» laburdurarekin.

Bibliografia eta laburdurak

AGUD, MANUEL & ANTONIO TOVAR, 1988-1994, *Materiales para un Diccionario Etimológico de la Lengua Vasca*, ASJU 22:1etik aurrera atalka aterea lehenik, eta gero ASJU-ren 13 (*a-ardui*), 19 (*ardun-beuden*), 24 (*beule-egileor*), 26

⁵⁶ Bitxiagoa da *corde > sinu* zuzenketa, Gesk-ek egina: bi aukerak onak dira, Vulgataren bertsio ezberdinek bermatuak, baina euskarazko testua zuzenketarekin bat dator (ik. 121-12 testu-oh.).

⁵⁷ Oso irakasgarria da, alde honetatik, Gidor Bilbaok (2006b) Etxeberri Sarakoaren iturriez egin duen lana.

⁵⁸ Adibidez, *experientiam experimentum*-ekin ordezkatu dute Lekuonak eta Villasantek (13-23), *profundam profundum*-ekin (63-14) eta *plane maxime*-rekin (74-13); berriz, *Quum* akastuna bata *Quoniam* eta besteak *Quam*-ekin (160-10). Halaber, erreferentzia anitz zuzenduak dira, batez ere Villasanteren edizioan (ik. 14-19, 53-23, 57-18 eta 65-7 testu-oharrak, besteak beste).

⁵⁹ Axularren aipuak Salaberri Muñoak (1998b, 1999) xehe-xehe aztertu ditu erretorikaren aldetik.

⁶⁰ Adibidez, *polita da videbimus* (G, GG, V) vs. *ridebimus* (Gesk, L; 160-11) aukera, Gesk-ek zuzendu ez balu ere *ridebimus* zuzendu beharrekoa, euskaraz *irri egin* agertzen denez gero.

GERO

(*egiluma-galanga*), 30 (*galani-iloza*), 33 (*ilpiztu-korotz*) eta 37. (*korpa-orloi*) gehigarrietan.

AGUSTIN, *Conf.* = *Confessiones*, James J. O'Donnell Pensilvaniako Unibertsitateko irakasleak sarean eskainitako bertsioa: <<http://ccat.sas.upenn.edu/jod/latinconf/8.html>>.

AGUSTIN, *IIGG* = <<http://www.sant-agostino.it/>>.

ALTUNA, FIDEL, 1999, *Juan Bautista Agirre. Erakusaldiak. Antologia*, Klasikoak 86, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.

ALTUNA, PATXI, 1987, «Axularren eta Sarako Etxeberriren hizkera», *II. Euskal Mundu Biltzarra. Euskara biltzarra*, 1: 233-250.

———, 1990, *Ioannes de Haraneder. Jesu Christoren Evangelio Saindua*, Bilbo: Euskaltzaindia.

ALTUNA, PATXI & JOSE ANTONIO MUIKA, 2003, *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neurtitzak*, (Iker 15). Bilbo: Euskaltzaindia.

ALTZIBAR, XABIER, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak. Mogeldarrak, Astarloatarrak, Frai Bartolome. Nortasuna, idazlanak, grafiak*, Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.

AULO GELIO, *Noctes Atticae* = <<http://www.thelatinlibrary.com/gellius/gellius1.shtml>>.

AVALLE, D'ARCO SILVIO, 1972, *Principi di Critica Testuale*, Padova: Editrice.

AxH = Villasante 1973.

AXULAR, PEDRO DE. Ikus gorago (§ 2.2.1).

AZKUE, RESURRECCIÓN M.^a DE, 1923-25, *Morfología Vasca*, Faks. Bilbo: LGEV, 1969.

BILBAO, GIDOR, 2006a, *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*, Gasteiz: UPV/EHUko tesi argitaragabea.

———, 2006b, «“Eztut jeusic neure baitharic ekharri, ez eta ere autoretan causitcen ezten gauçaric isquiribatu”: Etxeberri Sarakoaren asmatze-lanerako iturriak», *ASJU* 40, 161-220.

———, 2014, «Obras de referencia latinas y otras fuentes en el Gero (1643) de Axular», in I. RUIZ ARZALLUZ, A. MARTÍNEZ SOBRINO & *et al.* (arg.), *Estudios de Filología e Historia en honor del profesor Vitalino Valcárcel*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU, 1, 151-168.

CATACH, NINA, 2001, *Histoire de l'orthographe française*, Paris: Honoré Champion. *Catholic Encyclopedia* <<http://oce.catholic.com/index.php?title=Home>>.

XXXVIII

Corpus Thom. = Santo Tomas, *Corpus Thomisticum* eta *Index Thomisticus*, by Roberto Busa SJ and associates, <<http://www.corpusthomisticum.org>>.

DESGRAVES, LOUIS, 1995, *Dictionnaire des imprimeurs, libraires et relieurs de Bordeaux et de la Gironde (XVe-XVIIIe siècles)*, Baden-Baden & Bouxwiller: Valentin Koerner.

EH = Sarasola 2007.

EKC = *Euskal Klasikoen Corpora*. UPV/EHUko Euskara Institutua: <<http://www.ehu.es/ehg/kc>>.

ETXAGIBEL, JAVIER, 2014, *Pouvreauren hiztegia testukritikaren eta metalexikografiaren argitan*, Gasteiz: UPV/EHUko tesi argitaragabea.

GASKELL, PHILIP, 1999 [1972], *Nueva introducción a la bibliografía material*, Gijón: Trea. C. Fernández Cuartas eta F. Álvarez Álvarez-en itzulpena.

GISBERT, A. & M.L. ORTELLS, 2005, *Catálogo de obras impresas en el siglo XVII de la Biblioteca Histórica de la Universitat de València*, València: Universitat de València.

GÓMEZ, RICARDO & CÉLINE MOUNOLE, 2013, «Euskara zahar eta klasikoa», in J. Gorrochategui, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurilaritza (argitaratzeaz).

GREGORIO = *Sancti Gregorii I Magni Romani Pontificis XL Homiliarum in Evangelia libri duo*, <http://www.documentacatholicaomnia.eu/01p/0590-0604,_SS_Gregorius_I_Magnus,_XL_Homiliarum_in_Evangelia_Liber_Secundus,_LT.pdf>.

HARITSCHELHAR, JEAN, 1999, «Gero-ren bi parteak», *Lapurdum* 4, Numéro Spécial 1, 105-118.

HIERONYMI, *Vulgata. Hyeronimiana versio*, <<http://www.intratext.com/X/LAT0001.htm>>.

LAFON, RENÉ, 1944, *Le système du verbe basque au XVIe siècle*, Faks., Donostia: Elkar, 1980.

LAKARRA, JOSEBA A., 1996, *Refranes y Sentencias (1596). Ikerketak eta edizioa*, (Euskararen Lekukoak 19). Bilbo: Euskaltzaindia.

LEKUONA, MANUEL, 1954, «Aitzin-solas», in Axular, *Gero*, M. Lekuonaren arg., Zarautz: Itxaropena.

MARTÍNEZ DE SOUSA, JOSÉ, 2002 [1987], *Pequeña historia del libro*, Gijón: Trea.

MARTÍNEZ PEREIRA, ANA, 2011, «El Quijote en la imprenta: orden de composición y orden de impresión», in C. Strosetzki (arg.), *Visiones y revisiones cervantinas*.

Actas selectas del VII Congreso Internacional de la Asociación de Cervantistas, Alcalá de Henares: Centro de Estudios Cervantinos, 565-577.

MDELV = Agud & Tovar 1988-1994.

MIGNE, PG = Jacques Paul Migne, 1857-1866, *Patrologia Graeca* (161 lib.), Paris: Imprimerie Catholique.

MIGNE, PL = Jacques Paul Migne, 1844-1855, *Patrologia Latina* (217 lib.), Paris: Imprimerie Catholique.

MITXELENA, KOLDO, 1954a, «II. eraskuna. Iztegitxo», in Axular, *Gero*, M. Lekuonaren arg., Zarautz: Itxaropena, 463-469.

———, 1954b, «Axular. *Gero*. IV argitara-aldia Euskaltzaindiko Lekuona apaizak prestatua eta aitzin-solastua. Euskaltzaindiaren ardurapean. Zarautzen Itxaropena irarkolan, 1954 [erreseina]», *BAP* 10:2-3-4, 388-389.

———, 1964, «Bibliografía. *Pedro de Axular. Gero (Después)*. Introducción, edición y traducción de Luis Villasante, O.F.M. (de la Academia de la Lengua Vasca). Espirituales españoles, Juan Flors, Editor. Barcelona, 1964 [erreseina]», *BAP* 20, 477-478.

———, 1974, «De lexicografía vasca. A propósito de *Axular-en Hiztegia* del Padre Luis Villasante», *FLV* 6, 103-122.

——— & ANGEL IRIGARAY, 1955, «Nombres vascos de persona», *ASJU* 2, 107-127. [*OOCC* IX, 403-424].

MUJKA, JOSE ANTONIO, 2002, *Euskal ortografiaren hastapenak Iparraldeko literaturan*, Bilbo: UPV/EHU.

OEH = Mitxelena, Koldo, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia* (15 lib.), Bilbo: Euskaltzaindia, etab.

OIHENART, ARNAUD D', 1656, *Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, (Iker-15). P. ALTUNA eta J. A. MUJIKAREN arg. Bilbo: Euskaltzaindia, 2003.

PÉREZ PRIEGO, MIGUEL ANGEL, 2001, *Introducción general a la edición del texto literario*, Madril: UNED.

RICO, FRANCISCO, 2005, *El texto del «Quijote»*, Barcelona: Destino.

Robert = *Nouveau Petit Robert. Dictionnaire de la langue française, Texte remanié et amplifié sous la direction de Josette Rey-Devobe et Alain Rey*, Paris: Dictionnaires le Robert, 1995.

SALABERRI MUÑO, PATXI, 1998a, «*Gero* liburuaren koherentziaz eta egituraketaz», *Lapurdum* 3, 241-271.

- , 1998b, «Aipamen klasikoak Axularren *Gero* liburuan», *Euskera* 43:1, 231-252.
- , 1999, «Axularren aipamen bibliko-erlijiosoz zerbait», *Euskera* 44:1, 615-635.
- , 2000, «Axularren testu-zorrak», *FLV* 84, 193-209.
- , 2002, *Iraupena eta lekukotasuna: euskal literatura idatzia 1900 arte*, Donostia: Elkarlanean.
- , 2007a, «Axularren *Gero* liburuaren ale kasi birjinaleko M pleguaz», *FLV* 105, 303-323.
- , 2007b, «Axularren *Gero* liburuaren bigarren argitalpena lehenaren argitan», *EGAN* 60:3-4, 173-200.
- , 2008, «Eskuzko zuzenketak *Gero* liburuaren lehen edizioan», *FLV* 107, 45-62.
- , 2011 [2007], «Axularren *Gero* liburuaren lehen edizioa. Aleak, aldeak eta zuzenketak», in J. A. LAKARRA, J. GORROCHATEGUI & B. URGELL (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren II. Biltzarra (Gasteiz, 2007ko urriaren 8tik 11ra)*, Gasteiz: UPV/EHU, 201-216.
- SARASOLA, IBON, 1980, «*Nire/neure, zure/zeure* literatur tradizioan», *Euskera* 25, 431-446.
- , 2007, *Euskal Hiztegia*, Donostia: Elkar.
- SEVILLA ARROYO, FLORENCIO, 2008, «“Cuenta del original” y remedios de cajista en la princeps del primer Quijote», in *Anuario de Estudios Cervantinos IV. Del texto del Quijote a la Literatura Comparada y las Bellas Artes*, Vigo: Academia del Hispanismo, 69-104.
- SINGER, SAMUEL, 1999, *Thesaurus proverbiorum medii aevi*, Berlin: Walter de Gruyter.
- SMITH, WILLIAM, 1870, *Dictionary of Greek and Roman Antiquities*, <<http://www.ancientlibrary.com/smith-dgra/index.html>>.
- URGELL, Blanca, 1991, «Axular eta Larramendi», *ASJU* 25:3, 901-928.
- , 1999, *F.I. Lardizabal. Testamentu Berriko kondaira*, Donostia: Euskal Editoreen Elkarte.
- , 2001, *Añibarro, Fr. Pedro Antonio. Guero guero. Edizio kritikoa*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- , 2002, *Larramendiren Hiztegi Hirukoitza-ren Eranskina: Saio bat hiztegin-tzaren testukritikaz*, Bilbo: «Julio Urkixo» Euskal Filologia Mintegia & GFA.
- , 2005, «Larramendiren euskal liburuak 1745 arte: testu bibliografiaranzko hurbilketa bat», *Lapurdum* 10, 247-286.

- , 2007, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco», in J. A. LAKARRA & J. I. HUALDE (arg.), *R. L. Trasken oroitzapenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz (ASJU 40: 1-2)*, Bilbo: UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, 921-948.
- , 2013, «Lehen Euskara Modernoa (1745-1875)», in J. GORROCHATEGUI, I. IGARTUA & J. A. LAKARRA (arg.), *Euskararen Historia*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza (argitaratze).
- , 2015, «Tartas eta Leizarraga berrikusiak, edo nola aldatzen duen historia ikertzailearen begiradak», in B. FERNÁNDEZ & P. SALABURU (arg.), *Ibon Sarasola. Gorazarre. Homenatge. Homenaje*. Bilbo: UPV/EHU, 647-663.
- URKIZA, JULEN & LUIS BARAIAZARRA (arg.), 2000, *Frai Bartolome de Santa Teresa. Idazlan guztiak*, Bilbo: Euskaltzaindia.
- VILLASANTE, LUIS, 1972, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu.
- , 1973, *Axular-en Hiztegia*, Oñati: Jakin.
- , 1976, «Seigarren edizioari AITZINSOLASA», in PEDRO AXULAR, *Gero*. L. Villasanteren arg., Oñati: Jakin.
- VINSON, JULIEN, [1891-1898], *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Berrarg. faks. J. Urquijoren oharrekin (ASJU-ren gehigarriak, 9), Donostia, 1984.
- , 1907, «Observations sur l'article précédent [De quelques différences lexiques et typographiques entre des exemplaires du Nouveau Testament de Liçarrague (Georges Lacombe)]», *RIEV* 3:1, 284-287.
- , 1910, *P. de Argaignarats. Devoten breviarioa*, Chalons-sur-Saone.
- , 1911, «Un Liçarrague de plus», *RLPhC* 44, 279-284.
- , 1912, «Sur les deux prétendues éditions du Nouveau Testament basque de Liçarrague», *RLPhC* 45, 15-20.
- Vulgata Clem.* = *Biblia Sacra juxta Vulgatam Clementinam* (1592), <<http://vulsearch.sourceforge.net/html/>>.
- Vulgata Nov.* = *Nova Vulgata. Bibliorum Sacrorum editio*. Sacrosanti Œcumenici Concilii Vaticani II Ratione Habita Iussu Pauli Pp. VI Recognita Auctoritate Ioannis Pauli pp. II Promulgata. *Editio typica altera*, <http://www.vatican.va/archive/bible/nova_vulgata/documents/nova-vulgata_index_lt.html>.
- Vulgata Vet.* = *Vulgata Vetera*, <http://la.wikisource.org/wiki/Biblia_Sacra_Vulgata_%28Stuttgartensia%29>.
- WIKTIONARY, <<http://en.wiktionary.org/wiki>>.

AURKIBIDEA

Gomendiozko karta	3
Approbationes	7
Irakurtzaileari	9
i. Nola, bertzeak bertze direla, alferkeriatik ihes egiteagatik ere behar den trabailatu	13
ii. Zenbat kalte egiten duen alferkeriak, eta nola handik sortzen den gerotik gerora ibiltzea	23
iii. Nola nahikunde hutsetan eta desirkunde xoiletan iragaiten zaikun denbora	27
iv. Nola eztugun geroko segurantzarik	33
v. Nola geroko benturaren benturan benturaturik galtzen garen	41
vi. Nola den geroago gaitzago bekhatutik ilkitzea	47
vii. Nola gerotik gerora ibiltzeaz koberatzen den usantza gaixtoa	51
viii. Nola usantza gaixtoak gogortzen eta ezansiatzen duen bekhatorea	57
ix. Nola gerotik gerora gabiltzala betha ditekeien bekhatuen neurria, eta osa kontua	65
x. Anhitz balio duela Jainkoaren miseriak, eta nola behar den hartan fidatu	73
xi. Jainkoaren miseriak fidaturik eztela penitentzia egitea geroko utzi behar	77
xii. Nola gerotik gerora ibiltzeaz galtzen dugun denbora	87
xiii. Gaztetik zahartzera penitentzia luzatzen duenaz	95
xiv. Zahartzean ere penitentiari egiten eztuenaz	103

xv. Heriotzeko oreneraino bekhatutan egon gogo duenaz	109
xvi. Erremusina egiteaz eta handik sortzen den probetxuaz	121
xvii. Nola erremusinak, eta bertze obra on borondatezkoak ere, zerorrek zeure eskuz, edo bertzerenez, zerori bizi zarela, ondokoetara utzi gabe egin behar dituzun	129
xviii. Nola obra obligazinozkoak, konzientziaz zor ditutzunak, ondokoetara utzi gabe, zerorrek egin behar dituzun	133
xix. Zenbat kalte egiten duen juramentuak eta juramentu egiteko usantzak, eta nola behar den lehen baino lehen usantza hura utzi	137
xx. Zenbat kalte egiten duten kolerak eta etsaigoak, eta nola behar den lehen baino lehen etsaigoatik kanpora	147
xxi. Koleraren iraungitzeko lehenbiziko erremedioa da batbederak, bere kondizino haserrekorra ezaguturik, hari begiaren edukitzea	155
xxii. Koleraren iraungitzeko bigarren erremedioa: dirakien eltzeari egiten zaikana, kolerari ere egitea	157
xxiii. Koleraren iraungitzeko hirugarren erremedioa: ez orduan lehiatzea, kolera iragan arteino pausatzea	161
xxiv. Koleraren iraungitzeko laugarren erremedioa da konsideratzea etsaiek egiten derauzkiguten bidegabeak Jainkoaren gaztiguak direla	165
xxv. Koleraren iraungitzeko borzgarren erremedioa da konsideratzea zer moldez dagoen zure etsaia haserre denean	169
xxvi. Koleraren iraungitzeko seigarren erremedioa: ez bilhatzea zer dioten gutzaz jendek	171
xxvii. Koleraren iraungitzeko gainerako bertze erremedioak, kapitulu hunetan laburzki ezarriak	173
xxviii. Zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu eta amorio eduki. Lehenbiziko arrazoina: zeren Jainkoak manatzen baitu	177
xxix. Bigarren arrazoina zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu, da zeren mendekatzea beretzat begiratzen baitu Jainkoak	183
xxx. Hirugarren arrazoina, eta oraikotz azkena: barkhatu behar diogula geure etsaiari, Jainkoak guri barkha diazagun amoreakgatik	185
xxxi. Zenbat kalte egiten duen haragiaren bekhatuak. Lehenbizikorik, itsutzen duela adimendua, eta nola behar den hartan sartzetik begiratu, eta sarthuz gero ere, lehen baino lehen ilkitzera enseiatu	189

XXXII. Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen bigarren eta hirugarren kalteaz: eztuela den ahaikoarik hurkoenaz ere konturik egiten, eta ez hartako juramenturik konplitzen	195
XXXIII. Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen laugarren kalteaz: amoltsu eta bakezko zirenak egiten baititu kruel eta gerlati	197
XXXIV. Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen borzgarren kalteaz: sosegurik eta pausurik gabe ibentzeaz	199
XXXV. Haragiaren bekhatutik begiratzeko eta handik heldu diren kalten erremediatzeko lehenbiziko erremedioa eta bidea: orazinoa	203
XXXVI. Haragiaren bekhatutik begiratzeko bigarren erremedioa: hartako go-goetei lekhurik ez emaita	205
XXXVII. Haragiaren bekhatutik begiratzeko hirugarren erremedioa: borondatearen deliberamendua	207
XXXVIII. Haragiaren bekhatutik begiratzeko laugarren erremedioa: ez alfer egoitea	211
XXXIX. Haragiaren bekhatutik begiratzeko borzgarren erremedioa: kontsideratzea zein ttipia eta laburra den hartako plazera	215
XL. Haragiaren bekhatutik begiratzeko seigarren erremedioa: hartako plazerak zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen kontsideratzea	219
XLI. Haragiaren bekhatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa: borz zensuez, eta lehenbizikorik begiez, kontu edukitzea	221
XLII. Haragiaren bekhatutik begiratzeko zortzigarren erremedioa: mihiaz kontu edukitzea	225
XLIII. Haragiaren bekhatutik begiratzeko bederatzigarren erremedioa: sabelari ez sobera emaita	229
XLIV. Haragiaren bekhatutik begiratzeko lehenen gainerako erremedioak	233
XLV. Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean alha zaikun konzientzia gaixtoa	237
XLVI. Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean galtzen dugun konzientzia onaren bakea eta sosegua	247
XLVII. Nola oraidanik behar dugun, geroko begira egon gabe, ontasunean irautera eta perseberatzera enseiatu	255
XLVIII. Nola, ikhususirik ifernuko bidea den gaitzago parabisukoa baino, behar den gerotik gerora ibiltzea utzi	265
XLIX. Nola parabisuko bidea den erraz	269

GERO

L. Nola parabisuko bidea den errazago ifernukoa baino	277
LI. Nola ezten kofesatzea gerotik gerora luzatu behar	289
LII. Maiz kofesatzeaz, eta handik heldu den probetxuaz	295
LIII. Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten dioen bidegabe Jainkoari	301
LIV. Nola luzamendutan gerotik gerora dabilanak egiten derauen bidegabe aingiruei	305
LV. Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten derauen bidegabe bere buruari, bere giristino lagunari, eta bai munduko bertze gauza guztiei ere . .	309
LVI. Nola ifernuko penen konsideratzeak behar dituen gerotik gerora ibiltzeko luzamenduak laburtu	313
LVII. Bekhatoarak ifernuan izanen duen bigarren penaz eta gaztiguaz, zein deitzen baita <i>poena sensus</i> , sensuaren pena	319
LVIII. Nola infernuan daudenek eztuten handik ilkitzeko esperantzarik	327
LIX. Ea zergatik hain denbora aphurrean eta laburrean egiten den bekhatuari emaiten zaikan hain gaztigu handia, luzea eta sekulakoa	333
LX. Zergatik Jainko miserikordiosak, denboraren buruan bedere, ezterauen ifernuan daudenei barkhatzen	337
Liburu hunetako kapituluaren kontua	341
Testu-oharrak	345

GERO

BI PARTETAN
partitua eta berezia

LEHENBIZIKOAN
EMAITEN DA ADITZERA 5
zenbat kalte egiten duen luzamendutan ibiltzeak,
egitekoen geroko utzteak.

*Bigarreanean kidatzen da, eta aitzinatzen, luzamenduak utzirik,
berehala bere eginbideari lothu nahi zaikana.*

Eskritura Saindutik, Elizako Doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik 10
Axular Sarako errotrak bildua

*Ne tardes converti ad Dominum, et
ne differas de die in diem, Eccles. 5.*

BORDELEN,
G. Milanges Erregeren Inprimatzailea baithan 15
M.DC.XLIII



<3>

GOMENDIOZKO KARTA

1 ENE JAUN BERTRAND DE ECHAUS, Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari, Ordenako aitonen seme, eta Erregeren konseilari famatuari, ZERUKO LORIA.

Neure jaun maitea, joan zatzaizkit lurretik, baina ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea, eneak dira faltak, enea da hobena. <4> Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabilanari gerthatzen ohi zaikana, egin zait niri ere. 5

Baina guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezibituek, eta bethiere ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen kanporat atheratzeko ausartziaren hartzera. 10

Zeren iduritzen zait ezen oraino bizi zarela, begien aitzinean zaitudala; eta halatan, hala baitzinitut bezala mintzatu nahi natzaitzu.

2 Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza, anhitz lekhutan da bere aitaren amoreakgatik ongi ethorria eta arraiki errezibitua. Liburutto haur da emazurtza. *Posthumus*. Aita hilez gero <5> sorthua. Baina zu bezalako aitaren semea, emazurz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona baliatuko baitzaitza. 15

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko fama on famatuaz, nork zer erranen du?

Nor da Euskal Herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren lekhu guztietan, bethiere izatu da euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiek zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeeraki errezibi. Zuhurki konseila, kida, goberna eta burutan athera. 20 25

3-1 «*Bertrand d'Echaz* (1556-1641), baigorriarra zen. Baionako apezpiku, eta gero Tours-ko arzipizpiku. Henri IV Frantziako erregeren ahaide hurbila. Horregatik bazuen sarrera handia erregeren etxean. Axularren adiskide eta faboratzailea. Eskutitz bat ere bada Bertrand d'Echaz-ek bere anaia bati euskeraz idatzia. Xehetasun gehiago jaun honi buruz gure liburuan (Villasante 1972: 52)» (Villasanteren oh.).

3-1 *Frantziako lehenbiziko erremusinari*: fr. *aumônier* 'erremusinari', handikien kaperaren zerbitzuko elizgizona zen (sinon. *chapelain* 'kapilaua'), eta *grand aumônier de France*, bada, Frantziako erregeen gorteko kapilau nagusia (*Robert*, s.v.).

3-2 *Ordenako aitonen seme*: fr. *chevalier de l'Ordre*. Erdaraz «caballero de la Orden» behar du.

3-5 *Heldu nintzen*: Hegoaldeko *banentorren* esango genukeena da, erdaraz «Ya venía. Pero no me has esperado».

3 Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, jabea, sostengua eta <6> kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

5 Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinelan eta begiraile bezala iratzarririk dagoen jauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundainoz gero, erregez enpleguak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearen eta legearen defendatzaile eta aitzinatzaile buruzagiak ere.

10 Nafarroa Behereko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzerara eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita jauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, joan zen Donapalaiaora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han, ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan <7> harturik, oihuz, Mathatias bat bere denboran bezala, erraiten zuela: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum, exeat post me (2 Machab., cap. 2)*. «Ea giristinoak, giristino izenarekin izana duzuenak: bertze egiteko guztiak utzirik, hurbil zakizkide, jarraiki zakizkide eta egiazko legearen eta fedearen mantentzen eta sostengatzen lagun zakizkide». Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta inguruneak ere, hetan sartzerara zihoan eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero, handik hartako herraz eta mendekuz, bere jauregi ederra erre zioten. Hunelakoak ziren zure 20 aita jauna eta bai bertze zure aitzinekoak ere.

4 Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leinutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren zuk ere, Baionako ipizpiku zinenean, eta bisitan zenenbiltzanean, ikhusirik ezen <8> Elizatik kanpoan zebiltzan jende batzuek, nahi zituztela, bere azken finean, gorputzak elizan sarthu eta ehortzi, zeure 25 bisita hautsirik, Nafarroako Hirur Estatuak bildurik, joan zinen Gorthera. Eta han anhitz trabailu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa, eta handik harat halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua. Beraz, etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu.

30 Bada, ez eta ohorearen iraungitzaile ere. Aitzitik, badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen Erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez huts <9> egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu 35 handiak, eta Elizari, Erregeri eta komun guztiari anhitz okhasinotan egin derauzteztzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain eta aban-

4-1 *euskaldunen jabea*: «euskaldunen laguntza, geriza edo aterpea esan nahi du (gaztelaniaz, ‘amparo, protector’)» (Villasanteren oh.).

4-31 *arropa gorriaz*: «hau da, Kardenalen arropa[z]. Luis XIII erregeak Bertrand d’Echaz kardenal izateko izendaturik zeukan, baina Richelieu-k beste bat nahiago izan zuen. Ikus Villasante (1972: 55)» (Villasanteren oh.).

tail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memoria handi bat, eta borondate onera, ohorera eta prestutasunera erori bat, isuri bat eta eman bat eman baiteratzu.

5 Baina, zertako sartzen naiz ni itsas hondargabe hunetan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen aiphamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo; 5
berak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan, beraz, nik hek, hutsik ezta-
gidan. Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe: Zer ere eskiribatuko
baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri <10> dagotzula, zuri
zor zaitzula, eta arrazoinez orai ere zuri presentatu behar zaitzula. Eta guztiz ere
zure zerbitzari ttipi hunen trabailu aphur haur, gerotik gerora egitekoen luzatzeak 10
zenbat kalte dakharkeien, zuk hain ongi dakizun puntu haur, nori egonen zaika, zuri
ezpadagotzu? Nork kidatuko, nork ostatuko du, zuk ezpadezazu?

Zure gerizan doha; zure itzalaren azpian benturatzen da. Errezibi ezazu, bada, 15
defenda ezazu, alde zakitza, egiozu begitarte. Ediren bedi liburutto hunetan, Echaus
eta Echausen omena eta izena. Zeren halatan eta harekin batean, ibiliko den lekhu
guztietan burua gora ekharriko du, burupe izanen du, eta nehoren guti beldurrik, 15
jendartera bere begitarteausartki atherako du.

Bai, ordea, joan zara; lekhuz aldatu zara; hemengo aldia egin duzu.
<11> Egia da, hala da. Eta alde damu dut, eta alde atsegin. Damu, zeren ezpai- 20
tzaika nehoi ere handik, niri bezanbat kalte ethorri.

Atsegin. Zeren nola ezpaikara bi mendetako, eta zuk zeurea hain ongi, hain 25
ohorezki eta dohatsuki iragan baituzu, esperantza baitut zeruko lorian, Jainkoaren
konpainian, kredit handiarekin zaudela; eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua
emanen derautazula; eta arranoak airean dohanean bere umetara bezala, zuk ere
enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldia egin hurran baitut), 25
Jainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zortha ona erdie-
tsiko dudala; eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala. Jainkoak
hala nahi duela.

Zure zerbitzari ttipiena eta obligatuena,
P. DE AXULAR 30

5-21 *bi mendetako*: Cf. ...*hirur gauzatarik bere mendean ahal bezanbat begiratu zela* (19-1).
Hots, «bere garaian, bere bizitzan». Hemen ere bai, beraz.



<12>

APPROBATIONES

Visis per nos Vicarium Generalem Illustrissimi ac Reverendissimi D.D. Francisci Foucquet Episcopi Bayonensis, attestationibus de mandato eiusdem Domini factis et supra insertis, dictum de non procrastinanda poenitentia librum imprimi permisimus. Datum Bayonae anno Domini 1642, die secunda Decembris. 5

PERRIQUET
Vicair. general.

<13> Hunc librum de non procrastinanda poenitentia auctore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper rectore de Sara, mandato Illustrissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis accurate evolvi, et in eo nihil adversum fidei pietatique, sed recta omnia ornata, et ad bonos mores multum conducentia, iudicasse ego infra scriptus testor. Datum apud Sanctum Ioannem de Lus die quarto Decembris anno Domini millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo. 10

Salvatus de Dissaneche 15

<14> Ego infra scriptus iussu Illustrissimi ac Reverendissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis attente legi librum de poenitentia non differenda cantabrico idiomate a Domino Petro de Axular meritissimo olim rectore de Sara compositum, in quo omnia orthodoxae fidei et bonis moribus consona reperi, atque uberem authoris facundiam magna cum eruditione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum. Ideo in lucem perutiliter prodire posse censeo ac iudico. Datum apud Sanctum Ioannem de Luz die 25 Decembris millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo. 20

PETRUS DURTHUBIE
Doctor Theologus 25



<15>

IRAKURTZAILEARI

6 Egun batez, konpainia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuana nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea; eta hartan, *gero* dioenak *bego* dioela erakustea. Konpainia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean klarki eta agerriz, nik behar nituela egiteko hartan eskuak sarthu. Ordea, nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baina alferrik, zeren hain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsu baitzerauzkidaten. Eta hala, deliberatu nuen, buru-eragotzkarri <16> bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, *gero* hunen gainean egitera.

Eta nahi nituzkeien bi parteak elkarharrekin eta batetan athera. Baina ikhusirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, goganbehartu naiz eta beldurtu, eztiren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopa harri. Eta halatan, hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen lehenik benturatzeko, eta

- 9-2 *konpainia on batean*: «1611. urtean Bertrand d'Echaz Baionako apezpikuak frantziskotarren etxe-komentu bat sor arazten du Donibane eta Ziburu artean. Fundatzaile bezala etorri zen Etienne Materre, frantses hutsa. Saran ikasi zuen euskaraz. Axularren adiskide izan zen eta euskal liburu bat agertu zuen. Berak eman zion hasiera Donibaneko idazle-eskolari. Haranburu idazlea ere frantziskotarra eta Sarako semea zen. Itxuren arabera, Materrerren ondoren agertu ziren euskal liburuen egileak (Axular barne delarik) Donibaneko komentuan biltzen ziren, eta handik sortu zen Lapurdiko euskal literaturaren abiadura (xvi. mendean Leizarragaren obrak ilki zirela ahantzi gabe)» (Villasanteren oh.). Axular Materrerren oniritziaren egile izan bazen ere, ez dago, egiatan, bien arteko adiskidetasuna sostengatzeko aski oinarririk. Bileren burutazioa, berriz, testuko pasarte honetatik irten da, baina *topoi* bat baino ez dugu, topiko bat, garai hartan oso ohikoa hitzaurreetan: *captatio benevolentia* delakoaren barruan (irakurlearen borondate ona lortu nahian), topiko honek egilearen apaltasuna adierazi nahi zuen: «Ez naiz ni gauza, baina konbentzitu nautenez gero...». Oro har Sarako eskolaren inguruko hipotesiez, ik. orain Urgell (1991) eta Salaberri Muñoa (2002: 77-79).
- 9-5 *zatekeiela*: zitekeela, izango zela (indikatiiboari lotuta, *-teke* atzizkiak 'zehazgabetasuna' adierazten du, orain darabilgun geroaldiak bezalatsu).
- 9-8 *zeikan*: zitzaien.
- 9-12/13 *baitzerauzkidaten*: baitzizkidaten.
- 9-15 *bi parteak*: «*Gero*-ren bi parteei buruz iritzi bat baino gehiago dago. Batzuek (adibidez Lafittek eta Intxauspek) uste izan dute Axularren obran bi parteak daudela, nahiz eta nahasian egon eta hitzaurre honetan besterik esan. Beste batzuk hitzaurrean esaten denari dagozkio, baina orduan bigarren parte horrekin zer gertatu da? Idatzirik ote zen? eta idatzirik baze- goen, non da? Ikus Villasante (1972: 121)» (Villasanteren oh.). Arestian Salaberri Muñoak (1998a) eta Haritshelharrek (1999) berpiztu dute eztabaida, bigarrena bi parteak hantxe daudelakoan (xlv. kapituluraino 1. parte; handik aurrera 2.a) eta lehena, berriz, «bere hartan eta egileak adierazi bezala» (2002: 82) lehen parte bakarririk heldu zaigulakoan.

berri jakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero, abisu haren arauaz, ethorkizunerat gobernatzeko; eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barranean gelditzeko eta estaltzeko.

- 5 **7** Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estrainio, ni lan huni lotzea. Zeren anhitz izan baita orainokoa, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baino hunetako gaiagorik eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoa, hunelako materiata hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baina
- 10 ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek <17> bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren barkhakizun direla, eta batbederak disimulatzen, ez ikhusi iduri egiteko eta are desenkusatzeko dituela.
- 15 **8** Badakit, halaber, ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira Euskal Herrian: Nafarroa Garaian, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaberrrian, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du *behatzea*, eta bertzeak *so egitea*. Batak *haserretzea*, eta bertzeak *samurtzea*. Batak *ilkitzea*, bertzeak *jalgitea*.
- 20 Batak *athea*, bertzeak *bortha*. Batak *erraita*, bertzeak *esatea*. Batak *irakurtzea*, bertzeak *leitzea*. Batak *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*. Batak *hauzoa*, bertzeak *barridea*. Batak *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean, batbederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baititutze diferent.
- 25 **9** Bada eskiribatzeaz denaz bezanbatean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. Batak eskiribatzen du <18> *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilic*, bertzeak *igilic*. Batak *lchoa*, bertzeak *lajoa*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *quecho*, bertzeak *quejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*. Eta hunela, bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baititutze.
- 30

10-9 *lizatekeiela*: lizatekeela (Axularrek darabiltzan *baliz* eta *lizateke* forma zaharrak dira, *izan*-en erroa agerian dutenak).

10-30 *diferentki eskiribatzen baititutze*: «Idazkera kontuan (ortografi kontuan, alegia) Donibaneko idazle eskola horretan guztiak ez zetoztela bat esaten digu hemen Axularrek. Materre izandu zen eskola huni hasiera eman ziona eta bide berezi batekin ibili zena. Haren idazkerak dira *igilic*, *jugen*, *lajoa*. Ondoren etorri zirenak soinu horiek era hunetara idatziko dituzte: *ichilic*, *chuchen*, *lchoa*» (Villasanteren oh.). Axular bera bigarren taldekoa da, salbu inposiboan, non <x>z baliatzen baita (*gaixto*, *bidexca*, etab.).

Ordea, zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen, hunela diferentki eta bi alde-tara eskiribatzen direnak: halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatukoituz alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, *in margine*, batbederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik.

Finean, eskiribatze hunen gainean diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *u* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *Adjicio*, *Conjicio*, *Vultus*, *Vulnus*. Eta espainolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo*, *lloro*, hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat: *ttipia*, *ttipittoa*, *gizonttoa*, *haurttoa*. Zeren eskiribatuzera *chipia*, *chipichoa*, *gizonchoa*, *haurchoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzaten direnen artean.

10 Baina, zeren komunzki hala eskiribatzea nola minzatzeta, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik; eta ene haur ezpaita zurea bezala; ez, othoi, hargatik <19> arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure molde-
ra, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiz-
tuko, eta ez mutturturik gaitzez jarriko. Aitzitik, haur da nik nahi nukeien gauzetarik
bat: ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, bertze enseiu hobeago baten
egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara
hain labor, eskas eta ez hertsu, nola munduak uste baitu eta baitaduka dela.

Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela jendartean ausart, en-
tregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek
nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franzesez edo
bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanzen zen euskara
ere; eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta, eta ez euskarak.

11 Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil deus eztakitenentzat ere.

Ez eta, eztitut bethiere Eskritura Saindua eta Doktoren erranak ere hitzez hitz
euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak diferent baitira. Ordea,
ezta, ez, handik <20> segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik, badirudi ezen bertze
hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak, bata bertzearekin nahasiak direla, baina
euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.

11-2 *eskiribatukoituz*: eskiribatuko dituz (maiz honela, uzkurtuta, baina perpaus nagusian
bakarrik; hau da, ***eskiribatukoituzdala* bezalakorik ez).

11-3 *in margine*: «liburuaren bazterrean. Eta zinez hala ikusten dira Materren idazmoldeko
idazkera hoiak *Gero*-ren lehen edizioan, baina bazterrean jarriak» (Villasanteren oh.).
Axularrek liburu guztian zehar testu barruan <ch> eta orri bazterrean <j> edo <g>
erako idazkera ematen du behin eta berriz, salbuespenak salbuespen. Zaila da ulertzen
zergatik egin zuen ahalagin berezi hau (Materrekiko begiramenduz? haren dotrina
irakurtzen ohituta zeudenezta?), baina ez zuen ondorenik izan. Garai honetako gra-
fiaz, ik. J.A. Mujika (2002).

11-4 *duen amoreakgatik*: izan dezan (*amoreakgatik* helburuzko perpausaren marka da).

11-18 *badirudi euskarak ahalke dela...*: «Euskara hizkuntza bera pertsona bat balitz bezala
azaltzen zaigu hemen jendartean agertzeko lotsati eta beldurti» (Villasanteren oh.).

GERO

- 5 Baina euskara, eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeke moldeak eta diferentziak utzirik, zeren hek azala eta lorea bezala baitira, har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia; haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere. Baina intenzione on batekin, zeurea, zeurk egina baitzendu bezala. Eta baldin halatan eta orduan batere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu, zeren hura guztia Jainkoaganik heldu baitateke, eta ez eneganik faltarik baizen, hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi.

VALE

12-7 *iatzotzu: iezazkiozu.*

12

GERO

hasten da gerotik gerora dabilanaz
egiten den liburuaren
lehen partea

*Nola, bertzeak bertze direla, alferkeriatik
ihes egiteagatik ere behar den
trabailatu* 5

LEHENBIZIKO KAPITULUA

12 Gure Jaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere-
gainki, bere imajinara eta idurira, batere bekhatu-rik eta bekhaturen kutsurik ere 10
gabe, anhitz donu, dohain eta abantail suertez dotaturik egin zuenean, ibeni zuen
berehala lurra-
k zuen parterik eta aurkientzarik hoberenean, lurreko parabisuan, le-
khu <22> plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira
ongi parabisu hura. *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur et custodiret
illum (Genes. 2).* 15

Ordea, nola lur lantzea, aphaintzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta
premian ere jartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak
eta ondoreak baitira; eta oraino orduan ezpaitzen bekhatu-rik, eta ez bekhaturen
aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere; badirudi ezen etzela, halaber, oraino orduan
parabisu haren lantzeko eta begiratzeko premiarik. Zertako, beraz, eman zioen or-
duan Jainkoak gizonari manamendu hura? Ihardesten du San Tomasek, erraiten
duela: *Nec, tamen, illa operatio esset laboriosa, sicut post peccatum, sed fuisset
iucunda, propter experientiam virtutis naturae. Custodia etiam illa non fuisset
contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret, ne ipsum
amitteret peccando* (S. Thom. 1. p., q. 102, ar. 3). «Etzen, ez, orduko trabailatze hura 20
penagarri izanen, orai bekhatu eginez gero bezala. Baina hura izanen zen atsegin
hartze bat, eta bere plazerera eta aisiara zegoela, bere indarraren eta anzearen frogat-
ze bat. Eta begiratzea ere, ez etsaietarik, baina bereganik, eta beretzat bekhatuz
galtzetik begiratzea izanen zen». Hunela dio San Tomasek. 25

13 Baina San Krisostomok emaiten du bertze arrazoin bat, ni <23> narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaikana, erraiten duela: *Propterea praecepit Deus ut operaretur illum, si enim laboris omnis fuisset expers, ex nimio otio in ignaviam fuisset prolapsus* (Chrys. to. 14 in cap. 2 Genes., tom. 3). Egia da, etzen oraino orduan lur-parabisu hartan egitekorik, etzen trabailatzeko premiarik. Ordea, halarik ere, etzuen nahi Jainkoak, han zegoena, zegoen geldirik; ez trabailatzetik alfertzera eta nagitzera ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den, alferkeria aditzera emaitteagatik.

10 Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz zare, saski eta otharre egiten haritzen zela; eta gero azkenean, egin ondoan, astearen buruan, guztiak erratzen eta desegiten zituela (Casian. lib. 18, cap. 14). Zeren batz, nola herrietarik urrun baitzegoen, gehiago baitzekarkeien garraioaren gastuak, obraren balioak baino; eta berriz bertzea, zeren trabailu hura guztia, orazi-notan eta othoitzetan unhatu ondoan, alferkeriatik ihes egiteagatik hartzen baitzuen, eta ez ondoko irabaziagatik.

15 Gure Jaungoikoak eman zituen Lege Zaharrean seietan ehun eta gehiago manamendu eta zirimonia suerte, eta hekin batean hanbat egiteko, non erraiten baitu Jondone Petrik, ez berak, eta ez haren aitzinekoek ere, ezin bururik egin zutela, eta ez jasan hain karga handia. *Quod neque patres nostri <24> neque nos portare potuimus* (Acto. 5).
20 Eta nahi baduzue jakin, ea zergatik kargatu zituen Jainkoak hanbat manamenduz, ihardesten du doktor batek: *Ut per operationes variorum sacrificiorum, otiositas tolleretur, quae multis malis initium tribuit et fomentum* (Abulen. in Praefatio in Levit.). Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zirimonia suertez, hekin batean khen zedin hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna.

25 14 Nola gure Jaungoikoak beztitu baitzituen lurreko aniamaliak, aireko hegaztinak, itsasoko arrainak, eta oihaneko zuhaitzak ere, bere beztimenda suerte batzuez: animaliak larruz eta ilez, hegaztinak lumaz, arrainak ezkatatz eta zuhaitzak azalez.

30 Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe, eta trabailatu ere gabe, bere azpiko lurraren gozoa eta gizentasuna beregana bere erroez thiratuz eta edoskiz hazten, handitzen eta mantenatzen baitira; aniamaliek ere bere bazkak eta jatekoak berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe jaten baitituzte, eta bai bere etxeak eta etzauntzak ere, non-nahi den, arratsten eta ilhuntzen zaien lekhuari hartzen; eta ge-

14-1 narraikan: narraion, jarraitzen diodan (ni hari).

14-6 zegoen: egon zedin.

14-10 haritzen zela: «Ohitura edo maiztasuna adierazi nahi denean, beti *-tzen* horrekin. Gainerakoan *hari da, hari zen*. Ikus Mitxelena (1974: 114)» (Villasanteren oh.). Lehenaldi burutua, berriz, *harizan*-ekin, hots, gure *ari izan*-ekin (ik. 49-1 oin-oharra); alegia, oraindik *haritu*-rik ez (ik. *OEH*, s.v. 1 *ari*).

14-25 aniamaliak: Halaxe gehienetan (14-31, 20-1, 20-18, 70-6, etab.), nahiz bakan batzuetan *animalia* ere irakurtzen den (14-27, 68-21, 261-15, 328-13), errataz edo bestela: ez jakin. Aintzat hartu beharreko aldaera, noski (cf. Mitxelena 1974: 108, eta orain *OEH*, s.v. *animalia*), agian *handi-mandi* erako elkartuen arabera berrinterpretatua (**ania-malia*).

hienak berehala bere ameen ondotik baitoazi, zein baitira abantail handiak: hala Jainkoak nahi izan balu, eman zerauzkaion gizonari ere abantail suerte hau guztiok, eta gehiago ere. <25> Beztitu zukeien, etxedun egin zukeien, eta deus gosta gabe, behar zuen guztiarekin ibeni zukeien. Ordea, etzuen hala ibeni nahi izatu. Eta zergatik ez? Alfer etzegoen amoreakgatik. Eta San Ambrosiok dioen bezala, errezibitu duen adimendua enplega dezangatik. *Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur* (Ambros. in *Praefat. in Levit.*). Zeren baldin orai, gauza guztiak hain nekez eta hanbat gostarik erdiesten ditugularik, hain nagi eta alfer bagara; zer geneidike, nahi dugun guztia nahi bezala eskuen artean bagendu? Deus falta ezpalitzaiku? Erran genezake ebanjelioko aberats hark bezala: *Anima, habes multa bona, posita in annos plurimos; requiesce, comede, bibe, epulare* (*Luc.* 12). «Dezagun jan eta edan; dezagun pausa eta atsegin har; zeren berdin eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik».

§ 1

15 Erraiten du Aristotelek, on dela, alferkeriaren herritik khentzeko eta desterratzeko, eta herrien ere bere erregeren edo bertzeren kontra jaikitetik begiratzeko, zenbait obra handiren hastea, zenbait dorreren edo gazteluren egitea, eta hetan jendearen enplegatzea (Arist. lib. 5 *Politi.*, cap. 11). Nola ageri baita Egiptoko piramide-tan, zein eragin baitzituen errege <26> Faraonek, jendeak alfer etzeudezin amoreakgatik. Iduritirik errege hari, ezen baldin Israieleko seme gathibu bezala bere azpian zedutzan hek (iragaiten baitziren seietan ehun mila presunatan) utzten bazituen bere plazerera eta aisiara bizitzera, urguilutzeko eta nabusitzeko bidean jarriko zirela, eta handik behar etzena sorthuko zela, egin zuen piramide batzuen egiteko gogoeta, asmua eta pensua. Eta piramide hetzaz mintzo dela, erraiten du San Isidorok: *Pyramides est genus sepulchrorum quadratum, fastigiatum ultra omnem celsitudinem, ut a lato incipiant et in angusto finiantur* (Isidor. lib. 5 *Ethimol.*, cap. 11). Piramidea edo piramideak ziren sepultura suerte batzuk, pilare, harroin edo thonba laur kantoinetako gora ailtxatu batzuk, egin ahal zitezkeien gorenak, ondoan zabal eta puntan mehar. Eta hetan trabaila arazitzen zituen Faraonek bere azpiko jende hek, seinalaturik batbederari bere eguneko lana eta saila. Eta eskuaren ibentzea bera asko bazuketen ere; ordea, lanhabesak, tresnak eta obraren egiteko gai guztiak ere, berek bilhatu eta hornitu behar zituzten. Eta halarik ere, ezin ausart zitezkeien arrenkuratzera; halako moldez ezen hartako lehenbiziko hitza ahotik itzuri zeienean, erran baitzerauen be-

15-2 eman zerauzkaion: eman ziezazkion (*eradun + -kaio: ik. 325-34 testu-oharra).

15-3 Beztitu zukeien: jantzi zezakeen, jantziko zuen (-teke-k bezala, -ke atzizkiak 'zehazgabetasuna' adierazten du).

15-9 geneidike: egingo genuke (-gidi- erroko adizkia: *gene(g)idike).

15-19 etzeudezin: egon ez zitezen.

15-21 zedutzan: zeuzkan (*eduki-ren adizkia, -za pluralgileaz).

15-27 laur kantoinetako: «cuadrangular» (Villasanteren oh.).

15-33 zeienean: zitzaieanean.

rehala Faraonek: *Vacatis otio* (*Exod.* 5). «Asti duzue, zeuen ongiegiak, alferkeriak, aisetasunak iratxekitzen deratzue, <27> hark horrela kilikatzen eta mintza arazitzen zaituztezte.» Eta halatan, aitzinerat kargatuago zituen, lana berretu zerauen. Eta hura guztia egiten zuen, baldin batere astirik bazuten edo alfer bazeuden, handik 5 zerbaite kalte ethor zekion goganbeharrez eta beldurrez.

16 Pisistrato Atenasko tirano gaixto hark ikhusi zuenean plaza guztia jende alferrez bethea, eta hetarik anhitz malizia eta pensu gaixto sor zitekeiela, deitu zituen guztiak beregana. Eta aitzinerat alfer egoiteko desenkusarik etzutentzat, eman zerauen mando, zamari, idi, hazi, diru; finean, trabailatzeko behar zuten guztia. Eta gero igorri zituen lanera eta trabailura, iduriturik ezen halatan etzutela 10 kalterik eginen, maliziarik pensatuko, eta ez herririk nahasiko (*AElianus, lib. 5 Variis histor.*).

Munduko berri dakitenek erran dute eta erraiten dute, on dela herrientzat eta erresumentzat, zenbait egiteko eta gerla bere herritik eta erresumatik kanpoan izai- 15 tea. Zeren nola batbedera bakearekin lohakartzen, ezansiatzen eta gorputzaren plazeretara emaiten baita, hala gerlekin, etsaiekin eta kontrastekin ernatzen, iratzartzen eta axolduritzen da.

Plutarkok egiten du liburu bat, etsaietarik atheratzen den probetxuaz, eta guztietako handiena eta prinzipalena dio dela, alferren <28> trabaila arazitzea, lotien 20 iratzartzea eta antsikaben ansiatsu eta arduratsu egitea (*Plutar. lib. De utilitate ex inimicis capienda*). Adiskiden artean garenean laxo gara, ezta dukagu deusez ere konturik; eztugu gaizki mintzatuagatik eta mila erhokeria eginagatik ere antsiarik. Zeren baitakigu, ezen adiskide direnaz geroz, hek guztiak estaliko eta onera hartuko derauzkigutela. Baina etsaien artean garenean, behar dira buru-beharriak ernatu, 25 zer egiten eta erraiten den behatu. Zeren nola etsaiak bethiere zelatan baitaude, zer ere huts edo falta edireiten baitute, hura berehala harrapatzen dute eta, are batzutan berreturik airatzen eta kanpatzen dute. Hargatik erraiten du San Krisostomok: *Saepe, vero, ab inimicis non minus lucramur quam ab amicis. Cum enim nobis peccata exprobraverint, etiam invitos, in ipsorum correctionem excitant* (*Chry. tom. 13 ad popul. Anthi.*, tom. 3). Anhitzetan egiten derakute etsaiek hanbat ongi eta 30 ontasun nola adiskideek, eta bai batzutan gehiago ere. Zeren etsaiek geure faltak

16-3 *zaituztezte*: zaituztete. Ik. 177-21 testu-oharra.

16-8 *etzutentzat*: «Indikatiboko aditz-forma, subjuntiboko esanahiaz. René Lafon jaunak aztertu du nola antzina euskal aditzak ez zuen subjuntiborik, eta nola eta zergatik sortu zen modu hori. Ikus Lafon (1944: I, 459 eta 473). Indikatiboko anitz forma ageri da Axularren obran, *-n* edo *-la* atzizkiez, eta subjuntibo edo inperatiboko esanahiaz. Hunako zati hauetan adibideak aurki ditzakezu: 17, 25, 85, 92, 95, 101, 130, 141, 142, 149, 151, 165, 169, 204, 213, 215, 231, 239, 256, 259, 260, 262, 265, 286, 287, 291, 292, 298, 305, 306, 334, 336, 360, 366, 379, 380, 394, 395, 396, 398, 399, 400. Herriko euskeran entzuten dira oraindik horrelako esaera batzuk (indikativoko aditz formak, subjuntiboko esanahiaz): *Egun on dakarrela! Egun on daukala! Datorrela!* (*;que venga!), eta abar. *-tzat* horri buruz (*etzutentzat*), ikus Azkueren *Morfología* (1923-25: 374)» (Villasanteren oh.). *-tzat* atzizkiak helburuzko perpausak markatzen ditu, *amoreakgatik*-en antzera.

erranez, eta hetzaz eranzute eginez, emaiten derakute okhasino ernatzeko, iratzartzeko, falta eginen emendatzeko, erremediatzeko, eta bai are aitzinerat gehiago egitetik ere begiratzeko.

Arrazoin hunengatik erran ahal diteke, etzuela egundaino gure Jaungoikoak nahi izatu, akhaba zekizten Israeleko seme hei <29> bere etsai guztiak, baina ordenatu zuen, edo permititu, geldi zekien bethiere zenbait baxhotx eta hondar iratzartzeko, ernatzeko eta alfertzetik begiratzeko.

§ 2

17 Irabazi zutenean Lazedemoniakoeak bere frontierako hiri etsai bat, mugakide zuten bat, erran zuten Lazedemonia hartako bereko gobernariak: *Sublata est pubis nostrae palestra; non habebunt posthac, quibuscum lucentur, adversarios* (Plutar. in *Aphothê*). «Egin da gure jende gazteaz; eztute hemendik aitzina ihardukitzeko paradarik izanen, eta ez borrokatzeko etsairik».

Lazedemoniako hek berek etzuten desegin nahi izatu hiri kontrast bat, bethiere bere kontra eta etsai izan zuten bat, erraiten zutela, ezen hiri hura zela *iuventutis cotem*, gaztetasunaren zorrotz-harria, zeren gaztek han bere indarra eta antzea frogatzen, zorrotzten eta herdoiltzetik begiratzen baitzuten (Plutar. *ibidem*).

Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark ere, galdegin zeraukatenean, ea zergatik hala bere meneraz gero, etzituen bere etsai argiboak desegin. *Ut habeamus qui iuventutem nostram exerceant* (Plutar. in *Laco*). «Eztitut desegin, dugun amoreakgatik nork gure jende gaztea zertako den froga dezan».

<30> Enzun zuenean Publio Nasikak, egotzi zutela Erromakoek herritik Anibal bere etsai handi hura, Kartago ere hartu zutela, eta hainbertzez, bere ustez, aitzinerat segurean jarri zirela, erran zuen: *Atqui nunc in lubrico sumus* (Plutar. in *Aphothê*). «Aitzitik, orai gaude egundaino baino linburtzeko eta erortzeko peril handiagoan. Zeren ezpaitugu orai, lehen bezala, iratzartzailerik eta geure eginbidearen eragilerik».

18 Izan zutenean erromatarrek, desiratzen zuten abantaila eta garaitia kartagotarrren gainean, sarthu ziren konseiluan erromatarrak, ea zer eginen zuten Kartagoko hiri hartaz (Vide Augus. *lib. De civitate Dei*, cap. 30, tom. 5). Eta Katonek (prinzipalenetarik bat baitzen) erran zuen, guztiak desegin, plaundu eta lurrarekin berdindu behar zuela, zeren bere gerla guztiak eta egitekoak hiri hartarik sortzen zeiztela, eta hura deseginez gero, bakean eta soseguan jarriko zirela. Baina Szipion kapitain famatu hark, ethorkizunari hobeki behaturik, erran zuen etzutela neholatan ere hiria desegin behar. Zeren baldin desegiten bazuten, gerla bat iraungi ustean, bertze handiago bat pitzuko zutela. Zeren berehala jendea alferkeriari, jan-edanari, erranmerranei, eta aisiai dakhazkeien gaixtakeria suerte guztiei emanen zeizela. Eta handik nahastekak, diferentziak, guduak, hauziak, etsaigoak, eta <31> kartagotarre-

17-5 zekizten: zekizkien.

17-31 zeiztela: zitzaizkiela.

kikoa baino gerla perilosagoa bere artean sorthuko zeuela. Eta hala gerthatu zen. Zeren Szipionen konseilua utzirik, hartu zuten Katonena, desegin zuten Kartagoko hiria, jarri ziren bere ustez bakean. Baina Szipionek erran zerauen bezala, fite berak, eta Erromako hiria ere, beheititu eta erori ziren.

- 5 Egia haur ezagaturik, Perikles famatu hark mantenatzen zuen bethiere, bere heritik kanpoan, zenbait gerla (Plutar. in *Pericle*). Eta urtheoro igortzen zituen untziak, jendez betherik, gerla hartara. Eta hetan bulkhatzen zituen ediren ahal zitzan alfer guztiak. Eta gero bizitzen zen bake handi batetan. Zeren nola herri guztietan ohi baita komunzki zenbait alfer eta jende galdu, eta hek anhitz kalte eta nahasteka egiten baitute, ontasun handia heldu zaika herriari halako heken khentzeaz. Nola lurrari ere heldu baitzaika probetxu jorratzeaz eta belhar gaixtoen atheratzeaz.

- 19 Korintioak hain zeizten aiherreri, ezen ikhusten zutenean gizon bat bizitzen zela errentarik gabe, ofiziorik gabe eta trabailatu ere gabe, berehala, bertze frogantzarik gabe, bizia edekitzen baitzioten, zeren erraiten zuten ezen, presuna alfer ofiziorik eta errentarik etzuenak, ohoinkeriaz, enganamenduz edo zenbait arte gaixtoz usatu behar <32> zuela, eta halakoak bizia zor zuela, eta hala edekitzen zioten (Laert. lib. 6). Eta on lizate orai ere, halakoekin hala egin baledi.

- Solon handiak ordenatu zuen, ezen aita batek bere semeari ofiziorik erakusten etzioenean, etzela seme hura bere aitaren faboratzera, beharrean ikhusiagatik ere, obligatu izanen (Plutar. in *Solone*). Zeren ofiziorik ez erakusteaz, alfer eta gaixto izaiteko bidean eta perilean utzi baitzuen bere aitak.

- Gimnosofista zerizten jende batzuek hain gaitz esten zuten alferkeria, ezen bethiere afalaitzinean deitzen baitzituzten presuna gazteak beregana, jakiteko ea zertan iragan zuten eguna, eta baldin frogatzen bazeien alferkeriarik, etzerauen afariak gaitzik egiten (Patricius, *Lib. de republica*).

- Katon Zensorino hartaz irakurtzen da (zeinek baitzuen alferren gainean esku eta bothere) ekhartzen zeraukatenean gizon bat bere aitzinera, akusaturik, erraiten zela ezen alferra zela; berehala, lehenbiziko gauza, eskuetako larrua hazkatzen eta ferekatzen zioela; eta baldin latz, lodi eta gogor edireiten bazioen, ahalik eta arintkiena utzten zuela. Baina baldin mehe, leun eta bera bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaitzitzen zuela (Plutar. in *Vita Cato. Censor*).

18-7 *bulkhatu*: «Pasarte hunetan 'irauli' (gaztelaniazko 'volcar' bezala). Ikus Mitxelena (1974: 117)» (Villasanteren oh.).

18-7 *ahal zitzan*: ahal zitzakeen (-*ke* atzizki gabeko ahalera zaharra).

18-12 *aiher zeizten*: aiher zitzaizkien, gorrotatzen zituzten; adiera honetan, zeri eta norbaiti izan behar (*EH*, s.v.).

18-14 *edeki*: kendu.

18-17 *lizate*: litzateke. Zehazgabatasuna edota geroaldia adierazten duten adizki hauetako batzuk -*te*-dunak dira (forma zaharra), ez -*teke*-dunak, nahiz gutxiengoan diren (ik. 111-39, 329-24...). Ik. 321-23 testu-oharra.

18-24 *bazeien*: bazitzaien.

Katon hark berak erraiten zuen, hirur gauzatarik bere mendean ahal bezanbat begiratu <33> zela: emazteari bere sekeretuak fidatzetik, leihorrez ahal zihoakeiela, itsasoz joaitetik, eta egun guztian alfer egoitetik.

Lukanoek edireiten zutenean nehork jende alferrei deus prestatzen zerauela, emaiten zuten berehala sententzia prestatzailearen kontra: zer ere prestatu baitzuen, hura guztia gal zezala (Nicolaus, *De moribus gent.*). Baina nik uste dut ezen etzela halako sentenziaren emaiteko premiari, bera baitago emana. Zeren ezpaitu halakoei prestatzaileak koberatzeko perilik.

Indietako herri batzuetan, etzen bat ere bere gorputzaz balia ahal zitekeienik eskean ibiltzen. Itsuek ere tornuan edo arrodan bedere hari behar zuten. *Apud Synas, Indiae populos, caeci molas trusatiles versando, sibi victum parant* (Osor. lib. 11).

§ 3

20 Lehenagoko filosofo batzuek, ez aithortzeagatik egon zela behin ere Jainkoa alferrik, erran zuten, mundu haur, Jainkoa bera bezala eterno zela eta haste gabe. Zeren bertzela, mundua egin arterainoko bitartean, alfer egon beharko zuela Jainkoak. Baina ez mundua da eterno eta ez haste gabe, eta ez hargatik egotu Jainkoa egundaino alferrik. Zeren badu, eta bazuen lehen ere Jainkoak, munduaren egitea eta gobernatzea baino obra handiagorik: nola baitzen, eta baita, bere <34> buruaren kontenplatzea, onhestea, eta bai bertzerik ere anhitz. Ordea, filosofo hek eman zuten hartan bere ahal guztiaz aditzera gauza gaixtoa eta perilosa zela alferkeria, Jainkoa baithan edireiten zela ez aithortzeagatik, erran baitzuten erhokeria handi bat, Jainkoa bera bezala, mundua ere eterno zela eta haste gabe. Eta puntu batean, mundua haste gabe zela erraitean, huts egin bazuten ere, ordea bertzean, alfertasuna gauza gaixtoa, perilosa, eta nork bereganik egotztekoea zela erakustean, etzuten hutsik egin. Zeren hain da gauza galdua eta galgarria alferkeria, non naturalezaren beraren ere kontra baita. *Homo nascitur ad laborem et avis ad volatum*, dio Jobek (*Iob.* 5). «Gizona sortzen da trabailuko, eta hegatzina aireko». Nola hegatzinari emaiten baitzaitza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko, hala gizonari ere emaiten zaitza eskuak trabailatzeko.

21 Munduko gauza guztiek kondenatzen dute alferra. Zeren hartaz bertze guztiek enplegatzen baitute bere denbora, zertako eginak baitira, hartan. Iguzkiak arrazoinekin erran ahal diazaio beranduraino ohean datzanari: «Zerk aratza hor alfer-nagia? Nik atzo, hik baino bide gehiago iragan nian, inguratu bainuen mundu guztia, eta orai ere, hi baino goizago jaiki nauk». Zuhaitzek ere erran ahal dezakete: «Eztakusazue nola gu <35> ezkauden behin ere geldirik eta ez alferrik? Nola hazten, handitzen, loratzen eta geure denboretan eta sasoinetan fruituz bethatzen garen?».

19-2 *ahal zihoakeiela*: joan ahal zitekeela (ahalera trinko zaharra -ke atzizkiarekin).

19-32 *ahal diazaio*: ahal diezaioke. Ik. 325-34 testu-oharra.

Bada, aniamalia adimendurik eztutenek ere, behintzat erleek eta xinhaulriek, arrazoinekin erranen derakute, beha diazegula, heken nekeak, trabailuak eta joan-ethorriak konsidera ditzagula, eta halatan, agian, ahalketurik bedere, geure eginbi-dearen egitera eta trabailatzera ernatuko eta erdutuko garela.

- 5 Erleak, hain gauza ttipiak eta flakoak, bethatzen du mundua eztiz eztitzeko eta ezkoz argitzeko. Eta gaitz lizateke kontatzea, nola gobernatzen diren erleak elkarren artean; nola duten bere erregea, eta obeditzen duten; nola zaharrak kofauean barrena etxeko lanen egiten egoiten diren; eta gazteak, bere mantenuaren eta bizikaien garraion, kanpotik hari diren; nola duten bere athalzaina, eta behar ere bai. Zeren
- 10 eztiari, nola baita gozo eta izena duen bezala ezti, anhitz baitarraika eta baitzaika aiher. Nola trabailatzen direnek, trabailatzen eztiren alferrak eta nagiak ezten kolpez egotzten dituzten bere konpainiatik. *Expellunt ab alvearibus pigras* (Plin.). Eta nola bertzerik ere anhitz gauza egiten duten; eta guztiak hain ordenantza handiarekin, non baitirudi ezen <36> eztela erregerik, bere erresuma hain ongi gobernatzen duenik,
- 15 nola erleek bere erregearekin batean trabailatuz gobernatzen baitute berea.

- 22** Bada, xinhaulriaren gobernuaz, zuhurtziaz, trabailuaz, ethorkizuneko egiten duen probisioneaz, hornizoinaz eta biltzen duen mantenuaz, nork zer erranen du? Nork eztu miretsiko eta gogoeta eginen? Spiritu Sainduak berak igortzen gaitu aniamalia ttipitto hunengana, zer egin behar dugun ikhastera, erraiten duela: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius, et disce sapientiam, quae, cum non habeat ducem, nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (Prover. 6). «Zoaz, nagia, xinhaulriagana, eta konsidera itzatzu haren bideak eta bidexkak, joan-ethorriak eta itzulinguruak, nekeak eta trabailuak, eta ikhasiko duzu zuk ere nola behar duzun aitzinerat eta bethiere bizi, ibili eta gobernatu. Hark erakuslerik eta kidaririk gabe,
- 20 berak bere buruz biltzen du udan, neguaren iragaiteko behar duen mantenua, bazka eta bihia». Eta bihi hura gordetzen du lurrean barrena, berak eginikako ganbaretan eta bihitegietan. Eta hain da zuhur eta goithatu, ezen kanpoan deus ezin izanez, bere bilduetara bildu behar duenean, lehenik hozitu behar duen burutik hasten baitzaika bihiari; zeren, bertzela, sor liteke bihi hura, buztan liteke, belhar bihur <37> liteke;
- 25 eta gero, handik harat, alferlan gertha lekidikaio bere leheneko zuhurtzia guztia.
- 30

20-4 *erdutu*: «Lehiatu, presatu. AxH-n esanahia ez dago ongi emana» (Villasanteren oh.).

AxH-n «venir, llegar» dago itzulita, OEH-n bezalatsu: «partir; llegar» (s.v. *erdutu*).

20-9 *garraion*: mugagabe, *baten*, *etxen* eta kidekoen antzera. Cf. *golde nabarren eta arhen* (261-7/8) ere.

20-10/11 *aiher baitzaika*: aiher baitzaio, haren zale handia baita; adiera honetan, zeri eta zerbaiti izan behar (EH-aren arabera, s.v.).

20-27/28 *bere bilduetara bildu behar duenean*: «Bildu aditzaz joko bat egiten du hemen Axularrek, aditz hau bai iragankor eta bai iragangaitz bezala ere jokutzen dela jakinik. Ikus Mitxelena (1974: 116)» (Villasanteren oh.). Mitxelenak, «latin txarrez», *cum ad ea quae contulit se conferre oportet* itzuli zuen, hots, (*berak*) bildutakoetara bildu behar duenean, hau da, 'erretiratu behar duenean'.

20-30 *handik harat*: harrezkero, ordutik.

20-30 *lekidikaio*: lekiok (-*kidi*- duten **edin* laguntzailearen forma zaharretako bat). Ik. 325-34

Are gehiago, hozidurak janez gero ere, lurraren humidurak eta hezetasunak gainerakoa ustel eztiazon, atheratzen du noizik behin kanporat, airatzera eta iguzkiztatzera; eta orduan denbora onaren seinalea dateke. Eta halatan eta hala iragaiten du xinhaurriak bere negua; eta erakusten dio batbederari, nola eta zer moldez behar duen mantenatu, gobernatu eta, alferkeria guztiak utzirik, bere denboran trabailatu.

5

testu-oharra.

- 21-3 *denbora onaren seinalea*: «Zer eguraldi egingo duen jakiteko herriko jendeak bilatu dituen zantzuetarik, bat ematen zaigu hemen» (Villasanteren oh.).
- 21-3 *dateke*: «-ke eta -te atzizkiek aditz-formetan ezarriek (nahiz berezian, nahiz biak elkarturik) mugagabetasun bat, hots, indeterminazio bat aditzera ematen dute, R. Lafon jaunak erakutsi duen bezala (1944: I, 29, 446). Atzizki hoiak presenteko aditz formen bukaeran edo erdian ezarriak, Axularren *Gero*-n dexente aldiz ageri dira. Hunako zati hauetan aurkituko dituzu adibideak: 24, 37, 41, 83, 85, 131, 133, 140, 163, 169, 179, 182 (passim), 210, 215, 243 (passim), 249, 255, 265, 294, 312, 314, 316, 331, 335, 336, 349, 373, 375, 379, 396» (Villasanteren oh.).



*Zenbat kalte egiten duen alferkeriak, eta nola handik sortzen den
gerotik gerora ibiltzea*

KAP. II

23 Eskritura Sainduak, Elizako Doktorek, lehenagoko jentilek, eta are zeruko, 5
aireko eta lurreko gauza guztiak ere kondentatzen dute alferra, eta emaiten aditzera,
behar dela trabailatu, eta nor bere aldetik bere eginbidearen egitera enseiatu. Zeren,
nola ardurako trabailuak lan guztiak aitzinatzen baititu, hala alferkeriak gibela-
tzeintu.

<38> Galdegiten du San Krisostomok: *Quis equus utilis est, is qui in delitiis, vel* 10
qui exercetur? Quae navis, quae navigat, vel quae in litore est? Quae aqua, eane
quae fluit, vel quae stat? Quod ferrum, an quod movetur, an quo nemo utitur? Nunc
quidem illud splendet ac argento simile est, hoc autem rubigine consumitur. Tale
quidem fit etiam in otiosa anima (Chrysos. tom. 35 in Acta Apost., tom. 3). Zein 15
zaldi da on edo hobeago, geldirik eta alferrik bere plazerera dagoena, ala ibiltzen eta
manaiatzen dena? Zein untzi, kostan dagoena, ala itsasoan dabilana? Zein ur, geldia
ala lasterra? Zein burdina, zokhoan datzana, ala erabiltzen dena? Segur da, guztiak
erabiltzeaz, manaiatzeaz eta eskuztatzeaz ontzen, argitzen eta fintzen direla, eta
bai alfer eta geldi egoiteaz ere galtzen, desegiten eta herdoiltzen. Bada haur beror
gerthatzen da alfer dagoena baithan ere.

24 Dabilan harriari, etzaika goroldiorik lotzen. Ur irakinean ezto uliak pausatzen. 20
Ardurako arropari, etzaika zerrenik egiten. Zuhaitz bethakorra, ezto nehork ebaki-
tzen. Baina alferra, fauna, hutsa, bere sasoinean jasaiten eztoena, zertako da? *Ut*
quid etiam terram occupat? (Luc. 13). Halakoak zertako trabatuko du lurra?

Nos numeri sumus, fruges consumere nati, dio Oratiok, alferrez mintzo dela 25
(Horat. lib. 5, cap. 2). Gu kontu gara, gurekin kontuz gehiago, baina gainerakoan,
ezkara deusetako, lurreko fruituen <39> eta onen jateko baizen. Zerbitzariak alfer
egoiteaz beraz, gaizkirik ez eginagatik ere, merezi du gaztigu. Zeren San Krisostomok

23-7/8 *gibelatzeintu*: gibelatzen ditu (maizenik honela, uzkurtuta darabil).

23-18 *haur beror*: hau berau. 1. graduko artikulua zaharra (-aur > -or).

dioen bezala: *Nihil boni facere, hoc ipsum est malum facere* (Chrysos. tom. 16, tom. 2). Ongirik ez egitea bera da gaizki egitea. Eta Katonen errana da: *Homines nihil agendo, male agere discunt*. Ez deus egiteaz beraz ikhasten da gaizki egiten. *Otiositas est mater nugarum, noverca virtutum* (Bernard., *lib. de considera.*, cap. 11).

- 5 Alfertasuna da ergelkerien ama, eta berthuten ugazama. Eta halatan ergelkeriek, erhokeriek eta bizio suerte guztiek egiten dute laster alfertasunera, zeren ama baitute; baina berthutek eta obra onek, ihes. Zeren nola baitute ugazama, baitakite eztuketela harenganik begitarterik, eta ez ongi ethorririk.

§ 1

- 10 **25** Erraiten du Job sailduak, deabruaz mintzo dela: *Sub umbra dormit, in secreto calami* (Job. 40). «Itzalpean, kanaberaren estalgunean eta gerizan egiten du bere loa, han pausatzen du». Kanaberak, nola baita zuhaitz alferra, fruiturik jasaiten ez tuena, eta barrenean ere hutsa, signifikatzen du presuna alferra. Eta hartan, nor bere ostatu jakinean bezala, ostatatzen da deabrua. Hargatik erraiten zioen San Jeronimok bere
- 15 adiskide bati: *Facito <40> aliquid boni operis, ut diabolus semper te inveniat occupatum* (Hier. *ad Rusticum*). «Etzaudezila behin ere alferrik, egizu bethiere zenbait obra on, halatan bethiere deabruak enplegatua ediren zaitzan».

Multam malitiam docuit otiositas, dio Spiritu Sailduak (*Eccles.* 33). Anhitz malizia erakutsi izatu du alferkeriak.

- 20 Ezta maliziarik eta ez pensu gaixtorik, presuna alferrean ediren ez titekeienik. Asko da erraitea alferra dela, hartzaz edozein gaixtakeriaren sinhesteko.

- Per agrum hominis pigri transivi, et per vineam viri stulti, et ecce totum repleverant urticae et operuerunt superficiem eius spinae, et maceria lapidum destructa est. Quod, cum vidissem, posui in corde meo, et exemplo didici disciplinam*
- 25 (Prover. 24). «Iragan nintzen gizon nagiairen landatik, eta erho gobernu gabearen mahastitik —dio Spiritu Sailduak— eta guztiak ziren hasuinez, elhorriz eta belhar gaixtoz betheak; eta hesiak, herste giak eta harmorak ere, eroriak eta deseginak. Eta hek hala ikhusi nituenean, egin nuen gogoeta, hartu nuen exenplo, ikhasi nuen zer egin behar nuen, eta zentzatu nintzen bertzeren gainean». Eta zer den nagiairen landatik eta erho gobernu gabearen mahastitik edo ardantzetik iragaitea, deklaritzen du Glosak, erraiten duela: *Per agrum hominis pigri atque per vineam viri stulti transire, est vitam cuiuslibet negligentis inspicere, quam urticae <41> vel spinae replent* (Glos. ordi. super. 24 Prover.). Nagiairen landatik eta gobernu gabearen mahastitik iragaitea da presuna alferraren eta antsikabearen bizitzearen eta joan-
- 30 ethorrien konsideratzea, eta hetan, landa jorratu gabe bezala, anhitz hasuin eta belhar gaixto, anhitz falta, malizia eta bekhatu edireitea. Hasuina edireiten da alfer-nagiairen landan eta alhorrean, zeren *urtica figurat acediam; si molliter tangis, urit; si fortiter astringis, non pungit*, hasuinak signifikatzen du nagitasuna: baldin malguki, leunki, emeki, nagiki eta balakuz bezala hazkatzen, ferekatzen eta erabiltzen
- 35 baduzu, erreko zaitu; baina ez nabasiki eta ausartki hersten eta marruskatzen baduzu. *Fertilis, assiduo si non renovetur aratro, nihil, nisi cum spinis, gramen habebit*
- 40

ager, dio Ovidiok (Ovid. *lib. de trist.*). Den lurrik hoberenak ere behar du aphaindu, garbitu eta jorratu. Zeren bertzela belhar gaixtoa izanen da bethiere jaun eta nabusi. *Pestis est mortalibus ignavia* (Plaut. *De Repub.*). Ezta izurririk eta ez pozoinik nagitasunak edo alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik.

Badirudi hargatik eztuela nahi izatu Jainkoak dagoen behin ere itsasoa geldirik; baina nahi du ibil dadin, higi dadin, marea dadin. Zeren bertzela usain liteke, kirats liteke; eta are aphoz, sugez, ielez eta likitskeriaz bethe liteke, lakhuak, aintzirak eta bertze ur geldiak bethetzen diren bezala.

<42>

§ 2

26 Presuna alferra edukazu galdutzat eta hiltzat. Eta handik erraiten du Senekak: *Otium sine litteris est vivi hominis sepultura* (Senec. *Epis.* 28). Letra gabeko aisia, deus eztakienaren alferkeria, gizon biziaren hobia da, eta sepultura. Zeren deus eztakiena, eta egiten ere eztuena, presuna hilaren eta ehortzirik datzanaren pare baita. *Omnium vitiorum quasi magistra quaedam atque origo, otiositas*, dio San Krisostomok (Chrystost. tom. 36, tom. 2). Bizio guztien eta pensu gaixto guztien zimendu, ithurburu eta maestru bezala da alfertasuna. Zeren ithurritik ura bezala, alferkeriatik ere sortzen baitira gaixtakeriak.

Handik heldu da probetasuna, errumeskeria, eskean ibiltzea, eta bai ohoin izaitea ere. *Pigritia est nutrix egestatis*, dio Senekak (Senec. *lib. de benef.*). Nagitasuna da nezesitatearen eta probeziaren unhidea eta hazama. Eta erraiten du Spiritu Sainduak ere: *Omnis piger in egestate est* (*Prover.* 2). Nagia bethi da behar, eskas eta errumes. *Qui furabatur, iam non furetur, magis autem laboret, ut habeat unde tribuat necessitatem patienti*, dio Jondone Paulok (*Ephes.* 4). «Ebatsten zuenak, eztezala ebats, baina trabaila bedi, manaia bedi, eta halatan izanen du bere eta bertzeren». Erran nahi du, baldin trabailatzen bada, eztuela ebatsiko, eta ez errumeskeriarik ikhusiko. <43> *Egestatem operata est manus remissa; manus autem fortis divitias parat*, dio Spiritu Sainduak (*Prover.* 10). Esku laxoak eta alferrak probetasun dakharre, baina bortitzak eta trabailariak aberatstasun biltzen du.

27 *Otiosus Esau amisit primatus benedictionem, quia maluit accipere quam quaerere*, dio San Anbrosiok (Ambros. *Epis. ad Vercel.*). Esau alferrak galdu zuen bere lehentasuna. Zeren nahiago izatu zuen hartu, ezen ez bilhatu. Hala egiten dute bertze jende alferrek ere: nahiago dituzte bertzeren onak zuzen edo makhur hartu, eta bereak ere bahitu eta saldu, trabailatu baino. Eta gero, ezin har dezaketenean eta ez ebats; eta bahitzekorik eta saltzregorik ere eztutenean, abiatzen dira eskean, bata-

25-7 *iel: igel*-en aldaera.

25-24 *trabaila bedi*: «Laguntzaile iragangaitzaz jokatzan du beti Axularrek *trabailatu* aditz hau. Ikus beste toki batzuk ere: 114, 115, 249, 312» (Villasanteren oh.).

ren eta bertzearen forogu, anhitz beltzuri eta bekhaitzkoa izaiten dutela, eta atheak ere maiz, ez ikhusi iduri eginik, hersten zaiztela. Badirudi ezen haur eman nahi zuela aditzera Spiritu Sainduak, erran zuenean: *Subtrahe pedem de domo proximi tui, ne quando satiatus oderit te (Prover. 25)*. «Gibela ezazu zeure oina adiskidearen etxetik, ez han maiz ibil, ase eztezazu, higuin etzakitzan eta gaitzets etzaitzan». 5 Zeren, San Ambrosiok dioen bezala, *qui frequenter ad alienam mensam convenit, otio deditus est (Ambros. in Epist. ad Thesa., cap. 2)*, bertzeren mahaira maiz biltzen denak, badirudi alferkeriari emana dela.

Eta halakoa eta halakoak, haina eta hainak <44> maiz dira gaizki eta onbehar. 10 Baina aldeztira urrikalkizun: zeren bere faltaz, trabailatu nahi gabez, eta ethorkizunera ez behatuz halakatu baitira. Paga bezate, beraz, iragan duten aisia eta alferkeria, presenteko penaz eta trabailuaz; leheneko asea eta soberania, oraiko gosez eta eskasiaz. *In omni opere bono erit abundantia; ubi, autem, verba sunt plurima, ibi frequenter egestas (Prover. 14)*. Trabailu onean izanen da franko eta frankia, 15 baina hitz anhitz den lekhuana, maiz da probetasuna eta eskasia. Alferrak xoil dira hitztun eder, solhasturi handi: heken konpainian zarenean, ezta zure aldirik, zu baino hek hobeki enzunak dira, hekentzat da audientzia guztia, hei dagote mundua ahoa zabaldurik eta beharriak ernaturik beha. Ordea, gero azkenean hek eskale, eta zu emaille. Haur da alferkeriatik edo nagitasunetik heldu den irabazia: probezia, erru- 20 meskeria; bataren eta bertzearen karga eta forogu izaitea, ondore gaixtoa, kalte handia.

28 Baina kalte guztien gaineko kaltea, alferkeriatik heldu den handiena, zeini narraikola erran baitut nik orainokoa erran dudana guztia, da luzamendua, gerotik gerora ibiltzea. Zeren nagi-alferrak eztu behin ere erraiten «egun». Bethi bihar, bethi 25 gero, bethi luzamendu. Alfertasuna da *gero* guztien ithurburua, zimendua eta ama; egiteko <45> guztiak egunetik biharrera, presentetik ethorkizunera eta gerotik gerora luzatzen dituen. Eta ama hunen alaba haur, nagitasunetik eta alferkeriatik sortzen den *gero* haur da gure galgarria, gure izurria, eta egundainotik gure etsai debruak gure enganatzeko ediren ahal duen biderik eta arterik hoberena, finena eta 30 segurena.

Beraz, guk ere *gero* huni eduki behar diogu begia. Hunen geureganik khentzera, urruntzera eta etxetik atheratzera, behar dugu geure indar guztiaz eta antzeaz enseiatu, permatu, deliberatu, eta egun egin behar dugun gauzarik, eta ahal daidikegunik, ez biharko luzatu.

26-33/34 *ahal daidikegunik*: egin ahal dezakegunik (-gidi- erroa).

Nola nahikunde hutsetan eta desirkunde xoiletan iragaiten zaikun denbora

KAP. III

29 Erraiten du Salomonek, edo Salomonen ahotik Spiritu Sainduak: *Sicut ostium vertitur in cardine suo, sic piger in lectulo suo* (Prover. 26). «Athea bere erroetan bezala, itzultzen da nagia ere bere ohean edo kamastran». Athea bere erroetan eta uhaletan ongi jarria eta pausatua dagoenean, <46> erraxki hersten eta idekitzen da, aise alde batera eta bertzera erabiltzen da. Ordea, erabiltze hek guztiakgatik ere, erabili ondoan bere lekhuari eta tokian gelditzen da. Nagia ere negu hotzean, atheak atheari darauntsanean, ohean higitzen da, bertze aldera itzultzen da, burua goititurik jartzen da. Ordea, hargatik, itzulinguru heken buruan, lotara bere ohe berora bihurtzen da. Bada haur beror, spiritualki, bekhatore nagia baithan ere gerthatzen da. Bekhatoreak egonaren buruan, ezagutzen du bide makhurra daramala, errebelatua dohala. Eta hartzen du zerbait gogo, hartzen du nahikunde bat, bide onera bihurtzeko, bizitze berri bati lotzeko, eta anarterainoko aztura gaixto guztien utzteko.

Ordea, gero ere, iraultze eta ibiltze heken guztien finean, athea bere erroetan eta nagia bere ohean bezala, bere bekhatuen xisteran eta etzauntzan baratzen da.

30 Aztorea eskuan dadukazunean, higitzen da, iharrostean da, hegaldatzera aphoderatzen eta oldartzen da. Ordea, oldartze hek egin eta, lehen zegoen eskura bihurtzen da. Hala bihurtzen da, bada, bekhatore nagia ere, bere gogoeta on guztien buruan, bere leheneko tornuetara eta maina gaixtoetara. Enseiatzen da, baina flakoki; hurbiltzen da, baina ez aski. Halakoakgatik erraiten du <47> Isaias profetak: *Venerunt usque ad partum, et virtus non est pariendi* (Isai. 37). «Ethorri ziren erditzeko pontura; ordea, etziren erdi, etzen hartarakotzat indarrik aski». Hartzen dugu gogo, hartzen dugu borondate, obra onak egin behar ditugula; eta ethortzen gara egin behar ditugun orenera; ordea, han ixtitzen eta gibelatzen gara, han anu eta ukho egiten dugu, beharrenean faltatzen dugu. Zeren hartzen dugun gogo eta borondate hura, ezpaita fina, ezpaita zinezkoa eta ez deliberatuki delibe-

27-16 *xistera: etzauntza*-ren sinonimotzat jotzen da hemen (ik. *OEH*, s.v.), nahiz eskuarki 'saskia' izan.

ratua; nahikundea baita, eta ez nahia. *Voluntas nova, quae mihi esse caeperat, non erat idonea ad superandam priorem, vetustate roboratam*, dio San Agustinek (Augus. *lib. 8 Confess.*, cap. 5). «Ene borondate berriak etzuen indarririk asko borondate zaharraren garaitzeko».

- 5 Lo datzanak, erdi iratzartzen denean, egiten du zenbait mugida, jaiki nahi iduri bat, baina nola ezpaita asko zinez permatzen, berriz lotara bihurtzen da, loa nabusi gelditzen da. Hala dio San Agustinek, gerthatzen zeikala aldia batez berari ere: *Cogitationes, quibus meditabar in Te, similes erant conatibus expergisci volentium, qui tamen superati soporis altitudine, remerguntur* (Augus., ubi supra). «Munduko atseginetik eta plazerek, lo gozo batek bezala azpian nendukaten, eta noizik behin ethortzen zeizkidan plazer hetarik ilkitzeko eta Jainkoa baithan phensatzeko desirkunde batzuk. Baina hek guztiak, lotarik iratzarri nahi <48> zuenaren enseiu eta permadura flako batzuk bezala ziren, probetxu gabekoak, loaren garaitzeko, munduko egitekoetarik atheratzeko indarririk asko etzutenak. Eta halatan, neure desirkunde on guztien buruan ere, neure leheneko usantzetan eta bekhatuetan gelditzen nintzen».

- 31** *Vult et non vult piger*, dio Salomonek (*Prover. 13*). «Nahi du eta eztu nahi nagiak». Eztu nahi osoa eta ez konplitu. *Pigri vocabulo denotatur, quod vult regnare cum Deo, et non laborare pro Deo; delectant praemia cum pollicentur, deterrent certamina cum iubentur* (Beda, *lib. 2 super Prov.*). Nahi du nagiak Jainkoaren erresuman parte; ez, ordea, erresuma haren erdiesteko iragan behar diren trabailuetan. Pagamenduak alegeratzen du, trabailuak tristetzen du eta izitzen. Ongi egitetik heldu den irabazia, ongirik egin gabe nahi luke gozatu. Nahi du joan parabisura; ordea, nekhatu gabe. Ez atseginik nahi du utzi, eta ez penarik hartu.
- 25 Herabe du bideari lotzera. *Piger, quasi aeger pedibus* (Isidor. *lib. 2 Ethymo.*). Maingu da, oinak ditu eri, gogoa erbal eta flako. Nahikundea badu eta badugu, nahia eta obratzea zaiku falta, hura geroko egotzten dugu. Deus ere obratu gabe, deus ere, geure gogoak eta borondateak dioskun gauzarik baizen egin gabe, desira hutsen botherez, borondateaz beraz nahi genduke salbatu eta zeruko lorian sarthu.
- 30 Eta desira hautan, geroko <49> gogoan eta borondatean, denbora guztia iragaiten zaiku.

- 32** Erran komuna da infernua desira onez bethea dagoela. Zeren han direnek obratu ezpazuten ere, zenbait desira on bedere izan zuten. Ezta nehor ere hain gaixtorik, zenbait aldiz, bere gaixtakerien utzteko gogoa ethortzen etzaikanik, eta zenbait desirkunde on ere izaiten eztuenik. Ordea, desirkunde on hek berak eztira asko.

28-7 *aldia batez*: «Hala dator, bai *Gero*-ren lehen edizioan eta bai bigarreanean ere» (Villasanteren oh.). Larramendik eta beranduagoko Hegoaldeko zenbaitek ere (frai Bartolome, Iztueta...) *aldia* mugagabe erabiltzen dute (*OEH*, s.v. *aldi*).

28-28 *dioskun*: «esaten digun. Bizkaierazko formaz antz handia du (*diñoskun*). Aditz hunen formak dituzu, baita ere, toki hauetan: 169, 199 (bi), 212» (Villasanteren oh.).

Zeren hek lorea bezala dira. Eta nola hartzen ezten loreaz, itxatxetkitzen eztenaz, botean edo ninikoan galtzen denaz, ezpaita probetxurik: hala borondateaz beraz, desira hutsaz, xoilaz eta bakharraz, obra ahal ditekela obratu gabe gelditzen denaz, ezin dateke probetxurik eta ez fruiturik.

Alferrari erran behar zaika dagiela, eta nagiarri higi dadila; eta hala bata, nola bertzeta, biak orobatsu baitira, biak dira borondate huts; eztira nahikunderik, desirkunderik, gogorik eta gutziarik baizen. Eta gutizia hek berak dira penagarri-rik asko. *Desideria occidunt pigrum*. Erraiten oi da (*Prover. 2*): *Ignavis semper sunt feriae* (Adagium). «Nagientzat eta alferrentzat egun guztiak dira besta». Baina hobe-ki erran liteke, halakoentzat bestak ere astelegun direla. Zeren trabailariak bere trabailuan baino, anhitzetan ere alferrak, bere alferkerian, trabailu gehiago edireiten baitu. <50> Ageri da errege Dabid baithan. Errege hari etzeraukaten egundaino gerlek, eta gerletako trabailuek, hanbat egiteko eta atsekabe eman, nola alferkeriak, eta alfer zegoela egin zituen bekhatek. *Non sunt otiosi, quorum voluptates multum negotium habent*, dio Senekak (Senec. *De brevitae vitae*). Eztaude, ez, alferrik, plazeretan dabiltzanak. Zeren plazer hetan bada desplazer eta atsekabe, trabailu eta egiteko. *Dum otio vacant, in rem negotiosissimam incidunt* (Laert. lib. 2). «Alfer egoiteaz, erortzen dira egiteko handitan». *Sicut enim, cum quis non comedit, dentibus nocet, ita qui comedit non accomoda, stupescere facit* (Chrys. *Hom. 36*, tom. 3). «Nola ez jateak galtzen baititu hortz-haginak, hala behar eztenetik jateak ere hortzkitzeintu».

§ 1

33 Gauza segura da eta egiazko fedea erakusten duena, salbatzeko, zeruko lorian sartzeko, eztirela desira onak berak asko. Baina behar direla Jainkoaren manamendu sainduak, desiraz bezala obraz ere konplitu. Haur da egia, eta egia haur giristino garen guztiok sinhesten dugu. Ordea, guztiarekin ere, edireiten du gure maliziak eta borondate gaixtoak zenbait itzurpide, zenbait desenkusa eta eskapatzeko bide, obra-tzea utzirik, desiratan denboraren iragaiteko, luzamendutan <51> ibiltzeko. *Propter frigus piger arare noluit* (*Prover. 20*). Trabailatu nahi etzuenak, hotzaren atxakia egin zuen; barurtzera herabe zuenak, buruan min zuela erran zuen. *Dicit piger: leo est in via* (*Prover. 19*). Nagiak, bere lekhitik higitu nahi etzuenak, trabu handiak edireiteintu, bidean ere lehoina dagoela erraiten du. *Occasiones quaerit qui vult recedere ab amico* (*Prover. 8*). Adiskideaz desegin nahi denak, adiskidetasuna hau-tsi nahi duenak, okhasinoak bilhatzeintu, anhitz desenkusa eta estakuru edireiten du; hala edireiten ditugu, bada, guk ere okhasinoak, desenkusak, estakuruak, at-xakiak eta itzurpideak bekhaturan egoiteko, desirkundetan eta nahikundetn den-boraren iragaiteko.

Nehork ontasunera hersten zaituenean, eta gibela zaudenean, ihardesten diozu hala hersten zaituenari: «Othoi, orai presenteon barkhatu behar derautazu, ezin dai-diket oraino zuk diozuna. Zeren buruan sarthu baitzait fantasia bat, konplitu behar dut fantasia hura. Gogora baitzait gutizia bat, iragan behar dut gutizia hura; aphur

bat ase behar dut, aspertu behar dut, ixiritu behar dut; eta gero orduan ase, asper, ixiri eta nekha nadinean, bianda higuintzen hasi dakidanean, orduan guztiak utzikoituz; orduan bide on batean jartzera eta finkatzera deliberatuki deliberatuko dut. Baina bitartean, anarteraino, <52> ezta zer mintzaturik. Zeren nik orai ahal dukedan guztia da desira ona, geroko gogoia eta intenzioea, eta ez bertzerik». Ezta bide gaixtoa haur eta hunela orai egitea, gero fin gaitz egiteko.

§ 2

34 San Agustinek, frogatuak bezala, anhitz gauza erraiten du luzamendutan ibiltzeko puntu hunen gainean. Kontatzen du, nola bere bizitze gaixtoaren utzteko ingurunera zenean, ibili zen ezin ethenduz, ezin partituz eta bere baithan ezin deliberatuz. Kontatzen du, halaber, zenbat trabu edireiten zuen, zenbat gerla egiten zioten bere lagunek, okhasinoek eta aztura gaixtoek. Alde batetik, desiratzen zuen bide onean jartzea; hartara bulkhatzen zuten bere ama sainduaren nigarrek, konzientziaren autsikiek eta Jainkoaren manamenduek. Eta, bertzetik, trabatzen eta gibelatzen zuten leheneko usantzek, eta guztiz ere emazten balakuek, hitz ederrek eta plazerek. *Tenaciter colligabar a foemina (Lib. 8 Confes., cap. 1)*. Emaztek zedukaten bortitzki lothua. *Dixeram: «Da mihi castitatem et continentiam, sed noli modo»*. *Timebam, enim, ne me cito exaudires et sanares a morbo concupiscentiae, quam malebam expleri quam extinguere (8 Confes., cap. 7)*. Emaztetarik apartatzea, hain zeikan gaitz eta gaitzi, ezen bere othoitzak ere <53> hetzaz geroko, ethorkizuneko egiten baitzituen. Zeren beldur zen enzun zezan berehala Jainkoak, eta bere plazerak, gozatu nahizko desira handi batekin bere gogoan zerabiltzanak, gibela ziatzon. Egiteko hunetan zebilanean, erraiten zioen Jainkoari: *Modo, ecce modo; sine paululum (8 Confes., cap. 6)*. «Ha, Jauna, utztazu aphur bat, igurikazu bertze aphur bat, ez lehia, ez khexa, ez berantets, sarri naiz zurekin». Hunela erraiten zuen, hunela luzatzen zuen. Eta luzamendu hautan zebilala, denbora handia iragan zeikan. Ordea, gero ere, hura asko goiz bihurtu zen, etzen azken ponturaino egotu. Aitzitik, alde batetik eta bertzetik bere kontuak eginik, erran zioen deliberamendu handi batekin bere adiskide bati: *Ego iam me abrui ab illa nostra spe; et ideo servire statui, ex hac hora; in loco hoc aggredior (8 Confes., cap. 6)*. «Nitzaz denaz bezanbatean, ni kanpoan naiz munduko egitekoetarik, banalorietarik eta esperantza guztietarik; nik hautsi dut munduarekin; egin dut harekikoaz, eta deliberatu dut Jainkoaren zerbitzatzera. Eta orai bereon, presentean hasten naiz: ezta ja gehiago geroko gerorik, luzamendurik, eta ez epheetan ibiltzerik». Eta hala, erran bezala egin ere zuen. Anhitz luzamendu erabili zuen, baina azkenean guztiak, eta asko goiz, utzi zituen. Baina guk eztugu hala

30-10 *ibili zen ezin ethenduz*: «Axularrentzat *ethendu* da aditz hunen partizipioa, eta *ethen* radikala soilik. Ikus Mitxelena (1974: 110)» (Villasanteren oh.). Ik. *ethen* (31-2) eta *ethentzen* (53-8); ez dago besterik.

30-23 *ziatzon*: ziezaizkion.

egiten, egunetik egunera gabiltza, <54> bethi prometa, bethi gogo har; eta behin ere ez ethen, behin ere ez delibera, eta ez konpli; bethi nahi, bethi nagi, nahikunde hutsetan, desirkundetari denbora guztia gal, eta hala gaudezila, heriotzeak atrapa, atzeman eta har.

35 Iklusiko duzu jende handi batzuen etxetan, Herkules sendo famatu hura pintatua, makila borra bat edo mailu handi bat eskuan duela, baitirudi ezen hartaz, etxean sartzen diren guztiei buruak hautsi behar derauztela. Ordea, nola Herkules hura harriz, zurez edo kobrez egin baita, edo pintura bat baizen ezpaita, geldi dago, kheinatzea egiten du, eta ez bertzerik. Hala dira, bada, gerotik gerora dabiltzanak ere: kheinatzen dira, eta ez tute aurthikitzen; destatzen dira, eta ez tute desarratzen. Erraiten dute «eginen dut», eta ez tute behin ere egiten. Hala daudela, denbora guztia iragaiten zaie, eta berak ere iragaiten, finatzen eta akhatzen dira. 5 10



36 Badakigu orai darabilagun bizitzea, bizitze gaixtoa dela; eta, gutzaz ongi izaitekotz, bizitze gaixto haur utzi behar dugula. Ordea, pontua da ea noiz utziko dugun. Eta zuk diozu: «gero». Baina nik diot ezen ez gero, baina orai. Dakusagun ea zeinek dioen hobeki, zeinek duen arrazoina. Eta erakusteko ezen nik dudala, eta zu zoazila huts egina, eta bide errealetik eta zabaletik aldaratua eta errebelatua, erradazu behin, egiteko hunetan sarthu baino lehen: Zuk baitiozu ezen gero onduko zarela, gero behar diren deskarguak eta eginbideak eginen ditutzula: non duzu *gero* horren segurantza? Eztakizu, erran komuna den bezala, eztela heriotzea bezain gauza segurik, eta orena noiz izanen den bezain guti gerthurik?

Gure bizitze hunek hain du zimendu flakoa eta eria, ezen ongi minzatzera, ezin baiterrakegu: «Bihar eginen dugu hunelako edo halako gauza». Baina erran behar dugu Jondone Jakuek dioen bezala: *Si Dominus voluerit et si vixerimus, faciemus hoc aut illud* (Iacob. in sua epistol., cap. 4). «Baldin <56> Jainkoak nahi badu, baldin bizi bagara, eginen dugu haur edo hura». Hargatik erraiten du San Mateo ebanjelistak: *Vigilate, itaque, quia nescitis diem neque horam* (Math. 25). «Zaudete prestik eta iratzarririk. Zeren eztakizue eguna eta ez orena», eta badio Spiritu Sainduak ere, anhitz galdu dela, bere buruari ethorkizunaz sobera prometatuz. *Repromissio nequissima, multos perdidit* (Eccles. 29).

Gure lehenbiziko aitaren bekhatua dela kausa, harengatik, haren kariaz, guztiok gaude preso, guztiok gaude mundu hunetako garzele hunetan heriotzera kondenatuak.

37 Baina iragaitzaz bezala, gure heriotzera kondenaturik egoiteko puntu haur ukhi dezadan. Badirudi ezen gure lehenbiziko aitaren bekhatuagatik, ez hark berak, eta ez guk ere, ezkendukeiela hil behar. Zeren sagar bat edo halako bertze fruitu bat jan zuen. Bada sagar baten jateagatik, gizon baten, are bere ondoko guztiekin, heriotzera kondenatzea, badirudi justizia berriarena, soberania eta

33-13 *baiterrakegu*: esan baitezakegu (*erran* aditza).

arrazoinaren kontra dela. Egia da, hala dirudi. Ordea, ezta hala, iduria du, eta ez izana. Aitzitik, sagar baten jateagatik, zeren hain gauza ttipian eta erraxean manua hautsi zuen, aldez hargatik zuen gaztigu gehiago merezi. Batzuek bere lazotasunez, zeren ezpaitira giristino finak, barur eguna mengoa gabe hautsten dute; 5 batarekin eta <57> bertzearekin solhasean daudezila, meza enzun gabe besta egunean utzten dute; hitz guztiaz, ez eta bai asko den lekhuana, arnegu eta juramentu egiten dute, eta gero erraiten dute: «Baldinba, ez ahal naiz hunengatik, hunein gauza aphurratik, eta hunein erraxki egin dudanagatik ifernurako?». Bada, erran nahi deratzut ezen zeren horrein gauza erraxean, aphurrean eta ttipian zeure 10 laxotasuna eta Jainkoaren manuaz kontu guti egitea erakutsi duzun, aldez are horrigatik ifernurako zarela.

Baldin Jainkoak manatu bazinitu, egun guztiaz barur zindezila; zur baten edo harri baten gainean, ohetan sarthu gabe etzin zindezila. Zilizio bat, zerdazko gerriko bat, larru arras bethiere erabil zenezala; edo finean, hunelako bertze manamendu gaitz bat eman baleratzu, badirudi etzatekeiela miretsteko, ez konplitzea; 15 eta ez konplituagatik ere izan zendukeiela zerbait desenkusa eta estakuru. Baina gauza ttipian eta erraxean, sagar baten debekuan, zer desenkusa, zer estakuru ahal dukezu?

38 Adanek anhitz fabore eta abantail errezipitu zuen Jainkoaganik, eta gero heken guztien buruan, zuhaitz bat seinalatu baitzioen, erran zioen bertze guztietarik bai, baina haren fruitutik etzezala jan. Manamendu erraza, debeku ttipia ibeni zeraukan; eta guztiarekin <58> ere, etzuen begiratu, etzuen konplitu, hautsi zuen, jan zuen; arrazoinez, beraz, erraztasun huragatik beragatik ere, kondenatu zuen bere ondoko guztiekin heriotzera: zeren ondokoek ere haren naturaleza hartu baitzuten. Gauza, 25 debekua, ttipia da, baina desobediencia handia. Eta hala, justuki dago gure kontra sententzia emana; justuki gaude heriotzera kondenatuak; eta eztakigu noizko. Beraz, baldin geure buruoz kontu onik eman nahi badugu, kondenaturik dagoen batek bezala, behar dugu egon, bizi eta gobernatu.

Garzelean dagoenak, jakiten duenean kondenatu dela biziaren galtzera, nork 30 erranen du nola tristetzen den? Zein gogoetatsu jartzen den? Hasten da hatsbeherapen egiten, alde batera eta bertzera itzultzen. Eta ikhusirik eztuela erremediorik, eztuela eskapatzerik, hartzeintu lehenez bertze gogoeta molde batzuk. Munduaz eta mundukoez etsitzen du, eztu hetzaz konturik egiten. Bere konzienziak, bere arimak derauka egiteko. Bere bekhatuak pensatzeintu, ahalik eta hobekiena kofesatzeintu; 35 batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen zaie. Finean, ahal bezanbat bere konzienzia deskargaturik eta garbiturik, heriotzeari igurikitzen dio.

34-17/18 *ahal dukezu*: izan dezakezu.

34-33/34 *derauka*: ematen dio (**eradun* erroaren erabilera trinko zaharra, 'eman' esanahiaz).

34-35 *eskatzen zaie*: «Laguntzaile iragangaitzaz jokatzeko du Axularrek *eskatu* aditza. Ikus beste toki batzuk ere: 46, 50, 109, 112, 151, 172, 299» (Villasanteren oh.).

Bada, garzelean kondenaturik dagoen hark bezala, hala prestaturik, hark dituen gogoetekin behar dugu guk ere egon, bizi eta ibili, <59> hura biharamuneko bezala, gu ere, ez jakin noizko, benturaz gaurko, Jainkoaz beraz, Jainkoak sententzia emanik kondenatuak gaudenaz geroztik.

Sar balitza justiziak hamar gizon garzelean barrena urkhabera kondenaturik; eta handik athera balitza galtzera egun bat, eta bihar edo bertze egun batez bertze bat edo bia. Othe lizateke nehor ere, heken artean, bizitze luzearen esperantza luenik? Edo zeren ez tuten lehena atheratzen, azkena izanen dela segur lizenik? Eztut uste. Bada, mundu haur ezta bertze gauzarik, gure heriotzera kondenaturik gaudenon garzele bat baizen. Eta garzele hunetarik atheratzen gaitu Jainkoaren justiziak, egun bat, bihar bertze bat; bata lehen, bertzea gero, eztaki nehor noiz, ezta segurantzarik. Beraz, gauden erne, gauden prestik, segurantzarik eztenaz geroztik.

§ 1

39 Komunzki ahotan dabilan solhasa da: «Eztugu geroko segurantzarik, bethi gara periletan». Eta hala da egia. Zeren gutien uste dugunean, geure gogarenik gaudenean eta aitzinerat ere anhitz gauzaren egiteko gogo hartzen dugunean atrapatzen baikaitu heriotzeak.

<60> *Nescit homo finem suum; sed, sicut pisces capiuntur hamo, et aves laqueo comprehenduntur; sic capiuntur homines tempore malo (Eccles. 9).* Eztaki gizonak bere finaren berririk, baina nola amuak atzemaiten baititu arrainak, eta hegaztinak segadak, hala gizonak ere atzemaiteintu bere heriotzeak. Arraina alha denean, bazkari datxekanean, eta bere ustez hobekienik dagoenean, atrapatzen du arrantzaleak, eta bai hegaztina ere ihiztariak. Hala atrapatzen du, bada, bekhatorea ere heriotzeak bere bekhatuei bere gogarenik datxetenean, gozokienik alha zaienean, eta gutien uste duenean.

Midikuen errana da, presuna batek sendoen denean duela eritzeko perilik gehiena. Eta hala, noiz eta uste baituzu heriotzea zureganik dagoela urrunenik, orduan ohi dago komunzki hurbilenik. Zorrak pagatu dituzunean, etxe berria egin duzunean, umeak ezkondu dituzunean. Finean, zeure egitekoei garaiturik, bake on batean jartzera, eta zerbait sosegu eta plazer zeure buruari emaitera prestatzen zarenean, han da berehala heriotzea.

40 Ezkara deus ere, beirakiaren pare gara, eta are beirakia baino perilos eta hautskorrago. Eztugu beirakiak bezanbat indar eta sophortu ere. *Quid fragilius vase vitreo? Et tamen servatur et durat per saecula. Etsi casus vitreo vasi timentur, se-*

35-3 *benturaz gaurko:* «agian gau huntarako. *Gaur*, Axularrentzat, *egungo gaua da*. Ikus beherago, 50. zatian, nola latinezko *hac nocte* euskarara *gaur* itzultzen duen» (Villasanteren oh.).

35-6 *egun:* gaur.

35-7/8 *luenik... lizenik:* izango zuenik, izan zezakeenik... izango zenik, izan zitekeenik (alegiatzko adizkien erabilera zaharra, perpaus konpletiboan). *balu-ri luen* bezalaxe, (*ba*)*liz-i lizen* dagokio.

nectus ei et febris non timetur, dio <61> San Agustinek (Augus. ser. 1 *De verbis Dom.*, tom. 10). Zer da beirazko untzia baino gauza samurragorik eta hauts-korrakorik? Eta alabaina, ailtzatzen eta begiratzen denean, irauten du mendez mende. Zeren erortzearen peril badu ere, ez ordea, eztu sukharren edo zahar-
 5 tzearen perilik. Beraz, beirakia baino perilosago gara eta eztheusago. Zeren behaztoparik, eroririk edo eritasunik ez gerthatuagatik ere, eta geure buruak ahalik eta hobekiena errekaitatu eta begiratuagatik ere, adinak berak eramaiten baikaitu.

Bethi goazi, ezkara behin ere baratzen. *Quasi aqua dilabimur* (2 Reg. 1). Uraren pare gara; ura bezala linburtzen gara. *Corpora nostra rapiuntur fluminum*
 10 *more* (Senec. *Epis.* 58). Gure gorputzak ur-lasterra bezala dohazi. *In idem flumen bis non descendimus; manet idem fluminis nomen, aqua transmissa est* (Senec. *ibidem*). Ezkara behin ere ur batetan biatan sartzen (dio Senekak), uraren izena bethi da bat, ez ordea ura. Zeren nola bethi baitoha, eta bethi aldatuaz, ezta behin ere lehena. Ez eta, bada, gu ere, nola bethiere baikoazi, eta bethi aldatuaz eta muthatuaz,
 15 ezkara behin ere lehenak. Eta ezpere, beha ezazu nola presuna bat gaztetik zahartzera, eta are batzutan urthetik urthera ere, aldatzen eta ezeztatzen den, idurian ere lehena eztirudiela jartzen den, zein diferent egiten den.

Vita nostra naviganti similis est; is namque qui navigat, stat, iacet, vadit, quia impulsu navis ducitur (Greg. *Epis.* 26, tom. 2). <62> Gure bizitza itsasoz
 20 dohana bezala da (dio San Gregoriok); itsasoz dohana, jatean, edatean, lo dartzanean, eta are jarririk dagoenean ere, badoha, ezta orduan ere baratzen. Zeren untxiak, nahi ezpadu ere, berekin baitarama. Hala garamatza, bada, gu ere geure adinak eta denborak berekin: ezta pausatzerik, ezta gelditzerik, eta ez trika-
 tzerik.

25 **41** Galdegiten deratzutenean zenbat urthe ditutzun, eta ihardesten duzunean hogoi edo hogoi eta hamar ditutzula, zeren zeure kontuan hala baititutzu, badirudi eztuzula ongi ihardesten. Zeren San Agustinek dioen bezala, *Anni nostri veniunt, ut eant; non enim veniunt ut stent nobiscum* (August. in *Psal.* 65). Gure urtheak ethortzen dira joaiteko, eta ez gurekin egoiteko. Iragan dira; beraz, ezin derrakegu baitugula. Eta
 30 hala, baldin urthe heken buruan jar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan, eztugu deus edirenen. Aitzitik, ikhusiko dugu sentitu gabe joan zaizkigula, eta nola eztakigula zahartu gabela. *Tempora labuntur, tacitisque senescimus annis* (Ovid. *lib. 6 Fasto*). Denborak badohazi, eta urthe ixil batzuez, hotsik eta habarrotsik egin gabe zahartzen gara.

35 Erraiten da «hunelako bizi izatu zen hirur hogoi urthez», baina hobeki erran liteke hil zela hirur hogoi urthez (Vide Augus. in *Psal.* 127, tom. 8). Zeren sortzen garenean hasten gara hiltzen, orduan abiatzen gara, eta ezkara behin ere baratzen. Lehenik <63> hiltzen da haurtasuna; haurtasunaren ondoan hiltzen da morrointa-
 40 suna; morrointasunaren ondoan hiltzen da gaztetasuna; gaztetasunaren ondoan hiltzen da zahartasuna; zahartasunaren ondoan hiltzen da sentontasuna. Adin

36-29 *baitugula*: baditugula. Ik. 36-29 testu-oharra.

guztiak elkarri darraitza: iragaitea eta hiltzea guztia da bat; bata bertzearen ondoan dohazi, halako moldez, ezen azken adina dathorreneko, akhabatu baitirate leheneko guztiak. Zeren San Gregoriok dioen bezala: *Ipse enim quotidianus defectus, quid aliud est quam quaedam prolixitas mortis?* (Greg. tom. 27 super *Evang.*). Egunetik egunera ahitze eta flakatzeko hura, zer da, luzaro hiltze bat bainen? Zuzia iratxekirik dagoenean, bizi da, eta orduan hiltzen da, zeren orduan ahitzen baita. Erratzeaz bizitzen da, eta erratzeaz hiltzen da. Hala bada, gu ere bizitzeaz hiltzen gara, eta hiltzeaz bizitzen. Zeren bizitzen garenean hiltzen baikara. Eta zenbatenez eta gehiago bizitzen baikara, hanbatenez heriotzeko portura hurbiltzenago gara. Hala erraiten du Senekak: *Quotidie morimur; quotidie, enim, demitur aliqua pars vitae* (Senec. *Epist.* 24). Egunoro hiltzen gara, zeren egunoro gure bizitzeari zenbait poxin eta parte gutitzen eta edekitzen baitzaika. Eta are hazten eta handitzen garenean ere, gure bizia ttipitzen eta laburtzen da. Bethi doa, eta behin joanez gero, ezta joan denaren bihurtzerik, eta ez ethorkizunaren segurantzarik.

<64>

§ 2

42 Erraiten ohi dugu: «Benturaz egun hilen gara, benturaz bihar, eztugu oren baten segurantzarik; beraz, lehen baino lehen, behar dugu bide onean jarri, enganatuak gertha ezkaitezin». Hunela erraiten dugu, eta erraitea ongi egiten dugu; ordea, obra-tzea bethiere geroko utzten dugu: heriotzea zahartzerakotzat egotzten eta ordenatzen dugu. Ezin sinhets dezakegu, adinak berak akhaba arteino, akhabatuko garela. Erran bai nahi duzun bezanbat: benturaz bihar hilen, benturaz gaur, benturaz ez zahartuko. Ordea, zahartuko baikina bezala geure gauza guztiak egin. Geure nahia-rekin batean, geure gogoak hanbat segurantza emaiten deraku, non zahartu hutsezko ponturaino, ezkarela hilen iduritzen baitzaiku.

Erran zerauean deabruak gure lehenbiziko aita-amei: *Nequaquam moriemini* (*Genes.* 3), «Etzarete hilen», sinhetsi zuten berehala, eta sinhetsi ere kolpe batez, osoki, dudatu gabe. Eta denbora hartan etzen hain miresteko hala sinhestea. Zeren nola baitziren munduko lehenbizikoak, etziakiten oraino heriotzearen berririk, etzuten nehor hiltzen zela ikhusi, eta halatan, erraxki enganatu zituen. Hala bada, nahi ginituzke gu ere enganatu; molde berean nahi leraukegu guri ere, ezkarela <65> hilen sinhets arazi. Ordea, nola guk orai bertzeren baithan ikhusiz, eta geure baithan ere zaharzez eta flakatzeez frogatuz, baitakigu segurki eta gerthuki, hil

37-2 *akhabatu baitirate*: akabatuta egongo baitira; erdaraz, beraz, «habrán expirado todas las anteriores». Gehienetan *-teke* darabil Axularrek (73-11, 148-16, 153-20, etab.), baina cf. *dirateien* (321-23) ere, besteak beste. Ik. 321-23 testu-oharra.

37-10 *hurbiltzenago*: «-ago, konparazioko atzizkia, aditz-izenkiari iratxekia. Maiz egiten du Axularrek iratxetura hau» (Villasanteren oh.). Aditzizenaz gainera, bada ohiz kanpoko beste oinarriren bat, hala nola inesiboa (*beharreanago* 150-19, 324-5) eta soziatiboa (*gutirekinago* 283-32/33).

37-31 *leraukegu*: liguke.

behar dugula, eztugula itzurtzerik, eta ez nehoizko segurantzarik; ezin engana gaitzake gu, gure lehenbiziko aita-ama hek bezain erraxki. Gurekikotzat, guri ezkarela hilen sinhets arazitzeke, edo sinhesten baikendu bezala eragiteko, bertze bide bat hartzen du, bertze joko thailu bat jokatzan du, bertze mainaz eta trazaz usatzen du.

- 5 Ez osoki, ez kolpe batez, baina aphur bana eta egunetik egunera luzatuz atrapatzen gaitu. Sinhets arazitzen deraku ezkarela egun hilen, ezkarela bihar hilen; eta bihar bezain ephe luzerik ez, eta ez bihar arteino bizitzeko esperantza eztuenik; eta halatan eta handik, nola ezpaitugu uste egun hilen garela, eta ez bihar ere, bizitzen gara segur baikina bezala, edo sekulan hilen ezkarela baikiniaki bezala.

10

§ 3

- 43** Eztakigu noiz hilen garen, eztakigu noiz izanen den gure azken eguna; ezta, beraz, arrazoin, jakin dezagun noiz izanen ezten ere. Ordea, badirudi ezen, noiz izanen den ezpadakigu ere, badakigula noiz izanen ezten. Zeren erraiten dugu ezen <66> gero, bertze urthean onduko garela; orduan hunelako eta halako deskargu eginen ditugula; beraz, badakigu eztela anarteraino izanen, bitartean igurikiko zaikula, edo behintzat erraiten eta egiten bedere badugu, baikiniaki bezala.

- Guk nahi genduke egin geure bizitzeaz, eta bizitzeko denboraz, oihal puska batez egiten duguna. Oihalaren parte bat neurtzen eta ordenatzen dugu kapatako, bertze parte bat jakatako, eta gainerakoa behar diren bertze soinekoen egiteko. Hala bada, oihalaren bezala, geure bizitzearen ere jaun, jabe eta nabusi baikina bezala, ordenatzen dugu bizitzearen parte bat, eta parterik hoberena eta gaiena, gaztetasuna, munduarentzat, eta gero gainerakoa, gaixtoena, zahartasuna, Jainkoarentzat. *Quod in manu fortunae positum est, disponis; quod in tua, dimittis*, dio Senekak (Seneca, *De brevitae vitae*, cap. 9). Ethorkizuneko gauzak, fortunaren eskuan eta benturan daudezinak, nahi ditutzu oraidanik gobernatu, trazatu eta destatu; eta presentekoak, zeure eskuan dituzunak, utzten ditutzu galtzera; duzunaz eztuzu konturik egiten, eta eztuzunaz egin gogo duzu mirakuilu. Orai Jainkoak emaiten derauzkitzun bizitzea, osasuna, indarra, antzea eta onhasunak nahi ditutzu Jainkoaren beraren kontra zabilzala higatu eta galdu, eta gero, oraino eman ezterauzkitzunak, eta benturaz <67> emanen ere ezterauzkitzunak, diozu ezen, haren zerbitzuan enplegatuko dituzula. Ikhusazu zeure itsutasuna, desgubernua eta galtzeko bidea.

- 44** Ninivitek penitentzia egiteko berrogoi egunen ephea, espazioa eta segurantza zute-larik, hartara behatu gabe eta azken egunaren begira egon gabe, berehala, lehenbiziko egunean hasi ziren penitentzia egiten eta bere falten erremediatzen; eta handik eta halatan salbatu ziren. Zergatik, bada, guk ere eztugu hala eginen? Zergatik utzi behar dugu geroko, ez berrogoi egunen, baina baten ere segurantzarik eztugunaz geroztik?

38-6/7 *eta bihar bezain ephe luzerik ez, eta ez bihar arteino bizitzeko esperantza eztuenik*: Aditza-
tza-
ren elipsia dago (*ez da espero dugu bietan*).

38-32 *espazioa*: Ik. 38-32 testu-oharra.

Noeren denboran, jaten, edaten, jokutzen, dantzaten, ezkontzen, sal-erosi egiten, eta ethorkizunerat anhitz gauzaren ordenatzen, pensatzen eta trazatzen hari zirela, hartu eta hondatu zituen urak. Hala da, bada, peril, gertha dakigun guri ere, gerotik gerora gabiltzanoi. Zeren hek zein guti zuten, are guk baitugu hek baino segurantz gutiago; eta, aitzinerat hobeki behatzen ezpadugu, galtzeko eta fin gaitz egiteko iduri, arau eta molde gehiago. 5



<68>

Nola geroko benturaren benturan benturaturik galtzen garen

KAP. V

45 Nola gure Jaungoikoa baita hain on, bihotzbera, miseriakordios, pazienziatsua eta ethorkor, erraiten duzu: «Anhitzi iguriki dio eta igurikitzen dio zahartu hutsezko ponturaino, naturalezak berak bere ahala egin arteino; beraz, eztut oraino zer lehia- 5
turik, zeren benturaz, hala eginen du enekin ere». «Benturaz» diozu. Eta eztakizu benturak benturaren jokoak eta tornuak dituela?

Hirur bentura molde, hirur bentura suerte edireiten ditut puntu hunen gainean. Lehenbizikoa da, bekhatu egitetik eta anhitz periletarik begiratzen eta gibelatzen 10
gaituena. Handik erraiten dugu: «Eztut bekhatu egin nahi, zeren benturaz hetan nengoela, neure azken egunak atrapa nintzake. Eztut ebatsi nahi, zeren benturaz justiziak atzeman nintzake, urkha edo azota. Eztut jokatu nahi, zeren jokoa ezta errenta, benturaz gal nezake. Eztut eskuetan dudana gabetu nahi. Zeren benturaz, gero, nahi dudanean, <69> ez nuke». Hala erran zerauezan birjina zuhurrek, birjina 15
ergel olio eske ethorri zeitzenei: *Ne forte non sufficiat et nobis (Mathe. 25)*. «Ezteratzuegu eman nahi, zeren, benturaz, gero ezkenduke geuretzat aski». Hala Dathan eta Abiron bere lagun batzuekin lurak iretsi zituenean ere, egin zuten inguru hartan zirenek handik ihes, erraiten zutela: *Ne forte et nos deglutiatur (Nume. 16)*. «Goazin hemendik, zeren baldin hemen bageneunde, benturaz, bertze hau bezala iretsi gini- 20
tzake gu ere lurak». Haur da bentura ona, ethorkizuneko bentura gaixtotik eta periletik begiratzen gaituena.

46 Bigarrena da, halaber, bentura ona, bekhatu egin ondokoa, eginen erremedi-
diatu nahiz dabilanarena. Ikhusirik galduak goazila, Jainkoaren manamenduak
hautsi ditugula, erraiten dugu: «Eginak egin, ez gehiago. Aitzinerat hobeki nahi 25
dut gobernatu: Jainkoari zin-zinez, bihotzetzko urrikimendu batekin nahi naitzaika barkhamendu eskatu. Zeren benturaz halatan barkhatuko deraut, halatan izanen du nitzaz miseriakordia». Minzatze molde hunez usatu zuen Daniel profe-

41-14 *zerauezan*: zieten. Ik. 177-21 testu-oharra.

tak ere, erran zioenean Nabukodonosor erregeari: «Errege, aparta zaite zeure leheneko bide gaixtoetarik, eta egizu erremusina, zaren beharren alderakotzat bihotzbera eta miserikordios». *Et forsitan Deus ignoscet delictis <70> tuis (Daniel 4)*. «Eta benturaz halatan Jainkoak barkhatuko derauzkitzu zeure bekhatuak». Hala, Ninive hiri handi hartako erregeak ere, enzun zuenean haserre zela haren eta harenen kontra Jainkoa, manatu zuen hiri guztia jar zedila debozinotan eta penitentiarian, guztiak barur zitezila, eta are abre mutuei ere, etzekiela eman jatera eta ez edatera, erraiten zuela: *Quis scit si convertatur et ignoscat Deus, et revertatur a furore irae suae, et non peribimus? (Iona 3)*. «Nork daki, mehatxatu bagaitu ere geure Jainkoak, eta erran badu ere haserre dela gure kontra, ea gure urrikimendua eta penitentzia ikhusirik, itzuliko denz bertze aldera, ematuko zaikanz bere kolera, eta utziko gaituenz gaztigatu gabe?». Erran bailu bezala: «Arrazoinekin da gure Jainkoa gure kontra haserre, arrazoinekin mehatxatzen gaitu eta erraiten deraku gaztigatu nahi gaituela. Baina guztiarekin ere, debozinotan jar gaitezin, lehen gaixtatasunean bezala, orai ontasunean enplega gaitezin, eta benturaz halatan bihotza hautsiko zaika, urrikalduko gatzaitza, eta barkhatuko deraku». Hala erran zioen untzi-maestruak ere, tormentatua zebilanean, Jonas profetari: *Quid tu sopore deprimeris? Surge et invoca Deum tuum, si forte recogitet de nobis et non pereamus (Iona 2)*. «Zer hariaz, gizona? Zerk aratza lo? Eztakusak ithotzera goazila? Haik hortik, jar adi <71> orazinotan, egiok heure Jainkoari othoitz, eta benturaz halatan eskapatuko gaituk». Hala Patriarka Jakobek ere, bere anaiarekin gaizki zenean, igorri zerautzan bere anaia hari aitzinetik presentak, erraiten zuela: *Forsitan propitiabitur mihi (Genes. 32)*. «Benturaz, hunelatan, present haukin batean barkhatuko deraut, benturaz hunelatan adiskidetu gara». Haur da bigarren bentura ona, ontasunean enplegatzen dena, falta eginak erremediatu nahi dituenarena.

47 Baina bada bertze bat, hirugarren bat, *benturaz* gaixtoa, luzamenduak bilhatzen dituena, gibelamendutan dabilana, eta perilik baizen ezten lekhuana ere, segurantzak ediren nahi dituena. Erraiten zaitzu zahartzen hasi zarela, bi iletan jarri zarela, begiak lanbotzen hasi zaizkitzula, bidearen bi herenak iragan ditutzula, eta baldin horrela zaudela zeure azken egunak edireiten bazaitu, ez benturaz, baina seguraz kondenatuko zarela. Ordea, zuk eztuzu hunelakorik sinhetsi nahi, eta ez enzun ere. Aitzitik, zeure nahiarekin batean, benturaz eztela halakorik izanen iduritzen zaitzu. Eta erran behar

42-2 zaren: izan zaitez.

42-11 denz: denentz, den ala ez.

42-16 *urrikalduko gatzaitza*: gatzaizkio, hau da, 'gu hari' jokatuta, bestela 'hura gutaz' esango genukeena adierazteko.

42-19 *hariaz*: «Horrela ageri da, bai lehen eta bai bigarren edizioan ere» (Villasanteren oh.). Ahozko euskararen uzkurduretako bat, nonbait, berariaz hizketaldian erabilia.

42-19/20 *Zerk aratza lo?*: Zerk atxikitzen hau lo? Ik. 42-19 testu-oharra.

42-20 *Haik hortik*: «jaiki hadi hortik» (Villasanteren oh.).

bidean «Benturaz hala izanen da. Benturaz kondenatuko naiz», erraiten duzu: «Benturaz ez naiz kondenatuko, benturaz ezta halakorik izanen».

<72>

§ 1

48 Lehenbiziko gezurra, lehenbiziko emazteak erran zuen. Galdegin zeraukanean deabruak Ebari, ea zergatik etzuen jaten parabisuaren erdian zegoen zuhaitz eder haren fruitu eder hartarik, ihardetsi zuen: *Ne forte moriamur* (*Genes.* 3). «Eztut jaten, zeren erran baiteraut Jainkoak, baldin jaten badut, benturaz hilen naizela». Eta, alabaina, Jainkoak etzioen halakorik erran; etzioen benturarik aipatu. Garbiki eta segurki erran zioen, jaten zuen egun berean hilen zela; erran nahi du, mortal eginen zela, hilkizun izanen zela. *In quocumque, enim, die comederis ex eo, morte morieris* (*Genes.* 2). *Benturaz* hura Ebak berak berretu eta iratxeki zeraukan, eta berretura eta iratxetura hartaz, bere burua eta guztiok ere galdu ginituen. 5

Emazte ezkondu batek, bere senharraz bertzerekin, eta ezkondu gabeak ere behar eztenarekin, bekhatu egitera deliberatzen dutenean, ezkondua orhoitzen da bere senharraz, eta bai ezkondu gabea ere izorratzeaz, eta ethor ahal dakidikaion desohoreaz eta kalteaz. Ordea, hargatik, benturatzen dira bata eta bertzea ere, erraiten dutela: «Benturaz senharrak eztu jakinen», «Benturaz ez naiz izorratuko». Ohoinari ere, ebastera dohanean gogoratzen zaika, eskuak <73> iratxeki badiatzote, gutienean bereak emanen derautzatela, azotea izanen duela. Baina hark ere fite konsolatzen du bere burua, erraiten duela: «Benturaz ez naute atrapatuko, benturaz ez naute sentituko». Hala bada, guk ere, gerotik gerora gabiltzanok, konsolatzetugu geure buruok, eta erraiten dugu: «Benturaz huneraino iguriki derautanak, igurikiko deraut orai ere. Benturaz orai ezpadut ere, izanen dut aitzinerat ongi egiteko gogo. Eztira oraino denbora guztiak iragan». 10

49 Bada hemen bentura franko, eta ez esperantza eskasik. Zer da haur? Non da zentzua? Non da akhordua? Zer egin da adimendua? Zeure salbamendua, hanbat dihoatzun gauza, sekulakotzat ongi edo gaizki izaitea, iben dezazula benturan? Eztuzu pensatzen bentura horrek, benturaz, bentura gaixtoa emanen deratzula? Eta nork bere duen guztiaren benturatzea, erhokeria handia dela? 25

Benturaz hunen gainean ederki erraiten du san Krisostomok: *Sed multis, inquis, Deus dedit privilegium, ut in ultima senecta confiterentur. Quid, igitur? nunquid et tibi dabit? Fortasse dabit, inquis. Cur dicis fortasse? Contingit aliquoties. Cogita quod de anima tua deliberas; proinde, etiam de contrario cogita; et dic: «Quid autem si non det? Quid autem, si det?» inquis. Dat quidem <74> ipse; verum hoc illo certius et utilius* (*Chrysost. Hom.* 22, tom. 4). Erraiten duzu eta erranen duzu: Jainkoak anhitzi emaiten deraue pribilegio haur, gaztean gaixto izanagatik, igurikitzen baiteraue, zahar ditezkeien arteino, eta orduan behar den bidean, penitentzia eginik, salbatzen 30

43-12 ginituen: gintuen.

43-15 dakidikaion: dakioken. Ik. 325-34 testu-oharra.

baitira. Zer bada, zuri halako pribilegiarik edo garaziarik emanen othe deratzu? Erranen duzu: «Benturaz bai». Zergatik diozu «benturaz bai»? Zeren batzutan gerthazten baita. Egizu gogoeta zeure arimaz dihoatzula, eta pensa ezazu kontrara ere gertha ditekeiela. Eta errazu: «Zer izanen da igurikitzen ezpaderaut?». Erranen duzu

5 oraino: «Eta zer izanen da igurikitzen baderaut?». Iguriki ahal diazaizu. Ordea, hobeago eta segurago da igurikiko ezpaileratzu bezala bizitzea eta gobernatzea. Hunen arauaz erraiten du san Augustinek ere: *Si, enim, fortasse Deus non perdet nec malos, sine dubio non perdet bonos. Cur, ergo, non eligimus ubi dubitatio nulla est?* (August. in *Psal.* 77). Baldin Jainkoak benturaz galduko ezpaditu gaixtoak, segur da eta duda gabe

10 da, eztituela galduko onak. Zergatik, bada, ezugu batere dudarik eztena hautatuko? Zergatik ezkara benturak utzirik segurean jokatu? Nola erraiten baitugu benturaz igurikiko derakula Jainkoak, derragun (gertha ditekeien gauza baita) benturaz ezterakula igurikiko; eta goberna gaitezin igurikiko ezpaileraku <75> bezala, eta halatan, ez benturan, baina segurean izanen gara.

15

§ 2

50 Segur bezala dadukat, ifernura joaiten diren gehienak, *gero* baten benturan jarririk, hartan fidaturik eta hartan enganaturik joaiten direla. Behintzat hala joan zen ebanjelioko aberats hura. Zeren nola, san Lukas ebanjelistak erraiten duen bezala, aberats hari urthe ona gerthatu baitzeikan, eta bildu baitzuen anhitz, jarri zen

20 bere buruarekin gogoetan, erraiten zuela: *Quid faciam, quia non habeo quo congregem fructus meos?* (*Luc.* 12). «Zer eginen dut? Norako dut hunenbat ogi, arno, bihi, fruitu eta onhasun? Eztut edukitzeko lekhurik ere. Baina badakit zer eginen dudan —erraiten dio berriz bere buruari—. Leheneko bihitegiak, arandegiak, sotoak, salak eta ganbarak handitukoit, edukitzeko lekhua franko eginen dut. Eta gero sosegatuko naiz, ardura guztiak utzirik, pausatuki, hatsaren gainean jarriko naiz, erraiten dudala neure baithan: Oraí atsegin har dezadan, jan dezadan, edan dezadan, zeren berdin ezut deusen eskasik, ezut gerokoren perilik, badut ethorkizunekotzat behar den konplimendu guztia». Bada, kontu hautan, kontuak ongi egin gabe zebila, <76> aditu zuen zerutik mintzoa: *Stulte, hac nocte repetent animam tuam a te;*

25 *quae autem parasti, cuius erunt?* (*Luc.* 12). «Ha, erhoa, zentzugabea, zer mintzo aiz? Zer gogoeta darabilak? Egin dik hireak, gaur eskatuko zaizkik heure arimaren, gaur gorputzetik atherarik eramanen deraue. Eta gero, orduan, bildurik dadutzan on horiek norentzat izanen dira?». Erhoa deitzen du aberats hura, eta arrazoinekin. Zeren, zer da erhokeria handiagorik, geroko denboraz, bertzeren eskuan eta benturan da-

35 goenaz, bere eskuan eta segurean bailu bezala ordenatzea baino?

44-5 *ahal diazaizu*: ahal diezazuke (-*ke* gabeko ahalera zaharra).

44-16/17 *gero baten benturan jarririk*: «Gero, izaki bizi eta trinko bat balitz bezala (astoa edo), ageri zaigu hemen. Beste toki batzuetan ere gauza bera ikusten dugu: pertsona itxuran edo izaki trinko baten dohainez jantzia ageri zaigula *gero* hau. Ikus adibidez: 83, 101, 181, 365» (Villasanteren oh.).

44-32 *dadutzan*: dauzkan (**eduki*-ren adizkia, -*za* pluralgileaz).

51 Gaitezin, beraz, bertzeren gainean zentza; dezagun bertzeren periletik athera segurantz, hartzen dugula Espiritu Sainduak emaiten derakun konseilua: *Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem; subito enim veniet ira illius, et in tempore vindictae disperdet te (Eccles. 5)*. «Konberti zaitzezi, bekhatutarik *iltki* zaitzezi; eta eztezazula berant, eztezazula egunetik egunera luzat. Zeren gutien uste duzunean, ahantzienik zaudenean, neurria betheko da, Jainkoa haserretuko da: eta gero mendekuzko egunean, heriotzeko denboran, galduko eta deseginen zaitu». Badirudi haur eman nahi zuela aditzera Spiritu Sainduak berak, erran zuenean: *Ne dicas amico tuo: «Vade et revertere, et cras dabo tibi», cum statim possis dare (Prov. 3)*. «Ezterrozula zeure adiskideari, <77> dohala eta dathorra, bihar emanen diozuna: baldin baduzu emaitekorik, emozu berehala». Erran nahi du, eginen duzun ongia eta ontasuna, dagizula fite, geroko benturan utzi gabe, luzamendutan eta joan-ethorritan ibili gabe.

Egun batez galdegin zeraukaten Alexandro handiari, ea nolatan erdietsi eta irabazi zuen hanbat biktoria, hanbat on eta onhasun, hanbat hiri eta erresuma. Eta ihardetsi zuen laburzki: *Nihil procrastinans*. Ez deus luzatuz, ez deus biharamuneko utziz. Etzuela egundaino, egunean egin ahal zezan gauzarik, biharamuneko utzi; etzela egundaino gerokoan fidatu, eta halatan hain irabazi handiak egin zituela.

Ezkaitezila, beraz, gu ere gerokoan fida. Zeren geroko hartan, bentura bat ahal badateke ere, ez ordea segurantzarik; eta erhokeria handia da segur behar duen gauzaren, benturan ibentzea, biharamuneko esperantzan eta perilean utztea.

45-4 *iltki*: Axularren bereizgarrietako bat, itxuraz azalpen etimologikorik ez duten <t> hauek idaztea. Ik. 45-4 testu-oharra.



Nola den geroago gaitzago bekhaturtik ilkitzea

KAP. VI

52 Anhitzetan ere eskritura sainduan konparatzen da bekhatorea ardi errebelatua-
rekin. <78> Eta arrazoinekin. Zeren anhitz gauzatan baitirudite elkhar. Ardia bere
lagunei azkentzen zaienean, halako moldez bide onetik eta bere ardi lagunen alha-
pidetik aldaratzen eta hastantzen da, non geroago urruntzenago, galtzenago eta
errebelatzenago baita. Diru bat edo erhaztun bat galtzen duzunean, han berean galdu
zenduen lekhuari gelditzen da, eta bai edireiten ere: ezta bera handik higitzen. Baina
ardia orenetik orenera lekhuari aldatzen da, oihanean barrenago sartzen da, bethi eta
galtzenago eta errebelatzenago da. Hala bada, bekhatorea ere gero eta gero gal-
tzenago, errebelatzenago eta bere aztura gaixtoetan barrena sartzenago da. Hargatik
erran zuen errege Dabitek: *Erravi sicut ovis quae perit* (Psal. 118). «Errebelatu
nintzen eta galdu, ardia bezala». Zeren bekhatur bat egin zuenean, berehala, bertze
batetan behaztopatu eta erori baitzen.

Ardia errebelatu berrian da erraxenik edireiteko eta inkontratzeko, eta bai
kandela ere iraungi berrian, oraino hotztu gabea denean, berriz lotzeko eta ira-
txekiteko. Hala da, bada, bekhatorea ere bekhatur egin berrian gaienik eta prestenik
bekhaturtik ilkitzeko.

53 Sagarroia, bere egitez ere, nekez erditzen da, baina are bere faltaz nekezago.
Zeren nola larruan baita latz, eta gaztaina <79> karloa bezala puntaz eta arantzez
bethea, eta umeak ere, bera bezala latzak eta aranzetsuak baititu; ume hek erdi behar
duenean bere arantzeaz eta karloez min egiten diote, eta halatan, minari errendatu-
rik, erditzeko meneratzen denean, barrenat sartzeintu eta han ahal bezanbat eduki-
tzeintu. Eta, nola hala dadutzan bitartean ere, handitzen eta gogortzen baitira ume
hek; eta alabaina erdi behar, edo hil: handik azkenean, harri baten kontra permatu-
rik, lehen eginen zen baino nekezago eta penazago erditzen da. Bada, haur beror
obra onen egiteko luzamendutan dabilan bekhatorea baithan ere gerthatzen da.
Zeren nola konbertitzea eta obra onen egitea erditze bat bezala baita, halatan, zenba-

47-5 *azkendu*: «'galdu' ez, baina 'atzean, gibelean gelditu» (Villasanteren oh.).

tenaz eta gehiago baitago, hanbatenaz obra on hetzaz nekezago erditzen da. Beraz, hunelatan, lehen baino lehen izanen da hoberenik eta erraxenik obra onen egitea, eta bekhatuetarik ilkitzea.

- 5 Zeure lurtean, zure baimendua eta lizenzia gabe, etxe bat hasten deratzutenean, zeren baldin obraren akhabatzera utz bazinitza, peril bailuke akometa liazazuten zuzen dutela lur haren gainean, hartarakotzat, aitzindurik bezala, ordenatzen du legeak, egotz ahal dezakezula obra berria (*ff. de novi operis nuntia*. L. Praetor). Hala egin behar da, bada, bekhatuetan eta bekhatusko obretan ere: berri direino egotzi behar <80> dira, zeren bertzela nahiko du deabruak akometatu eta alegatu obra zahartu dela, eta hartan zuzen duela.

§ 1

- 15 **54** Errazago bada ere on bahituaren atheratzea eta koberatzea, salduaren baino, edireiten da, guztiarekin ere, bere onak bahitzen bezala saltzen ere dituenik. Eta haur beror gerthatzen da arimako gauzetan ere. Beldur direla, bere konzientziak alha zaiztela, bekhatu bat edo bia baizen ez dutela eginen erraiten dutela; eta heken ere utzteko gogorekin dabilzala bekhatuak egiten dituztenek, bahitzen dituzte bere arimak. Baina beldurtasunik gabe, Jainkoz, konzientziaz eta munduaren erraiteaz ere konturik egin gabe, antsikabeki dabilzanek, saltzen dituzte. Bahi bat tabernara arnozun igortzen duzenean, gaztigatzen diozu tabernariari eduki dezala zenbait egunez bahi hura, eta gero heken buruan atherako duzula. Baina zuk, nola atherako duzun, ezen barrenago sartzen duzu: egunetik egunera bahiaren gainean arno gehi-
20 go hartzen duzu, halako moldez ezen, azkenean, ikusirik bahiaren balioa edan duzula, bahi guztia tabernan utzten baituzu. Bada, haur beror zeure arimaz ere egiten duzu. Erraiten duzu, bahi bai, baina neholatan ere eztezakezula sal. Erraiten
25 duzu bekhatu bat eginen duzula, eta ez gehiago. Ordea, <81> bat egin, eta bat hari, hanbat iratxekitzen diozu bere ondotik; halako moldez eta suertez arimaren gainean bekhatuaren zorra berretzen eta kargatzen duzu, non azkenean bahi guztia, zein baita zure arima, tabernan, deabruaren eskuan eta botherean gelditzen baita, hartzaz, nork bere gauzaz bezala, nahi duenaren egiteko.
- 30 **55** Bekhatutik ilkitzeko luzamendutan dabilanari gerthatzen zaika, zensuko eta interesekeo diruaren irabazia pagatzen ez tuenari gerthatzen zaikana. Halakoari urtherik urthera zorra handitzen, berretzen eta are, baldin denbora luzeaz badago, doblatzen zaika, eta orduan ezta erraxkiago pagatzen. Eta ez bekhatusa ere, ezta egonaren buruan aisekiago erremediatzen. Zeren batatz, deabruak egunetik egunera zure arimaren gainean esku gehiago hartzen du; eta berriz, bertzea, zeren nola zu baitzoaz bekhatu
35 eginaz eta bekhatusan egonaz, hala doha Jainkoa ere zure arimatik ihes eginaz eta urrunduz, zeren zerori lehenik urruntzen baitzara. Egizu kontu, egizu gogoeta, ea zenbat urthe duen bekhatusan zaudela eta bekhatu egiten hari zarela: eta edirenen duzu

48-20/21 *nola atherako duzun, ezen...: erreparatu joskerari.*

ezen, urthe hetan guztietan, Jainkoaganik urruntzen eta apartatzen harizan zarela. Bada, komunzki joaiteko bezanbat denbora behar ohi da bihurtzeko ere. Beraz, hune-
 latan, zuk <82> ere joan diren hamar urtheotan, edo gehiagotan, harizan baitzara
 Jainkoaganik urruntzen, beharko duzu hurbiltzeko ere hainbertze denbora. Nolatan
 duzu, bada, uste, hanbat denboraz iragan duzun bidetik, hain laburzki, urthe batez edo
 5
 biaz, zeure zahartzean, zahartzen bazara ere, bihurtuko zarela?

Egia da, ordea: halako faborea, garazia, indarra eta haizea eman ahal diazaio
 Spiritu Sainduak zure gogoari eta borondateari, non urruntzea baino fitetzago eta
 denbora gutitzago egin baitezakezu hurbiltzea. Ordea, eztakizu zure baithan hala
 gerthatuko denz, halako faborerik eta garaziarik eginen zaitzuntz.
 10

56 Maria Birjina eta Joseph Mariaren esposa urrundu ziren Jerusalemetik egun
 baten bidea, han hei Jesus haurra ustekabeaz azkendurik. Eta gero, bilha abiatu zi-
 renean, ediren zuten hirugarren egunean. Denbora gehiago behar izatu zuten edi-
 reiteko, galzeko baino. Hala dirudi, bada, halaber, denbora gehiago behar dela be-
 khatuen erremediatzeko, egiteko baino. Zeren bekhatu egiten hari zarenean,
 15
 Jainkoaganik urruntzen zarenean, komunzki gazte zara, sendo eta indartsu, baina
 gero, Jainkoagana bihurtu eta hurbildu nahi duzunean, eri zara, flako eta zahar.
 Beraz, orduan gaitzago izanen <83> da hurbiltzea, lehen urruntzea baino. Halatan
 erraiten du profeta Dabitek: *Qui elongant se a te, peribunt (Psalmo. 72)*. «Zureganik
 urruntzen direnek fin gaitz eginen dute». Eta Jainkoak berak ere mehatxatzeintu
 20
 halakoak, erraiten duela: *Vae eis, qui recesserunt a me (Oseae 9)*. «Begira beute
 eneganik urrundu eta apartatu direnek, zori gaitz hekenzat».

§ 2

57 Bekhatuak ilhuntsen du adimendua, flakutzen du memoria, eta gaixtatzen du
 borondatea; zenbatenaz bekhatu gehiago, eta bekhatutan egonago, hanbatenaz adi-
 mendua, memoria eta borondatea eztheusago. Hanbatenaz deabrua jaunago eta
 nabusiago. Hanbatenaz Jainkoaganik urrunago eta apartago. Eta hanbatenaz zure
 indarra, eta ahala ere, etsaiari ihardesteko ttipiago eta flakoago. Bada, gauza hauk
 hunela direnaz geroztik, nolatan duzu zuk uste, gero hobeki onduko zarela eta be-
 khatutik ilkitko zarela orai baino? Ura ttipi deino ezin iragan dezakezu: zer eginen
 30
 duzu, bada, handi dadinean? Zuhaitz ttipiak, oraino errorik eztutenak, ezin athera
 ditzakezu: zer eginen duzu bada errozta eta handi ditezinean? Erran nahi dut, orai
 bekhatu guti duzunean, eta guti horiek ere berri direnean, ezin delibera <84> de-

49-1 *harizan*: ari izan. Batuta idatzi ohi zuten Iparraldeko idazleek (*OEH*, s.v. 1 *ari*, 437. or.).
 49-9 *denbora gutitzago*: «*Denbora gutiangoan* edo *gutiangoz* esango genduke guk. *Guti*-ren
 kasu instrumentalari zuzenean *-ago* konparazioko atzizkia iratxeki dio Axularrek»
 (Villasanteren oh.). Ik. orain 49-9 testu-oh.
 49-21 *Begira beute*: «Dirudienez, latinezko *vigilia*-tik. *Vigiliam habento* bezala ('jengan cuida-
 do!'). Pasarte huntan *begira* sustantiboa da. Ikus Mitxelena (1974: 115)» (Villasanteren
 oh.). Izan ere, *beute* **edun*-en adizki trinkoa da (**be(d)ute*), aginterazkoa: 'izan bezate'.
 49-30 *deino*: den bitartean (*noraino* kasuaz).

zakezu, halarik ere, horietarik ilkitzera: zer izanen da, bada, gero, bekhatuz beterik eta hetan denbora luzeaz gogorturik zaudenean? Orai hamar bekhaturekin dihardukazu, gero ehunekin iharduki beharko duzu; orai urthe baten edo biaren usantza gaixtoa duzu, gero hogoiena edo berrogoiena izanen duzu. Bekhatu egiteaz koropiloak doblatzeintuzu, gatheak berretzeintuzu, karga handitzen duzu. Zer erhokeria da, bada, haur, uste baituzu ezen gero karga handiarekin hobeki manaiatuko zarela, orai ttipiarekin baino? Uste baituzu ezen gero hamar bekhaturen barkhamendua hobeki erdietsiko duzula, orai bortzena baino? Uste baituzu gero, eritasuna handi dadinean, erraxago izanen dela sendatzen eta erremediatzen, ttipi denean baino? Eztakizu nola erraiten duen Spiritu Sainduak? *Languor prolixior gravat medicum; brevem languorem praecidit medicus (Eccles. 10)*. Eritasun luzeak eta zaharrak nekhatzen du midikua, baina laburrak eta berriak egiteko guti emaiten dio, hura laburzki sendatzen du.

58 Egia haur eman zeraukan aditzera aingiru batek lehenago mendietan eta ermitetan bizitzen ziren saindu hetarik bati (In *Vita Arsenii*, apud Suri., tom. 4, pag. 257). Hartu zuen aingiru hark gizon baten iduria, eta joan zen mendietako saindu hetarik batengana, eta eskutik harturik eraman zuen oihanean barrena, eta han erakutsi zeraukan gizon <85> bat hari zela egur egiten. Eta zama bat eginik, lothu zuenean, hasi zen enseiatzen, ea jasan ahal zezakeienz. Baina hain egin zuen handi, ezen ezin jasanez utzi baitzuen. Utzi zuenean, hasi zen berriz bigarrean egur egiten, eta bere leheneko zamaren handitzen. Handitu zuenean, hartu zuen eta hasi zen lehen bezala enseiatzen, ea jasan ahal zezakeienz. Baina are orduan gutiago, zeren lehendanik handituago baitzuen. Ordea, guztiarekin ere, hasi zen hirurgarrean ere lehiatzen, egur egiten eta bere leheneko zamaren, lehen bezala handitzen, ustez ezen halatan arinduko zeikan, eta erraxkiago jasanen eta eramanen zuen. Sainduonek haur ikhusi zuenean, galdegin zioen aingiruari: «Zer erhokeria da haur, uste baitu gizon hunek, berretuz karga arinduko zaikala? Eta handituz, erraxkiago jasanen eta eramanen duela?». Orduan ihardetsi zioen aingiruak: «Horrela duk, bada, munduko erhokeria ere, uste baitute bekhatorek bekhatu anhitzekin, karga pisuarekin hobeki jaikiko direla arinarekin baino». Erraiten baitute: «Orai herabe dut. Orai eskuen artean darabiltzadan bekhatuak, ezin utz ditzaket; oraino denbora aphur batez hautan egon behar dut, bertzerik ere zenbait iratxekitzen derauedala. Baina gero guztiak utzikoitut, guztietarik iltkiko naiz». Itsutasunaren <86> itsua, erhokeriaren erhoa, uste baituzu ezen gero, hemendik urthe baten edo biaren buruan, orai baino bekhatu gehiago duzunean, hosinean barrenago zaudenean, eta orai baino flakoago zarenan, aisekiago eta erraxkiago ilkitko zarela. Iltkiki bekizu erhokeria hori burutik, egotz ezazu zeure gogotik, eta sinhets ezazu, geroago gaitzago izanen dela. Eta Ovidiok dioen bezala: *Qui non est hodie, cras minus aptus erit (Ovid. li. I De remedio amoris)*, egun gai eztena, bihar gutiago izanen da.

50-25 *Sainduonek*: Hiru graduko artikulu zaharraz (ergatiboan *-onek*, *-orrek*, *-ak*, hurrenez hurren); ik. 2. gradukoa beherago (63-12).

Nola gerotik gerora ibiltzeaz koberatzen den usantza gaixtoa

KAP. VII

59 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit non recedet ab ea* (Prove. 22). Nor nola gobernatzen baita gaztean, hala komunzki egiten ohi da zahartzean ere. Orduan hartzen duen bidea, plegua eta usantza, eduki-tzen du gerorat ere: ezta handik higitzen, ezta handik aldaratzen, hari itxetkitzen zaika. Denbora luzeaz bide bat eduki duen urari, ezta erraz bertzetarat irioitea eta eragitea. Ezta erraz bide haren, eta handik iragaiteaz hartu <87> duen usantzaren, abiaduraren eta lasterraren gal arazitzea. Ez eta, beraz, ezta erraz izanen, denbora luzeaz koberatu den usantza gaixtoaren ere utzte eta aldatzea. Zamaria gazte deino hezten da. Haragia berri deino gazitzen da. Zuhaitza ttipi deino birlandatzen da. Finean, gauza guztiek lehenbizian hartzen dute bere plegua eta ortkhoa, eta behin hartuz gero nekez utzten dute. Gogortuz gero gaitz da bilhukatzea. *Quo semel est imbuta recens, servabit odorem testa diu* (Orat. Ep. 2). «Eltzeak luzaro edukitzen du, berrian hartzen duen usaina eta kutsua», dio Oratiok. 5
10
15

Likurgok, erakusteko Lazedemoniakoei, zein indar handia zuen usantzak, hartu zituen bi xakur gazte, bi orkume ama batenak eta sabelaldi batetakoak: eta hetarik bata usatu zuen bethiere etxean barrena, kuzinako eta sukhaldeko eltze-plateren artean; eta berriz, bertzea hazi zuen kanpoan ihiziko orekin batean. Eta gero, handitu zirenean, eraman zituen biak treila batetan Lazedemoniako jende he-ken aitzinera eta han laxatu eta largatu zituen, eta largatzearekin batean, egotzi ze-rauzten bere aitzinera, erbi bat eta haragi puska bat. Eta ihizian usatua abiatu zen berehala erbiaren ondotik, eta berriz bertzea, kuzinan hazia, lothu zeikan haragi puskari. Eta gero erran <88> zerauen: «Ikhusazue, jaunak, zer egiten duen usantzak, 20

51-7 *irion*: eraman, joanarazi. *Eman-i emaiten* bezala, *irion-i irioiten* dagokio.

51-9 *abiadura*: «Mitxelenaren iritiz (1974: 117), 'impulso' izango litzateke hitz hunen esanahi zehatza, ez 'rapidez, velocidad, orientación' eta holako» (Villasanteren oh.). Mitxelenaren ildo beretik, errepara diezaiogun ondoko *laster* izenari ere.

51-13 *bilhukatzea*: «Errata ote den pentsatzen du Mitxelenak (1974: 118). Beraz, *bilhakatu* beharko luke» (Villasanteren oh.). Alabaina, bestelako lekukotasunek bermatu dute, eta hemen 'bihurritu' esanahia duke (ik. *OEH*, s.v. *bilukatu*).

- zein indar handia duen hazkuntzak, lehenbiziko segientzak eta ohikundeak. Nola or hautarik bata, bere hazkuntzaren arauaz, lothu zaikan haragiari, eta berriz, bertzea jarraiki zaikan ihiziari» (Plutar.). *Filii tibi sunt? Erudi illos, et curva illos a pueritia eorum*, dio Salomonek (*Eccles.* 7). Semeak ditutzunean, eskola itzatzu haurretik; 5 uzkur itzatzu, eduki ttipi direino azpitik. Zeren behin handituz gero, eztitutzu hobe-kiago manukortuko, eskuperako, eta ez plegatuko.

§ 1

- 60** Denbora luzeaz bekhatutan egoiteaz eta usatzeaz, bertze kalterik ethor ezpaledi ere, pleguaren eta aztura gaixtoaren hartzea baizen ere, hura bera behar lizateke 10 asko, bekhatutan pausatzetik begiratzeko, eta lehen baino lehen bide onean iben arazitzeko. Zeren hain du indar handia usantzak, ezen erraiten baitu san Krisostomok: *Cum manna, caelesti cibo, allerentur iudei. Cepas et allia requirebant; adeo consuetudo valet, tantumque habet roboris* (Chrys., *Adversus vituperatores vitae monasticae*, cap. 3, tom. 7). Juduek *mana* zeritzan janhari on, ezti, gozo hartarik franko 15 zutelarik, guztiarekin ere, usantzak hain du indar handia, ezen hark errekeriturik, Egiptoko tipula baratzurietara bihurtu nahi baitzuten. Eta <89> handik erraiten du San Augustinek: *Peccata, quamvis magna et horrenda cum in consuetudinem venerint, aut parva aut nulla esse creduntur, usque adeo ut non solum non occultanda, verum etiam iam praedicanda ac diffamanda videantur* (August. in *Enchirid.*, cap. 8, tom. 3). Bekhatuak handi eta izigarri izanagatik ere, ttipi eta ezdeus iduritzen 20 zaitza hetan usatu duenari; hain ezdeus ezen gero, handik harat, nahiago baititu es-tali baino, agertu, kanpatu eta famatu.

- 61** Errege Dabiti eman zerautzatenean Saulen harmak, baitziren ezin hobeagoak eta halakoak, guztiarekin ere, probetxu baino, kalte gehiago egiten zioten, trabatzen 25 zuten. Zeren nola anarterainokoan bethi arzain ibili baitzen, ezpaitzen oraino har-metan usatua.

- Eta hala utzi zituen, erraiten zuela: *Non possum incedere, quia usum non habeo* (2 *Reg.* 5). «Harma haukin ni ezin higi naiteke, zeren ez naiz usatua. Indai-tzue habaila batzuk, zenbait harrirekin, eta hetan usatua bainaiz, atsegin har eza-zue, ezen nik eginen dut hetzaz neure eginbidea». Eta hala egin ere zuen. Zeren 30 lehenbiziko aurthiki zuen harria finkatu zeraukan bere etsaiari belarraren erdian, landatu zeraukan kopetan, eta egotzi zuen bentzuturik lurrera. Ordea, gero handik denbora gutiren barrenean, hain soldadutu zen eta harmetan usatu, trebatu eta anzatsutu, ezen egun batez harmarik gabe Saulen ihesi <90> zihoala, hartu bai-tzuen Goliat handi haren ezpata, erraiten zuela, ezen etzela munduan harentzat 35 halakorik eta ez hark nahiago zuenik. Zer erran nahi du hunek? Lehen Saulen

52-5 *uzkurtu*: «Itxuren arabera, ‘meneratu, hezi’ esan nahi du (‘doblegar’). Ikus Mitxelena (1974: 118)» (Villasanteren oh.).

52-28/29 *indaitzue*: emaikidazue (*-in- erro zaharrekoa).

harmak, ttipiak eta arinak baitziren, handiz eta pisuz utzi zituen, eta orai gigant handi batenak iduritzen zaitza ttipi eta arin? Bai. Zeren lehen etzen usatua, etzen harmetara egina, baina gero egin zen, usatu zen, enseiatu zen, trebatu zen, eta enseiatzeak, usatzeak eta trebatzeak, lehen gaitz zena erraxtu zeraukan. Zeren usatuari trabailuak ere etzaitza hain trabailu iduritzen, eztitu hain sentitzen; eta ez sentitzeko, eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen eta khailutzen zaika. Halakoari eta hainari, etzaitza hain fite eskuak maskurtzen, ikhorzirinak egiten, eta ez haragiak ethentzen, eta ez minberatzen. Zeren, San Krisostomok dioen bezala, *consuetudinis enim vis, et in bonis et in malis, magna* (Chrysost. *Hom. 3 De paenitentia*, tomus 3). «Gauza handia da usantza, hala onean, nola gaixtoan». Eta badio San Geronimok ere: *Asperam nobis et insuavem virtutum viam nimiae facit consuetudo, quae si in alteram partem transferatur, invenitur semita iustitiae levis* (Hieroni. *ad Celantiam*). «Bekhatuaren usantzak gaitzten du berthutearen bidea; ordea, baldin usantza hura itzul badadi bertze aldera, gaixtatasunetik ontasunera, edirenen da berthutearen bide hura bera, errax, atsegin eta plazent». Eskiribatzen hasten <91> zarenean, ezin higi ditzatkezu erhiak, lothuak bezala daude. Zeren ezpaitira usatuak. Baina gero eta gero usatzen eta trebatzen dira, hain trebatzen, ezen azkenean, bertze alderat beha zaudela ere, hitzen erdiak eskiribatzen baitituztu. Hala ikhususiko duzu dendari baten etxean ere, ofizialeak abiadura handia daramala, puntuak husu eta laster emaitentuela; baina apendizak bakhan, baratx, eta puntuak kontatuz bezala hari dela. Zeren ezpaita apendizak ofizialea bezala usatua, ohitua eta trebatua.

62 Halatan, erraiten du Aristotelek: *Ex actu multoties iterato fit habitus* (August. *lib. 2 Ethico*). «Ez behingoaz, baina maiz eta anhitzetan usatzeaz egiten da trebetasuna eta aztura». Eta behin aztura hartuz gero, trebatuz gero, anhitz gauza egiten da, gogoia pensatzeketan, eta borondatea ere hautatzeketan ibili gabe. Hala erraiten du San Krisostomok: *Consuetudo est quae postea etiam absque electione fit* (Chrysost. *Hom. 10, tom. 3*). Anhitzetan, hartan guti pensaturik, zeinatzan zara. Anhitzetan, zer mintzo zaren eztakizula, arneguak eta juramentuak egiteintuzu. Anhitzetan, bertze alderat beha zaudela, erhiak soinu egiteko erabiltzeintuzu. Eta hauk guztiok dira usantzaren jokoak, trebetasunaren kolpeak eta azturen tornuak.

Garzelean sartzen zaituztenean, sarthu berri hartan, usna on duzu, kiratsa aditzen duzu, erraiak nahasten zaizkitzu, sentikor zara. <92> Baina barren hartan ohituz gero, sudurra kirats hartaz zenbait denboraz betheak erabiliz gero, sortzen zara, ezansiatzen zara, eder esten duzu.

Usat zaite goizean goiz jaikitzen, eta oren hartan iratzarriko zara. Usat zaite anhitz jaten eta edaten, eta bethi hala nahiko duzu. Are abre mutuek ere ez tute, bere leheneko usatua edo etsigarri bat bedere izan gabe, lehen izan diren ostaruetarik aitzinat iragan nahi. Hain du indar handia usantzak, ezen erraiten baitu San Augustinek: *Ipsa quoque mutatio consuetudinis, etiam quae adiuvat utilitate, novitate perturbat* (August. *3 Fortun.*, disput. 2, tom. 6). Anhitzetan ere, dakigularik hobe lizatekeiela darabilagun usantzaren uztea eta hautstea, ez tugu guztiarekin ere

utzten, eta ez hautsten, zeren aldatze hura, hautsteko eta utzteko berritasun hura, gaitzi baitzaiku. Zer nahizu gehiago? Bada erraiten duenik, eta egia, haurretik pozoin jaten usatzen dena, azkenean pozoinaz haz ditekeiela, eta mantena (Comment. sup. 3 *Phisic.*).

5

§ 2

63 Bada, baldin hunein gauza bortitza eta indartsua bada usantza, zer egingen du bethiere, gaztetik zahartzeraino bekhatutan usatu denak? Nola utziko du zahartzeaz gaztean koberatu duen usantza? Beldur naiz utz <93> eztezan. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Annosa pasio medicamento momentaneo non curatur* (Chrys. 32, tom. 2). «Arrazadura urthatua, narrio zahartua, zauri gaizkoatua, ezta puntu batetako midikuntzaz sendatzen», ezta behingo bisitaz erremediatzen, eta ez hain fite leheneko estanterara, estatura eta egoitzara bihurtzen. Zeren nola eritasun handiak, sendatuz gero ere, utzten ohi baitu bere ondotik zenbait herru gaixto, zenbait kutsu, narrio eta arrazadura, hala utzten du denbora luzeaz bekhatutan egoiteak ere bere ondotik zenbait ondore gaixto. *Si mutare potest AEtrops pellem suam et pardus varietates suas, et vos poteritis benefacere cum didiceritis malum*, dio Jeremias profetak (*Jerem.* 13). «Mairu herriko mairu beltzak bere larru beltza, eta tigre arrak ere bere nabardurak, kolore pikardatuak, alda, utz eta mutha ditzeanean, aldatuko, utziko eta muthatukoitu presuna gaixtoak ere bere usantzazko gaixtakeriak eta bekhatuak».

64 Halatan, ikhusiko duzu gazte denboran bekhatu batetan usatu duenari, zahartzeaz ere eta deus ezin daidikeienez ere, gogoa bedere, eta bekhatu hartaz minzateaz atsegin hartzea bedere, badatxekala. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Non quiescit turpe desiderium, quamvis frigiditas neget effectum* (Aug. *De vita eremetica ad sororem*, cap. 28, tom. 10). Zahar gaixtoak, zahartuagatik, badu gogoa, indarra zaika falta. Ahoa doi idekitzen du <94> eta idekitzen duzu, eta guztiarekin ere, arnegu eta juramentu egiten hari zara. Gorputza ezin jasan dezakezu, eta alabaina, amurusiak mintzo zara. Finean, lehen zertan segitu baituzu, hartan gero ere, ametsetan eta eldarnioetan ere edireiten zara. Eta zerk egiten du haur? Usantzak, azturak, gaztean hala, han eta hetan segitu eta usatu baituzu, eta usantza hura hezurretan barrena sarthu baitzaitzu. Eta nola zahartuagatik, hezurak gelditu baitzaizkitzu, hala gelditu zaizkitzu usantza, aztura, eta handik sortzen diren mugidak, abiadurak eta inklinazio gaixto guztiak ere. Halatan erraiten du Job gizon saindu hark: *Ossa eius implebuntur vitiis adolescentiae eius; et cum eo in pulvere dormient* (*Iob.* 10). «Gaixtoaren hezurak betheko dira gazte denborako bekhatuez, eta harekin batean lurrean ere lohakartuko dira», eztute behin ere utziko. Zeren San Gregoriok dioen bezala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existunt, et cum eo in pulvere dormient quia non nisi cum eius vita finiu-*

54-2 *haurretik*: txikitatik.

tur (Greg. lib. 15 Moral., cap. 15). Usantzako bekhatuak jarraikitzen ohi zaitza neheri heriotzeraino eta lurlean barrena sar arteino: eztute hareraino utzten, eta ez komunzki han ere.

65 Jainkoak begira zaitzala usantza gaixtoak zure baithan ostatu hartzetik, eta usantza hura hazkuntza bihurtzetik. Zeren nola baita <95> *hetika* daritzan eritasun bat, zein egiten baita sukharra denbora luzeaz eta aphur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuiluz edo baizen, eta izaitekotz ere xoil luzaro: hala da denbora luzeaz gogoan eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. Hura da *hetika* gaixto sarthua, atheratzen eta erremediatzen gaitza. Eta halakoagatik erraiten du San Augustinek thonban barrena sarthua eta ehortzia dagoela; eta gaineko harri-estalkia, jaikitza eta hats hartza utzten eztuena, usantza gaixtoa dela. *Moles illa imposita sepulchro, ipsa est vis dura consuetudinis, qua praemittitur anima, nec respirare nec resurgere permittitur* (Aug. serm. 44 *De verbis Domini*, tom. 10).

Haur beror eman zuen aditzera gure Salbatzaileak berak, Lazaro laur egunetako hil kirastua, anhitz hatsbeherapen eta sentimendu eginik, pitztu zuenean. Bertze guztiak erraxki eta aise zegoela pitztu zituen, baina Lazaro, iduriz, nekez. Aditzera emateagatik, zein gaitz den, denbora luzeaz bekhatutan usatua, usteldua eta kirastua dagoen bekhatorearen sendatzea eta erremediatzea. Halakoa, hartara helitzen dena, Lazaro kirastua bezala da, Jainkoaren bothere handiaz baizen ezin erremedia ditekeiena.

Arrazoin hautzaz guztioz emaiten da aditzera, nola luzamendutan, gerotik gerora <96> ibiltzeaz, hartzen den usantza gaixtoa; eta usantza hura, olioia oihalean bezala, sartzen den gogoan eta bihotzean barrena. Eta nola den enganamendu handia, eta gure galgarria, erraitea: «Gero onduko naiz, gero bide onean jarriko naiz». Zeren *gero* haren ondoan, desiratuko duzu bertze *gero* luzeago bat. Eta halatan gerotik gerora zabilzala, usantzarekin batean, komunzki gerthatzen dena, heriotzeak atraturik, fin gaitz eginen duzu.

55-2 *hareraino*: haraino (*har-aino* zaharra vs. *har-e-raino* berria).



Nola usantza gaixtoak gogortzen eta ezansiatzen duen bekhatorea

KAP. VIII

66 Gauza gaixtoa eta perilosa da, orainokoan erran den bezala, bekhaturan egoiteaz eta segitzeaz koberatzen den usantza. Baina are da gaixtoago eta perilosago, usantza haren ondoko ondorea, hazi hartarik sortzen den bihia, hark emaiten duen fruitua, zein baita bekhaturan itsutzea, gogortzea, ezansiatzea; eta ahalkea, ohorea eta prestutasun guztia galdurik, doilorkeriaz prezatzea, loriatzea eta sendagaila egitea. 5

<97> *In circuitu inpii ambulat*, dio errege Dabitek (*Psal.* 11). «Inguruka edo ingurunean dabilta gaixtoak». Badabilta, ordea, inguruka probetxu gabe, bethiere lekhu berera bihurtzen direla. Hala dabilanak egiten duen irabazi guztia da, lurraren aurizkitzea, zapatzea eta gogortzea. Eta zenbatenaz eta gehiago baitabila, hanbatenaz zapatzenago eta gogortzenago du. Hala bada, bekhatoreak ere bekhaturan ibiltzeaz eta usatzeaz gogortzen du bere konzientzia, mailu kolpeek ingudea gogortzen duten bezala. 10 15

Emaiten du aditzera Eskritura Sainduak, bitinak bezala direla gaixtoak, eta azkeneko egunean ezkerreko aldean ibeniko dituela Jainkoak. *Statues haedos a sinistris* (*Matth.* 23). Bitina, ahuntzumea, gazte deino, on da jateko, samur da, uxter da, sasoa da; ordea, galtzen du adinak. Gero eta gero doha gaixtatuaz, zailduaz eta gogortuaz. *Aetas, ex haedo, asperum facit hircum* (Plaut. *lib. 1 Epigram.*). 20

67 Bekhatoreak lehenbizian, bekhatu guti duenean, badirudi ezen oraino zerbait balio duela, samur duen parterik, uxter duen aurkientzarik, endrezera onik eta gozorik baduela. Eta hala, orduan predikariez, konseilu onez, eritasunez, bere lagunak hiltzen zaitzala ikhustez, igortziriez eta hunelako bertze peril mueta batzuez ikharatzen da, minberatzen da, sentikortzen da, eta bere <98> buruari alhaturik, 25

57-18/19 *samur da, uxter da...*: «Ahuntz-umearen gozoa aditzera emateko, izenlagunen hauta eta tokian tokiko jartzea zeinen ongi egiten duen! Ikus beherago, 115. zatian, usakumeen gozoa ere nola pintatzen duen» (Villasanteren oh.).

57-24 *mueta*: «mota, klase» (Villasanteren oh.).

ethorkizunaz gogoetan jartzen da. Baina bekhatuz bethez gero, plegua hartuz gero, usatuz gero eta usantza zahartuz gero, gaixtatzen da, ezansiatzen da, eta alde zain-giru gaixtoen berdin, deabruen paretsu egiten da.

5 Nola aingiruak bere adimenduaz erdiets ahal zezan guztia, ez guk bezala aphur bana eta pensatuz, baina kolpe batez eta osoki erdietsi baitzuen, lehenbizian hartu zuen bidea daduka eta edukiko du sekulakotzat (Vide Sanct. Thom. 1 p., q. 4, art. 2). Behin makhurtuz gero alde batera, ezin xuxen diteke bertzera, eta ez gibelat bihur. Eta hala gerthatzen zaiku guri ere hiltzen garenean. Zeren San Damaszenok dioen bezala: *Hoc est hominibus mors, quod Angelis casus* (Damascen. lib. 2 *orthod. fidei* et refert. a S. Thom. ubi supra). «Aingiruetan bekhatuak egin zuena, egiten du gure 10 baithan ere heriotzeak». Hek bekhatu eginez gero, etzuten erremediorik; ez eta guk ere, bekhatutan hilez gero. Bada aingiru gaixtoen egoitzara hurbiltzen gara gu ere, bekhatu egin hutsez, bekhatutan gogortzera, itsutzera eta ezansiatzera ethortzen garenean. Aingiru gaixtoa behingoaz galdu eta gogortu zen bethierekotz: hala bada, 15 gu ere, ez behingoaz, baina bai anhitzetan, eta anhitz bekhatu eginez eta hetan usatuz, galtzen eta gogortzen gara.

68 Eta halako bekhatua, gogortuz gerozkoa, erraiten da Spiritu Sainduaren kontrako bekhatua <99> dela (S. Thom. 2.2, lib. 2, qu. 88, ar. 6). Zeren hartaraz gero maliziazkoa baita. Eta nola flakotasunez egiten den bekhatua, erraiten baita Aitareen 20 kontra dela; eta jakin gabez eta inoranziaz egiten dena Semearen kontra dela: hala maliziaz egiten dena ere, erraiten da Spiritu Sainduaren kontra dela. Zein baita hain perilosoa, non galdegiten baitu San Tomasek: *An sit remissibile?* ea barkhakizun denz, barkha ahal ditekeienz (Vide Sanct. Thom. 2.2 qu., 4 art. et sequentibus, et q. 14, art. 3). Eta ihardesten du, lehenbizikorik, behintzat merezitzeaz denaz bezanbatean, 25 eztuela barkhamendurik merezi, zeren maliziazkoa baita. Bigarrena, ihardesten du, maliziazkoa denaz geroz, eztela bere egitez barkhatzekoetarik. Zeren nola baitira eritasun batzuk hain handiak, gorputz guztia flakatua, benzutua eta ezindua ibenzen dutenak eta eriari hain jauntzen zaitzanak, non bere izanez eta egitez ezpaitute erremediorik, ezpaitira sendakizun; hala ostinatuaren, gogortuaren, itsutuaren 30 eta ezansiatuaren bekhatua eta eritasuna ere hain da handia, non berenez ezpaita sendakizun, eta ez barkhakizun. Zeren sendatzeko eta barkhatzeko behar diren erremedioak, berak bere faltaz eta bere maliziaz, bere plazerera eta jakia, utzten baititu probetxatu gabe iragaitera eta galtzera. Eta halatan, halako bekhatuagatik, zein baita Spiritu Sainduaren kontrakoa, erraiten du San Mateok: <100> *Non remittetur in hoc saeculo, neque in futuro* (Matth. 12), eztela barkhatuko mundu hunetan, 35 eta ez bertzean ere.

Egia da, ordea, nola Jainkoaren miserikordia baita guztien gainekoa, gerthatzen da halako bekhatuatarik ere zenbaiten barkhatzera. Ordea, San Tomasek dioen bezala, ez maiz, gutitan, eta mirakuiluz bezala. *Per misericordiam Dei* 40 *aliquando tales quasi miraculose sanantur* (S. Thom. ubi supra). Eta erraiten denean, eztela halako bekhatua barkhatuko, aditzen da, eztela barkhatuko, ez zeren Jainkoak ezin barkha dezakeien, edo eztuen zenbait barkhatzen; baina ze-

ren, bataz, gutitan barkhatzen baitu; eta bertzea, zeren gaitz baita; eta finean, zeren nola maliziazkoa baita, eta ez flakotasunezkoa, ezpaitu halakoak bere egitez barkhamendurik merezi.

§ 1

69 Galdegiten dute teologoek ea zer arrazoinez edo zergatik deitzen diren bekhatore batzuk bertzeen artetik ostinatuak, gogortuak, itsutuak eta Jainkoak berak ere utziak. Eta Jainkoaren aldetik denaz bezanbatean, ezta erraz jakiten, ezta erraz arrazoinaren eta diferentziaren emaiten eta edireiten. Zeren Jainkoak hala bekhatutan gogortuei, nola gainerako bertze bekhatore <101> guztiei emaiten deraue, mundu hunetan direino, salbatzeko eta bekhatuetarik ilkitzeko asko duten bezainbertze garazia, laguntza eta fabore. Haren aldetik bada behar dena, ezta handik deusen faltarik, eta ez eskasik. Hark iguzkiak bezala egiten du, onei eta gaixtoei, guztiei argitzen deraue. *Solem suum oriri facit super bonos et malos (Matth. 5)*. Eta Jondone Paulok dioen bezala, Jainkoak nahi du guztiak salba ditezin. *Qui vult omnes homines salvos fieri (2 ad Thim. 2)*. Eta halaber guztien athei dagote, guztietan deitzen du, ideki baliatzote nahiz. *Ego sto ad ostium, et pulso (Apocal. 3)*.

Ordea, guztiarekin ere, nola anhitz lekhotan erraiten baitu Skritura Sainduak, bekhatore batzuk bertzeen artetik direla gogortuak, itsutuak eta Jainkoak ere utziak, eta are Jainkoak berak itsutzen eta gogortzen dituela (*Ego indurabo cor Pharaonis. Exo. 4. Quem vult indurat. Rom. 9. Exceca cor populi huius. Isa. 6*), badirudi behar lizatekeiela Jainkoaren aldetik ere bilhatu eta eman zenbait kausa, arrazoin eta diferentzia. Eta edireiteko, jakin behar duzue ezen, ikhusten duenean gure Jainkoak, nola gauden bekhatutan sarthuak, anhitz enseiu eta pensu egiten duela gure bekhatu hetarik atheratzeko. Anhitz mainaz eta trazaz usatzen duela gure bide onean ibenezko. Nola geure borundatea geure eskuko baitugu; nola nahi badugu baietz, eta nahi ezpadugu ezetz erraiteko libre baikara: gure borundate libre <102> hunen araubaz, deusetan ere bortxatu gabe, deitzen eta thiratzen gaitu Jainkoak beregana. Eta komunzki lehenbiziko aldian ezkaitu guztiz ozentki eta bortitzki deitzen, Jondone Paulo bat deitu zuen bezala. Baina deitzen gaitu aphur bana, emeki, eztiki, mainaz, konzientzia alhatuz, eritasunak emanez, bere predikarien erranez eta anhitz bertze moldez. Eta hunela, lehenbiziko deitzen eta thiratzen gaituenean ihardes-

59-1 zeren batz...., eta bertzea: Jatorrizkoan bertzeaz, «bai lehen eta bai 2. edizioan ere. Esan molde hau, beste kasu guztietan, bestela erabiltzen du Axularrek: Zeren batz...., eta bertze....; edo zeren batz...., eta berriz bertze.... Ikus 101, 359, 375, 376, 378, 395 [batz.... bertze....]; 137, 172 [batz.... eta berriz bertze....]» (Villasanteren oh.).

59-16 «Salamancako Unibertsidadean xvi. mendean azkenaldera eztabaida zaratsuak izan ziren telogoen artean; *Controversiae de auxiliis divinae gratiae* deitzen ziren eztabaidak. Jainkoaren grazia eta gizonaren libertatea nola elkarrekin konpondu eta uztartu, nola Jainkoak giza egiteetan parte har lezakeen libertatea salborik eta osorik utzia, halere; hori da eztabaida haietan argitu nahi zen puntua. Axularrek Salamancan eztabaida hoiak hurbildik segitzeko aukera izan zuen, eta hain zuzen, hemen eta bai geroago ere (76. zatian) eztabaida haien oiartzuna utzi digu» (Villasanteren oh.).

ten badiogu, hurbiltzen bagatzaitza, gero bigarrean bizikiago eta sendokiago deitzen eta thirutzen gaitu; eta hala-hala hirugarrean, eta aitzinat ere. Halako moldez non, azkenean, osoki eta konplituki, kanpotik eta barrenetik deiturik eta faboraturik, bere garazian eta adiskidetasunean, bekhatu guztiak barkaturik ibentzen baikaitu. Ordea, lehenbiziko deitze, thiratzeko eta fabore ezti komun hetzaz konturik egiten ez tugunean, hetzaz probetxatzen ezkarenean, hek errezibitzen ez titugunean, bihurtzen bada ere, oraino berriz, leheneko fabore komun hetara beretara, eta oraino orduan ere deitzen bagaitu ere asko den bezainbertze; eta aitzinerat ere prestik badago ere, molde berean, lehen bezala deitzeko eta faboratzeko; ez, ordea, orduan ezta komunzki aitzinago iragaiten. Erran nahi dut, lehen bezala bai, baina ezkaituela orduan <103> lehen baino bortizkiago eta sendokiago deitzen eta faboratzen. Eta haur geure faltaz. Hala erraiten du ene eskola nabusi batek: *Obstinati, ex-seccati, ob suam culpam, vix aut nunquam utuntur bene prioribus auxiliis, atque ita non accipiunt posteriora illa auxilia, quae reliquis peccatoribus saepe donantur* (Zumel). Ezterauzkigu emaiten fabore beregainezkoak, abantailezkoak eta emendailuzkoak, zeren ezpaitugu errezibitzen komunak eta ardurakoak. Edekitzen derauzkigu bigarrenak, zeren gaizki usatzen baitugu lehenbizikoez. Zeren baldin gauza ttipian eta aphurrean leial dena, arrazoin bada handiangoan ere enplega dadin: *Quia in pauca fuisti fidelis, supra multa te constituam* (Math. 25). Badirudi, bertze aldera, leial eztenari, emanen zeikana ere edeki behar zaikala. Ongi da, eta merezia da, aitzineko fabore ttipiez konturik egiten ez tuenari, ez takitzan eman handiak. Gureak dira faltak.

70 Zeren San Augustinek dioen bezala: *Nunquam prius Deus deserit hominem, nisi prius ab homine deseratur* (Augustin. *sermo. 88 de tempore*, tomo 10). «Ez tu behin ere Jainkoak utzten gizona, baldin gizonak lehenik utz ezpadeza Jainkoa». Fabore komunak, ardurakoak eta asko diren bezainbertzekoak, emaiten derauzte gogortuei eta ostinatuei ere; ez, ordea, beregainezkoak eta abantailezkoak. Eta ageri da ezetz. Zeren nola anhitz baitoha garaziatik garaziara, laguntzatik <104> laguntzara eta faboretik faborera, fabore beregainezkoak, ardurakoak baino handiangoak dituztenak, berehala lehenbiziko ukitzean sentikortzen dira, bide onean jartzen dira. *Ad cuius tactum commota sunt viscera eius* (Cantic. 5). Edo, behintzat, badute bere baithan barrena atsekabe bat, konzientziaren alhadura eta minberadura handi bat; hain handia, non ezin ongi bere bekhatuetan jar baititezke eta ez sosega. Baina fabore beregainezkorik, komunak eta ardurakoak baino handiagorik izaiten ez tutenek, ez tute konzientziaren halako alhadura handirik eta beldurtasunik izaiten. Aitzitik, sosegatuki, presuna seguratuak bezala daude, eta hala egoitea da heken loria. Hala erraiten du halakoez mintzo dela Spiritu Sainduak: *Laetantur cum male fecerint, et exultant in rebus pessimis* (Prov. 2).

60-12 «Hala erraiten du ene eskola nabusi batek... (Zumel). Hemen dugu aitorten garbi bat Axular Salamancan Zumel-en ikasle izan zela jakiteko» (Villasanteren oh.).

60-21 *ez takitzan*: ez dakizkion.

«Gaizki egitean, eta egin ondoan, guztietan atsegin hartzen dute, hartan loriatzen dira». *Impius, cum in profundum malorum venerit, contemnit* (Prov. 18). Gaiztoak bekhatuena hosinean sarthuz gero eta hetan luzaro usatuz gero, eztu antsiarik, ezta duka konturik, gainerakoak sentitu gabe egiteintu. Eta badio Jobek ere: *Bibunt iniquitatem sicut aquam* (Job. 15). «Presuna egarriak ur hotza bezala edaten dituzte bekhatuak». Erran nahi du: erraxki eta hartan atsegin hartzen dutela. Halakoei, nola Jainkoarekin etsai baitira, eta etsai ere barrena, ezterauzte <105> emaiten, bere adiskidei edo gutiago etsai direnei emaiten derauzten ernetasun, iratzarpentasun, barreneko berotasun eta bertze fabore handi ixil batzuk. Eta hek ez emanez gero, berak bere faltaz itsutzen, gogortzen eta ezansiatzen dira. Hala erraiten du San Agustinek, Faraonez mintzo dela: *Quid est quod dixit «ego indu-rabo cor Pharaonis», nisi «cum abfuerit gratia mea, obduret illum nequitia sua»?* (Aug. *serm. 88 de tempore qui est primus de Pharar.*, tom. 10). Jainkoak bekhatorearen utzte, itsutzea eta gogortzea ezta, ez, Jainkoak berak itsutasun haren eta gogortasunaren emaita eta ibentzea. Baina hura da, Jainkoak ez argitza, ez beratzea, fabore bizi handi beregainetako heken, bekhatoreak berak hala kausaturik, ez emaita; eta handik itsutzera eta gogortzera utzte. Hunela aditu behar da, eta haur da Jainkoaren aldetik eman ahal ditekeien arrazoina, zergatik erraiten den, bekhatore batzuk, bertzen artetik, direla itsutuak eta gogortuak, eta Jainkoak itsutzen eta gogortzen dituela. Erran nahi du: bigarren fabore handiak bere faltaz ezterauztela emaiten, eta itsu eta gogor ditezin permititzen duela.

§ 2

71 Zergatik erraiten den bekhatore batzuk bertzeen artetik direla itsutuak, gogortuak eta Jainkoak ere utziak, bada gure aldetik <106> ere arrazoin bat, are klaragoa eta aditzeko errazagoa, zein baita usantza, segientza, denbora luzeaz bekhatusun egoitea. Handik, hala egoitetik, itsutzen eta gogortzen da bekhatorea. Handik ontasunera baino, gaixtatasunera eroriagoa, isuriagoa eta emanagoa gelditzen da. Handik erroak egiteintu. Finean, handik bekhatusun beretakotzen eta natural bezala errendatzen du, jan eta edan gabe baino gehiago, bekhaturik egin gabe ere ezin dagokeiela iduritzen baitzaika.

Egiten duzu egun bekhatu bat eta bekhatu hartaz orhoitzen zara arratsean, alhatzen zaitzu zeure konzientzia. Egiten duzu bihar bertze bat, eta orduan ere orhoitzen zara. Ordea, egun baino, bihar gutiago orhoitzen zara. Lehenbizian sentikor, eta gero eta gero gutiago. Lehenbizirik bekhatu egiten duzunean, beldur zara, bigarrenean ere bai; ordea, lehenbizikoan baino gutiago. Eta hanbat usatzen duzu bekhatu egitea, hanbat segitzen duzu, non alde guztiz beldurra galtzen baituzu; usatuari bezala, hetan laketzen baitzaitzu; eta handik harat batere ezpaitzendu baino gehiago, ezpaituzu konturik egiten. Bekhatusun bat baizen ezteua, minbera da, sentikor da, beldur da, ezin sosega diteke, baina ehun dituenak, bekhatusun bekhatusun iratxekirik, bekhatusun betherik dagoenak, eztu antsiarik, eztu sentitzen, <107> ezta duka konturik. Zeren usantzarekin batean, itsutua, gogortua, ezansiatua eta, erroak eginik, bekhatusun barrena sarthua baitago.

Gizon batek, bere herritik kanpora Indietara edo bertze lekhu urrun batetara partitzen denean, eta oraino bere herriko agerrian, komarketan eta terminoetan denean, maiz behatzen du gibelat, bere herriko mendietarat. Baina aitzina iraganez gero, bere herria eta herriko lurak bistatik galduz gero, itzultzen da bertze alderat, joan
 5 behar duen eta dohan lekhu hartarat; eta han, aldiz, bere begiak eta gogoa ere ibentzeintu. Bada haur beror gerthatzen zaika, lehen justu izanik, zenbait denboraz bekhaturik gabe egonik, bekhatu egitera partitzen eta abiatzen denari ere. Abiatu berri hartan, maiz behatzen du gibelat, utzi duen bizitze presturat; eta hartaz orhoiturik, egiten du zenbait hatsbeherapen, errezibitzen du bere baithan zenbait tristura. Baina bekhatutan aitzina iraganez gero, leheneko aztura onak eta berthuteak begi bistatik galduz
 10 gero, gogotik utziz gero, ibentzen du, aldiz, bere gogoa eta bihotz guztia eskuen artean darabiltzan bekhatuetan eta plazeretan. Eta handik harat, eztu leheneko herriaz eta bizitzeaz konturik egiten: urrundu da, presentekoak darama guztia.
 <108>

15 § 3

72 Bekhatu bat egiten duzunean eritzen da arima; bia egiten ditutzunean eritzenago da; eta anhitz eginez usantza koberatzen duzunean, eta usantza koberaturik, usatuari bezala, hetan laketzen zaitzunean, are eritzenago da, orduan hurrantzen da arima. Eta halakoak, ez konseilu onez, ez predikarien erranez, ez bere lagunak hiltzen zaitzala ikhustez, eta ez hunelako bertze gauzaz, eztu konturik egiten, eta ez probetxurik atheratzen, kalterik baizen.

Halakoari gerthatzen zaika Jainkoarekin, eri bati midikuarekin egiten zaikana. Midikuak emaiten dio eriarri edari bat, purga bat, bere egitez ona eta eritasunari dagoakana. Ordea, purga ona izanagatik, eritasuna hain da handia eta bortitza, eria hain dago ahitua eta usteldua, ezen ezpaitio purgak batere onik egiten, gaitzik baizen.
 25 Midikuak eta midizinak eztute faltarik. Nork du, bada, falta? Barreneko eritasunak, barreneko usteltasunak. Bada, molde hunetan berean, gure Jaungoikoak ere, zeruko midikuak, emaiten derautza bekhatore eriarri edariak, midizinak, abisuak, konseiluak eta anhitz erremedio. Baina, guztiarekin ere, ezta sendatzen. Aitzitik, orduan eritzenago, <109> orduan hurrantzenago da. Eta nork du falta? Ez midikuak, ez Jainkoak.
 30 Nork bada? Eriak berak, bekhatoreak: alde guztiz galdua, narriatua, arrazatua, eta erroak eginik, bekhatuz eta aztura gaixtoz bethea baitago. Iguzkiak beratzen du ezkoa, eta gogortzen lurra. Eta zertarik heldu da haur? Ez iguzkia beraganik. Zeren hark biak orobat berotzeintu. Baina heldu da ezkoaren eta lurraren arteko diferentziatik eta naturalezatik. Jondone Petrik eta Judasek, biek egin zuten bekhatu, eta biak deitu zituen
 35 Jainkoak, biei eman zerauen anhitz midizina eta erremedio. Eta, guztiarekin ere, sendatu zen bata eta ez bertzea. Sendatu zen Jondone Petri Jainkoaren garaziaz; eta gelditu zen sendatu gabe Judas bere faltaz eta maliziaz.

62-1 *Indietara*: «Indietara (Ameriketara) joaileak (Terranovako arrantzaleen kasua aparte utzirik) garai hartan, dirudienez, ez ziren anitz Ipar-Euskalerrian; ezagunak ziren, hala ere» (Villasanteren oh.).

73 Jainkoak begira zaitzala bekhatuak ez sentitzera ethortzetik, zeren halakoei erraiten deraue Jainkoak berak: *In peccato vestro moriemini* (Ioan. 8). «Zeuen bekhatuan hilen zarete, zeren hartan gogortuak eta ezansiatuak baitzaudete». *Cor durum male habebit in novissimo* (Eccles. 5). «Bihotz gogorra gaizki izanen da bere azken finean».

Baldin utz bazeneza harri handi bat eskuetarik, norat othe lihoake, goiti ala beheiti? Segur da beheiti lihoakeiela. Bada, arima galdua, hanbat urthez harria bezala bekhatutan <110> urthatua dagoena eta egon dena, norako da bere azken finean, Jainkoak bere eskutik utz dezanean? Ezta zer galdeginik. Erhokeria handia da, harria beheiti bezala, bekhatutan dagoena ere ez dela ifernura eroriko uste izaitea. Zeren harria zein pisu den, are bekhatua baita pisuago.

Bada, zuk iragan diren urthe guztiotan, behin ere ongi kofesatu gabe, bekhatutan gogorturik eta ezansiatuak zaudezinorrek, zertan baratu uste duzu? Nolatan duzu esperantza salbatzeko? Eztakusazu mundu hunetako aldia dagizunean ifernua zuretzat dagoela? Zu bezalakoez erraiten da: *Descenderunt in profundam quasi lapis*. «Erori ziren harria bezala hondarrera».

Beraz, hunelatan, ezta gerotik gerora ibili behar. Ezta denbora luzeaz bekhatutan egon behar. Zeren egoite hura da gure galgarria. Handik sortzen da usantza; usantzatik eder estea, eder estetik ezansiatzea, ezansiatzetik ez sentitzea, ez sentitzetik itsutzea, gogortzea eta, azkenean, ahalkea galdurik hartaz prezatzea, loria-tzea eta sendagaila eriztea. Eta handik harat, hartaraz gero, eztagizula hartaz konturik: gaizki da, hurran da, hilaren pare egiten da.

63-12 *zaudezinorrek*: 2. graduko artikulua zaharraz (1. gradukoa gorago: 50-25).



<111>

*Nola gerotik gerora gabiltzala betha ditekeien bekhatuen neurria,
eta osa kontua*

KAP. IX

74 Erraiten du Salomonek, Jainkoarekin mintzo dela: *Omnia in mensura et numero et pondere disposuisti* (*Sap.* 11). «Jauna, zure gobernua eta ordenamendua hain da handia, eta hain aitzina heltzen eta hedatzen da, non munduko gauza guztiak kontuan, pisuan eta neurrian egiten baitituzu». *Pondus et statera, iudicia Domini* (*Eccles.* 11). «Pisua eta balantza dira Jaunaren julgamenduak eta sentenziak». Ezta guttizerik, eta ez berretzerik; ezta soberaniarik, eta ez eskasiarik; ezta inorantziarik, eta ez «ez nuen uste»-rik. Guztiak dakuski, guztiak dakizki, eta guztiak berak bere eskuz, bere ordenamenduaren arauaz, behar bezala kidatzeintu. Hain xehero, bat-banaka, beregainki eta bereziki daki Jainkoak gauza guztien berri, non gure buruko ileak ere kontatuak baitadutza, eta ezpaitzaiku batere haren jakin gabe galtzen, eta ez erortzen. Are badaki zenbat parabisurako diren, eta bai zenbat ifernurako diren ere (*Luc.* 12 et 21). Eta hark berak daki, <112> eta ez bertzek. Badu guztien kontua, eta kontu segura eta gerthua. Hala erraiten du San Tomasek: *Numerus predestinatorum in superna felicitate locandus est certus et soli Deo cognitus* (S. Thom. 1 p., q. 2, art. 7). 5
10
15

Bekhatuak eta bekhatuzko obrak baititugu geure-geureak, eta gerok eginak. Halako moldez, ezen erraiten baitu Jainkoak berak Oseas profeta baithan: *Perditio tua ex te, Israel; tantummodo in me auxilium tuum* (*Oseae* 13). «Israel, girstinoa, galtzea zeureganik, erremediatzea duzu eneganik. Bekhatua zurea da, barkhamendua da enea». 20

75 Ordea, guztiarekin ere, badaki Jainkoak gure bekhatu guztien berria eta kontua: badaki zenbat eginen ditugun, eta bai zenbatetaraino igurikiko zaikun ere. Hala erraiten du San Agustinek: *Sed hoc magis sentire nos convenit, tandiu unumquemque Dei patientia sustentari, quandiu nondum peccatorum suorum terminum finem* 25

65-1 *betha*: aditzoina, *bethatze* aditz izena, *bethe* partizipioa (Mitxelena 1974: 115).

65-13 *haren jakin gabe*: subjektua genitiboan: 'hark jakin gabe'.

que compleverit; quo completo, eum illico percute, nec illi ullam veniam iam reservari (August. lib. De vita christiana, tom. 9). «Jakin dezagun gauza bat, sentitzekoa baita, igurikitzen dioela batbederari Jainkoaren pazientziak, bere bekhatuen neurria betha arteino, kontua konpli arteino; eta hura konplituz gero, eztela gehiago igurikitzerik, eta ez barkhamendu erdiesterik». Badaki Jainkoak kontua, zenbat bekhatu eginen ditugun, eta bai zein handiak eta nolakoak <113> ere. Eta utzten gaitu kontu haren konplitzera, neurriaren bethatzera eta mukurutzera. Deliberatua daduka anarteraino igurikitzeko. Permititzen du ehun edo berrehun bekhatu egin ditzagun, edo gutiago edo gehiago, berak daki zenbat: xedea ibenia daduka, eta eztu nahi hartarik aitzinago iragan gaitezin. *Circumdedi illud terminis meis, et posui vectem et ostia; et dixi «usque huc venies, et hic confringes tumentes fluctus tuos» (Job. 38).* «Inguratu nuen itsasoa neure mugez eta mugarriez, ibeni nerautzan athe-sarrailak; eta erran nioen: —Huneraino, kostaraino ethorriko zara, eta ez aitzinago, hemen geldituko zara, hemen hautsikoituzu zeure uhinak eta hola hantu urguiluak». Itsasoak, haserre denean, bere gaitzaldiak dituenean, badirudi iretsi behar duela mundua. Orduan halako moldez irakitzen du, non baldin bridarik ezpalu, manatua ezpalego, lur guztia estal bailezake. Ordea, Jeremias profetak dioen bezala: *Posui arenam terminum mari, praeceptum sempiternum quod non praeteribit, commovebuntur et non poterunt, et intumescent fluctus eius et non transibunt illud (Jerem. 5).* «Badu itsasoak bere xedea, bere marra, bere mugarria eta zedarri jakina, zein baita kosta eta kostako sablea, harea eta legarra. Han hautsten da, han baratzen da, han gaitzago eta urguiluago bada ere, ematzen eta sosegatzen da».

76 <114> Bada, itsasoari bezala, ibeni derauka Jainkoak gizonari ere bere arauaz bere zedarria, seinalatu dio noreraino hel, bere xedea, bere mugarria eta marra. Eta nahiago badu ere, eztiteke marra hartarik aitzinago iragan. Enseia ahal diteke, desira ahal dezake, baina alferrik. Zeren gizonak libertatea nahi badu ongi eta nahi badu gaizki egiteko izanagatik ere, ezta, ez, handik segitzen, bai bekhatuak libreki eta bere nahiz egiten dituela, baina ez nahi duen bezanbat bekhatu egin dezakeiela, eta ez libertate hari nahi duen bezanbat irauan arazi ahal diazaiola. Zeren libertate haren gaineko eta nabusi da Jainkoa. Hark libertate hari eta haren iraupenari, gutien uste duenean, bortxarrik egin gabe, utz arazi diazaio, herts eta traba, daraman bide gaixtoa. Aski esten du edo sobera esten du, bere batez aitzinago. Eta hala, ikhusikoituzu jende thailu batzuk, neurriaren bethatzeaz kontu guti eginik, abiadura handi batekin bekhatu gehiago egitera abiatzen eta erdutzen direla; eta hain zinez eta deliberatuki, non iduritzen baitzaie, ezen ja han direla, eta deusek ere hara heltzetik ezin gibela ditzakeiela. Ordea, ikhusiko ditutzu, halaber, noiz eta gogoia zinezzenik hartan ibenia baitadukate eta lasterrenik baitoazi, orduan berean, edo eritasunez, edo inkontruz, edo estropuz, edo heriotzeak atrapatuz <115> bere bekhatu egiteko gogoarekin bidatz-erditan gelditzen direla. Hala gerthatu zeikan errege Faraoni, Israeleko semeen kontra egundaino baino

66-30 *diazai*: diezaioke. Beheraxeago beste bat: *eragin eztiazaionik* (67-11). Bestetan *ahal*-ez lagunduta ikusten dugu: *ahal zitzan* (18-7), *ahal diazaio* (19-32), *ahal diazaizu* (44-5), etab. Ik. 325-34 testu-oharra.

deliberamendu handiagoarekin zihoanean, erraiten zuela: *Persequar et comprehendam, dividam spolia, implebitur anima mea, evaginabo gladium meum, interficiet eos manus mea* (Exod. 5). «Erdietsikoitut, atrapatukoitut, aspertuko natzaie, guztiak ezpataren ahotik iraganeintut». Bada, orduan berean, hunela mintzo zenean eta zihoanean, neurria bethe zeikan, kontua osatu eta konplitu zeikan, eta beruna bezala itsas ondarrera eroririk, bere egunak akhabatu zeitzan. 5

§ 1

77 Itsasoko untziak, barkha handiak, anhitz daduka, karga handia jasaiten du. Erditaraino betheagatik itsas gainean dago. Hirur laurdenak betheagatik ere badabila, oraino ageri da. Guztia betha dadinean, hondatzen eta ondoratzen da, orduan estaltzen da. Zeren ezta soberaniak gainez eragin eztiatzaionik, ezta bere neurria baino gehiago dadukaionik. Bada, haur beror gerthatzen zaitzu zeure bekhatuen kargarekin zuri ere. Egiten ditutzu hogoi bekhatu mortal, eta oraino bizi zara, igurikitzen deratzu Jainkoak. Egiten ditutzu berrogoi, eta oraino <116> ere utzten zaitu. Egiten ditutzu hirur hogoi eta guztiarekin ere badu pazientzia, pairatzen derauzkitzu. Egiten ditutzu lauretan hogoi, eta orduan bethatzen da neurria, orduan mukurutzen da, orduan gainez eginik, untzia ondara bezala, zu ere infernuko zolara erortzen zara. 10 15

Ordea, eztut, ez, hunetan erran nahi, igurikitzen duela bethi Jainkoak, lauretan hogoi bekhatu egin arteino; eztut erran nahi, eztela anarteraino neurria bethatzen, eta ez orduan ere, orduan bethatzen dela. Aitzitik, nola asko baita bekhatu mortal bat infernura joaiteko, benturaz bada zenbait, bekhatu bat beragatik ifernuan dagoenik, bekhatu batez neurria bethe duenik. Ohoin batzuk, anhitz ohoinkeriaren buruan urkhatzeintuzte, eta berriz, bertze batzuk berehala lehenbizikoan dira atrapatuak. Hala gerthazen zaie, bada, bekhatu anhitzekin edo gutirekin ifernura joaiten direnei ere. Batzuei igurikitzen deraue Jainkoak luzaro, eta bertze batzuei ez hanbat. Eta zergatik ez? Den bekhatu mortalik ttipienaren ere egitera beldur garen amoreakgatik, hartaz neurria betha ditekeienaz geroztik. Eta hala, erraiten dudanean lauretan hogoigarren bekhatuaz neurria bethazen dela, orobat derraket lehenbizikoaz, bigarrenaz edo hirugarrenaz betha ditekeiela. Zeren nik konparazino <117> hunetan erran nahi dudana da, badela bekhatuetan neurri bat, badela ez aitzinago iragaiteko marra bat eta kontu bat. Eta lehenbiziko bekhatuaren egitera ere bai, baina guztiz ere handik harat, hurrenekoaren egitera behar dugula izan beldur, zeren hartaz, lehenaz egin eztena, neurria betha baititeke. 20 25 30

67-17 «Ondara (sic). Bai lehen eta bai 2. edizioan ere hala ageri da. *Ondo*-tik *ondora* behar zuen, eta hala egiten du Axularrek berak bestetan. Deribazio eta komposizio lege baten eraginaz (*asto*-tik *astakume*, *luze*-tik *luzamendu*, etab.) sortua dirudi hemengo *ondara*-k. Itxuren arabera, hala sortu zen *gogo*-tik *gogara* ere» (Villasanteren oh.). Bi aldiz agertzen da ohiko forma: *etzen ondora* (131) eta *ondoratzen da* (115) eta, beraz, hapax hori ez da ziurra.

67-17 «*Infernuko* (sic). Hala ageri da, bai lehen edizioan eta bai 2.ean ere. Bestetan *ifernu* esaten du Axularrek, *n gabe*» (Villasanteren oh.). Ik. 28-32 testu-oharra.

5 Eta hunetarik athera ahal dezakegu, eta ikhas, anhitz gauza. Lehenbizikoa, zinez gatzaitzala zu eta ni ere zordun geure Jaungoikoari. Zeren benturaz anhitz baitago orai ifernuan, guk orainokoan egin dugun baino bekhatu gutiagorekin; eta guk geureak oraino, gehiago balira ere, Jainkoarekin batean, erremedia baititzakegu. Halaber, bigarrena, ikhas ahal dezakegu hunetarik, bethiere behar dugula izan beldur eta herabe bekhatu egitera, zeren ezpaitakigu zeinez zerratzen den kontua, lehenbiziko egiten dugunaz ala bigarrenaz. Eta guztien buruan ikhas ahal dezakegu eta athera hunetarik, erhokeria handia dela, guk geure buruan daramaguna eta erraiten duguna: bekhatuen utzten eta obra onen egiten gero hasiko garela. Zeren pensatu behar genduke, badela
10 bekhatuetan neurri bat, kontu jakin bat, eta guk destatzen eta ordenatzen dugun *gero* hartara heldu gabe, kontu hura konpli ditekeiela, eta neurria betha.
<118>

§ 2

78 Erraiten du Aristotelek, eta hari jarraikitzen zaitza bertze filosofo guztiak ere: *Omnia viventia quae dicuntur natura constantia, habent certum limitem suae*
15 *quantitatis* (Aristo. 2 *Ex anima*, cap. 4, text. 41). Bizitzen diren gauza guztiek, badute bere neurria bere handitasunean, eta bai ttipitasunean ere. Gizona ezin dateke zigarra bezain ttipi, eta ez zigarra ere gizona bezain handi. Eta nola bizitzen diren gauza guztiek baitute bere handitasunean eta ttipitasunean bere pontua eta neurria, hala dute iraupenean ere bere denbora. Denbora batetaraino irau ahal dezateke, eta ez gehiago; handik harat guztiak dohazi behehituaz, ahituaz eta bere indarrean flakatuaz. Animalia batzuek gehiago irauten dute, bertze batzuek baino, eta bai zuhaitzek ere. Ordea, guztiek dute bere denbora jakin bat eta neurri bat. Hala dute, bada, bekhatuek eta bekhatoreek ere bere arauaz bere neurria eta kontua zenbatetaraino hel, eta bai denbora ere noiz arteraino irau. Eta denbora hura konplituz gero, neurria bethez gero, eztu Jainkoak gehiago igurikitzen. Hala emaiten du aditzera
25 Eskritura Sainduak, erraiten duenean: *Vade et interroga mulierem praegnantem, si quando impleverit novem* <119> *menses suos, adhuc poterit matrix eius retinere partum in semetipsa?* (*Esdrae* 4, cap. 4). «Zoaz, eta galdegiozu emazte izorrari, ea bederatzi hilabeteak bethez gero, eduki ahal dezakeienz hurra sabelean». Ihardetsiko deratzu ezetz. Ez eta, beraz, Jainkoak ere, bekhatuen neurria bethez gero, ezin dadukaio, bere justiziaren arauaz, bere kolera agertu gabe. Eta erraiten badu ere Esaias profetak: *Expectat Dominus ut misereatur nostri* (*Isai.* 38), «Igurikitzen du Jainkoak gutzaz miserikordia izaiteko», aditzen da igurikitzen duela baldin neurria bethe ezpada, denbora konplitu ezpada. Hala erran eta egin ere zuen Jainkoak berak
35 Noeren denboran, uholde handi hartzaz mundua hondatu zuenean. *Impleta est terra*

68-17 *zigar*: «Zomorro ttipia, hazteriarren sortzailea. Erderaz, 'arador, ácaro» (Villasanteren oh.).

68-28 *izorra*: «a eta guzti. Azken a hori berea du hitz hunek aspaldiko idazleen usarioan» (Villasanteren oh.). Ik. orain *OEH*, s.v. *izorra*.

68-30/31 *ezin dadukaio*: ezin izan dezake (aurreko perpauseko *eduki*-ri dagokio). Ik. 325-34 testu-oharra.

iniquitate et ego disperdam eos cum terra (*Gene. 6*). «Bethe da lurra gaixtakeriaz, mukurutu da maliziaz; ezta, beraz, zer gehiago igurikirik, ditzagun guztiak lurrarekin batean gal eta honda». Eta hala hondatu zituen.

79 Eta «lurrarekin batean» erraiten du: *Disperdamus eos cum terra*. Zeren lurra gelditu bazen ere, ordea, Glosak dioen bezala, *Per salsedinem aquarum, ipsa terra peiorata est* (*Glos. lyrana, cap. 6 Genes.*), uholde hartzaz gero lurra ere mehatua eta flakatua gelditu zen. 5

Pontu hunetara ezta gaizki heldu San Mateo ebanjelistak ibentzen duen konparazino bat (*Math. 13*), zeinetzaz <120> frogatzen baita, bekhatuetan bezala obra onetan ere, neurria betha arteino eta zorhi arteino igurikitzen duela Jainkoak. Eta da konparazinoa: Gizon batek erein zuen bere landan hazi ona, ogi bihi garbia. Baina gero zenbait nahastekarik egotzi zuen gainetik hazi gaixtoa. Eta denborarekin batean hasi ziren hazi biak, ona eta gaixtoa, agertzen. Agertu zirenean, erran zioten bere muthilek nabusiari: *Vis imus et colligimus ea?* «Jauna, zuk hazi ona eta garbia erein zenduen zeure landan eta alhorrean, baina badakusagu on harekin batean sorthu dela gaixtoa ere. Nahi duzu, bada, goazin eta gaixto hura athera dezagun, bil dezagun?». *Non.* «Ez», ihardesten deraue, «eztut nahi». *Sinite utraque cressere usque ad messem.* «Igurikazue aphur bat, zaudete oraino, luza ezazue uztaraino, utzkitzue hazi biak, ona eta gaixtoa haztera, handitzera eta zorhitzera; eta gero orduan ebakiko ditutzue guztiak; eta onak ongi bildurik eta zamaturik ailtzatuko, eta gaixtoak ere elkharganarik sura egotziko ditutzue». Etzuen nahi zorhi arteino, bere sasoinera eta mugara hel arteino nehork utki zitzaiz, ez eta zorhituz gero ere geldi ziteziz. 10 15 20

Hala egiten du, bada, gure Jainkoak ere, hala onekin nola gaixtoekin. Igurikitzen deraue guztiei zorhi arteino, bere mugara, sasoinera eta neurrira hel arteino. Eta gero <121> orduan onak bere loriako ailtzatzeintu, eta gaixtoak sekulako penetara egotzteintu. Fruituak utzten ditutzu ontzera, umotzera eta bere sasoinera heltzera. Hala utzten ditu, bada, Jainkoak ere onak ontasunean eta gaixtoak gaixtatasunean zorhitzera, eta neurriaren bethatzera. 25

§ 3 30

80 Gure Jaungoikoak, ikhusirik jarri zeitzala gaixtakeriari jendeak, erran zuen bihotzmin handi batekin: *Tactus dolore cordis intrinsecus*. Zeren berak nahi etzuen, munduko bekhatuek eragiten baitzeraukaten. *Delebo hominem quem creavi a facie terrae* (*Gen. 6*). «Neurk egin nuen gizona, neurk deseginen dut, khenduko dut lurraren gainetik». Eta hunetakotzat, deitu zuen Noe zeritzan gizon bat, zein, bera zortzigarren, 35

69-35 *bera zortzigarren:* «Pasarte iluna. Errakuntzaren bat egon daiteke testuan. Nolanahi ere, beherago (93. zatian) dionaz elkar joaz esan nahi duena garbi dago: Fr. Luis de Granada-k *Guía de Pecadores*-en dioena bera: «Todo el mundo pereció con las aguas del diluvio, y solas ocho ánimas se escaparon en el arca de Noé» (libro 1.º, 3.ª parte, cap.

- etxatiar guztia gerthatu baitzen on eta justu, eta hari erran zioen: *Repleta est terra iniquitate*. «Bethe da mundua bekhatuz eta maliziaz, gainez egin hurran du gaixtake-riaz. Eta hala, deliberatu dut guztien uholde batez desegitera eta hondatzera. Ordea, eman nahi derauet asti, ephe, termino eta espazio bizitzeko eta penitentzia egiteko,
- 5 ehun eta hogoi urthe. Eta bitarte hunetan zuk —erraiten dio Noeri— bertzeen abisatzeko eta zeure etxekoen <122> salbatzeko, eta halaber aniamalia suerte guztietarik haziaren eta arrazaren gelditzeko, eginen duzu untzi bat, barkha handi bat, erran den gauzako asko handi datekeien bezalako». Eta hala egin ere zuen. Eta hartan sarthu zirenak bizirik salbatu eta eskapatu ziren, eta ez bertzerik.
- 10 **81** Orai hemen behar da konsideratu pontu bat. Untziaren eragiterakoan, erran zerauen Jainkoak igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez. Baina baldin kontua ongi atheratzen badugu, edirenen dugu etzerauela iguriki ehunez baizen. Zeren ageri da ezen, untziazen edo barkharen egiteko manua izan zuenean, bortzetan ehun urthe
- 15 erran nahi du, bada, hunek? Prometa igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez, eta ez iguriki ehunez baizen? Non dira gainerakoak? Zer murrizte da haur? Zergatik eztu bere promesa osoki konplitzen? Ihardesten du San Krisostomok: *Antequam implerentur anni promissi, universale introduxit excidium; et hoc fuit sacrae misericordiae maximum indicium. Nam, quoniam vidit incurabiliter illos peccare, et non solum nihil ex indicibili longanimitate sua proficere, sed et incrudescere ulcera, propterea succidit tempus, ut ne maiori scilicet paenae se obnoxios facerent* (Chrysost. *Hom. 25 in cap. 7 Genes.*, tom. 1). «Egia da: prometatu zituen urtheak konplitu <123> gabe igorri zuen Jainkoak uholdea. Eta haur izatu zen miserikordia sakratuaren seinale handi bat. Zeren nola ikhusi baitzuen egunoro bekhatu egiten
- 20 hari zirela, eta aitzinerat ere hala hariko zirela, eta igurikitzeaz, denbora gehiago emaitiaz, probetxu baino kalte gehiago heldu zeizela, bekhatuen zauriak gordintzenago eta gaizkoatzenago zirela, hobenduriago egiten zirela: urrikaldurik, pena gutiago ethor zekien amoreakgatik, gutitu zerauen denbora, eta laburtu hogoi urthez eman zerauen ephea eta promesa». Hunela ihardesten du San Krisostomok. Eta
- 25 arrazoin ona da haur. Baina ez ni narraion gauzaren frogatzeko. Hartarakotzat edireiten da bertze bat San Jeronimo baithan, eta ene ustez ez gaixtoa. Eta da arrazoina: prometatu zerauen igurikiko zerauela ehun eta hogoi urthez; ez, ordea, iguriki ehunez baizen. Zeren ehun eta hogoi urthez egin behar zituzten bekhatuak, edo egin behar etzituztenak, ehunez egin baitzituzten, ehunez neurria bethe baitzuten. Eta
- 30 nola neurria bethez gero, ezpaitzen zer gehiago igurikirik: halatan, nola berak lehiatu baitziren bekhatu egitera eta neurriaren bethatzera, deliberatu zuen Jainkoak ere hei biziaren laburtzera, eta hogoi urtheren denboraren guttzera eta ephaitera (Vide Hieron. *De qu. hebraicis super hunc locum*).
- 35

27, § 11)» (Villasanteren oh.). Erlatibozkoaren aurrekariaren (*Noe*) eta aditzarekin komunztadura egiten duen osagaiaren (*etxatiar guztia*) arteko tirabiratik sortua bide da partearen iluntasuna: *zeinaren etxatiar guztia gertatu baitzen...* ondo ulertuko genuke.

82 Hunetarik athera ahal dezakegu, behar <124> gendukeiela, gehiago bizi-tzeagatik bedere, bekhatu egitetik gibelatu, eta hartan neurria bethatzetik eskusatu. Halatan erraiten deraue Jeremias profetak juduei: *Quare facitis malum grande hoc contra animas vestras, ut intereat ex vobis vir et mulier?* «Zeuen buruon etsaiak, Jainkoagatik egin nahi ezpaduzue ere, zergatik zeuen probetxuagatik eta gehiago bizitzeagatik bedere, etzarete bekhatu egitetik begiraten? Eztakusazue, bekhatu egiteaz eta heken kontuaren konplitzeaz, bizia laburtzen duzuela? Eta halatan bertzela hilen zineten baino lehen hiltzen zaretela?». Zeren kontua konplitez gero, ezpaita gehiago bizitzerik.

Prometatu zerauen gure Jaungoikoak Abrahami eta haren ondokoei, emanen zerauela Judeako erresuma on hura. Ordea, etzerauen prometatu eta berehala eman. Eta zergatik ez? Ihardesten du Jainkoak berak: *Necdum, enim, completae sunt iniquitates amorreorum* (*Genes.* 15). «Ezterauet emaiten berehala, zeren ezpaitira oraino bethe eta konplitu amorreoen bekhatuak, zeinek baitadukate herri hura. Hek neurria betha dezatenean, eta kontua konpli, orduan edekiko derauet hei, eta emanen Abrahami eta haren ondokoei».

Etzuen, iduriz, hala egin Sodomakoekin eta Gomorrakoekin: hek erran eta berehala, <125> gehiago iguriki gabe, zerutik su bat igorriker erre zituen. Zeren ja ordukotzat neurria bethe baitzuten. Eta hunen gainean erraiten du San Agustinek: *Quo exemplo manifeste instruimur, singulos, secundum peccatorum suorum plenitudinem consumari, et tandiu ut convertantur sustinere, quamdiu cumulum suorum, non habuerint, delictorum, consumatum* (*Vide Aug. De vita christiana*, tomo 9). «Exemplo hunetzaz emaiten zaiku aditzera, eta erakusten klarki, batbederari, bere bekhatuak bethe dituenean, bethatzen zaitzala bere egunak ere», denbora hartaraino igurikitzen zaikala, eta ez gehiago.

83 Eta baldin orainokoan erran ditugun gauza hauk guztiok egiak badira, nola baitira egiak; baldin Jainkoak deliberatua badaduka igurikitzeke neurria betha arteino, eta ez gehiago: Zertan pensatzen othe duzu zuk, orainokoan ere, buruan ile duzun baino bekhatu gehiago egin duzunorrek? Zer dakizu hurran lehenbiziko eginen duzunaz, zuk zeure neurria bethatzen duzun? Kontua konplitzen duzun? Zer dakizu lehenbiziko eginen duzun bekhatuaren begira dagoenz Jainkoa, zure egunen akhabatzeko eta mundutik atheratzeko? Konsideratzekoa, eta bethiere go-goan edukitzeko pontua da haur. Baina zuk puntu hunez eta bertze hunelakoez ere kontu guti eginik, zeure *gero* hartara laster egiten <126> duzu, eta bethiere gero onduko zarela, eta zure neurria eztela oraino betheko erraiten duzu.

Ordea, zer izanen da, zure *gero* hura heldu gabe, zure bekhatuen kontua bere kontura hel badadi? Eta zure bizia ere akhaba badadi?

Konsiderazino haur beror, bertzerik gabe, asko behar lizateke ez gehiago gero-tik gerora ibiltzeko; edo bai, behintzat, bekhatu baten egitera zohazinean, haren egitetik itxitzeko eta gibelatzeko. Zeren pensatu behar zenduke ezen, egitera zoazin

71-29 *duzunorrek*: 2. graduko artikulu zaharra.

bekhatu hura dela, benturaz, zure azken bekhatua, eta hartzaz zuk zeure neurria bethatzen duzula, zeren etzara segur.

5 Anhitz bekhatu egin duzu orainokoan eta, guztiarekin ere, utzten zaitu oraino Jainkoak, igurikitzen deratzu. Beraz, esperantza ahal dukezu, eztuzula oraino neurria bethe. Ordea, betha dezakezu lehenbiziko eginen duzunaz; beraz, haren egitetik behar duzu begiratu.

10 Eta hala, bira iraganak iragan, hek ahalik eta hobekiena erremedia ditzagun, eta aitzinerat gehiago egitetik ahalez begira gaitezin. Bethiere puntu haur, neurriaren bethatzeko peril haur gogoan edukitzen dugula. Eta bizitzen garela, ez bekhatuz eta gaixtakeriaz, baina ontasunez eta obra <127> onez neurria betherik, azkenean zeruko loria erdiets dezakegun bezala.

72-7 *bira*: «izan bitez» (Villasanteren oh.). *b*-dun agintera trinko honen beste adibide bat ikusi dugu gorago: *beute* (49-21).

Anhitz balio duela Jainkoaren miserikordiak, eta nola behar den hartan fidatu

KAP. X

84 Erraiten du San Tomasek: *Fiducia est spes roborata ex aliqua firma opinione* (S. Thom. 1 p., q. 129, ar. 6 *in corpo. et ad 3*). «Fidanzia da esperantza bat bortitztua, indarztatua eta, ustez, ongi finkatua eta seguratu». Duzunean adiskide bat aberatsa, botheretsua, eta zeure egiteko guztietan bethiere fin eta leial frogatua: hala-koaren hitza dirutzat hartzen duzu, eskentzea emaita bezanbat zaitzu; haren promesetan, kheinuetan eta are aieruetan ere, fidantzia handia dadukazu. Beraz, hunelatan, arrazoinekin edukiko dugu guk ere fidantzia handia eta esperantza beroa geure Jainkoa baithan eta haren miserikordian. Zeren han edirenen ditugu, are abantailatuki, fidatzeko eta esperantza izaiteko ahal diratekeien segurantza guztiak. 5 10

Lehenbizikorik, hura da gure adiskide, eta hain adiskide, non zerutik lurrera jautsirik, <128> lurtean guregatik, are bere etsai ginituelarik, bere bizia liberalki eta bolondreski eman baitzuen. Hala erraiten du Jondone Paulok: *Commendat Deus charitatem suam in nobis, quoniam, cum adhuc peccatores essemus, Christus pro nobis mortuus est* (Roma. 5). 15

Halaber, hura da aberats eta botheretsu. Zeren zerua eta lurra, zeruko eta lurreko gauza guztiekin bereak, berak eginak eta bere eskuko baititu. *Domini est terra et plenitudo eius* (Psalmo. 23). «Egin bitezi» erraiteaz egin zituen, eta «desegin bitezi» erraiteaz desegin ditzake. *Ipse dixit, et facta sunt* (Psalmo. 32). Ezta ibiltzerik eta ez higitzerik, ezta irauterik eta ez hats hartzerik, haren nahia eta borondatea gabe. *In ipso, enim, vivimus, movemur et sumus* (Acte. 7). 20

85 Bada, fintasunaz, bere hitzaren leial eta jabe izaiteaz, ezta zer erranik. *Respicite, filii, nationes hominum, et scitote, quia nullus speravit in Domino, et confusus est. Quis enim permansit in mandatis eius, et derelictus est? Aut quis invocavit eum, et despexit illum?* (Eccles. 1). «Beha ezazue munduko jenderazino guztietara, eta edirenen 25

73-7 eskentzea emaita bezanbat zaitzu: Honela itzuliko genuke: «lo que te ofrece, lo das por dado (es como si ya te lo hubiera dado)».

- duzue ezte la egundaino Jauna baithan fidatu denik galdu, eta ez bere beharrea, behar den bidean, hura behartu duenik, bere behar duena gabe gelditu». Halatan, erraiten du errege Dabitek: *Iacta super Dominum curam tuam, et ipse te enutriet (Psalm. 54)*. «Nahi baduzu <129> zutzaz ongi dohan eta ongi iltki dadin, ibeintzatu zeure esperantza, fidantzia eta ardura guztiak Jainkoa baithan, haren gainera egotz itzatzu». Zeren munduko iduriz erremediorik ez tuten egitekoei ere hark edirenen deraue, eta emanen buru. Badirudi ezen hunen aditzera emaiteagatik, anhitzetan ere utzten gaituela geure Jaungoikoak hersturatan jartzera, egitekotan sartzera, eta zerutik baizen erremediorik ezin dukegun bezalako pontura ethortzera: lurraraz, eta lurreko habe, jabe eta fabore guztiez etsiturik, zerura eta zerukoetara fidantzia handirekin laster dagigun amoreagatik. Hala erraiten du San Krisostomok: *Quando res in maximam incidit inopiam, tunc tu maxime spera; tunc enim Deus maximam suam ostendit potentiam; non a primordio, sed quando res fuerit plane desperata* (Chrisosto. *Homi.* 17, tomo 1). «Egitekoak egitekotan direnean, galdu-gordean dabilzanean, orduan edukazu zuk egundaino baino esperantza gehiago. Zeren orduan erakutsiko du Jainkoak bere bothere handia: ez egitekoaren hastean, baina bai premiarik handienean, eta nehondik erremediorik ezte la dirudienean». Zeren orduan da Jainkoaren faborearen eta laguntzaren sasoina eta puntada. Beraz, orduan behar duzu zuk Jainkoa baithan eta haren miserikordian fidatu eta esperantzatu.
- <130> Eta hala egiten duzun denboran ezte, ez, Jainkoak faltatzen. Aitzitik, bere ontasunaren, miserikordiaren eta botherearen erakusteagatik, orduan laster egiten du, orduan heltzen zaitzu, orduan zuk pensatu ere etzendukeien bidetik erremedio igortzen deratzu. Jakin dezazun, bertze erremedio guztiak ahitu direnean, harenak hasten direla. Jakin dezazun, bertze guztiak deus ezin eginez utzi zaituztenean, hark badaidikeiela, eta orduan faboratzen zaituela.

86 Hala faboratu zuen Jonas profeta, hirur egunez eta gauez baleak sabelean bizirik erabili zuenean. Hala faboratu eta begiratu zituen Israeleko semeak ere itsasbatterean, errege Faraonek alde guztietarik inguratuak, eta ezin ihesik zeidiketen bezala, ustez hartuak eta atrapatuak zedutzanean.

- 30 Hala faboratu zuen Susana, Lege Zaharreko emazte prestu hura ere, bere senharraz bertzerekin izan zela falsoki akhusaturik, harriz jokatzera zeramatenean. Finean, hala faboratu zuen Daniel profeta ere, lehoinen artetik eta botheretik osorik eta salborik athera zuenean.

- 35 Nork erran zukeien, gizon bat hirur egunez eta gauez balearen sabelean ibiliz gero, bizirik leihorrera ilkitko zela? Nork sinhetsi zukeien Israeleko semeak, itsasbatterean hain herstura handian izan zirenak, Faraonen <131> eskuetarik

74-1/2 «Kasu behar eta behartu hitzekin egiten duen joko polit lirainari» (Villasanteren oh.).

74-5 haren gainera egotz itzatzu: Honela itzuliko genuke: «déjalos de su cuenta».

74-7/8 anhitzetan ere utzten gaituela geure Jaungoikoak hersturatan jartzera...: Honela itzuliko genuke: «muchas veces nos deja nuestro Dios que pasemos aprietos...».

74-24/25 hark badaidikeiela: hark bai egin ahal duela (-gidi- errokoa).

74-28 zeidiketen: egin zezaketan (-gidi- errokoa).

itzuriko zirela? Eta Faraon bera bere bothere guztiarekin ithorik han geldituko zela? Nork pensatu zukeien Susana, gaixtotzat kondenaturik, plazara galtzeko atheraz gero, hanbat ohoreekin etxerat bihurtuko zela, eta haren akhusatzaileak eta kondenatzaileak haren lekhuan kondenatuak eta justiziatuak izanen zirela? Finean, nori gogora zitzaikaion Daniel bezalakoa, lehoin gose-minduek bere menean eta atzapparren artean edukiz gero, desegin gabe eta iretsi gabe utziko zutela? Hauk dira Jainkoaren mirakuiluak, Jainkoak berak egin ahal zitzaizkienak, eta ez bertzek. Eta egin zituen jende heken alditan. Zeren hek herstura hetan zirenean, bere esperantza guztia, fidantzia handirekin, Jainkoa baithan ibeni baitzuten. Hala ibeni gabez, Israeleko seme Egiptotik iltki zirenetarik, etziren Josue eta Kalef baizen herri prometatuan sarthu. Zeren guztien artetik, hek biek bai, baina ezpaitzuen bertzek, Jainkoaren promesetan eta erranetan behar zen esperantza, sinhestea eta fidantzia eduki.

§ 1

87 Abiatu zen egun batez Jondone Petri, itsas gainean, Jesu Kristo bere nabusiagana. Eta abiatu zen berehala oinez, untzirik <132> eta xaluparik edo batelik gabe, leihorrean izan bailiz bezala, fidantzia handi batekin, esperantza segur batekin, bere Jainko nabusiagana zihoanaz geroztik, haren faborearekin batean, itsasoak jasanen zuela, etzela ithoko, eta ez hondatuko. Eta etzen, ez, enganatu. Zeren fidantzia hark iraun zeraukan bitartean jasan zuen itsasoak, etzen ondora, leihorrean bezain segurki eta gogortki finkatzen zituen oinak. Baina gero, haize bat jaikirik, itsasoa handitzen eta haserretzen hasi zenean, hasi zen halaber Jondone Petri ere izitzen, ikharatzen, dudatzen, esperantzaren eta fidantziaren galtzen. Eta nola baitzihoan dudatuaz eta fidantziaren galduaz, hala zihoan itsasoan barrena ere sarthuaz, estaliaz eta hondatuaz; halako moldez, ezen azkenean, guztiz honda etzedin, bere nabusiak eskua, goiti edukitzeko, eman behar izatu baitzeraukan, erraiten zioela: *Modicae fidei, quare dubitasti?* (*Math.* 14). «Ha fede aphurretakoa, fidantzia gutitakoa, zergatik dudatu duk? Zergatik ez aiz leheneko gogoan eta sinhestean fin egotu?». Fidantzia izan zuen bitartean, ongi joan zeikan, orduan jasan zuen itsasoak. Baina fidantzia hura faltatu zeikanean, faltatu zeikan itsasoari ere jasaiteko eta sostengatzeko indarra eta botherea. Halatan erraiten du errege Dabitek: *Qui confidunt in Domino sicut mons Sion.* <133> «Jauna baithan fidatzen direnak, Siongo oihana eta mendia bezala izanen dira»: hura bezain fermo, fintko, segur eta bortitz.

Beraz, hunelatan, anhitz balio du esperantzak, indar handia du fidantziak; hain handia ezen, baitirudi asko izanen dela fidantzia hura bera, batbederaren, egitekotan denean, eta guztiz ere bere azken finean, gaixtoago bada ere, salbatzeko eta bide onean ibentzeko. Ez horrelakorik. Hala iduriagatik, ezta hala, ezta fidantzia bera

75-5 *zitzaikaion*: zitzaiokeen, zekioken. Ik. 325-34 testu-oharra.

75-28 *aiz*: Testu zaharretan hikako adizkiek hasperenik ez oraindik, salbu eta aurrizkiekin: *bahaiz* (242-4). Izenordainek bai, ordea: *hi* (19-34), *hireak* (44-31), *heure* (42-20), etab.

GERO

asko izanen. Zeren egia da, anhitz balio du fidantziak, indar handia du esperantzak. Ordea, aditzen dela neurritz, soberania gabe. Zeren soberania guztiak dira gaixto, hunen ondoko kapituluan ageriko den bezala.

KAP. XI

88 Erraiten du San Agustinek, Jainkoaren miseriakordian sobera fidatzen direnez mintzo dela, erraiten dutela halakoek: «Miseriakordios da Jainkoa, bihotzbera, amorioz eta ontasunez bethea; beraz, eztugu zer lehiaturik obra onen egitera. Zeren berdin ezta deusen perilik, <134> orobat da bihar, orobat da gero. Ahal dukegu esperantza, fidantzia eta segurantza bizitze luzea emanen derakula; eta noiznahi den, zahartzean, eta are hiltzerakoan ere, geure bekhatu guztiak barkhatuko derauzkigula. Zeren hain gauza onak, miseriakordiosak, bihotzberak eta amoltsuak, ez liakitke bertzela egiten, ez liakitke nehori gaitzik emaiten» (Vide Aug. *De vera et falsa paenit.*, cap. 4, tom. 4).

Guregatik zerutik lurrera jautsi zen; guregatik bizia eman zuen, gorputzeko odol guztia isuri zuen; eta odol hartzaz, bere Aitaren eta gure arteko trabua eta etsaigoa khendurik, bekhatuaren zorra osoki justiziaren arauaz pagaturik, eta gathi-butasunetik ere atherarik, libertatean ibeni ginituen. Eta Jainkoak hunelako gauzarik egin baino lehen, Lege Zaharrea ere, gaixtoak berak kondenatzen ziren, eta ez bertzerik. Beraz, orai eztira gaixto guztiak ere kondenatzen, edo gaixtoak erraxki ontzen dira. Zeren bertzela, zer diferentsia lizateke leheneko denboratik hunetara? Edo zer probetxu genduke guk, Jainkoaren mundu hunetan ibiliaz eta penatuaz? Eta Jainkoak berak erran bazuen ere: *Multi sunt vocati, pauci vero electi* (*Math.* 20), anhitz direla deituak, baina gutiak hautatuak; hargatik eztugu guk giristinok zer iziturik. Zeren giristinorik baizen ezta salbatzen, eta gutiak dira giristinoak, giristino eztirenen <135> aldean. Eta hala, erraiten denean anhitz direla deituak eta gutiak hautatuak, aditzen da jentilak, mairuak, turkoak, juduak, luterak eta munduko bertze guztiak direla deituak. Baina gutiak, giristinoak berak hautatuak, eta ez bertzerik.

77-10 *liakitke*: lekike (cf. *ziakien* 243-28, etab.).

77-22 «Arrazoi hau Gerotiarren ahoan jartzen du Axularrek. Baina beherago (ikus 93. zatia), zerbait antzeko esaten du berak ere. Gaur egunean kristau batek ezin esan dezake horrelakorik (kristau ez diren guztiak ifernuratzen direla)» (Villasanteren oh.).

Hunela dio San Augustinek, erraiten dutela jende suerte batzuek. Baina partetik gehiengan erraiten dute gaizki eta gaixtoki. Minzatze molde haur, gure etsai gaixtoaren buruan pensatua da, eta handik iltkia. Zeren orai, Jaungoikoak heriotze errehibituz gero, errazago bada ere salbatzea eta bekhatuetarik iltkitzea lehen baino.

5 Ordea, orai ere iltki behar da, ezta erraztasun haren esperantzan bekhatutan egon behar.

89 Nola etsai gaixtoak gure Jainkoari berari, tenploaren gainera tentatzera eramanean, erran baitzioen: *Mitte te deorsum (Mathi.)*, egotz zezala handik behera bere burua; zeren berdin aingiruek jasanen zutela, min hartzetik begiratuko zutela. Hala erraiten deratzen zuri ere orai: «Egotzazu zeure burua gogoan darabilazun bekhatu horretan, obra ezazu, zeure desira konpli ezazu, etzaitzala deusek ere gibela. Zeren berdin, nola Jainkoa baita hain on eta miserikordios, etzaitzu urrikituko, etzaitzu kalterik ethorriko. Zuregatik bizia eman zuenak, hanbat pena eta trabailu iragan zuenak, ez, ez, hek guztiak <136> alfer gertha ditezin nahiko, etzaitu galtzera utziko. Egotz ezazu, beraz, zeure burua, egizu bekhatu, fida zaitezi, etzarella deusen beldur».

10
15

Haur da deabruaren hitzkuntza, haren eskolan irakurtua, han ereina eta handik banatua. Jainkoaren miserikordiatik, ontasunetik, eta Pasiene sainduaren meritutik eta baliostasunetik, nahi duzu hartu okhasino eta ausartzia bekhatu egiteko eta bekhatutan egoiteko. Hain da itsustasun eta itsutasun handia eta jende galduen kontua haur, ezen gure Salbatzailea arrenkuratu ezpazen ere bere heriotze penatuaz eta desohorezkoaz, arrenkuratu eta sentikortu baitzen bidegabe hunetzaz, erraiten zuela: *Supra dorsum meum fabricaverunt peccatores, prolongaverunt iniquitatem suam (Psal. 128)*. «Ene sorbalden gainean egin zuten egur bekhatoreek, han bere gaixtakeria hedatu, luzatu eta zabaldu zuten». Erran nahi du: Gaixtoek bere gaixtakerien egiteko, eta hetan luzaro egoiteko, hartzen dituzte zimendutzat eta okhasinotzat, nik neure sorbalden gainean errehibitutu nituen azoteak, kolpeak, penak eta oinhazeak. Eta hetan fidaturik, hetan esperantzaturik eta kontu eginik, berdin nik hekatik pagatu nuela, ausartzen dira bekhatu egitera eta bekhatutan egoitera, erraiten dutela: «Miserikordios da Jainkoa, maite gaitu, on <137> derizku, bereak, bere odolaz erosiak gaitu; men-menera gaitezinean eztiagaigu falta: beraz, har dezakegu esku eta lizentzia zenbait bekhatuaren egiteko». Erran behar da miserikordios dela Jainkoa, hunelako ahapaldiak, hunein itsusiak pairatzen dituenean.

20
25
30

§ 1

90 San Basiliok bertze hitzkuntza batez usatzen du gauza hunetzaz mintzo denean, erraiten duela: *Nam et ille misericordiam cum iudicio exhibet, qui in pondere, numero et mensura admetitur cuiusque merita et appendit (Basi. Hom. super Psal. 32)*.

35

78-15 etzarella: ez zaitezela izan.

78-29 on derizku: maite gaitu-ren sinonimoa; berriz, gaitz derizku-k 'gorrotatzen gaitu' esanahia zuen.

78-30 eztiagaigu falta: ez diezaguke falta, ez zaigu faltako. Ik. 66-30. oin-oh.

Eztadila nehor Jainkoaren miseri-kordian sobera fida. Zeren nola Jaungoikoak gure obra guztiak kontuan, pisuan eta neurrian kontatzen, pisatzen eta neurtzen baititu: hala bere miseri-kordiaz ere kontuz, pisuz eta neurriz, justiziaren arauaz usatzen du. *Mel invenisti? comede quod sufficit tibi, ne forte, satiatas, evomas illud*, dio Spiritu Sainduak (*Prov. 25*). «Ediren duzu ez-tia, jan ezazu, bada, neurriz, asko duzun bezainbertze, eta ez gehiago, aseegirik okha eztagizun, ahotik bihur ezte-zazun». 5

Justizia min da, eta garratz, eta miseri-kordia gozo eta ez-ti. Ordea, ez-ti hartarik, ez-ti izanagatik, ez-ta sobera jan behar, ez-ta miseri-kordiaren ez-titasunean fidaturik bekhatu-rik egin behar. Zeren hala egitea, ez-ti sobera <138> jatea da.

Ne dicas «miseratio Dei magna est; multitudinis peccatorum meorum miserebitur»; misericordia, enim, et ira cito ab illo proximant (Eccles. 5). Ez-terrazula miseri-kordios dela Jainkoa, eta zeure bekhatu guztiak barkhatuko derauzkitzula. Zeren miseri-kordia eta justizia hurbil dagotza Jainkoari, eta elkharri, eta justiziak bekhatoretara daduka begia. Miseri-kordiaren ez-titasunari behatzen diozun bezala, behatu behar diozu justiziaren garratzasunari ere. Zeren Jainkoa hain da justiziati nola miseri-kordios. Miseri-kordia eta justizia, berdin dira pisuan, berdin dira balantzan. 10 15

91 Egia da, San Tomasek dioen bezala: *Magis proprium est Deo misereri et parcere quam punire, propter eius bonitatem infinitam; illud, enim, secundum se Deo convenit; hoc, autem, secundum nostra peccata* (S. Tho. 22, q. 21, ar. 2). Plazentago eta laketago zaika Jainkoari miseri-kordia, justizia baino, eta bai barkhatzea ere, gaztigitzea baino. Eta halatan, usatzen du anhitzetan ere bere miseri-kordiaz, guk merezi gaberik, bere ontasunagatik beragatik; baina ez justiziaz, ez-tu behin ere usatzen, guk lehenik geure bekhatuez hartara behartu gabe. Ordea, izaiteaz denaz bezanbatean, bada Jainkoa baithan hanbat justizia, nola miseri-kordia. Nola ageriko baita bertze munduan, hemengo denbora miseri-kordiazko haur iragan dadinean. Hargatik <139> erraiten du profeta Dabitek: *Misericordiam et iustitiam cantabo tibi, Domine (Psalmo. 100)*. «Jauna, miseri-kordia eta justizia kantatuko derauzkitzut», biak berdin, hain ongi bata nola bertzea. 20 25

Miseri-kordiaz soilki eta baxharrik, justiziaz konturik egin gabe mintzo denak, ez-taki zer mintzo den, ez-tu halakoak justiziaren handitasuna ikhusten. Eta ikhusazu nola ez-tuen ikhusten. Zuk diozu miseri-kordios dela Jainkoa, eta ongi diozu. Baina zuk, Jainkoa miseri-kordios dela diozunorrek, aditu behar ditutzu aphur bat justiziaren tornuak eta kolpeak ere, hek aditurik fidantzia erhoak utz ditzatzun amoreakgatik. 30

§ 2

92 Justiziaren lehenbiziko kolpea eta desarra izan zen goitian, zeruko aingiruetan, Luziferren eta haren lagunen gainean. Zeruko aingirurik ederrena, abantailatuena eta Jainkoaren adiskiderik handiena, egotzi zuen justiziak, urguilutasuneko bekhatu batengatik, sekula fingabekotzat ifernuko penectara. Eta aingiru guztien 35

79-6 aseegirik: gehiegi aseturik. Ik. 79-6 testu-oharra.

lehen, aitzindaria eta agintaria, egin zen deabru, eta deabru guztien buruzagi, kidoin eta kapitain. Zen ederrera, egin zen itsusienik; bere gogarena gaizkienik. Onhetsiena <140> gaitzetsienik, eta gorena beherenik. Halako suertez non Esaias profetak, hain jautsapen handiaz miretsirik, galdegiten baitio Luzifer berari:

5 *Quomodo cecidisti, Lucifer, qui mane oriebaris? (Isai. 14).* «Nola erori zinen, Luzifer? Nola erori zinen artizarra, goizean goiz, oilaritean sortzen eta ilkitzen ohi zinena? Hain gora zeneundezina?». Handia eta izigarria izan zen, zeruan justiziak egin zuen kolpe hura.

Baina egin zuen lurrean ere bertze bat, ez bere arauaz atseginagoa, baldin erre-mediorik ordenatu ezpaltzaika, zein baita Adanen bekhatuari eman zeikan gaztigua. Zeruan Luziferrek berak bedere egin zuen bekhatu; eta ezta miresteko nor bere bekhatuagatik penatzea. Baina lurrean bertzeren bekhatuagatik, Adanenagatik, haren ondoko guztiak, are sorthu baino lehen, bere amaren sabelean pitzten diren pontuan, diren bekhatore eta hobenduri, eta hanbat urtheren buruan eztakion ahantz Jainkoari

15 bekhatu hura, nork eztu miretsiko? Zer ahal dateke justizia bortitzagorik?

Miserikordios da Jainkoa, eta bere miserikordia guztiarekin, beha dagoka ifernuan dagoen bati; ikhusten du, eta ikhusiko du, nola mila urthez, eta hamar milaz penatzen den. Eta guztiarekin ere, hala ikhusiagatik ere, han bere lekhuan utzten du. Etzaika batere bihotzik hautsten: etzaika batere hala <141> dagoen onbearra urrikaltzen. Aitzitik, atsegin hartzen du, zeren hala penatzen den, eta nahi du pena dadin, eta are handik ilkitzeko esperantzarik gabe pena dadin. Gogortasunaren handia! Justiziaren bortitza! Zuk diozu miserikordios dela Jainkoa. Baina hunetan badirudi justiziatiago dela, eta justiziak garaitzen duela miserikordia. Eta arrazoinekin dirudi hala.

20

25 Zeren ezpaita bertze munduan izanen gaixtoentzat miserikordiarik.

Miserikordios da Jainkoa, baina erran behar da justiziati ere badela. Zeren munduari barkhatzera, ezin deusek ere balakatu zuen, eta ez amoratu, bere semearen heriotzeak baizen.

93 Miserikordios da Jainkoa, eta guztiarekin ere, Noeren denboran zortzi presunaz bertze guztiak uholde batez hondatu eta akhabatu zituen. Halaber, Sodoma eta Gomorra, inguruneko bertze hiri batzuekin, su bat zerutik igorrikerre zituen. Halaber, Datan eta Abiron, lurak bere lagunekin iretsi zituen. Eta orduan hek guztiak ifernura ziren. Eta orai ere ifernuratzen dira giristino eztirenak. Eta beldur naiz giristinoetarik ere gehienek bide hura hartzen duten, eta erraiten denean anhitz direla deituak, eta gutiak hautatuak, giristinoez ere orobat aditzen den. Zeren, non da giristinorik, giristino <142> bezala bizitzen denik? Behar den bidean Jainkoa laudatzen eta zerbitzatzen duenik? Haren manamendu sainduak begiratzen dituenik? Edo bere nahikunde gaixto baten konplizetik Jainkoagatik gibelatzen denik? Othe da munduan batere halakorik?

30

35

80-2 *kidoin*: «Itxuren arabera, banderaduna, gidaria ('alférez'). Ikus Mitxelena (1974: 200)» (Villasanteren oh.).

Bai, bada zenbait, zeren Eliza ezin dateke gabe. Ordea, guti. Eta halatan, Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak harri preziatuekin, aditzera emaitzagarri harri preziatu bezala giristino on ere guti dela; batak bezain bertzeak direla gaitz edireiten. Eta nola bertze harrietarik baita preziatuetarik baino frankoago, hala dela, halaber, kondenatuetarik ere salbatuetarik baino gehiago. Salomonek dioen bezala, *Stultorum infinitus est numerus*, erhoen kontua infinitu da, infinituki anhitz kondenatzen da. 5

Bada, baldin anhitz kondenatzen bada, are giristinoetarik ere, zergatik zu ere, giristino izanagatik ere, etzara beldur izanen kondenatuetarik bat gertha zaitezin? Orainokoa, anhitz egotzi du Jainkoak ifernura; zergatik, bada, etzaitu zu ere egotziko, baldin egotzi dituen hek bezala bizitzen bazara? Uste duzu zuretzat lege berri bat jarriko dela? Uste duzu Jainkoa han goitian zu gabe ezin iragan ditekeiela? Edo zu ez haratzeaz bere loriatik galduko duela? Zer burupe, zer pribilegio edo abantail duzu zuk orai, ifernuan daudenek bere denboran zuten baino <143> gehiago, baldin hek bezala bizitzen bazara, ez hek bezala haratzeko, edo handik eskapatzeko? Eta baldin Jainkoaren miseriak fidatzen bazara, eztuzu uste orai ifernuan diren hek ere bere denboran fidatzen zirela? Jakizu ezen miseriak justuei loria bezala, justiziak ere gaixtoei ifernua emaiten derauela. 10 15

§ 3

94 Zeren Jainkoa den bihotzbera eta miseriak, ezta, ez, hunetarik hartu behar okhasinorik, eta ez eskudantziarik, bekhatu gehiago egiteko. Zeren haur lizateke kontrapozoinaren pozoin egitea, Jainkoaren miseriak eta ontasunaz kontrara usatzea, eta bai miseriak ezten lekhan ere oinen permatzeko perilean jar-tzea. Badira bisera batzuk, begi-orde thailu batzuk, zeinek gauzak diren baino handiago iduri arazitzen baitituzte. Eta gertha ditekeien kasua da, halako biserekin zubi batetarik iragaiten zarela, zubi den baino handiago iduriturik, eta zubirik ezten lekhan oinak emanik, eror baitzindezke zubi azpiko hosinera, eta han itho eta hon-da. Bada, zeruko loriara iragaiteko zubi, miseriak da; eta baldin miseriak-aren zubi hunetarik iragan nahi baduzu zuk ausartkiegi, fidatukiegi, esperantza erho baten biserak jauntzirik, eta iduriturik <144> ezen, zeren zaren giristino eta Jainkoa ere den miseriak, hargatik beragatik ere salbatuko zarela, engana ahal zindezke eta miseriak-aren zubirik ezten lekhan esperantzaren oinak ibenirik, justiziaren hosinean eror ahal zindezke. Zeren Jainkoaren miseriak infinituki handi izana-gatik, ezta, ez, aditzen, eta ez handik segitzen, handitasun hark zuri bekhatu egiteko okhasinorik eman behar deratzula. *Non sic est Deus misericors, ut sit iniustus*, dio San Augustinek (August. in *Psalms*. 39). «Ezta Jainkoa halako moldez miseriak, non justiziari bidegaberik egin diazon». 20 25 30 35

81-13 *zu ez haratzeaz*: «Sustantibo berbala [aditz izena] bakarrik erabiltzen du Axularrek (*haratzen, haratzeaz*), behin ere ez partizipioa (*haratu*). *Haratzen da*: ‘está en camino para allá’ (*infectum*). Bestela, *hara da* ‘ha ido allá’, esango du Axularrek. Ikus Mitxelena (1974: 115)» (Villasanteren oh.).

5 **95** Badio, halaber, San Agustinek: *Puniamus nostra peccata, si quaerimus misericordiam Dei. Non potest Deus misereri omnium operantium iniquitatem, quasi blandiens peccatis et non erradicans peccata* (August. in *Psalm.* 58). «Gaztiga ditzagun geure bekhatuak, dagigun hetzaz penitenzia, baldin nahi badugu erdietsi Jainkoaren miseriordia. Zeren Jainkoak ezin barkha diazaio bekhatoreari, bekhatutan dagoeno, hetan atsegin hartzen dueino, hetarik apartatzera delibera arteino». Ezta Jainkoaren miseriordia hain aitzina heltzen, eta ez hedatzen. Eta ez hedatze haur, gauzaren ezinkizunetik heldu da, eta ez miseriordiaren eskastasunetik. Ezta erraiten miseriordios dela Jainkoa, zeren bekhatutan dabilanari, hala dabilaino eta ibiltzeko gogo dueino, lausengatzen eta <145> barkhatzen dioen. Baina erraiten da miseriordios dela, zeren bere bekhatuak behar den bidean utzirik, behar den bidean ethortzen zaikanari, eta bere ahala egiten duenari, ezpaitio faltatzen, eta ez barkhamendurik ukhatzen. Eta asko da haur eta hunela egitea miseriordios izaiteko.

15 Enzuten duzunean bihotzbera eta miseriordios dela Jainkoa, atsegin hartzen duzu, eta enzunagatik gaitz, gogor eta justiziati ere badela, eztuzu konturik egiten. Bada, Eskritura Sainduan Jainkoak prometatzen dituen fabore handi, ezti, gozo, miseriordiazko hek justuentzat, ongi, artez eta prestuki bizitzen direnentzat dira; eta mehatxuak, kheinadurak, justiziaren garratztasunak eta gaztiguak gaixtoentzat, zure eta zu bezalakoentzat. Zer erhokeria da, bada, haur, zuretzat diren mehatxuez eta gaztiguez eztagizun konturik, eta zuretzat ezturen miseriordiazko solhasez har dezazun atsegin? Miseriordia justuei, zu ez bezalakoei dagote. Eztuzu zuk, bekhatutan zaudeino, hartan parterik, eta ez ikhuskizunik: eztuzu orduan Jainkoa miseriordios dela enzunagatik, zer bozturik. Zeren orduan, justizia bai, baina miseriordia ezta zurekin mintzo, ezta orduan zure. Aparta zaite bekhatutik, eta izanen da zure; aparta zaite bekhatutik, eta izanen duzu parte. Baina <146> anarteraino, bitartean, justizia edukazu zeuretzat, eta utzazu miseriordia bere bekhatuetarik apartatzen direnentzat. Zeren bertzela debekuan nahi ditutzu eskuak sarthu, bertzeren zuzena nahi duzu zeuretu eta goratu.

30 § 4

96 Erranen duzu, bethi dela on esperantza, bethi behar dela eduki fidantzia. Eta ongi diozu, egia da, hala da. Ordea, noiz eta nola bethi? Bekhatu eginez gero, baina ez egiterakoan.

35 Ezta Jainkoaren miseriordian fidaturik bekhaturik egin behar. Susana emazte saindu hark nahiago zuen jende gaixto batzuen eskuetan erori, Jainkoaren miseriordiaren menean baino. *Melius est mihi incidere in manus hominum absque peccato, quam peccare in conspectu Domini* (*Daniel* 13). Baina errege Dabitek nahiago zuen, jendeekin baino, Jainkoarekin iharduki, nahiago zituen bere on-gaitzak harekin iragan. *Melius est ut incidam in manus Domini, quam in manus hominum* (*2 Reg.* 24).

82-22 dagote: dagokie.

Eta biek, hala Dabitek nola Susanak, zeramaten kontu ona. Zeren Susana zen bekhatu egin gabea, eta Dabit bekhatu egina. Eta bekhatu eginez gero, Jainkoarekin behar da iharduki, hara laster, han fida, haren <147> miserikordiatik behar da erremedio. Nola Zesarek kondenatua apelatu baitzen Zesar beragana, Zesar haserretuaganik Zesar ez haserretuagana: hala bekhatoareak ere behar du apelatu Jainkoaganik Jainkoagana: Jainko justiziazkoaganik Jainko miserikordiazkoagana. Bekhatu eginez gero, ezta bertze biderik, ezta bertze erremediorik. Ordea, nehor bekhatu egin gabea denean, nola baitzen Susana, hobe da egitekoen alde hunetarik egitea, hobe da gizonekin ihardukitzea, eta hetarik ethor ahal dakidikaion kalteari igurikitzea, ezen ez Jainkoa baithan eta haren miserikordian fidaturik bekhatu egitea.

Baina guk kontrara egiten dugu. Zer izanen baita ere ethorkizunaz, gero Jainkoaren miserikordia ihes eginen badugu ere, orai eskuen gainean, presentean eztugu, bekhatu ez egiteagatik, plazerik utzi nahi, eta ez penarik hartu; nahiago gatzaitza ethorkizuneko peril handiari eta gaitz bortitzari jarri, presenteko trabailu aphurrari baino. Eta zerk egiten du haur? Fidatzeak, kontu egiteak berdin gero Jainko miserikordiosak guztiak barkhatuko derauzkigula, eta erremediatuko. Kontuaren gaixtoa, fidantziaren erhoa!

97 Fidatzen zara bekhatu eginez gerozko kalteak erremediatuko dituela Jainkoak, eta <148> etzara fidatzen, eta ez orhoitzen, erremedia ahal ditzakeiela, halaber, bekhatu ez egiteagatik ethor ahal dakidizketzun atsekabeak eta egitekoak. Behar eztenean fidatzen zara, eta ez behar denean. Behar eztenean iduritzen zaitzu Jainkoaren miserikordia handi, eta ez behar denean. Hamar ezkuturen behar zarenan edo bertze premia bat eta eskastasun bat duzunean, etzara fidatzen, eztuzu esperantzarik, prestuki bizitzen zarela eta bekhatu egin gabe egoiten zarela, zeure premia eta eskastasuna estal ahal diazaizula Jainkoak. Eta hala, zeure esperantzagabearekin egiten duzu bekhatu, ebatsten duzu, egiten duzu ohoinkeria bat. Eta egiten duzu ohoinkeria hura esperantzaz, gero berdin Jainko miserikordiosak barkhatuko deratzula hartako bekhatua. Itsutasunaren handia! Orai Jainkoarekin adiskide zarenan, bekhatu gabe zaudenean, eztuzu esperantzarik Jainkoak zuregatik deus daidikeiela, zure premia estal dezakeiela; eta gero, etsai zarenan eta bekhatu bethea zaudenean, duzu fidantzia, guztiak barkhatu, bere garazia eta loria, hain gauza handiak, baliosak eta erdiesteko gaitzak, emanen derauzkitzula. Gauza errazean etzara fidatzen, du bai gaitzean. Bekhatu egiten duenarentzat dardukazu Jainkoa handi, zabal, franko, liberal; <149> eta bekhatu egin gabe, prestuki bizitzen denarentzat, estimatzen duzu dela hertsia, mehar, eskas eta abarizios. Guztieta zabilta eta gabiltza nahasiak, errebelatuak eta huts eginak.

§ 5

- 83-4 *apelatu*: «Aditz laguntzaile irangangaitzaz jokatu» (Villasanteren oh.).
 83-20 *dakidizketzun*: dakizkizun (-kidi- duten *edin-en forma zaharretako bat).
 83-30 *daidikeiela*: egin dezakeela (-gidi- errokoa).

5 **98** Ez huts egiteko, behar bezala esperantza eta fidantzia izaiteko, zer egin behar da? Ihardesten du errege Dabitek: *Sacrificate sacrificium iustitiae et sperate in Domino* (Psal. 4). Erran nahi du: «Egizue ongi, ahalez obra onetan enplega zaitzete, eta gero orduan euzue Jauna baithan esperantza». Zeren bertzelako esperantzak deus guti balio du.

10 Egun batez ethorri zeitzan Frai Gil sainduari kardenal batzuk bisitatzera. Eta bere bisita akhabaturik, partitzerakoan erran zioten, arren, zegiola Jainkoari hetzaz othoitz. Ihardetsi zerauen Frai Gilek: —Aitzitik, jaunak, zuek egiozue nitzaz. Zeren nik baino zuek sinheste eta esperantza gehiago duzue. —Ordean, nolatan ahal dateke hori horrela? —diotsate kardenalek—. Zeren gu gabiltza munduan barrena sarthuak, aberatstasunez betheak, atseginez eta plazerez gainez eginak, eta zu penitentiarian, obra onetan, munduko egitekoetarik kanpoan eta, guztiarekin ere, diozu <150> sinheste eta esperantza gehiago dugula zuk baino?

15 —Bai —ihardesten deraue—. Zeren zuek bizitzen zareten bezala bizitzen zaretelarik ere, alegeraki, deusen beldur gabe, salbatzeko esperantza eta esportzu handi batekin zabilzate. Baina ni beldur naizela, ikhara dirakidala, zeren bekhatore bainaiz. Beraz, hunelatan, zuek nik baino esperantza eta sinheste gehiago duzue.

20 **99** Ikhusiko duzu, jende thailu batzuek, maliziarik eta enganamendurik baizen eztirenek, den sainduenak baino buruak gogorrago dituztela, eta salbatzeko esperantza gehiago dutela; halako moldez, ezen ethortzen zarenan halakoekin minzatzera, erranen baiteratzute eztezaketela bere esperantza zurearekin truka; eztatukatela nehor ere bere buruak baino sainduago, eta ez prestuago; nornahi den bezain ongi Jainkoari gomendatzen zaitzala. Eta bitartean, beharrietaraino bekhatutan barrena sarthuak egon. Itsutasunaren handia, deabruaren enganamendua! Uste baitute eta uste baituzu, bekhatutan zaudela parabisua emanen zaitzula, miserikordia eginen zaitzula. Hori da Jainkoaz eta Jainkoaren miserikordiaz eskarniatzea; hori da esperantza esperantzagabea, fidantzia erhoa, gainez egina, soberaniazkoa. Eta ezta, ez, hori fidantzia ere. Baina hori da ausartzia, presunziona, nahi <151> erhoa, eta miserikordia heltzen den baino aitzinago zure desiraren hedatzea. Are gehiago, hori da Spiritu Sainduaren kontra diren bekhatuetarik bat. Eta hala, miserikordiaren esperantzan bekhatu egiten duenak, ezta miserikordiarik merezi. Zeren halakoa miserikordiaren beraren kontra baitabila. Hala emaiten du aditzera San Basiliok, penitenziaz mintzo dela: *Qui spe poenitentiae male agit, modum habet maleficientiae, et poenitentia privatus est* (Basil. tom. 25 *De poenitentia*). Penitentiaren

84-4 *euzue*: izan ezazue (**edun*-en agintera zaharra: **e(d)uzue*).

84-7 *zegiola*: egin ziezaiola.

84-9 *Ordean*: «*Ordea*-ren aldaera. *AxH*-n ez zen jaso» (Villasanteren oh.). Izan bada, eta Etxeberri Ziburukoak badu adibide bat bederen Axularrek baino lehenago (cf. *OEH*, s.v.). Alabaina, adibide bakarra da testuan, 260 agerralditik gora dituen *ordea*-ren aldean: ondoko hitzaren eraginez egindako hutsa ez ote, bada?

84-24 *zaitzala*: zaizkiola.

esperantzan bekhatu egiten duenak, eztu bide ona hartzen, eztu penitenziarik balia dakion merezi. Eta molde berean erran ahal diteke miserikordiaren esperantzan bekhatu egiten duenaz ere: eztu hark ere miserikordiarik merezi.

100 Nahi badugu urrikal gakitzan geure Jainkoari, enzun gaitzan, lagun dakigun eta eduki dezan gutzaz miserikordia, enseia gaitezin gu ere geure aldetik geure eginbidearen egitera, bekhatuetarik apartatzera eta manamendu sainduen begiratzera. Zeren halatan bai, baina bertzela, bertzelako esperantza guztiak eztira esperantza, alfer dira, erhokeriak dira. 5

Beraz, hunelatan, eztugu miserikordiaren esperantzan bekhatu egin behar, eta ez fidantzia hartan penitentzia egitea eta aztura gaixtoen utzte geroko luzatu behar. Aitzitik, zeren Jainkoa den hain on, bihotzbera <152> eta miserikordios. 10 Zeren hain maite gaituen; zeren bekhatu egin eta berehala ezkaituen gaztigatzen, zeren igurikitzen derakun; eta, finean, zeren hanbat ongi eta ontasun egiten derakun: hargatik beragatik ere, hartarik okhasino harturik, behar genduke, are bertzela eginen genduen baino hobekiago haren borondatearen egitera enseiatu; eta zer ere bekhatu eta gaixtakeria orainokoan erabili baitugu, hek guztiak utzirik, prestutasun batean jartzera deliberatu; eta halako molde, thailuz eta suertez aitzinerat gobernatu, non azken finean, Jainkoaren miserikordiarekin batean, erdiets dezagun guretzat ordenaturik eta prestaturik dagoen bozkarioa, zein baita zeruko loria. 15



Nola gerotik gerora ibiltzeaz galtzen dugun denbora

KAP. XII

101 Gerotik gerora zabilta; urthe hunetan gaixto izanik, dathorkeienean onduko eta prestutuko zarela diozu. Bada, biz hala, zuk diozun bezala, eta gogoan darabilazun bezala gertha dakizun, eta urthe <153> hunetan gaixto izanik, zure *gero* horretan, ethorkizunean prestu zaitezin. Hori horrela baliz ere, non da, bataz, urthe hunetan egin ahal zendukeien irabazia eta aitzinamendua? Zeren giristino onek urthe batez anhitz obra on egiten dute, eta bai meritu ere erdiesten. Giristino onak urthe batez aitzinatzen dira, baina zu nola aitzinatuko zaren, ezen gibelatzen zara, anhitz bekhatu eta gaix-takeria egiten duzula. Eta berriz, bertzea, non da halaber bitartean, urthe hunetan zure *gero* horretara hel arterainokoan galtzen duzun denbora? *Fili, conserva tempus* (*Ecclesi.* 4). «Ene seme, begira ezazu denbora», dio Espiritu Sainduak. Aitzinean du-zuino, zakitza. Zeren behin joanez gero, ezta bihurtzerik, eta ez erdiesterik.

Fronte, capillata est; at post, occasio, calva (Auson.). Okhasinoa kopetan, belar-rean, aitzinaldean iletsu da eta xerlotsu, baina garhaitean, garzetan, gibelaldean motz, soil, garbal, karsoil eta ile gabe. Aitzinean badu nondik lot, baina ez gibelean. Beraz, aitzinean duzuino, probetxa zakitza. Zeren gibeleraz gero, eztu esku-tokirik, eta ez lotzeko girthainik. Bada, okhasinoa bezala da denbora ere. Beraz, hunelatan: *Quodcumque potest facere manus tua, instanter operare. Quia nec opus, nec ratio, nec sapientia erit apud inferos, quo tu properas* (*Eccles.* 9). Orai, denbora aitzinean duzuino, <154> egizu ahal dagizuna; eta orai ere, *instanter*, fite, presentean. Zeren jakin behar duzu ezen eztela gero, zuk joan behar duzun lekhu hartan, arrazoin alega-tzerik, eta ez jakintasunaz probetxatzerik izanen. Utzten baduzu, nola eztakizula, orai eskuen artean duzun denbora iragaitera, egin da, galdu da, ezta gehiago bihurtzerik. Hargatik erraiten du Jondone Paulok: *Dum tempus habemus, operemur bonum* (*Ad Galat.* 6). Denbora duguino, dagigun ongi.

87-4 *biz*: «izan bedi» (Villasanteren oh.).

87-11 *arterainokoan*: «xedera heldu bitarteko denboran» (Villasanteren oh.).

87-13 *zakitza*: «lotu zakizkio» (Lekuonaren oh.).

87-21 *ahal dagizuna*: egin ahal duzuna (*egin* ahaleran, *-ke-* gabe). Cf. *ahal dagiguna* (132-3), *ahal dagiten guztia* (173-15), etab.

102 Erran beza Aristotelek nahi duena denboraz (*Tempus est numerus motus secundum prius et posterius*. Aristo. 4 *Phisico*). Baina gure kontuko, *denbora* da lehen, orai eta gero, gauzeen ibiltzea, iragaitea eta, iragaitearekin batean, higitzea eta akhabatzea. Denbora bethi doha. *Neque quod futurum, est meum, neque quod fuit*,
 5 dio Senekak (Senec. *lib. 6 Naturalis quaestio*). Iragana eta ethorkizuna eztira gure. Joana joan, ethorkizuna ethorkizun, presentekoa da gure, eta ez bertzerik.

Eta presenteko haur, hain da guti ezen erraiten baitu San Tomasek: *De tempore nihil est accipere in actu, nisi nunc* (S. Thom. 1 p., q. 6, ar. 4 ad 4 et 5). Denboratik eztugu deus ere, *orai* bat baizen, iraute aphurra, pontutsu bat, eta ez gehiago. Egia da, ordea, nola pontutsu hunek, *orai* hunek juntatzen eta josten bezala baititu elkharrekin iragana eta ethorkizuna, joste hunek orhoitzen gaitu iraganaz, eta ethorkizunaz ere esperantza emaiten. Eta halatan, orhoitze <155> hunekin eta esperantza hunekin batean, iragana eta ethorkizuna presentekoarekin lothurik eta bat eginik, etzaiku presentekoa hain labor iduritzen. Zeren guztiak elkharrekin bezala eta bat
 10 15 bailira bezala hartzen baititugu. Hala erraiten du Senekak: *Longam illi facit vitam, omnium temporum in unum collatio* (Senec. *De brevitae vitae*, cap. 13).

Ordea, den bezala eta behar den bezala denboraren hartzera, edirenen dugu deus guti dela, mehar dela eta labor. Presentekoa goza dezakegu, ethorkizunekoa desira eta iragana lauda, edo auhen eta deithora. Iraganak eztu erremediorik, hura
 20 joan da; ethorkizunekoa eztakigu emanen zaikunz; presentekoa hain da guti, labor eta ezdeus, ezen orai ere, bigarren hitza hasi dudaneko, iragan baitateke lehenbizikoa, eta lehenbizikoaren denbora.

103 Izatu da erran duenik denbora eztela deus, hartzaz orhoitzapenik edo pensatzerik eztenean. Eta halatan, lo datzanari etzaikala orduko denbora deus iduritzen, ezuela sentitzen, ezpailiz bezala iragaiten zaikala. Zeren orduan ezpaitu hartan
 25 pensatzen, eta ez gogorik edukitzen.

Urarekin nahi nuke konparatu denbora. Zeren denborak eta urak elkharren idurika handi baitute. Ura bethi doha, bata bertzeari darraika. Iragana aitzina da, ethorkizunekoa <156> gibela dago, eta aitzinekoak aitzinean guti irauten du. Eztu nehork
 30 iragan den uretik hartzen, eta ez ethortzeko dagoenetik ere: aitzinekotik, iragaitean, presentean denean behar da atrapatu. Hala da, bada, eta hala egin behar da denboraz ere, presentekoari lot zakitza, hari probetxa zakitza. Zeren, bertzela, haize ona denean bela egin gabe gelditzen den untzia bezala, geldi ahal zindezke zu ere.

§ 1

35 104 Denboratik gauza aphurra, *orai* haur dugu, eta ez bertzerik. Ordea, nork erranen du zenbat balio duen *orai* hunek? Iraute, iraupe eta bitarte ttipi, aphur, labor hunek? Hanbat balio du, non baldin orai ifernuan dagoen bati, eman balekio hauta-

88-28 *aitzina da*: aurrera (joan) da (*aitzina*, Mendebaldeko *aurra* bezalaxe, *nora* kasuaren forma zaharra da).

tzera, ea zein lukeien nahiago bere eskuko, ala mundu haur guztior, bere on guztiekin, ala oren baten denbora eta bitartea? Segur da, ez oren baten denbora, baina are begien goiti ailtxatzeko asko lukeien bitartea ere, lehen hauta lezakeiela, nahiago lukeiela, eta bai hobeago ere, mundu guztia baino.

Zeren denbora aphur hura, den aphurrena ere, ongi enplegatzen luela, asko bailuke anarterainoko falta guztien erremediatzeko, <157> eta zeruko loriaren erdiesteko. 5

Erraiten da gauza bat preziatua dela, hartarik puska ttipiak bertzetarik handiak baino gehiago balio duenean, eta halatan, erraiten da gauza preziatua dela urrea. Beraz, zinez da gauza preziatua eta baliosa denbora, zeren den gutiena, bihotzeko urrikimendu batekin, asko baita salbamenduaren egiteko. Eta, ezperez, galdegiozu bere azken orenean, hain laburzki parabisua irabazi zuen ohoinari, ea zer iduri zaikan denboraz. Ea gauza estimatzekoa eta ezertan edukitzekoa denz. Eta hark, frogatuak bezala, erranen deratzu baietz, ezertan edukitzekoa dela, baliosa dela, eztuela munduan bere parerik. 10 15

105 Hain da gauza handia eta aberatsa, orai eskuen artean dugun denboraren *orai* haur, ezen purgatorioetako penak, mundu hunetako pena guztiak elkharri iratxekirik baino handiagoak direlarik, guztiarekin ere, erraiten baitu doktor batek: *Plus valet hic in patientia dies unus, quam in purgatorio annus* (Lodolphus ex Saxonia, 1 p., cap. 20). Gehiago balio du eta gehiago egiten du, orai hemen egun batez obra onetan enplegatzeak, gero purgatorioetan urthe batez penatzen egoiteak baino. Oraiko egunak balioko du orduko urthea. Hala emaiten du aditzera Ezekiel profetak: *Diem pro anno dedi tibi (Ezequi. 4)*. «Eman neratzun eguna urthetzat». Erran <158> nahi du: Eman deratzut, eta emaiten deratzut anhitz egun, hain aberatsik, baliosik eta prezio handitakorik, non hetarik batek balio baitu, eta balioko baitu, urthe bat. Zeren gero urthe batez egin ditekeiena, eta eginen dena, egin baititeke orai egun batez. Eta arrazoina. Zeren gero izanen eztena, orai baita merezitzeko eta ontasunean aitzinatzenko ahala, indarra eta libertatea. Eta, halaber, zeren bi pena suerte baitira, bata da *paena inflictia* (Vide Dioni. chartusia. *De iudicio animae*, cap. 15), bertzek emaiten derakuna, bertzetarik heldu zaikuna, nola baita purgatorioetako pena, eritasun batetakoa. 20 25 30

Bertzea da *paena assumpta*, gerok geure borondatez hartzen duguna, nola baita egiten dugun penitentzia, barurtzea, orazinotan egoitea, erromerian ibiltzea. Eta pena hark, gerok geure borondatez hartzen dugunak, eramaiten dio aitzinaldea bertze penari, bertzek emaiten derakunari, pazientki errezibitua izanagatik ere. Zeren purgatorioetan dagoenak nahi luke handik libratu, eta bai eriak ere sendatu. 35

106 Baina orai gerok geure borondatez egiten dugun penitentzia eta hartzen dugun pena, alde guztiz da borondatezkoa, baliosa eta Jainkoari eder zaikana. Eta halatan, hunek eramaiten deraue purgatorioetako penari, eta eritasunekoari ere, urreak bertze diru guztiei eramaiten derauen abantaila.

89-1 *haur guztior*: 1. graduko artikulua zaharraz (-aur > -or).

<159> Zeren Jainkoak behatzen badu ere iragaiten dugun penara, ordea, areago behatzen du hartako borondatera. Beraz, orai pena, orai barua, zilizioa har. Zeren oraiko pena ttipiak, gerok libreki geure borondatez hartzen dugunak, gehiago balioko du, purgatorioetako edo eritasuneko pena handiak baino. Eta hala, badirudi ezen purgatorioetan daudenek, eztutela deusez ere hanbat damu eta atsekabe izanen, nola denboraren galduaz, gaizki enplegatuz eta bere buruen bere borondatez, aphur bat bedere, ez penatuaz. Arrazoinekin erraiten du San Krisostomok: *Neque intelligis omnia potius esse amittenda quam tempus. Aurum amittis? potest recuperari. Amissum tempus, difficulter* (Chris. Hom. 57 in cap. 9 Ioan., tom. 3). Eztuzu aditzen, bertze gauza guztiak lehen utzi behar direla galtzera, denbora baino. Zeren urrea eta zilharra kobera ditezke galduagatik, baina ez denbora.

§ 2

107 *Nihil praetiosius tempore; et, heu! nihil eo vilius invenitur*, dio San Bernardok (Bernard. *Ad scolast.*). Ezta munduan gauza preziatuagorik denbora baino; ordea, ai, ezta egungo egunean gauza eztheusagorik edireiten. Eztugu deusez ere hain kontu guti egiten, nola denboraz.

Quem mihi dabis, qui aliquod praetium tempori <160> *ponat, qui diem estimet?* «Nor emanen derautazu —galdegiten du Senekak—, denborari prezio dioenik? Eguna merezi bezala estimatzen duenik?». Fitsaren berdin, ezdeusen pare dadukagu denbora. Badirudi tratatzen gaituela anhitzetan ere, ezpagendu nahi gendukeiela, ez jakinez zertan iragan gabiltzala. Oren batean garenean, bigarreanean bagina desiratzen dugula. Erran behar da aberats garela, munduan den gauzarik aberatsena eta baliosena, hain frankoki derabilagunean. Bada, ala zuk eta nik ere, denboraren galtze hunetzaz, probetxatu gabe iragaitera utzteaz kontu hertsia eman beharko baitiugu Jainkoari!

Hirur moldez erran ahal diteke galtzen dela denbora. Lehenbizikoa, bekhatu egiteaz eta bekhatutan egoiteaz. Bekhatu egiten hari zarela eta eginez gero hetan zaudela iragaiten zaitzun denbora, emazu galdutzat. Denbora hark eztu deus balio zuretzat. Aitzitik, hartan zeure arima eta arimako on guztiak, eta komunzki gorpuztekoak ere, galtzeintuzu, ura behera bezala egotzteintuzu. Denbora hura da denborarik galduena eta galgarriena.

108 Bigarrena, galtzen da denbora, gogoeta erho, bano, deus balio eztuten batzuetan egoiteaz. Zerori bakharrrik alfer, aise, egitekorik gabe, ongi jana eta hobeki edana <161> zaudenean, eta guztiz ere ohean loz aserik ardurarik gabe zauntzanean, egiten duzu zeure baithan barrena mila pensu eta gogoeta, mila dorre eta gaztelu. Egiten zara Aita Saindu, egiten zara errege, aberatsten zara, egiten duzu anhitz balentia. Ethortzen zaitzu joko eder bat, irabazten duzu. Finean, erabiltzeintuzu zeure go-

90-23 *ala: «h gabe. Ala hunek eta bai beherago 254 eta 358. zatiatan ageri diren biek ere interjezioak dirudite»* (Villasanteren oh.).

goan, hala balira nahi zendukeien gauza batzuk. Eta sekulan hala izanen ezpadira ere, eta eztirela izanen badakizu ere, guztiarekin ere, hala pensatzeaz beraz ere, gogoeta erho hetan egoiteaz atsegin hartzen duzu. Eta, bitartean, eztuzu konsideratzen zuk handik atheratzen duzun probetxua denboraren galtzea dela, eta ez bertzerik.

Hirurgarrena, galtzen da denbora gorputzaren plazeretan ibiltzeaz. Erraiten duzu: «Dezagun denbora iragan, gaitzezin joka, gaitzezin dantza eta dosta». Eta etzaitzu gogoratzen bitartean denbora galtzen duzula. Bada, erraiten du San Bernardok: *Omne tempus in quo de Deo non cogitas, hoc te computes perdidisse* (Bernard. in *Medit.*, cap. 6). Jainkoa baithan pensatzen eztuzula iragan zaitzun denbora guztia, egizu kontu galdu duzula. Hala erraiten du San Jeronimok ere: *Omne tempus in quo meliorasse non senseris, aestima perdidisse* (Hieron. *Ad Eustho.*). Hobetu zarenz sentitu gabe eta zerbait ontasun egin gabe iragaiten zaitzun denbora, estima ezazu galdu duzula. Ezta asko <162> gaizkirik ez egitea, ezta asko ez gaixtatzea, baina ondu behar da, eta ongi egin behar da; ez aitzinatzea, gibelatzea da. Zeren bitartean, bertze kalterik ezpada ere, denbora galtzen eta probetxatu gabe iragaiten baita. 5
10
15

109 Kontu egizu ezen orai ditutzula berrogoi urthe. Eta egizu, halaber, kontu eta gogoeta, zenbat ongi eta obra on egin ditutzun berrogoi urthe horietan, eta edirenen duzu, baldin zin-zinez, fintki eta debotki manaiatu eta enplegatu bazina, berrogoi urthe horietan egin ditutzun ongiak, ontasunak eta obra on guztiak, egin zinituzkeiela urthe batez. Beraz, hunelatan galduitzu bertze urthe guztiak, berrogoietarik hogoi eta hemeretziak. Zer kontu emanen duzu, bada, urthe galdu hetzaz? Hitz alfer guztiez eman behar da kontu: zer izanen da, bada, hanbat denbora galduz eta alfer iraganez? Arrazoinekin erraiten du Jeremias profetak: *Vocavit adversum me tempus* (*Thren.* 1). «Deitu zuen ene kontra denbora». Denborak berak, guk galtzen dugunak, akhusatzen gaitu, hura bera jaikitzen da gure kontra. 20
25

Omnia, mi Lucile, aliena sunt; tempus, autem, nostrum est, dio Senekak (Senec. *Epis.* 1). Bertze gauza guztiak bertzerenak dira, baina ez denbora, hura gurea da.

Orai eskuen artean dugun denbora, prestatzen deraku geure Jaungoikoak, utzten deraku <163> geure eskuko. Eta nahi du probetxa gakitzen, obra onetan enplega dezagun, eta hala enplegaturik ere, eskatuko zaiku kontu, baldin meza enzun badugu, ea ongi eta hartan pensatzen dugula enzun dugunz. Baldin barurtu bagara, orazintan egon bagara, probeari erremusina eman badiogu (hauk obra onak baitira), hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu, ea edergailu, munduagatik, ala Jainkoagatik eta intenzione onez, banaloriarik gabe egin ditugunz. Hala erraiten du profeta Dabitek, Jainkoaren partez mintzo dela: *Cum accepero tempus, ego iustitias iudicabo* (*Psal.* 74). Denbora neuregana dezadanean, heriotzeko orenean, hain herstuki eskatuko naiz kontu, non obra onak ere, ea ongi, justuki eta behar bezala eginak direnz examinatuko eta julgatuko baititut. Obra onak ere baldin ongi eta intenzione onez eginak ezpadira, gaixtotzat emanik kondenatukoitu Jainkoak. 30
35

91-33 *hautzaz guztioz: hau eta -o-ren arteko kidesuna (1. graduko artikulua zaharra).*

§ 3

110 Baldin presenteko denbora haur, orai eskuen artean duguna, enplegatzen ezpa-
 dugu ongi, peril da edeki dakigun ethorkizunekoa. Eta, alabaina, haur da gure erhoke-
 5 ria edo itsutasuna, uste baitugu geure lehenekoa gaizki enplegatu guztiarekin ere, ai-
 tzinerat ere orobat emanen zaikula <164> denbora. Baldin merkatari batek eman
 baliazo bere semeari diru suma bat bere eskuko, manai lezan, enplega lezan, tratuan
 eta merkatalgoan erabil lezan. Eta halatan, tratua ikhasirik, berak bere buruz zerbait
 irabaz lezan. Ordea, baldin seme hark bere aitaren eman hek guztiak jokoan, jan-
 edanean eta arloterian gasta balitza, arrazoinekin lizateke seme hura beldur, ez liazon
 10 bere aitak aitzinerat gehiago eman eta ez fida, eta are lehen emanak ere edeki liatzon.
 Hala bada, arrazoinekin izanen gara gu ere beldur, edeki diazagun geure Jaungoikoak
 ethorkizuneko denbora, iragana hain gaizki enplegatu dugunaz geroztik. Hala, Noeren
 denboran ehun eta hogoi urthe bizitzeko prometatuz gero, edeki zerauzten azkeneko
 hogoiak, zeren leheneko ehunak gaizki enplegatu baitzituzten. Haur emaiten du adi-
 15 tzeraz errege Dabitek ere, erraiten duenean: *Viri sanguinum et dolosi non dimidiabunt
 dies suos* (*Psal.* 54). Gizon gaixto, odol-isurle, gerlati, maliziati eta enganatiek eztituzte
 bere egunak erdizkatuko, eztira halakoak bertzela biziko zirenaren erdia biziko.

111 Batzuek bere gazte denboran, odola bero dutenean, bizitzen dira Jainkorik,
 heriotzerik edo kontu errendatzerik ezpailiz bezala, libertate handian, mila bekhatu,
 20 malizia eta enganamendu egiten dutela; gorputzari <165> ahal bezanbat plazer
 emaiten diotela. Baina gero, zahartzean, odola hotzten hasten zaienean, hasten dira
 halaber ethorkizunaz orhoitzen, hil behar dutela, eta hil ondoan kontu errendatu
 behar dutela ohartzen eta pensatzen. Eta handik harat, hala bere buruei ohartuz gero,
 itzultzen dute plama eta orria bertze aldera; eta lehen gaixto bezain egiten dira gero
 25 on eta prestu. Halakoek, *dimidiant dies suos*, bere egunak erdizkatzeintuzte, bi erdi
 egiteintuzte. Zeren erdi bata, gaztetasuna, gaizki enplegatu bazuten ere, bertze erdia,
 zahartzea, ongi akhabatu baitzuten. Eta haur da azkenekotz ongi erdizkatzea, gaix-
 toa utzirik, onaren hartzea, Jondone Paulo batek bezala egitea.

Baina berriz, bertze batzuk gaztean dira on, prestu eta debozinotsu, eta zahar-
 30 tzean gaixto eta maliziatsu. Hastean on, eta akhabatzean gaixto, Judas izan zen bezala.
 Halakoek, *dimidiant dies suos*, erdizkatzeintuzte bere egunak, bi erdi egiteintuzte.
 Zeren zahartzean gaixto badira ere, gaztean on izan baitziren. Ordea, hura da gaizki
 eta gaixtoki egunen erdizkatzea, zeren onetik gaixtora aldatzen baitira. Eta, hanbatik
 hanbatean, gaixtoago eta perilosago da zahartzean gaizto izatea, gaztean baino.

35 112 Baina finean, berriz, bertze batzuek, *non* <166> *dimidiant dies suos*, eztituzte
 nehoiz ere erdizkatzen bere egunak. Zeren hala zahartzean nola gaztean, arront baitira

92-33/34 *hanbatik hanbatean*: «coeteris paribus 'en igualdad de condiciones'. Ikus esanmolde berbe-
 ra beherago hunako zati hauetan: 115, 353 (bi aldiz)» (Villasanteren oh.). Badago beste
 bat: 105-1 (V 127).

bat, bethiere baitira maliziaz eta gaixtakeriaz orobat. Eta halako hek ikhusten dutenean bere egunak laburtu hurran zaitzela, heriotzera hurbiltzen direla, kontu eman behar dutela: orduan, pagatzaile gaixtoek egiten dutena, eskatuko dira ephe eta luzamendu gehiago. *In die redditionis postulabit tempus* (Eccles. 29). Ordea, nola iraganaz kontu xarra eman baitukete, eztira enzunak izanen; etzaie heken promesei sinhesterik emanen, ezta heken erranetan nehor gehiago fidatuko. Hala erran zuen ainguruak ere, gaineoaz zin eginik, etzela izanen gehiago denborarik, akhabatuko zirela *geroko gero* guztiak. *Iuravit per viventem in saecula, quia non erit tempus* (Apocal. 10). 5

Egin ahal dezakegu nahi bezanbat edo ahal bezanbat enseiu eta itzulunguru, baina azkenean ere, ezin ihesik daidikegun denborara eta pontura herstu eta bildu beharko dugu. Hala, kontatzen du San Gregoriok, ezen Krisaorio zeritzan gizon gaixto batek, bere azken orenera zenean, munduan egin ahal zitzan othoitz guztiak eginagatik, ezin erdietsi zuela biharamuneko luzamendua. *Caepit magnis vocibus clamare, «inducias vel usque mane, inducias vel usque mane»; sed, cum clamaret, in istis suis vocibus de habitaculo suae <167> carnis evulsus est* (Greg. Hom. 12 super Evang. et lib. 4 Dialog., cap. 38). Herstu zenean, nahi zukeien aphur bat luzatu, nahi zukeien biharamun arterainoko denbora irabazi; anhitz hitz eder ahotik athera zuen, anhitz othoitz eta oihu egin zuen; anhitzetan egun baten tregoaren, ephearen eta espazioaren eskatu zen. Baina guztiak alferrik. Oihuz eta othoitzez zegoela, bere egunak akhabatu zeitzan, arimak egin zeraukan, eta sekulakotz kondenatu zen. 10 15 20

§ 4

113 Beraz, hunelatan, batere sentimendurik badugu, eztugu gerotik gerora ibili behar; eztugu aitzinerat gehiago denborarik galdu behar. Aitzitik, lehen galdu duguna, behar dugu orai koberatu eta erremediatu. Ordea, nola edo zer moldez erremedia ahal diteke eta kobera? Zeren joana joan da, ezta haren bihurtzerik, eta ez eskuetaratzetik. Ihardesten du San Gregoriok hitz gutiz eta laburzki: *Tempus redimimus, quando, anteactam vitam, quam lasciviendo perdidimus, flendo reparamus* (Greg. lib. Moral., cap. 28). «Denbora iragana reskatatzen eta geuretakotzen dugu noiz eta bizitze gaixto iragana, irriz eta plazerez galdu genduen, nigarrez eta desplazerez koberatzen eta erreparatzen baitugu». Erran nahi du: Denbora iragana, gaizki enplegatu <168> genduen, eskuetarik joan zeikuna, erdietsten dugu, orduko plazeren ordain orai desplazer dobleak hartzen ditugunean; orduan egin behar ginituen ongiak, eta orai egin behar ditugunak, orai egiten ditugunean. Haur da San Tomasek ere satisfazioneaz mintzo dela erraiten duena: *Quamvis homo non possit tempus praeteritum recuperare, potest, tamen, recompensare illud quod in praeterito fecisse debuisset* (S. Thom., in additio 25 30 35

93-10 *herstu*: «Heldu, etorri». AxH-n esanahia ez dago ongi emana» (Villasanteren oh.). OEH-k, ordea, «instar, empujar a; obligar, compeler» erdal hitzekin definitzen duen adieran sartzen du (s.v. *herstu*, 2. adieran), AxH-ko «urgir, constreñir, apremiar»-en bidetik.

93-12 *orenera zenean*: 'nora + izan' egitura zaharra, *joan*-en beharrik gabe. Ik. 118-3. oin-oh.
93-20 «*Sekulakotz kondenatu zen*. Gaur ez ginake ausartuko horrenbeste esatera. Hunelako edo horrelako kondenatu ote zen jakiteko ez dugu biderik. Ikus beherago ere: 337» (Villasanteren oh.).

q. 15, ar. 1 ad 4). Gizonak denbora iragana ezin kobera badezake ere, eta ez bihur, ordea, erremedia dezake iraganeko falta, iraganean egin behar zuen ongia egiten duela ethorkizunean. Baldin iraganean meza bat enzun behar bazenduen, eta ez hura enzun, kofesa hartako bekhatua, eta gero ethorkizunean dobla, enzun bia. Baldin iraganean egun batez barurtu behar bazenduen, eta ez barurtu: lehenik kofesa hartako bekhatua, eta gero ethorkizunean dobla, barur bi egunez. Halatan, denbora iragan gaizki enplegatua, egin ahal ditekeien moldean reskatatzen, koberatzen eta erremediatzen da.

114 Bi orenen bidea iragaiteko duzunean, eta oren hetarik bata alferkerian, jan-edanean eta arloterian iragan duzunean, zer erremedio, zeure bidearen mugaz eta ilhundu gabe erdiesteko? Gerthatu zaitzun faltaren estaltzeko? Zer? Gelditzen zaitzun oren hartan, hain zinez eta laster abiatzen zara, non bi orenen bidea batez egiten baituzu, <169> eta halatan erremediatzen eta estaltzen zeure leheneko falta eta alferkeria. Bada, molde hunetan berean guk ere geure denbora, hunerainokoan alferkerian eta gaixtakerian gaizki enplegatu duguna, orai ontasunean doblatuz eta laster eginez behar dugu koberatu eta erdietsi. Hala erraiten da ardiak ere arratsaldean, fitetzago janez, bere goizeko guti jana erdiesten duela. Halatan mahastiaren jabeak ere, arratsaldean trabailatzen hasi zirenei eman zerauen hanbat jornal eta alokairu, nola goizetik trabailatu zirenei. Zeren arratsaldean hasi zirenak, hain zinez eta gogotik harizan ziren, non hek denbora gutiz, bertzek anhitzez bezanbat egin baitzuten.

Bada, haur beror egin behar dugu guk ere orai arratsaldeon, zahartzeon, geure egunon akhabatzeon. Orai baitakusagu ezen ja adinaren arauaz heriotzeko portura hurbiltzen garela, hemengoaz egin hurran dugula. Orai, bada, orai behar dugu permatu; orai behar derauegu eskuei eragin. Orai nori berea errenda, orai etsaigoatik iltki. Orai ethorkizunean pensa. Orai zin-zinez, bihotzeko urrikimendu batekin eta gehiago ez egiteko borondatearekin, aitzinetik konzientzia ongi iratiorik eta examinaturik, osoki eta egiazki kofesa; kofesatu ondoan, leheneko okhasinoetarik <170> aparta, ez gehiago hetara, eta ez bertze halakoetara itzul. Halatan denbora iragana, hain gauza handia eta baliosa, gerotik gerora ibiltzeaz galdu duguna, erremedia ahal ditekeien moldean erremediatuko, koberatuko eta erdietsiko dugu.

94-4 *bia: biga eta bida* 'bi' zenbaki izenaren aldaeren taldekoa. Cf. *OEH* (s.v. *bi*): «Axular emplea un paradigma en -a (*biaz, biaren y biatan* 'dos veces') que no se encuentra, fuera de él, sino en el diccionario de Duvoisin [...]; el resto de los autores se sirven de formas en -e no diferenciadas formalmente de las determinadas plurales de *bi*».

94-21/22 *haur beror... akhabatzeon*: artikulua zahar pilatxo bat perpaus honetan.

Gaztetik zahartzera penitentzia luzatzen duenaz

KAP. XIII

115 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Memento creatoris tui in diebus iuventutis tuae, antequam veniat tempus afflictionis tuae et appropinquent anni de quibus dicas «non mihi placent»* (Eccles. 12). Orhoit zaitezi zeure Jaungoikoaz zeure gazte denboran, zahartzeko peneetara baino lehen, eta hurbildu gabe urthe hek, zeinengatik datozinean erranen baituzu: «Eztira ene gogarako». Gazte zareino, ahala eta indarra duzue, trabailla zaite, orduan eskuei eragiezu. Zeren zahartzero, zahartzeak berak emanen deratzu egitekorik asko. 5

Hanbatik hanbatean, ederrago zaitza Jainkoari gaztetasuneko obra onak, zahartasunekoak baino. Zeren gaztetasunekoak bere egitez hobeto eta ederrago baitira. Manatzen <171> zuen Jainkoak Lege Zaharrean, fruitu guztietarik primizia eman ziazotela, guztietarik parte bat, eta parterik hoberena, prinzipalena eta estimatuena, nola komunzki ohi baita lehenbizikoa, oferenda ziazotela. Manatzen zuen, halaber, Jainkoak berak, usoetarik, ez uso handiak, baina usakumeak ekhar ziazotela. Gazteak nahi zituen, eta ez zaharrak. Zeren usoak zenbatenaz gazteago, hanbatenaz dira hobeto, gozoago eta zaphoretuago. Hala dira, bada, halaber gaztetasuneko obra onak ere, zahartasunekoak baino gaiago eta baliosago. Eta halatan da gure Jainkoa ere hetarik gutizosago, desirosago eta zaleago. Hala erraiten du Mikeas profetaren zazpi-garren kapitulan: *Praecocae ficus desideravit anima mea* (Miche.). «Goiz ontzen diren fikoak desiratzen zituen ene arimak». Presuna gazteen lehenbiziko obra on hek nahi nituzke, hetarik naiz zale eta gura, hek zaizkit on, gozo eta ezti. 10 15 20

Hargatik da teologoen errana, gizona adimendura heltzen den bezain sarri, puntu berean obligatu dela bihotzaren Jainkoagana ailtxatzera, haren manamenduen konplitzeko gogo hartzera, eta arrazoin naturalaren arauaz bedere bizitzera. 25

95-22 *gura*: «Hitz hau bizkaitarra izan arren, Axularrek maiz erabiltzen duela zioen Oihenartek (RIEV 4: 228)» (Villasanteren oh.). Axularrenean ez ezik, OEH-k bildutakoaren arabera, garai eta euskalki guztietan erabilia da mailegu zahar hau, zubererari izan ezik.

116 Pintatzaile batek egin baleza imajina eder bat alde guztiz konplitua eta abantailatua: <172> imajina hark, baldin ezagutzarik balu, nori lehenik behatu behar othe leraukaio? Segur da pintatzaileari berari, bere egileari. Beraz, hunelatan, gizonak ere, Jainkoak berak bere imajinara eta idurira, hain ederki egina denaz geroz, adimendura
5 heltzen den bezain fite, bere egileari berari, iduria eman dioenari, behar dio behatu, haren zerbitzuan behar du bere ahala enplegatu. Hunen arauaz erraiten du Jondone Paulok: *Laborantem agricolam oportet primum de fructibus accipere (2 ad Thimo. 2)*. Arrazoin da, trabailatzen den laborariak, berak lehenik bere fruituetarik dasta dezan. Eta Jondone Paulok berak dioen bezala: *Dei agricultura estis (Corin. 3)*. Zuek
10 zarete, eta gu gara, Jainkoaren laboraritasuna: gu gara Jainkoaren lur landua, aphaindua eta trabailatua. Arrazoin izanen da, beraz, halaber, Jainkoak berak, laborari onak bezala, bere trabailua lehenik goza dezan; eta adimendura edo endelegamendura heltzen garen puntu beretik, gure obren primizia eta lehena dasta dezan.

Baina, ai, ai, eta milatan ai! Non da bere lehen fruitutik, bere obren hastetik,
15 Jainkoari dasta arazitzen deraukanik? Non da giristino goiztiarrik? Goiz ontzen denik? Gaztedanik Jainkoa zerbitzatzan duenik? *Vae mihi, quia factus sum sicut qui colligit <173> in autumnno racemos vindimiae; non est botrus ad comedendum (Mich. 7)*. «Ai, ene urrikalkizuna —dio Mikeas profetak—, zeren ni egin naiz udaren finean, bertzeren bil ondoan mahats hondar-mondarren bilha dabilana bezala.
20 Hoberenak bertzek eramaintu. Ezterautate morkoxta bat ere, eta ez bikhor bat, ahoan eman ahal ditekeienik utzi». Bada, haur beror erran ahal dezake gure Jaungoikoak ere. Zeren gure gaztetasuna bertzek joaiten du. Lehenbiziko obrak bertzek biltzeintu. Deus gelditzen bazaika ere, bilondoak, hondarrak, zahartzeoak gelditzen zaitza. Eta gaixtoeneko kontuan, ailekitza hek ere, edo hek bedere geldi!

25

§ 1

117 Badirudi ezen desohore eta laido zaiela oraiko presuna gazte prestuki bititza eta bekhaturik egin gabe egoitea. Bere eginbidea, Jainkoari zor dioten zerbitzua, geroko, zahartzeo ordenatzen dute, erraiten dutela: «Berdin oraino ezta hiltzeko perilik; sendo naiz, gazte naiz, eta gazteak gazte antzu, gazte bezala behar du bizi
30 eta gobernatu. Zer lerrake munduak berak ere, baldin oraidanik parti banengio? Hor heldu da zahartasuna, denbora pausatua, umoa, erhokerien uztekoa. Orduan bai, <174> orduan onduko naiz; orduan munduari gibela emanen diot, eta debozinoan sarthuko naiz. Baina, anarterainokoan, dezadan atsegin har, dezadan mundua zerbitza; nakion goza; nakion behin, berriz bihurtzeko desirarik eztukedan bezala, ase

96-20 *bikhor*: «Alea edo garauna, bihia ('grano'). Ikus Mitxelena (1974: 117)» (Villasanteren oh.).

96-22 *joaiten*: eramaten (*joan*-en erabilera iragankorra).

96-24 *ailekitza*: «Aditzaren aurrizki hunek (*ai*-) gogo bat edo nahi bat aditzera ematen du. Ikus R. Lafon (1944: I, 394). Beherago dator beste kasu bat: *aillotsa*, 271. Oihenartek hunela itzultzen du: 'pleust a Dieu qu'il dit' (*RIEV* 4: 225)» (Villasanteren oh.). Beraz, 'oxala geldi balekizkio...!'.

96-30 *banengio*: banenkio, -n- ondoko ahostuntzeaz.

eta asper». Haur da oraiko presuna gazten deliberamendua, haur da heken gogoia; eta haur da adinean bezala gainerakoan ere gazte izaitea eta, azken finean, fin gaitz egiteko perilean jartzea.

Baldin bazina esperantzatan hemendik urthe baten buruan erdiesteko jaun handi batenganik zenbait kargu edo errenta, ez lizateke erhokeria handia, bitartean, anarterainoko denboran, jaun haren kontra ibiltzea? Bada, are da handiagoa zuk egiten duzun erhokeria. Zeren zuk nahi duzu hemendik urthe baten buruan, edo gehiagoren, zeure zahartzean ondu, zuk nahi duzu orduan Jainkoarekin adiskidetu, eta harengatik anhitz fabore eta garazia erdietsi; eta alabaina, bitartean, anarterainoko denbora guztian, zeure gaztetasunean, Jainko haren kontra zabilta, harekin etsai zara, eta etsai bezala anhitz bidegabe egiten diozula bizitzen zara. Ha zer bidea eta moldea, zer lausengua eta balakua, harengatik zahartzean endrezu izaiteko, nahi duzunaren erdiesteko!

<175> Zahartzean anhitz balioko duenak, gaztetik behar du ezagun eta ageri. Fruiturik izanen duen zuhaitzak, aitzinetik behar du loratu. Doktor handi izanen denak, haurretik behar du eskolatu. Gaztean harmarik utkitu ez tuena, zahartzean nola kapitainduko da? *Quae in iuventute non congregasti, quomodo in senectute invenies?* (Eccles. 25). Gaztean bildu ez tuzuna, nola edirenen duzu zahartzean? Gaztean luzaro gaixto izatu dena, nola kolpe batez eta laburzki onduko da zahartzean? Zeren bertzeak bertze di-rela (lehen erran den bezala), gazteko usantzak jarraikitzen ohi zaitza nehorri zahartzean ere; eta are orduan kargatzenago, jauntzenago eta lehiatzenago zaitza. Bada, badirudi ezen deabrua ere orduan permatzenago dela.

118 Hala emaiten du aditzera Jondone Joanes ebanjelistak, erraiten duenean aditu zuela zerutik mintzo bat, zioela: *Vae terrae et mari, quia descendit ad vos diabolus, habens iram magnam, sciens quia modicum tempus habet* (Apocal. 12). «Begirautzue, lurra eta itsasoa, gaizki doha zuetaz: zeren jautsi da deabrua zuetara kolera handian, jakinik ezen denbora guti duela». Guztiak tentatzeintu deabruak, baina zintkienik eta fintkienik zaharrak. Zeren nola hek, luzenaz ere, ezin anhitz iraun baitezakete, denbora guti baitute, akhabatu hurran baitzaie; eta akhabatze <176> hartan baitago sekulakotz ongi edo gaizki izaiteko pontua eta gorabehera: halatan deabruak ere akhabatze hartan eskuei eragiten darau; orduan bere artea, antzea, maina eta ahal guztia enplegatzen du; orduan zakukoak atheratzeintu, dakizkien jokoak jokatzetintu; eta, ikhusirik denbora guti duela tentatzeko, guti hari ahal dagian guztia balia arazitzen derauka. Beraz, hunelatan, peril handian jarri nahi du, zahartzeraino bekhatutan egon gogo duenak. Zeren, arrazoin haur ere eman dezadan, zer izanen da, anhitzi gerthatzen zaikana, zahartu ustea zahartu gabe, bere adinik hoberenean hil badadi? Eta hil eypadadi ere, zer ahal daidike zahartzean, adin flako hartan? Eta orduko ongi egitea zer balia ahal dakidikaio?

119 Izigarri da San Basiliok pontu hunen gainean erraiten duena: *Temperantia in senecta, non est temperantia, sed potius incontinentiae quaedam impotentia* (Basil. oratione 4 de poenitent.). Zahartasuneko pairua eta pairatzea, ezina da, eta ez pairua,

eta ez pairatzea; indarraren eskatea da, ahalaren faltatzea, ezin eginez egoitea; bor-
 xaz gelditzea, adinak ukho egitea, egin nahiaren ezin egina, bekhatuak berak aitzin-
 tzea; ez guk bekhatuen, baina bekhatuek gure utzte. Eritasunean guti jatea ezta guti
 5 <177> jate; orduko barurtzea ezta barurtze, zeren baliz apheeturik, bada borondate. Hala
 <177> da, bada, komunzki zahartzeko pairamendua, begiramendua eta bekhatueta-
 rik barurtzea ere: ezinezkoa da, eta ez borondatezkoa. Hunen arauaz erraiten du San
 Krisostomok ere: *Qui modestus est in senectute, cum aetate plurimum iubetur, non*
magnam suae modestiae mercedem arbitrator habiturum (Chrysost. *Hom. 50 in cap.*
 24 *Matth.*, t. 2). Eztut uste presuna zaharrak probetxu anhitz izanen duela, bere
 10 zahartzean onhest, modest, pausatu eta sosegatu izaitez: zeren adina bera hartara
 laguntzen baitzaika, adinak berak hartaraten baitu; nahiago badu ere, ezin baitai-
 dike bertzela. Zer esker uste duzu izanen duela edo irabazi eginen duela zahar ezin-
 duak, etsaiari bidera harmaturik ez ilkitzeaz? Arratsean etxerat goiz biltzeaz eta
 bihurtzeaz? Amorantiara gaztean bezala ez joaitez? Dantzan eta jautzian ez ibil-
 15 tzeaz? Pontu hunen gainean ere bertze guztietan bezala ederki erraiten du San
 Agustinek: *Sed quidam sunt, fratres mei, qui in iuventute sua luxuriose vivere vo-*
lunt, et si ad senectutem pervenerint, gloriantur dicentes, se continentis esse; tunc
enim eligunt servire castitati, quando libido eos servos habere contemnit. Nunquid
tales continentis dicendi sunt? Absit. Tales enim praemium non habebunt, quia la-
 20 *boris certamen non habuerunt* (August. *Ad fratres merem.*, serm. 6, tom. 5). Batzuek
 nahi dute, bere gazte denboran bizi bere gogara, anhitz bekhatu eta desordenu, guztiz
 ere emazteekin egiten <178> dutela. Eta gero, baldin zahartzen badira, loriatzen dira,
 erraiten dutela: «Gu jende kastoak, onhestak, garbiak, pausatuak eta begiratuak gara;
 ezugu, Jainkoari esker, desonheskeriarik akometatzen, eta ez emazteetako bekhatu-
 25 rik egiten». Ordea, nolatan eztuzue egiten? Ezin baitaidikezue. Beraz, ezinari esker,
 eta ez zuen borondateari.

Orai uste duzue zuek ezen jende garbiak, onhestak eta kastoak zaretela, eta
 kastitate horrengatik Jainkoaren aitzinean pagamendu handia izanen duzuela. Baina
 enganatzen zarete. Zeren pagamendua izanen duenak, utzi behar du bekhatua, be-
 30 khatu ahal daidikeien denboran, eta hartu berthutea orduan berean.

120 Zeren San Krisostomok dioen bezala, *Neque enim omnis prorsus aetas,*
omnibus vitiis est opportuna (Chrys. t. 10 in cap. 3 *Math.*, tom. 2), eztira, ez, adin
 guztiak bekhatu suerte guztietako on eta ez gai. Eztagoka zahartasunari amurusia,
 eta ez komunzki gaztetasunari abarizia. Badituzte gauza guztiek bere sasoinak,
 35 trenpeak eta denborak. Bada ereiteko denbora, eta bai biltzekoa ere. Eta erho han-
 dia da, bildu behar den denboran eta mugan ereitera dohana. Gaztean behar da
 erein eta trabailatu, eta zahartzean bildu, gozatu eta pausatu. Fin gaitz eginen duk,
 xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia, dio errefranak. Zuk nahi baduzu gaz-
 tean alfer egon, eta gero zahartzean trabailatu <179> eta obra onen egiten hasi,

98-11 *lagundu*: «aditz laguntzaile iragangaitzaz jokatua. Ikus beherago ere: 142, 209, 294»
 (Villasanteren oh.).

hori da ordenantzaren haustea, sasoinik ez begiratzea, bildu behar denean ereitea, eta pausatu behar denean trabailuari lotzea. Ordenantza hobea begiratzen dute erleek bere artean.

Erle gazteak, gazte direino, kanpoan dabilta, trabailatzen dira. Baina zahartuz gero, etxean daude, kofauean daude, eztira bere plazerera baizen handik ilkitzen, han pausatzen dute. Zeren zahartzea hartako, pausatzeko ordenatua da. 5

§ 2

121 Egia da: Jainkoak prometatzen dio bere bekhatuen barkhamendua noiznahi den, zahartzean ere, penitentzia egiten duenari. Ez, ordea, eztio nehoi penitentzia egiteko biharamunik prometatzen, eta ez hartako segurantzarik emaiten. Hala erraiten du San Augustinek: *Indulgentiam peccatorum promisit Deus; sed crastinum diem, quo paeniteas, non promisit* (August. *De verbi Domini*, serm. 16, tom. 10). Zahartzean penitentzia egiten baduzu, on da. Ordea, pontua da ea zahartuko zarenez; eta zahartzen bazara ere, ea zahartze hartan penitentiari eginen duzun. Ea leheneko adin sendoan hasi eztuzuna, geroko adin flakoan akhabatuko duzun. 10 15

Ea egundaino baino ongi nahiago, adinaren arauaz hobeki beharrago eta plazeri <180> ere emanagoa zarenean, zeure burua penatuko duzun. Ea orduan leheneko aztura zahar gaixtoak utzirik, aztura berri on batzuk hartuko dituzuntz. Eztakit, nik duda egiten dut. Eta nork eztu duda eginen? Zeren sendoak jasaiten ez tuena, flakoak nola manaiatuko du? Baldin bazinitu bi abre eta bi karga, ez lizateke erhokeria kargarik pisuena abrerik flakoenari emaita? Hala egiten du, bada, penitentiaren karga zahartzerat egotzten duenak. 20

122 Gaztetasuna sendo da, indartsu da, ongi egiteko, trabailatzeko eta Jainkoaren zerbitzuan enplegatze gai da. Baina zahartzea flako da, onbehar da, berak du bere buruarekin, eta bere buruaren sostengatzen, egitekorik asko. Zaharra ezin barur diteke, belhauriko orazintan ezin dagoke, erromerian ezin dabilke. Finean zaharrrak, bere zahartasuneko eritasunekin eta arrazadurekin, penitenziazko obrarik ezin daidike. Nola izanen da, bada, orduan, bere eginbidearen egiteko on eta gai? 25

Guti da zahartzean, gaztean baino zalhuiago, arinago eta jauzkalari handiago. 30

Elefantak (aniamalia handi bat baita) bere gazte denboran belhaunak eta gainerako bertze junturak zalhuitu, erraxki doblatzen eta plegatzeintu: baina zahartzean gogortzen eta osatzen zaitza, halako molde non, baldin orduan eror edo etzan badadi, ezin jaiki <181> baititeke. Eta halatan, hartaraz gero, bere naturalezak berak hala erakutsirik, zuhaitzen kontra, hek sostengu harturik, zutik dagoela bere loa ere 35

99-31 «*Aniamalia* (sic) eta ez *animalia* dio Axularrek, bai toki hunetan eta bai beste zenbaitetan ere. Mitxelenak uste duenez, zinetako variantea da, eta ez inprimeriako hutsa (1974: 108)» (Villasanteren oh.). Alderantziz, izatekotan, *animalia* formaren adibideak izan daitezke hutsak, orotara lau baino ez baitira, *aniamalia*-ren zortziren aurrean (ik. 14-25 oin-oh.).

99-32 *zalhuitu*: zalhui ditu. Ik. 99-32 testu-oh.

egiten du. Bada, elefant zaharraren eta gaztearen artean edireiten den diferentzia, edireiten da presuna zaharraren eta gaztearen artean ere: gaztea zalhui eta manaiukor bezain, da zaharra gogor eta zurrun.

§ 3

- 5 **123** Baina hunelako diferentziarik ezpaliz ere, ezta zahartzeko begira egon behar. Zeren zahar arterainoko denbora hartan ere, gazte zarenean ere, anhitz ongi eta ontasun egiten deratzu zeure Jaungoikoak: hazten, mantenatzen eta bizirik edukitzen zaitu. Ez lizateke, bada, arrazoin, zuk ere bitarte hartan, zeure gazte denboran, ontasunak errezibitzen ditutzunean, eskerrak errenda ziniatzon, zerbitza zenezan, 10 lauda eta ohora zenezan? Zuri Jainkoak bethi egiten deratzu ongi; zergatik, bada, zuk ere eztiogu bethiere ezagutza egingen eta esker emanen? Zure alderakotzat frantko da eta liberal Jainkoa; nolatan, bada, zara zu hain eskas eta hertsia, zeure gaztetasuna, adinik hoberena, sobera etsirik, gaixtoena, hondarra, zahartzea eman nahi baitiozu? Gainak, pikainak eta hautuak bertzeren, hondarrak eta arbuioak 15 Jainkoaren. *Non, enim, tantum minimum in fundo, sed <182> pessimum*, dio Senekak (Senec. *Epi.* 2). Gauza hondartuz gero, gutitzen da eta gaixtatzen. Hondarra guti da, eta guti hura ere gaixto. Florea, irina, hoberena, gaztetasuna eramaiten du etsai gaixtoak, eta gero nahi duzu kontenta dadin Jainkoa zahiaz eta zahartzeko hondarraz. Arrenkuratzen zen Jainkoa, zeren aniamaliaitsuak, mainguak, eriak eta hebainak oferendatzen zerautzaten (*Malach.* 2). Beraz, arrazoinekin 20 errenkuratuko da zutzaz ere. Zeren zahartzea baita itsu, eri, maingu, hebain, eta zuk hura oferendatu nahi baitiozu.

Zahartzean begietako bista laburtzen da, beharrietan gorreria egiten da, belhaunetan hezueria jartzen da, indarra gutitzen da, aphetitua galtzen da, loa joaiten 25 da, ikhara ethortzen da, larrua zimurtzen da, ilea urdintzen da, burua karsoiltzen da, hatsa khiratsten da. Finean, presuna zaharra hotzberatzen, minberatzen, idurikortzen, haserrekortzen, eta alde guztiz onbehartzen eta urrikalkizun egiten da; hain urrikalkizun, non baldin nehon ere gorputzak narriorik, arrazadurarik edo falta esalirik baldin badu, orduan guztiak agertuko baitira.

- 30 **124** Zertako du, beraz, Jainkoak halakoa? Munduak eta mundukoek beretzat on eztadukatena, bere artean ikhusi nahi ez tuten eta konpainietan ere narda zaiena, nahi duzu zuk har dezan Jainkoak bere bestale, maita dezan, <183> besarka dezan? Bere konpainian eta lorian errezibi dezan? Hoberena behar duenari, eta onik baizen hartzen ez tutenari, nahi zeneraukaio zuk gaixtoena bulkhatu?

35 Eta gaixto hura, zahar, itsu, maingu, hebain, eri hura har baleza ere Jainko miserikordiosak, ez lizateke, ez, guztiarekin ere halakoa egiteko gabe. Zeren, non da bekhatuagatik egin behar den deskargua eta pagamendua? Nolatan zahartzean, hain

100-14 *pikaina*: «C'est le plus pur ou friant morceau d'une viande ou mangeaille» (Oihenart, *RIEV* 4: 228; Villasanteren oh.). *Bikaina*-ren aldaera, jakina.

denbora laburrean eta adin flakoan eta erbalean, pagatuko eta satisfatuko du hanbat bekhaturen zorra eta obligazinoa? Hargatik erraiten du San Agustinek: *Qui sero paenitet, non evadet ignem purgatorii* (August. *De vera et falsa paeniten.*, cap. 18, tom. 4). Beranduraino penitenziarik egiten ez-tuenak, zahartzeraino Jainkoagana itzultzen eztenak, peril du hoberenaz ere, purgatorioetan luzaro egon beharko duen, hara gabe eskapatuko ezten, lehenbiziko urthean zamarririk edo arropa forraturik beharko ez-tuen. 5

Zeren Klimako sainduak dioen bezala, balentia handia da egunean eguneko deskarguaren egitea (Climac. *Scala*, 8 in fine). Eta badio San Mateok ere: *Sufficit diei malitia sua* (Math. 6). «Egunak berak du bere buruarekin egitekorik asko». 10

Nola nahitutzu, bada, zuk, hanbat egunetako eta denboratako, gaztetasun guztiko bekhatuak, zorrak eta egitekoak elkhargana bildu, eta guztiak zahar denborako begiratu eta eduki? Eztakusazu zahartzeko manaiua, <184> manaiu aphurra dela? Eta adin hark bere denboran egiten dituen falten ere erremediatzen egitekorik asko izanen duela? 15

Beraz, hunelatan, gaztedanik behar da Jainkoa zerbitzatu, penitenziatan enplegatu, bekhatuetarik apartatu, eta ez gerotik gerora, gaztetik zahartzera, luzatu.

101-6/7 *arropa forraturik beharko ez-tuen*: «Irriño baten keinua somatzen da pasarte hunetan, *Gero*-ren beste zati askotan bezala. Ikus “*Gero*-ri darion umore puntta” (Villasante 1972: 169)» (Villasanteren oh.).



Zahartzean ere penitentiariak egiten ez tuenaz

KAP. XIV

125 Erraiten du Eskritura Sainduak: *Filius unius anni erat Saul cum regnare cepisset; duobus autem annis regnavit super Hierusalem (Reg. 13)*. «Urthe batetako haurra zen Saul, erregetu zenean, eta bi urthez izan zen errege Jerusalemeren gainean». 5

Ordea, nolatan ahal dateke haur hunela? Zeren segur da urthe bat baino gehiago zuela Saulek erregetu zenean, eta halaber bi urthe baino gehiago egon zela bere erregetasunean. Egia da, hala da. Ordea, nola hastean baitzen malizia gabe, urthe batetako haurraren pare, eta egoitza hartan iraun baitzuen bi urthez, eta ez gehiago; eta Jainkoaren alderakotzat, ezpaitira kontutan <185> hartzen ontasunean enplegatzaren diren urtheak baizen, halatan erraiten da urthe batetako haurra zela Saul, errege sarthu zenean, eta bi urthez egon zela barren hartan, eta ez gehiago. Zeren ezpaitzen bi urthez baizen bekhaturik egin gabe egotu. 10

Erraiten du Senekak: *Quidam tunc vivere incipiunt, cum desinendum est. Si hoc iudicas mirum, adiicium quod magis admireris: Quidam ante vivere desierunt quam inciperent (Senec. Epis. 23)*. Jende batzuk hasten dira bizitzen, bizitzetik gelditu behar denean; eta baldin hunetzaz miretsten baduzu, erranen deratzut are miretsikoago duzuna: bertze batzuk bizitzen hasi baino lehen, gelditzen dira bizitzetik. Zeren obra onen egiten hasi baino lehen akhabatzen baitzaie bere bizia. *Quid est, autem, turpius quam senex vivere incipiens?*, dio halaber Senekak (Senec. Epis. 13). «Zer da gauza itsusiagorik, bizitzen hasten den zaharra baino?». Lehen behar da lehen hasi, lehen behar da ikhasi. Eta nola zaharra ezin has baititeke bizitzen, segur da obrez mintzo dela Seneka lekhu hunetan, eta ez adinaz. 20

103-4/5 *Urthe batetako haurra zen Saul*: «Irakurpen bitxi hau hebreozko testutik hartua da. Makur hori nola sortu zen gaur ez da erraz asmatzea. Beharbada lehenbizian idatzi zuenak urteen kontua jakin gabez, hutsarte bat utziko zuen toki horretan, geroago betetzekotan. Olabideren euskal itzulpenean hutsarte jartzen da orain ere. Ikus Arnaldich, *Biblia comentada* BAC 201, *in locum*. Griegera egin zen itzulpenean atal hau ez da ageri» (Villasanteren oh.).

126 Itsusi da zahartzeraino Jainkoaren zerbitzatzen ez hastea, itsusiago orduan ere ez hastea, eta guztietako itsusiena eta gaixtoena, orduan gaixtakeriari berriro lotzea eta malizian barrenago sartzea. Batzuk zahartzean hasten dira prestutzen eta bertuteari jarraitkitzen; eta hobe da orduan ere, ez <186> nehoiz baino; ordea, hura da, 5 bidea iraganik, etxean egon behar lukeienean abiatzea, handituegirik apendizkoan jartzea, urdindurik eskolara joaitea. Eta hauk guztiok dira itsusi, sasoinetik kanpoan eta muga gaitzean.

Gazte denboran ibili zinen gazte antzu, arintki, debozino gutirekin, bethi prometa-
tzen zendueta, eta gogoan erabiltzen, zahartzean mirakuilu eginen zendueta, orduan
10 saildutuko zinela. Bada, orai zahartu zara, zeure promesen eta hitz handien ephean eta mugan zara. Baina zuk orai ere itzurpideak bilhatzeintuzu, luzamenduak edireiteintu-
tzu, eta azken adinean zarela guti konsideraturik, lehenbizikoan baitzina bezala goberna-
tzen zara. Etzuen hala egiten Senekak, jentil bazen ere, erraiten zuenean: *Ante senectu-*
tem curavi ut bene viverem; in senectute ut bene morerer (Senec. *Epi.* 6). «Zahartzeko
15 aitzinean enseiatu nintzen ongi bizitzera, eta zahartzean ongi hiltzera». Gaztean bizi-
tzeaz eduki nuen kontu, eta zahartzean hiltzeaz; zahartuz gero utzi behar da bizitzea eta
bizitzeko gogoia, heriotzearekin behar da iharduki, eta hartako bere ahal guztiaz prestatu.

§ 1

127 Zahartzea, sentontzea, urthe anhitzez bizitzea, bere egitez on da, Jainkoaren
20 <187> donua eta dohaina da. Zeren Jondone Paulok dioen bezala, *Licet is qui foris est*
noster homo corrumpatur, is autem qui intus est renovabitur de die in diem (*Icor.* 4),
gure gorputz haur, arimaren kanpoko eta gaineko estalki haur, zahartzeaz higatzen eta
desegiten bada ere, ordea, barrena, arima, hobetzen eta erraberritzen da. Presuna za-
harrak nola ja berak frogatuz eta esperientziaz ere baitaki munduko erhokerien eta
25 joan-ethorrien berri, ordu du gaztetasuneko mainen eta tornuen utzteko, eta bere
buruari akhordatzeko eta ohartzeko. Baina gaztea perilos da. Eta halatan, errege
Dabitek erraiten zioen Jainkoari: *Ne revoces me in dimidio dierum meorum* (*Psal.*
101). «Ez nazazula dei neure egunen erdian. Utz nazazu zahartzera, umotzera, urdin-
tzera eta azken adinera heltzera». Zahartasuna bertze anhitz gauzatako ere bai, baina
30 guztien gainetik emaiten da gaztetasuneko falteen erremediatzeko. Eta hartarakotzat,
hartaraz gero, leheneko odol beroa hotzten da, sosegua ethortzen da, eta batere adi-
mendurik duena ethorkizunean pensatzen jartzen da. Den presunarik lazoenak eta
antsikabenak ere arratsean etxeko atheak hersteintu; portaleen mugan hirietan mun-
duak laster egiten du; ardiak ilhuntzerakoan fitetzago jaten du; zisneak hiltzerakoan
35 bere kantua erredoblatzen du. Hala dagitela konseilatzeintu <188> Jondone Paulok
presuna zaharrak: *Tanto magis quanto videritis appropinquantem diem* (*Hebr.* 10).
Zenbatenez eta ikhusten baituzue zeuen azken eguna hurbiltzenago zaitzuela, hanba-
tenaz lasterrago abia, hanbatenez permago eta lehiago zaitezte. Begirautzue orduan
zabartzetik, nagizetik eta ezansiatzetik. Zeren orduan da mena, orduan da mina, or-

104-38 *Begirautzue: begira + *edun, lehenagoko begira beute-ren kidekoa (ik. 49-21).*

duan da azken adina, eta peril guztien gaineko perila. Eta, nola hanbatik hanbatean ederrago baitzaitza Jainkoari gaztetasuneko zerbitzuak eta obra onak, zahartasunekoak baino; hala, bertze aldera zaitza halaber itsusiago eta gaitziago zahartasuneko faltak eta huts eginak, gaztetasunekoak baino. Zeren zahartasunekoak ezpaitira jakin gabez, inorantziatz edo esperientzia faltaz eginak, baina bai maliziaz, gaixtakeriaz eta gogoan deliberaturik, begiak itsuturik bezala akometatuak eta obratuak. 5

Ezta puntu hunetara gaixki heldu Spiritu Sainduak dioena: *Tres species odivit anima mea et aggravor valde animae illorum: pauperem superbum, et divitem mendacem, et senem fatuum et insensatum* (Eccles. 25). «Hirur bekhatu edo bekhatore suerte gaitzesteintut, eta zaizkit bertze guztien gainetik itsusi: probe urguilua, 10 aberats gezurtia eta zahar erho zentzugabea, edo zahar amurusa».

128 Kontsideratzekoak dira hitz hauk, jakin dezagun <189> ea zergatik daritzen Jainkoak hain gaitz hirur bekhatu suerte haui: probearen urguilutasunari, aberatsaren gezurrari eta zaharraren erhotasunari. Baldinba, bada hauk baino bekhatu handiagorik. Lehenbizikorik, probeta urguilu izaitza, badirudi eztela bekhatu handi, lehen dirudi erhokeria eta adimendu falta. Zeren probeta zerk urguilutzen du? Halaber, aberatsa ere gezurti izaitza, badirudi bekhatu arina dela, behintzat anhitz da handiagorik. Bada, gizon zaharra ere banaloriatzea, eta gazte denborako zenbait erhokeriatarra bihurtzea, gizonari gertha dakidikaiona da: anhitz da bekhatu handiagorik. Zergatik, bada, hauk hunela direlarik, erraiten du guztiarekin ere Spiritu Sainduak hirur bekhatu hauk zaitzala gaitzienik eta itsusienik? Ezta gaitz ihardesten. 15 20

Baldin hirur bekhatu suerte hauk konsidera baitzagu gaingiroki, azaletik eta kanpotik, bada hauk baino handiagorik eta Jainkoz ere gaitzetsiagorik. Ordea, baldin har badezagu barrena, mamia, Spiritu Sainduak hunetan erran nahi duena, edirenen dugu maliziaz, premia gabe, golotoniaz, bere plazerera, kausarik, okhasinorik eta tentamendurik gabe egiten diren bekhatuak direla gaixtoenak, eta halakoak dira hirur bekhatu suerte hauk, zeinetzaz mintzo baikara presentean. 25

Probeta gezurti izaitza, ezta hain miretsteko, <190> zeren beharrak anhitz gauza eragin dezake. Aberatsa ere urguilu gerthatzea, komun da, ardurako gauza da, zeren nola nehoren men gabe, berak baitu bere dina eta behar duena, hark urguilutzen du, hark handitzen eta hantzen du. Bada, presuna gazte bat bere obretan eta joan-ethorrietan arin eta erho izaitza, ezta ongi, baina badirudi aphur bat bedere adinak desenkusutzen duela. Baina probeak zer okhasino du urguilutzeko? Aberatsak gezurti izaiteko? Eta presuna zaharrak gazte denborako tornuetara eta erhokerietara bihurtzeko? Bekhatu hauk, eta guztiz ere zahartasunekoek, eztute desenkusarik, eztute estakururik, eta ez ederztatzeko biderik, eta halatan zaitza hain gaitzi eta itsusi Jainkoari. 30 35

105-12/13 *gaitz eritzi*: «gorrotatu» (Villasanteren oh.). *On eritzi* 'maitatu'-ren aurkakoa.
105-22 *baitzagu*: baditzagu. Ik. 157-16 testu-oharra.

129 Egun batez permititu zuen Jainkoak desegin zezaten bere etsaiek Jerusalemeko hiri eder famatu hura, utzi zerauen hartzaz nahi zuten guztia zegitela. Eta nola Jainkoak ezpaitu behin ere nehor bidegabeki gaztigatzen, emaiten du arrazoina 5 Jeremias profetak, ea zergatik Jainkoak hiri hura hala desegitera eta bilhakatzaera utzi zuen, erraiten duela: *Sordes eius in pedibus eius, nec recordata est finis sui* (Jerem. 1). «Bere likitskeriak eta lizuntasunak zituen oinetan, eta bere finaz ere etzen orhoitu». Erran bailu bezala: «Oinak zituen lohiak, satsuak eta likitsak, haur da kausa eta arrazoina zeren hiri hura hala galdu zen». Bada, gauza komuna da eta ardurakoa, oinak likits <191> izaitea, zeren lurrean baitabilta. Zer antsia zen, beraz, hargatik? 10 Baldin begitarte, bisaia izan balu likits, badirudi arrazoina izan zukeiela egin zue-naren egiteaz, baina oinakgatik zer antsia zen? Eta alabaina, hargatik, oinetako likits-keriakgatik erraiten da galdu zela; zeren nola zahartzea baita azken adina, eta bizi-tzearen bazterra eta hondarra, hala dira oinak ere gorputzaren fina, akhabanza. Eta 15 halatan, oinetan likits izaiteak erran nahi zuen zahartzean zela likits eta gaixto, eta etzela bere finaz ere orhoitu, eta halatan galdu zela. Zeren zahartzean gaixto dena, eta orduan bere salbamenduaz orhoitzen eztena, gaitz da galdu gabe eskapatzea. Erraiten du San Ziprianok: *Sicut in lignis ipsa reproba arbor comparet quae post flores, fructus optimos cultori suo non exhibet, sic et in hominibus ipse reprobus est quem flos iuventutis deserit, et tamen in sui corporis senectute, bonorum operum fructus pro-* 20 *ferre parvipendit* (Cyprian. *de 12 abusio abusio* 2). «Nola zuhaitza baita zuhaitz alferra, fauna, idorra eta agorra, hostoaren eta lorearen ondoan fruiturik jasaiten ez-tuena, hala da gizona ere gizon alferra eta guti balioa, bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero, obra onen fruiturik gabe dagoena». Gizonak, nehoiz ere 25 izaitekotz, behar luke hogoi urthetan izan laster eta arin; hogoi eta hamarretan indar

106-5 *bilhakatu*: «Hondatu' ematen da AxH-n aditz hunen esanahi bezala. Agian beste hau eman beharko litzateke: 'bihurtu, hortaraino etorri, halakatu» (Villasanteren oh.). *OEH*-n homonimotzat hartzen dira (s.vv. 1 *bilakatu* eta 2 *bilakatu*), eta adibide hau 'hondatu' esanahikotzat jotzen. Badago beste bat (238-34), hau baino oraindik ambiguoagoa.

106-24/25 *Gizonak, nehoiz ere izaitekotz...*: «Mitxelenak erakutsi duenez (1974: 112) pasarte hunek badu antz Oihenarten azaltzen den atotitz batekin (524 zenbakia duenarekin)» (Villasanteren oh.). Honako honekin: *Hogei urtetan eztena, hogei eta hamarretan eztaikena, eta berrogeietan eztuena, da jagoiti eztatena, eztaikena eta eztukena* (Altuna eta Mujikaren arg., 2003: 246). Egituraren aldetik ere oso jakingarria da Mitxelenak esandakoa (1974: 113): «En el texto figuran, agrupados por parejas, *laster* y *arin*, *indar* y *sendo*, *zentzu* y *adimendu*, *diru* y *hazienda*, *debozino* y *konzientzia*, agrupación más bien sorprendente, ya que *laster*, *sendo*, p. ej., son normalmente adjetivos, y *adimendu*, *diru*, por el contrario, sustantivos. Hay, sin duda, varias explicaciones posibles, que salvarían el obstáculo gramatical. (...) Pensando precisamente en el estilo, cabría pensar que, lejos de haber dormitado, Axular trató ahí de forzar, tomando pie del hecho de que para él *izan* es tanto 'ser' como 'haber', las fronteras gramaticales de la lengua empleando con plena conciencia una violenta construcción *apò koinoú*. Esto se compadecería mejor con lo que sabemos de él como escritor, la hipótesis se apoyaría en el hecho manifiesto de que la transición es paulatina, no brusca. Pero, aun cuando la aceptemos, no podemos menos de echar de ver que, si la construcción

eta sendo; berrogoietan zentzu eta adimendu; berrogoi eta hamarretan diru eta ha-
zienda; eta hirur hogoietan debozino eta konzientzia. <192> Adin hartan, hirur hogoi
urthetaraz gero konzientzarik ez tuenaz, bere apheetitu desordenatuatarik gibelatzen
ez tenaz, eztagizula konturik. Eta are gutiago, orduan berriro gaixakeria pensatzen
eta egiten hasten denaz: hartaz etsi ezazu, hura emazu galdutzat.

5

130 Hainak eta halakoak mehatxatzeintu Jeremias profetak hitz estali batzuen
azpian, erraiten duela: *Vae nobis, quia declinavit dies, quia longiores factae sunt*
umbræ vesperî (Jerem. 6). «Ai gure urrikalkizunak, galdu gara, egin du gureak.
Zeren akhabatu hurran da eguna, behehitu da iguzkia, eta itzala ere luzatuago da
arratsaldean». Zer erran nahi du minzatze molde hunek? Baldinba iguzkiak, bethie-
re ageri den bezala, luzeago egin behar du itzala arratsaldean, eguerdian baino.
Zeren eguerdian gaindik behera artez, eta arratsaldean saihetsetik, soslai emaiten
baitu. Ordea, guztiarekin ere, zeren haur hunela gerthatzen den, erraiten zaiku begira
dugula, galduak goazila. Nola aditzen da, bada, haur? Aditzen da galduak goazila,
ez zeren ikhusten dugun iguzki hunek egiten duen arratsaldean itzala handiago eta
luzeago, baina zeren gure arratsaldean, zahartzean, adina irauliaz eta behehituaz
dohanean, eta dihoakunean, mendekatzeko, <193> enganatzeko, eta are bizitzeko
nahia eta desira ere berretzenago eta luzatzenago zaikun; zeren zaharrago, eta gaix-
toago egiten garen: hargatik erraiten du galduak goazila.

10

15

Badakigu parabisurako denak eztuela behar bekhatu rik, eta ez bekhatu ren
notharik, eta ez zimurdurarik. *Non habentem maculam aut rugam (Ephes. 9)*.
Badakigu utzi behar direla aztura gaixtoak aitzinetik. Eta zuk, gazte zinenean, errai-
ten zenduen etzela orduan lekhurik, baina zahartzean guztiak falta gabe utziko zini-
tuela. Bada, orai han zara, bazterrean zara, zahartu zara eta, alabaina, egundaino
baino barrenago sartzen zara, lehen bezain gaixto, edo gaixtoago zara. Zer egin
gogo duzu, bada? Zertan pensatzen duzu? Zeren begira zaude? Zahartzearen? Han
zara. Ephearen? Konplitu da. Konpli ezazu, bada, zuk ere zeure hitza eta promesa,
zahar zindezineko eman zenduena.

20

25

Erranen duzu: «Badut oraino bertze ephe bat ere: eztira oraino denbora guztiak
iragan. Egia da, erran nuen zahartzean onduko nintzela, orduko zen lehen ephea.
Baina har dezaket bigarren bat ere. Zeren oraino, zahar naizenagatik, bizi naiteke
gehiago ere. Bada, azken urthean, hiltzerako aitzinean, falta gabe, falta guztiak erre-
mediatukoitut. Orduan neure hitzak edukikoitut, <194> promes guztiak konplitu koi-
tut. Anarteraino ezta lekhurik, ezta zer mintzaturik».

30

Haur da presuna galduen kontua, eta hurran-hurran, hunen ondoko eta hurra-
neko kapitulu an ageriko den bezala, fin gaitz egiteko seinale gerthua.

35

le pareció posible, por violenta que fuera, no fue sólo porque *izan* tenía dos valores: lo fue, además, porque las fronteras entre sustantivo y adjetivo estaban muy poco marcadas. Tenemos, por lo menos, una pareja que nos enfrenta con un claro dilema: o *indar* podía emplearse como *indartsu*, etc. (además de ‘fuerza’ podía significar ‘fuerte’) o *sendo* podía ocupar el lugar de *sendotasun*, es decir, significar tanto ‘robusto, etc.’ como ‘robustez».

107-13/14 *begira dugula*: kontu izan dezagula.



Heriotzeko oreneraino bekhatutan egon gogo duenaz

KAP. XV

131 Erraiten du Senekak: *Moriantur ante te vitia* (Senec. *Ep.* 27). Hil bitezi zu baino lehen zure faltak eta bekhatuak: hek lehenik, zu gero. Eztitzatzula heriotzeraino zeurekin eduki. Zeren hartaraz gero, periletan jar zindezke, zerori hilagatik, hek bizirik gelditi litezin. Zahartzeraino bekhatutan dabilana, ezta peril gabe; zer izanen da, bada, are aitzinago, heriotzeko oreneraino, bethi barrenago sartzen dela, bethi hala dabilanaz eta ibili gogo duenaz? 5

Ez nuke erran nahi, zein peril handiak diren heriotzeko oren hartan. Zeren ezpaineraukaio nehoi izitzeko eta esperantzaren galtzeko okhasinorik eman nahi. Ordea, ezin nagoke <195> erran ere gabe. Zeren orduko esperantzak anhitz galtzen baitu. Eta baitakusat ezen, nik orai hemen eman ahal dezakedan izialdurak eta bel-durtasunak baino, orduko perilaren berririk jakin gabeak kalte gehiago egin dezakeiela. 10

Baina egiteko hunetan sarthu baino lehen, nahi nuke jakin zenezan gauza bat, eta da: Nola egiazko penitentzia baita Jainkoaren donua, dohaina eta emaitza, Jainkoak berak plazer duenean eman dezakeiena: hala egiazko penitentzia hura, noiznahi den dela, heriotzeko azken orenean bada ere, salbatzeko asko sendo eta botheretsu dela. Eta halatan salbatu zen ohoina bere azken orenean, anarteraino bekhatutan egona eta ibilia. Oraino bideazkoak gara, eta hunela gareino iragan gaitetzke aitzinat, eta bai gibelat ere bihur; badaidikegu ongi, eta bai gaizki ere. Zeren borondatea libre eta geure eskuko baitugu. Halatan erraiten du San Agustinek: *De nullo desperandum est, quandiu patientia Dei ad paenitentiam adducit, nec de hac vita rapit impium* (Aug. *serm. 11 De verbis Domini.*, tom. 10). Ezta nehortzaz ere etsitu behar, ezta nehor ere galdutzat eduki behar, Jainkoaren pazienziak penitentzia egitera igurikitzen dioeino, mundu hunetan utzten dueino. Halaber erraiten du San Agustinek berak: *Paenitentia aboleri peccata, indubitanter credimus, etiam si in ultimo vitae <196> spiritu admissorum paeniteat* (Aug. *De Eccle. dogmatibus*, cap. 15 20 25

109-10 *ezpaineraukaio*: ez bainioke. Ik. 325-34 testu-oharra.

109-21 *badaidikegu*: egin dezakegu (-gidi- errokoa).

80, tom. 3). Segur dadukagu, duda gabe sinhesten dugu, azken hatsaren aurthiki-
tzean ere, penitenziak barkhatzen dituela bekhatuak. Eta Jainkoak berak errana da
Ezekiel profeta baithan: *Impietas impii non nocebit ei in quacumque die conversus*
5 *fuert ab impietate sua (Ezech. 13)*. Eztio bekhatoreari bekhatutik ilkitzen den egu-
netik harat bere bekhatuak kalterik eginen. Konberti bedi, onera bihur bedi, nahiz
dela arimak egiterakoan. Biz hats baktxean dagoenean, eta orduan ere enzuna
izanen da. Biziak diraeino, hatsa sabelean deino, arima gorputzetik iltki arteino,
baldin oraino adimendua on badu, memorioan eta akhorduan badago, nahasten
ezpada, baduke bere bekhatuaz behar den urrikimendua, damua eta dolorea. Eta
10 hanbatenarekin eztu bitartean zer etsiturik, eztu zer esperantza galdurik, zeren
ezpaita oraino orduan erremediotik kanpoan.

132 Bekhatuez barkhamendu erdiesteko, egin behar da penitentzia; eta penitentzia
egiteko, asko da puntu bat, buru itzultze bat, begi herts-ideki baten bitartea. Zeren
egiazko penitentzia, eta bertzerik ezin daidikeiengan salbatzeko asko dena, bihotzezko
15 urrikimendua da, falta eginez barrenean, Jainkoagatik, damu eta dolu izaitea.

<197> Erraiten denean egin behar dela penitentzia, eta bertzela ezin salba ditekeie-
la, ezta, ez, aditzen, bada eta ezpada behar dela konfesatu, barkhamendu eskatu,
barurto, orazinotan egon, erromerian ibili, eta hunelako bertze obra penatuetan pe-
natu. Zeren egia da, gauza hauk guztiok penitenziak dira, eta penitenziazko obrak;
20 ordea, dira kanpokoak, eta egin ahal ditezkeiengan zenbait bedere egin behar dire-
nak. Baina baldin ezin egin baditezke, ezin kofesa badadi, ez mintza eta ez deusetan
ere manai; asko da orduan barren ona, borondatea, bihotzezko damua, dolua eta
dolorea. Zein baita egiazko penitentzia, eta kasu hartan, bertzerik ezin daidikeie-
nean, salbatzeko asko dena.

25 Erremedio haur dute itsasoan edo handik kanpoan kofesatu gabe hiltzen dire-
nek: barreneko penitentzia, bihotzezko damua eta dolorea, kontrizioa. Eztute ber-
tzerik, baina haur dute asko, baldin behar den bidean izaiten badute.

133 Eta barreneko penitentzia haur, bihotzezko damu eta dolore haur (zein latinez
deitzen baita *contritio, a verbo contero*, erran nahi baitu xehatzea, zathitzea,
30 porroskatzea. Zeren bekhatuz gogortu zen bihotza, damuaz, doloreaz eta urrikiaz
xehatzen, beratzen eta zathitzen baita) baduke nehork laburzki, <198> denbora gu-
tiz, puntu batez. Zeren San Basiliok dioen bezala: *Non, enim, temporis quantitate,*
sed animi proposito, poenitentia iudicatur (Basil. *orat. 4 de paenit.*). Penitenziaren
indarra eta balioa, borondatearen deliberamenduan dago, eta ez denboraren luzeta-
35 sunean. Hala dio San Agustinek ere: *In actione, autem, poenitentiae, non tam con-*
sideranda est mensura temporis, quam doloris (August. in *Enchyrid.*, cap. 6, t. 3).
Penitentzia egitean, ezta hain konsideratu behar denboraren neurria, nola doloreare-
na. Urrikimendu egiazkoak, bihotzez konbertitzeak, dolore finak eta beroak, gehiago
daidi denbora gutiz, dolore laxoak eta hotzak anhitzez baino. Dolorea behar da

110-39 *daidi*: egin dezake (-gidi- errokoa).

neurtu eta kontsideratu, eta ez denbora. Haur beror emaiten du oraino aditzera San Agustinek, erraiten duenean: *Poenitentia, vero, non annorum numero censetur, sed amaritudine animi* (Aug. *serm. 67 De tempo*, t. 10). Penitentzia ezta, ez, urtheen kontuaz egiazko eta balios egiten, baina bai bihotzaren barreneko doloreaz, urriki-az eta atsekabeaz.

Nola bekhatuaren arimatik kentzeko eta atheratzeko, bi gauza behar baitira: bata Jainkoaren aldetik, haren garazia eta faborea, eta bertzea guretik, gure nahia eta borondatea (Vide S. Thom. 1.2, q. 113, art. 7 *in corpo*.); eta gauza hau guztiok, are gure aldetik behar direnak ere, prinsipalki Jainkoak egiten baititu: halatan Jainkoak bere garaziaren emaita, eta gure garazia haren errezibitzeko eta harekin batean bekhatuaren kentzeko <199> prestatzea ere, egin ditezke laburzki, heriotzeko azken artikuluan. Zeren bekhatuaren egiteko asko da puntu bat, gogoaren egotzte bat, borondatearen deliberatze bat eta konsentitze bat; asko izanen da, beraz, halaber, bekhatu haren beraren erremediatzeko ere puntu bat, gogoaren bertze aldera itzultze bat, borondateak zintki eta fintki Jainkoagatik bekhatuaren utzte bat eta gaitzeste bat. Zeren are miseri-kordiosago da Jainkoa justiziati baino, barkhatzera prestago gaztigatzera baino. Beraz, hunelatan, heriotzeko pontuan ere, azken orenean ere, egin diteke Jainkoaren faborearekin batean egiazko penitentzia, eta erdiets bekhatuen barkhamendua. Haur da egia, eta egia hunetan ezta dudarik.

§ 1

134 Bai, ordea, bada duda, eta duda ere handia, ea azken oren hartan egiazko penitentiari-rik, behar den urrikimendurik izanen duenz bekhatoreak. Aitortzen derat-zut, badukeiela orduan ere. Ordea, pontua da ea izanen duenz. Eta ezta munduan, heriotzeko oreneraino bekhatutan dagoenaren salbamenduaz dudatzen ez-tuenik, seguran-zarik emaiten duenik. Aitzitik, Eskritura Saindua eta Elizako Doktor <200> guztiak hain herstuki eta izigarriki mintzo dira orduko penitenti-az, non baitirudi ezen heken erranen arauaz, hartaraz gero, eztela bat ere salbatzen.

Erraiten du San Mateo ebanjelistak: *Orate, ut non fiat fuga vestra in hyeme vel sabbato* (Math. 24). «Egizue othoitz, eztatila zuen ihesa gertha neguan edo larunba-tean», zein baitzen orduan besta. Zeren nola negua baita linburi, leun, istilsu eta lohitsu, ezta bidean ibiltzeko on. Eta besta egunean ere debeku zen, etzen sori eta ez zillhegi bide luzerik iragaitea, urrun joaitea. Bada, heriotzeko orena da negu eta besta. Negu, zeren guztia baita trabuz, trabailuz eta egitekoz bethea. Besta, zeren orduan behar baita pausatu, eta astelegunetako trabailuez, anarterainoko obra onez gozatu. Beraz, hunelatan, lehen behar da etsai gaixtoaren eskuetarik ihes egin eta eskapatu, eta ez anarteraino egon eta luzatu.

Arropa berriak bazkokotzat eragin nahi dituenak, aitzinetik behar du presta-tzen hasi, aitzinetik behar du oihala ekharri, neurria hartu eta jostera eman. Erhokeria handia lizate goiz bereraino, dendaria deitu gabe eta bertze gauzak

111-23 *badukeiela*: badezakeela, izango duela.

xuxendu gabe egoitea. Bada, are da erhokeria handiagoa heriotzeko oreneraino, arimaren bezitzez konturik ez egitea, eta uste izaitea ezen herstura hartan, <201> hain denbora laburrean, prestatuko eta aphainduko dela. Halatan Alexandro handiak egotzi zuen soldadu bat bere konpainiatik. Zeren etsaiarekin batzerakoan, konbat 5 emaiterakoan, hasi baitzen harmen garbitzen eta prestatzen.

135 Denbora hertsia eta egitekotsua da heriotzeko denbora: gaitz da orduan egiazko penitenziaren egitea eta izaitea, guztiz ere lehen debozinoan usatu eztenarentzat, edo anarteraino bethi gaixto izatu denarentzat.

Eta nola den gaitz, anhitz arrazoinenez froga ahal diteke. Lehenbizikoa: orduan 10 munduko egitekoek, zor-hartzekoek, hartu-emanek, seme-alabek, sehiek, ondokoek, eta guztien gainetik eritasunak berak, orduko oinhaze min hek trabu handia ibeniko deratzute, nahasiko, desmordituko, zeri lot eztakizula, zeure buruaz eta eginbidez ahantzirik ibeniko zaituzte.

Sukhar handi batekin, saihetseko punta batekin edo bertze eritasun bortitz 15 batekin dolorez zarenean, dolore hark berak, are eskapatzen zarenean ere, emaiten deratzu egitekorik asko, ezteratzu bertzetan pensatzeko ere astirik utzten.

Zer izanen da, bada, dolore guztien gaineko doloreak, arimaren gorputzetik atheratzeko asko denak, heriotzekoak har zaitzanean? Zer balentia egin uste duzu zuk orduan? <202> Egiazko penitentzia, zein baita gauza handia, egitekotsua, eta osasuna 20 duenari ere lanik eta ekhairik asko emaiten dioena, nahi duzu zuk, den denborarik herstueneko, gaitzeneko, eri zareneko, eta are heriotzearen azken oreneko luzatu.

Horretan emaiten duzu aditzera, eztuzula nehoiz ere penitenziarik egin nahi. Zeren osasunarekin zaudenean, ahala duzunean, ezpaituzu egiten.

Hala erraiten du doktor batek: *Si non facis dum potes, manifeste ostendis quod non vis* (Hugo. *De Sacram.*, part. 4, cap. 5). Hargatik erraiten du Agustinek ere: *Festinare debet ad Deum convertendo dum potest unusquisque, ne si, dum potest, noluerit, omnino cum voluerit, non possit* (August. *ser. 17 ad fratres in eremo*, tom. 10). Batbederak behar du konbertitu eta egin laster Jainkoagana, ahala duenean. Zeren ahala duenean nahia eztuenak, benturaz gero, nahia due- 30 nean, eztu ahala izanen. Behintzat jartzen bedere bada ez izaiteko perilean.

Beraz, hunelatan, lehen behar da prestatu.

Zeren gaitz izanen da, heriotzeko orenean, eritasunez eta oinhazez kargatua zaudenean, penitentzia egitea, behar den fintasunarekin eta berotasunarekin Jainkoari gomendatzea. Zeren orduan, bertzeak bertze direla, eritasunak berak eman- 35 nen baiteratzu egitekorik asko.

112-20 *ekhai*: «Hitz hunek ‘nekea, buru haustea’, eta bai ‘gaia’ ere esan nahi du, Oihenartek di-
oenez (RIEV 4: 227)» (Villasanteren oh.).

<203>

§ 2

136 Are gehiago, gaitz izanen da heriotzeko orenean behar den bidean penitentzia egitea. Zeren penitenziak, eta edozein bertze obra on batek ere, egiazko eta balios izaitekotz, behar du gogotik, amorioz, borondate onez eta libreki egina izan, eta ez bortxaz, ez ezinbertzez edo beldurrez. Eta azken oreneko penitentzia hark badirudi bortxazkoa, ezinbertzekoa edo beldurrezkoa dela, eta ez behar bezalakoa, eta ez behar bezain librea eta borondatezkoa. 5

Halatan, erraiten du San Agustinek: *Paenitentia, quae ab infirmo petitur, infirma est; paenitentia quae a moriente tantum petitur, timeo ne ipsa moriatur* (August. ser. 57 *De tem.*, tom. 10). «Eriaren penitentzia, penitentzia eria da; beldur naiz hil dadin, hiltzerakoan baizen egiten eztena». Lehen behar da lehen egin. *Quoniam non est in morte qui memor sit tui* (Psal. 6). Zeren profeta Dabitek dioen bezala, ezta nehor heriotzean Jainkoaz orhoitzen. Ordea, zer erran nahi du minzatzeko molde hunek: eztena nehor heriotzean Jainkoaz orhoitzen? Zeren gu orduko esperantzak bizi gaitu; eta esperantza harekin eztegu anarterainokoan gaixtakeriarik baizen egiten; eztena nehor heriotzean Jainkoaz ere orhoitzen. 10 15

<204> Baina orduan, diren gaixtoenak ere hasten dira bere konzientzien iratituzen eta iraultzen, batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen, eta bertze egiteko guztiak utzirik, ahalez Jainkoa bera baithan pensatzen.

137 Nolatan ahal dateke, beraz, egia, errege Dabitek dioena: eztena nehor heriotzean Jainkoaz orhoitzen? Ezta gaitz ihardesten. Zeren, batatz, lehen erran den bezala, orduan eritasunak berak, bere gorputzeko gaitzak, emaiten baitio batbederari egitekorik asko; eta, berriz bertzea, zeren peril baita orduko orhoitzea, orhoitzen bada ere, ez orhoitzea bezala, beldurrezkoa edo borxazkoa izanen den, eta ez behar bezalakoa. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Quia etiam hac animadversione percutitur peccator, ut moriens obliviscatur sui, qui dum viveret oblitus est Dei* (Augu. serm. 10 *De sanct.*, tomo 10). Bizi deino Jainkoaz ahantzirik egon denak, merezi du, berari ere hiltzerakoan ahantz dakion bere burua, eta orhoitzen bada ere, orhoitze hura eztektion deus balia. Eta iduri ere badu etzaitkala deus baliatzen. Zeren komunzki halakoa, eritasunetik eskapatzen denean, leheneko bekhatueta bihurtzen ohi da. 20 25 30

Halakoaz eta halakoez mintzo dela, erraiten du errege Dabitek: *In multitudinem virtutis tuae mentientur tibi inimici tui* (Psal. 65). «Zeure berthutearen multzutasunean, gezur eginen deratzute zeure etsaiek». Zer erran nahi du minzatzeko molde <205> hunek? Konparazino batez edo biaz adituko duzue.

113-14/15 orduko esperantzak bizi gaitu: «Bizi, aditz laguntzaile iragankorraz jokatu. Hala Mogelek *Peru Abarka*-n ematen digun erretrauean ere: *Bakotxa bere zorruak bizi* (Diálogo 4.º, n.º 61)» (Villasanteren oh.). Iragankor gisako erabilerak bat baino gehiago dira, eta honako honi 'hacer vivir, mantener vivo' esanahiak dagozkio *OEH*-aren arabera (s.v. *bizi izan*, 2. adieran).

138 Bi aitonen semek edo zaldunek elkarren artean etsaigoa dutenean, eta elkhar dixidaturik, desafiaturik, konbatera eta gudura deiturik, kolpeka hasten direnean, komunzki sendoenak edo anzatsuenak garaitzen du bertzea, bere meneratzen du, azpiratzen du, lurrera egotzten du, ezpataz iragaitera darama. Orduan lurrean dantzanak, herstura handian baitago, erraiten dio bere etsaiari: «Ha, jauna, othoi, barkha iazadazu, bizia indazu. Ezagutzen dut orainokoan zure alderakotzat faltatu dudala, gaizki egin dudala, baina prometatzen deratzut ezen, hemendik aitzina, zure zerbitzari izanen naizela». Hunela minzatzen zaika, hunela othoitz egiten dio. Eta othoitz hauk gogoan harturik, bihotza hautsten zaika, urrikaltzen zaika, barkhatzen dio, utzten du jaikitsera. Ordea, jaiki den bezain fite, bere eman duen promesaz eta egin zaikan garaziaz kontu guti eginik, bere leheneko tornura eta etsaigoara bihurtzen da. Halakoari bere etsaiaren indarrak, bothereak eta garaitiak gezurra erran arazi derauka, eta prometa arazi konplitzen eztuena. *In multitudine virtutis tuae mentientur tibi inimici tui.*

15 Hala eriek ere bere eritasunetan, eta marinel tormentatuek bere tormentetan, anhitz promes eder egiten dute, saildutzeko gogo hartzen dute, debozino bat erakusten dute. <206> Ordea, nola hura guztia beldurrez egiten baitute, eritasuna eta tormenta iragan direnean, iragan dateke heken debozinoa ere, eta handik harat lehen bezain gaixto, edo gaixtoago egiten dira. Halakoei eritasunaren eta tormentaren indarrak gezurra erran arazi deraue, eta prometa arazi konplitzen ezutena.

20 Garzelean dagoenak egiten duen ordenuak eta testamentuak ezuela deus balio dio legeak (*ff. de eo qui metus lausa l. qui in carcere*). Ez eta, beraz, eztu deus balioko, eritasunaren eta heriotzearen garzelean eta hersturaren dagoenak egiten duen promesak eta penitenziak ere. Zeren hek guztiek dirudite direla bortxaz eginak, eta ez amorioz, eta ez borondatez.

§ 3

139 Erraiten du Eskritura Sainduak, Antioko errege gaixto hark, heriotzeko orenera zenean, urrikimendu handi bat erakutsi zuela, anhitz promes eder egin zuela; hanbat, ezen baitzirudien bere hitzetan saildu bat zela, eta saildu bat bezala mintzo zela, erraiten zuela bertze anhitz gauzaren artean: *Iustum est subditum esse Deo, et mortalem non paria Deo sentire* (2 Machab.) «Justu da eta arrazoin, Jainkoari errendaturik egoitea, eta gizonak Jainkoaren berdin bere buruaren ez edukitzea».

35 Eta, guztiarekin ere, hunela mintzo bazen ere, erraiten du Eskritura Sainduak berak lekhu <207> berean: *Orabat, autem, hic scelestus Dominum, a quo non esset misericordiam consequuturus*. «Gaixto hura othoitzez zegokan Jainkoari, baina alferrik, etzuen barkhamendu erdiesteko perilik». Zeren othoitz hek, eta Jainkoaz

114-1 *aitonen semek edo zaldunek*: Hona hemen hizkeren arteko aldeak erakusteko «Irakurtzaileari» atalean erabilitako bikoteetako bat. Beste bat: *liskarrak, ahakarrak* (150-7/8). Gainerakoan, bietatik ezkerretara jarritakoa bakarrik erabiltzen du.

114-6 *indazu*: emaidazu (-in- erro zaharrekoa).

orhoitze hek, bortxak, heriotzearen beldurrak eragiten baitzerautzan. Pontu hunen gainean erraiten du Soto doktor handi hark: *Antiochus propterea non est veniam consequutus, quod paenitentiam non habuit; sed ob id nobis exemplo propositus est, ut admoneamur, dolorem peccatorum, qui ex cruciatibus mortis enascitur, fallacem esse saepissime* (Soto, in 4 *Sent. dist.* 15, q. 3, ar. 6). Etzuen errege Antiokok barkhamendurik erdietsi, zeren ezpaitzuen behar zen bidean penitenziarik egin. Ordea, hark bere azken finean egin zuen enseiua eta penitentzia itxurapena, ibentzen zaiku geure begion aitzinean exenplotzat eta mirail bezala. Jakin dezagun, eritasunaren eta heriotzearen oin hazetarik eta hersturetarik sortzen den penitentzia, maiz dela alfer, faun, falso, gezurri eta guti balio.

Ikhusten duzunean bere mende guztian gaixto izatu den bat, eritu denean eta ja hiltzera etsitu duenean, hasten dela batari eta bertzeari barkhamendu eskatzen, beharrei bere haziendaren partitzen, eta hatsbeherapen handi batzuekin, begiak zerura iraulirik, Jainkoari gomendatzen, eztezazula, ez, hargatik pensa, segur duela halakoak bere salbamendua. Aitzinetik, aitzinetik, eritu baino lehen <208> eta heriotzeko hersturan jarri baino lehen, behar da bekhatua utzi eta debozinoa hartu. Zeren bertzela erituz gerozko debozinoan ezta zer fidaturik, ezta segurantzarik. Eritasuneko debozinoa, komunzki, heriotzearen beldurtasunetik heldu da, eta ez Jainkoaganako amoriotik. Eritu ezpazina, lehen bezala, zeure leheneko bekhatuen xisteran, etzauntzan eta tokian egonen zinen.

140 Baldin aitzinetik, eritu baino lehen, bekhatua utzten baduzu, intenzione ona hartzen baduzu, eta ahalez zeure leheneko falten erremediatzen hari zarela zeure azken eritasunak atrapatzen bazaitu, jakizu ezen orduan, munduko bekhatorerik handiena izan bazara ere, salbatzeko bidean zarela, eta salbatzeko esperantza handi bat ahal dukezula.

Baina bertzela, Jainkoak begira zaitzala, bekhatutan eta bekhatu egiteko go-goan eta borondatean zaudela, zeure azken eritasunak edireitetik. Zeren baldin hala edireiten bazaitu, peril da zeure eritasun hartako kofesatzeak, urrikimenduak, debozinoak, eta egiten ditutzun bertze enseiu guztiek ere, deus guti balioko duten, indar guti izanzen duten.

Ez naiz neure burutik mintzo. Hala erraiten du San Agustinek: *Agens poenitentiam et reconciliatus cum sanus est et postea bene vivens, securus hinc exit. Agens paenitentiam ad ultimum, <209> et reconciliatus, si securus hinc exit, ego non sum securus. Unde sum securus dico et do securitatem. Unde non sum securus, paenitentiam dare possum, securitatem dare non possum. Nunquid dico «damnabitur»? Non dico. Sed dico etiam «liberabitur»? Non. Sed quid dicis mihi? Nescio, non praesumo, non promitto, nescio* (Augus. *De vera et falsa poenitenti.*, hom. 41). «Osasuna duela, bere bekhatuen kofesa eta penitentzia egiten duena, eta gero handik harat ongi bizitzen dena, ongi eta segur ilkitzen da hemendik. Baina bere azken fineraino eta azken eritasuneraino gauza hauen egitera igurikitzen duena, ez naiz segur, ongi eta segur ilkitzen denz. Segur naizenean erraiten dut segur naizela, eta ez naizenean, ez naizela. Ahal derraket, orduan ere badaidikeiela penitentzia; ez,

ordea, eman segurantzarik. Eztut erraiten kondenatuko dela, eta ez salbatuko dela ere. Ez naiz fida, ez naiz segur, eztakit.» Hunela dio San Agustinek. Eta erraiten du oraino gehiago ere: *Vis te de dubio liberare? Vis quod incertum est evadere? Age paenitentiam cum sanus es. Si sic agis, securus es. Quia egisti paenitentiam eo*
 5 *tempore quo peccare potuisti. Si, autem, vis agere paenitentiam tunc, quando peccare non potes, peccata te dimisserunt, non tu illa.* «Nahi duzu dudatarik iltki? Nahi duzu segurean jokatu? Egizu penitencia sendo zareino, bekhatu ere ahal daidizuino. Zeren bertzela, baldin zuk egin nahi baduzu penitencia <210> eri zarenean, hiltzerakoan, bekhatu ere ezin daidikezun denboran, eztitutzu orduan zuk utzten
 10 bekhatuak, baina bekhatuek zu utzten zaituzte».

141 Zer esker edo merezimendu uste duzu izanen duzula, ja ezin gehiago daidizunean, eta hiltzera etsitu duzunean, tratu gaixtoen utzteaz, eta batari eta bertzeari, zeure onen utzteaz eta partitzeaz? Zeren berdin ezin eraman zintzakeien zeurekin. Baldin obra on horiek egin bazinitu osasuna zenduenean, eta zeure burua, hala oneko
 15 nola gaixtoko, zeure eskuko zenduenean, badirudi indar gehiago izanen zutela, baliosago izanen zirela, segurantza handi bat emanen zeratzutela, eta zutzaz ongi joanen zela. Baina zeure azken finean, ja ezin gehiago iraun dezakezula ikhusirik eta etsiturik egiten duzun obra onean eta penitenzian, ezta zer sobera fidaturik. Zeren peril baita, ezten orduko obra on hura eta penitencia behar bezain fin eta egiazko izanen.

20 Eztagoela, beraz, nehor penitenziarik egin gabe eta bekhatuak utzi gabe, bekhatu ezin daidikeien denboraraino; eztagoela bortxaren begira: begi bere eginbidea libreki eta borondatez; begi mugaz eta goiz. Zeren San Agustinek dioen bezala: *Multos solet serotina paenitentia decipere* (August. *De vera et falsa paenitentia*). «Anhitz enganutzen ohi du arratsaldeko urrikimenduak, <211> penitencia berantko-
 25 rrak».

Badira zuhaitz batzuk, udaren finean, sasoinetik kanpoan hasten baitira loratzen edo birloratzen. Baina lore hetarik guti lotzen eta itxatxekitzen ohi da; heken fruitutik guti umotzen eta ontzen da; nork nola eztakiela, ihartzen eta iraungitzen ohi dira. Hala dira, bada, bere adinaren finean, eritasunean eta hiltzerakoan, desira
 30 onez bethatzen hasten direnak ere. Orduko desira on hek, nahikunde hek, neguko loreak dira, denbora gaitzekoak, sasoinetik kanpokoak, itxatxeki gabe, fruiturik ekharri gabe, desirkundetari ihartzen eta iraungitzen direnak.

§ 4

142 Errege Faraonek, Israeleko semen ondotik, heken hil nahiz, zihoanean, ikhusirik ezen urak hartzera zeramala, erran zuen: *Fugiamus Israel: Dominus, enim, pugnat pro eis contra nos* (*Exod.* 14). «Dagigun ihes, bihur gaitezin gibelat,
 35

116-7 *ahal daidizuino*: egin ahal dezakezun bitartean (-*gidi*- errokoa).

116-21 *begi*: egin beza.

116-36 *Dagigun*: «egin dezagun, aditz azkarra [hau da, aditz trinkoa] bezala jokatu. Hunako zati

eztaidikegu nahi dugunik. Zeren Jainkoa bere alde dute jende hauk». Abiatu zen, bada, gibelat, eman zioen ihesari, baina alferrik, probetxu gutitan, berant orhoitu zen: hura laster, baina ura lasterrago, han bere lagun guztiekin itho eta hondatu zen. Hala gerthatzen <212> zaie, bada, komunzki heriotzeko orenean bere gaix-takerietarik gibelat bihurtu eta ihes egin nahi dutenei ere. Abiatzen dira, egiten dute zenbait enseiu, baina ez asko; flako dira eta, halatan, atzemaiten eta atrapa-tzen dira. 5

Joab eta Abner, bi kapitain hek, gerla handia erabili zuten elkharren artean. Eta azkenean, ikhusirik Abnerrek gaizki zihoakola, benzutu hurran zela, erran zioen Joab bere kontrastari: *Num usque interneccionem mucro tuus deseuiet?* (2 Reg. 2). 10 «Zer da haur, Joab, kapitain famatua? Zer egin gogo duzu? Akhabatu nahi othe gaituzu? Asko egin duzu, garaitia baduzu, utzkuzu bizia». Orduan ihardetsi zioen Joabek: *Vivit Dominus: si loquutus fuisses mane, recessisset populus*. «Promes emai-ten deratzut ezen, baldin goizean mintzatu bazina, jendea barraiatuko zela, eta en-zuna izanen zinela». Erran bailio bezala: «Eta nola? Egun guztian, orai arteino, ene kontra ibili zara, hartan zeure ahal guztiaz permatu eta enplegatu zara, eta gero orai, arratseon, atrapatu zareneon, gehiago ezin daidizunean, nahi duzu baketu eta adis-kidetu? Bada, ez, ez, berandu duzu, alfer mintzo zara, orai ene aldia da, lehen zurea zen bezala». Huna non duzun klarki pintaturik bekhatore bati, bere mende guztian bekhaturan, Jainkoaren kontra gerlan ibilirik, heriotzeko orenean, <213> ja atrapatu denean, Jainkoarekin gerthatzen zaikana. Halakoari eta halakoei erranen deraue Jainkoak, Abimelek erregeari eta harekin ziren lagunei Isak patriarkak erran zerauena: *Quid venistis ad me hominem, quem odistis et expulistis a vobis?* (Genes. 26). «Zertara ethorri zarete orai enegana, lehen gaitzetsia, alfer etsia eta zeuenganik egotzia erabili duzuen gizon batengana?». 25

Erranen deraue halaber halakoei, ebanjelioko borz birjina ergel hei erran zerauena: *Amen dico vobis; nescio vos* (Matth. 25). «Zoazte hortik, etzaituztet ezagutzen». *Clausa est ianua*. «Hertsi da athea, ezta idekitzerik, berandu duzue». Erranen deraue halakoei: «Zuek, ahala zendutenean, etzenduten ontasunik egin nahi; zergatik, bada, orai, ahalik eztuzuenean, egin behar deratzuet nik zuei?». 30 Finean erranen deraue: «Non dira orainokoan zerbitzatu ditutzuen jaunak eta nabusiak? Erabili ditutzuen bekhatuak eta gaixtakeriak?». *Surgant et opitulentur vobis* (Deut. 32). «Zoazte hetara, eta hek lagun bekizkitzue; eta utz nazazue ni orai ere, orainokoan utzi nauzuen bezala. Zuek lehen egiten zenduten nitzaz irri eta eskarnio; hala bada, aldiz, nik ere orai eginen dut zuetzaz». *Ego quoque in interitu vestro ridebo*. 35

hauetan ere agertzen da: 85, 95, 101, 149, 260, 305, 399» (Villasanteren oh.). Adibide gehia-gore ere badira, beste funtzio batzuekin: ik. 132-3 (V 161), 275-31 (V 321) eta 314-35 (V 367).

117-1 *eztaidikegu*: ezin egin dezakegu (-gidi- errokoa, oraingoan -ke atzizkiarekin).

117-3 *hura laster, baina ura lasterrago*: «Kasu hura ura hitzekin egiten duen jokoari. Gorago 54. zatian, beste bat horrelakoa: *Bahi bai*» (Villasanteren oh.).

143 Hunela erranen deraue, heriotzeko oreneraino bekhatutan ibilirik, oren hartan bere bekhatuak erremediatu nahi dituztenei. Eta <214> arrazoinekin erranen deraue hunela. Zeren orduan bortxaz eta ezinbertzez hartaratzen baitira, eta borxazko ongi egiteak deus guti balio baitu.

5 Halakoek nahi dute, bizi direino deabruaren zerbitzuan egon, eta gero hiltzerakoan Jainkoagana aldatu. Ordea, hura da legearen kontra. Zeren erraiten du legeak, zuhaitz bat bere denbora guztian ondoz eta erroz, zure baratzean edo lurrean egon dena, azkenean bertzeren baratzeran edo lurrera makhurtuagatik, eta ebakitzen dutenean bertzeren lur hartara eroriagatik, zure izanen dela, eta ez eroririk datzaneko
10 lurraren jabearen (*Lege*. «Si plures», in ff. novo, lib. 5). Hala komunzki izanen da, bada, halaber, bizi deino deabruaren zerbitzuan erroak eginik egon dena ere, hiltzen denean, deabruaren, eta ez orduan Jainkoagana makhurtuagatik, Jainkoaren.

Eta nola zuhaitza zutik dagoenean makhurtua dagoen aldera erortzen ohi baita komunzki ebakitzen denean, hala zu ere bizi zareino, norat baitzaude makhurtua,
15 harat eroriko zara hiltzen zarenean. Eztezazula pensa, eztakizula iduri, baldin bizi zareino, sendo eta osasunarekin zabilzaino, ezkererat makhurtua eta alderditua bazaude, eritasunean eta heriotzean eskuinerat jarriko eta xutxenduko zarela. Bizitzeari darraika heriotzea: nola bizi hala hil.

<215> Ur guztiak ilkitzen dira itsasotik. Ordea, guztiarekin ere, ur hetarik batzuk
20 dira gazi, eta bertzeak geza; batzuk gogor, bertzeak bera. Eta arrazoina. Zeren nolako baita lurra zeinetarik iragaiten baita ura, halako gerthatzen baita ura ere. Urak lurraren gozoa eta zaphorea hartzen du. Ura, lurrak ontzen edo gaixtatzen du. Hala bada, heriotzea ere, nola bizitzetik iragaiten baita, bizitzeak ontzen edo gaixtatzen du. Nolako baita ehaiten den ehuna eta oihala, halako izanen da oihalaren albenia
25 eta bazterra ere. Beraz, hunelatan, nolako baita bizitzea, halako izanen da, halaber, bizitzearen bazterra eta akhabatzea ere, zein baita heriotzea. Ongi bizi, ongi hil; gaizki bizi, gaizki hil.

§ 5

144 Gertha diteke Jainkoaren zenbait sekeretuz eta ordenamendu estaliz, ongi eta
30 prestuki bizi izatu dena gaizki hiltzera, azkenean behaztopatzera eta galtzera; untzi anarteraino ongi ibilirik portuan sartzean galtzen dena bezala. Nola, halaber, bere mendean gaizki bizi izatu dena, azken finean erremedia baititeke, ohoin ona egin zen bezala. Baina hunelakorik orainokoa gutitan gerthatu da, eta benturaz ez sekulan gehiago eginen. Komunzki ongi bizitzen <216> dena, ongi hiltzen da; eta gaizki
35 bizitzen dena, gaizki hiltzen da. Haur da bide zabala, erreala, plauna eta segura.

118-3 «*Hartaratzen baitira* eta *hartara baitira*, bata sustantibo verbalaz (*-tzen*) eta bestea deklinazioko kasu direktiboaz (*-ra*) ez dira berdin Axularrentzat. Batak prozesoa ez dagoela erabat egina adierazten du, eta besteak erabat egindakoa dela. Partizipioa, *hartaratu*, ez du sekula erabiltzen Axularrek. Ikus Mitxelena (1974: 116)» (Villasanteren oh.).

118-24 *ehaiten*: «*Eho*. Hala behar du, dirudienez, aditz hunek bere partizipioa, eta ez *AxH*-n eman zen bezala. Ik. Iraizoz (*FLV* 1972: 149)» (Villasanteren oh.). *Eho*-tik *ehaite* eta *erho*-tik *erhaite* (297-37).

Berte guztiak dira bidexkak, bide xidorrak, hertsia, meharrak, malkhorrak eta perilez betheak. *Male mori times, et male vivere non times. Non potest male mori qui bene vixerit* (August., *De disciplina christiana*, libro unico, tom. 9). «Gaizki hiltzearen zara beldur, eta ez gaizki bizitzearen. Bada, ezin hil diteke gaizki, ongi bizi izatu dena». Eta jakiteko, duda guti dela egiteko hunetan, bada seinale bat handia. 5
Zeren batbederak sendo zeino zertan baitzedukan gogo, hartan ohi daduka eta hartaz minzaten ohi da eritasunean eta hiltzerakoan ere; hartan edireiten da ametsetan eta eldarnioetan ere; asko baita aditzera emateko, bizitzen bezala hiltzen ere dela. *Quae seminaverit homo, haec et metet*, dio Jondone Paulok (*Ad Gal.* 6). «Gizonak zer ere ereiten baitu, hura biltzen ere du». Eta galdegiten du S. Mateo 10
ebanjelistak, ezetzko kontuan bezala: *Nunquid colligunt de spinis ubas, aut de tribulis ficus?* (*Matth.* 7). «Othe da nehor, elhorri-arantzetarik mahats, edo saphar-laharretarik fiko biltzen duenik?». Bizi deino gaixakeria banatzen eta ereiten ibili denak, eta gero bere azken finean saindu batek bezala hil uste duenak, elhorri-arantzetarik mahats, saphar-laharretarik fiko, gaixakerietarik ontasun bildu nahi du: 15
ezin datekeien gauza desiratzen du.

145 <217> Bere mende guztian errebelatua ibilirik, heriotzeko orenean, ilhutzen hasterakoan, bide onera eta arthezera bihurtuko dela uste duenak, huts egiten du. Lehen behar da, lehen. Zeren heriotzeko oren hura, oren ilhuna, nahasia eta tormentatsua da. Ezta tormenta kapitainik hanbat egiteko emaiten duenik. Orduan, lehen erraz zena ere, gaitz bihurtzen da. Untzia itsas zabalean, denbora ederrarekin aise erabiltzen da, alde batera eta bertzera errazki lemaz itzultzen eta gobernatzen da. Baina bazterreraz gero, kosta joz gero, ezta gobernatzerik, eta ez nahi bezala manaiatzerik. Denbora klar deino, adin onean eta osasunarekin, untzia itsas zabalean denbora ederrarekin bezala, zeure gogara zabilzaino, eskuei eragiezu, orduan perma zaitzezi. Zeren denbora gaitzak, eritasunaren oinhazeak eta heriotzearen tormentak hartuz gero, kostaraz gero, bizitzearen bazterra, heriotzea, ukituz gero, egin da, mirakuilu izanen da salbatzea. 20
25

Utzazu, beraz, burutik, buruan darabilazun erhokeria hori, egunetik egunera, heriotzeraino luzatuz eta ephe hartuz, orduan erremediatuko zarelako esperantzarekin, anarteraino bekhatutan egoite hori. Zeren badakizu tormenta handiarekin kostan joitera dohan untzi kargatua, eztela peril gabe; aitzitik, galdutzat dadukazu halako untzia. <218> Hala edukazu, bada, halaber, zuk ere galdutzat zeure burua, bekhatuz betherik eta kargaturik heriotzearen kosta joiten duzunean; bethiere gero onduko zarela erraiten duzula; eta bekhatu egiteko gogoan eta borondatean zaudela, zeure azken eritasunak edireiten zaituenean. Zeren hartaraz gero, gutiak dira ongi libratzen direnak, galdu gabe eskapatzen direnak. 30
35

Beraz, hunelatan, orai baituzu osasuna, indar, antze, adimendu eta zeure burua zeure eskuko; orai ezpaitzara oraino eri, eta ez heriotzeko hersturari jarri; orai baitzara libre, eta nahi baduzu ongi, eta gaizki ere, daidikezun denboran. Orain bada, 40

119-8 *eldarnio*: “desvarío, delirio. Ikus Mitxelena (1974: 117)” (Villasanteren oh.).

GERO

- orai, men-menean jarri gabe, sukharra nahasi gabe eta eritasuna jaundu gabe, egin-tzatzu gero egin gogo ditutzun ongiak eta deskarguak. Eta *orai* diot. Zeren, nola orai egiten duzun guztia, eritu gabe, heriotzeko hersturan jarri gabe eta nehork bortxatu gabe, libreki eta borondatez egiten baituzu, hura izanen da gauza handia, estimatua,
- 5 indartsua, botheretsua, baliosa, Jainkoari eder izanen zaikana, eta merezient azken finean zeruko loriaren erdiesteko.

146 Erraiten du Espiritu Sainduak: *Ignem ardentem extinguit aqua, et eleemosyna resistit peccatis* (*Eccles.* 3). «Urak iraungitzen du sua, eta erremusinak egiten deraue bekhatuei kontra». Urak sua bezala, erremusinak iraungitzen du bekhatua. Halaber erraiten du San Mateok: *Beati misericordes, quoniam ipsi misericordiam consequentur* (*Matth.* 5). «Dohatsu dira miseri-kordiosak, zeren hek erdietsiko dute miseri-kordia». Hunen arauaz erraiten du errege Dabitek ere: *Beatus qui intelligit super egenum et pauperem; in die mala liberabit eum Dominus* (*Psal.* 40). «Dohatsu da, beharraren eta probearen gainean enplegatzen dena. Zeren hura, egun gaitzean, heriotzeko orenean begiratuko eta libratuko du Jainkoak». Eta badio oraino Espiritu Sainduak: *Conclude eleemosynam in sinu pauperis, et haec pro te exorabit ab omni malo* (*Eccles.* 29). «Gordezazu erremusina probearen golkhoan, eta hark eginen dio Jainkoari othoitz, gaitz guztietarik begira zaitzala». Finean, hanbat gauza erraiten <220> da erremusinaz, non baitirudi ezen, batbederaren salbatzeko eta arimaren seguratzeko, asko izanen dela, bertze gauzarik gabe, bihotzbera eta erremusinalari izaita. Zeren handia baita erremusinaren indarra eta botherea.

Egia da, hala da, handia da, eta Glosak dioen bezala, San Agustinganik atherarik: *Sola misericordia comes est defunctorum* (*Glosa Lyrana* in ca. 29 *Eccles.*). Misericordia bera da, eta ez bertzerik, defuntuak konpainiatzen dituen, arima joanei laguntzen zaiena; erremusinak edukitzen du bethiere on.

Ordea, eztuzu, ez, pensatu behar erremusinak berak, sakramendu batek bezala, *ex opere operato*, bere indarrez eta botherez bekhatua iraungitzen eta barkhatzen duela. Eztu berak hartarakotzat indarrak asko (*Vide S. Thom.* 2.2, qu. 154, ar. 2 ad 7).

147 Alde batetik, duzun guztia probei emanagatik, baldin bertzetik, bekhatutan bazaude eta hetan finatzen bazara, deus guti baliatuko zaitzu zeure erremusina eta miseri-kordios izaita. Hala erraiten du Jondone Paulok: *Et si distribuero in cibos pauperum omnes facultates meas, et tradidero corpus meum, ita ut ardeam charitatem, autem, non habuero, nihil mihi prodest* (*1 Cor.* 13). «Dudan guztia probei eman

badiazet ere, eta neure burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik <221> ezpadut». Erran nahi du erremusinak eta bertze obra miserikordiazkoak ere, deus guti probetxatzen zaitzala bekhatutan dagoenari.

Ordea, guztiarekin ere, anhitz eta handiak dira erremusinari emaiten zaitzan ohoreak, laudorioak eta abantailak. Eta arrazoinekin eta mereziturik emaiten zaitza. Zeren erremusinak berak indarrrik asko ezpadu ere bekhatutik atheratzeko, bai ordea, badu athera arazitzeko. Zeren badirudi ezen Jainkoak bere ontasunagatik, hartzeko duela okhasino, miserikordios denari, zeren miserikordios den, miserikordia egiteko. Zure erremusinak, zure bihotzberatasunak beratzen eta hautsten dio Jainkoari bihotza, eta emaiten okhasino zure faboratzeko. Zu miserikordios izaitez gaitzen zara, dispoziotionean jartzen eta prestatzen, Jainkoaganik miserikordia erdiesteko eta errezihibitzeko: eta Jainkoa ere hartzaz iratzartzen eta ernatzen bezala da, zuri ongi egiteko eta bere garaziaren emaiteko. Hunetakotzat, egia hunen frogatzeko, anhitz exenplo ediren ahal diteke, baina nik orai presenteon ez tüt bat baizen ekharriko. Bonifazio martira denbora batez ibili zen emazte eder noble aberats batekin galdua, eta haragizko bekhatuan barrena sarthua. Eta bazuen Bonifazio hark bertzerik ere anhitz <222> bekhatu: edale zen, jokari zen, arnegari zen, halakoak ohi diren bezala. Gauza bat zuen ona. Bihotzbera zen, erremusinalari zen. Alde batetik bekhatu anhitz egiten bazuen, bertzetik probeak faboratzen zituen. Eta halatan, bera ere Jainkoak faboratu zuen, bihotzean utkitu zuen, inspirazino saindu batzuk, gogoeta on batzuk eman zerautzan. Eta gero hekin batean konbertitu zen, aitzinerat obra onetan enplegatu zen, eta azkenean martir hiltzen. Iklusazu zer egiten edo eragiten duen erremusinak, miserikordios eta urrikalmendutsu izaitezak. Hain zaika eder Jainkoari urrikalmendua, eta beharrari ongi egitea, non berari ere handik urrikaltzen baitzaika ongi egile hura, eta lehen edo gero erakusten baitio, eta emaiten bide onean jartzeko bidea. Bonifaziori eman eta erakutsi zioen bezala.

148 Esportza gaitezin, beraz, eta enseia, miserikordios eta erremusinalari izaitera; zeren anhitz baitira, eta handiak, handik eta hartarik sortzen diren probetxuak, ontasunak eta irabaziak.

Eta bertze anhitzen artean hirur dira erremusinaren probetxu prinzipalak (*Eleemosyna est meritoria, satisfactoria et impetratoria*). Lehenbizikoa: *Eleemosyna est meritoria gloriae et augmenti gratiae, si fiat ab homine existente in gratia et propter Deum*. Bekhatu rik gabe dagoela, Jainkoagatik egiten den erremusinak merezitzen du <223> zeruko loria, eta berretzen Jainkoaren garazia. Bigarren probetxua da: *Eleemosyna est satisfactoria pro poenis peccatorum dimissorum*. Erremusinak satisfatzen eta pagatzen ditu bekhatu barkhatuen pena tenporalak, guztiak edo parte bat, hemen edo purgatorioetan pagatu behar zirenak. Eta haur da Eskritura Sainduak erraiten duena: *Peccata tua eleemosinis redime*. Hirugarrena: *Eleemosyna est impetratoria*. Erremusinak anhitz ontasun erdiesten du Jainkoaganik. *Beati misericordes, quoniam ipsi misericordiam consequuntur (Matth. 5)*. «Dohatsu dira miserikordiosak. Zeren hek erdietsiko dute miserikordia». Eta hala, zure erremusinak berretzen du zeruko loria, eta handitzen Jainkoaren garazia; gutitzen du purga-

torioetako pena; eta erdiesten du Jainkoaganik anhitz fabore eta ontasun. Jakin dezagun ezen erremusinagileari, bihotzbera eta miserikordios denari, eginen zaikala miserikordia. Eta zer ere emaiten baitiogu orai hemen probeari, edo bertze obra onetan enplegatzen baitugu, hura gero edineren dugula bertze munduan, eta ez bertzerik.

§ 1

5

149 Jakin dezagun, eztiogula probeari liskarrik edo eranzuterik egin behar, eta ez gaizkirik erran. Baldin emaiteko gaietan bagara, <224> edo debozinorik badugu, eman diazogun, eta gainerakoan utz dezagun. Zeren probea, ongien dena ere, onbehar da eta urrikalkizun. Biluz da, orthuz da; eztu aldatzeko athorarik, eta ez etzateko oherik; eztaki othuruntza on baten berririk. Asko du bere lazeria, eskasia eta miseria. Beraz, etzaika halakoari liskarrik, eranzuterik edo mehatxurik egin behar. Zeren hala egiteaz, batean ezpada bertzean, periletan jar zindezke huts egiteko; eta probearen, bere probetasunaren gainera, bere gogoan eta bihotzean zaurtua, gaizkoatua eta tristetua igortzeko. Eztut uste galdeginen derakula Jainkoak, ea probe onari ala gaixtoari eman diogunz, eman diogunz baizen. Dagigun ongi, eta eztezagula beha nori. 10

Aberatsak bezala, probeak ere Jainkoak eginak dira. Aberatsa hain biluzgorri sorthu zen, nola probea. Eta Jainkoak nahi izan balu, egin zukeien probea aberats, eta bai aberatsa ere probe. Eta hala, orai ere anhitzetan heken zorthea eta fortuna trukatzan du, probeak aberatsten eta aberatsak probetzen baititu. 20

Probeak pairatuz, pazientzia izanez eta bere ongi egilez othoitz eginez behar du salbatu; eta bai aberatsak ere, bere onetarik probeari <225> emanez eta partituz. Eta ongi gehiago egiten deraku probeak guri, eskatzeaz eta gureganik errezibitzeaz, guk hari emaitiaz egiten diogun baino. Zeren guk hari labore poxin bat, kornadu bat, edo hunelako zenbait bertze gauza aphur emaiten diogu, baina guk handik zeruko loria irabazten dugu. 25

Are gehiago, probeari emaitiaz geure deskargua egiten dugu. Zeren Jainkoak orai emaiten derauzkigun onak eta onhasunak, hetarik geure mainadaren mantentzeko eta estatuaren edukitzeko behar duguna hartu, eta ethorkizuneko kasuetako ere zerbait gelditu, eta gainerakoak probe beharrenak dira. 30

150 Eztu, ez, Jainkoak utzi probeak mundu hunetan haberik eta sostengurik gabe: aberatsen gomendioan utzitu. Eta halatan, emaiten deraue aberatsei beretzat behar duten baino gehiago, gehiagoko hura probetara parti dezaten amoreakgatik. Eta handik, erraiten du San Krisostomok: *Nam, si pauperes esse permisit, etiam hoc divitum gratia factum est, ut per eleemosynam peccata possint abluere* (Chrys. *Hom. 77 in cap. 15 Ioan.*, tom. 3). Permititzen du Jainkoak munduan diren probeak, 35

123-30 «Badirudi gizadiaren eboluzioaz alda daitezkeen eta aldatzen diren egoerak, Jainkoak absolutoki nahi izandakoak bezala hartzen direla hemen» (Villasanteren oh.).

123-31 *Eztu*: ez ditu (Lekuonaren oh.).

5 hei ongi eginez salba ditezin aberatsak. Eta Jainkoaren ontasuna eta liberaltasuna hain da handi, non orai zuk dituzun on horiek Jainkoarenak berarenak eta Jainkoak emanak dituzularik, guztiarekin ere, zuk horietarik probeari emaiten <226> diozunean, zeuretarik emaiten baitzinio bezanbat estimatzen baitu Jainkoak. Eta are handik bere burua zure alderakotzat zordun erakusten du; hain zordun, ezen erraiten baitu Spiritu Sainduak: *Faeneratur Domino, qui miseretur pauperis* (Prov. 19). Probeari emaiten dioenak, Jainkoari emaiten dio. Eta emaiten ere, nola? *Faeneratur*. Zensuan, interesean, irabazian, obliga arazirik bezala prinzipala irabaziarekin bihurtuko dioela. Eta hemengo irabazia ttipi da, ezta seguraturik ehuneko bat ere, 10 baina Jainkoarena handi da, gehiago da ehuneko ehun baino.

Zer nahizu gehiago? Probeari emaiten diozunean Jainkoaren izenean, berari emaiten baitzinio bezanbat estimatzen du Jainkoak: hain ezertan edukitzen du.

15 Eta haur ezta miretsteko, zeren orai hemen gure artean ere, ikhusten dugunean ezen gizon batek gure ahaide edo adiskide bati egiten dioela gure amoreakgatik zenbait ongi, guk ere lehenbiziko okhasinoan errendatzen derautzagu eskerrak gizon hari; bitartean eztugu onik, anarteraino geure buruak zordun dadutzagu.

Zer eginen deraue, bada, Jainkoak, haren amoreakgatik probeak faboratzen dituztenei? Zer esker, zer pagamendu emanen deraue?

20 **151** Jondone Marthiek bere kaparen erdia probeari eman zioenean, abiatu zen Jainkoa gau <227> hartan berean, kapa hartaz estalirik, erraiten zuela sendagailaz: *Martinus hac me veste contexit*. «Ikhusazue, ikhusazue zer balentia egin duen Martinek, nola kapa hunez estali nauen, zer eman derautan».

Bada, Martinek kapa hura probeari eman zioen, eta ez Jainkoari. Ordea, guztiarekin ere, Jainkoak, zeren haren izenean eman zioen, erraiten du berari eman zioela.

25 Halatan erranen deraue azken judizioko egunean ere, eskuinekoei dohazila sekulako loriara, ezkerrekoei sekulako penetara. Zeren eskuinekoek gosetu zenean eman baitzioten jatera, eta egarritu zenean edatera. Baina ez ezkerrekoei.

30 «Eta, Jauna, —galdeginen diote orduan guztiek—: noiz ediren zinitugun guk zu gose edo egarri?». Ihardetsiko deraue: «Probeak athera ethorri zeizkitzuenen. Orduan heken lekhuhan ni nintzen han».

35 Eta hala, probea eskatzen zaitzunean, kontu egizu ezen probe hura dela Jainkoa bera, zeren haren izenean eskatzen zaitzu, haren izenean emaiten diozu, eta Jainkoak ere berari emaiten baitzinio bezanbat estimatzen du. Hala erraiten du San Krisostomok: *Nihil, nempe, interest sive huic pauperi, sive ipsi Christo dederis* (Chrys. Hom. 89 in capite. 27 Math., tom. 2). Ezta antsia, ala probeari, ala Jesu Kristo berari eman, eztu batek baino bertzeak gehiago monta, eta ez balio: guztia da orobat.

124-19 «*Marthie* eta *Martin*, bi formak ageri dira *Gero*-n. *Marthie*-k badu euskeraren kondairan beste lekukotasunik ere bere alde. Ikus Mitxelena (1974: 109)» (Villasanteren oh.). Ez dira bat: hemengo hau (*Jondone Marthie*, alegia) sailduaren izena da, eta *Martin* pertsonaren izena (124-22 eta 23), *Jondone Petri* (*passim*) baina *Pierres Damiano* (135-7) bezalaxe (cf. Mitxelena & Irigaray 1955: 415-416).

<228> Eta are San Krisostomok berak, aitzinetik abisaturik eztadila nehor hargatik asalda, erraiten du: *Nemo his verbis turbetur. Non est aequale ipsum Dominum praesentem alere, cuius praesentia vel lapideum ad se animum attraheret, et propter eius verba dumtaxat, pauperes, mendicos, aegrotos alere atque curare* (Chrys. ubi supra). Ezta berdin, baina aldez gehiago da eta merituago, probeari Jainkoaren izenean emaita, Jainkoari berari bere presunan baino. Zeren presunak berak eta presunaren presentziak hobeki ukitzen du batbedera, presuna haren beraren presentean ezteneko erranak eta manuak baino. 5

Eta hala, aldez gehiago da, zeren Jainkoak manatzen duen, probeari emaita, Jainkoari berari emaita baino. 10

§ 2

152 Beraz, hunelatan, ezta probearen gabe egotzterik, eta ez athean oihuz edukitzerik ere. Zeren probearen oihuek, eta anhitzetan ere berariaz bere buruaren hebain, maingu, herbal eta eri egiteak, gure bihotzaren gogortasuna eta hotzetasuna akhusatzen dute.

Gu bagina emaitera prest, erne eta bolondres, ez lezake probeak halako pensurik egin eta ez arterik bilha. Baldin probea bada maliziati, bere beharrez eta gure faltaz da maliziati: hark baino, guk hartan falta gehiago dugu, bere bizitzearen atheratzeko <229> hanbat enseiuren egitera behartzen baitugu. Hala erraiten du San Krisostomok: *Nam, si simulat, ex necessitate simulat et egestate, propter saevitatem et inhumanitatem tuam, quae talibus personis supplicantibus ad misericordiam non flectitur* (Chrys. *Hom. 37 ad populum Anthi.*, «De eleemosyna et misericordia», tom. 5). 20

Probeari emanen diozuna, guti edo anhitz, emozu berehala. Baldin doiez bazara, guti baduzu, emozu guti: eta baldin aberats bazara, gainez egina bazaude, emozu anhitz.

153 Jerusalemeko tenploaren egitean, eta eginez gero ere, bazebilan obraren eskea; eta bazen athearen aldean ere kutxa bat, erremusinaren edukitzeko untzi bat; hartan batbederak debozino zuenaren emaiteko, orai ere gure elizetan, kruzifikaren aldean, dagoen bezala. 25

Bada tenploko kutxa, untzi edo kopa hartan —zein juduek deitzen baitzuten *gazophislatium*— aberatsek emaiten zuten anhitz, batak hamar, bertzeak hogoi, batbederak bere izanaren, ahalaren eta debozinoaren arauaz. Eta heken artean ediren zen emazte probetto bat, eta hark eman zituen bi kornadu. 30

Eta gero haren ganean erran zuen gure Salbatzaileak, gehiago eman zuela emazte probe hark, aberats guztiek baino. Zeren emazte hark beretzat behar zuenetik eman baitzuen, baina aberatsei, emanak emanik ere, franko gelditu baitzeien. Emazu, beraz, duzunaren arauaz. Zeren hartaz kontentatzen da <230> Jainkoa; baldin ezpaduzu emaitekorik, euzu damu, zeren eztuzun; eta damu harekin batean, euzu borondate, baldin bazendu emaiteko. 35

125-37 euzu: «izan ezazu» (Villasanteren oh.). **edun*-en agintera (**e(d)uzu*).

Zeren Jainkoak behatzen badu ere emaitzara, ordea, areago borondatera. Eztuenak borondateaz konplitzen du, baina duenak, borondatearekin batean behar du konplitu eta obratu.

5 Eta obratu ere nola? Ez edergailu, ez banaloriaz, eta ez munduagatik, baina Jainkoagatik.

 Eta halarik ere, sekeretuki, ahalik eta ixilkiena, eskuinak emaiten duena (ebanjelioak dioen bezala), ezkerak jakiten eztuela.

154 Eta are, albaliz, erremusina errezibitzen duenak ere, ez luke jakin behar, non-dik heldu zaikan ontasun hura. Zeren halatan Jainkoak berak azken egunean guztiak, zure ohore handitan, mundu guztiaren aitzinean agertuko eta kanpatukoitu. 10 Eta zuk ere orduan, orai duzun desira, nahi baitzenduke zure erremusinak eta egiten dituzten bertze obra onak munduak jakin litzan, konplituko duzu. Zeren orduan guztiak jakinen eta agertuko baitira.

 Eta ezta, ez, asko, eske ethortzen zaitzun probeari emaita, eta ez bertzeri. 15 Baina, Jainkoak emanik, gehiagoren ere ahala <231> duzunaz geroz, behar duzu informatu, galdetu eta jakin, ea nor den herrian probe beharrik, gosez denik, sabel-uzkur dabilanik, ahalkez eskatzera ausartzen eztenik.

 Eta guztien buruan eduki behar duzu kontu, ea badenz probe eririk. Zeren probetasuna eta eritasuna, bi eritasun dira. Halakoak dira alde guztiz onbehar, on-dikozko eta urrikalkizun. Heken faboratzea da meritu handia, eta zeruko loriaren erdiesteko, eta are mundu hunetan dituzten onen ere seguratzeko, berretzeko eta emendatzeko bide ona, zabala eta segura. 20

§ 3

155 Batzuek uste dute, ezen probeari emaitiaz probetuko direla; eta halatan, erraiten deraueza eske ethortzen zaitzenei, ebanjelioko bortz birjinek bere lagunei bezala: *Ne forte non sufficiat nobis et vobis, ite potius ad vendentes* (Math. 25). «Zoazte hortik, Jainkoa lagun dakizuela; emaita gutitzeintu gauzak, eztugu geuretzat ere sobera». 25

 Eztute konsideratzen probeari emaita, ez probetzen, baina aberatsten, ez gutitzen, baina berretzen duela.

<232> Hala emaiten du aditzera Spiritu Sainduak: *Qui dat pauperi, non indigebit; qui despicit deprecantem, sustinebit penuriam* (Prov. 28). Beharrari emaita, ezta beharrean jarriko; emaita eztena, azkenean behar izanen da. 30

 Gehiago dio Spiritu Sainduak: *Alii dividunt propria, et ditiores fiunt; alii rapiunt aliena, et semper sunt in egestate* (Prov. 11). Batzuek bere onak partitzen eta emaiten dituzte, eta guztiarekin ere, bethi dira aberats; eta berriz, bertze batzuek, 35 nola bereak emanen dituzten, ezen bertzerenak ebatsten dituzte eta, halarik ere, bethi dira errumes, noharroin eta onbehar; baitirudi ezen hek hartuz probetzen, eta bertzeak emanez aberatsten direla.

126-25 *deraeuza*: diete. Ik. 177-21. testu-oharra.

156 Amak haurrari dithiaren emaita bezala da probeari emaita ere. Ama haurrari dithiaren emaitiaz esnatzen da, ez emaitiaz anzutzen da. Halaber, ereitea bezala da probeari emaita: *Euntes ibant et flebant mittentes semina sua; venientes, autem, venient cum exultatione, portantes manipulos suos (Psal. 125)*. Bihika ereiten zuten, eta eskumenka biltzen. Ereiten bihi bakhotxak, eta biltzen buru betheak, botean hirur-laurak zituztenak. 5

Halaber, badira ur putzuak, berariaz eginak, zimenduan ithurria baitute. Bada, gauza frogatua da, putzu hetarik urik ez atheraagatik ere, eztela, erraitekorik, ura handitzenago; eta ez, atheraagatik ere, ongi atheratzera, <233> ttipitzenago. Zeren atheratzen bezanbat sortzen baita. Hala dira, bada, beharrei emaitak ere: emaiten duten bezanbat emaiten zaie. Eta emaiten ezpadute, bihotz gogor badira, eztira hartatik aberatstenago, probetzenago baizen. Zeren haserretzen da Jainkoa, berak emanetarik eman nahi eztiozuean. 10

Hala haserretu zen aberats abariziosaren kontra. Zeren aberats hartzaz erraiten badu ere ebanjelioak: *Induebatur purpura et bysso, et epulabatur quotidie splendide (Luc. 16)*, beztitzen zela ongi eta othuruntzatzen hobeki, ezin erran ditekete, ordea, hartatik joan zela ifernura. Zeren ederki beztiturik ibiltzea, eta mahai onaren ere edukitzea, badirudi eztela bekhatu handi, behintzat munduak eztaduka hala. Bada, ebanjelioak eztu erraiten bertze faltarik zuela aberats hark. 15

Zergatik, bada, kondenatu zen? Aditzen da kondenatu zela, zeren etxathera eske ethorri zeikan probe gose premian zegoenari, ezpaitzioen bere mahai asetik asetzekorik eman, eta ez are elikatzekorik ere. 20

Handik bere burua eta onak ere galdu zituen. Handik probetu zen, eta hain probetu non, azkenean, bere mihiaren hezatzeko eta freskatzeko, ur-xorta bat ere ezin izanezko probetasunera ethorri baitzen. 25

Nola egiten baitu galtzaperen eta beheartzaperen handia, probeari gibela emaiten dioenak, <234> hala egiten du goratzaperen miragarria, probe beharri bere behararren estaltzeko emaiten dioenak.

Eta goratzaperen hura, eta handik heldu den irabazia galtzen du bihotz gogorak, erremusina egiteko gogorik eztuenak. 30

Eta egiteko gogo duenak ere, baldin berak bere eskuz bizi deino egiten ezpadu, segur da, irabazi haren parte handi bat, edo parterik gehiena galtzen duela, hunen ondoko kapituluaren ageriko den bezala.

127-2 *esnatzen da: «esnedun bihurtzen da» (Villasanteren oh.).*

127-9 *eta ez, atheraagatik...: eta ez ttipitzenago, ateragatik ere, ongi ateratzen bada.*



*Nola erremusinak, eta bertze obra on borondatezkoak ere, zerorrek zeure eskuz,
edo bertzerenez, zerori bizi zarela, ondokoetara utzi
gabe egin behar ditutzun*

KAP. XVII

157 Gauza segura da, eta batere dudarik eztena, probetxuago eta merituago izanen duzula, orai zerorrek, bizi zarela eta osasuna duzula, zeure eskuz probeari emaiten diozunaz, ezen ez gero hiltzerakoan ordenatzen diozunaz. Ordea, zuk oraino eta geroko, franko duzularik, orai ez bat ere, baina gero, biziaz etsitu duzunean, egin gogoitutzu <235> liberaltasun handiak. Aberats zara, on handiak ditutzu, eta baduzu bai borondate, on horietarik probetara partitzeko. 5
10

Ordea, noiz? Gero, hiltzerakoan. Bitartean erraiten duzu: «Neure onak neurk nahi ditut gozatu eta manaiatu, eztut oraino gabetu nahi; eztut ohera gabe biluzi nahi. Baina gero, neure azken ordenuan eta testamentean, manatuko dut neure ondokoa, neure onekin utziko dudana, egin ditzala ene deskargu guztiak. Eta are gehiago, abisatuko dut suma bat, seinalatuko baitiot suma hura probetara parti dezala. Eta benturan purgatorioetaraten banaiz ere (zeren gaixtoeneko kontuan guztiok purgatorioetara uste dugu), berehala handik atheratzeko hunenbat meza eta trentena eman arazi diatzadala, eta bertzerik ere anhitz obra on ene izenean ene onetarik dagiela». 15

Hunela diozu eginen duzula. Zure ongi guztiak bertzek, zure ondokoak, eta zeurk ez bat ere. 20

Bada, etzatekeien hobe, obra on horion guztion zerorrek, bizi zinela, zeure eskuz egitea, eta horien bidez purgatorioetara joan gabe egoitea, ezen ez gero haratzen zareneko erremedioen egitea? Preso zareneko erremedioak bilhatzeintuzu, eta ez preso sartetik begiratzekoak.

158 Are gehiago, erremusinen eta bertze obra <236> onen ondokoetara utzteaz, emaiten duzu aditzera gibeletik eta urruititik nahi duzula argi diazazuten. Zer zenerrake, baldin gau ilhunean, pausu hertsu, gaitz, perilos batean iragan behar duenak, 25

129-17 *trentena*: Hildakoaren mesedetan bata bestearen ondoan esanarazten diren 30 mezak.
129-17/18 *diatzadala*: diezazkidala.

erran baliaze bere muthilei, daudela gibelat, eta gibeletik eta urruititik dagiotela argi? Hala dira, bada, bere erremusina eta bertze obra miserikordiazkoak bereek bere eskuz egin ahal ditzaketelarik, bere ondotik, urruititik eta hilez gero, bertzeren eskuz, bertzeri eragiteko gogo dutenak ere. Hura da, hurran-hurran erran komuna den bezala: Usoak joan, sareak hedat.

5 Eta badio San Basiliok ere: *Nemo post vitam, pietatis laudem, praemium ne capiet*. Eztu nehork hil ondoko erremusinaz erremusinalari izan delako laudoriorik izanzen. Hobeki zeneidike, eta segurkiago joka zindezke, baldin gero bertzeren eskuz egin gogo duzuna, orai zeurez, zeurk ikhusten duzula egin bazeneza. Zeren
10 oraino San Basiliok dioen bezala: *Quis exitus tui tempus nuntiabit? Quis de mortis genere sponsor? Quot vides repentino ac vi casuve extingui, qui prae doloris et spiritus angustia, ne vocem quidem emittere potuerunt? Quot etiam febris, a sensu alienos fecit? Quid, igitur, expectas tempus, in quo, saepe, rationis tuae compos non eris?* (Basil. *orat. 14 de mor. et Homi. 7 in divites avaros*). Zuk baitiozu ezen,
15 hiltzerakoan, zeure on guztiak, edo parte bat, probei ordenatuko <237> derauztezula, orduan ongi handiak eginen ditutzula. Erradazu, nondik jakinen duzu, edo nork abisatuko zaitu noiz edo zer moldez hilen zaren? Nor duzu hartako fiadore? Zenbat ikhusten ditugu ustekabeen, laburzki, kolpez edo estropuz, mintzatu ere gabe, finatzen direla? Eta bai, halaber, sukharra nahasirik, bere testamentak hasi, eta akhabatu gabe gelditzen direla? Zergatik, bada, nahi duzu zuk ere, benturaz zeure adimenduan egonen etzaren denborako, eta astirik ere izanzen eztuzuneko, zeure egitekoa eduki eta luzatu?

§ 1

25 **159** Goazin aitzinago. Oraino orduan, hiltzerako aitzinean, adimendu, memoria eta asti bazendu ere, erran nezake zure orduko erremusinak deus guti balio duela. Zeren baitirudi ezen bortxazkoa dela, eta ez borondatezkoa; guztiz ere, lehen ahal zeneidikeielarik, berariaz anarteraino luzatu duzunean. Zeren orai zeure onak eztitutzu gutitu nahi, ezin delibera dezakezu hartara; bada badirudi ezen gero ere, hil uste ezpazendu, etzenezakeiela delibera, eta ez hetarik eman.

30 Are gehiago, zure orduko, azken oreneko onen emaita eta errepartitze hark, badirudi deus guti balio duela zuretzat. <238> Zeren zure onetarik eta zure ize-
nean egiten bada ere errepartitze hura, ordea, anhitzetan ere ezpaituzu zeurk egiten. Herioa hurbiltzen zaitzunean, nola athaka hertsian eta pausu gaitzean iragan behar baituzu, eta bitarteko doloreak ere handiak baitira, orduan zeure onez kontu
35 guti egiten duzu: zeren handiagoak ahantz arazitzen baiterauzkitzu. Orduan zeure ondokoei eta han presentean edireiten direnei, zer ere nahi baitute, eta nola behar dela ikhusiko baitute, hala dagitela utzten derauezu. Hain nekez eta penaz bildu

130-20 «*Zulzeure*: Pertson kideasuna aditzera emateko erabiltzen du Axularrek posesibo azkarra [hau da, p. indartua]. Ikus Larresoro, *Sustrai Bila*, 75. *Gero*-ren beste zati batzuk puntu hau aztertzeo balio dezaketanak: 157, 224, 225, 286, 312 360» (Villasanteren oh.). Hau da, adibidez, *zuk zeure*, baina *nik zure* (ik. orain Sarasola 1980).

zinituen onak eta onhasunak, eta hain zuhurtki eta maiteki begiratzen zinituenak, gero hain laxoki eta antsikabeki largatzeintuzu; lehen zein hertsu eta itxekin baitzinen, gero hain franko eta liberal egiten zara. Orduan nork zer erraiten baiteratzu, hura laudatzen duzu; eta anhitzetan ere, zer erraiten duzun eztaizula, baietz erraiten duzu. Neure mendean anhitza ikhusi dut halakorik. Eta hala, badi-rudi ezen, orduan egiten duzun guztia bertzek egiten duela, eta ez zuk. Ikhusazu, bada, ea zer probetxu eta merezimendu ahal dukezun, bertzek egiten duen ongi-az. Arrazoinekin erraiten du Spiritu Sainduak: *Ante mortem benefac amico tuo, et secundum vires tuas exporrigen da pauperi* (*Ecclesi.* 14). «Heriotzera baino lehen egiozu ongi zeure adiskideari, eta duzun indarraren arauaz <239> heda iazozu zeure eskua probeari».

160 Egun batez egin zioen othoitz Santa Luziak bere amari, gero egin gogo zuena, geroko begira egon gabe, egun beretik egin zezala, eritasunaren eta heriotzearen hersturan jarri gabe, sendo zela berak bere eskuz bere onak probei parti ziatzela. Baina ihardetsi zioen amak, orai usatzen den bezala: «Ene alaba, igurikazu oraino aphur bat, ni zahartu naiz, sarri hilen naiz, eta orduan guztiak zerorri geldituko baitzaizkitzu, zerrorek eginen duzu plazer duzuna».

Errepuesta haur bere amak eman zeraukanean, lehiatu zeikan berriz alaba, erraiten zioela: *Non est admodum gratum, o mater, Deo munus, quod qui offert, ideo offert, quia illius usum suprema interdicit dies* (Suri. tom. 10, die 13 septem., in *Vita Stae. Lucis*). «Ene ama maitea, badirudi ezen etzaikala Jainkoari eder eta ez plazent, presunak berak ezin goza dezakeien gauzaren emaita eta presentatzea». *Da dum sana es; ne, si moriens dederis, invita dedisse arguaris.* «Emazu beraz, ama, sendo zarela, eztiagizuten eranzute, edo erran eztiiazazuten, hiltzerakoan emaiten duzuna bortxaz emaiten duzula».

Arrazoin hauk aditu zituenean amak, egin zuen alabak nahi zuen guztia: eta berehala, geroko begira egon gabe, berak bere eskuz partitu zituen bere onak probetara. <240> Orai hemen benturaz erranen du zenbaitek: «Beraz, hunelatan, eriek bere eritasunetan eta azken ordenuetan egiten dituzten legatek, emaitzek, eskentzek, erremusinek eta bertze obra miserikordiazkoek eztute deus balio».

161 Bada, ordea, ordukoek ere balio dute. Ordea, lehenekoek gehiago. Hala erraiten du San Krisostomok: *Melius quidem fuerit, multumque afferens fiducia, dum adhuc vivis, paupertati egentium succurrere. Si, vero, istud nolueris vel moriendo generosum quid facias; id enim, licet non multum habeat dilectionis, aliqua tamen est dilectio* (Chry., *Hom. 10 in cap. 81 ad Doma.*, tom. 4). Hobeago, merituago eta bihotz esportzagariago bazatekeien ere, zerorrek zeure eskuz bizi zinela eta sendo zinela probearen faboratzea; ordea, guztiarekin ere, lehen faltatu baduzu ere, eztezazula hiltzerakoan bedere falta: egizu orduan zenbait liberaltasun. Zeren orduan

131-24 *eztiagizuten*: egin ez diezazuten.

egiten denak ere, ez anhitz, baina zerbait balioko du. Jainkoaz orhoitzen zarela aditzera emanen du. Gehienik osasuna duguino eta geure eskuz; baina gero, ondotik ere eta bertzeren eskuz ere, dagigun ahal dagiguna. Mundu haur bidezkoen ostatua da, iragaitzaz gara hemen.

- 5 Gure sekulako ostatua, herria eta etxea, bertze munduan da. Eta nehork bere herrira, eta bethiereko behar duen etxera igortzen ohi du aitzinetik ahal dagiena, eta bai gero deus gelditzen bazaika, bera dohanean, berekin ere eramaiten.

<241> Hala egin behar dugu, bada, guk ere. Orai sendo gareino gehienik, baina gero eritasunean eta hiltzerakoan ere, egin behar dugu ahal dagiguna. Igor dezagun

- 10 aitzinetik, eta daramagun geurekin ere.

Baina erremusinak, eta bertze obra on miserikordiazkoak eta borondatezkoak utzirik, zeren ezpaita hetan hanbat peril, mintza gaitezin hurreneko kapituluan obra justiziazkoez eta obligazinozkoez, eta dakusagun nola guztien gainetik heken geure eskuz egitera, ondokoetara utzi gabe, garen obligatu.

Nola obra obligazinozkoak, konzientziaz zor ditutzunak, ondokoetara utzi gabe, zerorrek egin behar ditutzun

KAP. XVIII

162 Baldin obra miseriakordiazkoak, nola baitira probeen faboratzea, biluzen beztitzea, gose eta egarri denari jatera eta edatera emaitea, batbederak, berak bere eskuz, bizi dela, irabazi handirik egitekotz, egin behar baditu: zenbatenaz berak bere eskuz, ondokoetara utzi gabe, egin beharkoitu obra obligazinozkoak, justiziazkoak <242> eta konzientziaz zor dituenak, nola baitira ebatsien bihurtzea, zorren pagatzea, erauzi dituen falso testimonioen satisfatzea eta eragin dituen kalten eta gaixakerien erremediatzea? 5 10

Baldin obra miseriakordiazkoak zerorrek zeure eskuz egiten ezpadituzu, eta ez bertzeri ere eragiten, egia da, eztuzu orduan merezimendurik izanen, baina ez bekhatu mortalik ere. Zeren obra miseriakordiazkoak, hargatik deitzen dira miseriakordiazkoak, eta ez justiziazkoak, zeren zenbait behar ordu herstutan eta premia-kotan baizen, ezpaikara obligatu heken egitera. Baina obra justiziazkoetan diferentki mintzatu behar dugu. Zeren heken konplitzera obligatu gara bekhatu mortalen penan. 15

Eta eztuzu, ez, pensatu behar, ondokoetara utzteaz konplitzen duzula. Ez eta ondoko hei, zertaz paga esleiturik, berezirik eta seinalaturik utzten baderaezu ere. Zeren nola, erran komuna den bezala, otsoak jan baitezake ardi kontatuetarik, hala zure ondokoak ere geldi dezake beretzat, zuk bertzerentzat seinalatuetarik. Eta zertako ibili behar zara seinalatzeketan, eta bertzeri kargu emanketan? Paga ezazu zerorrek, zeurk zor duzunaz geroztik. 20

163 Erranen duzu: «Eztut, ordea, zertaz paga». <243> Baldin ezpaduzu, ezinaz eztu legerik. Orduan etzara obligatu pagatzera, pagatzeko ahala dukezun arteino. Ez eta etzara obligatu pagatzera, baldin hartzekodunak berak kitatzen bazaitu edo barkhatzen baderatzu. Are gehiago, hartzekodunak, ez ezinbertzez edo bortxaz, baina bere nahiz eta borondatez igurikitzen deratzunean, eta emaiten ephe, orduan luza dezakezu pagamendua ephe hartaraino, baina ez gehiago. Paga ahal dezakezula, pagatu gabe jabearen borondatearen kontra onaren edukitzea, bekhatu da. 25 30

Eta haur hain ongi aditzen da zor jakinaz eta aithortuaz, nola gauza ebatsiaz eta ixilik eramanaz. Hain ongi pagatu behar da bata, nola bertzea.

5 Eta ezta, ez, asko, aithorraren emaita, eta ez gero zeure ordenuan eta hiltzerakoan, bihurtzeko eta pagatzeko gogo eta borondate izaitea ere. Baldin ahal badezazu, zerorrek bizi zarela, eta ahalik eta fitetzena pagatu behar duzu zeure zorra, eta bai bihurtu ere gauza ebatsia eta gaizki eramana. Ezta asko ondokoei kargu utzte. Hala emaiten du aditzera doktor Navarrok: *Decedentes e vita, cum possint et non restituunt, sed legant in testamento, non secure decedunt* (Navar. in *Manuali de restitutio*, cap. 17, num. 69). Hiltzerakoan, berek paga ahal dezaketelarik, pagatzen ez dutenek, baina <244> bere 10 testamenteretara, ordeneretara eta ondokoetara utzten dutenek, ez tute ongi egiten, ez tira halakoak bere konzientzietan mundu hunetarik segur partitzen.

15 Gehiago dio doktor Navarrok lekhu berean: *Qui alienum iniuste retinet, et scit, illud se debere, si expectat donec condemnetur per iustitiam, peccat mortaliter*. Zordun dela dakienak, eta justiziaz kondena dezaketen arteino pagatu nahi ez tuenak, bekhatu mortal egiten du.

164 Batzuek bekhatu badaritzate ere gauza ebatsien pagatu gabe edukitzea, ez ordea, eztaritzate bekhatu, zor jakinari eta aithortuari luzatzea.

20 Erraiten dute: «Badakit, eta badaki zor dudala, aithortzen diot, eztiot ukhatzen, eta badut pagatzeko gogo eta borondate». Iduritzen zaitzu ezen baldin aithorra emaiten baduzu, eta pagatzeko gogo baduzu, hainbertzez konplitzen duzula.

25 Baina enganatzen zara. Zeren, bataz, gogo bera ezta asko, eta ez aithorra ere. Zeren zure gogoaz eta aithorraz ere probetxu guti du hartzeko duenak, pagamendurik ez tenean. Eta berriz, bertzea, sendo dela pagamendua egin ahal dezakeielarik, eri arteino egin nahi ez tuenak emaiten du aditzera, baldin eritasunik ezpaliz, eta 30 eritasunak ondorerik ezpalu, kontu guti leidikeiela. Eta <245> hala frogatzen da halakoetan: zeren eritasunetik eskapatzen direnean, iduritzen zaie ezen aldi hartakotz, berriz eri arteino, segur direla, eta kito.

§ 1

30 **165** Nahi duzu zuk ezen, zuk egin behar zenden deskargua eta egin ez tuzuna, zure ondokoak egin dezan. Bada, uste duzu zure dirua edo hazienda zuk zeure ondokoari, zeure zorraren eta obligazionearen pagatzeko utzten diozuna, etzaikala zure ondoko hari ere zuri bezain on, gozo eta eder idurituko? Eztuzu uste? Eztuzu pensatzen, zuk bezala, hark ere bere denboran gozatu nahiko duela? Eta erranen ere bai bere baithan: 35 «Niri neure aitzinekoak utzi derautan hazienda haur, nabaski, gaizki eta bidegabeki beretakotua zuen eta, guztiarekin ere, etzuen satisfatu, eta ez bihurtu, bethi berekin eduki zuen. Bada, ez naiz ni hura baino obligatuago. Egia da, hark, nola haren ondokoa bainaiz, manatzen nau bihur dezadala; hala bada, manatuko dut nik ere neure ondokoa.

134-25 *leidikeiela*: egingo lukeela (-*gidi*- errokoa).

134-30/33 «Galdera-saila, ez *othe* eta ez galderazko beste partikularik gabe» (Villasanteren oh.).

Baina bitartean, ene aitzinekoak bezala, gozatu nahi dut nik ere, eta eduki neure denboran». Ikhusazu nola batak bertzeagana utziz, ezten deskargurik egiten. Eta nola, halaber, handik eta halatan <246> zuk zeure burua galtzen duzun, eta zeure ondokoa ere galtzeko periletan ibentzen duzun. Zeren peril baita, zuk baino gehiago ez tuen hark ere deskargurik eginen. Ha zenbat trentena, zenbat arimakari, zenbat deskargu dagoen egin gabe, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz!

166 Ezta puntu hunetara gaizki heldu Pierres Damiano daritzan doktor batek kontatzen duena. Dio doktor hunek ezen behin gizon saindu batek ikhusi zuela bere espiritu-tuan, ametsetan bezala, ifernuko suaren erdian eskalera bat; eta eskalera haren lehen pausuan eta mailean zegoela konde bat, jaun handi bat. Eta gero ikhusi zituela, halaber, zazpi konde, ethorki berekoak, bata bertzearen ondoan, eskalera hartan berean zeudezila. Zeren bata bertzearen heredero, ondoko eta elkharren onen primu eta jabe izan baitziren. Eta lehenbizikoak gaizki eta bidegabeki beretakotu zuena, eta satisfatu gabe utzi, hala bigarrenak, hirugarrenak, eta zazpigarrenak ere utzi baitzuen, ezpaitzuen batek ere deskargurik egin; eta halatan, guztiak bata bertzeari zerraitzala kondenatu ziren (Petrus D. *Ep. 5*, cap. 8 et refertur a S. Antonino 2 p. *Sum.*, cap. 1, § 5).

Hala gerthatzen da, bada, egungo egunean ere jende batzuen artean. Egiten ditutzu ohoinkeriak, goraturik eta bortxaturik dadutzatzu <247> bertzeren onak; eta zuk, edo eztuzu kasurik egiten, edo utzten ditutzu pagatu gabe zeure ondokoaren esperantzan, eta bai hark ere bertzerenean, eta hala-hala bertzeak ere: eta handik, eta halatan, batak bertzeagana utziz, eta guztiek utziz, utzten dira deskarguak egin gabe. Etzuen hala egiten Zakeo aberats hark, erraiten zuenean: *Ecce, dimidium bonorum meorum do pauperibus; et si aliquem defraudavi, reddo quadruplum* (Luc. 15). «Neure onen erdiak emaiten derauztet probei, eta baldin nehor enganatu badut, bihurtzen dut laur doble». Eztu erraiten *dabo*, emanen dut, ezta geroko mintzo, presentean erraiten du *do*, emaiten dut. Eta baldin deus gaizki eramaitera gerthatu bazait, hura ere neure eskuz, bizi naizela, eritu baino lehen, neure ordeneretara eta ondokoetara utzi gabe, *reddo*, neurk bihurtzen dut. Hala borondatezko obrak, nola obligazinozkoak, berak bere eskuz egiten zituen. Eta hala egin behar ditu, nork ere nahi baitu merezimendu handirik erdietsi, eta bere konzientzia segurki seguratu.

167 Irakurtu izatu dut, ezen behin gizon batek zituela hirur aztore onak eta famatuak. Eta bere azken finean, hetarik bata utzi zuela, zor bat baitzuen, haren pagatzeko; <248> bigarrena, seme bat baitzuen, harendako; eta hirugarrena, arimakari, mezatan enplegatzeko. Eta gero, handik fite, aztore hetarik bata joan baitzen airaturik, eta ez gehiago bihurtu, erran zuen semeak joan zen aztore hura zela haren aitak arimakari utzi zuena. Etzuen erran berarentzat utzi zuena zela. Etzaitzila zeure ondokoaren esperantzan eta hark eginen duen deskarguan fida. Zeren baldin zerorrek bizi zarela zeure arimaz orai konturik egiten ezpaduzu, eta zeurk egin duzun falta zeurk erremediatzen ezpaduzu, eztezazula pensa, eztakizula iduri, gero zure ondotik zure ondokoak, zuk zerorrek baino hobeki eginen duela.

Guztiok nahi dugu salbatu, guztiok nahi dugu joan parabisura, eta guztiok dugu esperantza. Baina esperantza banoa, alferra eta iduriz probetxu gutitakoa du, deskarguak egiteko dituelarik, eta berak egin ahal ditzakeielarik, egin gabe ondokoetara utzten dituenak.

- 5 Bat dugunean, bia nahi ditugu; bia ditugunean, hirur. Ongi edo gaizki, zuzen edo makhur, plazer zaiku hartzea eta berretzea, baina gaitz eta gaitzi gutitzea eta bihurtzea: hartan min hartzen da.

Bada, min hartuko bada ere, bihurtu behar da, satisfatu behar da. Eta hobe da batekin zoazin parabisura, hamarrekin ifernura baino.

- 10 <249> Eta hobe da, halaber, utz diazozun zeure umeari edo ondokoari guti eta on, ezen ez anhitz eta gaixto. Gutti hek, ongi irabazi hek, deskarguak eginik eta nori berea errendaturik geldituko zaitzan aphur hek, sumatuko dira, berretuko dira, gurenduko dira; baina bertze guztiek fin gaitz egingen dute: hetarik hirugarren belhau-nekoek gutti gozatuko dute.

- 15 Ikhusazu, bada, egizu gogoeta, ea zorrik edo bertzeren onik gaizki eramanik baduzun; eta hek obligazinozkoak baitira, eta ez borondatezkoak, hek guztien gaitetik, zerorrek bizi zarela, zeure eskuz, bertzeren peskizan eta esperantzan utzi gabe, pagaitzatu, iraungitatu. Zeren halatan zeure umeak, primuak eta ondokoak peril handi batetarik atherakoitutu; eta zerori ere, aitzinetik deskarguak eginik,
- 20 aisia handi batean, eta salbamenduko bidean, oraidanik jarriko zara.

136-17 «Peskiza: 'Attente, esperance', Oihenartek dakarrenez (RIEV 4: 231)» (Villasanteren oh.).

<250>

*Zenbat kalte egiten duen juramentuak eta juramentu egiteko usantzak,
eta nola behar den lehen baino lehen usantza hura utzi*

KAP. XIX

168 Nola gure lehenbiziko aita hark gure naturaleza haur bere bekhatuaz nariatu, arrazatu eta eritokitu baitzuen, handik gara hain arrenkuratsu, inzirinatsu eta onbehar. Handik gara ontasunera baino gaixtatasunera eroriagoak, isuriagoak eta emanagoak. Handik dugu adimenduan itsutasuna, borondatean malizia eta memorian flakotasuna. Handik heldu da, halaber, gezur erraitea, elkharren ez sinhestea, eta fidantzia gabe bethi goganbehartsu ibiltzea. Zein baita kalte handia, elkharren artean bizi behar dutenentzat; hain handia, non goganbehartsu, idurikortsu eta fidantzia gabe bizitzea, ezpaita bizitze. Bada, kalte handi hunen erremediatzeko, ediren zuen Jainkoak bide bat, zein baita juramentua. Ikhusten duzunean etzaituztela sinhetsi nahi, eta premia <251> dela sinhets zaitzaten, dagizun orduan juramentu, dagizun zin, ekhar dezazun zeure erranaren lekhuko Jainkoa, gezurrik ezin derrakeiena, eta gauza guztien berri dakiena. 5 10 15

Eta halatan, lekhuko harekin batean eman diazazuten zeure erranean fede eta sinheste. Hunetakotzat erran zuen Jainkoak berak: *Dominum Deum tuum timebis, et per nomen eius iurabis (Deut. 6)*. «Izanan zara zeure Jainkoaren beldur, eta eginen duzu haren izenaz juramentu».

Eztuzu eginen juramenturik Jainko falsoez, zeren hartan bidegabe egin ziniazaio egiazko Jainkoari, hari dagokan ohorearen bertzeri emaitiaz. Zeren, nola juramentu egiten duzunean ekhartzen baituzu Jainkoa zeure erranaren lekhuko, zeren hura da juramentu egitea —*Iurare est Deum in testem adducere*—, eta hartan emaiten baituzu aditzera, Jainko hura dela egiatia eta gauza guztien berri dakiena, zein baita ohore handia Jainkoarentzat, ezta arrazoin eman dakion ohorerik bertzeri. Eta hala, juramenturik egitekotz, egiazko Jainkoaz egin behar da, eta ez bertzela, eta ez bertzez. 20 25

137-21/25 Perpaus luze eta konplexua: *Zeren, nola... ezta arrazoin...*

169 Egia da, egin diteke juramentu zeruaz, lurraz, sainduz eta bertze kreaturez ere; <252> ez, ordea, hei Jainkoari dagokan ohorerik emaiten zaiela, halako agurrik egiten zaiela, baina Jainkoaren kreatura bezala, eta Jainkoak hetan parte duen bezala; halatan egin diteke hetzaz juramentu, eta ez bertzela (Vide S. Thom. 2.2, q. 89, art. 6 ad 1).

5 Ordea, badirudi ezen orai lege berrion ezin egin ditekeiela neholatan ere eta nehortzaz ere juramenturik. Zeren Jainkoak berak erraiten du: *Ego, autem, dico vobis, non iurare omnino (Matth. 7)*. «Erran bezate bertzek nahi dutena, baina nik diotsuet zuei, eztagizuela neholatan ere juramenturik». Hunen arauaz erraiten du Jondone Jakue apostoluak ere: *Ante omnia, autem, fratres mei, nolite iurare, neque per celum, neque per terram, nec aliud quodcumque iuramentum. Sit, autem, sermo vester «est, est; non, non» (Iacob. 7)*. «Guztien gainetik gomendatzen deratzuet, neure anaia maiteak, eztagizuen batere juramenturik, ez zeruaz, ez lurraz, eta ez bertzez; baina biz zuen hitzkuntza, solhasa eta mintzaia «ez, ez; bai, bai». Beraz, hunelatan, badirudi ezteela bat ere eta neholatan ere juramenturik egin behar. Egia da, hala dirudi, eta hala da. Ezta batere juramenturik egin behar, premiarik ezteanean eta egia bertzela frogatzen ahal ditekeienean. Baina premia denean, eta egiaren frogatzeko bertze biderik ezteanean, egin diteke eta egin behar da juramentu. Zeren juramentua <253> bere ethorkiz, naturaz eta izanez Jainkoaren ohoratzeko, eta bere finez eta intenzioez egiaren balia arazitzeko, eta hauzien eta diferentzien iraungitzeko eta erabakitze ordenatua da.

10 Halatan erraiten du errege Dabitek: *Laudabuntur omnes qui iurant in Eo (Psal. 62)*. «Laudatuak izan dira Jainkoaz juramentu egiten dutenak». Eta badio Jondone Paulok ere: *Homines per maiorem sui iurant, et omnis controversiae eorum finis, ad confirmationem, est iuramentum (Ad Hebreos 6)*. «Gizonek, berak baino handiagoaz egiten dute juramentu, eta heken diferentzia guztien fina eta akhabatzea juramentua da». Zeren juramentua emanez gero, zin eraginez gero, ezin dateke gehiago hauzirik.

15 Eta hala, gauza ona, saindua eta Jainkoak berak ordenatua da juramentua. Ordea, hargatik egin diteke bai juramentuan bekhatu. Zeren gauza ona eta saindua da gorputz sainduaren errezibitzea ere; ordea, aditzen da ongi eta sainduki errezibitzen denean, eta ez bertzela. Hala da, bada, gauza saindua eta ona juramentua ere, ongi egiten denean.

20 <254>

§ 1

170 Juramentuak ongi, zuzentki eta behar den bidean egin izateko, behar ditu hirur gauza, hirur lagun eta sostengu: egia, premia eta zuzena. Hala erraiten du Jeremias profetak: *Iurabis «vivit Dominus», in veritate et in iudicio et iustitia (Jerem. 4)*. Lehenbizikorik, juramentua behar da egin egiaz, eta segurki egiaz, eta ez dudan. Zeren bertzela egiten den juramentua, den gauzarik eztheusenaren gainean izanagatik ere, bekhatu mortal izanen da.

35 Gezurrez juramentu baten egitea, munduak hala ezpadaduka ere, bekhatu handiagoa da, lagunaren onaren ebastea baino, eta bai edozein emazterekin parte izaitzea baino ere, zeren juramentuak Jainkoa bera bere presunan utkitzen du, baina bertze

40

bekhatu hauk eztiote hain arras emaiten, etzaitza hala hurbiltzen. Iben baleza errege batek legea, eztiocela nehorka ere, biziaren penan, nehori behar-ondokorik emanen, eta guztiarekin ere, gertha balekio zenbaiti emaitera zenbaiti, halakoak bide gabe egin liazaio erregeri. Zeren haren lege eta manamendu <255> hautsi baitu. Baina areago egin liazaio, baldin errege berari bere presunan eman baliazo. Hala da, bada, 5
gezurrez juramentu egitea: hartan Jainkoa bera bere presunan ukitzen da. Zeren Jainkoa izendatuki, gezurraren aithor eta lekhuko ekhartzen baita, zein baita bekhatu handia eta itsusia.

Beraz, hunelatan, juramentu egiten duzunean, lehenbiziko gauza behar duzu egin, ez gezurrez, eta ez dudan ere, baina ustez bedere egiaz, eta egiaren gainean. 10

171 Bigarrena, egiaz eta egiaren gainean ere, ezta, ez, berehala banoan, premia gabe eta aitzin-gibel behatu gabe egin behar juramentua. Usatu behar da juramentuaz, purgaz bezala. Purga ezinbertzez, eri zarenean, premia duzunean hartzen duzu: eta orduan ere ahalik eta gutiena, eta berantena; eta baldin gabe iragan alba-zindezi, ez luke hark bere parerik, are hura hobeago. Hala egin behar da, bada, 15
juramentua ere, ezinbertzez, premia, zeure ohoreaz dihoatzunean, eta justiziak hartara zuzentki behartzen eta errekeritzen zaituenean. Zeren bertzela, baldin ez eta bai asko den lekhuan, egiten baduzu juramentu, egiaren gainean izanagatik ere, bekhatu benial bedere eginen duzu. Ezta edireiten egin zuela <256> egundaino Jondone Paulok juramenturik eskiribuz baizen (Ita S. Tho. 2.2, quaest. 89, art. ad 1). Zeren 20
eskiribatzen den gauza, hobeki pensatzen eta konsideratzen baita, berehala solhasan erraiten dena baino; eta bai, halaber, halatan huts ere gutiago egiten. Ustez bedere, egiaz eta premia behar duzu egin juramentua.

Hirurgarrena: ezta, ez, asko, egiaz eta premia ere juramentuaren egitea, baina egin behar da gauza onaren eta justuaren gainean, eta ez gaizki egiteko kontuan. 25
Egiten duzunean juramentu hautsi behar diozula presuna bati burua, edo bertze gaizki bat egin behar diozula, bekhatu egiten duzu halako juramentuaren egiteaz, eta are bekhatuago haren konplitzeaz. Eta baldin uste baduzu edo sinhesten baduzu obligatu zarela konplitzera, hirugarren batez kargatzen zara.

Halaber, egiten duzunean juramentu zenbait ongiren ez egiteko, probeari ez deus emaiteko, nehori ez deus prestatzeko edo Elizaz obligatu zarenean baizen ez barurtzeko, bekhatu egiten duzu halako juramentuen egiteaz, benial bedere, eta etzara obligatu heken konplitzera, eta hobe ez konplitzea. 30

Halaber egiten baititutzu bertze juramentu <257> batzuk, deus balio eztuten gauza batzuen gainean, ezpaita heken hautsteaz kalterik, eta ez konplitzeaz probetxurik, nola baita mahaiian jartzean etzarella lehenik jarriko, etxean sartzean etzarella aitzinean sarthuko, edatean eztuzula lehenik edanen. 35

139-29 «Objetiboki gauza hala izan arren, bere ezjakinez hori hala dela uste izan badu eta kontzientziaren arauaz obratu badu, bistan da ez zaizkiola hiru bekatu horiek kontutan hartu behar» (Villasanteren oh.).

172 Hunelako juramentu hauken egiteaz, ezta bekhatu-rik, behintzat mortalik, eta ez, ez konplitzeaz ere. Jondone Petrik erran baitzioen zin-zinez, juramentu eginik bezala, bere nabusiari: *Non lavabis mihi pedes in aeternum* (Ioan. 13). «Ezterauzkidatzu sekulan zuk niri oinak garbituko». Utzi zerautzan, guztiarekin ere, garbitzera, eta etzuen hartan bekhatu-rik egin. Zeren hunelako juramentu hautan emaiten da aditzera, geure aldetik denaz bezanbatean, kortesiaz, hala nahi gendukeiela. Ordea, utz ditzakegu geure buruak, bekhatu-rik egin gabe, benzutzerera, Jondone Petrik utzi zuen bezala.

10 Eta zeren juramentu batzuk baitira presenteko gauzez, bertze batzuk ethorkizunekoek, guztietan behar da egia. Eta ethorkizunekoak behar dira egin gauza onaz, maliziarik gabe, enganamendurik gabe eta konplitzeko borondatearekin, baldin konplitzeaz zenbait kalte, nehork lehen uste etzuenik, sortzen eta agertzen ezpada, nola agertu baitzen Herodesek egin zuen juramentuan.

15 <258> Herodesek, benturaz gogoan gaitzik etzedukala, prometatut zioen juramentu eginik neskata dantzari bati, emanen zioela eska zedin guztia.

10 Eta oraino orduan, on zen juramentua. Ordea, gero eskatu zeikanean Jondone Joanes Baptistaren buruaren, galdu zuen juramentuak indarra, etzen konplitu behar.

20 Halaber, badira bertze juramentu batzuk, mehatxuzkoak eta bai maradizinozkoak ere, aita-amek bere umei eta nabusiak ere bere sehiei egiten derauztezenak. Hek guztiak dira bekhatu. Eta anhitzetan ere mehatxuzkoak konplitzeko borondate-rik gabe egiten badituzte ere, eta maradizioneak ere ez hitzez baizen, zeren ezpailukete nahi halakorik, guztiz ere heken umei gertha lekien.

25 Ordea, guztiarekin ere, guztiak dira bekhatu. Zeren, bataz, bertzeak bertze di-rela, handik ikhasten dute umeak ere maradizino egotzten eta burho egiten; eta berriz, bertzea, zeren burhasoen maradizioneak anhitzetan heltzen zaizte umei, eta gelditzen dira maradikatuak, Noeren semetarik bata maradikatua gelditu zen bezala.

<259>

§ 2

173 Juramentuan den gauzarik gaixtoena, galgarriena eta perilosena da usantza. Premia gabe, egiaz ala gezurrez mintzo den behatu gabe, makilaren permatzeko eta pordoinkatzeko urrats guztiaz eskuan bezala juramentuaren ere ahoan, hitz guztiaz minzatzeko, erabiltzea. «Ez» eta «bai» asko den lekhan, erraiteaz eta enzuteaz «bai, Jainkoaren Pasionea», «ez, Jainkoaren Odola», nor ezta ikharatuko? Nori etzaitza buruko ileak latztuko? Behintzat badio Spiritu Sainduak: *Loquela multum iurans, horripilationem capiti statuet, et irreverentia ipsius obduratio aurium* (Ecclesi. 27). Juramentu anhitz egiteak, bethi burhoz minzatzeak, latzteintu buruko ileak, eta jende prestuek, halakorik ez enzuteagatik, beharriak hersteintuzte, burua bertze aldera itzultzen dute.

Juramentu anhitz egitea, bethi burhoz, arneguz eta maradizinoz egoitea eta minzatzea, ifernuko usantza da, eta hitzkuntza ifernuan usatzen dena.

Eta nola batbedera bere hitzkuntzan baita ezagun nongo den: frantsez mintzo dena Franziaiko dela, eta espainolez mintzo dena Espainiako: hala da, bada, halaber, batbedera bere arneguetan eta juramentuetan ezagun <260> nongo den, ifernukoa dela. Eta nola Jondone Petriri bere nabusiaz ukhatu zuenean, erran baitzioten: *Tu ex illis es, nam loquela tua te manifestum facit* (Mat. 16). «Eztuzu zer ukhatu-rik, zu 5
hetarik zara, Jesu Kristoren dizipuluetarik zara, zure mintzaian ezagun zara»: hala erran ahal dakidikaio arnegariari eta juramentu egiteko usantza duenari ere: *Tu ex illis es*. «Zu ifernukoetarik zara: zeure minzatzean, arneguetan, burhoetan eta ma-
radizionetan ezagun zara». Zeren hori da ifernuko erdara, lengoia eta hitzkuntza, han 10
eta hangoen artean usatzen dena. Ifernuan daudenak, hango dolore handiak direla kausa, hek ezin pairatuz, bethi daude arneguz, juramentuz, burhoz eta maradizinoz. Hala erraiten du Jondone Joanes ebanjelistak: *Blasfemaverunt Deum caeli prae doloribus et vulneribus* (Apoc. 8).

174 Eta nola parabisuratzen direnak usatzen baitira eta hasten oraidanik, hemen lurrean, gero zeruan eginen duten ofizioaren egiten eta ikhasten, Jainkoaren lauda- 15
tzen: hala ifernurako direnak ere hasten dira orai beretik ifernuko ofizioaren egiten, arnegatzen eta maradizino egotzen.

Ikhusiko duzu, burhasoek eta nabusi-etxeakoandrek, bere seme-alabak, sehiak eta etxe-ko familia guztia, hargatik beltzuri bat ere egin gabe, eta hartan batere da- 20
murik hartzen dutela iduririk egin gabe, nahi duten juramentu <261> guztien egitera utzten dituztela. Hek eta halakoak dira eskriba fariseoak bezala, zeinek konsentitzen baitzuten egin ziazoten Jesu Kristo gure Salbatzaileari eta haren izen sainduari, heken etxe-koek eta bertze guztiek hanbat irri eta eskarnio.

Fin gaitz egin zuten hek, eta hala eginen dute, hala diren bertze guztiek ere. 25
Zeren ifernura joaiteko seinale handietarik bat da juramentu egiteko usantza izaitzea. Usantza hura dutenek, agian badute zenbait ahalke bertze bekhatuen kofesatzeko, baina ez batere juramentu egin dutela erraiteko.

Halakoak kofesatzera ethortzen direnean, eta galdegiten zaienean ea zer bekha- 30
tu egin duten, berehala, sendagailaz bezala eta ohore bailiz bezala, juramentuak ibenzeintuzte brankan, lehenbiziko hastean. Ha, Jainkoa, zuk ukitzatu, zuk erre-
media itzatu halakoak, zeren bertzela egin du hekenak.

§ 3

175 Jainkoaren beraren ohorea, eta haren izen sainduarena hain dabilta elkharga- 35
nik hurbil, ezen baldin Jainkoaren ohoreaz ibentzen bada lehenbiziko manamendua, halaber haren izen sainduari dagokanaz minzatzan baita bigarrena.

141-4 *bere nabusiaz ukhatu zuenean*: «Kasu errejimenari. Errejimen berbera harako pasarte hartan: *Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu* (4)» (Villasanteren oh.).

141-29 *sendagailaz bezala*: «bere burua laudatuz, espantuka. Gaztelaniaz, 'haciendo alarde, jactándose» (Villasanteren oh.).

- Handia da Jainkoaren izen sainduari ekharri <262> behar zaikan ohorea, egin behar zaikan agurra eta eman behar zaikan laudorioa. Beraz, hunelatan, handia izanen da, halaber, eta itsusia, izen saindu haren banoki, premia gabe, eta egiaz ala gezurrez mintzo den konturik egin gabe erabiltzeaz egiten den bekhata eta deskortesia. Baldin ikhus bazeneza ezen gizon batek, meza erraiteko kaliza aldaretik harturik, hartan norinahi den, ageri diren arlote, errumes eta bertze jende suerte guztiei emaiten derauela kantoin guztietan edatera, zer othe zenerrake? Gutienean bazenerrake hura dela luthertasun handia, gauza itsusia, eta eztakizula zer gaztigu ordena halakoari.
- 10 Bada, baldinba, gauza handiagoa eta ohore gehiago merezi duena da Jainkoaren izen saindua, kaliza baino.
- Eta guztiarekin ere, eztakizu erran den moldean kaliza erabiltzen duenari zer gaztigu ordena: zer ordenatuko diozu, bada, Jainkoaren izen saindua hain deblauki, antsikabeki eta kontu guti eginik erabiltzeko usantza duenari?
- 15 Juramentu egitea da, erraiten dugun gauzaren sinhets arazitzeko, Jainkoaren lekhuko deitzea, ekhartzea eta ibentzea.
- Eta, baldin erraiten ditutzun hitz ergel guztietan, dei bazeneza errege bat edo jaun handi bat lekhuko, merezi bazenduke eman liazazuten edozein gaztigu, zeren hura <263> bailizateke halako presunez kontu guti egitea.
- 20 Zer mereziko duzu, eta zer gaztigu izanen da arrazoin eman dakizun, hartako bereko, aiphamen guztietako, Jainkoa bera, errege guztien Erregea, eta jaun guztien Jauna, lekhuko deitzen duzunean, nola deitzen baituzu juramentu egiten duzunean?
- Ezin erran diteke, zein handia den hartan Jainkoari egiten zaikan bidegabea; eta bekhatoreak berak ere, bere buruari garraiatzen dioen damua eta kaltea.
- 25 Hargatik erraiten du Spiritu Sainduak: *Non assuescat iuramento os tuum, multi enim casus in illo (Ecclesi. 25)*. Begirautzu eztadila zure ahoa juramentura usat, zeren anhitz kasu, behatztopa eta peril da hartan.
- 30 **176** Nola anhitz mintzo denak peril baitu, batean ezpada bertzean, bere hitzetan huts egiteko eta errebelatzeko, hala juramentu anhitz egiten duenak ere, du peril zenbait juramenturen gaizki egiteko. Hain peril ezen juramentu egiteko usantza duenak, behatu gabe eta konturik eduki gabe noiz mintzo den egiaz eta noiz gezurrez, eta dagoenean deliberatua eta prestik, egiaren gainean bezala orobat gezurra-
- 35 ren gainean ere juramentu egiteko: halakoak, hala juramentu egiten duen guztiaz, bekhatu egiten du eta ifernuko bidean bere burua ibentzen du.
- <264> Handik Salomonek, ziakienak bezala zenbat kalte zekharkeien juramentu egiteko usantzak, erran zuen: *Vir multum iurans replebitur iniquitate, et non discedet a domo eius plaga (Ecclesi. 23)*. Juramentu anhitz egiten duena, betheko da bekhataz eta gaixakeriaz, eta ezta haren etxetik apartatuko plaga, han izanen da inkontru gaitza, edirenen da behar eztena.
- 40

Eta hala, baldin kontua ongi edukitzen badugu, edirenen dugu, ezen presuna arnegariak, are mundu hunetan ere, anhitz inkontru gaitz izaiten duela, eta arnegu hek direla kausa, anhitz bertze bekhatutan ere erortzen dela eta, azkenean, alde guztiz fin gaitz egiten duela.

§ 4

5

177 Bekhatu handia da, eta probetxu gabekoa, juramentua eta juramentu egiteko usantza.

Oraino ebastea edo emazte batekin parte izaitea, ezta hain miretsteko, zeren hetan bada zenbait probetxu edo plazer. Baina juramentuan ezta probetxurik, eta ez plazerik.

Halaber, gauza desohorezkoa eta desohoragarria da juramentua. Zeren hitz guztiaz juramentu egiten duenak emaiten du aditzera gezurtia dela; eta haren erranei lekhukorik gabe sinhesterik ezin eman dakidikeiela. Nola baldin gizon bati, erraiten <265> dituen hitz guztietan nehor kontra balekio, eta erran baliazote «etzaitugu sinhesten, ekhartzu zenbait lekhuko», desohore eman bailiazaiote; hala hitz guztiaz juramentu egiten duenak, eta juramentuez bere erranak frogatu nahi dituenak ere, emaiten dio bere buruari desohore. Zeren ikhususirik eztela bera sinhesteko, ekhartzen baititu lekhukoak, zein baitira juramentuak, hekin batean sinhets dezaten amoreakgatik.

Jende prestuek damu hartzen dute heken hitz sinpleari sinheste emaiten etzaikanean, eta juramentu egitera nehor behartzen dituenean. Eta baldin zu hala behartzen bazaituzte, zeurk duzu falta, zerori zara kausa. Hala erraiten du San Krisostomok: *Tu horum causa es, qui tam prompte et facile iuras* (Chris. Hom. 9 in Acta. apost., tom. 3). «Zeren hain prestki eta erraxki egiten baituzu juramentu, halatan hain maiz hartara behartzen zaituzte». *Quod si hoc non esset, sed omnibus esset manifestum, quod non iures, crede mihi dicenti, quod vel solo nutu plus crederetur tibi quam iis qui multa iuramenta deierant* (Chry. obi. 5). «Munduak balekusa eztuzula batere juramenturik egiten, eta ez gezurrik erraiten, baina bethi egiaz mintzo zarela, eta fama hartan bazeneunde, sinhets nazazu —dio San Krisostomok—, ezen orduan zure hitz sinpleari eta bakhunari, eta are kheinuari eta aieruari ere sinheste gehiago eman lekidikaiola, anhitz arnegu eta juramentu <266> egiten dutenei baino. Baina nola baitzara gezurti eta fama hartan baitzaude, halatan etzaituzte sinhesten; eta halatan, zerorrek ere, zeure gezurrak sinhets arazi nahiz, hanbat arnegu eta juramentu egiten duzu.

178 Baina zenbatenaz eta zuk juramentu gehiago, hanbatenaz nik gutiago sinhets. Zeren gezurraren erraitera herabe eztuenak, eztu gezurraren gainean juramentu egitera ere herabe izanen. Eta behin gezurrean frogatuz gero, nola jende juramentutsuak maiz frogatzen baitira, etzaie handik harat halakoei sinhesterik emaiten. Zeren haur da gezurtiaren gatzigua, egia erraiten duenean eztadin sinhets. Eta eztu merezi ere sinhets dadin. Zeren, erran komuna den bezala, otharre bat egiten duenak egin ditzake ehun ere: gezur bat erraiten duenak, baderrake gehiago ere.

Jondone Paulo apostolua, munduak dakien bezain fintki konbertitu bazen ere, eta saindutasun handi batekin hasi predikatzen; guztiarekin ere, Jerusalemara zen lehenbiziko aldian ihesi zihoazkon bere lagun apostoluak, etzeitzan fidatzen, zeren uste baitzuten ezen lehena zela, eta lehen bezala heken kontra zebilala. Hala da, bada, gezurtia, behin gezurrean frogatu dena, eta bai edozein bertze faltatan erori dena ere.

Etzaika handik harat halakoari beranduraino, <267> aphur bat froga arteino, sinhesterik emaiten, eta ez eman behar ere.

Ez eta etzaika absolbazinorik eta barkhamendurik eman behar, behin, biatan eta gehiagotan bere juramentuen egiteko usantza gaixtoa utziko duela kofesorari prometatuz gero, bat ere utzi gabe, bere leheneko usantzarekin berriz kofesatzera bihurtzen denean.

Nola amorantearekin dagoena, edo bertzerena ebatsirik dadukana, ezin absolba baititeke amorantea utz arteino edo bertzerena, ahal badeza, bihur arteino, hala juramentu egiteko usantza duena ere, ezin absolba diteke, usantza harekin dagoeno, haren utztera enseia ditekeien arteino. *Quia tunc est in statu peccati. Zeren orduan* bekhatuaren egoitzan, estatuan eta tokian baitago.

Eta hala pensa bezate kofesorek zer hari diren, halakoak belhaunetara ethortzen zaiztenean, zeren ez tira egiteko gabe.

Eta badirudi hoberena lizatekeiela behin erakustea eta aditzera emaita zein peril handian dauden; eta gero aphur bat absolbazinoaren luzatzea, eta erraitea dohazila eta bihur ditezila handik amorz egunen buruan; eta bitartean enseia ditezila bere usantza gaixtoaren utztera. Eta gero, bihurtzen direnean, edireiten bada bat ere utzi dutela eta utztera enseiatzen direla, orduan absolba, eta ez bertzela.

<268>

§ 5

25 **179** —Ha Jainko handia, belas! Zer izanen da, bada, nitzaz? Ene mihi guztia da juramentu egiteko usantzan barrena sarthua, guztia da hartara emana, eztakit bertzela minzaten. Zer eginen dut, bada? Nola erremediatuko naiz?

Adi ezazu zer erraiten duen pontu hunen gainean San Krisostomok: *Malam iurandi consuetudinem ab ore nostro auferamus, fraenum imponamus linguae.*
 30 *Nulla hic sumptu opus est, nullus labor exigitur, non indiget magna temporis mora exercitatio; sufficit velle, et totum factum est; res, enim, haec a consuetudine pendet* (Chrys. Ho. 26 ad popu. Antho., to. 5). «Juramentu egiteko usantza ahotik khien dezagun, mihia brida dezagun; eta nahi badugu, badaidigu. Zeren ezta hartakotzat batere gasturik egin behar, ez trabailurik hartu, eta ez denbora anhitz enplegatu.
 35 Askok da nahia, egin da hainbertzez, zeren egiteko haur usantzatik heldu da». Usatu zara anhitz minzaten, hitz guztiaz juramentu egiten; usat zaitezi, bada, orai, aldiz, juramentuen utzten. Nahi baduzu, badaidikezu, eta baldin egiten ezpaduzu, seinale da eztuzula nahi.

144-21 amorz: Axularrek baino lehenago Leizarragak ere erabilia (cf. OEH, s.v. hamabost).

Erranen duzu: «Nahi nuke, bada, eta indazu zenbait erremedio». Lehenbiziko erremedioa da hartzea goizean gogo eta borondate fin bat, deliberamendu deliberatu bat, egun hartan juramenturik <269> ez egiteko, mihiaz kontu edukitzeko. Eta baldin, halarik ere, gerthatzen bazaitzu huts egitera, eman zeure buruari zenbait pena: bulharrak jo, erran «Jesus», edo egin zenbait obra on. Eta orduan, hala enseiatzen zarenean, zeure nahi gaberik, usantzak errekeriturik, zenbait juramenturen egitera mihia linburtzen bazaitzu, eztuzu hartan bekhaturik. Zeren hura guztia dake usantzarena, eta ez borondatearena. 5

180 Bigarren erremedioa, juramentu egiteko usantzaren utzteko, da erraitea, juramentuaren orde, juramentuaren lekhan: «bai segur», «ez segur»; «hala da», «ezta hala»; «egia erraiten deratzut», «sinhets nazazu», «ez nazazula gehiagotara behar». Hunela minzaten zen gure Salbatzailea: *Amen amen dico vobis*. «Egiaz erraiten deratzuet». Hunela mintza zaite, bada, zu ere, eta zaude juramenturik egin gabe. Eta bazeneundeke, baldin juramenturik egiten eztuzun egunean, hamar ezkuturen irabazteko segurantza bazendu. Bada, baldinba, zure arimak hamar ezkutu baino gehiago balio du. 10 15

Bihoa, beraz, urrun juramentua eta juramentu egiteko usantza, ifernuko hitzkuntza, bekhatu idorra, gozogabea, arimaren galtzeko baizen deus balio eztuena. Eta bethor egun beretik, geroko luzatu gabe, egiaz minzatzeko, eta juramentu guztiak utzirik, «ez» eta «bai», «ez segur», «bai segur» erraiteko usantza eta aztura. <270> Zeren bertzela minzaten zaren bitartean, jakizu ezen peril handian bizi zarela, ifernuko bide zabala daramazula, eta azken finean egiteko handitan izanen zarela. 20



Zenbat kalte egiten duten kolerak eta etsaigoak, eta nola behar den lehen baino
lehen etsaigoatik kanpora

KAP. XX

181 Bethiere, lehenbizitik hartu dugun xedeari ahal bezanbat authikitzen diogula, hari jarraitzen gatzaitzala, hartara destatzen eta enkaratzen garela, edirenen dugu 5
gure *gero* hunek presuna herratsuen, erriertatsuen eta haserrekoren artean ere ba-
duela bere ostatua eta jarlekua, hetan ere kalte handiak egiten dituela. Zeren adiskide
batekin hautsten duzunean, baldin berehala osatzera eta bat egitera enseiatzen ezpa-
zara, jakizu ezen, gero eta gero gaitziago izanen zaitzula, gibelatukoago, urrun-
dukoago eta ezantsiatukoago zarela. Halako moldez, ezen San Agustinek dioen be- 10
zala, *Sicut festuca crescit in trabem, sic ira inveterata fit odium* (August. *Homil.* 5),
landarea zuhaitz bezala, haserretasuna ere egiten <271> da gaitzerizkoa. Hunen
arauaz erraiten du Senekak ere: *Optimum est, primum irritamentum irae protinus
spernere, ipsisque repugnare seminibus* (Sene. *lib. 1 De ira*, cap. 8). Gauza ona da 15
koleraren lehenbiziko narritamenduari, mugidari eta abiadurari begiaren edukitzea,
hazi haren hozitzetik, sortzetik eta bihitzetik begiratzea. Hargatik erraiten du
Jondone Paulok: *Sol non occidat super iracundiam vestram* (*Ephes.* 4). «Eztadila
iguzkia eror zuen haserretasunaren gainean». Erran nahi du, *Non duret usque ad
occasum solis* (*Glos. inter.*), eztezala iraun iguzkia sar arteino; etzoaztela oherat 20
mendekatzeko desirarekin: akhaba diferentziak iguzkiz iguzki. Zeren bertzela, su
ttipia handitzen den bezala, diferentziak ere aphur bana handituko dira, eta behin
handituz gero, nekez ttipituko eta iraungiko dira.

Nola geure gogarako gauzeekin naturalki bozten eta alegeratzen baikara, hala 25
desgogarakoekin eta kontrakoekin tristetzen eta haserretzen gara. Hain haserretzen,
ezen ezin baikarateke orduan, behintzat haragiaren arauaz, koleratu gabe, sentikortu
gabe eta mendekatzeko desira gabe.

Nola ardia otsoaren ikhustez latzten, larritzen, asaldatzen, izitzen eta ikhara-
tzen baita; hala egiten gara gu ere etsaiarekin batzeaz eta inkontratzeaz.

Orduan, haragiaren arauaz ezin garateke haserretu gabe, min hartu gabe eta 30
<272> barrenean irakitu gabe. Hunen arauaz erraiten du San Krisostomok: *Caro, qui-
dem, diligere inimicum non potest, quia dilectio vel odium carnis, in sensu est; animae,*

5 *vero, in intellectu. Propterea anima, quidem, secundum rationem vertitur; caro, autem, invertibilis in passione tenetur (Homil. 13, tom. 2).* Haragiak ezin onhets dezake bere etsaia, eta ez sentitu gabe utz, egiten zaikan bidegabea eta desarrazoia. Bai, ordea, arimak onhets dezake. Zeren arimak libertatea du, bere burua bere eskuko du. Baina haragiak eztu libertaterik, eta ez bere burua bere eskuko.

§ 1

10 **182** Nola baitira bi gaitzerizkoa, bata naturala, haragiarena, eta bertzea librea, borondatearena: hala dira, halaber, bi onherizte eta amorio: bata naturala, haragiarena, eta bertzea librea, borondatearena. Gure Salbatzaileak izan zuen heriotzearen alderakotzat gaitzerizkoa naturala, naturalki gaitzesten zuen heriotzea, haragiaren arauaz etzuen hil nahi. Eta halatan, egin zioen othoitz bere Aitari, erraiten zioela: *Pater, si possibile est, transeat a me calix iste.* «Aita, baldin posible bada, iragan bedi eneganik kaliza hori, eztehadala heriotzerik errezibi». Ordea, gaitzerizkoa natural hunekin izan zuen amorio librea.

15 <273> Zeren libreki, bere nahiz eta borondatez hiltzen. Eta hunetan da ageri badiratekeiela elkharrekin gaitzerizkoa naturala eta amorio librea. Badukegu etsaiaren alderakotzat gaitzerizkoa, onherizkoarekin. Eta gaitzerizkoa librea, zein baita borondatearena, da komunzki bekhatu, eta ez naturala, zein baita haragiarena. Gaixto batek hil deratzu zeure aita, zerorri ere egin deratzu mila pensu, asmu falso
20 eta malizia: heken arauaz ezin zarateke gaitzerizkoa naturala gabe. Ordea, gaitzerizkoa natural hark ezteratzu amorio librea edekitzen, eztu borondatea gaitzestera bortxatzen, eta ez gaizki egile hari barkhatzetik eta ongi egitetik debekatzen, hargatik libre da zure borondatea.

25 Eta halatan, anhitzetan ere egiten diogu geure gaizki egileari ongi. Eta halatan, halaber, etsaiaren onhesteko manamendua eman zioen Jainkoak arimari, eta arimaren bothere libreari, borondateari, eta ez haragiari, eta ez haragiaren apheetuari. Eta hala, bidegabe bat egin deratzutenean, ethortzen baitzaitzu alde batetik mendekatze eta ordainaren bihurtzeko mugida bat, gutizia bat eta desirkunde handi bat. Eta, berriz, bertze aldetik, gauza ongi konsideraturik eta aitzin-gibel behaturik, gibelatzen baitzara mendekatze hartarik. Orduan haragia <274> haserretzen da, eta ez arima. Hala erraiten du San Krisostomok: *Quando, ergo, homo irascitur et non vult facere quod ira compellit, caro eius irata est, animus, autem, non est iratus* (Chrysost. Hom. 13, t. 2).

35 Eta haur da arimaren eta gorputzaren, spirituaren eta haragiaren arteko gerla perilosa, eta biktoria loriosa, batak gaitzesten duena, bertzeak onhesten baitu.

183 Haragiaren gaitzerizkoa naturala, haragiaren lehenbiziko mugida, *primus motus*, haragiaren haserretzera eta mendekatzera laburzki eta konsiderazinarik gabe oldartze eta abiatze hura, bera soilki eta baxharrik, ezta bekhatu. Bekhatu izaitekotz, arrazoinak behar du lekhu eta parte, borondateak behar du deliberatu eta konsentitu.

Are gehiago, erran nahi deratzut, borondatearen deliberamendurekin eta kontsentimendurekin ere haserretzea, eztela bethiere bekhatu. Aitzitik, haserretzeaz bezala, ez haserretzeaz ere egin diteke bekhatu. Nola arrazoinaren kontra eta bidegabeki haserretzea, eta mendeku bilha ibiltzea, baita bekhatu: hala, halaber, haserretu behar denean eta haserretzeko okhasinoa denean, ez haserretzea, da bekhatu. Hala erraiten du San Krisostomok: *Itaque, non solum non peccant, qui cum causa irascuntur, sed, e contra, nisi irascantur, peccant* (Chrysost. *Hom.* 12, t. 2). 5

Quoniam patientia irrationabilis, vitia seminat, <275> negligentiam nutrit, et, non solum malos, sed etiam bonos invitat ad malum. Ez haserretzeak, sobera pazient izaitzak, falten disimulatzeak, ez ikhusi iduri egiteak eta ez gaztigatzeak, emaiten du okhasino falta gehiago egiteko, eginetan laketzeko eta, gaixtoen bezala, onen ere gaixtakeriara konbidatzeko. 10

184 Haserretu behar denean ez haserretzea, sentikortu behar denean ez sentikortzea, bethi bat, bethi uli, lolo, malba eta bare izaitza, eztheustasuna da, eta ez gizontasuna. *Sicut excessus irae est malus et vitiosus, ita moderatae irae deffectus a iusta reprehensione et peccati labe non est immunis*, dio San Tomasek (S. Thom. 2.2, q. 158, art. 8). Nola sobera haserretzea baita bekhatu, hala halaber gutiegi egitea ere, ezta hoben gabe. 15

Arrazoinarekin, intenzione onez eta justiziaren arauaz haserretzea, eta hala haserreturik, hala gaztigatzeko desira izaitza, gauza ona da, eta saindua. Hain saindua, ezen erraiten baitu San Basiliok: *Neque, enim, si contra nequitiam desit indignatio et ira, satis eam odio, quo decet, persequi poteris* (Basil. *Homil.* 9 *De ira*). Haserretu gabe, aphur bat bedere koleran jarri gabe, eta bere baithan pitztu gabe, eztira gaixtakeriak asko fintki gaztigatzen, eta ez obra onak ere asko zintki egiten. *Neque damus aliter disciplinam filiis, nisi aliquantum irascendo*, dio <276> San Agustinek (August. *De ver. Dom.*, hom. 16, t. 10). Eztu aitak bere semea, bere soseguan dagoela, gaztigatzen, eztio begia bihurritu gabe zer egin behar duen erakusten. Behar da, behar, behar denean khar aphur bat ailtxatu, behar da koleratu eta haserretu. Halatan du aitak esku eta bothere, semeari gogorki minzatzeko, eta bai kargudunak ere bere kargukoen kontra, huts eginak dohazinean jaikitzeke eta haserretzeko. Hala haserretu ziren Moisen eta Matatias, idoloak adoratzeko zituztenen kontra (*Exod.* 31; *1 Mach.* 2). Hala gure Salbatzailea ere erresuzitatu zenean mintzatu zeien gogorki bere diszipulu batzuei, deitzen zituela adimendugabeak eta sinhets gogorrak. *O, stulti et tardi corde ad credendum* (*Luc.* ultimo). Hala Jondone Paulok ere mehatxatu zituen Galaziako jendeak, erraiten zerauela: *O, insensati galathae: quis vos fascinavit non obedire veritati?* (*Ad Galat.* 5). «Ha, galatar zentzugabeak! Nork erhotu eta liluratu zaituzte, ezpaituzue orai, lehen bezala, egia obeditzen eta sinhesten?». Hitz hauk desohorezkoak ziren galatarrentzat. Ordea, zeren bihotz onez eta intenzione sainduz erranak baitziren, etzen bitartean bekhaturik. 20 25 30 35

185 Haur da San Agustinek ere erraiten duena: *Non irascitur fratri, qui peccato fratris irascitur* (August. *lib. 1 Rhetor.*, cap. 19, t. 1). Ezta anaiaren kontra haserretzen, anaiak duen bekhatuaren kontra haserretzen dena. Halakoak bekhatua gai- 40

- tzesten <277> du, eta ez bekhatorea. Eta hartan egiten du midiku batek edo barber batek eriarekin egiten duena. Barberak penatzen du, ebakitzen du, odol husten du, etsai bat bezala erabiltzen du. Ordea, zeren hura guztia eritasunaren kontra egiten baitu, eta ez eria-
 5 ren; ez intenzione gaixtoz, baina amorioz eta sendatzeko kontuan, halatan hark egiten duen guztia estimatzen da, eta hartzen parte onera. Hala behar dira, bada, halaber, arrazoinaren arauaz, intenzione onarekin, falten erremediatzeko eta bekhatuen eritasunetik sendatzeko borondatearekin egiten diren liskarrak, ahakarrak, mehatxuak eta eranzuteak ere estimatu, eta parte onera hartu.

§ 2

- 10 **186** Ordea, begira beu batbederak, bekhatuen kontra haserretzen denean, sobera haserretzetik, amorioz eta borondate onez egin behar duena, koleraz eta mendekuz egitetik. Zeren aita-amek, predikariek, nabusiek, eta bertzeren eskolatzeko eta gobernatzeko kargu dutenek, eztute kargu hartan halako moldez kexatu eta irakitu behar, non gainez egin dezaten, eta amorioa desamorio <278> eta gaitzerizkoa bihur dakien.
 15 Hargatik erraiten du profetak: *Irascimini, et nolite peccare (Psalm. 4)*. «Haserre zaitezte, eta eztagizuela bekhatu-rik». Haserre bai; ordea neurritz, pazientziaren xedea eta marra iragan gabe; faltari bai, baina faltaren jabeari herrarik eta aiherkunderik eduki gabe.

- Zeure umea edo zerbitzaria korrijitu, emendatu eta zentzatu nahi duzunean, anhitzetan ere, zerori jartzen zara zenza beharreanago. Zeren zentzate hartan, zeure
 20 umeari erakustean, hain haserretzen, koleratzen eta zeure zentzutik eta pazientziatik ilkitzen zara, non anhitz arnegu eta juramentu eginik, azkenean, zure umearen eta zerbitzariaren falta baino, zurea handiago gerthatzen baita, eta zerori erremediakizunago eta zentza behar-
 raggo jartzen baitzara.

- Bada, ez bertzela, baina arrazoinaren eta justiziaren arauaz, eta noren kontra haserretzen baitzara, haren ontasunagatik eta falten erremediatzeagatik neurritz haserretzea, gauza ona da eta saindua. Eta molde hunetan haserretzea deitzen da *ira per zelum*, zelo onezko hira, amoriozko haserrea, onginahizkoa. Baina bada bertze bat, borondate gaixtozkoa, mendekuzkoa, ez bekhatuaren erremediatzeko, baina bekhatoreari <279> berari gaitz eman nahizkoa. Zein deitzen baita *ira per vitium*,
 30 «biziozko hira», bekhatuzko haserrea, arrazoinaren kontrakoa, intenzione gaixtozkoa, soberaniazkoa, gainez egina.

Hunetarik, hunela gainez egitetik, sobera haserretzetik eta koleratzetik, sortzen dira kalte handiak, liskarrak, hitz gaixtoak, juramentuak, diferentziak, hauziak, gaitzerizkoak, heriotzeak, eta bere buruen eta bertzeren galtzeak eta egitekotan ibentzeak.

- 35 **187** Anhitz gauzak egiten derauka giristinoari gaitz eta kalte; eta hetarik bat da, eta are buruzagietarik, hira, kolera, haserretasuna, mendekatzeko desira desordenatua. Hunek arima eta gorputza zaurtzeintu, hunek biak eritzeintu, egunak laburtzeintu eta, muga baino lehen, ileak ere urdintzeintu. Hala emaiten du aditzera Spiritu Sainduak: *Zelus et iracundia minuit dies, et ante tempus senectam adducet cogitatus (Eccles. 30)*. Hunen arauaz eta eredu-
 40 z erraiten du Senekak ere: *Vitanda est*

ira, non solum moderationis causa, sed sanitatis (Senec. *Ep.* 18). Begiratu behar da sobera haserretzetik, alde egin behar zaika hirari, begia eduki behar zaika kolerari; eta ez, ez prestuki eta onhetski bizitzeagatik beragatik, baina bai gorputzeko osasunagatik ere. Zeren haserretasunak, mendekatu nahiak, barreneko hegigoak, irakidurak, hudigoak, gorrotuak, korromioak <280> eta herrak, arimari eta gorputzari egiten deraue kalte, biei senti arazitzen deraue, biak eritzeintu. 5

Eta halatan, presuna hirosak, erreak eta haserrekorrak, ez ohi du begi orde anhitz higatzen, eta ez komunzki bere umen umerik ere bere ingurunean ikhusten. Zeren bere barreneko koleraren suak eta irakinak errai guztiak erratzen, elkhortzen eta idortzen baiterautza. Eta hala, ikhusiko duzu, bere egitez jauzkor eta mendekos diren presunak, baldin berehala bere desiren arauaz mendekatzen ezpadira, egosten eta desegiten direla. 10
Eta baldin, halaber, mendekatzera eta eskuen odolztatzera gertha badakie, gero ondotik dolutuak eta atsekabeztatuak dabiltzala. Halako suertez, ezen nolnani den dela, nahiz mendekaturik eta nahiz mendekatu gabe, nahiz bere gogoak historik eta nahiz histu gabe, ezta halakoentzat damurik, atsekaberik eta asaldurik baizen. 15

Eta, ezpere, beha iazozu haserretua dabilan bati, nola mintzo den, nola ahotik habuina darion, begietarik iharrak jauzten zaitzan, lurra ostiko joiten duen, ethortzen zaitzan arartekoez eztuen konturik egiten, eztioen nehoi ere ohorerik ekhartzten (Vide Chrysost. 4, t. 3). Aitzitik, erho batek bezala, aitzin-gibel behatu gabe, ethorkizunaz konturik egin gabe, guztiak gezurtatzen dituen, desohoratzen dituen, <281> bulkhatzen dituen, hil nahi dituen. Beha iazozu, bada, halako bati, eta zentza zaitte haren baithan. Zeren jakizu ezen zerori ere, haserre zarenean, hala zarela, erho zarela, itsu zarela, hordi bat bezala irrigarri zarela. 20

§ 3

188 Presunak, haserre denean, badirudi eztirudiela lehena. Hargatik abisatzen zituenean Platonek bere diszipuluak, har zezatela, haserre zirenean, mirail bat bere aitzinean, eta hartan ikhus zitzatela bere buruak. Eta erraiten du Senekak ere: *Quibusdam profuit aspexisse speculum; perturbabit eos tanta mutatio sui* (Fulgent. li. 7, cap. 2; Senec. li. 2 *De ira*, cap. 36). Batzuei on egin izan deraue, haserre zirenean, bere buruen mirailean ikhusteak. Zeren han da ezagun, nola kolerak batbedera muthatzen, eta lehen zena eztirudiela ibentzen duen. Eta badio San Krisostomok ere: *Quod, si iratus se ipsum intueri posset, nulla alterius indigeret admonitione, nihil enim irato turpius* (Chrysost. *Hom. 25 in cap. 3 Ioan.*, tom. 3). Baldin presuna 25
30

- 151-4/5 «*Haserretasunak...* Zortzi hitz sinonimo metatzen eta elkarrekin biltzen ditu hemen Axularrek, haserreak egiten dituen kalteak hagitz eta bortizki azpimarkatu nahiz» (Villasanteren oh.).
- 151-5 *korromio*: «Transport de colère' da hitz hunen esanahia, Oihenartek dakarrenez (*RIEV* 4: 227)» (Villasanteren oh.).
- 151-7/8 *ez ohi du begi orde anhitz higatzen*: «Haserreak bizitza laburtzen duela aditzera emateko, irudi sarkor eta bizi-bizia» (Villasanteren oh.).
- 151-16 *Eta, ezpere, beha iazozu...*: «Haserretua dagoen baten erretratu guztiz jatorra utzi digu Axularrek zati hunetan» (Villasanteren oh.).

haserreak, haserre denean, ikhus albaleza bere burua, ez luke, ez, berriz haserretzeko bertze abisuren beharrik. Zeren orduan hain da itsusi, non itsustasun hark berak begira bailezake aitzinerat gehiago haserretzetik. Koleran dagoenak hanbat erhokeria <282> egiten du, eta erraiten, non hari bere plazerera beha dagokana ahalketzen baita erhokeria heken ikhustez eta enzuteaz.

Eta halakoak berak ere, bere baithara dadinean (zeren koleran dagoena eztago bere baithan), norik erranen du zenbat damu eta atsekabe izanen duen? Zein ondore gaixtoa edirenen duen? Zein onbehar eta triste geldituko den? Orduan gogoratzen zaika ikhusi dutela bere adiskidek, eta bai etsaiek ere, guztiak beha egotu zaitzala. Eta hark bere koleran egin dituen desordenuez eta erhokeriez, adiskidek hartu dutela damu eta atsekabe, eta etsaiek atsegin eta plazer. Orduan erreko da bere baithan barrena, despitatuko da, tristetuko da, malenkoniaturiko da. Eta guztiz ere, baldin bere haserre hartan kolperik egin badu, barber beharrean nehor ezarri badu, edo bere hitzetan nehork bahirik hartu badio. Han dira zinak eta minak, han dira kexadurak, izerlekak, hatsbeherapenak, intzirinak eta maradizinoak. Orduan jartzen da bere buruarekin gogoetan, erraiten duela San Krisostomok dioen bezala: *Et quid mihi pugna opus erat? Quid in iniuriis? Quid contentionibus? Haec et illa pereant, et his omnibus terrenis maledicunt, quae ipsis discordiae materiam praeberunt* (Chrysost. *Hom.* 4, tom. 3). «Zer mengoa nuen nik, egiteko hautan sartzeko? <283> Diferentziatan ibiltzeko? Hitz gaixtorik erraiteko? Kolperik emaiteko? Fin gaitz dagitela hunelako egitekoek, ni hunela egitekotan ibeni nautenek. Baldin ez na-goenean banengo, begira bide nindeke, berriz hunela itsutzetik, erhotzetik, minzatzetik, eta egin naizen bezala jauztetik eta koleratzetik». Hunela minzaten da hotztu denean; hunela bere buruaz arrenkurutzen da, haserredura ematu denean.

Haur da koleraren ondorea, ihardukitzearen fruitua: arimaren galtzea, gorpuztaren desegitea, eta tristura handi baten azpian damuztaturik ibentzea eta utztea.

189 Gizon koleratua, sukharra duenaren polsua bezala da, kexo da, eztu sosegurik. Halaber, gau ilhuna bezala da. Zeren nola gau ilhunean dabilanak ezpaitu ezagutzen zerk zer kolore duen: zein den berde, eta zein more; hala gizon koleratuak ere eztu ezagutzen noiz mintzo den ongi, eta noiz gaizki: noiz dohan artez, eta noiz makhur. Nahasia, itsutua, haztamuka dabila; ilhunbean dohana bezala, urrats guztiaz behaztopatzen da, errebelatzen da.

Halatan deabruak ere orduan egiteintu bere kolpeak, orduan bethatzeintu bere zakuak. Zeren nola ohoinak desiratzen baitu gau ilhuna eta haizetsua ebasteko, otsoak denbora gaitza, uritsua eta igorziritsua artaldeari <284> oldartzeko, eta arranzaleak ur uherra arrainaren atzemaiteko: hala deabruak ere, ohoin finak, otso

152-15 *izerlekak*: «Grosse sueur qui engendre crasse», Oihenartek dakarrenez (*RIEV* 4: 229)» (Villasanteren oh.).

152-20/21 *Fin gaitz dagitela...*: «Hitz joko polita *egiteko*-kin, eta pixka bat beherago *nago*-kin» (Villasanteren oh.).

152-33/34 *orduan bethatzeintu bere zakuak*: «Abuzturik onenak eta ugarienak orduantxe jasotzen dituela esan nahi du» (Villasanteren oh.).

goseak eta arrantzale jakinsunak bezala, bilhatzeintu eta bere gaixtakerien egiteko zelaturik edukitzeintu, koleraren, haserreduraren eta diferentzien ilhunbeak, tormentak, uherdurak eta okhasinoak.

Presuna haserretuen artean bere gogara da deabrua, han edireiten da ongi demonio gaixtoa, han bide batez egiteintu bi mandatu. Zeren haserretzailea eta haserretua, biak atzemaiten baititu. 5

190 Eta haur ezta miretsteko. Zeren ezta bekhatuik, koleran itsutua dagoen batek eztaidikeienik. Eta hala ezta zuhurtzia, halakoak eta halakoek dihardukatenean, heken artean ibiltzea, eta partitzera enseiatzea eta sartzea. Guztiz ere baldin dihardukaten hetan hordirik edo zure etsairik baldin bada. Orduan urruititik hurbil, utztezu, beude, bihardukate, biz heken gainean ethorriko den okhasinoa eta kaltea. Zeren bertzela peril izanen da zure gainera ethor dadin. Hordiak eztaki zer hari den, eta etsaiak ere alea hark bertzeri eman nahi, zuri emanen deratzu. Beraz, ez halakoen artean, ingurunera ongi behatu gabe eta zeure buruaren begiratzeaz kontu eduki gabe, sar eta ez enplega. Zeren kolera itsu da, hordi da, eta etsaia ere <285> okhasinoaz probetxatzen da. 10 15

Bada, baldin kolerak eta mendekatzeko desira desordenatuak, arrazoinaz kanpokoak, hanbat kalte egiten badu: hala nehor itsutzen, zorutzen, lilurutzen eta adimendutik erauzten badu, eta deabruak ere orduan, koleratuen artean denean, bere jokoak jokutzen baditu, eduki behar zaika kolerari begia, egin behar zaika guardia; bilhatu behar zaika sendagarria, egin behar da laster midiku-midizinetara, ahal diratekeien erremedioetara. Eta noiz? Lehen baino lehen, geroko luzatu gabe. Zeren suaren pare da kolera, eta badakizu, sua ttipi deino dela erraxenik iraungitzeko eta hiltzeko. 20

153-12/13 *alea hark bertzeri eman nahi*: besteri eman nahi diolako itxurak eginez (*alea alegia*-ren aldaera-edo da; ik. *OEH*, s.v. *alegia*).



*Koleraren iraugitzeko lehenbiziko erremedioa da batbederak, bere kondizino
haserrekorra ezaguturik, hari begiaren edukitzea*

KAP. XXI

191 Nola gorputzeko medikuek anhitz midizina eta erremedio bilhatu baitute, eta ediren, gorputzeko eritasunen sendatzeko: hala arimako midikuek ere, zer den kolera eta koleraren ondorea dakitenek, zein baita arimako <286> eritasuna, bilhatu dute, eta eman anhitz abisu eta erremedio, arimako eritasun hunen sendatzeko, kolerak pitzten duen suaren hiltzeko, eta bai pitztetik eta iratxekitzetik ere begiratzeko. 5

Lehenbiziko erremedioa da, batbederak bere buruaren eta kondizionearen ezagutzea: bere buruarekin gogoeta egitea, ea haserrekor denz, hiros denz, jauzkor denz. Eta baldin hala bada, perilos bada, kilikabera bada, pairu gutitako bada, ihes egin eta begira, diferentziarik ahal datekeien okhasino guztietarik, presentatzen diren periletarik, jendartera sobera ilkitzetik, eta bai egitekotan eta kargutan ere sartzetik. 10

Batzuei den okhasinorik ttipianean, sua lotzen zaie: zeren sukhoi baitira, ihar baitira. Pontu hunen gainean ederki erraiten du Senekak: *Non interest hic affectus, ex quam magna causa nascatur, sed in qualem perveniat animum. Sicut ignis non reffert quam magnus, sed quo incidat; nam, etiam maximum, solida non receperunt, rursum arida et corripit facilia, scintillam quoque fovent usque in incendium* (Senec. *Ep.* 18). Egur hezeari eta junt denari, su handiak ere nekez eragiten dio, baina iharrari eta arroari, inhar batek ere iratxekitzen dio. Zeren hartako egina eta prestatua edireiten baitu. Hala da, bada, koleraan eta <287> haserretasunean ere. Iklusiko duzu komunzki gauza xarrakgatik, okhasino ttipiakgatik, jendeak haserretzen direla, eta bai heriotzeak ere egiten eta gerthatzen. Zeren haserretzea eztago, ez, hanbat egitekoaren balioan, nola presunaren kondizinoan. Batak antsiarik eztenaz, bertzea jauzten eta enkoniatzen da. 15 20 25

155-16/17 *ihar baitira*: «lehor dira» dateke, eta ez «son pura chispa» (cf. *OEH*, s.v. *inhar*). Beheraxeago (155-22) *ihar* 'lehor' (lat. *arida*) eta *inhar* 'txinpart' (lat. *scintillam*) bata bestetik gertu agertzen dira. Oro har, eztabaida honetaz, cf. *su ihar* 328-28 testu-oharra.

192 Antioko sofista deitzen zen hark, bere kondizinoa ezagaturik, etzuen behin ere konpainiatan ibili nahi, eta ez, hartako bazen ere, herriko kargutan ere sarthu nahi (*Theatrum humanae vitae*, fol. 93). Gizon gaizkin bat bezala, izi zen, beldur zen, ihizia bezala, basatua eta ihes egina zebilan. Eta galdegin zeraukatenean ea zeren zen beldur edo zergatik ihes egiten zuen, ihardetsi zuen: «Egiten dut ihes, zeren ezagutzen baitut neure kondizinoa, ez naizela jendarteko gai, eztudala okhasinotan sarthuz gero, neure burua neure eskuko; ez naizela neure buruaren jaun, eta ez jabe; berehala linburtzen eta kilikatzen naizela, errea naizela, jauzkor naizela; den okhasinorik ttipiena, aierurik gutiena gorrotatzeko eta muthurtua jartzeko asko dudala».

10 «Ez naduka, ez, bertzeren beldurrak ihes egina, neure beldurrak, neure buruaz fida izan gabeak naduka, hark karguak eta konpainiak ere utz arazitzen derauzkit». Hunela <288> ihardetsi zuen Antioko hark. Halatan erraiten du Platonek, presuna haserrekorrak eta kolerak adimendutsu direla, eta anhitz ikhasteko on; ez, ordea, herrien gobernatzeko, eta ez eskola edukitzeko ere. Zeren hartarakotzat pazientzia behar da, sosegu behar da, eta anhitzetan ere ikhusia ez ikhusi, eta aditua ere ez aditu iduri egin behar da.

Hala Kotis Traziako errege hark ere, ikhusirik gauza hunetan flako zela, berehala lehenbiziko okhasinoan kolera burura igaiten eta nabusitzen zeikala, pairurik batere etzuela, sentikorregi zela: eta bere baithan aitzinetik pazientzia izaitera deliberatuagatik ere, berehala, lehenbiziko inkontruan behaztopatzen zela, eta erortzen: enseiatu zen, ahal bezanbat, koleraren okhasino guztietarik ihes egitera (Carolus Stephanus, verbo *Cotys*). Eta hala, kontatzen du Plutarkok, ekharri zeraukatela egun batez errege Kotis hari present handi bat, baxera eder bat. Ordea, hautskorra, lurrezkoa eta beirakizkoa (Plutar. in *Aphoteh.*).

25 Eta ekharri zeraukatenean, errezibitu zuela presenta ongi, eta bai eskerrak ere eman ekharlei eta igorlei. Baina berehala ekharle heken beren aitzinean, berak bere eskuz guztiak zathitu eta porroskatu zituela, erraiten zuela: «Badakit, berdin, present eder haur, egun hautarik batez, ene zerbitzariak hauts lezaketela; eta ni naizenarekin <289> eta neure kondizino errearekin, orduan sobera haserre nindekeiela; eta neurri gabe, eta behar baino gehiago zerbitzari hek gaztiga nitzakeiela. Bada, dezadan aitzinetik erremedio iben, dezadan okhasinoa aparta, ditzadan orai neure eskuz diren guztiak, koleratu gabe, gero ez koleratzeagatik, zathi eta desegin. Eta hala, erran bezala egin ere zuen, irriz zegoela guztiak bere eskuz desegin zituen. Anhitzek laudatzen du errege haren kolpe hura, baina gutik segitzen. Hura da zer gertha ahal daki-dikaion aitzinetik pensatzea, bere buruaren ezagutzea, ethorkizuneko perilari begiaren edukitzea, eta koleraren kontrako eta iraungitzeko lehenbiziko erremedioa.

*Koleraren iraungitzeko bigarren erremedioa: dirakien eltzeari egiten zaikana,
kolerari ere egitea*

KAP. XXII

193 Gizon haserretua dirakien eltzea bezala da. Eta irakin hartarik ilkitzen da
khe bat, lanbo bat, zeinek, poetak dioen bezala, itsutzen baitu adimendua: *Ira impedit* 5
animum <290> *ne possit cernere verum*. Bada, elzeari sobera dirakienean, gainez do-
hanean, hirur moldez emaiten ohi zaika erremedio. Lehenbizikoa, sutik aldaratzeaz eta
urruntzeaz. Bigarrena, egurren edekitzeaz eta gutitzeaz. Hirugarrena, ur hotz gainetik
emaiteaz eta egotzteaz. Hala bada, koleraz eta gaitzerizkoaz bere etsaiaren kontra dira-
kienari ere, hirur erremedio hauk, bat bailira bezala, eta hautzaz bat eginik, eman behar 10
zaitza; eta hauk behar ditu hartu eta bere koleraren iraungitzeko begiratu.

Lehenbizikoa, sutik hastan: erran nahi du, bere etsaiaganik aldara, aparta eta
ihes egin. Zeren nola ez erratzeko erremediorik hoberena baita sutik urruntzea, hala
da ez ihardukitzeko eta ez haserretzeko ere, gizon haserrekorretarik eta etsaietarik
apartatzea eta begiratzea. Presuna haserrekorrak zuhaitz aranzetsuak bezala dira, 15
eztira ferekatzeko on; nehork uki baitza zaurtzen dute. Harri mugerraren pare dira:
barrenean dute sua, asko dute ukitzea. Halatan erran zioen Rebekak bere seme
Jakobi: «Ene seme, haserre da zure anaia Esau, zure kontra koleran dago; aldara zaki-
tza, beraz, bidetik, etzaitzala zenbait egunez ikhus, eta agian bitartean hotztuko da
eta ematuko». Zeren, erran komuna den bezala, ikhusten ez-tuen begiak ez-tu minik. 20

Hala, Jesus haurrak ere egin zuen ihes Herodesganik. <291> Eta badio Jondone
Paulok ere: *Date locum irae (Roma. 12)*. «Demogula lekhu, demogula amore hirari».
Erran nahi du begira gaitzezila presuna haserrekorretarik eta haserretzeko okhasinoeta-
rik, hauzitan sartzetik, liskartzetik eta behaztopa guztietarik. Zeren behin behaztopatuz 25
gero, zaldia bezala laur-oinka, aldapa behera, koleran abiatuz gero, gaitz da baratzea,
gaitz da aitzina iragan gabe, gaitzerizkoan sarthu gabe gelditzea. Beraz, hunelatan, di-
rakien eltzeari bere irakinaren gelditzeko emaiten zaikan erremedioa, emozu zuk ere
zeure buruari, zeure mendekatzeko desira desordenatuaren eta haserretasuneko iraki-
naren hotztek. Sutik gibela, okhasinoetarik aparta, etsaietarik ihes egin.

157-16 *baitza*: baditza. Ik. 157-16 testu-oharra.

§ 1

194 Bigarren erremedioa eltzeari bere irakinaren geldiarazitzeko, da egurren edetea, sukhaien gutitzea. Hala da, bada, koleraren eta haserreduraren irakinaren hotz-
 5 teko eta ematzeko erremedioa hitz gaixtoen eskusatzea, gogorki eta torpeki dago-
 tzunari emeki egoitea, ixilik utzte. Zeren nola sua egurren berretzeaz berretzen eta
 handitzen baita, eta edekitzeaz gutitzen eta ttipitzen: hala kolera eta haserretua ere
 alde batetik eta bertzetik hitz gaixtoen eta gogorren erraiteaz, handitzen eta pitzten
 da, eta ez ihardesteaz ttipitzen eta iraungitzen. Zuri zeure etsaiak bere koleran anhitz
 10 gauza erraiten deratzu: <292> ohoin bat zarela, enganatzaile bat zarela. Finean, San
 Basiliok dioen bezala: *Sic durant donec convitia, sicut sagittae, deficiant* (Basil.
Hom. 9 De ira). Tragaza kolpeka hari dena bezala buirakan direnek dirauteino, pensa
 ahalak edo dakizkienak aurthiki arteino ezta ixiltzen.

Eta orduan hura gaizki mintzo da, eta zuri ere gaizki mintzo dela iduritzen
 zaitzu. Eta, alabaina, zuk ere hari hainbertze edo gehiago, eta gaizkiago, erraiten
 15 diozu. Bertzeren gaixki minzatzeta zeure gaizkiago ihardesteaz nahi duzu erreme-
 diatu. Baina enganatzen zara. Zeren hori da harriak harriaren joitea, bietarik suaren
 pitztea, zauriaren gaizkoatzea eta etsaigoan barrenago sartzea. Zuri begia atheratzen
 deratzunari zuk ere atheratzeaz, ezta handik zurea sendatzen eta ez bere lekhura
 bihurtzen. Kolpe bat emaiten deratzunari bertze baten bihurtzeaz, eztoizu halatan
 20 zeure buruari eman deratzuna edekitzen.

Ohoin bat zarela erraiten deratzunari, hordi bat dela ihardesteaz, eztakusat
 irabazi handirik egiten dela. Baldin bethiere azkenarekin gelditu nahi bazara, eta ez
 behin ere amorerik eman, eta ez amainatu, ezta gerlaren akhabatzerik.

Aitzitik, nola hordiak anhitz edanez egarritzenago baitira, zeren arnoak erra-
 25 tzen baititu: hala etsaiak ere, ihardukiz etsaitzenago dira.

<293> Nahi baduzu geldi dadin etsaia, geldi zaitzezi; nahi baduzu ixil dadin, ixil
 zaitzezi. Nahi baduzu sua iraungi dadin, egurrak edeki iatzotzu. Zeren haur da biga-
 rren erremedioa, dirakien eltzearen irakitzetik geldi arazitzeko, koleraren iraungi-
 tzeko: egurren edekitzea, okhasinorik ez emaita, ixilik utzte.

§ 2

195 Hirugarren erremedioa, dirakien eltzearen gainez eginik dohanean geldi-
 tzeko eta behekitzeko, da ur hotza. Hala bada, koleraren iraungitzeko eta sosega-
 tzeko ere, da hitz ona, errepuesta emea eta ezta.

Hala erraiten du Spiritu Sainduak: *Responsio mollis frangit iram; sermo durus*
 35 *suscitat furorem* (Proverb. 15). Errepuesta emeak, eztiak eta berak, ematzen, ezti-
 tzen, beratzen eta hausten du mendekatzeko desira desordenatua, baina solhas gogo-
 rrak pitzten du kolera.

158-3 *edetea*: Beherago *edekitzeaz* (158-6); biak dira *edeki* aditzaren izenak (ik. *OEH*, s.v.),
ebagi-tik *ebatea* sortzen den bezalatsu, adibidez.

158-11 *tragaza*: *gezia*.

Haur da gauza miretstekoa, berak beratzen baitu gogorra, emeki eta mantsoki minzatzeak ematen eta sosegatzen baitu kolera.

Mors et vita in manibus linguae (Proverb. 16). Mihiaren eskuan daude heriotza eta bizitzea, gerla eta bakea. Nahi baduzu, adiskide dezakezu zeure etsaia, eta bai etsaiago ere. Emozu ur, mintza zakitza emeki eta emero, sua <294> iraungiko da, gaitzerizkoa jabalduko da. 5

Mansuetus, sibi ipsi dulcis et aliis est utilis; iracundus, vero, et sibi insuavis, et aliis damnosus, dio San Krisostomok (Chrys. *Hom. 7*, tom. 3). Gizon bakezkoa, mansoa, sosegatua eta hitz onetakoa, gozo da beretzat, eta bertzerentzat atsegin eta plazent: halakoarekin guztiek dute lakhet, guztiek nahi dute ibili eta egon. Baina haserrekorra, jauzkorra, bere eta bertzeren galgarri da: halakoaganik guztiak aldaratzen dira, guztiek ihes egiten dute. 10

196 Nik uste dut ezen munduko ararteko guztiek eztezaketela zure etsaia hala balaka, eta ez sosega, nola zerorrek. Ordea, nola edo zertaz? Hitz onaz, errepuesta emeaz, begitarte alegeraz, salutantzia arraiaz, ongi minzatzeaz eta, guztien gainetik, okhasinoa presentatzen denean, ongi egiteaz. Hala erraiten du Jondone Paulok: *Si esurierit inimicus tuus, ciba illum; si sitit, potum da illi; hoc enim faciens, carbones ignis congeres super caput eius (Roma. 13).* «Emozu zeure etsaiari gose denean jatera, eta egarri denean edatera. Zeren halatan bildukoituzu ikhatz biziak haren buruaren gainean». Erran nahi du: nola ikhatz biziak elkharganutzen ditutzunean, sua pitzen eta egiten baitute: hala etsaia baithan ere, egiten derautzatzun ongiek eta zerbitzuek pitzen dute eta egiten amorioaren sua, bakea, adiskidetasuna. Eta guztiz ere, baldin zerori salutatzera, minzatzeraz <295> eta present igortzera aitzintzen bazara. Hark etsaiari bihotza hautsten eta arrobatzen dio, hark begia arraitzen dio, hark inprentzuaz bezala bere mendekatzeko gogoia bertze aldera itzultzen dio. 15 20 25

Eta baldin faltak zureak badira, hobenduri zerori bazara, orduan zu zara obligatu aitzintzera eta hitz eske jarraikitza. Eta faltak bertzerenak badira ere, ongi eginen duzu, eta jende prestuen eta deboten artean ongi aiphatua izanen zara, heken alderakotzat ohore izanen duzu, eta zeure arimakotzat merezimendu, aitzintzeaz, zerbait desenkusa bilhaturik edo ahantz iduri eginik, gaitzondorik erakutsi gabe lehen bezala minzatzeaz eta etsaiagana joaiteaz. Handik gibelatzen eta iraungitzen dira etsaitasunak. Baina «hi handi, ni handi» hisikaturik egoiteak, handirasunetan ibiltzeak, amorerik ez emaitak, gibelatzen du nehork egin nahi duen ontasuna, hersten eta tratatzen adiskidetzeko bidea. 30

§ 3

197 Orai hunen gainean erranen duzu: «Baldin ihardetsi gabe utzten badut, ordainaren bihurtzera enseiatzen ezpanaiz edo neror agur egitera aitzintzen banaiz, erranen dute eztheus bat naizela, beldur naizela, egiak erran zaizkidala, eta halatan,

159-32 «*Hi handi, ni handi.* Ohar zakizkio esan moldearen euskal itxura jator-jatorrari» (Villasanteren oh.).

neure buruaz fida izan gabez, <296> hitz eske nabilala. Baina, baldin baten bia bihur badiatzot, egin zaitan baino gogorkiango mintza banakio, erranen dute gizona naizela, ohoreaz prezatzen naizela, eta balentki egin dudala». Sinhesten dut zenbaitek hala erranen duela. Baina halakoa eta halakoak izanen dira giristino gaixtoak, Jainkoaz
5 baino munduaz kontu gehiago hari direnak.

Eta munduko kontua ere ez tute halakoek ongi atheratzen. Zeren mundukotzat ere, guztia ongi pensatzera, ohoreago da etsaiari ongi egitea, gaizki egitea baino; ez ihardestea, ihardestea baino. Zeren ez ihardesteaz, kasurik ez egiteaz, emaiten duzu aditzera eztuzula hobenik, baina etsaia mintzo dela gaizki eta gaixtoki. Hala dio San
10 Krisostomok: *Quare, enim, dives, si pauper appelletur ridet? Quum id falsum novit. Item, si nos iniurias ridebimus, magnum erit argumentum quod falso reprehendimur* (Chrys. Ho. 48, tom. 3). Zergatik uste duzu ezen aberatsak egiten duela irri probe eta errumes deitzen dutenean? Zeren klar baita eztela hala, eztela errumes. Hala bada, zuk ere etsaiaren erranei irri egiteaz edo ez deus ihardesteaz, emaiten
15 duzu aditzera eztakiela zer mintzo den, egiatik athean dabilala.

198 Eta are gehiago, San Krisostomok berak dioen bezala: *Nihil sic confusionem facit gerenti mala, sicut fortis tolerantia patientis, neque in verbis <297> neque in opere reddere vindictam* (Chris. super *Episto.*). Deusez ere eztuzu hala ahalketuko zeure etsai gaizki egilea, nola pairatzeaz, sentimendurik ez egiteaz, erastera utzteaz.
20 Nola harri bati, edo sentimendurik eztuen bertze gauza bati, kolpeka darauntsanak, egiten baitio bere buruari kalte gehiago, eta hartan probetxu gabe unhatzen eta zathitzen baita: hala antsiarik eztuen bati edo konturik egiten eztuenari bere maliziaz darauntsanak ere, emaiten dio bere buruari gaitz gehiago.

Egun batez galdegin zer aukaten Dionisio filosofoari, ea zertaz egin ahal ziazaion gizon batek bere etsaiari damurik eta atsekaberik gehiena. Eta ihardetsi zuen hitz gutiz eta laburzki: «Prestu izaiteaz». Etsaiak nahi luke bethiere ediren zure baithan zenbait falta, eta edireiten duenean atsegin hartzen du, eta edireiten eztue-
25 nean damu. Eta handik erraiten ohi da, gaizki gobernatzen denak, faltatan erortzen denak atsegin egiten dioela bere etsaiari.

30 Beraz, goberna ongi, bizi prestuki, ez zeure burua abantailetan hartzera utz, ez ihardets, ez konturik egin. Zeren nola ur hotza baita eltzearen irakinaren gelditzeko erremedioa, eta bai sutik apartatzea eta egurren edekitzea ere: hala da koleraren hotzteko eta iraungitzeko bigarren erremedioa, eltzeari dirakienean egiten diozuna zeure kolerari ere egitea.

160-24/25 *ahal ziazaion*: ‘ahal ziezaiokeen’ ahalerazkoa, vs. *ziazon* ‘ziezaion’ subjuntibokoa (*utki ziazon* 328-1). Ik. 325-34 testu-oharra.

<298>

Koleraren iraingitzeko hirugarren erremedioa: ez orduan lehiatzea, kolera iragan arteino pausatzea

KAP. XXIII

199 Hirugarren erremedioa ez haserretzeko eta koleraren iraingitzeko edireiten dena da, Livio filosofoak bere diszipulu Teodosio enperadoreari eman zioena, erraiten zioela: «Badakit, enperadore handia, zenbait aldiz haserretuko eta kolera jarriko zarela. Bada, ordukotzat eman nahi deratzut konseilu on bat. Hala zarenean, ez kexa, ez lehia, ez berehala abia, iguriki aphur bat; ez albaitzeneza deus egin, ez erran eta ez aitzina, A, B, C eta hei darraizten bertze letrak erran arteino edo hartako espazioa, bitartea eta denbora iragan arteino; har albaitzeneza hainbertze asti eta pazientzia» (Aurelius Victor, in *Vita Theod.*). 5 10

Hunetara dio Spiritu Sainduak: *Ne proferas in iurgio cito* (*Proverb.*) «Eztezazula liskarrean ahotik hitza fite athera». Konseilu haur beror eman zeraukan bere nabusi Atenodoro filosofoak ere, etxetik partitzerakoan, Oktavio Augusto enperadoreari. Eta konseilua, hain parte onera hartu zuen enperadoreak, non urthe <299> bat gehiago eduki baitzuen etxean konseilaria. Anhitz bertzek ere egin du pensu haur, ediren du koleraren kontrako erremedio haur; erakutsi du hitzez eta obraz ere, on dela kolera diotsanaren aphur bat luzatzea, balantzan bezala edukitzea, ez berehala deliberatzea. Zeren kolera eta lehia eztira konseilari onak. 15

Eta badio Senekak ere: *Magnum remedium irae, est mora* (Senec., *lib. 2 de ira*, cap. 34). Hiraren, mendekatzeko desira desordenatuaren erremedio handia da luzatzea, pausatzea, ez lehiatzea. Zeren Zizeronek dioen bezala: *Nunquam iratus mediocritatem illam tenebit, quae est inter nimium et parum* (Cicero, *lib. 1 Officio*). Eztu behin ere gizon haserretuak behar den neurria begiratuko; peril da, 20

161-8 «*Albait*. Aurrizki hunez hornitutako aditz formei ‘formes de prescriptif’ deitzen die R. Lafonek (1944: I, 491)» (Villasanteren oh.). Beraz, «si te es posible, no hasas nada» itzulpena desegokia da, ‘ahalera’ adierazten baitu (alegia, *al = ahal* balitz bezala), eta ez aditz modu honek adierazten duen agindu iraunkorra, orainaldian agortzen ez dena: «no hasas nada» hutsez ordezkatu behar. Ez dago asko testuan; beste pasarte batean bi hauek, elkarrekin, eta besterik ez: *ez albaitzenegi, gibela albaitzindezi* (174-38).

gutiz edo soberaz huts egin dezan. Eta hala, haserre zarenean, zaren beldur, zaude gibela, eztagizula orduan gogoak diotsun gauzarik. Zeren orduan itsu zara, erho zara, nahasia zara, desarrazoina ere arrazoin iduritzen zaitzu. Marinelak denbora eder denean, bela egiten du, baina tormentan geldi dago. Hala bada, zu ere, nola
 5 haserre zarenean denbora gaixtoa baita, tormenta baita, zaude geldirik, zaude portuan, zaude etxean, pausa ezazu, ez deus egin eta ez erran, denbora eder arteino, koleraren tormentak diraeino. Zeren Menandrok dioen bezala, *Omnia quae iratus agis, postmodum errata invenies*, haserreturik egiten duzun guztia, <300> edirenen duzu, ondoan, gaizki egina dela. Eta badio Senekak ere: *Finis irae initium est paenitentiae* (Senec. in *Pr.*). «Hiraren eta koleraren fina eta akhabatzea da urriki-
 10 menduaren hastea».

200 Herodes, izen hunetako lehenbiziko errege jentil hark hil zuen Mariamnes bere emaztea koleran, jelosiaz, goganbehar batez, eta hain arinki, laburki eta lehia-
 15 tuki, non munduak jakin zueneko, egin baitzen kolpea (Ioseph., *li. antiquit. Iudaicarum*, cap. 9). Baina gero kolera hotzturik eta hobeki informaturik, jakin zuenean egia, eta izan segurantza hoben gabe hil zuela, hain dolutu eta atsekabeztatu zen, eta ethorri zoratzeko pontura, non gero bere etxeko zokho guztietan, bere ize-
 naz deitzen zuela, bere emaztearen bilha oihuz baitzebilan: hartan bere leheneko erhokeriaren gainera bertze bat, are handiagoa, egiten zuela.

20 Koleran zarenean egiten duzu anhitz erhokeria, eta gero kolera hura joan zaitzunean, ethortzen zaitzu erhokeria heken urrikia, eta egin ezpazinitu nahia.

Eta are, lehen bertzeren kontra haserretzen zinena orduan —Senekak dioen bezala— zeure buruaren kontra haserretzen zara: *Iratus, cum irasci desierit, tunc irascitur sibi* (Senec. in *Proverb.*).

25 Haserrearen obrak eztira behin ere konplituak, bethi dira zerbaiten eskas, hartzaren eta oraren umeak diren bezala. Zeren amak diren koleratsu, halatan dira <301> umeak ere faltatsu: hartzarenak, tronko bat bezala, eta orarenak itsu sortzen baitira.

30 Laudatzen da Arkita Tarentino hura, zeren bere burua koleratua ezagaturik, erran baitzioen bere lagun bati: *Cederem te nisi irascerer* (Lact. *De ira*, cap. 18). «Zeha intzaket, baldin haserre ezpanintz». Erran bailio bezala: «Esker emok ene koleran egonari, zeren bertzela, hartuko ituen egun heureak». Laudatzen da, halaber, Platon famatu hura, zeren bere adiskide bati zeha arazi baitzeraukan bere muthila, beldurrez berak bere koleran barrenegi sar zitzan eskuak.

35 **201** Ikhusazu nola filosofo hek, gizon zuhur adimendutsu hek, begiratzen ziren bere haserreduretan: beldurtasun handi batekin gobernatzen ziren bere koleretan. Zeren baitziakiten ezen gizon koleratua erho baten pare zela, etzegoela bere baithan. Halatan dio San Basiliok, *Momentanea quaedam insania est ira* (Basil. *Hom. de ira*), erhoke-
 40 ria labur bat dela hira, kolera. Eta uste zuen Platonek ere ezen gizon haserrearen eta adimendutik jauziaren erhokeriak, etzuela bertze diferentziarik, batak gutiago eta ber-
 tzeak gehiago irautea baizen. Zeren haserretuari, fitetzago iragaiten baitzaika bere

haserretasuna, erho erhoari bere erhotasuna baino. Baina gainerakoan, bata haserre eta bertzea erho diren bitartean, hain ongi lot, uzkal eta amarra ahal dezakete bata nola bertzea. Zeren orduan biak baitira berdin, biak baitira erho.

<302> Eta nola baita erhokeria handia erhoari, adimendutik jauzia dagoenari predikatzea, konseilu emaita eta zuhurtziaz minzatzea: hala da, halaber, erhokeria ez ttipia, kolera handi batean itsutua eta irakitua dagoenari, hala dagoenean, abenikoaz minzatzea, bere etsaiari barkha diazola erraitea. Zeren bere bero hartan, koleraren lehenbiziko apoderan, abiaduran eta indarrean, ezta bere buruaren jaun eta ez jabe. *Nec ira consilii est repletus capax* (August., *Ad fratres in Eremo*). Koleraz betherik dagoena, ezta konseilu hartzeko gai. Aitzitik, baldin orduan nehork halako gauzarik, abenikoazkorik, aipha badiazo, aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da, erratzen da, arneguz eta juramentuz hasten da. Eta hala, baldin haserre direnen eta hauzitan dabilzanan artean ongunderik eta abenikoarik egin nahi baduzu, ez berehala lehenbiziko egunean ekhin, utzkitzu, baldin nahi baduzu kolpea segur egin, aphur bat hotztera, unhatzera eta elkharren biphiltzera.

Zeren midikuak ere eztio eritasunari, goren pontuan denean, ezinbertzez bai-zen purgarik emaiten.

Beraz, hunelatan, on da Livio filosofoak eman zuen konseiluaren hartzea: haserre denean aphur bat igurikitzea, zenbait denboraren, deus egin gabe iragaitera utztea. Zeren Stazio poetak dioen bezala: *Da spacium tenuemque moram; male cuncta ministrat impetus*. Lehiak, kolerak eztu gauzarik ongi egiten, <303> guztiak hasteintu gaizki, eta akhabatzen gaizkiago. Utzi behar da, beraz, aphur bat hotztera eta iragaitera. Zeren haur da koleraren iraugitzeko hirugarren erremedioa: hark diraeino ez deus egitea, pausatzera utztea.



Koleraren iraungitzeko laugarren erremedioa da kontsideratzea etsaiak egiten derauzkiguten bidegabeak Jainkoaren gaztiguak direla

KAP. XXIV

202 Laugarren erremedioa koleraren iraungitzeko eta etsaiak egiten derauzkigun bidegabek ere pairatzeko, da Jainkoaren ordenamenduaren kontsideratzea, eta pentsatzea etsaiak egiten derauzkiguten atsekabeak Jainkoaren eskutik heldu direla, hark permititzen dituela, haren purgak direla. Hunen arauaz erran zioen gure Salbataileak berak heriotze errezibitzerakoan Jondone Petriri: *Calicem, quem mihi dedit Pater, non vis ut bibam illum?* (Ioan. 18). «Eztuzu nahi neure Aitak eman derautan kaliza edan dezadan? Heriotze errezibi dezadan? Hark ordenaturik dadutzan penak eta trabailluak paira ditzadan?». Jainkoaren ordenamendu huni behatzen zioen errege Dabid sainduak, *Semei zeritzan batek maradizinoak egotzten zerautzanean. Eta hala, erran zioen <304> Abisairi, maradizino heken egotzlea gaztigatu nahi zuenari: *Dimitte illum ut maledicat iuxta praeceptum Domini* (2 Reg. 16). «Utzazu maradika nazan Jaunaren manuaeren arauaz».*

«Zeren ez lezake, ez, gizon horrek horrelako ausartziarik har, baldin Jainkoak permititzen eta esku emaiten ezpalio; utzazu, beraz, berra nahi duen guztia, konpli beza Jainkoaren manua eta ordenamendua».

Etsaiak Jainkoaren azoteak eta zigorrak dira. Etsaiak Jainkoaren justiziaren muthilak eta borreroak dira. Beraz, ezkara heken kontra haserretu behar. Zeren, zer hoben du azoteak? Zer kulpa du borreroak? Baldin presuna batek hautsten baderatzu harri batez burua, zer falta du harri hark? Zergatik eman behar diozu harri hari kolperik? Orak egiten du hori, presuna utzirik, lotzen baitzaika harriari.

203 Erran ziotenean Job sainduari haren ardiak, kameluak eta bertze onak ere joan zituztela ohoinek, etzen batere haserretu eta ez arrenkuratu ohoinen kontra. Zeren baitziakien, ezen ohoin hek Jainkoaren justiziaren muthilak zirela, eta zeren Jainkoak permititu baitzerauen bere ardiak eta gainerako onak ere joan zerautzatela. Eta halatan, ohoinez kontu guti eginik, erran zuen: *Dominus dedit, Dominus abstulit; sicut Domino placuit, ita factum est; sit nomen Domini benedictum* (Iob. 1). «Jaunak eman, Jaunak edeki, Jaunak plazer zuen bezala egin da; biz, bada, Jaunaren <305> izena benedikatu».

Ikhusten duenean haurrak bere amaren eskuan zigorra eta hartzaz eman nahi dioela, behatzenago dio amari zigorrari baino. Zeren baitaki ezen, baldin amak nahi ezpadu, eztiola zigorrak minik eginen. Hala bada, guk ere etsaiak ditugunean, eta hek kalteak eta bidegabeak egiten, edo egin nahi derauzkigutenean, behatuago behar diogu Jainkoari, eta haren miseriordiari, etsaiei baino.

Zeren etsaiek, baldin Jainkoak permititzen ezpaderaue eta gibelatu nahi baditu, ezpaiterakute kalterik eginen. Eta halatan, erran zioen gure Salbatzaileak ere Pilatosi: *Non haberes in me potestatem nisi datum esset tibi desuper* (Ioan. 19). «Etzenduen ene gainean eskurik, eta ez bothererik izanen, baldin eman ezpalitzaitzu han goititik».

Zeure etsaiek anhitz bidegabe egiten deratzute, eta ikhusteintu Jainkoak bidegabe hek, badakizki, eta nahi balu ez liazaizute halakorik egin, debeka litzake: ordea, eztu debekatzen.

Zeren San Agustinek dioen bezala: *Cum Deus adversis rebus exagitat, aut merita examinat, aut peccata castigat, aut mercedem mihi aeternam pro malis toleratis servat*. Zeure etsaiek egiten derauzkitzuten bidegabe hetzaz, edo nahi ditu Jainkoak zure obrak eta merezimenduak ea finak eta egiazkoak direnz frogatu <306> eta examinat; edo zure bekhatuak hemen, bertzetan ez gaztigatzeagatik, gaztigatu; edo, finean, heken pairamenduaz eta sofrimenduaz, hek pazientki pairatzen eta sofriten ditutzula, pagamendu handi bat, zeruko loria eman.

§ 1

204 Etsaiak eta fortuna gaixtoak ditutzunean, bidegabeak egiten derauzkitzutenean, orduan behar diozu Jainkoari behatu, hartzaz orhoitu, harekin konsolatu, eta zeure baithan pensatu, hek guztiak Jainkoak igortzen derauzkitzula; eta noiz eta mundu hunetakotzat baitihoatzu gaizkienik, orduan baldin zerori nor bazara, dihoatzula bertze mundukotzat hobekienik. Eta Jainkoak uste balu etzarella harentzat izanen, halako penarik eta atsekaberik ez liazaizula eman, baina utz zinitzakeiela nahi duzun guztiaren egitera eta zeure plazerera bizitzera.

Midikuak etsituz gero, esperantza galduz gero, uzten dio eriarri nahi duenaren egitera, nahi duen bezanbat, nahi duenatarik jatera eta edatera, ezti deus debekatzen, zeren etsitu baitu. Baina duenean esperantza sendatuko dela, debekatzen derautza erdi gauzak, aphetitu guti utzten dio konplitzera. Hala bada, gure Jaungoikoak ere bekhatore eriarri, esperantzatan denean sendatuko eta salbatuko dela, debekatzen dio anhitz gauza, ezterautza <307> bere plazer guztiak konplitzera utzten, emaiten dio anhitz purga eta malenkonia; nahi du dituen etsaiak, eta egin diatzoten bidegabeak. Eta hura guztia da seinale ona. Zeren hartan da ageri, ezuela oraino Jainkoak hartzaz etsitu, ezuela gogatu, eta ez esperantza galdu.

166-35 *malenkonia*: «Gaztelania zaharrean ere ageri da hitz hau. Ikus *Quijote*, 1.^a parte, cap. 17» (Villasanteren oh.).

Eta haur da konsolamendu handia, etsaiak dituenaren eta bidegabeak errezibitzen dituenarentzat: jakitea eta konsideratzea hek guztiak Jainkoaren purgak eta azoteak direla, eta guztiak haren probetxutan direla. Eta hala, ez etsaiaganik, baina Jainkoaganik, adiskide guztien gaineko adiskideaganik heldu direnak bezala, errezibitu behar dituela.

5

Eta baldin hala errezibi balitza, eta baginitza, ezkindezke, egiten garen bezala, etsaiaren kontra kolera, eta ez geure baithan barrena ere egos eta malenkonia.

205 Erranen duzu etzarella, ez, haserretzen etsaiaren kontra, egiten edo erraiten derauzkitzun gaizkiakgatik, eztuzula hargatik gaitzesten, zeren badakizula hek guztiak Jainkoak permititzen dituela. Baina gaitzesten duzula bere intenzione gaixtoagatik, borondate uherragatik. Zeren zuk hari okhasinorik eman gabe, eta bidegaberik ere egin gabe, guztiarekin ere, hala darraitzun eta gaitz nahi deratzun. Hunela erraiten duzu; ez, ordea, ongi. Zeren zuk eztuzu behatu behar <308> zeure etsaiaren borondate gaixtora, baina behatu behar duzu zeure Jainkoaren borondate borondatetsura. Zeren haren borondatea eta intenzionea da, etsaiak egiten derauzkitzun gaizki hetzaz zuri ongi egitea: hetzaz nahi zaitu orai hemen penatu, gero bertzetan ez penatzeagatik.

10

15

Zauri gaixto bat, burdin goriaz jo gabe ezin senda ditekeiena duzunean, baldinba etzara burdin goriaren kontra, zeren erratzen zaituen eta min egiten deratzun, haserretuko. Baldinba etzara hain erho izanen. Baina pazientki pairatzen duzu, zeren baitakizu ezen burdina hura erabiltzen duen barberaren intenzionea eta borondatea ona dela, zein baita prinzipala. Hala da, bada, zure Jainkoaren intenzionea eta borondatea ere ona eta onera emana, zure etsaiarena gaixtoa eta nola-ahalezkoa izanagatik ere. Beraz, Jainkoaren borondateari behatu behar zaika, eta ez etsaiarenari.

20

Eta baldin haur hunela estimatzen eta pensatzen badugu, nola egin behar baitugu, zeren hala baita egia, geure baithan sosegatzeko, eta etsaiak egiten derauzkitzun kalteakgatik ez haserretzeko eta koleraren iraungitzeko erremedio handi bat edirenen dugu.

25



<309>

Koleraren iraungitzeko borzgarren erremedioa da konsideratzea zer moldez dagoen zure etsaia haserre denean

KAP. XXV

206 Koleraren iraungitzeko, etsaiaren kontra ez haserretzeko eta mendekatzetik ere gibelatzeko, erremedio ona da konsideratzea nola, zer moldez eta zer estatutan dagoen zure etsai hura haserre denean, mendekatu nahiz koleratua, zutzaz gaizki erraiten duela dabilanean. Eta edirenen duzu (lehen ere aditzera eman den bezala) orduan zure etsai hura itsu dela, erho dela, zentzutik eta adimendutik kanpoan dela. Beraz, nola, baldin bazendu anaia bat erhoa, adimendutik jauzia, eta hark anhitz gaizki egin eta erran baliazazu, eta bere buruari ere zenbait kolpe gaixto eman baliago, damuago baitzende zeure anaia haren kalteaz eta haren hala izaiteaz, egiten eta erraiten derauzkitzun bidegabe guztiez baino: hala, halaber, behar duzu izan damuago zure etsai, kolerak erauzirik dagoen hark, bere buruari egiten <310> derautzan kaltez, zuri egiten derauzkitzunez baino.

Haur batek, edo sukharrarekin nahasirik dagoen batek, edozein gauza erranagatik, etzara batere asaldatzen, eta ez zeure sosegutik kantitzen. Zeren baitakizu ezen hek eztakitela zer mintzo diren, eta ez zer hari diren. Hala bada, koleran dagoenak ere eztaki zer mintzo den, eta ez zer hari den. Eta halatan, halakoagatik eta halakoagatik egin zioen othoitz gure salbatzaileak bere aitari, erraiten zioela: *Pater, ignosce illis, quia nesciunt quid faciunt* (Luc. 23). «Aita, barkha iazezu: eztakite zer hari diren». Zeren koleran baitaude. *Cogita quod non est in se, qui vituperat, sed insanit; et non moleste feres contumelias ipsius*, dio San Krisostomok (Chrysost. Hom. 79, tom. 2). Pensa ezazu eztagoela bere baithan gaizki erraiten hari dena, baina adimendutik kanpoan dela, eta baldin hala pensatzen baduzu, erraxki pairatukoituzu egiten derauzkitzun bidegabeak. Presuna haserretuak eztu bere burua ezagutzen, eta ez nehor ikhusten, itsu da. Eta itsuak inkontru joitea eta iragaitean aurizkitzea, ezta miretsteko, etzara hargatik haserretu behar; eta haserretzekotz ere, zeure buruaren

169-26 *aurizki*: zapaldu, azpian hartu (Mixelena 1974: 118). Itzulpena honelatsu, beraz: «...y que al pasar te pise...».

GERO

- kontra haserretu behar zara, eta ez itsuaren kontra, eta ez koleran dagoenaren ere. Zeren zu baitzara argi, eta hura itsu; zu zuhur, eta hura erho; zu zeure tentuan eta zentzuan, eta hura handik <311> atean eta kanpoan. Beraz, paira beza zuhurak erhoa, argiak itsua, eta kolerarik eztuenak koleran dagoena. Haur da erremedio ona,
- 5 etsaiari barkhatzeko eta pairatzeko, haren egin-erranez konturik ez egiteko: nola eta zer moldez dagoen, koleran dagoenean, konsideratzea.

*Koleraren iraungitzeko seigarren erremedioa:
ez bilhatzea zer dioten gutzaz jendek*

KAP. XXVI

207 Bere soseguan egoiteko, asaldatu gabe eta haserretu gabe bizitzeko, ezta bide gaixtoa, gutzaz jendek zer erraiten duten ez bilhatzea, eta ez galdegitea. Hala erraiten du Senekak: *Non expedit omnia videre, omnia audire; multae iniuriae nos transeant, ex quibus plerasque non accipit qui nescit* (Senec. lib. 3 *De ira*, cap. 11). Ezta konpli, ezta on, gauza guztien jakitea, ikhustea, eta ez enzutea: iragan bedi anhitz gauza guk jakin gaberik, zeren eztakienak eztu damurik hartzen. 5

Nahi baduzu sosegu onean eta haserretu gabe egon, ez sobera galde, ez sobera bilha. Bilha dabilanak edirenen du, eta batean ezpada bertzean, bere burua egitekotan ibeniko du. Ezta on barrendari izaitea, ezta on <312> zelatan egoitea, eta ez iragaiten diren gauza guztien jakitea. Anhitzetan ere ekhartzen derauzkigute elha-berriak, erran-merranak, enzuten dugu zer dioten urliak eta sandiak, hunelakok eta halakok, eta gerok ere desiros gara jakitera. Baina gero, jakin dugunean, edireiten dugu nahi 10
eztuguna; eta gero handik jauzten eta koleratzen gara. Eta are orduan anhitz gauza egin behar dugu, geure ohoreagatik ere, baldin jakin ezpagendu, ezpaikinen halako egitekotan izanen. Eta hala, hobe da anhitz gauzaren ere ez jakitea. 15

Eta, are gehiago, jakinagatik ere, on da disimulatzea, ez jakin iduri egitea, ez jabetzea, ez bere gainera hartzea, edo desenkusatzea. 20

Errege Saulez erregetu berrian mintzo ziren jende batzuk gaizki, eta hain hurbil eta hagitz, non erregek berak aditzen baitzituen. Ordea, burua bertze alderat itzuli eta disimulatu zuen, ez aditu iduri egin zuen. *Disimulabat se audire* (2 *Reg.* 10). Eta halatan, handik pitz ahal zitekeien su guztia iraungi zuen.

208 Egun batez Arkelao erregeari, karrikan iragaiten zela, aurthiki zioten zenbait 25
ur burutik behera. Eta eztakigu ala ustekabean, ala berariaz. Baina konpainiakoak hasi ziren erraiten, hura zela ausartzia handia, eta <313> baldin gaztigatzen ezpazen, hurrenekoan gehiago eginen zutela. Ordea, berehala erregek berak sosega arazi zituen, erraiten zuela: *Non me respersit* (Plutar. in *Aphohthe*). «Euzue bakea; ezta bidegaberik egin. Ur haur aurthiki duenak, ez nau ni busti, zeren etziakien ni nin- 30

tzela». Etzuen bere gainera hartu, eta halatan hobekiago eta erraxkiago erremediatu zuen, eta irauungi pitztera zihoan sua.

5 Vespasiano enperadoreak hain zuen kondizione ona eta onera emana, ezen nahi etzuen bezala, edo haren presunari etzegokan bezala, nehor minzaten zeikanean, edo disimulatzen zuen, edo zenbait hitz jokolariz eta dostailuz, zenbait irri egiteko solhasez ederztatzen zuen, eta gero bere zegokan ohorearekin, deus galdu gabe gelditzen zen (Aurelius Victor, *De vitis Imperato.*).

10 Hala errege Antigonok ere, ediren baitzen egun batez hartaz gaizki mintzo ziren konpainia batetan, erran zerauen: *Longius discedite, ne vos rex audiat* (Senec. *li. 2 De ira, cap. 22*). «Zoazte urrunago, erregek adi etzaitzaten». Beraren kontra mintzo ziren, eta berak aparta zitezila erran zerauen; eta handik bera laudoriorekin, eta bertzeak ahalketuak gelditu ziren. Jakinez gero, enzunez gero, eta entzunari jabeturik, bere gainera hartuz gero, gaitz da koleratu gabe, mendekatzera enseiatu gabe, <314> kolperik egin gabe, edo hauzitan eta egitekotan sarthu gabe gelditzea.

15 Zer erremedio, bada, hautarik guztiotarik eskapatzeko? Ez deus galde, ez bilha, ez jakin; eta jakinez gero ere, egin ez jakin iduri, disimula, ez egitekoari jabe, ez bere gainera har, egin bere burua itsu, mutu eta gor.

20 Haur da erremedio ona koleraren iraungitzeko, bere buruari egitekorik ez emaiteko, diferentziantan nehorekin ez sartzeko, eta bakean eta soseguan, koleratu gabe egoiteko.

Koleraren iraungitzeko gainerako bertze erremedioak, kapitulu hunetan laburki ezarriak

KAP. XXVII

209 Pairu eta pazientzia izaiteko, bata bertzearekin ez haserretzeko, konsidera dezagun, ezen Adanen seme guztiok, eta guztiz ere giristinok, gorputz bat garela, eta gorputz hunen buru Jesu Kristo gure Salbatzailea dela. Hala erraiten du Jondone Paulok: *Unum corpus sumus in Christo Iesu; singuli, autem, alter alterius membra.* «Gorputz bat gara Jesu Kristo baithan, <315> eta bata bertzearen mienbro eta parte». Beraz, hunelatan elkhar onhetsi behar dugu, gorputzeko mienbroek eta partek elkhar onhesten duten bezala. 5 10

Gorputzeko mienbroetan ezta inbidiarik, eta ez mendekurik. Oinak zerbitzatzzen du eskua, eta eskuak oina. Oinari behaztopatuagatik, eztio eskuak kolperik emaiten. Hortzek mihia autsikitzen dutenean, nork hargatik atheratzeintu hortzak? Begiak lekhu goragoan daude oinak baino; ordea, hargatik begiek ezertan dadutuzate oinak, estimatzeintuzte, eztituzte arbuiazten. Aitzitik, ahal dagiten gutzia elkharri laguntzen zaitza, eta baldin egiten ezpazaitza, bere kaltetan faltatzen dute. Zeren baldin begiek argitzen ezpaderaueza oinei, oinak behaztopatuko dira, eta begiak iraziko. Sabelak jaten ezpadu, zangoak flakatuko dira, eta bai sabela bera ere ihartuko. Ez laguntzea, batbederak bere kaltetan egiten du. Eta halatan, haur ikhususirik, guztiek elkhar dadukate, elkharri laguntzen zaitza, elkhar onhesten dute. Eta bata bertzeari zerbaitetan huts eginagatik, elkharri pairatzen eta barkhatzen diote. Hala bada, guk ere elkharri pairatu eta barkhatu behar diogu, eta amorio eduki, zeren gorputz bat, eta gorputz batetako mienbroak eta parteak baikara. 15 20
<316>

§ 1

210 Halaber, koleraren iraungitzeko on da zerbait lani lotzea, bertzetan pensatzea, gogoaren aldatzea. Hala erraiten dute egiten zuela Klimas zeritzan batek. koleraren eritasunaz ukitua sentitzen zenean, aldatzen zela bertze egitekotara, soinu eta kantuz hasten zela eta, halatan, bere gaitza eta kolera ahantzten zeitzala, eta sosegatua gelditzen zela (AElíanus). 25

Halaber, erremedio ona da koleraren gibelatzeko, kontsideratzea zeurk ere anhitz huts eta falta egiten duzula, baina hargatik eztuzula zeure burua zehatzen, eta ez penatzen. Erremedio haur ukitu zuen Senekak, erran zuenean: *Poterit non irasci, statim utique, si sibi tacitus ad singula, quibus offenditur, dixerit: «Haec et ipse commissi»* (Senec. lib. De ira, cap. 28). Badagoke haserretu gabe bidegabeak errezibitzen dituen, baldin orduan berean erraiten badio ixilik bere baithan bere buruari: «Nik neronek ere egin nuen noizbait huneinbertze».

Eta badio San Gregoriok ere: *Quasi aqua ignis extinguatur, cum, surgente furore animi, sua cuique ad mentem culpa revocatur. Quia erubescit peccatis non parcere, qui Deo vel proximo saepe se recolit parcenda peccasse* (Gregor. in Moral., li. 5). Ura suaz iraungitzen den bezala, iraungitzen da kolera <317> ere batbederak bere faltan gogoratzeaz. Zeren ahalketzen da, edo ahalketu behar luke, bertzeri ez barkhatzeaz, berak barkhakizun gehiago, edo hainbertze duenean. Ezta zuhurtzia, faltatan erortzen denak faltatan erortzen denaren gaitzestea eta gaitzigatzea. Zeren halatan berak ere bere burua gaitzetsi eta gaitzigatu behar bailuke.

§ 2

211 Halaber, koleraren iraungitzeko on da, adiskide baten, Mezenas baten aldakan izaitea. Hark linburtzera zohazinean, kolerak itsuturik erhokeria baten egitera zaramatzinean, kapatik thira zaitzan, abisa zaitzan eta erortzetik begira zaitzan. Gizon bat zihoan behin bere gogoz bertze baten hiltzera; eta ikhusirik bere adiskide batek nola zihoan, galdegin zeraukan: «Norat zoaz horrela harmaturik?». Ihardetsi zioen: «Hunelakoren, urliaren hiltzera noha». «Eta zer izanen da, baldin hark zu hiltzen bazaitu?». «Ez nintzen horretzaz orhoitzen». Adiskideak orhoitarazi zuen, eta orhoiturik, gibelat bihur arazi zuen.

Anhitzetan egin zioen ofizio haur Mezenas bere adiskideak Augusto Zesar enperadoreari. Eta guztiz ere egun batez, enperadore hark kolerak itsuturik eman baitzuen sententzia gaixto bat, eta haren arauaz <318> jende handia baitzaramaten galtzera, eskiribatu zioen Mezenas bere adiskideak, eta igorri eskutik eskura, bera jendartean urrun egonez, buthun labur bat erraiten zioela: *Surge carnifex* (Zonar. t. 2. *Annal.*). «Jaiki adi, karnazera; ikhusak zer hari aizen, borroeroa». Enperadoreak buthun hura, hain laburra eta zinezkoa errezibitu zuenean, norik egin zen izenik ezpazuen ere, ezagutu zuen bere adiskidearen letra eta eskua; hartu zuen parte onera, eta berehala, bere falta ezaguturik, kolerak eragin zeraukala ikhusirik, barkhatu zerauen guztiei. Anhitz balio du adiskide leial baten bere konpainian izaiteak, hark egiak erran diatzon, eta deus erran gabe ere, ukhondoaz utki dezan edo begiaz kheinu egin diazon. Zeren batzutan gehiago egiten du kheinuak, mihiak baino. Gauza baten egitera zohazinean, eta zeure adiskideak eztagizula erraiten deratzunean, ez albaitzenegi, gibela albaitzindezi. Zeren komunzki orduan

174-30 *karnazer*: harakina.

174-38 *ez albaitzenegi, gibela albaitzindezi*: Bata bestearen ondoan ditugu hurrenez hurren

hobeki dakusa zure adiskide hark, zuk baino. Zeren zu nola baitzaude deliberatua, eta bai batzutan pasionatua eta itsutua ere, eztuzu den guztia ikhusten. Baina zure adiskideak eztu pasionerik, argi ditu begiak, hark den bezala eta behar bezala ikhusten du.

Etzait egundaino neure adiskidearen abisuaren kontra egin dudan gauzarik ongi gerthatu. Midikuak ere, munduko hoberena <319> bada ere, eritzen denean, bertze midikuen eskuetan utzten du bere burua, bertzeren abisuz eta ordenantzaz midizinatzen eta errekaizatzen da. Bada, koleran dagoena eri da. Beraz, nahi badu sendatu, beha bekio bere adiskideari, goberna bedi haren konseiluz eta abisuz, zeren halatan edirenen da ongi, eta ez bertzela.

212 Finean, ez koleratzeko eta kolerak dioskun gauzarik ez egiteko, oraikotz azken erremedioa da konsideratzea eta geure baithan barrena pensatzea, zein gauza ona, plazenta eta ondore onetakoa den, ez ihardukitzea, mendeku bilha ez ibiltzea, bakean egoitea. *Quis, enim, labor est fratri indulgere conturbanti? Labor quidem in remittendo nullus; in retinendo, autem, inimicitias, maximus; si quidem iracundia liberari, maximam reddit menti quietem, et valde hoc est facile volenti. Neque, enim, necesse est maria transfretare, nec longi itineris peregrinationem subire, nec montium excelsa ascendere, nec pecuniam impendere, nec corpus intendere; sed sufficit velle tantummodo* (Chrysost. serm. 21, t. 2). «Zer trabailu da etsaiari barkhatzea? Ez bat ere», dio San Krisostomok. Zeren ezta hartarakotzat itsasorik iragan behar, ez bidean ibili, ez mendian gora igan, ez dirurik gastatu, ez gorputzik higatu, eta ez bertze trabailurik hartu: nahia behar da, eta ez bertzerik. Baina egiteko handia da, eta penagarria, ez barkhatzea, ea nondik <320> edo nola mendekatuko den bethiere gogoetan egoitea. Eta, ezpere, konparaitzatu eta komunzta elkharrekin, etsaitasunean eta mendekatzeko desiran ibili zaren denbora, eta etsaitasunik gabe, bakean egon zarena, edo zaudena: eta ikhusiko duzu zer diferentzia den bien artean, zenbat dohan batetik bertzera. Edirenen duzu, ezen lehen anhitzetan ere konpainia batzuetarik aldaratu behar zendueta, zeren han gerthatzen baitzen zenbait zure etsai. Halaber, edirenen duzu lehen zinela gerlan, eta orai zarella, biktoria erdietsirik, bakean. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Victoria contra iram est quidem maxima, non cum iniurias ulciscimur, sed cum eas aequo animo toleramus*. Etsaitasuneko biktoria eta garaitia eztago, ez, mendekatzean, eta ez ordainaren bihurtzean edo doblearen, baina dago barkhatzean eta bidegabean pazientki pairatzean. Zeren orduan zeure etsaia, zeure burua eta deabrua ere garaitzen baitituzu, eta arima, eta gorputza ere bakean, soseguan eta segurean ibentzen. Zein baita gauza handia, laudatzekoa, eta lehen baino lehen, geroko begira egon gabe, etsaitasunaren utzteko lehenen gainera erremedio ona eta konsideratzekoa.

«prescriptif» eta «eventual à préfixe *bait-*» izenez Lafonek (1944: II, 95-96) bereizten dituen *albait*-en bi erabilerak: «...ez egin, gibelatu ahalko bazina» (Villasantek erdaraz itzuli bezala), ala biak dira «prescriptif»-ekoak, hots: «ez egin, gibela zaitetz»? Gu bigarrenaren alde makurtuko ginatke. Ik. 161-8 oin-oh.



<321>

Zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu eta amorio eduki. Lehenbiziko arrazoina: zeren Jainkoak manatzzen baitu

KAP. XXVIII

213 Erran dugu zenbat kalte egiten duen mendekatzeko desira desordenatuak, eta handik sortzen den gaitzerizkoak; ibeni dugu, halaber, zenbait erremedio eta konsiderazio ez haserretzeko, mendekuen utzteko eta koleraren iraungitzeko. 5

Bada, orai behar da jakin eta konsideratu, materia hunetako ponturik prinzipalena: ea nola behar dugun geure etsaiaren alderakotzat gobernatu; behar dugunz etsaia onhetsi ala gaitzetsi.

Eta baldin onhetsi behar badugu, ea zergatik, zer kausaz edo arrazoinez behar dugun onhetsi. 10

Lehenago, Lege Zaharrean, legea gaizki aditurik, etzedukaten bekhatu etsaiaren gaitzestea. Zeren nola legeak manatzen baitzuen adiskideak onhetsi zitzatela, eta etsaiez ezpaitzuen deus erraiten eta konturik egiten, handik atheratzen zuten, beraz, etsaiak gaitzets <322> ahal zitzaketela. 15

Baina zerutik lurrera jautsi zenak erakutsi zuen zer egin behar zen hunetan ere, erraiten zuela: *Si, enim, diligitis eos qui vos diligunt, quam mercedem habebitis? Nonne et publicani hoc faciunt? (Math. 5)*. «Adiskidearen onhesteaz, zer irabazi, zer esker eta merezimendu uste duzue izanen duzuela?». Jentilek, Jainkorik ezagutzen ez tutenek eta jende gaixtoek ere egiten dute hori, hek ere onhetsteintuzte bere ongi egileak. *Diligite inimicos vestros*. Etsaiak, etsaiak onhetsi behar dituzue, gaizki egiten deratzuezanei egin behar derauezue ongi. Eta zenbatenez eta hek zuei gaizkiago, hanbatenez zuek hei ongiago. *Vince in bono malum*. Ongiaz gaizkia garaitu behar da. 20

Ordea, zergatik onhetsi behar dugu geure etsaia? Egiten derakunari gaizki, zergatik egin behar diogu ongi? Dugun jakin, dugun bilha zenbait arrazoin. 25

Lehenbiziko arrazoina, alde guztiz lehenbizikoa, ezetz ezin derrakegun bezala, oin-eskuetan lotzen gaituena da Jainkoaren manua eta borondatea: *Ego, autem, dico vobis, diligite inimicos vestros*. «Nahi duenak berra nahi duena, baina nik erraiten deratzuet zuei, onhetsi ditzatzuela zeuen etsaiak».

177-21 *deratzuezanei*: dizuetenei. Ik. 177-21 testu-oharra.

214 Pitagoras filosofo handi haren diszipuluek etzuten bertze manurik behar, eta ez <323> arrazoinik, jakitea baizen heken nabusiak erran zuela (Cicero, *De nat. deorum*).

- Nabusiak erran du, nabusiak manatu du: beraz, hala da, eta hala egin behar da.
- 5 Haur zen heken hitzkuntza. Bada, gureztat, guk geure etsaiaren onhesteko, ezta asko izanen, onhets dezagula Jaikoak manatzen duela jakitea?

Presuna batek bidegabe bat egiten deratzunean, gerthatzen da enplegatzen baitira bitartekoak eta arartekoak, ongunden egiteko; lehenbizikorik ethortzen zaitzu zeure lagun bat, zeure adiskide-kide bat, eta hark erraiten deratzu: «Badakit urliak bidegabe egin deratzula, baina urrikitan dago, damu du, ezagutzen du bere falta, eta

10 bidegabe egin deratzula, baina urrikitan dago, damu du, ezagutzen du bere falta, eta hala, ene amoreakgatik barkhatu behar diozu, adiskidetu behar zarete». Hunela erraiten deratzu zeure lagun adiskideak. Baina zuk hari erraxki erraiten diozu ezetz, eztuzula nahi, zeren ezpazatzaitza ahalke, ezpaitadukazu zeure burua baino gehiagoren.

- 15 Zure lagun haren ondoan, hark deus ezin egin duenean, ethortzen zaitzu bertze ararteko bat, handiagoa eta ahalkesunagoa. Eta ez hain erraxki nola lehenari, baina zeren kolera handian baitzaude, hari ere emaiten diozu eza, erraiten diozu eztakizula, othoi, gauza hartaz mintza, zeren sobera zaudela errea, zaurtua eta giharran ukitua.

- 20 <324> Azkenean enplegatzen da errege bera, eta hark berehala hausten zaitu, beratzen zaitu, etzatzaitza ezetz erraitera ausartzen.

Bada, baldin lurreko parte baten errege bati, egun baldin bada bihar izanen eztenari ausartzen ezpazatzaitza ezetz erraitera, mundu guztiko Erregeari, Jainkoari berari, nolatan ausartuko zatzaitza ezetz erraitera, kontratzera, eta manatzen zaitue-
 25 nean onhets dezazula zeure etsaia, eztuzula onhetsi nahi eta eztiozula barkhatu nahi erraitera?

§ 1

- 215** Erranen duzu komunzki etsaigoan daudenek bere etsaigoaren edertzatzeko eta estaltzeko erraiten dutena. «Nik barkhatzen diot, eztiot gaitzik desideratzen, eta
 30 ez ordenatzen. Aitzitik, nik neureztat nahi nukeien bezanbat ontasan demola Jainkoak. Baina ez natzaika mintzatu nahi, eta eztut nahi mintza dakidan».

«Ezta bertze gauzarik, harekin deus eztudala nahi baizen». Hunela erraiten duzu, baina eztakit ongi erraiten duzunz. Zeren badirudi ezen hunela elkharrekin minzatzun ez tirenak, ez tirela borondate gaixto gabe.

- 35 Ezagun dira bere hitzetan eta solhasetan. Zeren ezterrakete elkharrez ongirik, itxurapenez edo baizen; obretan ere elkharren behartzen eta meneratzen direnean, elkharri ahalez <325> heltzen zaitza.

178-16 *ahalkesun*: «Hunela dago idatzirik, baina Mitxelenak uste du *ahalkeizun* behar lukeela. Ikus Mitxelena (1974: 108)» (Villasanteren oh.). Ikus orain *OEH*-n (s.v. *ahalkeizun*).

Bada gogoaz eta borondateaz denaz bezanbatean, berak ibenzeintut lekhuko, zeren berek dakite zer borondate duten elkharren alderakotzat. Eta baldin ongi pensatzen eta konsideratzen badute, edirenen dute badutela barren hartan zenbait uherdura, zenbait herra eta gorrotu, eta ez dioten bezain bere gogoaz eta bihotzak garbi eta klar.

Errementaldegian, harotzaren sutegian, hauskoak haize emaitetik gelditzen direnean badirudi ezteela surik. Zeren berehala ikhatzak ilhaunez estaltzen baitira. Ordea, higitzatu aphur bat hauskoak, eta ikhusiko duzu nola berehala berriz sua agertzen den. Hala agertzen da, bada, elkharrekin mintzatzen ez direnen arteko borondate gaixtoaren sua ere, den okhasinorik ttipiengan elkharren behartzen direnean. 5

216 Ordea, borondate gaixtorik ezteanean, ez minzatzea bera, ez salutatzea edo ez konbersatzea, bekhatu othe da? (Vide Caie. in *Summa*, verbo *odium*). 10

Baldin komunzki, giristinoak giristinoekin, ahaideak ahaidekin eta herrikoak herrikoekin bezala, bidean inkontratzean, deus galdegiten deratzunean edo bertze kasurik gerthatzen denean, ihardesten badiozu, salutatzen baduzu eta borondate gaixtorik ez izan, bertze gainerakoan laburzki utziagatik, adiskide mami batekin bezala <326> harekin ez ibiliagatik, badirudi ezteela orduan bekhatu; guztiz ere baldin uste baduzu, maiz minzatzetik eta elkharrekin segitzetik ethor ditekeiela kalte, nola ethortzen baita batzutan. Zeren badira jende batzuk hain okhasinotsuak, arrunkide gaitzak, batkari ondikoakoak eta inkontru gaixtotakoak, non hobe baita halakoei alde egitea, eta heken bidetarik eta inkontruatarik ihes egitea eta aldaratzea, igurikitzea baino. 15

Ordea, zeren apartaturik ibiltzeak, elkharren inkontruatarik ihes egiteak, eta edergailu baizen elkharrekin ez minzatzek erran nahi baitu badela bitartean zenbait etsaigoa eta borondate gaixto, erraite huragatik, etsai famagatik, eta hartan emaiten den eskandaluagatik, baldin erraite hura, etsai fama hura eta eskandalua iraungitzen ezpaduzu, borondate gaixtorik ez izanagatik ere, etzara peril gabe zeure konzientzian, zeren obligatu zara, eta obligatu gara, baldin barrenean giristino bagara, kanpoan ere giristino garela erakustera eta aditzera emaitera. Ezkara obligatu adiskidekin bezala, etsaiekin geure sekeretuez eta egitekoez minzatzera, hekin maiz ibiltzera, eta ez hekengana adiskidetara bezala joaitera. Asko da salutatzea, munduak etsai eduki ezkaitzakeien bezala bizitzea, borondate gaixtorik ez edukitzea eta eskandalurik ez emaita. <327> Gainerakoan nork bere egitekoak egin ditzala eta behar duena behar duenarekin solhasta dadila. 20

Egia da, ordea, saindu izaiteko, giristino komunei abantail eramaiteko, ezta asko salutatzea, borondate gaixtorik ez edukitzea, eta ez eskandalurik ere ez emaita: baina guztiekin behar da izan orobat, guztiekin behar da izan solhasturi, amoltsu eta arronter. 25

Eta, are gehiago, ezta asko gaizki egiten derakunari gaizkirik ez egitea, baina ongi egin behan diogu. Zeren hura da saindutasuna, perfet-tasuna, debozinoan konplitu izaita, eta Jainkoak karitateaz eta amorioaz eman derakun manuaren konplitzea. 30

179-14/15 *eta borondate gaixtorik ez izan*: Honelako segidarik ez dugu ikusi, 'jokatua + jokatua + jokatugabea', alegia. Ala zer edo zer faltan?

§ 2

217 Erran dugu barkhatu behar diogula geure etsaiari eta amorio eduki, zeren
hala manatzen baitu Jainkoak. Ordea, noiz manatu othe zuen? Orzegun Saindu arra-
tsean, hil behar zuen bezperan, bere azken finean, kandela eskuan harturik bezala
5 zegoenean. Emaztea orhoitzen da bere senharrak hiltzerakoan erran zioen azken
hitzaz, eta bai semea ere, orduko bere aitaren konseiluaz.

Bada gure Jaungoikoak bere azken finean, mundu hunetarik bertzera parti-
tzerakoan, erran zerauen bere diszipuluei eta hekin batean guri guztioi: <328>
«Ene diszipuluak, ene giristino maiteak: badakusazue nola nagoen, nola heriotzea
10 hurbildu zaitan, sarri hil behar dudan, eta neure testamentaren eta azken ordenua-
ren egiteko ordu dudan. Bada, ene azken ordenua, ene azken borondatea eta manua
haur da, *Ut diligatis invicem* (Ioan. 15), elkhar onhets dezazuela, etsaiari barkha
diazozuela».

«Hunetan izanen zarete seinale, hunetan izanen zarete ezagutuak, eneak eta
15 ene eskolan eta konpainian haziak eta ikhasiak zaretela». *In hoc cognoscent omnes
quod discipuli mei estis, si dilectionem habueritis ad invicem* (Ioan. 13).

218 Badakizue zenbat bidegabe egin zioten Joseph patriarka handi hari bere
anaiek, nola gaitzetsi zuten eta saldu zuten. Eta nola gero, halaber, denboraren
buruan, guti usterik, bere anaia salduaren beharrera eta menera ethorri ziren, hers-
20 tura handian jarri ziren: hain handian, ezen gero bere aita Jakob hil zeienean, hasi
baitziren elkhargana bildurik elkharri erraiten: «Zer izanen da, bada, orai gutzaz?
Hil da gure aita prestua, ona eta saindua; eta hura bizi zeino ongi ginen, segur ginen,
zeren haren amoreakgatik, geure anaiak barkhatzen zerakun. Baina orai, nor balia-
tuko zaiku? Norgatik baliatuko deraku?».

Gogoeta handi zuten bere baithan. Eta gogoetak gogoeta eragiten <329> ze-
rauela, erran zioten elkharri: «Lehen geure aitaren amoreakgatik barkhatu zerakun
geure anaiak: bada, orai ere harengatik beragatik barkhatu behar deraku. Eta
hartarakotzat joan behar gatzaitza aitaren partez minzatzera, eta erran behar diogu
harketz molde hunetan: *Pater tuus praecepit nobis antequam moreretur, ut haec tibi
30 verbis illius diceremus: Obsecro ut obliviscaris sceleris fratrum tuorum et peccati
atque malitiae quam exercuerunt in te. Nos quoque oramus, ut servo Dei, patri tuo,
dimittas iniquitatem hanc. Quibus auditis, flevit Ioseph* (Gen. ulti.). «Jauna —errai-
ten diote Josephi bere anaiek—, badakizu zure eta gure aita prestua hil dela, eta hil
ere ongi eta sainduki, bizi bezala hil ere. Hiltzerakoan zure galdegin zuen, eta hats-
35 beherapen handi bat eginik, erran zuen: —Non da Joseph, ene seme maite hura?
Errozue haren ikhusmin handi batekin hiltzen naizela, eta neure benedizioea ba-
diodala. Errozue, halaber, orainokoan seme onak bezala bethi ene borondatea egin
duela, eta orai ere egin behar duela. Eta ene borondatea, ene azken adioa eta othoitza
dela, eztadin orhoit zuek egin zinioten bidegabeaz eta maliziaz, baina nahi deratzuen
40 barkhatu, eta halakorik iragan ezpailiz bezala, anaiatasun on bat eduki eta erakutsi.
Haur gomendatzen diodala, eta ez bertzerik; haur dela ene azken adioa, eta hark ene
amoreakgatik egin behar duena». Hunela bere aitaren partez <330> bere anaiak

Josephi mintzatu zeitanean, begiak busti zeitzan, nigarra jauzi zeikan; eta nola mendekatuko zen, ezen besarka bere anaiei lothu zeien, erraiten zerauela: «Aitak manatzen nau barkha diazazuedala; bada, halako aitaren manua, eta halako puntadan eta denboran, arimak egiterakoan emana, nork eztu konplituko?». Konplitu zuen, guztiei barkhatu zerauen. 5

219 Hala bada, guri ere geure Jainkoak, bere azken finean, hiltzeko denbora hurbildu zeikanean, erran zerakun: «Jende onak, badakusazue nola nagoen neure azken puntuaren bezperan, nola bihar hil behar dudan; bada, baldin orainokoan batere ontasunik egin baderatzuet, baldin deusetan ere ene alderakotzat zordun edireiten baditutzue zeuen buruok, gauza bat egin behar duzue enegatik, eta hartaz kitatzen zaituztet». —Ha, Jauna, errazu zer, zeren bihotz gogorra eta ezagutza gutitakoa izanen da, zu bezalako aitaren manua, eta puntu horretan emana konplituko eztuena. —Zer? Elkhar onhets dezazuela, etsaiari ene amoreakgatik barkha diazozuela. Haur da ene azken borondatea, eta guztien gaineratik gomendatzen deratzuedana. 10

Beraz, ezta ezetz erraiterik: barkhatu behar diogu geure etsaiari, egin ongi eta eduki amorio. Zeren hala manatu baikaitu geure Jaungoikoak. Eta manatu ere, ez noiznahi <331> den, baina bere azken finean, batbederari den hitzik ttipiena ere bihotzean barrena sarthu behar litzaikaion denboran. 15



*Bigarren arrazoina zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu, da zeren
mendekatzea beretzat begiratzan baitu Jainkoak*

KAP. XXIX

220 Nehork bidegabe bat egiten deratzunean, eztu nahi Jainkoak zuk ordainik 5
bihur diazozun: berak hartzen du bere gainera mendekatzea eta justizia egitea. *Mea* 5
est ultio, et ego retribuam eis in tempore (Deut. 32; Roma. 12). Etsaiak gaizki bat
egiten deratzunean, zuri baino gehiago egiten dio Jainkoari, zeren hartan haren ma-
nua hausten baitu. Ordea, eztu hargatik Jainkoak berehala gaztigitzen, igurikitzen
dio, eta igurikiagatik eztu desohorerik. Beraz, eztuzu zuk ere desohorerik izanen, 10
bertze munduraino igurikitzeaz, hareraino ez mendekatzeaz. Baldin orai pazientzia 10
baduzu, Jainkoari berari berak dagiela utzten badiozu, zaren segur, berak berari egin
zaikan bidegabea, eta zuri ere egin deratzutena, kolpe batez, eskas gabe eta merezi
bezala gaztigituko dituela, eta behar den deskargua etsaiari eraginen deraukala.
<332> Zerori zeure eskuz mendekatu nahi bazara, penatu behar zara, eta anhi- 15
tzetan ere deus ezin eginez gelditu behar zara. Zeren benturaz etsaia izanen baita zu 15
baino indartsuago eta botheretsuago. Eta Liviok dioen bezala: *Vana sine viribus ira*
(Livius dec. 1, lib. 1). Indar gabeko kolera, haserrea eta mendekatzeko desira, parrik
ezin iragan dezakeienarena, bano da, alfer eta guti balio. Eta erraiten du Senekak
ere: *Ergo ab ira abstinendum est, sive par est qui lacessendus est, sive superior, sive* 20
inferior. Nam cum pari contendere anceps, cum superiori furiosum, et cum inferiori 20
sordidum (Senec. lib. 2 *De ira*, cap. 34). Nolanahi den dela, begiratu behar da
ihardukitzetik eta etsaiaren akometatzetik, nahiz dela etsai hura zure berdin, nahiz
handiago eta nahiz ttipiago. Zeren berdinarekin ihardukitzea dudosa da eta perilos,
handiagoarekin erhokeria, eta ttipiagoarekin itsusi eta desohore. Eta guztiarekin ere, 25
haur hunela delarik eta dela dakizularik ere, iharduki nahiz zabilta, desira gaixtoz 25
bethea zaude, eztiozu etsaiari barkhatu nahi. Eta hartan zeure burua galtzen duzu.
Zeren hartan zeure buruari, etsaiari baino kalte gehiago egiten baitiozu. Hala emai-
ten du aditzera errege Dabitek, erraiten duenean: *Circunderunt me sicut apes*
(Psalm. 117). «Inguratu nenduten etsaiek, erleak bezala». Erleak nehor autsikitzen

183-17 *parrik*: «parerik» (Villasanteren oh.).

duenean, autsikitzenago du bere burua. Zeren bere eztena eta bizia han utzten baititu. Hala gerthatzen <333> zaitzu, bada, zuri ere: etsaiari autsiki egiten diozunean, barkhatu nahi eztiozunean eta bidegaberik egiten diozunean, gehiago egiten diozu zeure buruari.

5

221 Eta puntu hunen gainean gauza bat erran nahi deratzut: jakin behar duzu ezen zuk zeure etsaiari ez barkhatuagatik, eztela handik segitzen, baldin hark bere aldetik bere eginbidea egiten badu, eztioela hari Jainkoak barkhatuko. Orduan, ez barkhatzeaz zeure buruari egiten diozu kalte, eta ez zeure etsaiari.

10 Eta hala bethiere bai, baina guztiz ere zerori ezin mendeka zaitezkeienean, konsola zaite eta jakizu ezen Jainkoa mendekatuko dela. Eta hark eztuela utzten, eta ez utziko ere, faltarik gaztigatu gabe; eta zuk zerorrek eginen zinituen baino zintkiago eta fintkiago gaztigatuko dituela. Eta nola anhitzetan ere, aita batek bere semea zehatu duenean, zathitzen baitu zigorra eta egotzten sura: hala zure etsaia, zure zehatzailea eta penatzailea ere zathituko du Jainkoak, eta azkenean egotziko ifer-
15 nuko sura.

20 Beraz, hunelatan, presuna batek bidegabe bat egiten, erraiten edo pensatzen deratzunean, erran behar diozu Jainkoari: «Jauna, badakusazu zertan naizen, eta zer egin derautan; eta zuri, niri baino gehiago egin deratzu. Eta zuk badakizu nik baino hobeki zer gaztigu eta zenbat merezi duen. Ezta, beraz, arrazoin, zu zaren lekhuan nik eskurik har dezadan. Eta hala, <334> arrazoin den bezala eta manatzen duzun bezala, zerorri utzten deratzut, zeurk egizu justizia. Eta huneinbertzez, zeren fida bainaiz eginen duzula, oraidanik mendekatutzat dadukat neure burua, eta gelditzen naiz neure baithan sosegatua eta etsaiari barkhatzera deliberatua.

*Hirurgarren arrazoina, eta oraiкотz azkena: barkhatu behar diogula geure
etsaiari, Jainkoak guri barkha diazagun amoreakgatik*

KAP. XXX

222 Behar diogu geure etsaiari barkhatu, guri ere geure Jainkoak barkha diazagungatik. Zeren Jainkoak berak errana da, ezen baldin barkhatzen baderaukagu guk 5
geure etsaiari, barkhatuko derakula hark ere guri, baina ez bertzela (*Math.* 6). Eta ezkara gaizki, guk geure etsaiari barkhatzeaz Jainkoak guri barkhatzen derakunean: ezin erran diteke zein irabazi handia egiten dugun hunetan. Zeren nola gauza aphurra baita guri egiten zaikun bidegabea, baina handia, eta alde infinituki handia, guk Jainkoari egiten dioguna, gure barkhamendua ezta deus Jainkoarenarekin konparaturik. 10

Badira gauza batzuk, berak bakharrik, bere egitez gaitz baitira, baina bertze batekin juntaturik eta elkhar harturik erraz dira. Odol atheratzea, <335> kopatzea, purga uher baten, edari min baten edatea gaitz da, penos da, baina osasunarekin juntaturik erraz da. Sendatzeagatik, gogotik errezibitzen eta pairatzen dira. Hala etsaiari ere egiten derauzkitzun falten barkhatzea, bera bakharrik bere egitez, gaitz da. Ordea, junta ezazu hargatik zuri Jainkoak egiten derautzatzunak barkhatzearekin, eta errax idurituko zaitzu. Erraxki barkhatuko diozu zeure etsaiari, Jainkoak zuri barkha diazagungatik. Eta hala jende galduak eta adimendugabeak izanen gara, baldin geure probetxuagatik bedere, geure etsaiari barkhatzen ezpadiogu. 15
20

223 Egizu kontu, ea zenbat bekhatu egin ditutzun orainokoa, eta zein handiak, eta nahi baduzu zuk barkha diatzatzun hek zuri zeure Jaungoikoak, barkha iatzotzu zuk ere zeure etsaiari egiten derauzkitzunak. Presuna batek bidegabe bat egiten deratzunean, erraiten duzu eztiözula barkhatu nahi, ez behintzat hain fite. Zeren desohore ere badela berehala barkhatzea. Hori da blasfemia handia, Jainkoaren kontra minzatzea. Zeren hori da Jainkoaren manuaren konplitzea desohore dela erraitea. Barkhatu behar diozu, beraz, zeure etsaiari, eta barkhatu ere, ez edozein 25

185-13 *kopatzea*: V-k «sajar» eta AxH-n «cortar, sajar», zalantzaz (fr. *couper* eta, beraz, honekin lotuz, nonbait). Povvreauri esker, 'bentosak ipintzea' dela ikasi dugu (*OEH*, s.v. 1 *kopatu*).

moldez, ez hitzez, itxurapenez, kanpotik eta edergailu, baina zin-zinez eta gogotik, barrenetik eta bihotzetik. Zeren, jakizu, ezen bertzela ezteratzula Jainkoak <336> barkhatuko. Kofesa ahal zaitezke, gorputz saildua errezihi, barur, orazinotan egon, eta duzun guztia probei eman, baina hek guztiak etzaizkitzu deus baliatuko, baldin
5 barrenean nehori herratik, hegigoarik, gorroturik edo borondate gaixtorik badiadukozu.

Eztikete zauria senda, elhorria barrenean deino; eztekte bekhatua barkha, borondate gaixtoak diraueino. Barberek buruko zaurietan, lehenik haragia aldarazten dute, eta hezur kroskoa agertzen, bitartean odol ustelik geldi eztadin. Zeren,
10 baldin geldi baledi, hark midizinari eta ezartzen den erremedioari indarra flaka liazaio, eta berthutea edeki. Hala, arimako zauri hunetan ere lehenik behar da barreneko odol ustela eta etsaigoaren uhertasuna athera eta garbitu. Zeren bertzela ezta sendatzerik, eta ez emaiten diren midizinek eta egiten diren erremusinek, barurek, orazinoek eta bertze obra onek on egiterik.

15 § 1

224 Bere etsaiari barkhatu nahi ezteraukanak, eztu edirenen bere behar orduan arartekorik, eta ez othoitz egilerik. Zeren Spiritu Sainduak dioen bezala: *In hominem sibi similem non habet misericordiam; quis exorabit pro peccatis illius?* (*Ecclesi.* 29). Bere lagunaz, bera bezalakoaz eztu miserikordiarik, eta ez urrikalmendurik; nork eginen du, bada, othoitz halakoaren <337> bekhatuakgatik? Ez
20 sailduk, ez aingiruk, eta ez are Miserikordiaren Amak ere. Zeren Jondone Jakuek dioen bezala: *Iudicium sine misericordia, illi qui non facit misericordiam* (*Iacob.* 2). Miserikordia gabeko justizia egin behar zaika miserikordiarik egiten eztuenari. Etzaika barkhatu behar, barkhatu nahi eztuenari. Eta halakoak eztu berak ere nahi barkha diazoten. Zeren, *Pater noster* erraiten duen guztian, egiten dio Jainkoari
25 othoitz, erraiten duela: *Dimitte nobis debita nostra, sicut et nos dimittimus debitoribus nostris* (*Matth.* 6). «Jauna, barkha iatzagutzu geure zorrak, guk guregana zordun direnei barkhatzen derauztegun bezala». Erran nahi du: «Jainko Jauna, barkha iatzagutzu zure alderakotzat egiten ditugun faltak eta bekhatuak, guk geure etsaiei gure alderakotzat egiten dituzten hutsak eta gaizkiak barkhatzen derauztegun bezala». Eta, alabaina, ezterauztetzu zuk barkhatu nahi zeure etsaiei egiten derauzkitzutenak; beraz, eztuzu nahi barkha diatzatzun zuri ere zeure Jainkoak egiten derautzatzunak. Zeren, nola egiten baituzu zuk zeure etsaiarekin, hala egiten diozu
30 Jainkoari othoitz, dagiela zurekin.

35 Falta bat nehork egiten deratzunean erraiten duzu duzun bothere guztiaz: «Nik haur hari barkha? Lehen bizia gal nezake». Eta <338> eztuzu konsideratzen, eta ez pensatzen, zuk Jainkoari falta handiagoak eginagatik, nahi duzula, guztiarekin ere, hark zuri guztiak barkha diatzatzun.

186-5/6 *badiadukozu*: izaten badiozu. Ik. 186-5 testu-oharra.

186-20/21 «*Ez sailduk... mugagabea zeinen ederki*» (Villasanteren oh.).

225 Kondera ezazu, bada, zuk zeure etsaiari barkhatu nahi ezteraukazuna, barkhatu zerauela Jainkoak bizia edeki zeraukaten etsaiei eta, are gehiago, egin zeraukala bere Aithari hekengatik othoitz, eta oraino zeure etsaiek ezteratzutela zuri halako minik eta ximikorik egin. Kondera ezazu, halaber, zer erraiten duen Spiritu Sainduak: *Memento novissimorum, et desine inimicari* (*Eccles.* 28). Orhoit zaitenzi zeure azken fineko egitekoez, heriotzeko puntuaz, arimaren ilkitzeko denbora perilos hartaz eta orduan eman beharko duzun kontuaz, eta hetzaz orhoiturik, utzkitzu etsaigoak. Orhoit zaitenzi nola nahiko duzun zuk orduan, azken oren hartan, egin dezan Jainkoak zurekin: egizu, bada, zuk ere orai hala zeure etsaiarekin. Zeren haur da Jainkoaren manua; haur da hark nahi duena; haur da bethiere, eta guztiz ere bere azken finean, gomendatu derakuna. 5 10

Bihoa, beraz, etsaigoa, aparta bedi egun beretik, geroko luzatu gabe, mendekatzeko desira desordenatua. Zeren halatan izanen gara ezagun eta seinale Jesu Kristoren eskolan ikhasiak garela, haren diszipuluak garela. Eta biziko gara bihotz ukhaldirik, asaldurik <339> eta ikhararik gabe: bakean dagoen bat, mendekurik gogoan eztuen bat, eta guztiekin adiskide, arronter eta solhasturi den bat bizitzen den bezala. 15



Zenbat kalte egiten duen haragiaren bekhatuak. Lehenbizikorik, itsutzen duela adimendua, eta nola behar den hartan sartzetik begiratu, eta sarthuz gero ere, lehen baino lehen ilkitzera enseiatu

KAP. XXXI

226 Baldin bertze bekhatuetan hanbat kalte egiten badu luzamendutan ibiltzeak, 5
erremedioaren geroko utzteak, zer eginen du emaztetako bekhatuan? haragiari hain
plazer zaikan plazerean? batbederak naturalki desiratzen duenean? eta, baldin
erroen egitera utz badadi, atheratzeko eta kanporatzeko hain gaitz denean?

Baina zeren materia haur baita hain handia eta luzea, perilosa eta linburkorra, di- 10
tzagun lehenik egiten dituen kalteak eta emaiten dituen egitekoak konsidera eta konta;
eta gero, halaber, eman behar zaitzan purgak eta erremedioak bilha, eman eta ordena.

Eta itsas hondargabe hunetan sartzen naizela, <340> ez tute dela ez takienik 15
gure arimaren etsaiak direla hirur: mundua, deabrua eta haragia. Eta hirur hautarik
gaixtoena, perilosena eta barrenkorrena dela haragia. Haur da etxeko ohoina, barre-
neko etsaia, bethiere gurekin dagoena. Zurari pipia, oihalari zerrena, urdaiari zedena
eta haragiari harra bezala, gau eta egun alha zaikuna; tentatzen eta narritatzen gai-
tuena, geureganik ezin egotz dezakeguna. Halako moldez, ezen erraxago baita har-
tzaz minzatzea eta begiratu behar dela erraitea, begiratzea baino. Hala erraiten du
Valerio: *Luxuriam accusare facilius est quam vitare* (Valer. Max., lib. 9, cap. 1).

Flako da haragia eta sendo. Flako defendatzeko, sendo tentatzeko eta kilika- 20
tzeko. Anhitz habe, fabore eta sostengu behar du on edukitzeko, erori gabe egoite-
ko, eta asko du deus guti, okhasino ttipi bat, linburtzeko, behaztopatzeko eta eror-
tzeko. Hargatik erran zuen San Agustinek: *Inter omnia christianorum certamina,*
sola duriora sunt praelia castitatis, ubi quotidiana est pugna et rara victoria 25
(Aug. *serm.* 250 *de temp.*, tom. 10). Giristinoen arteko gerlarik handienak eta go-
gorrenak, kastitatearen gerlak dira. Zeren han baita gudua eta konbata egunoro, eta
biktoria eta garaitia bakhan eta gutitan. Halatan da San Agustinek berak errana:
Nulla tot diabolus animas rete capit quod laqueo pessimorum <341> *mulierum*
(Aug. *Epist.* 206, t. 2). Deabruak anhitz sare badu ere arimen atzemaiteko, ez tu
batez ere hanbat atrapatzen, nola emazte gaixtoez, eta hek hedatzen eta paratzen 30
dituzten artez, sare, laxioez eta segadez.

§ 1

227 Handiak dira haragiak eta haragiaren amorio desordenatuak egiten dituen kalteak. Eta kalte pinzipalenetarik bat, prinzipalena ezpada ere, da adimenduaren goibeltzea, ilhuntzea eta itsutzea. Presuna amurusak eztakusa, eztaki zer hari den: bere gogo guztia haragian daduka; jatean, edatean, ohean datzanean, hartan pentsatzen du; bere solhasak eta ametsak ere, hartzaz egiteintu; eztu nahi bertze gauzaz nehor mintza ere dakion; itsu da, erho da, zentzutik kanpoan da. Halatan, lehenagoko poetek pintatzen zuten Cupido, amurusiaren Jainkoa, haur eta itsu. Itsu, zeren ezpaitu ikhusten. Haur, zeren ezpaitu adimendurik. Eta badio Plutarkok ere gaitz dela amurus izaitea, eta zentzuan egoitea (Plutar. in *Aphoththe*).

Halakoa ez desohoreak, ez jenden erraiteak, ez onen gatzatzeak, ez fama gaixtoan jartzeak, ez loaren galtzeak, finean, deusek ere <342> eztu gibelatzen. *Onager assuetus in solitudine, in desiderio animae suae, attraxit ventum amoris sui; nullus avertet eam* (Jerem. 2). Basa-asto amurusa bezala, begiak itsuturik, ihiztarien artetik iragaiten da: edozein periletan sartzen da. Bere amorio desordenatuaz bai, bere amurusiak bai, baina gainerakoaz eztu konturik egiten.

228 Usoa bezala da halakoa. Usoak eztu, bertze hegaztinek bezala, edatean burua goiti ailtzatzen. Edan gogo duena, abreak bezala, hatsik hartu gabe, burua goratu gabe, kolpe batez edaten du. Bertze hegaztinek, edateko kurka guztietan, ahata bakhotxean, burua goiti ailtzatzen dute. Eta badirudi ezen naturalezak berak erakutsirik egiten dutela hala. Zeren nola orduan baitute perilik gehiena, zeren orduan baitaude geldienik urera beha, eta orduan baitira ihiztarietaz ere zelatatuak, barreratuak eta guardiatuak, halatan daude hek ere iratzarriak orduan; eta edaten duten ur-xorta guztietan ingurunera behatzen dute, eta burua goiti, guardia egiteko bezala, ailtzatzen dute. Baina usoak eztu halakorik egiten, ahozpeaz dago ase arteino, eztu bitartean bururik ailtzatzen, eta ez ingurunera behatzen. Eta hartan da ageri usoaren inozentzia eta ergelkeria, perilik gehien duenean baita erhoenik eta antsikabenik. Hala da, bada, bere gogo guztia emaztetan ibenia dadukana ere. Etsaia zelatan <343> dagokanean, perilik gehien duenean, da galduenik eta erhoenik. Zeren bere edate hartzaz eta plazeraz baizen, ezpaitu deusez ere bertzez konturik egiten.

Zyro enperadore handi hura, hain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoran-teak, non hartzaz nahi zuen guztia egiten baitzuen (Ioseph de Antiq., lib. 11, cap. 3). Alde batetik eta bertzetik behar-ondoka hari zeikan, batean bizarra, bertzean beharriak thirutzen zerautzan: haur batekin bezala, harekin dostatzen zen. Eta guztietan enperadore erhoa, hortzak hirriturik, irriz, beha zegokan: mirailean bezala hartan miratzen zen, haren alegeratzeaz alegeratzen zen, eta tristetzeaz tristetzen. Eta emazte gaixtoak batzutan bere burua berariaz haserre iduri egiten zuen; eta orduan

190-27 «Usoen pasaleku famatua dago Etxalar eta Sarako aldean. Usoen eta ihiztarien kontuak ezagunak eta jakinak ziren, bada, Axular bizi zen giroan» (Villasanteren oh.).

190-34 *harekin dostatzen zen*: «Enperadorea amoranteak errendatua. Deskripzio bizia eta pixka bat jokolaria» (Villasanteren oh.).

enperadore zoroak ahal ziren asmuak eta enseiuak balakatzeko eta baketzeko egiten zituen. Amorantea zen nabusi: *no zen tho*, emaztea gizon, oiloa oilar. Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gainean, halako enperadore bat ema-eztheus batek hala errendatzen duenean.

<344>

§ 2

5

229 Gizona delarik ordenatua emaztearen jaun eta nabusi izaiteko, guztiarekin ere, amorio itsuak, haragiaren apheetitu desordenatuak hausten du ordenantza haur; gizona egiten du emaztearen muthil eta azpiko. Ezta gauza preziatuagorik libertatea eta nabusitasuna den baino. Bada, hala bata nola bertzea galtzeintu amurus itsuak, emaztearen hitz ederrei eta mainei behatzen zaienak. Hala galdu zituen bere libertatea, nabusitasuna, eta bai azkenean bizia ere asirioen errege batek, Semiramis, izen hunetako bigarren, emazte eder famatu hura zela kausa. Eta izan zen kasua Eliano Greziako eskiribatzaile batek kontatzen duen bezala (AElían. *De varia hist.*, lib. 7). Enzun zuenean errege hark Semiramis haren edertasunaren fama, kilikatu zen, gutiziatu zen, erakharri zuen, ikhusi zuen, eta ikhusi zuen bezain fite, atzeman zen, sua pitztu zen eta amorio bero itsu batez onhetsi zuen. Eta noiz eta amorio hura baitzegoen goren pontuan eta graduan, iduriturik ezen orduan zela okhasinorik eta paradarik hoberena nahi zuenaren egiteko, egin zioen emazte gaixtoak othoitz erregeri, arren, <345> denbora aphur batez, bortz egunez, eman ziazola bere zuen eskua eta botherea, bitartean utz zezala erresuman manatzera. Erregek aitzin-gibel guti behaturik, eta Salomonen konseiluaz ere kontu guti eginik, zeinek erraiten baitu: *Non des mulieri potestatem animae tuae, ne ingrediatur in virtute tua, et confundaris (Eccle. 9)*. «Eztemozula emazteari zeure duzun eskua eta botherea, nahi ezpaduzu zeure burua ahalketan ikhusi». Baina maliziarik edo enganamendurik ahal zatekeienz gogora ere gabe, erran zioen deblauki erregek baietz, deusetan ere dudatu gabe. Eta are berak lehenik agur egin zioen; berak bere eskuz koroa buruan ibeni zioen; eta manatu zuen, biziaren penan, hurreneko bortz egunetan Semiramis hark manatzen zuen guztia egin zedila. Eta hain aitzina iragan zen egitekoa, non ikhusi zuenean emazte gaixtoak nola zen obeditua, manatu baitzuen errege berari burua edeki ziazotela. Eta nik eztakit nola hartu zuen erregek egitekoa, baina berehala manua konplitu zen, eta trufan-burlan burua edeki zioten. Eta gelditu zen Semiramis errege eta erregina; eta errege itsua bere erresuma eta bizia galdurik desohorezki finatua. Ikhusazu zer egiten duen emazteak eta emaztetako amorio desordenatuak, nola gizona itsutzen duen; nola zer hari den eztakiela, mila erhokeria <346> egiten duela, eta bere buruaren jaun eta jabe ezten bezala ibentzen duen.

191-14/16 *kilikatu zen...*: «Kasu idazmoldeari: zortzi aditz bata bestearen ondoan, laguntzaile eta guzti» (Villasanteren oh.).

230 Zaleuko Greziako parte batzuetako erregeak, ikhusirik ezen bekhatu hunek batbedera bere adimenduan barrera itsutzen zuela, kanpoan ere itsutasun hura ager zedin amoreakgatik, ordenatu zuen eta ezarri legea, nor ere eroriko baitzen adulerioan, eta nork ere behar etzen emaztearekin huts eginen baitzuen, halakoari eta halakoei, hainari eta hainei, hala gizonari nola emazteari, justiziak begiak atherako eta iraziko zerauztela. Barreanean, kulparen beldur gabe, itsutu zirenaz gero, kanpoan ere penarekin itsu zitezingatik (Alexander ab *Alexandro*, lib. 4, cap. 1). Lege haur ibeni zuen Zaleuko errege hark. Eta hain herstuki begiratzen zuen, non ezpaitzen faborerik, ahaiderik, adiskiderik, eta ez urrerik, eta ez zilharrik, hauts arazi ahal ziazaionik. Huts egiten zuenak ihes ahal zeidikeien, albazegien, baina atrapatuz gero, etzuen barkhamendurik, begiak galdu behar zituen. Errege hunek lege haur hunein zinez begiratzen zuen denboran, gerthatu zeikan errege hunen beraren semeari, legearen haustera eta behar etzen emaztearekin huts egitera. Erregek bere semearen falta haur jakin zuenean, Jainkoak daki zenbat damu hartzen zuen; eta nola alde batetik bere aitatasunak, semeagana zedukan amorio naturalak <347> gibelatzen zuen, eskuak lotzen zerautzan; eta etzela arrazoin aita batek bere semea kondena zezan erraiten zioen.

231 Eta berriz, bertze aldetik, nola justiziak alegatzen zioen legeak begiratu behar zirela, eta batari barkhatzeaz bertzeak ausartzia hartuko zuela. Eta justiziaren arrazoin haur bortitzago iduriturik, semea galduko bazuen ere, deliberatu zuen, eta manatu, justizia egin zedila, bere semea atzeman ziazotela, eta begiak legearen arauaz athera ziazotela. Erresumak jakin zuenean bere erregeren deliberamendua, bildu zen komun guztia, eta joan zeikan guztia batetan othoitz egitera, arren, nahi zioen bere semeari barkhatu. Zeren lege hura komunagatik egina zela, eta komunak, hain errege onaren eta justuaren amoreakgatik, aldi hartakotz bere zuzena kitatzen zuela. Komunaren othoitzak eta semeaganako amorioak anhitz gogoeta eragin zeraukaten, baina gehiago legearen hautsteak. Zeren iduritzen zeikan, ezen etzuela bere koroa segur izanen, baldin ttipientzat bezala, handientzat ere justizia egiten ezpazuen. Eta hala, anhitz itzulunguru, pensu eta gogoeta bere baithan eginik, azkenean ediren zuen bide bat bere kaltetakoa, baina semearen gaztiguaren arintzeko ona: Okher hobe, itsu baino. Ordenatu zuen ezen halaz, eta legearen <348> arauaz, halako hutsik egiten zuenari bi begiak irazi eta athera behar zeitanzaz geroztik, athera ziazotela aitari berari bere begietarik bata, eta semeari beretarik bertzea. Eta,

192-1 *Zaleuko*: «Itxuren arabera, erderaz *Seleuco* itzuli behar da izen hau (*Selucidus*, etab.)» (Villasanteren oh.).

192-10 *albazegien*: «*Potentiel du suppositif* deitzen dio R. Lafonek (1944: I, 477) aditz forma huni (*alba*- aurizki gisa duenari). Hunako beste zati hauetan ere ageri da: 154, 188, 330, 350, 355, 356, 359, 360, 393» (Villasanteren oh.). Bat baino ez zaio itzuri: *iragan albazindezi* (139-14/15, V 171).

192-31 «*Halaz eta*. Juntagailu hau *AxH*-n ez zen jaso. Erderazko *supuesto que* eta frantseseko *puisque*-ren balioa eta esanahia du» (Villasanteren oh.). *OEH*-k (s.v. *halaz*) bestela ulertu du perpausa, guk goian ipini bezalaxe, hain zuzen, kausazko balio hori -z *geroztik* menderagailuak ematen baitio perpausari, ohi bezala.

halatan, bien artean kaltea jasanik, legea begira zedila. Eta hala, ordenatu bezala konplitu zen. Aitak eta semeak bere begietarik bana galdu zuten. Eta gero handik harat gelditu zen legea konfirmatua, semea gaztigatua, erresuma guztia ikharatua; eta halako faltatan erortzen zenarentzat, barkhamendu erdiesteko esperantzaren athea hertsia.

5

Laudatzekoa zen errege hura, eta bai ibeni zuen legea ere; zeren eritasunari zegokana baitzen. Halatan, itsutasunaz itsutasuna, gorputzekoaz arimakoa sendatzeko, eta aitzinerat gehiago eritzetik eta halakorik gerthatzetik begiratzeko. Zeren haur da haragiaren desira desordenatuak egiten duen lehenbiziko kaltea eta kolpea, adimenduaren itsutzea, liluratzea, nahastea eta zoraturik ibentzea.

10



<349>

*Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen bigarren eta hirugarren kalteaz:
eztuela den ahaikoarik hurkoenaz ere konturik egiten, eta ez hartako
juramenturik konplitzen*

KAP. XXXII

232 Haragiaren amorio desordenatua, hain da gauza itsua eta itsugarria, non halako amorioa duenak ezpaitu batzutan ahaikoaz ere konturik egiten. 5

Ingressus est Absalon ad concubinas patris sui, coram universo Israel (2 Reg. 6). Sarthu zen Absalon, mundu guztiak zekusala, bere aitaren amorantetara edo emaztetara, eta han hekin segitu zuen, eta izan parte. Halatan mehatxatu zituen Jondone Paulok ere Korintiokoak, zeren bere ugazamarekin etzaten zen bat bere artean sostengatzen zuten: *Omnino auditur inter vos fornicatio, qualis nec inter gentes, ita ut uxorem patris sui aliquis habeat* (1 Cor. 5). 10

Hala erraiten da Neron gaixto hark ere, Erromako andre prestuen erdiak desohoratuz gero, eta iduri onetako muthil gazte <350> bat ikhusten zuenean, harekin ere, naturaleza bera ere narda den bezala, segituz gero, azkenean bere ama propioaz amurustu zela: bere ama bera, zeinen sabeletik iltki baitzen, demandatu zuela. Eta hartaraz gero, emaztea bera ere komunzki airatzen, kilikatzen eta gogoetan lurrera beha jartzen da. Zeren materia hunetako pilotu on batek dioen bezala: *Illa est casta, quam nemo rogavit* (Ovid. *El.* 2). Nehork orhoitu eta othoitztu eztuena da kasta, garbi eta prestu. Anhizetan hazteintu osoki oiloak bere xito guztiak, mirua oldartu gabez. Anhitz egur eder gelditzen da oihanean ekharlerik gabez. Jarraitunik izan eztuena, mandaturik edo salhorik egin etzaikana, nehork ernatu, orhoitu eta behartu eztuena, erran ahal diteke segurki bere ohorean dagoela, eztela erori, eta ez linburtu. Baina demandatuz gero, oldartuz gero, bulkhatuz gero, eta gai denak gai denari, bere moldean, paradan, okhasinoan, denboran eta sekeretuan nabarrentziarik gabe aditzera emanez gero, peril da, baldin xoil gogor ezpada, bera dadin, linbur dadin, 25

195-22 *salho*: «Erderazko ‘propuesta’ eta ‘convenio’ bezala, Oihenartek dioenez (RIEV 4: 222). [...] *Mandatua egin*: abisua pasatu, proposamendua egin» (Villasanteren oh.). Ikus orain OEH (s.v. 1 *salo*).

amora dadin. Eta demandatua izaitte hura, hartakoa dela eta ederra dela enzute hura, eder iduri dakion. Bada, Neronek bere amari mandatua egin zioen, eta ama ere etzen munduko emazterik prestuena; beraz, periletan izan ziren. Eta bada erraiten duenik, biak <351> karrozan edo kotxean ibili zirela, eta han bere jokoa jokatu zutela.

- 5 **233** Hala Henriko, izen hunetako zortzigarren, Ingalaterrako erregeak ere, bere emazte prestua utzirik, bere alaba bastarta, bertzeren emazteaganik egina, hartu zuen emazte. Eta handik bere burua eta bere erresumako giristinotasun guztia galdu zituen (Petrus de Ribadeneira, *lib. 1 Histor. Anglica.*, cap. 7).

- 10 Bada bertzerik ere hunelako kasurik eta exenplorik anhitz, gaitz bailizateke laurdenen ere kontatzea. Asko da jakitea, behin behar ezten amorioa jaunduz gero, eztela legerik begiratzen, eta ez den ahaikoarik hurkoenaz ere konturik egiten. Zein baita haragiaren bekhatuak egiten duen bigarren kaltea.

- 15 Hirurgarren kaltea da: ezta arnegurik, juramenturik, eta ez falseriarik, emaztetan itsutua dagoen batek eztaidikeienik, eta ez gezurrik ere erran eztezakeienik. Handik harat, hala itsutuz gero, lehen hitz onetako eta egiati zirenak, egiten dira gezurti, arnegari eta juramentutsu. Zeren bere desiren histeagatik prometatzen dute anhitz, egiten dute mila juramentu; baina gero, nahi dutena iragan dutenean, eztute konturik egiten, eztute deus konplitzen, guztiak hautsteintuzte. Eta hala etzen lehenagoko jentilen artean <352> halako eta hartako juramentuez konturik egiten.
- 20 Halako moldez, ezen ethorri baitzen Platon erraitera, jainkoek ere disimulatzen ziztuztela amurusen juramentuak eta promesak (Alexander ad *Alexandro*, lib. 5, cap. 10; Plato, *lib. 5 de amore*). Eta egungo egunean ere, ezta halako juramentuetan zer sobera fidaturik. Zeren amurus itsutuak bere plazeren ondoan dabilta, eta ez bere promesen edo juramentuen konplimenduaren. Zein baita haragiaren bekhatuak egiten duen hirurgarren kaltea.
- 25

Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen laurugarren kalteaz: amoltsu eta bakezko zirenak egiten baititu kruel eta gerlati

KAP. XXXIII

234 Amorio desordenatuak hanbat kalte egiten du, non behin hark itsutuz gero, amoltsu eta bakezko zirenak ere egiten baititu anhitzetan bere desiren konplizteagatik, traidore, bihotz gogor, kruel eta erhaile. 5

Errege Dabid, lehen hain saildu, bihotzbera eta miseriakordios zena, eta bere etsaiei ere bethi ongi egiten eta barkhatzen hari zeiena, egin zen azkenean hain different <353>, non Urias, bere adiskide maitea eta kapitain leiala, haren emazteaz gozatzteagatik hilarazi baitzuen. 10

Hala, halaber, frai Joan Gerin, hain saildu handiaren faman zegoen hark ere, Gifrapelos Barzelonako Kondearen alaba, gomendiotan eman ziotena, gorputzez izan zuenean hilarazi zuen (*Historia montis ser.*, cap. 2). Hala gerthatu zeikan Jondone Jakue penitentziales deitzen zuten hari ere, hanbat denboraz etsai gaixtoaren tentamenduak ixilik eta agerriz garaituz gero, hanbat penitentzia eginez gero, azkenean hain itsuski erori zen, non sendatzeko ekharri zeraukaten neskato bati bere ona galarazi baitzeraukan, eta gero azkenean bere bekhatuaren estaltzeagatik, ura behera egotzi baitzuen (Metaphras. in vita eiusdem, die 28 Ianuar.). 15

Hemen erran ahal diteke gure Salbatzaileak bere pasioneko egunean Jerusalemeko alabei erran zerauena: *Si in viridi lygno haec fiunt, in arido quid fiet?* (*Luc.* 23). Baldin errege Dabid eta erran ditugun bertze presuna saildu hek, hanbat denboraz haragiaren apheetituen benzutzen, orazintan, kontenplazintan eta penitentiadan egon ziren hek, hain torpeki, haragiak itsuturik erori baziren, zer izanen da Jainkoz, munduz eta konzientziak konturik egin gabe, lazoki eta antsikabeki, batere krinarik gabe bizitzen direnez? Eta are bekhatu egiteko okhasino bilha dabilzanez? 20

<354> Aita batek bere semeari diadukon amorioa, delarik handia eta naturala, guztiarekin ere, amorio desordenatuak hain flakutzen eta kordokatzen du amorio natural haur, non batzuetan erroetarik erauzten eta atheratzen baitu. 25

235 Katilina, Erromako gizon gaixto hark, etzuen seme bat baizen, eta hura ere ja adinetara heldua, obedienta, bere manukoa eta asko prestua; eta, guztiarekin ere, bere desira desordenatuak Aurelia zeritzan andre batekin konplizteagatik, hilarazi 30

zuen bere seme hura (Salust. in *Vita Catil.*). Zeren hura bizi zeino, haren beldurrez, ezpaitzeikan Aurelia behatu nahi.

5 Hala eskiribatzen du Elianok ere Lenilla zeritzan andre handi batek, bere plazerak bere plazerera bere zerbitzari batekin iragaiteagatik, akhusatu zituela bere seme propioak erregeren aitzinean, erraiten zuela ezen traidore zirela (AElían. *De histor. animal.*, lib. 1, cap. 6). Eta handik egiaz edo gezurrez frogantzak eginik galarazi zerauztela biziak. Eta gero nehoren beldur gabe gelditu zela, bere zerbitzariarekin bere amorio itsuan itsutua.

10 Halatan erraiten du Aristotelek, ongi egin zutela lehenagoko poetek, Mars eta Venus elkarrekin ezkontzeaz: Mars gerla gizona eta Venus amurusiaren patroina. Gerla eta amurusia ezkondu zituzten elkarrekin (Arist. *lib. 2 Polit.*, cap. 1). <355> Zeren komunzki amurusiatik sortzen baitira gerlak eta diferentziak. Halatan, halaber, lehenagoko jentilek erakusteko zer aztura eta kondizino zuen emazte gaixtoak, pintatzen zuten lehoin bat emazte begitartearekin.

15 Zeren emazte gaixtoak lehenbizian lausengatzen eta balakatzen badu ere, ordea azkenean, lehoin goseak bezala, larrutzen eta desegiten baitu. Hargatik erraiten du Spiritu Sainduak: *Favus, enim, distillans labia meretricis, et nitidius oleo guttur eius. Novissima, autem, illius amara quasi absynthium* (Proverb. 5). Eztemozula konturik emaztearen balakuari eta enganamenduari. Zeren ezitia darrion beraska bezala dira haren ezpainak, eta olioia baino leunago haren lephoa; 20 ordea, ondorea, azken fina, abszintio belharra bezain min eta gozo gabe. Lehenbizian amorio handia, azkenean gaitzerizkoa errabiaturia. Lehenbiziko egunean besarka, hurrenekoan kolpeka. Adiskidetasunetik etsaitasuna, amoriotik desamorioa sortzen da.

25 **236** Erran behar da handia dela Satan gaixtoaren artea, bi gauza hain diferentak, nola baitira amorioa eta desamorioa, adiskidetasuna eta etsaitasuna, elkarrekin juntatzen eta bata bertzeaganik atheratzen dituenen.

30 Haragiaren plazeretan ez ohi da dantzarik eta irririk baizen; jaterik, edaterik eta amoriorik baizen; eta, guztiarekin ere, <356> etsai gaixtoak gauza hauk guztiok inprentzuaz bezala bertze aldera itzultzeintu: onherizkoatik gaitzerizkoa, baketik gerla, irritik nigarra, eta dantzatik (Herodes baithan egin zuen bezala) heriotzea atheratzen du. Hunelatan, athera dadin egiatan Salomonek dioena: *Extrema gaudii luctus occupat*. Atsegindasunaren fina eta ondorea atsekabea da, eta dolua: ezti-beraskatik absintioa, plazeretik desplazera sortzen da.

35 Amorio desordenaturia, bereaz egin duenean, desamorio bihurtzen da. Haur da hazi hunetarik sortzen den bihia, amorio desordenaturia egiten duen laurgarren kaltea: bakezkoen gerlati, eta bihotzberen eta amoltsuen amoriogabe eta bihotz gogor egitea eta errendatzea.

198-13 *aztura eta kondizino*: Erdaraz ez «carácter y complexión», «carácter y condición» baizik. Ik. 198-13 testu-oharra.

<357>

Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen borzgarren kalteaz: sosegurik eta pausurik gabe ibentzeaz

KAP. XXXIV

237 Haragiaren apheetitu desordenatuak egiten dituen desordenuez eta kaltez mintzo garenaz geroztik, goazin aitzinago, eta edirenen dugu, ezen emazte gizakoiak eta gizon emakoiak, presuna putanerak eztuela deusetan ere sosegurik, eta ez pausurik. 5

Nork erranen du zenbat atsekabe, zenbat gau eta egun gaixto iragaiten duen halakoak, hala gizonak nola emazteak? Nola konpainia prestuak utzirik, bere egitekoei gibela emanik, loa galdurik, bera bakharririk, itzalgaizka, airatua, basatua eta idurikortua ibiltzen den? eta erraiten duen bere baithan: «Ikhusi othe naute? Zer othe diote nitzaz?». Eta deus enzuten badu diotela, haserretzen da, gaitzerizkoan batarekin eta bertzearekin jartzen da. Zeren nahi luke, hura bera bezala, bertzeak ere itsu liren, eta nehork ez lerran deus. Eta, alabaina, ezta hartazko solhasik <358> baizen. 10

Guztiek, batak alde batetik eta bertzeak bertzetik, saltsa nahasten eta iratituzten dute, guztiak hartazaz mintzo dira. Bertzerik ezpaliz ere, bere amoranteak berak ekhartzen dio berri franko: nork zer dioen, nor nola mintzo den, direnak eta eztirenak garraiatzen derautza. Zeren halakoak hartako dira on, eta ez bertzetako. Han da munduko elha-berri, erran-merran eta nahasteka guztia. 15

Nik uste dut ezen emaztetara emana den gizona, hala deino, ezin datekeiela ongi, eta guztiz ere baldin ezkondua bada. Ezkondu gabe baten erortzea, behar ezten emazte batekin segitzea, ezta ongi, bekhatu da. Baina alde ezta hain miretsteko munduko arauaz. 20

Ordea, ezkondu batek, emazte ederra eta prestua duen batek, hura utzirik, har dezala itsusi bat, begi-zeihar bat, ezkel bat, betheriatsu bat, finean eztheus bat; eta harekin josia bezala egon dadila. 25

Erran behar da adimendua itsutu zaikala, memoria nahasi zaikala, eta borondatea behar ezten aldera itzuli zaikala. Halakoaren etxean ezta gerlarik, liskarrik eta bizitze gaixtorik baizen. Zeren emazte ezkondua eztu deusek ere hala giharran ukitzen, krozkan erauzten, eta ez bere tentutik eta pazientziatik atheratzen, nola bere senharra bertzerekin <359> diabilkola jakiteak. 30

199-30 *diabilkola*: dabilkiola.

§ 1

238 Baina gero nahi nuke jakin: gizon ezkondua bere emazte prestua utzirik, zerk hala, behar eztenaren hartzera itsutzen du? Zerk alda guratzen du? Hitz gutiz ihardesten du San Hieronimok: *Quicquid non licet, magis desideratur* (Hieron. in cap. 13 Oseae). Nehork debeku den gauza, sori eztena, desiratzenago du, hartara lehiago du.

Aquae furtivae dulciores sunt, dio Salomonek. Ur ebatsiak eztiago eta gozoago dira. Halatan Plautok ere, hobekiago saltzeagatik egiten zuen oihu, emazte ebatsiak zekazkeiela. Eta poetek adulterioa deitzen zuten epaskoa, ohoinkeria. Haur da lehenbiziko arrazoina, zeren gizon ezkonduak berea baino bertzerik nahiago duen. Zeren berea
10 ezpaitu debeku, eta bai bere eztuena, eta nehork debekura lehiago baitu. Halaber, bigarren arrazoina emaiten du San Jeronimok berak lekhu berean: *Quod varietate dulce est, assiduitate vilescit* (*Proverb.* 9). Bethierekoak higuintza emaiten du, alda nahia ekhar-
15 tzen du. Nola gizon ezkonduak bethiere baitu bere emaztea bere eskuko, bereaz frankia eta bertzerenaz eskasia, eta eskas den gauza, maitaro eta jarraikiz <360> izaiten dena
15 baino desiratzenago eta gozoago iduritzen baita, halatan presuna ezkondua berea utzirik, bertzerenera lehiatzen da, alda nahitzen da eta handik galtzen da.

Zeren amorantea eginez gero, harengana egotzten du bere gogoia, harekin gasta-
tzeintu bere onak; handik harat bere emazteari eta harenganik izan dituen hurrei gibela
20 emaiten deraue. Eta baldin on handiak ezpaitu, ezin dateke errumestu gabe. Zeren amorantea, eta guztiz amorante miaua eta eskalea, huntz adarra bezala da. Huntzak
inguratzen du zuhaitza, besarkatzen du, edoskitzen du, eta azkenean ihartzen du. Hala
bada, amoranteak biphiltzen du, larrutzen du, ariman eta gorputzean ihartzen du.

Urrikalkizun da halakoa; eta bai amoranteaganikako haurra ere. Zeren nola
ezpaita lejitimo, nola baita bastart, bort, ezkontzaz kanpoan egina, ezin mintza diteke
25 libreki jendartean, ezin bururik ailtxa dezake: berehala, lehenbizito liskarrean, pu-
taseme deitzen dute.

Hargatik erraiten du Salomonek, edo haren ahotik Spiritu Sainduak: *De patre impio quaeruntur filii, quoniam propter ipsum sunt in opprobrio* (*Eccles.* 4). Aita
gaixtoaz errenkuratzen dira semeak, zeren hura dela kausa baitira desohorezko.
30 Seme bastartak berak eztu hobenik, baina bere <361> aitarenagatik ekharri behar
du burua behera.

239 Solon handiak, Atenaskoen maestruak, umek bere aita-ametara duten obliga-
zinoaz mintzo dela, nola ohore ekharri behar derauezan, eta bere behar orduetan, eta
guztiz ere zahartzean, behar dituzten faboratu, atheratzeintu obligazino hunetarik
35 bastartak, ezkontzaz landan eta kanpoan eginak, lejitimo eztirenak. Eta arrazoina,
zeren aita-ama hek, elkharrekin batzean eta juntatzean, intenzione gehiago izan bai-
tzuten bere plazer desordenatuen konplitzeko, seme eta alaba izaiteko baino, eta nola
heken borondatearen kontra eta hek nahi gaberik eginak baitira, hala dutela merezi
gazitigu hura, eta gehiago ere.

200-16 «Aldanahitu eta pixka bat gorago *aldaguratu*: aldatzeko gogoz jartzea» (Villasanteren oh.).

Ikhusazu zein gaizki den gizon ezkondua, bere emaztea utzirik, behar eztenarekin dabilana, eta bai hetarik izaiten den haurra ere.

Bada eritasun hunez kutsatua gerthatzen den elizagizona are da gaizkiago eta galduago. Peril da halakoak ahaide probe guti ezkonduko duen, erremusinak baxhan eginen dituen. Zeren amorantea eginez gero, bere gogoa eta bihotza haren baithan ibentzen baitu, eta bere onak ere harekin gastatzen eta hondatzen baititu. 5

Bi bekhatu suerte dira, begiz begi eta artez elizagizonari kontra dagotzanak, elizagizonaren etsaiak eta galgarriak.

<362> Bata da emaztekin segitzea, eta bertzea etsaigoan egoitea. Nahi du Jainkoak haren etxeko zerbitzariak, aphez ordenatuak, dituen guztien gainetik bi abantail: bakea eta garbitasuna. Zeren sagaramendu garbi bat eta bakezko bat erabiltzen baitu eskuen artean. Beraz, hunelatan, etsaigoan dagoena ere ez, baina guztien gainetik emaztetan dabilana ezta aphezetako on. Eta hain da egia haur, non uste baitut ezen, emaztetan faltarik eztuen aphezari, bertzerik anhitz falta izanagatik ere, hek guztiak hobeki barkha, estal eta disimula dakiditzaiola; eta bertze guztiek eztutela hala desbistatzen, eta ez bere ohorean nothatzen, nola emaztekin ibiltzeak eta kutsatzeak. Emaztetan eztabilan apheza, emazu saildutzat; eta dabilana, hala dabilaino, emazu galdutzat. 10 15

Beraz, hunelatan, prinzipalki elizagizonak eta presuna ezkonduak, baina gero begira bitezi bertze guztiak ere haragiaren lohian sartetik eta hidoiztatzetik. Zeren behin hidoiztatuz gero, jakin ahal dezakete ezen kaltiar eta sosegu gabe izanen direla; eztirela urriki gabe gerthatuko. Eta gero eta gero, zenbatenaz eta gehiago egonen baitira, hanbatenaz barrenago sarthuko, eta nekezago ilkitko eta garbituko direla. 20

201-23 *gero eta gero*: «*geroago eta gehiago* bezala ('cada vez más'). Ikus beste zati hauetan ere: 181, 317» (Villasanteren oh.). Lehenago badira zenbait: 47-10, 53-17, 57-19 eta 61-33.



<363>

Haragiaren bekhatutik begiratzeko eta handik heldu diren kalten erremediatzeko lehenbiziko erremedioa eta bidea: orazinoa

KAP. XXXV

240 Haragiaren plazerei, desira desordenatuei eta egiten dituen kaltei erremedio emaiten hasi baino lehen, erran nahi dut gauza bat, eta ibeni pausatu egiazko zimendu bat. 5

Emaztetarik eskapatzea, kastitatearen begiratzea, haragiaren bekhatuan erori gabe eta kutsatu gabe egoitea, irautea eta perseberatzea Jainkoaren donua, dohaina, emaitza eta garazia dela. Eta garazia hura gabe, alfer direla gure ahala, nahia, permatzea eta enseiu guztiak. *Non est virginitas quae praetio emitur, non virtutis studio possidetur*, dio San Anbrosiok (Ambros. lib. 5, ep. 31). Ezta, ez, birjinitatea, 10 diruaren pisuz eta gure indarrez eta berthutez erdiesten den gauza, zeren haragiak haragiaren benzutzea, naturalezak naturalezaren azpiratzea, gaitz da. Hartakotzat bertzeren faborea, naturalezaren <364> gainean esku duenarena behar da. Eta hala, jakin ahal dezake batbederak, eztezakeiela haragiaren kontra biktoria osorik erdiets, bere ahalean fidatzen deino, berak eztuela defendatzeko indarririk asko, etsitua, gog- 15 gatua eta errendatua jar arteino. Behar du ezagutu bere etsai haur garai zaikala, eztirela indarrez berdin. Eta hala dela ezaguturik, behar du, halaber, lagun bilhatu eta fabore eskatu, baldin nahi ezpadu kaltiar gerthatu eta benzutua gelditu.

Haur da egia; haur ezaguturik, erran zuen Salomonek: *Ut scivi, quoniam aliter non possem esse continens nisi Deus det, et hoc ipsum erat summa sapientia, scire cuius esset hoc donum, adii Dominum et deprecatus sum illum* (Sap. 8). «Jakin nuenean ezin nengokeiela erori gabe, Jainkoak edukitzen ezpaninduen, eta hunen jakitea ere Jainkoaren donua zela, joan nintzaikan berehala edireitera, eta egin nioen othoitz, bere eskutik eduki nintzala, erortzetik begira nintzala, eta garaitiarekin gelditzeko indar eta antze eman ziazadala». Halatan, egia hunen berri ziakienak bezala, egin zioen othoitz 20 San Augustinek ere Jainkoari, erraiten zioela: *Continentiam iubes. Da quod iubes, et iube quod vis* (August. 10 Conf., c. 24). «Manatzen duzu begira dezagula kastitatea; emazu, bada, manatzen duzuna, eta gero mana ezazu plazer duzuna. Manua bezala, emazu manua konplitzeko eta begiratzeko <365> indarra ere, zeren halatan bai, 25 baina bertzela ezta konplitzerik, eta ez begirazerik». 30

241 Bada, haragiaren bekhatuan lehen edo gero, aldez edo moldez, obraz edo gogoz, kutsatu gabe edo linburtu gabe egoitea eta irautea, Jainkoaren donua eta emaitza, geurok geure indarrez ezin erdiets dezakeguna denaz geroztik, erna gaitezin, iratarz gaitezin, eta erortzetik begiratzeko ahal diratekeien habeak, sostenguak eta erremedioak bilha ditzagun.

5 Eta lehenbiziko erremedioa eta sostengua da orazinoa, othoitz. Geureaz denaz bezanbatean, errendatuak jarririk, garaita emanik, erauki erranik, eztugula indarririk asko ezagaturik, geure Jainkoari hel dakigula eta bere eskutik eduki gaitzala othoitz egitea. Eta othoitz hunekin batean, Ama Birjinaren, kastitatearen
10 patroin bezala ararteko ibentzea. Zeren baldin Elizako doktor batzuek dioten bezala, Ama Birjinak, are mundu hunetan zenean ere, nori ere eta nork ere behatzen baitzioen, hari, haragiaren desira desordenatuak eta gogoeta lizunak iraungirik, heken lekhuak gogoeta garbi batzuk eta garbiki bizitzeko nahikunde handi batzuk
15 pitzten eta emaiten bazerautzan: zenbatenaz orai han goititik, loriatik, hanbat kredit eta esku duen lekhitik, bere debotei egiazki gomendatzen zaizkonei erdietsiko <366> deraue, eta erdietsirik emanen deraue haragiaren tendamenduen haizatzeko eta benzutzeko indar, bothere eta garazia? (Ambros. *De institutio. Virg.*, c. 7; S. Thom., 3 *sentent.*, q. 1, art. 3 ad 1).

20 Beraz, dagiogun Jainkoari othoitz eta orazino, emaiten diogula ararteko bere Ama Birjina, begira gaitzala, fabora gaitzala.

Zeren lehenbiziko erremedioa eta erremediorik hoberena, haragiaren lohian ez sartzeko, eta sarthuz gero ere fite ilkitzeko, aratz eta garbi gelditzeko eta egoiteko, haur edirenen dugu: Jainkoari gogoz eta bihotzez othoitz egitea, Ama Birjinaren ararteko ibentzea eta enplegatzea.

204-7 *erauki*: «Burruka batean bentzutuak esaten zuen hitz hau, bentzutua zela aitortzeko, eta garaitia besteari ematen ziolako seinale bezala» (Villasanteren oh.). Ik. orain *OEH* (s.v. *erauki*).

<367>

*Haragiaren bekhatutik begiratzeko bigarren erremedioa: hartako gogoetei
lekhurik ez emaita*

KAP. XXXVI

242 Bigarren erremedioa, eta erremedio ona eta hautua, emaztekin kutsatu nahi
eztuenarentzat, da hartako gogoetei begiaren edukitzea: heldu direla ikhusten dire- 5
nean athearen herstea. Sua pitzten denean da erraxenik iraungitzeko, eta bai landa-
rea ere ttipi denean birlandatzeko eta atheratzeko.

Gogoetetarik, pensatzen egoitetik heldu dira bekhatu guztiak, eta guztiz ere
haragiarenak: handik hasten dira, hek dira xertoak, hek dira landareak eta erroak. 10
Hek, beraz, behar dira handitzetik begiratu. Soldaduak etxean barrena sarthuz gero,
nahi duena egiten du: hala egiten du, bada, halaber, nahi duena gogoeta gaixtoak ere,
gogoan ostatu hartuz gero, han behin pausatuz gero.

Suko inharra, suko xinda, bera ere bere buruz fite iraungitzen da; ordea, zuk
anarteraino iguriki gabe, pausatzera ere utzi gabe, <368> berehala, puntu berean,
zeureganik egotzten duzu. Hala bada, emaztetako gogoeta gaixtoa ere, berehala 15
agertzen den bezain fite haizatu, urrundu eta zeureganik egotzi behar duzu.

Egun batez galdegin zeraukaten Frai Gil, San Franziskoren lagun saindu hari,
ea zer moldez edo nola garaitzen zituen haragiaren tentamenduak, gutiziak, kilika-
durak eta hartako gogoetak. Eta ihardetsi zuen: «Ene borondatearen atheak joiten 20
dituzten gogoeta gaixtoei erraiten derauet: Ea tentagarriak, iragan aitzinat; ezta he-
men zuentzat ostaturik, eta ez pausalekhurik. Eztut etxean barrena sartzera utzten,
ezterauet begitarterik egiten, ezterauet ostaturik emaiten, ez naiz hekin gozaten, eta
ez solhasean jartzen, berehala jauzi eragiten derauet; eta halatan, ez hek ni, baina nik
hek garaitzeintu».

Ethortzen zaitzu gogora behar ezten emaztea eta harekiko plazera; eta zuk 25
gogoeta hura zeureganik berehala egotzi behar bidean, nola egotziko duzun, ezen
hartan zaphoratzen zara, gozaten zara eta are, obran baitzina bezala, anhizetan ere
zeure gogoan atsegin hartzen egoiten zara, eta hala egonez bekhatu mortal handitan
erortzen zara.

243 Zeren ez obratuagatik, obratzeko gogoia, eta are obratzeko gogorik gabe ere, <369> gogoeta hartan atsegin hartzea, bekhatu da. Hala erraiten dute teologoek: *Non solum consensus in actum, sed etiam consensus in delectationem, est peccatum*. Hunen arauaz erraiten du San Jeronimok ere: *Periit et mente virginitas* (Hieron. *Ad Faustum*). «Galtzen da gogoz ere birjinitatea». Eta badio Kasianok ere: *Mulierem ignoro, et virgo non sum* (Casian. lib. 6, cap. 19). «Eztakit emazteren berririk eta, alabaina, ez naiz birjina».

Zeren San Mateok dioen bezala: *Qui viderit mulierem ad concupiscendum eam, iam maechatus est in corde suo* (*Matth.* 5). Emazteari, desideratzeko eta desira hartan atsegin hartzeko kontuan behatzen dioenak, egin duke ja bere gogoan eta bihotzean bekhatu. Pontu haur konsideraturik, eta huni erremedio eman nahiz, erraiten zuen San Gregoriok: *Celer, ergo, et facilis victoria contra libidinem est, circumspectio cogitationis, si, quoties carnalia obviant, ad aliquid aliud recurramus, quo libidinis incitamentum non sit* (Gregor. in cap. 1 *Reg.*). Haragiari kontra egiteko eta harenganik biktoria erdiesteko, bide ona da, eta lasterra, hartako gogoetei begiaren edukitzea, eta heken lekhuian bertze gogoetari lotzea.

Gure gogoia ezin dagoke gogoeta gabe; ezin gauteke zerbaitetan pensatu gabe. Pontua da ea zertan pensatzen dugun, nolako gogoetak ditugun; eta baldin gaixtoak baditugu, utz hek, eta har heken lekhuian onak.

<370> Begirautzu, etzaudela emaztetan pensatzen. Zeren pensatze hartarik ethorriko zaitzu atsegin hartzea; atsegin hartzetik, desiratzea; desiratzetik, biden egitea eta obratzea. Eta guztiak heldu dira gogoaren lehenbiziko orhoitzapenetik, eta orhoitzapen hari lekhu eta ostatu emaitetik, erroen egitera eta handitzera utztetik. Beraz, hartarik begiratu behar da. Zeren hura da emaztetako bekhatutan erortzetik begiratzeko bigarren erremedioa: hartako gogoetei lekhuirik ez emaita, agertzen direnean khentzea, baratzera ez utzte, eta ez sosegatzera; beltzuri bai, baina begitarterik ez egitea.

*Haragiaren bekhaturik begiratzeko hirugarren erremedioa: borondatearen
deliberamendua*

KAP. XXXVII

244 Ez erortzeko, eta eroriz gero ere jaikitzeko, erremedio handia da gogoa, borondatearen deliberamendua: hain handia, non bertze guztiak alfer baitira, deliberamendu hura gabe. <371> Jainkoaren aldetik, behar da haren garazia eta faborea, eta guretik gure gogoa eta borondatea. 5

Emazte batekin bekhaturan zaudenean, eta peril handian, hala zaudela, zeure azken egunak ediren zaitzan: zer bide izanen da, peril handi hartarik eskapatzeko? Emazte haren utzteko? Zer? Gogoa, borondatea, apartatzera deliberatuki deliberatzea. 10

Ethortzen da jubilio bat, edo bestaburu bat, edo garizuma; eta hetarik batetan, ikhusirik ezen bertzela galdua zoazila, egiten duzu urrikimendu handi batekin kofesione jeneral bat, zeure mendean egin dituzun falta guztiez, harturik borondate fin bat, ez gehiago emazte harengana, eta ez bertze halakotara bihurtzeko. Eta handik harat hala konplitzen duzu, etzara gehiago bihurtzen. Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, itsutua eta beretakotua zadutzan emaztearen utzteko. 15

§ 1

245 Ordea, utzte haur, amoranteaganik apartatze haur, nola edo zer moldez eginen duzu? Onez onetara, etsaitu gabe, ala etsaiturik? Baldin etsaitzen bazara, <372> horra non duzun berehala amorante harenganik mila burho eta maradizino, erranmerran eta desohore: erasiko du, oiuhu eginen du, eztu nehork ixilduko. Bada, etsaitu gabe eta gaitzera ethorri gabe, onez onetara apartatzea ere gaitz izanen da, eta perilos. Zeren lehen trebatuak izan, eroriak izan, lehen bezala elkharrekin egoiten, ibiltzen, minzaten; okhasinoak ere lehen bezala, edo maizago presentatzen eta gerthattzen; gogoa urri, aldatzen errax; eta emazteak ere behin gerthatuz gero, ez falta ekidin. Bada egiteko, bada zertan pensa. Badirudi hobe lizatekeiela gaitzerarik eta haserreturik partitzea eta elkhar utzte. 20 25

207-26 *gaitzerarik*: «gaitzera etorririk» esan nahi du, ‘haserreturik» (Villasanteren oh.). Cf. goraxeago «etsaitu gabe eta *gaitzera* ethorri gabe» (207-21/22).

Pontu hunen gainean bi gauza nahi nituzke erran. Lehenbizikoa: baldin etsaitu gabe, adiskidetasuna hautsi gabe, ezin aparta bazaitezke, hauts ezazu, etsai zaitezi. Eta orduan emazte hura haserretzen dela edo gaitzez jartzen dela ikhusiagatik, ezta-gizula konturik. Zeren haserretze hura eta gaitzez jartze hura haren gainean izanen da, eta ez zure. Eta halaber orduan, zutzaz gaizki erraiten badu ere, paira ezazu, zeren zeure merezia duzu. Halako ezteietan, halako zopak; halako egitekoek, halako ondorea, plazer iraganek atsekabea ohi dute.

246 Bigarrena erran nahi nuke: baldin emazte hari, zeure amoranteari adiskidetasuna <373> hautsi gabe, etsaitu gabe eta liskartu gabe aparta ahal bazakitza, hala egin zakitza. —Ordea, nola apartatuko natzaika etsaitu gabe? —Ezta gaitz, baldin partida biok, gaixtakerian izan zareten bezala, ontasunean akhort bazarete, nola izaiteko baituzue. Zeure gogoan deliberatu duzunean debozinoan jartzera, bekhatu suerte guztietarik eta guztiz ere emaztetakoetarik kanporatzera, orduan emazte hari, zeinekin behar ezten ezagutza izatu baituzu, erran behar diozu onez onetara: «Jainkoak daki, nola nahia baizen ezpaliz, nahi nukeien oraino bezala hemendik aitzina ere zurekin egon, ibili, bizi eta segitu. Baina hunela izaitera badakusat ezen zu eta ni ere galduak goazila, fin gaitz egiteko bidean garela. Eta hala geure arteko ezagutza gaixtoari alde egin behar diogu, apartatu behar gatzaitza: eta hemendik aitzina (gainerakoan adiskide gelditzen garela) halako traturik gabe, garbiki eta prestuki bizi behar dugu. Nik hala nahi nuke, hala deliberatu dut, gogo hartu dut, har ezazu bada zuk ere. Eta jakizu ezen eztela hemendik aitzina halako egitekoz enekin zer gehiago mintzaturik: eta oraidanik, nik hetzaz, adio erraiten deratzudala». Eta orduan bertzeak ere, zuk bezala erraiteko luke eta egiteko. Eta uste dut gutik falta lezakeiela, <374> baldin alde batetik edo bertzetik, hunelako biderik, molde onez ideki baledi. Huna non duzun erremedio ona, hala arimako nola gorputzeko, eta bai munduko ere: elkharrekin akhordaturik eta mintzaturik, elkharganik apartatzea eta berezte.

Ordea, lehen munduak dakiela bekhatutan egon direnek, eta bekhatuaz denaz bezanbatean elkhar utzi dutenek, eztute handik harat lehen bezala elkharrekin ibili, jan, edan eta solhastatu behar; eztute premiazko gauzetan baizen elkhargana behar. Bataz, okhasinoak okhasinoa pitz eztezangatik; eta berriz, bertzea, eskandalurik eztezangatik, eta munduari ere eztela ja heken artean lehen bezalako bekhaturik aditzera emaitzagarik. Zeren obligatu zara exenplo onaren emaitera, eta munduari ere giristino bezala bizitzen zarela erakustera: halatan, ez zure saindutasuna ager dadin, baina Jainkoa lauda dadin amoreakgatik. Eta, halaber, baldin bada nehor zu zeneunden bezala dagoenik, esportza dadin hura ere zuk hartu duzun gogoaren eta borondatearen hartzera, eta zuk bezala bekhatuaren utztera.

208-14 *onez onetara*: «de buenas a primeras; sin rodeos ni circunloquios. Ikus Mixelena (1974: 118)» (Villasanteren oh.). *OEH*-k (*onez onetara*, s.v. *on*) ‘a buenas, por las buenas’ itzuli du, Añibarroren *onez onera* eta hedatuago dagoen *onez onean* bezala.

<375>

§ 2

247 Emaztetarik apartaturik egoiteko gogoia, hain ongi hartu behar da zahartzean nola gaztean. Zeren gogoaren aldetik denaz bezanbatean, bada hurran-hurran hanbat peril zahartzean nola gaztean. Presuna bat denean hordi eta emakhoi, jan-edanera eta emaztetara emana, erraiten ohi da komunzki halakoagatik, utziko dituela denborarekin emazteak, baina ez edatea. Zeren emaztetako indarra flakatu-tuko baitzaika, baina ez edatekoa hala. Bada, jakizu ezen gizon putanera, gaztean bethi hala izatu dena, zahartzean ere komunzki hala ohi dela: ez obraz, baina bai gogoz. Zeren gogoia bethi da gazte, eta gaztetasuneko usantzek zahartzean ere gogoia errekeritzen dute. Zaharrak bekhatu gutiago egiten badu ere obraz, ordea, guti haren egiteko, gogoia bethi hartan daduka. Eta haur da, San Gregoriok dioen bezala, deabruaren usantza, obraz ezin eragin dezakeienean, gogoz bedere eragitea: *Callidus adversarius noster, cum ab effectu operis expellitur, secreta cogitatione polluere nititur* (Gregor. in *Matth.*). Zahar izanagatik, gogoia emaztetan <376> badaduka, urrats guztiaz eroriko da, edo hobeki minzatzera, bethi eroria egonen da. Eta hala, bekhatu hunetarik begiratzea eztago, ez, guztia adinean, eta ez indarrean, baina bethiere Jainkoaren faborea aitzinean hartzen dela, dago gogoan eta gogoaren deliberamenduan. Eta dohatsu da emaztetako indarra joaiten zaikanean, hartako gogoia ere joaiten zaikana.

248 Egia da: zahartzuz gero, adin batera helduz gero, odola hotzten da, naturaleza flakutzen da. Eta hala, zahartzeko amurusia da gaixtoena. *Senex amore captus, ultimum malum* (Menander). Zeren hura baita gogoarena, naturaleza bortxatu nahizkoarena, okhasino gabekoa, kondenatzeko seinalea; eta Spiritu Sainduari lehen erran den bezala, itsusi zaizkon bekhatuatarik bat.

Halakoari erran ahal dakidikaio, Udo zeritzan bati erran zeikana: *Impone finem ludo, quia satis lusisti, Udo*. «Asko jokatu zara, zahartu zara, ez gehiago bihur. Akhaba jokoa, zerori akhabatu gabe; utz zuk hura, hark zu utzi gabe». Baina Udo hark etzuen utzi; eta hala, fin gaitz egin zuen, eta eginen duzu zuk ere, baldin zahartzean bedere gogoia hartarik aldaratzen ezpaduzu.

Eta gogoia diot. Zeren egizu mila erremusina eta obra on, eta zaren urthez kargatua. Baina ezta probetxu, baldin bertze aldetik <377> gogoia emaztetan badaduka-zu. Sinhets ezazu ezen, Jainkoarekin batean, guztia gogoan dagoela.

Haur da hirugarren erremedioa emaztetarik begiratzeko, hekin ez kutsatzeko eta, kutsatuz gero ere, garbitzeko: gogoaren deliberamendua, borondatearen bertze aldera deliberatuki itzulirik jartzea eta egoitea.



Haragiaren bekhatutik begiratzeko laugarren erremedioa: ez alfer egoitea

KAP. XXXVIII

249 Trabaila zaite, egitekotan ibil zaite, zerbaitetan enplega zaite, alfer egoitetik begira zaite, eta halatan begiratuko zara emaztekin huts egitetik ere. Zeren alferkeriatik heldu da amurusia, emaztetako gogoia, orhoitzapena. Eta bai malizia pentsatzea, eta nahastekamenduen egitea ere. Halatan erraiten du Aristotelek, nekhazalerik eta laboraririk baizen ezten herria dela herririk hoberena (*Arist. lib. 5 Politic.*) 5

Zeren nekhazaleak bere nekeaz eta trailailuaz baitaduka kontu, eta ez amurusia, <378> eta ez nehoren nahastekatzeaz. Trailailatzen dena edo egitekotan dabilana, eztu haragiak tentatzen handi. Aitzitik, trailailuek, atsekabek eta egitekoek bertze egitekorik emaiten diote. 10

Egia hunen frogatzeko kontatzen du San Jeronimok (*Hieron. Ad Rusticum*) Egiptoko monasterio batean zela fraide gazte bat, haragiak bortitzki tentatzen zuena, bero hutsez bethi zirakiena; hain irakin, ezen barurtuagatik, disziplinuagatik eta bertze anhitz enseiu eginagatik, ezin iraungi baitzezakeien su hura, eta ez egotz bereganik hartako gogoia. Monasterio hartako abadeak egiteko haren berri jakin zuenean, ikhususirik ezen fraide hura galtzeko periletan zela, egin zuen gogoeta, zer moldez atherako eta libratuko zuen peril hartarik. Eta iduriturik ezen tentamendu hek guztiak alferkeriatik, egiteko gabe, aise, bere gogara, plazerera eta atsekaberik gabe egoitetik heldu zeitzala, erauzarazi zeraukan falso testimonio gaixto bat. Akhusatu zuten bi lekhukok abadearen aitzinean, abadearekin berarekin aditurik. Eta bazihardukaten elkharren artean. Akhusatuak ukha, oiuhu, falso zela, gezurra zela, etzela halakorik, etzuela hobenik. Baina lekhukoek mantena, on eduki, hala zela. Hunela zebiltzala, eta abadea ere sententzia emaitetik berariaz gibelatzen zela, <379> iragan zen urthe bat. Eta gero, haren buruan, galdegin zeraukan abadeak fraide hari, ea nola zihoakon bere haragiarekin, ea lehen bezala tentatzen zuenz. Eta ihardetsi zioen: *Papae: vivere non licet, et fornicari libeat?* «Zer tenta? Eztakusazu zertan naizen? Eztakusazu biziaz etsitu hurran dudala? Lorik ere ezin daidikedala? Joan dira, joan, leheneko gogoeta hek, orai bertzek deraut gogoeta eta egiteko». Ikhususazu zein artez eman zioen abade hark xedeari, eta nola atsekabearen emaitiaz, eta alferkeriaren eta aisiaren kentzeaz, kendu zerautzan haragiaren tentamenduak ere. 15
20
25
30

Amor est animi vacantis passio (Chrysost. *Hom. 14 in cap. 1 Mat.*). Amorio desordenatua astia duena baithan, presuna alferrean edireiten eta ostatatzen da, hari dagokan arrotza eta bianda da. Hargatik pintatzen zuten Venus jarririk. Zeren amorioa edo amurusia, alferkeriaz, aise eta geldi egoiteaz hazten eta mantenatzen baita.

5 Eta badio Ovidiok ere: *Otia si tollas, periere cupidinis arcus* (Ovid. *lib. 2 De remed. amoris*). Baldin ken baitzatzu alferkeriak, galdu dirateke Kupidoren arkuak, eztu nehor bere tragazez zaurtuko.

<380>

§ 1

10 **250** Komunzki alferrak jan-edanean eta emaztetan ohi daduka gogoia. Hala erraiten du Kasianok: *Mens otiosa nihil aliud novit nisi de escis atque ventre* (Casia. lib. 10, cap. 8). Alferraren gogoetak eta solhasak jan-edanaz eta sabelaz dira, eztu bertzetan pensatzen ere. Halatan erraiten zioen San Jeronimok Rustikori: *Ama studia litterarum, et vitia carnis non amabis* (Hieron. *Ad Rusticum*). «Onhets ezazu estudioa, eta ez tuzu haragiaren bekhatuan atseginik hartuko, eta ez gogorik edukiko».

15 Hartzen baduzu estudioa fintki, utziko duzu emaztea laxoki. *Haec fuit iniquitas Sodomaes sororis tuae, superbia, saturitas et otium* (Ezech. 10). «Jerusalem, zure aizpa Sodomaren bekhatua eta galgarria izan zen urguilutasuna, asea eta alferkeria». Alferkeriarekin batean egin zituen Sodomako hiri hark hain huts handiak eta bekhatu kharatsak, non igorri baitzeraukan Jainkoak, ez lur estaltzeko, eta ez ur garbitzeko, baina bai su eta khar erratzeko eta xispiltzeko.

20 Errege Dabitek, trabailatzen zenean, gerlan bere presunaz zebilanean, kontu guti egiten zuen emaztez. Baina astiari eta aisiari jarririk, mandatariz eta bere ordainez <381> egitekoen egiten hasi zenean, atzeman zen berehala eta erori bertzeren emaztearekin. Salomon ere tenploaren egiten hari zen bitartean, ez tugu edireiten

25 enganatu zutela emaztek, baina tenploa akhabaturik, alferkeriari eman zeikanean, fite atrapatu zen.

Bada Sanson ere gerlan zebilaino, ezin egundaino garaitu zuten bere etsaiek, baina egitekoak eta gerlak utzirik, emazte baten altzoan bere plazerera etzan zenean, emazte hark berak enganatu zuen, eta gero etsaiek hartzaz nahi zutena egin zuten.

30

Vigilate, ergo, fratres mei; quia nec sanctiores Davide, nec fortiores Sansone, nec sapientiores Salomone vos esse video (August., *Ad fratres in eremo*, ser. 17, t. 10). «Zaudete, beraz, iratzarririk, ene anaia maiteak» dio San Agustinek, «zeren eztakusat nik zaretela zuek Dabid baino sainduago, Sanson baino balentago, eta ez Salomon baino jakinsunago».

35

212-6 *baitzatzu*: baditatzu. Ik. 157-16 testu-oharra.212-17 *aizpa*: «Hunela, h gabe, bai lehen eta bai 2. edizioan (*aixpa* dio 2.ak)» (Villasanteren oh.).Lapurtera klasikoko idazleotan hitz honek ez du hasperenik (cf. *OEH*, s.v. *ahizpa*).212-19/20 «*Lur, ur, su, khar*, denak mugagabe» (Villasanteren oh.).

Quaeritur AEGistus quare sit factus adulter? In promptu causa est: desidiosus erat (Ovid., *lib. 1 De remedio amoris*). Galdegiten da zergatik erori zen Egisto adulterioan. Prest da arrazoina: zeren alferra baitzen. Bada, molde berean erran ahal diteke Dabitez, Sansonez eta Salomonez ere. Zeren hek guztiak, bertzerik anhitz bezala, alferkeriak galdu zituen edo galtzeko perilean ibeni zituen.

5

Beraz, hunelatan, zerbaitetan enplega <382> zaite, trabaila zaite, alferkeriatik begira zaite. Zeren halatan emaztatarik ere begiratuko zara.



*Haragiaren bekhatutik begiratzeko borzgarren erremedioa: konsideratzea zein
ttipia eta laburra den hartako plazera*

KAP. XXXIX

251 Emaztetarik begiratzeko, hetara ez hain isuria, eroria eta gogoia egotzia egoteko, on lizateke, zenbait aldiz bedere, bakharririk zaudenean, gogoeta egitea eta zeure baithan konsideratzea, ea nolakoa, handia ala ttipia, luzea ala laburra den emaztetako plazer hura. Zeren baldin ttipia eta laburra bada, erhokeria handia da, hargatik presunak bere buruari hanbat atsekabe eta egiteko, nola anhitzetan ere emaiten baitio, emaita. 5

Bada, frogatu duten guztiek batetan eta boz batez aithortzen, erraiten eta kofesatzen <383> dute, plazer hura, plazer aphurra eta laburra dela, hasi deneko akhabatu dela; eta are batzutan hasi gabe ere akhabatzen dela. Zeren plazer hartan berean ere komunzki plazer baino desplazer gehiago edireiten baita. Utzten ditut plazer haren aitzin-gibelak, anarterainoko eta ondoreko egitekoak eta atsekabeak, handiak baitira; baina hartan zareneko bereko plazeraz mintzo naiz. Eta diot ezen orduan ere, hartan zarenean ere, zerbait eskastasun, zerbait deskontentamendu izaiten duzula; eta hura dela kausa, orduan ere, guztiak ongi kontatzera, plazer baino desplazer gehiago izaiten duzula. 10

Hala erraiten du San Basiliok: *Oblectatio corporeae voluptatis, plus doloris habet quam voluptatis* (Basil. in *Psal.* 33). Haragiaren plazer korporalak, dolore eta desplazer gehiago du, atsegin eta plazer baino. Arrazoinekin galdegiten du Jondone Paulok ere: *Quem fructum habuistis in iis, in quibus nunc erubescitis?* «Zer fruitu, zer irabazi eta plazer izan zenduten orduan, orai ahalkez ere bururik ere ezin ailtxatuz zaudeten bekhatu hetan?». Are orduan ere etzenduten plazer osorik hartu, etzineten aspertu, eta ez ase. Eta ezta miretsteke ez asetzea. Zeren sua bezala da haragiaren bekhatua; eta suak eztu behin ere erraiten asko duela. <384> *Ignis nunquam dicit, sufficit* (*Prov.* 30.). Zeren, Glosak dioen bezala, *voluptates semper habent famem sui* (*Glosa ordin.* in cap. 7 *Luc.*), haragiaren plazerak bethi dira plazer gose. Eta iduritzen bazaitzu ere, baldin behin zeure desira desordenatua konpli bazeneza, hainbertzez sosega zindezkeiela, enganatzen zara. Zeren San Jeronimok dioen bezala: *Libido nunquam satiatur; et cum videtur extincta, reac-* 20 25 30

- cenditur, usu crescit et deficit* (Hieroni. *Ad matrem*). Haragiaren plazera ezta behin ere guztiz asetzen, eta ez osoki iraungitzen. Eta batzutan asetzen eta iraungitzen dela badirudi ere, berriz berehala gosetzen eta pitzten da. Eta are denbora gutiren barrenean lehen baino bizikiago iratzartzen da. Hala erraiten du Glosak: *Luxuria, etsi ad horam satiatur, postmodum, tamen, ad appetendum arctius inflamatur* (Glos. *Lyrana* in cap. 3 *Prov.*). Nola gizonak emazteari diadukon amorioa bere egitez baita natural, amorio hura aphur bat hotztuagatik ere, berehala naturalezak berak berotzen du, iraungiagatik pitzten du.
- <385>

§ 1

- 10 **252** Erraiten du Alziatok: *Heu miser! in mediis, sitiens, stat Tantalus undis. Et poma, esuriens, proxima habere nequit* (Alciatus, *Emblem.* 84). Tantalo onbehar hura gose eta egarri zen; eta bazuen oinen azpian ur franko, eta buruaren gainean zuhaitz bat, fruituz bethea. Ordea, edan nahi zuenean, urak ihes egiten zioen, eta jaterakoan zuhaitz adarrak goititzen eta goratzen zeitzan, ezin erdiets zitzakeien.
- 15 Janhariz eta edariz inguratua zegoen eta, alabaina, goseak eta egarriak hilzera zerman. Hala da, bada, haragiaren atseginetan eta plazeretan dabilana ere.

- Gose da, egarri da, eta emozu nahi duen bezanbat, sar bedi begietaraino, baina ezteke ase, ezteke osoki konpli, eta ez kontenta. *Libido lassari potest, satiari non potest* (*Destructor. vitiorum*). Unha ahal diteke eta nekha, baina ez ase. Hala erraiten
- 20 da Erromako andre batez, hanbat ibili zela gizonekin non hetarik partitu baitzen nekhatirik, baina ez aserik. *Et lassata viris, sed non satiata recessit* (Iuven. *Satir.* 6). Aitzitik, edanago, egarriago; usatuago, nahiago. Haragiaren desira desordenatua, abarizia bezala da. *Crescit amor nummi, quantum ipsa pecunia crescit* (Iuvenal.). Zenbatenez diru gehiago, hanbatenez gutiziosago. Hala da, bada, haragiaren <386>
- 25 bekhatua ere. Segituago, nahiago; usatuago, barrenago; aseago, goseago.

- 253** Baldin uste baduzu emaztetan anhitz usatzeaz emaztetako gutizia gutituko zaitzula, enganatzen zara. Aitzitik, nola batbedera anhitz jateaz eta anhitz edateaz jaleago eta edaleago egiten baita, hala emaztekin usatzeaz ere egiten da emakhoiogo eta emaztetara emanago.
- 30 Haragiaren appetitua hobeki hiltzen da ez usatzeaz, usatzeaz baino. Utzten ditut bertze erremedioak, baina erremedio naturalik, haragiaren tentamendu guti izaiteko, ezta halakorik, nola ez usatzea. Zeren ez usatzeaz anzutzen da haragia, ezansiatua eta ahantzia jartzen da. Baina usatzeaz bethi ernatua, iratzarria eta orhoitua egoiten da. Hala, edirenen duzu ezen gizon bat alharguntzen denean, berehala,
- 35 haragiaren lehenbiziko orhoitzapenean ezkondu nahiz dabilala, ezin dagokeiela. Zeren leheneko usantzak errekeritzen baitu. Eta halakoak, nola bera ezin baitagoke, uste du ezen bertze guztiak ere hura bezala direla, hark bezain igurikitza eta pairu guti dutela. Baina bere buruaren baizen berririk eztakiena bezala mintzo da. Zeren usatzen ez tuenari, haragia hildua, sosegatua, sortua eta ezansiatua dagoka.

Beraz, ez usatzeaz, etsitua eta gogatua egoitez <387> eta, guztien buruan, haragiaren plazera zein gauza aphurra eta laburra den kontsideratzeaz egizu. Zeren halatan zeure buruari sosegamendu handi bat emanen diozu, eta haragiaren bekhatutik begiratzeko ere borzgarren erremedioa edirenen duzu.



Haragiaren bekhatutik begiratzeko seigarren erremedioa: hartako plazarak zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen konsideratzea

KAP. XL

254 Haragiaren bekhatutik begiratzeko, seigarren manamenduaren konplitzeko, erremedio handia bada ere haragiaren plazera zein gauza aphurra eta laburra den konsideratzea, ordea, ezta ttipiagoa, plazer ttipi labur hark zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen halaber konsideratzea, eta ongi gogoan edukitzea. Zeren plazera iragan den bezain fite, han da desplazera, han da berehala damua, urrikia, atsekabea eta egin ezpalu <388> nahia. 5

Kontatzen du Aulo Geliok Korintioko herrian zela Lais zeritzan emazte eder bat, famatua, amoltsua, plazer egilea eta bere ofizioaren baliatzen ongi ziakiena (Aul. Gelits. lib. 1, cap. 3). Bada, egun batez Demostenes filosofo handi hura emazte haren aldetik iragaiten zela, kilikatu zen, ernatu zen, linburtzen hasi zen; eta galdegin zioen Lais berari, ea zenbana saltzen zen fruitua, zer balio zuen merkatalgoak. Eta alegerarik, ustez ezen ihizia sarean zuen, eskatu zeikan suma handi baten, gehiago borzehun ezkuturen baino: handiari handiki. Demostenek aditu zuenean emamuthiriaren demanda, ihardetsi zioen, ez uste bezala: *Ego poenitere non tanti emo* (Plutarc. in *Aphochothe*). «Eztut nik urrikitzea edo urrikia horrein garastia erosten». Erran bailio bezala: «Badakit, andrea, ezen baldin nik orai iragan baneza zurekin neure apheetitu desordenatua, urriki lekidikedala berehala. Bada, urrikitze hura, ondoko damu hura, eztut horrein kario erosten, eta ez hargatik hanbat diru emaiten». Eskarnio egin ustea, gelditu zen eskarniatua. Eta Demostenek eman zuen hartan aditzera, bekhatuari bethiere bere ondotik urrikia darraikala. 10 15 20

Munduko plazer desordenatu hautan, apheetitua hilez gero, asez gero, gozatuz gero, higintzen da bianda, ethortzen da urrikia. Ezin erran diteke zein erhotua ibili zen Amnon, errege Dabiten lehenbiziko semea, <389> bere arreba Tamarren ondoan, zenbat pensu, gogoeta eta itzulinguru egin zuen haren erdiesteko. Baina gero, erdietsi eta gozatu zuenean, hain gaitz etsi zuen, ezen berehala, ikhusi ere nahi gabez, etxetik gotzi baitzuen. 25

219-14 *zenbana*: «Zenbatna-ren laburpena. ‘Zenbatetan aldiko’ esan nahi du» (Villasanteren oh.).

- Errege Lisimakok, egartsua jaundurik, behin edatea gatik errendatu zenean, erran zuen, edan ondoan edanaz urrikiturik, tristura handi batekin: *O dii: quam parvae voluptatis causa, me ipsum ex Rege servum effeci!* (Plutar. in *Aphothe.*). «Ha, Jainkoak! Ala ni plazer aphurratik, behingo ur hotz edateagatik, errege eta libre nintzena, muthil eta gathibu egin bainaiz!». Hala erran ahal dezake, bada, haragiaren plazer aphur batengatik deabruaren azpiko eta gathibu egiten denak ere: «Ala ni, deus gutigatik, hunetara bainaiz, Jainkoarekin adiskide nintzena, etsaitu bainaiz!».

§ 2

- 255** Haragiaren plazerak zein guti irauten duen gogoeta egitera; plazer haren erdiesteko zenbat trabailu, gau eta egun gaixto iragan behar den pensatzera; eta, guztien gainetik, plazer eztheus hark, hasi deneko, edo hasi gabe akhabatzen den hark, zenbat pena eta atsekabe emaiten duen, eta zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen konsideratzera, <390> eztut uste lizatekeiela bat ere, egiteko hartan sar litekeienik; ez behintzat adimenduan dagoenik, zentzua buruan duenik, zoro eta itsu eztenik.

- 15 Eta hartan dabilzanek berek ere ezagutzen dute, ezagutzen, huts eginak dohazila, anhitz kalte handik errezibitzen dutela, bai konzientzian, bai ohorean, bai osasunan eta bai haziendan ere.

- 20 Eta hala, uste dut ezen, eztela bat ere, bere desira iragan duenean tristetzen eztenik, urrikitzen etzaikanik, eta bere baithan, eztuela gehiago bihurtu behar, zerbait gogoeta egiten eztuenik. Zeren orduan bere berri hartan aphur bat hotztua dateke, ematua dateke. Ordea, nola gero berriz bere leheneko apheetura bihurtzen baita, hala bihurtzen da, halaber, bere leheneko tokira, tornura eta lohira. Eta nola uli-farfaila ezpaita hegalak erra arteino kandelaren ingurunetik urruntzen, hala amurus itsutua ere ezta arima, gorputza eta hazienda honda arteino zenzatzen.

- 25 Eta hunen arrazoina da: Zeren hala dabilanak ezpaitu abreak baino gehiago ethorkizunera behatzen, eta ez plazer hark zein ondore hotza eta atsekabetsua bere ondotik utzten duen behar bezala konsideratzen.

220-22/23 *uli-farfaila*: «Lehen edizioak eta bai 2.ak ere, bazterrean *Papillio* jartzen du, mitxeletaren latinezko izena» (Villasanteren oh.).

<391>

*Haragiaren bekhatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa: borz zensuez,
eta lehenbizikorik begiez, kontu edukitzea*

KAP. XLI

256 Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman, behar ditu borz zensuak —zein baitira ikhustea, dastatzea, enzutea, usnatzea eta ukitzea— guardiatu eta 5
begiratu. Zeren hauk dira leihoak eta portaleak zeinetarik bekhatu guztiak, eta
guztiz ere haragiarenak, ariman barrena sartzen baitira. Athe hauk behar ditugu
hertsia, eta hautzaz eduki kontu, baldin etsaia geure arimako gazteluan sartzetik nahi
badugu begiratu.

Lehenbiziko athea eta portale prinzipala da begietako bista: *visus*. Hunek ber- 10
tze zensu guztiari eramaiten deraue abantail. Hunek denbora gutiz egiten du anhitz.
Urruititik ikhusten du, eta ikhusten duena gogoan barrena sartzen du, eta gogoak ere
errezibitzen du. Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia, kalte handiak gerthatuko
dira.

Ebak ikhusi zuen sagarra, eta handik bere <392> burua, gurekin batean, penan- 15
tan ibeni zuen. Dabitek behatu zioen behar etzen emazteari, eta handik egiteko
handitan erori zen.

Komunzki amorioa begietarik sartzen da, handik hasten eta sortzen da. Ihiztari 20
handiak dira begiak, eta bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean, eztira erdiets
arteino baratzen.

Begietako bista batek, behingo behatzeak, eta are anhitzetan ere iragaitzaz eta 25
ustekabeen behatzeak, arrotzen du bihotza: zer eginen du, bada, behin eta berriz,
berariaz eta luzaro beha egoite hark? Bigarren behatze hark, berriz bihurtze hark, go-
goeta egiten duela eta zer hari den dakiela, begiak finkaturik eta landaturik emaztearen
begiei, begitarteari, gorputzari, edertasunari eta ibilguneari beha egoite hark sua pitz-
ten du, aitzinatzen du, eta azkenean erratzen du. Hargatik erraiten du Spiritu Sainduak:
Ne respicias mulierem multivolum, ne forte incidas in laqueos illius (Eccles. 9), ezta-

221-13 *Baldin begiari edukitzen ezpazaika begia: «Kasu begi hitzaz egiten duen jokoari»
(Villasanteren oh.).*

zozula beha emazte arin, airatu, leihariari; behin ikhusiz gero, *ne respicias*, ez bir-ikhus, ez berriz bihur. Zeren bihurtzen bazara, haren saretan erortzeko periletan jarriko zara. Ahalkegabeki, muthiriki, kantoin guztietara begiak dabiltzala dabilan emaztea, peril da eroria den, edo sarri eroriko den. *Ne dicatis vos habere animos pudicos, si habeatis oculos impudicos; quia impudicus <393> oculus, animi impudici est nuntius* (Augus. in *Regula*). «Ezterrazuela —dio San Agustinek— bihotz garbiak eta onhestak ditutzuela, baldin begi desonhestak eta ahalkegabeak badituzue. Zeren begi desonhesta, ahalkegabea eta kanpoan sosegurik eztuena, barren gaixtoaren, sosegugabearen eta desonhestaren mandataria da, eta seinalea». Emaztetarik begiratu nahi duenak, begiratu behar du, halaber, emaztei behatetik, behintzat bai aiherkunde gaixtoz, eta handik kilikatzen dela sentitzen duelarik beha egoitetik.

§ 1

257 Gauza ederra da, eta arimakotzat probetxu handitakoa onhetstasun batetan begien beheiturik edukitzea. Kontatzen da Hugo ipizpiku saindu hartaz, hain zedukala kontu handia bere begien eginbideaz, non emazte batekin minzaten zenean, bethiere burua ahal bezanbat bertze alderat itzultzen baitzuen (Guidus Cartus. in *Vita Hugonis*). Eta erraiten zuen ongi zela hala egitea, zeren bertzela gaitz zela bere gogarako gauza ikhusiz gero, haren ez desiratzea, edo hartaz gogoetarik egin gabe egoitea.

Zioren soldaduek, hartu zituztenean asirioen <394> jendeak eta onak, ediren zuten bertze presoan artean Pantea ederra, errege Abradaten emaztea. Eta eman zioten berehala aditzera errege Zirori, emazte haren edertasuna nolakoa eta zein abantailatua zen. Baina, zeren erregek ez aditu iduri egiten baitzuen, lehiatu zeikan bere adiskide mamietarik bat, treben zeikana, Arraspas zeritzan bat, erraitera: «Errege, ezta egundaino lurraren gainean hain emazte ederrik sorthu; merezi du hainbertze ohore eman diazozun; merezi du behin ikhusi dezazun; eta prometatzen deratzut, ezen baldin behin ikhusten baduzu, eztuzula bigarrenean gonbidatzailek beharko, zerori egonen zarela errana» (Rhodig. lib. 13, c. 3).

Orduan ihardetsi zioen erregek hala erraile hari: «Bada, arrazoin horren beronengatik eztut ikhusi nahi. Zeren, baldin behin libreki ikhusten badut, beldur naiz bigarreneko gathiba nadin, eta neure desira desordenatuak behar eztena eragin diazadan». Erreputa eder haur eman zuen errege jentil hark. Zeren baitziakien zenbat kalte egiten zuen gauza debekuaren ikhustek.

Hala irakurtzen dugu Alexandro handiak ere biktoria famatu hura errege Darioren gainean izan zuenean, eta haren alaba ederrak bertze presoan artean hartu zituztenean, <395> etzuela nahi izatu ekhar ziazoten hetarik bat ere bere aitzinera, beldurrez ikhusi eta gero behar eztena eragin ziazoten.

222-10/11 *begiratu behar du, halaber (...) beha egoitetik*: Xehetasunak alde batera utzita, itzulpenak honela behar luke: «...debe también guardarse de mirar a las mujeres, por lo menos con malos deseos, y de estarlas mirando consciente de que se excita por ello».

Edireiten da bertzerik ere anhitz hunelako exenplorik, zeinetarik athera behar baitugu, baldin nahi ezpadugu behar ezten amorioa gogoan eta bihotzean barrena sar dakigun, zenbait aldiz begiak behebitu eta hertsu behar ditugula; begietako bistaren portale hunez, zein baita lehenbiziko zensua, kontu eduki behar dugula. Zeren haur da erremedio ona, haragiaren bekhatutik begiratzeko hartu behar dena. 5



Haragiaren bekhatutik begiratzeko zortzigarren erremedioa: mihiaz kontu edukitzea

KAP. XLII

258 Baldin bistaren portaleari eduki behar bazaika begia, eta egin guardia, segur da etzaikala gutiago egin behar gustuarenari. Hain ongi eduki behar da kontu bataz nola bertzeaz. Eta gustuaz mintzo naizenean, mintzo naiz ahoari ukitzen zaitzan <396> gauza guztiez: hala mihiaz eta minzatzaz, nola janaz eta edanaz. 5

Lehenbizikorik behar da banoki, ergelki, arintki eta desonheski minzatzetik begiratu. Zeren Jondone Paulok dioen bezala: *Corrumpunt bonos mores colloquia mala* (1 Cor. 15). Solhas gaixtoek galtzen dituzte aztura onak. Eta erraiten dute filosofoek ere: *Voces sunt signa conceptuum*. Mihiak deklaritzen du zer dadukan batbederak bere gogoan eta bihotzean. Nor nola mintzo baita kanpoan, hala ohi da barranean. Zer baitaduka gogoan, hura aipha nahi du jendartean. Mihia da bihotzaren mandataria: mihian da ezagun nor den batbedera, eta bai nongo den ere, Jondone Petri ezagutu zen bezala. 10

Eskusatu behar dira eta gibelatu hitz alferrak, arinak, jokolariak, dostailuak eta, guztien gaintetik, desonhestak, banoak eta ergelak. Zeren hek iratzartzen dute lo datzana, eraikitzen dute ihizia, eta eragiten behar eztena. Hek dira su pitzgarriak, eta elkharrekin trebatzeko bideak. Halako hitzetarik behar duzu eskusatu zeure mihia, baldin nahi baduzu begiratu emaztetarik zeure burua. 15

<397>

§ 1 20

259 Halaber, begiratu behar duzu emaztekin sobera solhastatzetik, konbersatzetik eta hitztun izaitetik. Zeren heken konbersazioneak eta solhasak berekin du ezitia, berekin du balakua, linburtzeko okhasinoa, eta bai elkharri lotzeko kola, biska eta lekeda ere.

Emazten artean dabilanak, hekin solhastatzeaz atsegin hartzen duenak eta, guztiarekin ere, eztela erortzearen beldur erraiten duenak, sinhets arazi nahi du ez-tela haragiz egina, eztela gizona; edo sua golkhoan gorderik, arropei lothu gabe erabil dezakeiela; edo ikhatz bizien gainean orthusik, oin-zolak erre gabe ibil dite- 25

keiela (Vide Basil. *De constit. monast.*, cap. 4). Ordea, erraiten du Spiritu Sainduak ezabela posible hala egitea: *Nunquid potest homo abscondere ignem in sinu suo, ut vestimenta illius non ardeant? aut ambulare super prunas ut non comburantur plantae eius? Sic qui ingreditur ad mulierem (Prov. 6)*. Emaztekin ibiltzea eta kalterik ez errezibitzea, suan erre gabe egoitea bezala da. Nornahi den eta nolakoa nahi den zarela: zaren handi edo ttipi; zaren debozinoz eta intenzione onez bethea; finean, zaren zeure ustez harria baino gogorrago <398> eta urrea baino finago, baina emazteak bere hitz leunaz, solhas garaziatsuz, eztaiaz eta emeaz beretakotuko zaitu, zentzutik atherako, liluratuko eta bertze aldera itzuliko zaitu. Zabiltea errota hartara: irina lothuko zaitzu; hurbil zakitza: kutsatuko zaitu. Halatan erraiten du Jondone Paulok: *Fugite fornicationem*. Ihes egizue emaztetarik, haragiaren bekhatutik, ibenzue zuen eta okhasinoaren artean murru bat, ez elkhargana hurbil. Eztu erraiten Jondone Paulok, bertze bekhatuez bezala, emaztetako bekhatuari defenda gakitzala; eztu erraiten harmetan mokhoz mokho jar gakitzala; baina dio *fugite*, ihes dagigula (Vide Aug. *De honestate mulie.*, cap. 1). Erran baileza bezala: Bertze bekhatu guztiei behar gatzaitze, Jainkoaren faborearekin batean, kontratu eta defendatu, baina haragiarenari ihes egin: halatan behar dugu garaitu eta biktoria erdietsi. Zeren bertzela, hurbilduz gero, elkharganaz gero, solhasean bakharrrik jarritz gero, gaitz da kutsatu gabe gelditzea, sarean sarthu gabe itzurtzea.

20 **260** Ezta zuhurtzia, izurria den lekhura erremedioetan fidaturik joaitea. Alde egizu, ihes egizu, hura da ez izurritzatzeko erremediorik hoberena eta segurena. Bada, emaztetako bekhatua izurriaren pare da, kutsuz doha, asko du ukitzea, asko du hurbiltzea. Har dezagun, beraz, Jondone Pauloren <399> konseilua: dagigun ihes, ezkaitezila okhasinotan sar, eta ez jar.

25 Lehenagoko enperadore gaixto heken denboran, hetarik ihes egiten zuenak galzten zuen martirioaren palma eta koroa. Koroa hura erdietsiko zuenak, martir izanen zenak, etzuen ihesik egin behar. Baina diferent da kastitatearen ez galtzeagatik ihes egitean: ihes egite hura, okhasinotan zarenean, zeure buruaren begiratze eta bortxatze hura da martirio eta martir izaitea. Hala erraiten du San Agustinek: *Nemo dicat, fratres mei charissimi, quod temporibus nostris martyrum certamina esse non possunt; habet, enim pax nostra martyres suos; nam libidinem fugere, pars magna martyrii est* (Aug. *serm. 240 de temp.*). Ezterrera nehork, ezen orai gure denbora hunetan ezin datekeiela martirik: badira, bai, orai ere martirak. Zeren haragiaren aphetitu desordenatuen benutztea, emaztetarik ihes egitea eta bere buruaren hetarik begiratzea, balentia handia da eta martir izaitea.

§ 2

20 **261** Ordea, zergatik erraiten da bertze bekhatuak defendatuz eta kontrakarrean jarritz behar ditugula garaitu, baina haragiarena ihes eginez? <400> Lehenbiziko arrazoina: zeren gizona eta emaztea sua eta istupa bezala baitira; beraz, eztera elkharrrekiko on; hurbiltzen badira, ezta segurantzarik, apart egoitea da hoberenik.

Bigarren arrazoina: zeren ezpaita on, hurbiltzeaz indar hartzen duen etsaiari alderatzea. Hala da, bada, haragia eta haragiaren bekhatua. Zeren gure haragia lehen geldi eta sosegu onean zegoena, bertze haragiagana hurbiltzeaz pitzten da, ernatzen da, indarrean sartzen da, etsai bihurtzen da. Eta nola errege batek herabe bailuke bere etsaien kontra guduan eta konbatean sartzera, liakienean bere soldadu propioak bere traidore dituela, bere kontra jaikiko zaitzala, hala behar dugu guk ere izan herabe haragiarekin ihardukitzera eta gerlan sartzera. Zeren gure haragia, traidore bat bezala, gure kontra jaikitzen baita. 5

Arrazoin haur emaiten du aditzera eta bai deklaritzen ere San Tomasek, erraiten duenean: *Peccatum semper est fugiendum; sed impugnatio peccati quandoque est vincenda fugiendo, quandoque, vero, resistendo. Fugiendo, quando continuata cogitatio perseverans, auget incentivum peccati, sicut accidit in luxuria. Resistendo, autem, quando cogitatio perseverans tollit incentivum peccati, sicut accidit in omnibus peccatis praeter luxuriam* (S. Thom. 2.2, q. 35, art. 1 ad 4). Bekhatutik bethi behar da <401> ihes egin, baina bekhatuaren akometamendua, narritamendua eta tentamendua, batean behar da ihes eginez eta apartatuz garaitu, eta bertzean defendatuz, kontra eginez eta borrokatuz. Baldin defendatze hartaz eta hartan pensatzeaz gutitzen bada bekhatuaren tentamendua, nola egiten baita haragiaren bekhatuaz bertze bekhatu guztietan, orduan hobe da defentsan jartzea eta tentamenduaren kontra borrokatzea. Baina baldin defendatze hartaz eta hartan pensatzeaz pitztenago bada sua, eta handitzenago tentamendua, nola egiten baita haragiaren bekhatuan, orduan behar da ihes egin, eta ez nola defendatuko den gogoetan jarri, zeren gogoeta hura bera da su pitzgarri. 10 15 20

Eta ihes egitea da, hartako okhasinoetarik, solhasetarik, inkonruetarik eta gogoetetarik begiratzea. Zeren dirua ezta segur ohoinak diren lekhuian, ez ardia otsoen artean, eta ez istupa suaren aldean. Gauza perilosak dira hauk elkharrekiko, eta bai gizona eta emaztea ere berak bakharririk bi-bian egoiteko. 25
<402>

§ 3

262 Baina oraino bi-bian egoiteaz halako perilik ezpaliz ere, bada bertze arrazoin bat emaztetarik apartatzeko, heken artean ez maiz ibiltzeko eta solhasean ez sobera egoiteko, zein baita exenplo onaren emaiteko eta eskandaluaren eskusatzeko dugun obligazioa. Ezta asko zeure konzientzian barrena kasto, garbi eta onhest izaitea, baina kanpoan ere eta munduaren alderakotzat ere hala behar duzu izan: *Providentes bona, non tantum coram Deo, sed etiam coram omnibus hominibus* (Roma. 12). Bere arauaz, Jainkoaz bezala munduaz ere, barrenekoaz bezala kanpokoaz ere egin behar da kontu. 30

Ongi heldu da puntu hunetara emazte prestuaz Spiritu Sainduak dioena: *Quaesivit lanam et linum, et operata est consilio manuum suarum* (Prov. 31). «Bilhatu zituen ilea eta lihoa, eta biak bere eskuz landu eta obratu zituen»: ilea kanpoko eta lihoa barreneko. Lege Zaharreko Arka famatu hura, urre finez kanpotik eta barrenetik urraztatua zen. *Deaurabis eam auro mundissimo intus et foris* (Exod. 25). Zeruko Esposoak biatan deitzen du ederra bere esposa: *Quam pulchra es, ami-* 35 40

ca mea, quam pulchra, aditzera emaitagatik, giristino on izanen denak, kanpoan eta barrenean, bietan behar duela izan on <403> eta eder, biez behar duela eduki kontu eta ardura.

5 Gizon bat maiz bakharrrik eta premia gabe emazte batekin egoiteak, emaiten du okhasino bekhatu eragiteko, eta goganbehar arazitzeko badela heken artean behar ezten zenbait ezagutza eta amorio desordenatu.

Nahi eztuenak erraizunik, eztemela okhasinorik. Nahi eztuenak dei dezaten otso, eztezala jauntz otso-larrurik. Nahi eztuenak ilkhi dadin kherik, eztagiela surik. Lege zuzenean ordenatua dago, asko dela frogantzarik emazte baten gaixtotzat
10 emaiteko, gizonarekin bakharrrik, ezorenean eta hartako lekhuan edireitea.

Zeren aieru hek, itzalgaizka ibiltze hek baitira frogantzarik asko goganbehar arazitzeko. Beraz, hunelatan, ezta asko intenzione ona izaita, baina behar da bekhatu eragiteko eskandalua eta okhasinoa ere eskusatu eta khendu.

263 Naturelezaren aldetik denaz bezanbatean, eztaude behin ere elkharrekin se-
15 gur gizona eta emaztea. Asko da gizon eta emazte izaita periletan izaiteko eta egoiteko. Eta tentatzailea ere ezatza behin ere lo: hark eraikitzen du erbia, pitzten du sua, gogoratzen du bekhatua, iratzartzen du haragia: eta behin iratzarriz <404> gero, gaitz da lohakartzen; gogoa airatuz gero, gaitz da sosegatzen eta bere lekhura bihurtzen (Vide Chry. *Serm. contra concubi.*, tom. 5).

20 Zuhurtzia handia da, emaztekin ezagutzatan ez sartzea, nor bere lekhuetan egoitea. Zeren behin elkhargana abiatuz gero, gaitz da handik pitzten den suaren iraungitzea, eta bai, halaber, jendearen ixilik edukitzea. Lehenbizian errax da emaztekin adiskidetzetik eta trebatzetik begiratzea, solhasean barrena ez sartzea, elkhargana ez ibiltzea; baina behin abiatuz gero, adiskidetzetik gero, trebatuz gero eta
25 elkharrekin solhasean, hitzketan, elheketan, presentketan, gosalketan eta bisitaketan hasiz gero, peril handia da arimako eta exenplo gaixtoa munduko.

Beraz, hunelatan, emaztetarik begiratu nahi duenak, nola behar baitu bere mihia edozein hitzen erraitetik gibelatu, hala behar du, halaber, emaztekin trebatzetik, ibiltzetik eta hitzetan eta ezagutzatan sobera barrena sartzetik eskusatu.

<405>

Haragiaren bekhatutik begiratzeko bederatzigarren erremedioa: sabelari ez sobera emaita

KAP. XLIII

264 Emaztetako egiteko hunetan bere buruaz kontu ona eman nahi duenak, behar du jan-edanetik ere begiratu. Behar du neurritz jatera, edatera, eta gustuaren eta zaphorearen portalearen ahal bezanbat zerraturik edukitzera enseiatu. *Sine Cerere et Bacho, friget Venus*, dio Terentziok. Ogirik eta arnorik ezten lekhuana, hotz da Venus: ezta han amurusiarik, eta ez emazte gutziarik. Errana da, haragiaren plazer, amorio desordenatua, sua bezala dela; eta su haren egurrak jan-edanak direla. Edeki iatzotzu, beraz, egurrak, jan ezazu guti eta edan gutiago, eta halatan, edo ezta sua pitztuko, edo pitztua fite iraungiko da. 5 10

Ordenatu zuen Solonek bere legetan, baldin herriko kargudun bati gertha bazekion sobera edatera, eta handik mihiaren motheltzera edo zangoen kordokatzer, edeki zekiola berehala bere kargua. Eta arrazoinekin <406> ordenatu zuen hala. Zeren bere burua ezin goberna dezakeienak, nola egingen du bertzerena? *Qui sibi nequam est, cui alii bonus erit?* (*Eccles.* 14). Beretzat gaixto dena, nola izanen da bertzerenzat on? 15

Korinthioek bere erregearen izendatzean eta koroatzean usatzen zuten zirimonietarik bat zen, ekhartzea bere aitzinera beira bat ur, aditzera emaitegatik etzuela handik aitzina arnorik edan behar, edo edanen zuena ongi ematurik eta urtzuturik edan beharko zuela (*AEneas, Silv. de Europa*, ca. 10). 20

Lehenago Erromako emaztek etzuten batere arnorik edaten. Zeren bertzerentzat ere itsusi da sobera edatea, baina emaztentzat are itsusiago eta perilosago. Handik uste dut ethorri zela usantza, arrotz kalean, kanpotik ethortzean, gizonen emaztei pot egitea, musu emaita, jakiteko ea arno usainik bazutenz (*Alexan. ab Alexandro*, lib. 2, cap. 26). 25

265 Federiko, izen hunetako hirugarren enperadoreak, etzuen bere mendean arnorik edan, anhitz baitzen aleman batentzat. Eta nola berak ezpaitzuen edaten, begi gaitzez behatzen zerauen arnora emanak ziren guztiei. Enperadore hark etzuen haurrik izaiten, ezkondua bazen ere. Eta midikuek elkhargana bildurik eta 30

konseilu harturik, erran zioten enperatrizari arno aphur bat edan behar zuela, eta halatan zenbait haur izanen zuela (AENEAS *Silv. lib. de dictis et factis Alphonsi Regis*, num. 7). Enperadoreak midikuen abisu <407> hunen berri jakin zuenean, desira handia bazuen ere bere ondotik zenbait umeren utzteko, guztiarekin ere, gaz-
 5 tigtatu zeraukan bere emazteari, begira zuela, etzezala halako erremediorik har; etzezala haur izaitegatik arnorik edan. Zeren nahiago zuela emazte haur gabea, esterila, defota, antzua eta, haltza oihanaren bista bezala, fruitu gabea, ezen ez hordia eta arno edalea. Hitz notatzekoak ziren hauk, eta segur ongi erranak. Zeren handiak baitira arnoak, guztiz ere emaztetan, egiten dituen kalteak; hain handiak,
 10 ezen ezpaita emazte edalea baithan zer fidaturik, eta ez gizon hordia baithan ere.

Ohoin bat, jokari bat, arnegari bat, putaner bat, gaixto da; ordea, gizon da, bere adimenduan dago, zerbaitetako gai da. Baina hordia, ardankoia, abre da, ezta gizon. Zeren gizon izaitea da adimenduan egoitea, arrazoinaz usatzea. Beraz, hordia, hordi deino, ezta gizon. Zeren orduan ezpaitago adimenduan; ezpaita orduan abrea baino
 15 gehiago arrazoinaz baliatzen. Eta hala, gizonak bere gizontasunean ezin duke falta handiagorik, eta ez desohore desohoragarriagorik (munduak hala ezpadaduka ere) horditzea, adimenduaren nahastea eta fama hartan jartzea baino.

<408> Noe patriarka saindu hura horditu zen egun batez; eta harena etzen miresteko, zeren lehenbiziko edanaldia baitzuen, eta ezpaitziakien oraino orduan zer indar zuen arnoak; zeren, jakinez gero, begiratu zen. Baina miresteko da nola orai, zuk dakizularik eta esperientzia duzularik, neurri batetara helduz gero arnoak iragaiten zaituen, gaitz egiten deratzun, etzaren guztiarekin ere zenzatzen, eta ez berriz halakatzetik begiratzen.

266 Likurgo Traziako erregeari iduritu zeikan ezen etzela asko arnoak egiten zituen kalten erremediatzeko, legez eta ordenantzaz arnoaren debekatzea, zeren hura zela erroak utzirik adarrei lotzea. Baina mahastiak behar zirela ebaki eta pikatu. Eta hala, bere erresumako guztiak, bat ere utzi gabe, pika arazi zituen; eta manatu zuen etzedila nehor handik harat, biziaren penan, ausart mahastiren landatzera. Eta bide hartaz, errege hark erremediatu zituen arnoak bere erresuman egiten zerautzan kalte guztiak.
 25

Sabel bethea, janhariz eta edariz gainez egina, ezta deusetako ere on, jokatzeko, minzatzeko, erasteko eta erhokeria egiteko baizen. *Nolite inebriari vino, in quo est luxuria*, dio Jondone Paulok (*Ephes.* 5). «Etzaitzeltela hordi, etzaitzeltela arnoz betha, zeren arnoa den lekhuan da haragiaren desira desordenatua». <409> Hunen arauaz erraiten du San Jeronimok: *Esus carniū et potus vini, ventrisque saturitas, seminarium libidinis est* (Hier. lib. 2 in *Ioan.*). «Haragi jatea, arno edatea eta sabelaren bethatzea, gutizia desordenatuen hazlekhua da, eta mindegia». Zeren nola mindegian birlandatzeko landareak sortzen eta hazten baitira, hala jan-edanean ere, haragiaren plazer hartzeko gutziak, orhoitzapenak eta kilikadurak pitzten eta egiten dira. Gaitz da alfer, aise eta ase egoitea, eta haragiaren bekhatutik eskapatzea.
 30
 35
 40

230-7 *defota*: «agorra, antzua» (Villasanteren oh.). Halaxe mugagabeen (cf. *OEH*, s.v.).

§ 1

267 Komunzki jende aberatsak, jan-edanean ieri dabiltzanak, erortzenago dira haragiaren bekhatuan, probe gosez direnak baino. Hala frogatu zuen Sesostris Egiptoko erregeak. Errege hura eritu zen, eta itsutu eritasun hartarik (Herodo. lib. 2). Eta berehala erresumako sazerdote, midiku eta gainerako hartako ziren guztiek konsulta eginik, erran zioten bere senharraz bertzerekin egitekorik izan etzuen emazte baten gernuaz eta ur-isuriaz garbitu behar zituela bere begiak, eta halatan berehala argituko eta sendatuko zeitza. Erregek haur aditu zuenean, sendatutzat zedukan bere burua: zeren uste zuen ezen mundu guztia prestu zela. Eta <410> hasi zen berehala ordenatu zeikan erremedioz usatzen. Eta lehenbizikorik, segur baino segurago, hartu zuen erreginarean ur-isuria, bere emaztearena, eta hartaz, midikuek ordenatu zioten bezala, busti zituen begiak, eta gantzutu. Baina alferrik, lehen bezain itsu gelditu zen, zeren erreginak bere senharraz bertzerik ere dastatu baitzuen.

Erregek xoil miretsi zuen hunetzaz, zeren etzuen uste ezen erreginak halako jokorik jokatu zukeiela. Erreginaz etsitu zuenean, hasi zen berriz bertze emazte prinzipal eta aberats batzuetarik foroguaren egiten, ur-isuri ekhartzen eta senda ahal zitekeienz enseiatzen. Baina etzioten hek ere senti arazitzen, eta ez onik egiten. Zeren guztiak ziren berdin prestu, guztiak ziren bertzerekin kutsatuak. Orduan erregek hurran-hurran etsitua zebilala, egin zuen inkontru baratzezain probe baten emaztearekin, eta haren ur-isuriaz begiak ukitu zituen bezain fite, argitu zen; eta sendatu zenean, hartu zuen emazte probe hura, egin zuen bere emazte, egin zuen Egiptoko erregina, eta gero bertze guztiak, gaixto frogatu zituenak, erregina bera barrenean zela, bizirik erra arazi zituen.

Aberatsak aurkitu zituen probeak baino gaixtoago eta haragiaren bekhatuan eroriago. Aberatstasunetik, jan-edanetik, gulatik, <411> sabeldarraiotasunetik sortzen da haragiaren plazer nahia eta bekhatua. Eta abstinenziatik, neurritz bizitzetik, sabel ederretako izaitetik eta pairatzetik heldu da debozinoa eta saindutasuna. Erraiten du Klimako sainduak, nahi dena izan kasto, eta alabaina arnoan zopatu egon eta asean ibili, halakoa dela, suari iraungitzeko olio eta orari bereganik hastantzeko ogi puskaren emaita bezala (Clima. cap. 14). Zeren nola ora bazkarekin hurbiltzenago baita, eta bai sua ere olioarekin pitztenago, hala haragiaren gutzia-mendua ere, jan-edan harekin berretzenago eta handitzenago da.

Beraz, emaztetarik begiratu nahi duenak, begiratu behar du, halaber, golos izaitetik, arnoan sobera sartzetik. Zeren halatan begiratuko du bigarren zensua eta portalea, zein baita ahoa, mihia, gustua, zaphorea, zeinetarik sartzen baita haragiaren bekhatu hatsa, higuina eta batbederaren galgarria.



<412>

Haragiaren bekhaturtik begiratzeko lehenen gainerako erremedioak

KAP. XLIV

268 Nola haragiaren bekhatur erori nahi ez tuenak eduki behar baitu kontu lehen-biziko bi zensuez, bistaz eta gustuaz, begiez eta ahoaz, hala eduki behar du kontu gainerako bertze zensu guztiez ere. Eduki behar du kontu enzuteaz, beharriez. Zeren anhitz gauza enzuten da, hobe bailizateke ez enzutea. Nehor emaztez edo emazte-tako gauzaz mintzo denean, ez ernaturik egon, herts beharriak, itzul burua bertze alderat: ahalik eta gutiena halako solhasik enzun, ez hetan atseginik har. Zeren San Isidorok dioen bezala: *Facile agitur quod libentur auditur* (Isidor. lib. *Soliloq.*). Erraxki egiten da gogotik enzuten dena. 5 10

Bada, kastitatea begiratu nahi duenak, ez tu dantzatu ere behar, eta ez soinuak diren lekhura joan. Lehenago, jentilen artean eta denboran, desohore zen dantzatzea; eta hala, <413> ez ten jende ohorez korik eta kontuz korik dantzetan edireiten. Zizeronen errana da: *Nemo fere sobrius saltat* (Cicer., *Pro Murena*). Nehor guti dantzaten da edana ez tenean, adimenduan dagoenean. 15

Jende gazte arinen, zentzuz baino zangoz fidago direnen ofizioa da dantza. Dantzan ez ta okhasino gaixtorik baizen. Han ahalkea galtzen da; ez agutzatan sartzen da; solhastatzen da, trebatzen da, eskuztatzen da, mandatua egiten da, eta azkenean behar ez tena sortzen da.

Erran behar da gauza gaixtoa eta okhasinotsua dela dantza, hartaz dioenean San Agustinek: *Melius est in diebus dominicis arare vel fodere, quam choreas ducere* (August., *De decem chordis*). «Hobe da eta bekhatu guti ago da igande egunetan golde nabarretan eta lur lanetan trabailatzea, ezen ez dantzan haritzea». Eta haur erraiten du hunela, ez zeren dantzatzea bera hain gauza gaixtoa den, baina zeren dantzatik anhitz okhasino behar ez tenik sortzen den. 20 25

§ 1

269 Bada, begiratu behar da usnaren portalea ere, eduki behar da kontu sudurrez ere. Zeren sar diteke handik ere behar ez tena. <414> Ez ta musketaz, balsamoz eta halako bertze usain onez usainzaturik ibili behar. Zeren hala ibiltzeak ez tu usain

ona. Eta halatan, manatu zuen Solonek etzezala nehork usain merkatalgoatan trata. Zenon filosofoak etzuen ikhusi ere nahi halako usainik zuenik. Eta hala, egun batez bere konpainiako bati usaina aditurik, eta bere baithan haserreturik, galdegin zuen: *Quis hic mulierem olet?* (Diog. Laert., lib. 7 in *Vita Zeno.*). «Nork du hemen emazte urrina?». Bidegabe handia egiten derauka bere buruari, emazteki bat bezala urrintzaturik eta usain onez betherik dabilan gizonak.

Zeren halakoak, usain ona emaitagatik, emaiten baitio bere buruari fama gaixtoa. Badira gauza batzuk ikhusi gabe, sudurraz beraz, urrinaz usnatzen eta jakiten baitira non diren eta zer diren. Hala, bethi usain onez betherik dabiltzanak ere usnatzen dira, eta ikhusi gabe ikhusten, nolakoak, zer azturatakoak eta zertsu diren. Halatan Marzial poetak erran zeraukan egun batez Postumo bere adiskideari: *Hoc mihi suspectum est, quod oles bene, Postume, semper. Postume, non bene olet, qui semper bene olet* (Martial. *li. 2 Epigr.* 12). «Goganbehar gaixtoa emaiten deraut, Postumo, zure bethi usain onez betherik ibiltzeak. Zeren eztu usain ona, bethi usain ona duenak». Usainik hoberena, batere usainik ez izaitea da. Hala <415> erraiten du Zizeronek emaztez mintzo dela: *Ideo bene olent, quia nihil olent* (Cicero, *Ad Atticum*, lib. 2). Usainik eztutenean dute usain ona; eta zeren ezpaitute usainik, hargatik dute usain ona. Balsamo, anbar, musketa eta halako bertze usain onak, jenden enganatzeko, beregana erakartzeko, bere buruez mintza arazitzeo, eta haragiaren bekhatuan eroriak dauntzala usnatzeko eta goganbehartzeko bideak eta seinaleak dira. Edo bai, zeren benturaz zenbait usain gaixto eta khirats baitute bere gorputzean, haren estaltzeko eta ezeztatzeko hartuak eta pensatuak.

§ 2

270 Eztu deus balio usain onez betherik ibiltzeak, eta are gutiago berari dagokan baino soineko arropa ederragoak erabiltzeak. Zeren hek guztiak dira banaloriak, desordenuak eta desonhetskeriaren seinaleak.

Amictus corporis et risus dentium et incessus hominis, enuntiant de illo (*Eccles.* 9). Soineko arropetan, irrian eta ibiltzean da ezagun, nolakoa eta zertako den batbedera. Nola khea den lekhuari ageri baita badela sua, hala sosegurik gabe, hortzak hirriturik, bethi irriz egoitean eta banoki beztiturik ibiltzean da, <416> halaber, ezagun eta ageri, han dela ergelkeria franko eta adimendua eskas. *Habentes alimenta et quibus tegamur, his contenti sumus*, dio Jondone Paulok (1 *Thim.* 6). Dugunean zertaz gosea hil eta larrua estal, asko esten dugu. Eztugu jan-edanean eta beztimendetan soberaniarik galdegiten: doi az elikatzen, iragaiten eta kontentatzen gara. Zenbait granoz arin delako seinalea da, bertzeak ez bezala edo dagokan baino ederkiago beztiturik ibiltzea, eta beztidura hek soinean dituen bere buruari kontentez beha egoitea. Halako bati erran zioen egun batez sekeretuan beharrira Demonakte zeritzan filosofo batek: *Heus tu! hoc ante te ovis ferebat* (Lucanus in *Vita Demona.*) «Hola, adiskidea! orai zuk soinean darabiltzatzun arropa horiek, zuk baino lehen erabili zituen bere bizkarrean ardiak, zeren haren ileaz eginak baitira. Eztuzu, beraz, horietaz zer loriaturik». Eta bertzela ere, zeren beztidurak bekhatua-

ren estalgarriak bezala, eta bekhatu egin dugulako seinaleak baitira, ederki erraiten du San Tomasek puntu hunen gainean: *Qui gloriatur de veste, similis est furi gloriante de caustero; quia propter peccatum Adae usus vestium introductus est* (S. Thom. *De regimine princip.*, lib. 5, cap. 59). Nahi duzu jakin, bere soineko arropen prezatzen eta loriatzen dena nola den? Azotatu ondoan justiziak sorbal-
dan burdin goriaz <417> emaiten dioen markaz eta zigiluaz prezatzen den
ohoina bezala. Marka hura, bere gaixtakeriakgatik emaiten zaika ohoinari, eta
bai guri ere beztimenda, gure eta Adan gure lehenbiziko Aitarene bekhatuagatik.
Bekhatu izan ezpaliz, etzen beharko beztimendarik; eztugu, beraz, hetzaz zer
banaloriaturik.

5
10

Batbederak behar du bere estatuaren arauaz, nola baitagoka hala beztitu, eta ez
gehiago. Zeren gehiagokoaz desohoratzenago du bere burua, ohoratzen baino.
Errege bezti bedi oihalik hoberenaz, aitonon semea erdikoaz eta nekhasalea arron-
teraz. Zeren gainerako guztiak dira banaloriak, desordenuak, bekhatu egiteko eta
eragiteko bideak, eta kastitatearen galgarriak.

15

§ 3

271 Baina guztien gainetik borzgarren zensu korporalari, zein baita *tactus*, uki-
tzea, eskuztatzea eta hazkatzea, eduki behar zaika begia. Zeren hura da ohoinen
kapitaina, jitoen kondea, bertzeren ebatsietan ere parte duena. Ikhustez, minza-
tzeaz, enzuteaz eta usnatzeaz egiten da bekhatu; ez, ordea, ukitzeaz bezala. Bertze
zensuek urruititik, baina utkitzeak hurbiletik akometatzen du. Begiek, mihiak eta
bertze zensuek eraikitzen dute ihizia, baina ukitzeak atzemaiten du. <418>
Gaixtoeneko pontuan, desonheski behatuagatik eta mintzatuagatik ere, aitzinago
iragaiten ezpada, ezta obrarik bedere; baina ukituz gero, akhabatu da jokoa, egin
da kolpea. Desonheski behatzea, eritzeko seinalea da, baina ukitzea hiltzekoa.
Oraino solhastatzeaz, eta behatzeaz beraz ere, kilikatzen da, orhoitzen da. Zer
izanen da, bada, ukitzera eta musu-besarketara dadinean? Urruititik ere berotzen
du suak; zer eginen da, bada, hurbil dadinean? Gaizki doha iztupaz, suak utki
dezanean. Bertze joko guztiak ametsetakoak bezala dira; utkitzea da ira-
tzarririkakoa, fina eta segura. Gatzak, urez egin delarik, eztu ura baino etsai
handiagorik: ez eta haragiak ere, haragiz delarik, haragia baino galgarriagorik.
Batak eta bertzeak ere asko dute elkharren ukitzea. Beraz, aparta, ez hurbil, ez
utki. Zeren nola ukitzeak pitzen baitu sua, hala ez ukitzeak, hastantzeak eta alda-
raturik egoiteak begiratzen du kastitatea eta garbitasuna.

20
25
30

Finean, erremedio guztien gaineko behar lizatekeien erremedioa da, konsidera-
tzea Jainkoak ikhusten gaituela, beha dagokula. Eta baldin den presunarik eztheuse-
naren behatzeak, ikhustekak eta aitzinean gerthatzeak gibelatzen bagaitu halako be-
khaturen egitetik, nola izanen da arrazoin gibela <419> gaitzan, geldi gaitzan eta
begira gaitzan, Jainkoak ikhusten gaituela eta aldakan beha dagokula jakiteak eta
pentsatzeak?

35
40

GERO

- Hauk dira (eta Jainkoak ailiotsa liren asko) haragiaren bekhatuan ez erortzeko eta eroriz gero ere jaikitzeke hartu behar diren erremediorik prinzipalenak. Zein baldin egun beretik, geroko luzatu gabe, hartzen eta konsideratzen badituzu, jakizu ezen gorputzari aisia handi bat emanen diozula, eta arimari are handiagoa. Eta ha-
- 5 latan, munduan duzun etsairik handiena eta perilosena, zein baita haragia, azpirako, garaituko eta errendatua ibeniko duzula.

236-1 *ailiotsa*: «ailezaio (opa)! ai balezaio!» (Lekuonaren oh.).

Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean alha zaikun konzientzia gaixtoa

KAP. XLV

272 Erraiten du San Tomasek, eta frogatzen den gauza da, gure Jaungoikoak ereina eta landatua dadukala gure baithan barrena, jakin behar diren gauzen jakiteko eta egin behar direnen egiteko hazia eta landarea (S. Thom. 1. part. q. 79, art. 2). Badu gutarik batbederak bere baithan barrena Jainkoak <420> emanikako aitzindari bat, kidari bat eta argi egile bat. Eta hark erakusten deraku zer dagokun ongi eta zer gaizki, noiz goazin makhur eta noiz artetz. Eta, are gehiago, hark berak bere ahal guztiaz aitzinatzen eta bulkhatzen gaitu ongi egitera, eta gibelatzen eta hastantzen gaizki egitetik. 5

Barreneko aitzindari haur edo argi egile haur, zein deitzen baitute doktorek *synderesis*, da gure konzientzia edo arrazoin naturala. Zeren ezta munduan halako aitzindaririk, kidaririk, argi egilerik eta ez erakuslerik, nola baita arrazoin naturala, eta arrazoin naturalak dioena; naturaren arauaz, legez eta ethorkiz dakiguna; batbederaren barrena, konzientzia, eta konzientiaren lehenbiziko mugida, abiadura, erakuspena eta konseilua. Hala erraiten du San Krisostomok: *Ab initio Deus hominem formans, legem illi naturalem indidit. Et quid, tandem, est lex naturalis? Conscientiam nobis expressit, et per se discibilem constituit bonorum et contrariorum scientiam. Non, enim, opus habemus discere quod mala est fornicatio, sed ab initio hoc scimus* (Chrysost. *Hom. 12 ad popul. Anthio.*, to. 5). Hastetik, egin zuenetik beretik, eman zeraukan Jainkoak gizonari lege naturala. Eta zer da lege naturala? Batbederaren konzientzia, zeinetan barrena baitago bere buruzko ezagutza bat, jakiteko zein den zuzen eta zein makhur, zein den ongi eta zein gaizki; halako moldez ezen <421> ezpaita zer ibilirik frogatzen gauza gaixtoa dela bekhatua, eta gauza ona berthutea, zeren badakigu haur gerok ere geure burutik, lege naturalak berak, konzientiak erakutsirik. 10
15
20

§ 1

273 Hunetan da ageri maite gaituela geure Jaungoikoak. Zeren geure baithan barrena, geure etxean, bertzetara konseilatzera joaiteko premia gabe, emaiten baite-

237-12 *kidaririk*: leh. *gidaririk*. Ik. 237-12 testu-oharra.

raku behar dugun nabusia eta erakuslea, zein baita konzientzia. Eta halatan kondena-
tzen dira lege naturalaren arauaz bizitzen ez diren jentilak.

Merkatari batzuek egiten dituzte sal-erosi nahasiak, tratu gaixtoak, lukureriaz-
koak, enganamenduz betheak. Eta gero joaiten dira bere kofesoretara edo bertzetara,
5 galdegitera ea tratu hek justu diren, egin ahal ditezkeien. Eta joaiten dira mengoa
gabe, premia gutirekin. Zeren hain da klar ez tirela justu, non baldin bertzetan ibili
gabe, galdegin baliatzote berek bere konzientziari, hark berak erakuts bailizaie egia.
Eta handik, berek kondena bailitzakete bere buruak. Zeren bere konzientzian barrena
ediren bailezakete, eskiribaturik bezala, galdez dauden guztiaren errepuesta. Utzi
10 nahi <422> badiogu konzientziari, bera da asko errebelatzetik begiratzeko, artez eta
xuxen erabiltzeko. Zeren badaki behar dena, eta bere egitez guztia da onera emana.
Eta San Tomasek dioen bezala, ontasunari egiten dio besta eta begitarte, eta gaixta-
tasunari liskar eta beltzuri: *Synderesis dicitur instigare ad bonum et murmurare de*
malo (S. Thom. 1. part. q. 79, art. 13). Beraz, bere konzientziaren arauaz, haren
15 buruz eta konseiluz gobernatzen eta kidatzen dena ongi da, alegera da, kontent eta
pagu da. Baina bertzela, bere konzientziaren kontra dabilana, gaizki da, beltz, ilhun,
goibel eta triste da.

Eta arrazoinekin da hala. Zeren, nola zangoa, besoa edo gorputzeko bertze
parte bat bere tokitik eta junturatik ilkitzen, makhurtzen, aldaratzen edo enharda-
20 tzen denean ezin sosega baititeke, eta ez pausa, bere tokira eta lekhura bihur arteino,
hala bere konzientziari gibela emanik, bekhatutan dagoena ere, nola behar den jun-
turatik eta arrazoin naturalak erakusten dioen bidetik eta ordenantzatik aldaratua
eta iltkia baitago, ezin sosega diteke, eta ez pausa, hala dagoeino. Bere bidean eta
tokian dagoenean, nola baitago bekhaturik ez tuenean, orduan da alegera, arrai, aise,
25 kontent eta bere gogara.

<423>

§ 2

274 Ezta konzientzia gaixtoa bezain gauza gaixtorik eta erragarrik; bera da
azoterik eta borrororik asko. Hala erraiten du San Agustinek Jainkoarekin mintzo
dela: *Iusisti, enim, et sic est, ut poena sua sibi sit omnis inordinatus animus* (Aug.
30 *lib. 1 Confes.*, cap. 12). «Manatu zenduen eta hala da: konzientzia desordenatua,
bera da bere buruarentzat pena eta gatzigu».

Ezta uharrerik, eta ez uholderik, lurra hala larrutzen eta arrobatzen duenik;
ezta pipirik, zura hala desegiten eta zuhirintzen duenik; ezta zedenik urdaia hala
bohatzen eta jaten duenik; ezta zerrenik oihala hala eta hain gisagaizki bilhakutzen
35 duenik; eta ez harrik, haragia hala galtzen eta gastatzen duenik, nola konzientzia
gaixtoak egiten baitu bere burua.

Harra da konzientzian barrena dagoen bekhatua; eta harrak bezala, gau eta
egun autsikitzen du, jaten du, larrutzen du. Eta hain da gose, ezen ezpaita behin ere
asetzen, eta ez autsikitzetik eta bere falten gogora ekhartzetik gelditzen.

Errege Dabitek bertzeren emaztearekin huts egin zuenean, anhitz enseiu eta itzulinguru egin zuen, huts hura estali nahiz. Eta ez, ez, zeren nehoren beldur zen, <424> errege zenaz geroz. Baina, zeren ezpaitzuen bere konzientziak sosegatzera utzten.

Konzientziak ez aita sainduri, ez enperadoreri, ez erregeri, eta ez munduan den bertze presunari, eztiarzio barkha. Eta haur guztior egiten du gure probetxuagatik, bekhatutan lohakar ezkaitezingatik. Geure aita propioak baino maiteago gaitu geure konzientziak. Aita batek bere semea behin, biatan, hiruretan edo hamarretan mehatxatu duenean, ikhusten badu eztela zenzatzen, eta ez emendatzen, utzten du, etsitzen du. Baina ez konzientziak, eztu behin ere utzten, eta ez etsitzen (Vide Chrysost. concio. 4 *De Lazaro*, tom. 2).

Gerla handia egiten deraku geure konzientziak, eta gerla hunek, aphur bat ere gibelatzen gaitu bekhatu egitetik: bertzela egin luke gureak. Hala erraiten du San Krisostomok: *Conscientiae increpatio, sacra est anchora, non sinens, nos tandem in peccatorum demergi profundum* (Chrysost. ubi supra). Konzientziaren erantzutea eta mehatxua, aingura da, eta aingura ere saindua eta sakratua, bekhatuen hondarean erortzetik eta han ithotzetik begiratzen gaituena.

§ 3

275 Ordea, diferentzia handia da konzientzien artean: anhitz doha batetik bertzera. <425> Konzientzia batzuk dira erne, sentikor, minbera, hertsia; eta, berriz, bertze batzuk loti, hil, lazo, zabal eta ezantsia. Zapata bat duzunean neurri, justu, doi, ezin paira dezakezu barrenean den legarrik ttipiena; baina zapata baketazko handi zabalak eztira hain perilos: hek badute lekhu franko, oina guti minberaturik, ez legarren, baina harrizkoen ere edukitzeko.

Bada, diferentzia haur beror da konzientzia onaren eta gaixtoaren artean ere. Konzientzia onak, justuak, ezin paira dezake bekhatu benial bat ere, baina gaixtoak, lazoak, eztu mortalez ere konturik egiten. *Multi, per nimias iniquitates, non sentiunt peccati conscientiam* (Ambros. *lib. 3 De parad.*, cap. 5, tom. 2). Anhitzek ere bekhatu egin hutsen botherez, eztute bere konzientziako bekhatua sentitzen. Eta haur da Spiritu Sainduak ere dioena: *Impius, cum in profundum malorum venerit, contemnit* (*Prover.* 18). Gaixtoak bekhatuen hosinean barrena sarthuz gero, galtzen du sentimendua, eztu antsiarik. *Piae mentis est, vulnus sentire peccati; nam, qui expertes doloris sunt, non sentiunt vulneris acerbitatem; quod est immedicabilis aegritudinis* (Ambros. in *Psal.* 50, tom. 2). Seinale ona da bekhatuaren zauriaren sentitzea, eta gaixtoa ez sentitzea. Zeren sentimendua galduz gero, oinhazeak hilez gero, ezta sen-

239-5 *ez aita sainduri, ez enperadoreri...: «Kasu mugagabeari»* (Villasanteren oh.).

239-21 *Zapata bat duzunean neurri: «Hemen neurri-k partizipio balioa du (neurtu-ri dagokioena, alegia). Izan ere, antzina neurri izango zen partizipioa, -tu aditz bukaera berria denez gero. Ikus Mitxelena (1974: 110)»* (Villasanteren oh.). Mitxelenak pasarte honetan adjektibo dela diosku, lehengo partizipioaren azken arrasto gisa: 'zapata bat neurrikoa duzunean' hots, 'zure neurrikoa denean' litzateke hurbilena gaur.

dagai, ezta sendakizun, eta ez midikuntzatan ibiltzeaz probetxurik. Haur da mundu hunetan bekhatoreak <426> ahal dukeien miseriarik handiena, estaturik perilosena eta egoitzarik gaixtoena: bekhatuaren ez sentitzea. Halakoak konzientziaren sainga guti aditzen du, lo guti hargatik galtzen du; ordea, ezta, ez, hura ere alde guztiz narrio

5 gabe: den gaixtoenari ere, noizik behin bedere, alhatzen zaika bere konzientzia. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Neque, enim, in eius potestate situm est remittere* (Chrys. in *Psal.* 142, tom. 1). «Nahiago badu ere, ezin barkha dezake konzientziak». Hala emaiten du aditzera San Ambrosiok ere: *Conscientia, cum non habet loquendi usum, nescit, tamen, tenere silentium* (Ambros. *De poenit.*, c. 1, tom. 4).

10 «Konzientziak minzaten usatua eztelarik, eztaki alabaina ixilik ere egoiten». Zeren kanpoan minzaten ezpada ere, bai ordea minzaten da barrenean.

276 Konzientzia da behin ere lohakartzen ezten zerbitzari bat, marrantatzen edo erlasten ezten predikari bat, eta bethiere ontasunera ahal bezanbat eramaiten gaituen kidari bat. Eta etzaiku puntu batez ere aldaratzen: bethi darraiku, gorputzari itzala

15 darraikan bezala.

Eta eztago, ez, alferrik ere: alha zaiku, saingaz eta eranzutez dagoku. Bekhatua egin baino lehen, egitean eta eginez gero ere, erasten du, abisatzen du, akhusatzen du. Eta guztiz ere bekhatu egin ondoan jaikitzen da, orduan atzartzen da, orduan dira zinak eta <427> minak, orduan dira ezproin kolperik handienak. Zeren San Krisostomok

20 dioen bezala: *Sicut ebrius, cum multum vini ingurgitat, nullum sentit a vino damnum; postea, autem, sentit; ita et peccatum, donec consummatur, obtenebrat mentem, et quasi densa nubes, ita mentem corrumpit. Deinde conscientia insurgit, et quovis accusatore mentem gravius arrodit, monstrans absurditatem peccati* (Chrysost. *Hom. 64 in cap. 42 Genes.*). Nola hordiak arnoa iresten duenean, ezpaitu sentitzen handik heldu

25 zaikan kaltea: zeren gozatasun hark, edatean hartzen duen atseginak, itsutzen baitio adimendua; ordea, gero, hordia joan dakionean, ezagutzen baitu bere falta eta desohorea: hala bekhatoreak ere, bekhatua egiten duenean, ezta sentitzen, eta ez ikhusten, handik heldu zaikan kaltea, zeren hartako atseginak eta plazerak lilurutzen baitu; hain lilurutzen, ezen ezpaita orduan gaitzez orhoitzen. Baina gero, iragan denean bekhatua,

30 jaikitzen da konzientzia, eta hain zinez akhusatzen eta liskar egiten hasten da, non iragan diren plazer guztiez ahantzirik ibentzen baitu bekhatorea.

§ 4

277 Erraiten du San Agustinek, emazte gaixtoak, ithaizurak eta kheak atheratzen duten bezala gizona bere etxetik, atheratzen duela konzientzia gaixtoak ere bekhatorea <428> bere sosegutik (Vide August. in *Psal.* 33 et in *Psal.* 100). Emazte gaixtoa, ithaizura eta khea diren lekhuana ezta plazerik, ez eta konzientzia gaixtoa duena baithan ere ontasunik. Bekhatorea sar badadi bere konzientzian barrena, berehala hango kheak atheratzen du kanporat, azpiratzen du tristurak.

240-18/19 *zinak eta minak*: «sofrikario handiak, oinaze biziak» (Villasanteren oh.).

Kanpoan etsaiak, perilak eta asaldak dituenak, laster egiten du etxera, pausatza eta bere buruaren seguratzera. Ordea, etxean ere etsaiak, atsekabeak, ithaizura, khea eta emazte gaixtoa dituenak, zer eginen du? Non pausatuko du? Zer konsolamendu izanen du? Kanpoan etsaiak, etxean gerla, non edirenen du bakea? Non? Bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, han behar du pausatu, han behar du konsolatu eta bere burua arindu eta alegeratu. Ordea, baldin bere barreneko ganbara hartan ere, bere konzientzian ere edireiten badu etsaia, bekhatuaren ithaizura, khea eta eranzutea, zer egingen du orduan? Norako da? Sarthuagatik bere barreneko ganbaran, bere konzientzian, eztezake pausurik ediren. Zeren han berean batzen baitzaika bere etsaia, eta etsairik gaixtoena etxe barrenekoa da. *Hostem suum invenit, quo confugerat* (August. in *Psal.* 45). Etsaiaren ihesi dabilala, egiten du etsaiarekin inkontru. Beraz, gehien bazterretarik hartua da halakoa, alde guztietarik atrapatua da. Zeren bere burua ere etsai baitu, eta berak bereganik ezin baitaidike ihesik. Arrazoinekin erraiten <429> du San Agustinek: *Nullae poenae graviore quam malae conscientiae, in qua, cum non habetur Deus, consolatio non invenitur* (Aug. *Sent.* 191, tom. 3). Ezta konzientzia gaixtoaren egitekoak eta penak baino pena handiagorik. Zeren nola ezpaita Jainkoa han egoiten, ez eta ezta konsolamendurik ere edireiten.

278 Eri den presunak, barrenean min duenak, ahal daidike denbora aphur batez kanpoan eta jendartean alegera iduri; ordea, guti hala irau, berehala bere barreneko gaitzak gogoetan ibentzen du, tristetzen du. Hala tristetzen du, bada, bekhatutan dagoena ere, bere konzientziak, bere barreneko eritasunak. *Vides convivium peccatoris; interroga eius conscientiam; nonne gravius omnibus foetet sepulchris?* (Ambros. *lib. 1 Offic.*, c. 12, tom. 5). Ikhusten duzu bekhatutan dagoenaren gonbitea, jan-edana, bonbazia eta bankezia, baitirudi ezen han dela parabisua, eztela zer gehiago desira. Ordea, baldin galdegiten badiozu ea nola dihoakon bere barren hartan, bere konzientzian, erranen deratzu gaizki dela, nardagarri dela, sepultura kiratsak baino kiratsago dela. *Impii quasi mare fervent quod quiescere non potest*. Gaixtoak itsas irakitua bezala dira, eztute bakerik eta ez sosegurik; heken holek, uhinek, bagek eta tormentek hanbat badira, ezen gainez egiten baitute. Eta badio Salomonek ere: *Praecordia fatui, quasi rota carri*. Gaixtoaren konzientzia eta barren aldeak, orgaren <430> edo gurdiaren arroda bezala dira. Gurdi kargatuak badarasa, badirudi bere karga handia ezin jasanez arrenkuratzen dela; hala arrenkuratzen da, bada, bekhatorearen konzientzia ere, bere bekhatuen karga eta pisutasuna ezin jasanez: hark nekhatzen du, hark zapatzen du, hark bere soinuaz, habarrotsaz eta erasteaz tristetzen eta penatzen du.

279 Egun batez joan zituen filosofo batek zapata batzuk bere etxera, prometaturik zapatagileari, denbora gutiren barrenean pagatuko zerautzala. Eta abiatu zen bere hitzean eta ephean pagamenduaren egitera. Baina, enzunik ezen hiltzela diruak behar zituen zapatagina, bihurtu zen alegerarik bere diruekin etxerat, idurituri ezen hainbertzez kito zela; eta eduki zituen zenbait denboraz diruak berekin. Ordea, bi-tarte hartan hain jaten eta erratzen zuen bere baithan barrena bere konzientziak,

- ezen ezin pairatuz, joan baitzen bere diruak harturik zapataginaren etxera; eta han egotzi zituen, erraiten zuela, zapataginarekin berarekin mintzo izan bailiz bezala: *Ille tibi vivit, redde quod debes* (Senec. *lib. 7 De benefic.*, cap. 21). «Bertze guztientzat hil bahaiz ere, oraino bizi aiz enetzat. Thotzik bada, har itzak heure zapaten diruak, eta utztak niri bakea». Deskargua egin arteino, etzuen utzi bere konzientziak sosegatzera, anarteraino bethi eman zioen garri eta narrio. <431> Ezta egungo egunean mundua hunein sentikor, eta ez konzientziatsu.

§ 5

- 280** Gaixtoa, bertze etsairik gabe, bere konzientziak berak bere baithan barrena azotatzan du, autsikitzen du, zauritzen du, larrutzen eta penatzen du. Iragan denean bekhatuaren plazera, han da berehala konzientziaren desplazera. Bekhatua, zauri hatz gilea bezala da. Hatz egitean atsegin hartzen duzu. Ordea, hatz gordin eginik, gelditzen zaitzu ondotik errasumina. Hala gelditzen da bada, bekhatuaren plazera iragan denean ere, konzientziaren mina eta oinhazea. Sukhar handiarekin zaude-
nean ere, atsegin hartzen duzu ur hotzaren edateaz; ordea, gero, edan ondoan, gaitza berreturik, izaiten duzu atsegin haren atsekabea. Haur da fruitu ondugaben ondorea, horzkidura, higuintza.

- Garzelean dagoenari, emozu nahi duen bezanbat jatera eta edatera, egiozu ahal dagizun besta guztia, baina ezta hargatik osoki alegeratzen. Zeren ezpaitaki zeri dagokan. Alegerakiago bizi da athez athe dabilan errumesa. Zeren San Krisostomok dioen bezala: *Supplicii expectatio non sinit praesentium voluptatum sensum capere* (Chrysost. *Hom. 12 in c. 7 Roma.*, tom. 4). Garzelean dagoena, ezta utzten geroko gaztiguaren beldurrak atsegin <432> hartzera, eta ez eskuen artean dituen plazer aphurren gozatzera.

- 281** Urkhabera kondenaturik dagoena, aitzinetik penatzen da, urkhabeaz orhoitzen den guztiaz urkhatzen bezala da. Hala da, bada, konzientzia gaixtoa duena ere. Halakoa, noiz eta hasten baita bere gogarenik, bere lagunekin atsegin hartzen, orduan berean orhoitzen da bere bekhatuez, orduan berean alhatzen zaika bere konzientzia; halako suertez, ezen ezpaita posible bekhatutan dagoenak, hala dagoeno, atsegindasun osorik ahal dukeien.

- Halakoak, perilik eztuenean ere, uste du peril duela. Eta hala, ikhusiko duzu anhitzetan ere, ohoinak edo gizon hilzaileak sentitzen duenean justizia, berehala bera bere buruz, nehor orhoitzen ezteela, bere konzientziak akhusaturik, ihesi itzalgaizka abiatzen dela; eta handik nabarbendurik, gaizki ere heltzen dela.

- 35** Gaixtoak uste du ezen hartzaz orhoitzen ezturenean ere, hartzaz mintzo direla. Gaixtoa bethi da gibel beldurti eta goganbehartsu.

Gau ilhunean bakharrrik dohana deusen perilik ez izanagatik ere, latz da, beldur da, izi eta ikhara da. Hala da, bada, gaixtoa ere, deusen perilik ez izanagatik ere, bere konzientziak akhusaturik latz, izi, ikhara eta beldur.

Urdeak, bertze abrek egiten ez tutenena, oraino minik hartu gabe, ukitzeaz beraz egiten du marraska. Zeren nola ezpaitu deus ere on <433> den gauzarik, bere urdaia baizen, ez ilerik, ez lumarik, ez larrurik, eta ez bertze gauzarik, bere izanez eta naturaz da beldur, hartzen dutenean, biziaren edekitzeko hartzen duten. Hala bada, konzientzia gaixtoa duena ere, lehenbiziko aldi gaitzean, den buruko minik ttipienez, da beldur hil dadin, bizia edeki diazoten. Zeren ezpaitu deus ere deus balio duen gauzarik, bere bizia baizen, eta hura galduz gero, penatu behar baitu. 5

§ 6

282 Erraiten du Job gizon saindu hark: *Sonitus terroris semper in auribus eius; et cum pax sit, ille insidias suspicatur* (Job. 15). Gaixtoari bethi dagoka bere beharrietan beldurtasunaren soinua, konzientziaren latztasuna eta asaldua; eta bakean denean ere, uste du gerlan dela, eta orduan ere atrapatu nahiz zelatan dagotzala. Haur da, are mundu hunetan ere, bertze mundukoaz gainera, gaixtoaren gaztigua: beldurtasuna, segurantzarik gabe izi ibiltzea. Gaztigu hunetzaz mehatxatu zituen gure Jainkoak bere manamenduen hautsaileak, erraiten zerauela: *Quod si non audieritis me, nec feceritis omnia mandata mea, fugietis nemine persequente* (Levit. 26). «Baldin enzuten ezpanauzue, eta ene <434> manamendu guztiak konplitzen ezpaitutzue, jakizue ezen, nehoren peril gabe eta nehor jarraiki gabe, emanen diozuela ihesari eta ikhara handi bat eginen zaitzuela». Hala egin zeikan ikhara handia Kaini bere anaia Abel hil zuenean. Abiatu zen Kain mundutik ihesi, erraiten zuela: *Omnis, igitur, qui invenerit me, occidet me* (Genes. 4). «Egin du eneak, ezta eskapatzerik, ediren nazan guztiak hilen nau». Zer diozu, Kain? Noren zara beldur? Nork hilen zaitu? Ez Adanek, ez Ebak. Zeren horiek zure aita-amak dira, eta oraino ezta munduan bertzerik. Noren zara, bada, beldur? Ez nehoren bertzeren: zeure buruaren, zeure konzientziaren. Zeren konzientzia bera, bertze etsairik gabe, da asko, beldurtasun handiarekin erabiltzeko. 10 15 20 25

283 Adanek bekhatu egin zuenean, eta sentitu Jainkoak deitu nahi zuela, ihes egin zuen, gorde zen. Eta zergatik gorde zen? Othe ziakien zer nahi zioen Jainkoak? Bai, baziakien (dio San Agustinek). Eta nondik ziakien? Bere konzientziak erranik. *Neque alium obiurgatorem habebat et testem peccatorum* (August. Hom. 17 in cap. 3 Gen., t. 1). Etzuen bertze lekhukorik, eta ez akhusatzailerik, bere konzientzia baizen; baina hura zuen asko. Eta halatan, berak bere buruz, bere falta ezaguturik eta hobendun zela nabarbendurik, estalgunea bilhatu zuen. Hargatik erraiten du San Isidorok: *Nunquam <435> securus est reus animus; mens, enim, malae conscientiae, propriis agitatur stimulis* (Isidor. lib. 2 Seliloq.). Presuna hobenduria, faltatsua, ezta behin ere segur, zeren bere konzientziaren ezproinak bethiere kolpeka hari baitzaitza. Pontu hunen gainean erraiten du San Ambrosiok: *Domini, autem, traditorem non invenio a iudice esse damnatum. Non, enim, damnat eum Pilatus, non damnat populus, sed, quod gravius est, seipsum condemnat* (Ambros. serm. 2 in Daniel, t. 2). «Eztut edireiten ezen Judas, Jaunaren saltzailea, nehork kondenatu zuela, ez 30 35 40

Pilatusek, ez herriak, eta ez bertzek; baina, gaixtoago baita, edireiten dut berak bere burua kondenatu zuela». Zeren sententzia guztien gaineko sententzia, guztiak xitzen eta iragaiten dituen, batbederak bere buruari, bere konzientziak benzaturik, emaiten dioena da.

- 5 **284** Eta hunetan da ageri ezteela antsia, nehork bertzek ez jakinagatik ere zure falta eta bekhatua, baldin zerorrek badakizu: konzientzia bera da lekhukorik asko. Ezta harentzat golghorik, zokhorik, eta ez estalgunerik. Zeren Senekak dioen bezala: *Quid prodest recondere se et oculos hominum auresque vitare? Bona conscientia turbam advocat; mala, autem, in solitudine anxia est atque sollicita. Si honesta sunt quae facis, omnes sciant; si, autem, turpia, quid prodest neminem scire cum tu scias?* (Senec. *Epis.* 43). Zer probetxu da gordetzea, eta jenden begietarik eta <436> beharrietarik ihes egitea? Konzientzia onak agerrian eta jendartean ibili nahi du, fida da han ere. Baina gaixtoak ezte nehon ere segurantzarik edireiten, ez etxean, ez kanpoan, ez bakharrik dagoenean, eta ez are konpainiatan denean ere. Zure obrak
- 10 onak eta prestuak badira, jakin bitzate guztiek, baina baldin gaixtoak, desohorezkoak eta desohoragarriak badira, zer probetxu da bertzek ez jakitea, baldin zerorrek badakizkitzu? Zerori zara, zure konzientzia da lekhukorik segurena: bertze guztiek faltatuagatik hark eztezake falta, hark on edukiko du, hark akhusakuto du.

Hargatik erraiten du halaber Senekak: *Nullum conscium peccatorum tuorum magis timueris, quam te ipsum; alium, enim, potest effugere; te, autem, nunquam; nequitia, enim, ipsa est sui poena* (Senec. li. *De moribus*). «Etzarela zure bekhatuak dakizkitenen, baten ere hain beldur, nola zeure buruaren; zeren bertzetarik badaidikezu ihes, eskapa zaitezke, baina ez zeureganik. Zeren bekhatua bera da bere buruaren zat pena eta gatzigu».

- 25 Job gizon saindu hari gerthatu zeitzan kalte, galtze eta fortuna gaixto guztietan, eskapatzen zen bethiere bat, abisatzeko eta berriaren ekhartzeko: *Ego evasi solus, ut nuntiarem tibi* (*Iob.* 1). Hala eskapatzen da, bada, bekhatorea baithan ere konzientzia, eta konzientziaren <437> mandataria eta eranzutea, berri ekhartzeko, abisatzeko eta erraiteko zenbat kalte ethorri zaikan eta zenbat ontasun galdu duen bekhatuaren egiteaz.
- 30

§ 7

- 285** Konzientziak anhitz ofizio du, bera da alkhate, bera da lekhuko, bera da akhusatzaile eta defendatzaile. Eta hain da fin eta egia, ezen berak mila lekhuko balio baititu. *Conscientia mille testes* (Quintilia.). Hain da artez, justu eta leial, non
- 35 mundu guztiak ezpaitezake irabaz, ez korronpi, eta ez bertze aldera itzul. Ezta dirurik eta faborerik; ezta lausengurik, eta ez mehatxurik; ezta arartekorik, eta ez adiskiderik, konzientzia bere egiatik makhur dezakeienik. Pontu hunen gainean bethi bezala ederki erraiten du San Krisostomo urrezko mihi hark: *Externi iudices, et*

244-2 *xitu*: gainditu, marka hautsi.

pecuniis corrumpuntur, et assentionibus deliniuntur et metu simulant. At conscientiae tribunal nulli hominum novit cedere; sed, quamvis dederis pecunias, quamvis mineris, quamvis aliud quodvis feceris, iustam ferret sententiam adversus peccatoris cogitationes, adeo, ut ipse quoque qui peccatum admisit, seipsum condemnet, quamvis nullus alius condemnet (Chrysost. concio. 4 *De Lazaro*). Munduko gortheak, audientziak <438> eta justiziak nahasten dira, lekhukoek ukhatzen dute, notaria irabazten da, alkatea diruz itsutzen da, lausenguz eta faborez gobernatzen da; eta handik, anhitzetan ere, barrenean zarela uste duzunean, kanpoan edireiten zara, irabazi ustea galtzen duzu. Baina konzientziaren gorthean eta audientzian ezta halako bidegaberik egiten. Aitzitik, bertze guztiek faltatuagatik, kulpantak berak, konzientziak berak akhusatzen du bere burua, eta bai kondenatzen ere. 5 10

Kanpoan egin ahal ditezke egiares kontrako enseiua eta frogantza falsoak; falta duenak ere ukha ahal dezake, eta erran eztuela faltarik, baina hargatik, barren hartan, bethiere konzientzia bere egian egonen da. Mintzo direnek ahal daidikete huts, baina ez konzientziak: hari galdegiozu, harekin mintza zaitezi, eta hark nor zaren erranen deratzu; han, mirailean bezala, zeure burua ikhusiko duzu. 15

286 Egiteko batek hartzen zaituenean, han da berehala konzientzia, eta egundaino egin dituzun falta guztiez orhoitzen zaitu, guztiak gogora ekhartzen derauzkitzu. Eta are erraiten deratzu, zenbait zeure bekhatugatik, hunelako eta halakogatik, hek guztiak ethorri zaitzkitzula. Hala Josephen anaiek Egiptora zirenean eta han egitekotan jarri <439> zirenean, bere bekhatuaz, hogoi urthe zuela egin zutenaz orhoiturik, erran zioten elkarri: *Merito haec patimur, quia peccavimus in fratrem nostrum, videntes angustias animae illius dum deprecaretur nos, et non audivimus; idcirco venit super nos ista tribulatio* (*Genes. 42*). «Mereziturik ditugu egiteko hau guztiok, justu da gehiago ere paira dezagun, zeren bekhatu handia eginik, geure anaia salduriak baikaude. Gogorki usatu genduen haren alderakotzat, anhitz othoitze eder egin zerakun, anhitz nigar purpuila isuri zuen, asko baitziratekeien den bihotzik gogorrenaren ere hautsteke eta beratzeko; baina gureak etziren kantitu ere, etzeikun urrikaldu, ezkenduen entzun. Hargatik gabiltza bada orai gerok ere asaldatuak, akhusatuak eta atsekabeztatuak». 20 25 30

Hunela erraiten zioten elkarri, hunela akhusatzen zituen bere konzientziak. Eta guztiz ere Ruben bere anaietarik batek egiten zerauen eranzute handi, erraiten zerauela: *Nunquid non dixi vobis, «nolite peccare in puerum», et non audistis me? En sanguis eius exquiritur*. «Ez neratzuen nik orduan ere erran, begira zendutela, etzenegitela halako bekhatuak anaia haurraren kontra? Etzenegitela sal? Baina ez nenduzuen enzun nahi izatu; huna non duzuen, bada, zuek ere orai zeuen merezia, 35

245-18 *gogora ekharri*: «oroitarazi. Axularrek *gogo* hitzaz egiten duen enplegua, hitzaren adierak, maiztasuna, eremu zabala, *gogo*-tik sortzen diren itzulirik eta deribatutak aztertuz, lan guztiz ona egin du Aita Angel Goenagak («*Gogo* en Axular», *FLV* 1973: 185-244)» (Villasanteren oh.).

245-27 *anhitz nigar purpuila*: «anhitz malko. Ikus Mitxelena (1974: 117)» (Villasanteren oh.).

zeuen ordain <440> pagua. Bekhatu hura dela kausa, haren kariaz zarete, eta gara, egitekotan, hura heldu zaiku geure gainera».

- Okhasinoa presentatu zen bezain fite, jaiki zeien bere konzientzia, etzuen faltatu, akhusatu zituen. Eta are San Krisostomok dioen bezala: *Ipsorum conscientia per oblatam occasionem insurrexit, momorditque illorum animos, efficiens, ut, nemine compellente, confiterentur sua facinora* (Chrysost. conc. 4 *De Lazaro*).
- 5 «Nehork ere bortxatu gabe, berek bere borondatez agertu zuten eta aithortu hanbat denboraz estalirik eduki zuten gaixakeria». Haur da konzientziaren kargua eta ofizioa, bertzen ahantz orduetan orhoitzen du, denboraren buruan penatzen du, min eta oinhaze emaiten du. Eta lehiatzen zaiku, lehen baino lehen, geroko luzamendutan
- 10 ibili gabe, bide on batean jar gaitezila. Eta are erraiten deraku ezkaituela anarteraino sosegatzera utziko, eta hala, ezkaitu utzten ere. Beraz, hunelatan, konzientziak berak egiten derauzkigun eranzuteakgatik, eta etxean barrena bekhatuaren kherik, ithazurik eta liskarrik ez izaitteagatik ere, behar dugu egun beretik, geroko begira egon
- 15 gabe, geure konzientziatik, zer ere notha, falta eta narrio baitugu, khentzera enseiatu; eta halatan, bakean eta soseguan egon, jarri eta pausatu.

<439bis>

Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean galtzen dugun konzientzia onaren bakea eta sosegua

KAP. XLVI

287 Gauza segura da, klara eta esperientziaz ere frogatua, konzientzia gaixtoaren autsikiak autsiki minak, liskarrak liskar garratzak, eta kolpeak ere kolpe bortitzak direla: eta halako konzientzia duenak, hala dueino, plazentzia osorik eztukeiela. 5

Baina gauza klara eta frogatua da, halaber, konzientzia onaren bakea eta sosegua, gauza gogoia eta plazentzia dela; eta, nola mundu hunetako ifernua baita konzientzia gaixtoa, hala dela, halaber, mundu hunetako parabisua konzientzia ona. 10

Ad spirituale gaudium, hodierna die, fratres charissimi, intendo vos invitare; quod, quidem, gaudium non operatur divitiarum copia, non fallax mundi gloria, non prolis faecunditas, non corporis sanitas, sed tantum conscientiae puritas (August. *Ad frat. in eremo*, serm. 10, t. 10). «Plazer espiritualera, arimako alegriantzara konbidatu nahi zaituztet egungo egunean, neure anaia maiteak», dio San Agustinek. Eta <440bis> alegriantza haur eztu, ez, egiten, eta ez emaiten aberatstasunak, ez munduko ohoreak, ez seme-alabadun izaiteak, eta ez gorputzeko osasunak ere. Zerk egiten du, bada? Konzientziaren garbitasunak, bekhatu-rik gabe egoiteak. Hark ekhartzen du egiazko alegriantza, hark oinhaze guztietarik sendatzen du arima, eta hark kanporat ere atheratzen du barren hartako harra eta tristura. Zeren San Ambrosiok dioen bezala, *Sicut in opere malo est tristitia, ita et in emendatione gaudium* (Ambros., cap. 2 in epist. 2 *Ad Rom.*, t. 3), nola obra gaixtoan edireiten baita tristura eta malenkonioa, hala onean, onera emanean eta emendatzean edireiten da alegriantza eta bozkarioa. *Vis nunquam esse tristis? Bene vive; segura mens tristitiam leviter sustinet; bona vita gaudium semper habet* (Isidor. *lib. 1 Seliloq.*). Nahi duzu ez behin ere izan triste? Zeren prestu, euzu konzientzia ona, konzientzia onak arintki jasaiten du, deus guti sentitzen du kanpotik heldu zaikan tristura; bizitze onak bethi du berekin arraitasuna, irri nahia eta plazentzia. 15
20
25

- Hargatik erraiten zuen Jondone Paulok, etzebilala behin ere triste; triste bezala bai, baina bethi alegera. *Quasi tristes, semper autem gaudentes* (2 Cor. 6). Jondone Paulok anhitz trabailu eta atsekabe izaiten zuen, zeinek tristetzeko okhasino emaiten baitzioten, baina hek guztiak, konzientzia onaren alegriantzak eta arraitasunak, 5 <441> iguzkiak lanhoa bezala, haizatzen eta barriatzen zerautzan.

§ 1

288 Gaixtoak gezurrez dira alegera, eta egiaz triste; eta onak bertze aldera: egiaz alegera, eta gezurrez triste. Propioki eta egiaz minzatzera, onek dute alegriantzaren izena eta izana, eta gaixtoek izena, eta ez izana.

10 Zure atsegin eta plazer guztien mintzeko eta gozogaitzteko, asko da konzientzia gaixtoa, eta bai atsekaben eta desplazereren gozatzeko eta zaphoratzeko ere konzientzia ona. *Namque, si ibi vulnus non sit, sanumque sit illud, quod conscientia vocatur, ubicumque alibi passus fuerit tribulationes, illuc confugiet et ibi inveniet Deum*, dio San Agustinek (August. in *Psalm.* 45). Gizonak tristetua, atsekabeztatua 15 eta egitekoz bethea dabilanean, baldin bere barren hartan zauririk ezpadu, bere konzientzia sendo badu, hara laster egiten du, han Jainkoa edireiten du, eta han harekin batean bere burua konsolatzen du.

Zurginak zura lantzen eta aphaintzen duenean, aurkituagatik gainaldea, azalari datxekana, arrazatua eta pipizatua, eztu hargatik <442> antsiarik, baldin bihotza, 20 barrenaldea, on eta fin edireiten badio. Gizonaren azala eta gainaldea gorputza da, barrena eta mamia da konzientzia; eta hura on bada, ezta gainerakoaz antsiarik, eta ez zer kontu eginik, zeren barren hura baita prinzipala.

Hunen arauaz erraiten du San Anbrosiok: *Et ideo, non secundum forensem abundantiam aestimandam esse beatitudinem singulorum, sed secundum interiorem conscientiam* (Ambros., *lib 1 Officio.*, cap. 15, tom. 3). Ezta, ez, erran behar 25 nehor dela bere gogora, kanpoko bere gogarakgatik, aberatstasunakgatik, jan-edanakgatik, eta ez bertze frankiakgatik. Baina orduan erran behar da batbedera dela ongi eta bere gogara, eta atseginak eta plazerak ere direla osoak eta konplituak, noiz eta barrenaldea, konzientzia baita ongi, sendo, garbi eta narrio gabe. *Non contristabit iustum quicquid ei acciderit; impii, autem, implebuntur iniquitate*, dio Spiritu 30 Sainduak (*Prover.* 12). Zer nahi den gertha dakiola, eztezake deusek ere justua trista, baina gaixtoak betheko dira gaixtakeriaz eta egitekoz. Hunen arauaz erraiten du Elizak ere: *Nulla nocebit ei adversitas, si nulla dominetur ei iniquitas*. Eztio bat ere gertha dakion egitekok kalterik eginen, batere bekhatuak eztenari.

35 **289** Zeure bekhatuek eta apheetitu desordenatuek egiten deratzute gerla eta kalte, hek tristetzen <443> zaituzte. Kheintzatzu hek, eta izanen zara alegera, kheinzatzu hek, eta biziko zara bakez eta zeure gogara. Hala erraiten du errege Dabitek: *Pax*

248-9 «Kasu izen eta izan hitzekin egiten duen jokoari. Hitz joko berbera 3. zatian ere» (Villasanteren oh.).

248-34 egitekok: «Kasu mugagabeari» (Villasanteren oh.).

multa diligentibus legem tuam (Psalm. 118). Bake handia du konzientzia onak, Jainkoaren lege sailduari darraikanak. Eta badio San Ambrosiok ere: *Quid est iuste vivere, nisi cum tranquillitate vivere?* (Ambros. lib. 10, ep. 82, t. 2). «Zer da justuki bizitzea, bakean eta soseguan bizitzea baizen?». Erran nahi du konzientzia onaren izaitea, eta bakean eta soseguan egoitea, guztia dela bat. Zeren justuak kanpoan gerlak eta egitekoak izanagatik, barrenean bethi du bakea; berekin du halakoak, mundu hunetan erdiets ahal ditekeien loria eta plazentzia. Halakoak eztu antsiarik munduko erran-merranagatik. Falso testimonio bat, kontrario bat erazuten diotenean, eta batek eta bertzeak ahotan gaixtoki darabilatela ikhusten duenean, laster egiten du bere konzientziara; eta, nola ezpaitu han, dioten faltarik edireiten, hartaz konsolatzen da, hartaz esporzatzen eta berotzen da. 5 10

290 Arrazoinekin erraiten du San Ambrosiok: *Bene sibi conscius, falsis non debet moveri, nec aestimare plus ponderis esse in alieno convitio, quam in suo testimonio* (Ambros. lib. 1 *Officio.*, cap. 5, t. 5). Faltarik eztuela dakien presunak, eztu bertzeren gaizki erraiteaz kasurik egin behar, eta ez pensatu ere, bertzeren <444> gezurrak indar gehiago duela, beraren egiak baino. Hunen arauaz erraiten du San Gregoriok ere: *In omne quod agimus, vel extra de nobis agitur, recurrere ad mentis arcana debemus. Et si omnes vituperent, liber tamen est, quem conscientia non accusat. Quia si omnes laudent, liber esse non potest, si hunc conscientia accusat* (Greg. *Ep.* 2, t. 7). Egiten ditugun gauza guztietan, edo gutzaz egiten eta erraiten direnetan, konzientziaren barreneko sekeretura egin behar dugu laster, eta hartaz, haren lekhukotasunaz, hark barren hartan dioenaz egin kontu, eta ez jendearen erasteaz eta ongi edo gaizki mintzatzeaz. Zeren San Agustinek dioten bezala: *Nec malam conscientiam sanat praeconium laudantis, nec bonam vulnerat convitiantis opprobrium* (August. lib. 3 *Contra Petili. donatistae. Luter.*, t. 7). Konzientzia gaixtoa eta eria eztu ontzen, eta ez sendatzen, nehoren laudorioak, eta ez ona eta sendoa ere gaixtatzen, eta ez eritzen, gaizki erraiteak; hargatik, batbedera dena izanen da. <445> 15 20 25

§ 2

291 «Bai, ordea, damu hartzen dut jendek ene baithan eztenaren erraiteaz, eta bai batzutan denaren ere agertzeaz eta banatzeaz». Sinhesten dut damu hartzen duzula; baina pazientzia behar duzu. Zeren bertzeren mihiak ezin eduki ditzaketzu, hek eztaude zure eskuan. Utzkitzu hek, gaixtoak baitira, eta jende onen eta prestuen erranaz, eta zeure konzientziatz egizu kontu. Zeren San Bernardok dioten bezala: *Omnino sufficit adversus os loquentium iniqua, opinio bonorum cum testimonio conscientiae* (Bernard. *Super Cantica*). Asko da mihi gaixtoen kontrako, jende onen alderakotzat fama onean egoitea, konzientzia onaren lekhukotasunarekin. 30 35

Deusek ere eztu hala sendatzen, eta ez arintzen, jende gaixtoek gutzaz gaizki erraiten dutela enzuteaz hartzen dugun damua, nola egiten baitu ikhusteak eta jakiteak eztugula hobenik; eta jende prestuek eta ohoratuek ere, eztutela uste, eta ez sinhesten gutzaz halakorik. 40

Baldin jende prestuek erraiten badute zutzaz ongi, eta konzientziak ez akhusa-
tzen, egizu loa laxo, eztuzula antsiarik xarrek edo galduiek gaizki erranagatik. Ai-
tzitik, <446> atsegin hartzeko duzu, zeren hartan da ageri etzarella hek bezala. Egia
5 haur erdietsi zuen ongi Antistenes filosofoak. Zeren hark enzun zuenean ezen jende
gaixto batzuk haren laudorioz zeudezila, erran zuen tristura handi batekin: «Ha,
Jainkoak, zer egin othe dut nik? Zertan faltatu othe dut? Beldur naiz zerbaitetan huts
egin dudan, eta lehendanik gaixtatu naizen. Zeren jende gaixto batzuek, lehen nitzaz
gaizki erraiten zutenek, erraiten omen dute orai ongi. Zein baita seinale gaixtoa.
Zeren halakoek ez ohi dute erraiten ongirik, gaixtoez eta gaixtakeriez baizen»
10 (Laert. lib. 6, cap. 2).

292 Hunela mintzatu zen filosofo hura, gaixtoen kondizinoa ezaguturik. Beude,
beraz, hek, diren bezalakorik, ez hetarat bururik itzul, ez hei beha, ez hetzaz kontu-
rik egin. Zeure konzientziarekin edukazu, harekin konseila eta konsola zaitezi. Hala
egiten zuen Jondone Paulok, erraiten zuenean: *Gloria nostra haec est, testimonium*
15 *conscientiae nostrae* (2 Cor. 1). «Haur da mundu hunetako gure loria eta parabisua,
konzientziaren akhusamendurik gabe egoitea, barren hartan faltarik ez edireitea».

Erran bailu bezala: Batzuen loria eta kontentamendua da aberats izaitea, errenta
handien erdieste, handiekin segitzea, <447> jokoan, jan-edanean, emaztetan eta
munduko bertze plazeretan denboraren iragaitea, baina ez gurea (dio Jondone
20 Paulok). Guk eztugu hautzaz konturik egiten, barrenekoaz, konzientziakoaz
kontentatzen gara. Hunen arauaz erraiten du San Anbrosiok ere: *Propositum piae*
mentis mercedem non expetit; sed pro mercede habet boni facti conscientiam et
iusti operis effectum (Ambros. lib 2 *De Abraham*, c. 2, tom. 3). Konzientzia ona, bere
ongi eginaz, bere baithan barrena edireiten duen pagamenduaz kontentatzen da, hura
25 daritza asko, eztu bertzerik bilhatzen eta ez desiratzen. Zeren San Anbrosio berak
dioen bezala: *Quis, enim, puritate et simplicitate pectoris dulcior fructus? Quis*
cibus suavior quam is, quem animus bene sibi conscius et mens innocentis epula-
tur? (Ambros. in *Psal.* 35, tom. 2). Zer fruitu da konzientzia onaren garbitasuna eta
sinpletasuna baino eztiagorik? Zer janhari, deusetan eztuela faltarik dakienak jaten
30 duena baino gozoagorik? *Nihil simplici corde felicius: quia qui innocentiam erga*
alios exhibet, nihil est quod pati ab aliis formidet; habet enim quasi arcem firmis-
simam, simplicitatem suam; nec suspectus est pati quod se fecisse non meminit
(Grego. lib. 2 *Moral.*, cap. 2). «Ezta konzientzia sinplea, plauna eta maliziagabea
baino gauza dohatsuagorik», dio San Gregoriok. Malizia gabe, sinpleki, gogoan gai-
35 tzik eztadukala dabilana, ezta deusen beldur. Iduritzen zaika halakoari ezen bere
sinpletasuna eta intenzione ona duela gaztelurik <448> eta dorrerik asko; eta berak
bertzeri egiten eztioena, eztiagaiola berari ere bertzek egin. *At contra, mens prava*
semper est in laboribus, quia, aut molitur mala quae inferat, aut metuit ne haec sibi
40 *ab aliis inferantur* (Gregor. ubi supra). Konzientzia gaixtoa, maliziatia eta fede gaix-
toz dabilana, bethi da nekez eta trabailuz, bethi da goganbehartsu, idurikor, gibel

250-24/25 hura daritza asko: «aquello le parece bastante, le basta. Asko eritzi: bastar» (Villasanteren oh.).

beldurti eta sosegu gabe, zeren nola bera baita gaixto, uste du ezen bertzeak ere hala direla; nola bera hari baita gaixtakeria pensatzen eta egiten, beldur da berari ere hainbertze dagioten, moneda berean paga dezaten.

§ 3

293 Galdegin zeraukaten egun batez Bias filosofoari ea othe zenz munduan deus, 5
deusen beldur etzenik. Eta ihardetsi zuen baietz, eta hura zela konzientzia ona.
Konzientzia onak eztu deusen beldurrik, eta ez bere baithan ikhararik. Halatan galde-
gin zerauen gure Salbatzaileak ere bere etsaiei, skriba fariseoei, deusen beldur gabe,
ausartzia handi batekin: *Quis ex vobis arguet me de peccato?* (Ioan. 8). «Zeinek zue-
tarik eginen deraut niri bekhatuz eranzute? Nork edirenen du ene baithan faltarik? 10
Nork erranen <449> du nik badudala bekhaturik? Galdez nagotzue. Deus badakizue,
errazue». —Zer diozu, Jaungoikoa? Zer hari zara? Nolatan egiten derauezu galde hori
zeure etsaiei? Zutzaz gaizki erraiteko okhasino bilha dabiltzanei? Nola etzara beldur
ahalkegabe dakizkitzun, eta eztena badela erran diazazuten? —Nola ez naizen beldur? 15
Ezpaitut deusetan ere faltarik. Konzientzia baitut ona eta garbia. Hark esportzatzen,
berotzen eta segurantza segur batekin deusen beldur gabe ibentzen nau. Nahi duzu
egon deusen beldur gabe? Zaren prestu, euzu konzientzia ona. Zaren konzientzia ona-
rekin, ez etsairen, ez igortziriren, ez ozprinaren, ez uren, ez suren, ez inkontruren, ez
fortunaren, eta ez munduan den bertze perilen ere, etzara beldur izanen.

Konzientzia gaixtoak, perilik eztuenean ere, uste du peril duela; baina onak, 20
peril duenean ere, bere burua segur daduka, esportzu du, esperantza du orduan ere:
bertze guztiek etsituagatik, eztu berak etsitzen. Susana, Lege Zaharreko emazte
prestu hura, bere senharraz bertzerekin izan zela falsoki akhusaturik harriz joka-
tzera zeramatenean, galdutzat zedukan mundu guztiak. Ordea, berak esperantza
handia zuen Jainkoa baithan. *Erat cor eius fiduciam habens in Domino* (Daniel. 3). 25
Zeren nola ezpaitzuen hobenik, bere hobengabeak, bere konzientziak <450> bero-
tzen, konsolatzen eta esperantzaten zuen. Eta hala, mirakuiluzki falseria agerturik,
eskapatu zen. *Si cor nostrum non reprehenderit nos, fiduciam habemus ad
Dominum* (1 Ioan. 3), dio Jondone Joanes ebanjelistak. Baldin geure konzientziak
akhusatzen ezpagaitsu, esperantza dugu eta fidantzia Jainkoa baithan. 30

294 Eta handik Jondone Paulok ere Timoteo bere diszipuluari eskiribatu zioen 35
kartan, ibeni zuen esperantzaren lekhuon konzientzia ona. Aditzera emaitagatik,
konzientzia onaren izaitea eta esperantza ere izaitea, guztia dela bat. *Ille emin spe-
rat, qui habet bonam conscientiam* (August. in *Psal.* 31). Zeren konzientzia ona
duenak, du esperantza ere.

251-9/11 «*Zein* eta *nor*-en artean den aldea ikusteko, pasarte egokia. *Nor* da latinezko *quis* bezala
(¿*quién?*). *Zein*-ek, berriz, badu beti agerian edo izkutuan, hauta batekin zer-ikus: hu-
nen eta horren artean, *zein?*» (Villasanteren oh.).

251-18/19 *ez etsairen...*: «zazpi hitz, bata bestearen ondoan, mugagabez» (Villasanteren oh.).

5 Eta nola? Konzientzia gaixtoa duenak ez othe du esperantzarik? Bai, badu esperantza; ez, ordea, esperantza egiazkoa, ez esperantza bizia eta fina. Esperantza banoa, alferra eta hila du halakoak. Zeren, nola baitira bi fede molde, bata bizia eta bertzea hila, hala dira, halaber, bi esperantza. Bekhatutan dagoenaren esperantza, fauna, hila eta probetxu gutitakoa da.

10 Konzientzia gaixtoak hotzten, eztheusten eta ulitzen du gogoa; baina onak berotzen, balentzen, esportzatzen, ausartzen eta esperantzaten. Gizon bati zeure mendeko guztian etsaigoa eduki diozunean, eta gerthatu zaitzan okhasino guztietan, ahal dagizun gaizki eta kontra guztia egin diozunean, <451> zer esperantza ahal dukezu gero haren baithan, haren behartzen eta meneratzen zarenean? Arrazoinenez ez anhitz. Eta nehork erranagatik ere eztela hargatik antsia, gizon ona dela, gomenda zakitzala, behar dezazula, eta zuk hari gaizki eginagatik, hark hartara guti behaturik, eginen deratzula zuri ongi, eztuzu sinhesten. Zeren zeure konzientziak gibelatzen baitzaitu, hark gogoa hotzten eta hiltzen baiteratzu. Baina bertze gizon bati bethiere amorio eduki diozunean, eta okhasino guztietan haren alde eta fabore erakutsi zarenean, baduzu esperantza, zerorri ere hura, haren behartzen zarenean, helduko eta lagunduko zaitzula. Eta nehork erranagatik ere ezetz, etzaitzula lagunduko, eztuzu sinhesten. Zeren harengana dadukazun amorioak eta egin derautzatzen zerbitzuek emaiten baiteratzute esportzu eta esperantza. Bada, haur gerthatzen zaika konzientziari ere Jainkoarekin. Konzientzia onak esportzu du, esperantza handi du, baina gaixtoak guti edo ez bat ere. Eta ezta miretsteko ez izaitea ere, behintzat esperantza finik eta deus balio duenik. Zeren ezpaitu berak ere aitzinetik Jainkoaren alderakotzat hala obratu, eta ez erakutsi.

15 <452>

§ 4

25 **295** Giristino giristino denak, batean ezpada bertzean, noizik behin bedere, autemaiten du bere konzientzia, bisitatzen du bere arima. Eta bekhatutan dagoenean, iduritzen zaika ilhunbean dagoela, eta koropilo bat edo zama pisu bat barren hartan baduela. Baina bekhatu gabe denean, arrai, klar eta libre edireiten du bere burua.

30 Ongi kofesaturik etxerat bihurtzen zarenean, iduritzen zaitzu karga sortha bat, zama pisu bat gainetik utzi duzula, arindu, konsolatu eta alegeratu zarela. Eta arrazoinekin iduritzen zaitzu hala. Zeren, zer da munduan konsolamendu handiagorik, eta bihotz esportza eta ailtxagarriagorik, ikhustea baino eztuela deusen ere perilik, eztuela kofesa beharrik, eta ez bere konzientzian harrik?

252-30 *karga sortha*: «Bi sinonimo elkarren ondoan. Maiz egiten ditu Axularrek hunelako bilketak. Hala, esate baterako, *soineko arropetan*, *soineko arropetz* (270)» (Villasanteren oh.). *OEH*-k izenondotzat hartu du (s.v. 1 *sorta* 1), *pisua*-k bezalaxe ‘zama’ ez ezik ‘astuna’ ere bai baita. *Soineko arropa* ere, ez dirudi zehazki sinonimo bilduma denik (cf. *OEH*, *soineko arropa*, *soineko barruan*, s.v. *soin*, 793. or.).

252-33 *bihotz esportza eta ailtxagarriagorik*: «...no es sino el compendio o la abreviación (tipo

Halakoak eztu antsiarik, eta eztu izaiteko ere, berehala, laburzki, gehiago kofe-satu gabe hilagatik ere. Zeren prestatua baitago, segur baitago, bekhatu mortalik gabe baitago. Aise da, alegera da, bake handian da halakoa.

Zer ahal dateke, bada, munduan halako ontasunik edo parabisurik, nola baita konzientzia ona, esperantza handiz bethea, beldurtasun gabea eta egiazko alegrian-tzaren jabea? 5

<453> Bertze munduko parabisuaz, zeruko loriaz kontu guti egitea, itsutasun handia da, eta batere federik dutenen artean gauza miretstekoa. Baina, aldez are itsutasun handiagoa eta gauza miretsteoagoa da mundu hunetako parabisuaz, zein baita konzientzia ona, hain kontu guti egitea. Zeren bertze munduko parabisua eztugu oraino ikhusten bedere, eta ez gozatzen. Baina mundu hunetakoa, konzientzia onaren bakea eta sosegua, noizik behin, bekhatu gabe gaudenean bedere, ikhusten, dastatzen eta frogatzen dugu. Eta, guztiarekin ere, ontasun haur ere, bertzerik anhitz bezala, galtzera utzten dugu. 10

Bada berthuteak, prestuki bizitzeak, bertze pagamendurik eta golardoarik ezpalu ere, konzientzia onaren bakea eta sosegua baizen ere, hargatik beragatik ere behar genduke, lehen baino lehen, gerotik gerora ibili gabe, egunetik biharrera luzatu gabe, orai bereon, konzientzia onaren, ontasun handi hunen erdiestera enseiatu eta lehiatu. Hunelatan gutarik batbederari erran ahal lekidikeion bezala: *Si dormieris, non timebis, quiesces, et suavis erit somnus tuus (Prov. 3)*. «Lo zauntzanean, etzara beldur izanen, pausatuko duzu, eta lo gozoa eginen duzu». 15 20

larga y cuidadosamente) de dos compuestos unidos por *eta*: *bihotz-esportagarri*, atestiguado como *bihotz ezportça garri* en la p. 240, de una parte, y *bihotz-ailtxagarri*, de otra» (Mitxelena 1974: 111).



<454>

Nola oraidanik behar dugun, geroko begira egon gabe, ontasunean irautera eta perseberatzera enseiatu

KAP. XLVII

296 Behin ere makhurtu gabe, saihetserat ere aldaratu gabe, bide onari eta arhezari bethi ongi eta artez jarraitzea; berthutean, prestutasunean eta obra onetan fineraino eta finean, bethi fin eta finko egoitea eta irautea, deitzen da gehien herrietan eta hitzkuntzetan *perseberatzea*. 5

Eta perseberatze haur, berthutean eta ontasunean fineraino eta finean iraute haur, da Jainkoaren donua eta emaitza; Jainkoa beraganik baizen, bertzetarik ezin datekeiena. Hala erraiten du Konzilioak: *Munus perseverantiae aliunde haberi non potest, nisi ab Eo qui potens est eum qui stat statuere ut perseveranter stet, et eum qui cadit restituere* (Tridentin., sessic. 6, cap. 13). Eta arrazoina emaiten du San Tomasek: *Perseverantia indiget non solum dono habitualis gratiae, sed etiam gratuito Dei auxilio conservantis hominen usque ad finem vitae. Quia liberum arbitrium de se est flexibile* (S. Thom. 1 part., q. 137, art. 4). Nola gizonaren borondatea alde batera <455> eta bertzera itzultzeko baita libre, borondate libre hunek, kontrako aldera itzuli gabe eta harat erori gabe egoiteko, behar du Jainkoaren garaziarren eta faborearen habea eta sostengua, eta bai perseberantziaren indarra eta donua ere. Hala emaiten du aditzera San Agustinek: *Firmissime tenendum est, neminem, etiam baptismatis gratia renovatum, idoneum esse ad superandas diaboli insidias et ad vincendas carnis concupiscentias, nisi per quotidianum adiutorium Dei, perseverantiam boni conversationis acceperit* (August. lib. *De Eccles. dogmat.*, c. 25, tom. 3). Fintki eta duda gabe sinhesten dugu, eta sinhetsi behar da, eztela nehor ere asko sendo, eta ez botheretsu, deabruaren enganamenduen eta haragiaren gutzieren garaitzeko, egun guztiaz Jainkoa bera lagunduz, perseberantziaren donua errezibitzen duela baizen. 10 15 20 25

255-10 *konzilioak*: «Trentoko Konzilioaz mintzo da hemen Axular. 1545. urtean hasi eta 1563.ean bukatu zen, hutsarte batzuk tartean zituelarik» (Villasanteren oh.).

Etsaiak, mundua, deabrua eta haragia bortitz; naturaleza flako, borondatea onera eta gaixtora libre, bietara jokutzen, eta haragiaren arauaz gaixtora jokatzenago. Ezta, beraz, irauterik, eta ez fermo eta fintko egoiterik, Jainkoak berak edukitzen eta sostengatzen gaituela baizen.

<456>

5

§ 1

297 Bi perseberatze molde, bi iraute suerte erran ahal diteke edireiten direla gure artean. Bata da zenbait denboratakoa, zenbait denboraz ontasunean iraunez gero, eta bekhaturik egin gabe egonez gero, azken finean edo finera hurbiltzean faltatzen duena. Hura da lapitzaren gainean ereiten den hazia bezala: sortzen da ongi, baina nola ezpaitu errorik egiten, fite ihartzen da. Hala dira, bada, jende thailu batzuk ere: hasten dira ongi; ordea, eztira aitzinatzen, den traburik ttipienean behaztopa, kana-bera bezala malgu eta plega, kamaleona bezanbatetan mutha; finean firmetasunik ez, hoberenean falta.

Edireiten da *bipera* daritzan sierpe bat, gaixtoa eta pozointsua (Plin. *De natural. hist.*, lib. 8, cap. 39). Eta hartaz erraiten du Pliniok egotzen duela neguan bere pozoina eta lurrean barrena ehortzten duela; baina gero, udan pozoin berriarekin, are lehen baina gaixtoagoarekin agertzen dela. Hala dirudi, bada, egiten duela eritasunean, garizuman edo zenbait trabailutan eta egitekotan denean, bekhatutik apartatzen denak ere. Senda arteino, garizumaren edo trabailuaren negua iragan arteino, <457> pozoina utzten du. Baina gero, uda dathorreanean, senda dadinean, garizuma iragan denean, finean, bere gogara jar dadinean, berriz bere pozoina hartzen du, bere leheneko bekhatura bihurtzen da. Haur da bihurgune gaixtoa, denbora gutiz ontasunean irautea eta perseberatzea; eta, guztia ongi kontatzera, deus guti balio duena.

Bigarren iraute eta perseberatze moldea da azken finekoa: lehen zer izan baita ere, azken finean ontasunean, prestutasunean eta berthutean perseberatzea, irautea eta hartan akhabatzea.

San Agustinek eztu konturik egiten aitzineko perseberantziak eta irauteak, finera baina lehen, edo finean berean, fina finatu gabe finatzen denaz. *Potius habuit perseverantiam unius anni fidelis et quantum infra excogitari potest, si donec moreretur fideliter vixit, quam multorum annorum, si exiguum ante mortem a fidei stabilitate defecit* (Aug. *lib. 2 de domo pertea.*, c. 1, tom. 7). Azken urthean, heriotzeko aitzinean denbora aphur batez ongi bizitzen denak, eta gero hiltzen denean bekhaturik gabe gerthatzen denak, erran ahal diteke duela behar den perseberantzia eta firmetasuna, eta ez aitzinetik anhitz urthez ongi eta prestuki bizi izan denak, baldin hiltzerakoan edo hiltzen denean faltatzen badu.

256-14 *bipera*: sugedorria. «Axular lo emplea en lengua vasca, lo mismo que Leizarraga» (Mixelena 1974: 117). Lekukotasun gehiago daude gero (ik. *OEH*, s.v.).

298 <458> Aaron sazerdote handiaren beztidurak beheko bazterrean inguru zitu-
tuen mingrana pintatuak. Mingranak, bertze fruituek eztutena, badu koroa iduri bat.
Bada, koroa hura nahi zuen Jainkoak eman zekion sazerdotearen beztidurari, ez
hastean eta ez erdian, baina bazterrean, oinetan, akhabatzean. Zeren akhabatzeari
dagoka koroa, eta ez hasteari.

5

Galdegin zeraukaten egun batez Diogenes filosofo handi hari, ea zergatik hain
zahartuz gero etzuen pausatzen, etzen estudiantzetik eta irakurzetik gelditzen. Eta
ihardetsi zuen: Thema baten ganean, garaikarrean, laster egiten duenak, eztu xedera
eta marrara hurbildu hurran denean ezansiatu behar, eta ez baratu. Aitzitik, orduan
behar du permatuago eta enpleguago, hartaraz gero garaitia bertzek eraman ezti-
zon, eta anarterainoko trabailua ere gal eztezan. Hala bada, nik ere —dio Diogenek—
orai xedera, bizitzearen bazterrera eta adinaren finera hurbildu naizenean, eztat
gelditu behar, eta ez ezantsiatu.

10

Baina orai behar dut lasterrago abiatu, fintkiago permatu eta denbora hobekiago
enpleguago. Zeren bertzela, benturaz thema gal nezake, leheneko laster eginaz eta estu-
diatuaz ez nuke probetxurik. Haur da Jondone Paulok ere erraiten duena: *Sic currite*
<459> *ut comprehendatis* (1 *Corin.* 9). «Egizue laster, atrapa dezakezuen bezala».

15

Eta hunela, laster egite eta atrapatze haur, fineraino eta finean, azken pontuan
eta partitzean bekhatuak gabe gerthatze haur, erraiten du San Agustinek dela
Jainkoaren donua eta emaitza, Jainkoaren liberaltasuna; eta nori emanen zaikan eta
nori ez, Jainkoa beraganik baizen ezin jakin ditekeiena.

20

Beraz, beldur garela behar dugu bizi, behatuki ibili eta geure indarrean baino,
Jainkoaren faborean fidatzenago garela, humiltasun handi batekin othoiztetan jarri,
nahi gaituen sostengatu, erortzetik begiratu, eta bekhatuak gabe gauden batez bere-
gana deitu eta thiratu. Zeren ontasunean azken fineraino iraute haur, nehork ere bere
buruz ezin merezi dezakeien donua bada ere, ordea, guztiarekin ere, egin behar du
batbederak bere aldetik ahal dagiena, merezi ahal bailezake bezala. Zeren gure othoitz
guztien enzutera eta konplizera obligatzen ezpada ere Jainkoa, ordea, gainerakoan
prestik dago ahala egiten duenari heltzeko, jabetzeko eta eskuaren emaiteko.

25

299 Hala emaiten du aditzera errege Dabitek: *Prope est Dominus omnibus invo-*
cantibus eum, omnibus invocantibus eum in veritate (*Psal.* 144). «Hurbil dagote
Jainkoa zinez eta egiaz gomendatzen eta <460> fabore eskatzen zaizkon guztiei».
Eta nahi du eska gakitzan, eta are lehia gakitzan, eta lehenbiziko ezean eta errefu-
sean eztezagun etsi, baina athal ondoan dagoen eskalea bezala, erdiets arteino,
gauden buthoituak.

30

35

Eta orobat da noiznahi den, gauaren erdian ere, eskatzea. Zeren Jainkoa bai-
than ezta, ez orenik eta ez aldarte gaitzik, munduko jendetan ohi den bezala. Haren
baithan muga guztiak eta oren guztiak dira bat, bethi da nehor ongi ethorria. Beraz,
hunelatan, zintki eta fintki, maiz eta lehiatuki, behar gatzaitza azken fineko iraupe-
naren eta perseberatzeko donuaren eskatu, eta hunetan geure ahal guztiaz permatu
eta bulharka jarri. Zeren azken fineko perseberantzia da gakhoa, hura da gorabehera
guztia, hartan dago garaitia eta biktoria. Hura gabe leheneko obra onek deus guti

40

balio dute. Zeren iraganak iragan, azken finean nolako garen behatzen du Jainkoak; eta orduan edireiten gaituen arauaz emaiten deraku sekulako zorthea, ona edo gaixtoa.

- 5 Eta ontasunean iraute haur, perseberatzea, oraidanik behar da hartu eta eduki, eta ez geroko esperantzan utzi eta largatu. Zeren azken fineko aitzin hartan irauten eta perseberatzen duenak, perseberatzen ohi du komunzki azken finean berean ere. <461>

§ 2

- 10 **300** Ordea, ezkaitu ez izitu behar azken finereinoko edo gareinoko trabailu aphur batek, hartaz zeruko loria, hain gauza handia, erdiesten denaz geroztik. Zeren Jondone Paulok dioen bezala: *Non sunt condignae passiones huius temporis ad futuram gloriam quae revelabitur in nobis*. Hemengo neke-trabailu guztiak, gehiago balira ere, eztira zeruko loriaren erdiesteko merezient, eztira asko, eztira deus harekin konparaturik. Beraz, hunelatan, eztugu bizi gareinoko trabailu aphur haur sobera etsi behar. Aitzitik, desiratu behar genduke lizen handiago eta iraun lezan gehiago. Hala desiratzen
- 15 zuten lehenagoko sainduak; eta halatan, desira hura hala izanez, eman zerauen Jainkoak hain loria handia. Halako batez mintzo dela, erraiten du Spiritu Sainduak: *Consummatus in brevi, explevit tempora multa (Sapient. 4)*. «Denbora gutiz bizi izan bazen ere, guti hartan egin zuen anhitz». Zeren hartan baitzuen aitzinerat ere ongi egiteko gogo eta borondate, eta borondate harekin hil baitzen. Hala erraiten da, halaber, gaixtoez ere,
- 20 denbora gutiz egin zutela anhitz, eta denbora gutiz eta laburrez egin zituzten bekhatuak-gatik emaiten zaiela gaztigu luzea eta sekulakoa. <462> Zeren denboran izan baziren ere labor, ordea, bekhatu egiteko gogoan, borondatean eta desiran izan baitziren luze.

- 25 Bada, nola gaixtoek baitute gogo eta borondate, aitzinerat ere bere gaixtakerietan egoiteko eta bizitzeko, hala onek dute, halaber, ontasunean aitzina iragaiteko, eta hartan fineraino eta finean irauteko eta perseberatzeko.

Eta ezta, ez, ez deusgatik, munduak, deabruak edo haragiak kontra aphur bat eginagatik, utzi behar perseberatzea eta aitzinerat iragaitea, ezta hargatik gibelat bihurtu behar.

- 30 Itsasoan dabiltzanak, tormentak hartuagatik, kontrako haizeak joagatik, eztira berehala errendatzen, eta ez bihotz hilduak eta etsituak jartzen; eztira portuan sar arteino laxatzen, eta ez ezansiatzen, anarteraino bethi on dadukate, bethi enseiatzen eta permatzen dira. Hala behar dugu, bada, guk ere permatu, eta parabisuko bidean jaikitzen zaizkigun tormentak eta kontrak benzaturik, hango portuan sartzera enseiatu, eta ez anarteraino errendatu, eta ez amainatu. Eztugu ximinoak bezala egin
- 35 behar, eltzaurraren jateko desiros delarik, kanpoko azalaren hautsteko nekeagatik, utzten baitu barreneko mamia dastatu gabe.

258-2 *gaituen arauaz*: «*Arauaz* hunek, Axularren usuarioan, aitzineko hitza genitibo kasuan egotea eskatzen du beti: *gaituenaren* beraz, baina kasu hunetan ez du bestetako errega bete» (Villasanteren oh.). Adizkiaren ondoan adibide bakarra dago: *Emazu, beraz, duzunaren arauaz* (125-36).

258-14 *lizen*: «izan ledin» (Lekuonaren oh.).

301 Giristino fina ezta, ez, berehala, lehenbiziko okhasinoan eta tentamenduan erortzen, <463> ezta lehenbiziko inkontruan behaztopatzen, eta ez izitzen. Aitzitik, orduan defendatzeko eta ihardesteko pitztenago, permatzenago eta finkatzenago da.

Su ttipia, kandela argia, haize gutik iraungitzen du, baina su handia, ikhartzobia, haize handiarekin handitzenago eta sendotzenago da. Hala bada, debozino ttipia, ezbaieko gogoia eta intenzione flakoa ere, edozein tentamendurekin, okhasino gutirekin, haize aphur batekin iraungitzen da. Baina debozino handia, intenzione fina, berthutean erroak eginik dagoena, okhasino handiekin, haize nahasiekin eta tentamenduekin fintzenago eta handitzenago da.

Ordea, erraiten denean ezen azken fineraino ez tirela giristino onak eta finak baratzen, zabartzen, eta ez gelditzen, ezta, ez, aditzen lehenbiziko hastetik akhabatzeraino, gaztetik zahartzeraino, behin ere eta nehoiz ere bekhatu egin gabe egoiten direla. Zeren Salomonek dioen bezala: *Septies in die cadit iustus (Prov. 24)*. Den justuena ere, egunean zazpitan erortzen da, zenbait bekhatu benialetan bedere behaztopatzen da. Baina aditzen da ezen bekhatu bat egiten duenean, hartarik berehala, hartan guti pausatutik ilkitzen dela eta, iltkirik, azken finean bekhatu egin gabe gerthatzen dela.

Batzuek hartzen dute gogo eta borondate, <464> zenbait denboraz bedere, bekhatu egin gabe egoiteko. Zeren halako naturaleza du bekhatuak, non uste baitut ezen ez tala nehor ere, gaixtoago bada ere, bere gaixakeriak unhatzen ez tuenik eta bertze bizitze molde bati lotzea desiratzen ez tuenik. Ordea, bat ere eta nehoiz ere bekhatu egin gabe egoiteko gogo deliberatua, perseberatzeko firmetasuna, gero utzten dute.

Badu gure gero hunek hemen ere bere etxalekhua eta ostatua. Bada, baldin izanen bada firmetasunik gero, behar da perseberatzera eta firme egoitera enseiatu orai. Aitzineko obra onak eta perseberantzia dira ondoko fin onaren eta perseberantziaren bidea eta seinalea. Jaiki eta eror dabilanaren bizitzea, bizitze perilosa da, guztiz ere baldin eroririk denbora gehiago egiten badu jaikirik baino, nola komunzki gerthatzen ohi baita gure baithan.

Agian aste batez edo biaz egoiten gara bekhatu egin gabe; baina urthe batez eta hamarrez bekhatutan. Badakigu gaixakerian pensatzen, irauten eta perseberatzen, baina ez ontasunean. Eta badio San Agustinek ezen hunela bekhatutan egoiteak eta perseberatzeak haserretzenago duela Jainkoa, bekhatu egiteak berak baino. *Non, enim, qui peccaverit, sed qui in peccatis perseveraverit, <465> odibilis et abominabilis erit Deo (Aug. Serm. 58 de tempo, t. 10)*.

§ 3

302 Ebakitzen duzunean zuhaitz bat, eta berriz hartarik urtumeak edo adarrak sortzen direnean, ageri da etzendueta osoki eta ondotik ebaki, gelditu zela zenbait erro eta zain.

Halaber, zauria ere behin sendatutzat utziz gero, berehala gaizkoatzen denean, badirudi gelditu zela zenbait kutsu, zenbait narrio, etzela ongi sendatu. Hala bada,

behin bekhatutarik sendatuz gero, berehala eritzen eta hetara bihurtzen denean, badirudi gelditu zela zenbait erro, zenbait bekhatu egiteko gogo; etzela ongi sendatu, eta ez garbitu, etzuela apartatzera fintki deliberatu.

- 5 Egia da, ordea: ongi garbitu eta sendatuagatik ere, gertha dakidikaio berriz likitstera, eritzera eta bekhatu egitera. Zeren bekhatuaren erroa eta zimendua libertatea da: eta libertateak behin utzi duena, berriz har dezake.

Baina, guztiarekin ere, behin eror eta <466> berriz jaiki ibiltzea seinale gaixtoa da, eta gure galgarria.

- 10 *Unus aedificans, et unus destruens, quid prodest illis nisi labor? (Eccles. 34).* Batek egin eta batek desegin, zer probetxu, trabailua baizen? Bada, halaber, zer probetxu da behin jaikitzeaz, baldin berriz erortzen bada, eta eroririk dagoela eta datzala gelditzen bada? Zer probetxu da bide luzeari lotzeaz, gogo duen lekhura hel-tzen ezpada? Zer probetxu, untziak betherik eta kargaturik bela ongi egiteaz, baldin portura baino lehen edo portuan galtzen bada? Zer probetxu etxearen hasteaz, 15 akhabatzen ezpada? Ezta asko ongi hastea, akhabatu behar da. Judas ongi hasi zen, baina gaizki akhabatu. Loten emaztea ere aingiruaren manuaren konplitzen ongi hasi zen, Sodomatik iltki zen; ordea, gibelat behatzeaz galdu zen, hargatik gatz bihurtu zen. Eta gatz bihurtze hunen gainean erraiten du Glosak: *Sal est condimentum ciborum; et ideo uxor Lot respiciens retro, versa est in statuam salis; quia punitio eius dat condimentum sapientiae paenitentibus ne ad pristina peccata revertantur* (Lyrán. in cap. 19 *Genes.*). Gatzak du indar eta berthute janhariei gozo eta zaphore emaiteko, eta bai aitzinerat ere iraun arazitzeke. Eta halatan, gibelat behatzeaz gatz bihurtu zen emazte hark, eta hari eman zeikan gatziguak, erakusten derauku ez-tugula gibelat behatu behar, eta ez lehen <467> utzi ditugun bekhatuetarat bihurtu. 20 Halatan erraiten deraku Jainkoak berak, *Mementote uxoris Lot (Luc. 17)*, orhoit gaitezila Loten emazteaz, zentza gaitezila haren baithan, hari gerthatu zeikana gertha eztakigun, eta haren gatz hartaz gaziturik bezala, bekhatutan ustelzetik begira gaitezin.

§ 4

- 30 **303** Ezta gibelat behatu behar, zeren hala behatzeaz izatu da gaizki heldu denik. Bada exenplo bat edo elhe bat, elkhar hil nahi zuten batzuen artean gerthatua. Hasi ziren bi gizon ezpata kolpeka; eta batak, maliziosago baitzen, erran zioen bertzeari: «Hola, hola! Bihoa hortik zure gibelean dagoen gizon hori; ez naiz ni biaren kontra hari». Orduan, ustez ezen egiaz mintzo zen, behatu zuen gibelat eta, 35 bitarte hartan, eman zioen bere bethea, eman zioen zafadarrako eder bat. Hala egiten deraue, bada, deabruak ere gibelat, leheneko bizitze gaixtorat behatzen dutenei, eta bihurtzen direnei ere.

- 40 *Nemo mittens manum ad aratrum et respiciens retro, aptus est regno Dei (Luc. 9).* «Gibelat beha dagoela, golde nabarretan hari dena, ezta zeruko <468> erresumaren erdiesteko gai, eta ez on», dio gure Jainkoak. *Arator respiciens retro, facit sulcum tortuosum aut inutilem. Sic, accipiens melioris vitae statum, et habens*

affectum redeundi ad pristinum statum, ineptus est regno Dei adipiscendo (Lyran. in cap. 9 *Luc.*). Golde nabarretan edo golde-pikoetan, lur lantzen eta aphaintzen, gibelat beha dagoela hari denak, hildoa makhur eginen du, ezta hura goldelari on izanen.

304 Badira lan batzuk eta obra batzuk, aitzinerat, gibelerat, saihetserat edo norat nahi den beha dagoela eginagatik, ezpaita antsia, nola baita jatea, edatea, mintzatzea. Baina badira, berriz, bertze batzuk, nola baitira eskiribatzea, pintatzea, jostea, golde nabarren eta arhen ere haritzea, ezpaitira ongi egiten, bethi kontu edukitzen dela eta aitzinerat artez behatzen dela baizen. Hala da, bada, zeruko erresuma ere: baldin erdietsiko bada, artez ibili behar da, aitzina joan behar da, ezta gibelat, leheneko bekhatuetarat behatu behar, eta ez bihurtu. Zeren bihurtzekotz, probetxu guti da lehen egin den guztiaz. 5 10

Erhoa da, behin garzeletik itzuriz gero, berriz bihurtu nahi dena; eta bai behin bide batetan arrotatu dutenean, berriz handik iragan nahi dena ere. Halakoak, aniamalia adimendurik ez tuenak baino adimendu gutiago <469> du. Zeren animaliak, bere adimendugabearekin ere, eztira lehen gaizki heldu diren lekhura berriz bihurtzen; baina bai bekhatorea bihurtzen da. Hunen gainean erraiten du Jondone Petrik: *Melius, enim, erat illi, non cognoscere viam iustitiae, quam post cognitionem retrorsum converti* (2 *Petri.* 2). «Hobe zukeien egiazko bidea jakin gabe egon, jakinez gero gibelat bihurtu baino». Hala emaiten du aditzera San Lukas ebanjelistak ere: *Novissima, autem, eius erunt peiora prioribus* (*Luc.* 11). Behin deabrua, spiritualki edo korporalki, bereganik atheraz gero, bere faltaz berriz sartzera utzten duena, gaizkiago da orduan, bigarren hartan, lehenbizikoan baino; perilosago da azken hutsa, lehena baino: azkenak lehena ahantzen du. Hunen arauaz abisatu zuen paralitiko sendatua ere bere sendatzaileak: *Ecce sanus factus es; iam noli peccare, ne tibi deterius aliquid contingat* (*Ioan.* 5). «Badakusazu sendatu zarela; begira, bada, berriz eritzetik, zerbait are lehen baino gaizkiago gertha eztakizun». Zeren gaixto da eritasuna, baina gaixtoago berretura. Gaixto da zauria, baina gaixtoago gaizkoadura. Gaixto da kofesatu gabe egoitea, baina alde gaixtoago kofesatu dituzun bekhatuetara bihurtzea. Bigarren bihurtze eta erortze hura gaitziago zaika Jainkoari lehenbizikoa baino. 15 20 25 30

<470> Ezagutzagabetasun handia da, eta ingratar izaita, Jainkoari kofesatzean eta handik kanpoan, zeure orazinoetan eta othoitzetan hanbat promes eginez gero, eta hekin batean zeure bekhatuen barkhamendua eta bertzerik ere anhitz garazia, fabore eta ontasun erdietsiz gero, promesak hautsirik, berriz leheneko maina gaixtoetara bihurtzea, hanbat obligazino esker gaixtoaz pagatzea. 35

§ 5

305 Hain da handi eta itsusi bigarren bekhatua, behin barkhatuz gero berriz egiten dena, non hark bere ingratar-tasunaz, leheneko bekhatu barkhatuak ere bihurtzen bezala baititu (Vide S. Thom. 3 p., q. 88, art. 2 *in corpo.*). Eta ezta miretsteko. Zeren 40

bigarren bihurtze hark, leheneko bekhatu barkhatuak ere erraberritzen, gogora ekhartzen eta pitzten bezala baititu. Eta hala, justiziak ere, behin azotatua, bigarren atrapaduran bortitzkiago gaztigatzen du.

Behin utzi zuen bekhatura berriz bihurtzen dena, konparatzen du Spiritu Sainduak bere okha egina jaten duen orarekin. *Sicut canis qui revertitur ad vomitum, sic imprudens qui iterat stultitiam suam* (Prov. 26). Eta Jondone Petrik, are <471> gehiago konparatzen du halakoa, lohira hidoiztatzera bihurtzen den urdearekin. *Canis reversus ad vomitum, et sus lota in volutabro luti* (2 Petri. 2). Hain da gauza hatsa, likitsa, kiratsa, higuina eta nardagarria, or baten bere okha eginaren eta ahotik egotziaren berriz iretsten ikhustea, non baldin Spiritu Sainduak berak usatu ezpalu konparazino hunez, ezpainintzen ni aiphatzera ere ausartuko. Baina erraiten du Spiritu Sainduak; derragun, beraz, guk ere, behin bekhatua kofesatu, ahotik egotzi, eta berriz hartara bihurtzea, bere okha eginaren beraren iretstea bezala dela. Zeren okha hura zein lizun eta urde den, are baita lizunago eta urdeago bekhatua.

Beraz, hunelatan, ezta leheneko bekhatuetara bihurtu behar, eta ez behin garbituz gero berriz likitstu ere. Aitzitik, dagigun eta derragun esposak bezala: *Lavi pedes meos; quomodo inquinabo illos? Expoliavi me tunica mea; quomodo induar illa?* (Cantic. 5). «Oinak garbituitut; nola, bada, likitstukoitut? Athorra erauntzi dut; nola, bada, jauntziko dut?».

306 Kofesatu ondoan, munduak, deabruak edo haragiak berriz bekhatu egitera eta leheneko estatuan, egoitzan, etzauntzan eta tokian jartzera akometatzen zaituzte-nean, ihardetsi behar zeneraukaie: «Nolatan ahal daidiket nik hori? Garbituitut neure oinak; nola, bada, likitstukoitut? Erauntzi dut behin <472> athorra lohia; nola, bada, berriz jauntziko dut? Biluzi naiz behin aztura gaixto guztietarik; nola, bada, berriz beztituko naiz? Utzi ditut behin; nola, bada, berriz hartukoitut? Edo, berriz hartzekotz, zertako utzi behar nituen?». *Si paenitens es, noli facere; si facis, certe paenitens non es*, dio San Agustinek (August. lib. *De vera et falsa poenitentia*). Baldin bazara penitent, baldin lehen eginaz damu baduzu, eztagizula gehiago, zeren baldin egiten baduzu, ageri da etzarella penitent, eztuzula lehenaz damu.

Diferentzia handia da salbatzen direnen eta salbatzen ez direnen artean; eta diferentzia haur eztago, ez, guztia bekhatu egitean edo ez egitean. Zeren salbatzen direnetarik, batzuek egin zuten noizbait bedere bekhatu: Jondone Petrik, Jondone Paulok, Magdalenak, eta bai bertze anhitzek ere. Baina diferentzia dago, behin edo berriz bekhatu egitera gerthatuagatik, heken fite utztean eta, behin utziz gero, ez hetara berriz bihurtzean. Hala, edireiten da lehenagoko sainduak, zenbait bekhatutan erori baziren ere, fite jaiki zirela, eta behin jaikiz gero, etzirela gehiago erori, eta ez bere leheneko bekhatuetara eta ez bertzetara bihurtu. Hala egin behar dugu, bada, guk ere. *Qui secutus es peccantem, sequere poenitentem* (in *Vita Sancti Ambrosii*). Baldin orainokoan jarraiki bagatzaizte sainduei bekhatu egitean, jarraiki behar <473> gatzaizte, halaber, bekhatuen utztean eta, behin utziz gero, ez berriz hetara bihurtzean.

Fineraino, eta finean, perseberatzen duena, izanen da salbatua eta ongi zorthe-
tua. *Qui, autem, perseveraverit usque in finem, hic salvus erit (Matth. 10)*. Bertze
guztiak deus guti dira; finak darama koroa, akhabatzean kantatzen da loria.

Beraz, fin hari eta akhabatzeko loria hari begia edukirik, hareraino eta han
behar dugu, egun beretik, geroko begira egon gabe, bekhaturik gabe egoitera enseia-
tu. Hartarakotzat, orai eskuen artean darabiltzagun bekhatuak urrikimendu handi 5
batekin kofesaturik eta utzirik, aitzinerat gehiago egitetik begiratzen garela. Zeren
halatan erdietsiko dugu orai perseberantziaren donua, eta gero, azken finean, arimen
salbamendua, sekulako loria.



<474>

Nola, ikhusirik ifernuko bidea den gaitzago parabisukoa baino, behar den gerotik gerora ibiltzea utzi

KAP. XLVIII

307 Anhitzetan egotu naiz neure buruarekin gogoetan, eta iduritzen zait ezen gogoeta egiteko egitekoa dela ea zein den gaitzago, Jainkoaren zerbitzatzea, ala deabruaren; parabisura joatea, ala ifernura. 5

Bi presuna daude bertze munduan: bata parabisuan, eta bertzea ifernuan. Bada, hetarik bietarik, zeinek iragan othe zuen mundu hunetan pena eta trabailu gehiago? Haur nahi nuke jakin, hunen nago galdez, haur da ene gogoeta.

Badirudi trabailu gehiago iragan behar duela parabisuratzen denak parabisuratzeko, ifernuratzen denak ifernuratzeko baino. Zeren parabisuko bidea gaitzago baita, ifernukoa baino. Hala emaiten du aditzera San Mateok: *Angusta porta et arcta est via quae ducit ad vitam, et pauci sunt qui inveniunt eam (Matth. 7)*. «Athea, athe hertsia da, eta bidea ere bide meharra, parabisurat dohana, eta gutiak dira bide <475> hura edireiten dutenak». Erran nahi du gaitz dela zeruko lorian sartzea, eta Jainkoaren manamenduen konplitzea. Zeren ezta bide bat baizen, eta bat hura ere, guztia da mehar, malkhar, buruz gora, haragiaren kontra eta desgogara. 10 15

Eta, guztien buruan, ezta bide hartan batere errebelatu behar, eta ez nehorat makhurtu, eta ez aldaratu: manamendu guztiak behar dira konplitu. Baina ifernura joateko, eztira guztiak hautsi behar, asko da batetan faltatzea. Hala erraiten du Jondone Jakuek: *Quicumque totam legem servaverit, offendat, autem, in uno, factus est omnium reus (Jacob. 2)*. «Bertze guztiak konplituagatik, batetan behaztopatzen bada, guztietan egiten da hobenduri». Eta haur aditzen da, Glosak dioen bezala, *de poena damni, et non de poena sensus (Glosa Lyr. in cap. 2 Iacobi)*. Guztietan egiten da hobenduri. Ez zeren bekhatu bat baizen eztuenak hanbat pena merezi duen, nola hamar dituenak, baina zeren bat baizen eztuena ere ifernurako baita, hamar dituen bezain ongi; ez hain barrena, eta ez hanbat penarekin; ordea, biak barrenean, nor bere mereziarekin. 20 25

308 Beraz, gaitz izanen da parabisuan sartzea, hartarakotzat manamendu guztiak konplitu behar direnean, bide bat baizen eztenean, eta bat hura ere hain meharra eta gaitza denean. Eta hala, Jondone Paulok, bere <476> saildutasun guztiarekin ere ezin bururik eginez bezala, erran zuen: *Infelix ego homo! quis me liberabit de corpore mortis huius?* «Ai ene titxa gabea, ene onbeharra eta urrikalkizuna! Nork libratuko nau gorputz mortal hunetarik?». *Scimus, enim, quod lex spiritualis est; ego, autem, carnalis, venumdatus sub lege (Roma. 7)*. «Zeren ni naiz haragiz eta haragiari emana, eta legea, Jainkoaren manua, spiritu». Zer ikhuzkizun du, bada, spirituak haragiarekin? Nolatan abenituko dira biak elkharrekin? Egiteko handia da haur; hain handia, ezen arrazoinekin erraiten baitu Salomonek: *Iugum grave super filios Adam a die exitus de ventre matris eorum, usque in diem sepulturae in matrem omnium (Eccles. 40)*. «Uztarri pisua eta karga handia darabilate soinean Adanen umek sortzen diren egunetik heriotzeraino, bere amen sabeletik ilkitzen direnetik hobira, guztien amagana bihur arteino». Halatan erraiten du San Mateok: *Regnum caelorum vim patitur (Matth. 11)*. «Zeruko erresumari bortxa egin behar zaika»: han parterik izanen duenak zin-zinez eta bere indar guztiaz behar duela permatu. Eta badio Job sailduak ere: *Militia est vita hominis super terram (Job. 7)*. «Giristino giristino denak, gerlan dabilan soldaduak bezanbat trabailu iragan behar du». Zeren soldadutasuna eta gizonaren <477> lurreko bizitzea bat baitira. Eta Jondone Joanes ebanjelistaren errana da, *Palmae in manibus eorum (Apocal. 7)*, ikhuzi zituela justuen eskuetan palmak, zein baitziren palma zuhaitzaren adarrak, biktoriaren seinaleak. Eta biktoria den lekhuan, aitzinetik behar da gerla, aitzinetik behar da neke eta trabailu. Zeren Jondone Paulok dioen bezala: *Non coronabitur nisi qui legitime certaverit (2 Tim. 2)*. «Ezta koroatua izanen, eta ez biktorios geldituko, zin-zinez permatzen eta guduztatzen eztena».

309 Eta are haur da egitekoa: zenbatenaz eta giristino bat baita giristinoago, zenbatenaz eta zintkiago eta fintkiago permatzen eta enseiatzen baita Jainkoaren zerbitzatzaera eta deabruari kontra egitera, hanbatenaz etsaiak harmatzenago, eta tentamenduak ere berretzenago zaitza. Hala emaiten du Spiritu Sailduak aditzera: *Fili: accedens ad servitum Dei, sta in iustitia et timore, et praepara animam tuam ad tentationem (Eccles. 2)*. «Ene seme, hasten zarenean Jainkoaren zerbitzitzen, zaude erne, eta beldur zarela, eta presta zaite tentamenduei kontra egiteko».

Zeren jakin behar duzu ezen orduan egundaino baino tentatuagoa izanen zarela. Hunen arauaz erraiten du Jondone Paulok ere: *Qui pie vivere volunt in Christo Iesu, persecutionem patiuntur (2 ad Tim. 2)*. «Sainduki eta prestuki, <478> Jesu Kristok manatzen duen bezala bizi nahi dutenak, izanen dira penatuak eta persegituak». Hei erauzten zaitze falseriak, hei egiten zaitze irriak eta eskarnioak, finean hei egiten derauzte munduak kontra handiak.

Eta gertha baledi ere munduan zenbait presuna hain saildurik, justurik, fama handitakorik edo dohatsurik, non ez ledin nehor ausart haren baithan mihirik ibentzera, eta ez haren ohorearen ukitzera, egia izanen da orduan ere, Jondone Paulok

266-39 *handitakorik: «Kasu mugagabeari» (Villasanteren oh.)*.

dioena, tentatuak eta persegituak izanen direla justuak. Zeren bere baithan barrena bedere, bere haragiaren mugidez eta desira desordenatuez, tentatuak eta frogatuak izanen baitira.

Gerla handia dute elkharren artean berthutek eta bizioek. Uргуилutasunak gerla handia egiten dio humiltasunari, abariziak libertasunari, haragiak kastitateari, inbi-diak karitateari, gulak abstinenziari, kolerak pazientziari, nagitasunak dilijentziari. Eta hunen batenarekin justu guztiak dira persegituak eta kontrastatuak, bere baithan barrena bedere. 5

Eta hala, bethiere da egia, *Per multas tribulationes oportet intrare in regnum Dei*, anhitz tribulamenduz, penaz eta trabailuz behar <479> dela zeruko erresuman sarthu. Anhitz inkontru bortitz, anhitz pena eta atsekabe iragan behar du parabisuko bidean dabilanak. 10

§ 1

310 Ifernuko bidea dadukanak, badirudi eztuela halako atsekaberik, persekuzio-nerik eta kontrarik izaiten, eztuela halako gerlarik eta egitekorik sentitzen. Zeren bere gogoak eta haragiak diotsan bezala, bide zabalaz, bere aisiara baitabila. 15

Halatan erraiten du San Mateok: *Lata porta et spatiosa via est quae ducit ad perditionem; et multi sunt qui intrant per eam.* «Athea, athe zabala, eta bidea ere bide handia eta espaziotsua da ifernurat dohana; eta anhitz ibiltzen da bide hartan, eta bai athean ere sartzen»: bada han oin-hatza franko, eta ez konpainia eskasik. 20

Eta ifernuko bidea gaixtoek daramatena, deitzen da handia eta zabala, zeren hartan dabiltzanak ezpaitira erregelaz bizi, eta ez ordenantzaz. Eztute hek bertze erregelarik, bere borondatea baizen; eztaude legearen azpian: legea da heken azpiko. Bidea huts eginak, errebelatuak dabilta; eta hala dabiltzanak, nondik nahi den dabilta, hekentzat guztiak dira bide, guztiak dira zabal. Eta nola zabal baitira eta laguna ere franko baitute, <480> plazer zaie, bere errebelamendu guztiarekin ere, bide zabal hartan ibiltzea. 25

Plazer da mihiaren anhitz arnegu eta juramentu egiten duela, nahi duen bezala minzatzera utztea. Plazer da igandetan eta bertze bestetan, solhasean, jan-edanean, jokoan eta atsegin hartzen, mezaz, bezperaz eta orazinoz konturik egin gabe, denboraren iragaitea. Plazer da haragiak kilikatzen zaituenean, berehala zeure desiraren konplitzea. Plazer da bidegabe bat egiten deratzutenean mendekatzea, ordainez ordain, moneda berean pagatzea. Plazer da bere edo bertzeren eskuen artean zerbait erabiltzea, eta alfer eta aise, ebatsiz izanen bada ere egoitea. Plazer da ohe onean eta garbian etzatea. Plazer da ez barurtzea, ongi jatea, hobeki edatea, eta barazkari onagatik afari hobearen ez utztea. Finean, plazer, plazent eta atsegin da, bere gogoak eta aphetituak diotsan bezala, bide zabalaz ibiltzea. 30 35

311 Ez, ordea, ezta plazer eta ez atsegin, baina gaitz eta penos da, parabisuko bide meharraren edukitzea; manamendurik hautsi gabe, bethi artez ibiltzea eta bizitzea. Gaitz da mihiaren ongi gobernatzea, linburtzetik begiratzea, eta bertzeak zutzaz 40

5 mintza litezin nahi zendukeien bezala, zu ere hetzaz minzatzea. Gaitz da bidegabe bat egiten deratzutenean barkhatzea; gaizki erraiten deratzunari <481> ez ihardes-
tea, zeure eskuan duzularik, ez mendekatzea. Gaitz da, haragiak tentatzen zaitue-
nean, gaietan eta okhasinotan zarelarik, zeure buruaren bortxatzea, desiraren ez
10 konplitzea. Gaitz da tratuetan eta sal-erosietan bethi egiaz ibiltzea; bertzerena es-
kuan darabilazularik, ez kutsatzea, errotan irinik ez lotzea. Gaitz da zur baten gai-
nean, zeure ohe ona utzirik, eta larru arras zilizio bat, zerdazko gerriko bat harturik
etzatea eta ibiltzea. Gaitz da barurtzea, janhari ona, edari hobea, eta aphetitu ere
15 duzularik, guztien Jainkoagatik utztea. Finean, gaitz da eta penos da, munduan ga-
relarik munduan ezpaikina bezala, munduaz konturik egin gabe, Jainkoaren boron-
dateari errendaturik egoitea; haren manamenduen arauaz, haragiz ezpaikina bezala,
bethi spiritualki bizitzea.

15 Eta, alabaina, gaitzago bada ere, haur da parabisura joiteko bidea, haur da han
sartzeko athea. Beraz, orai badirudi ezen eztela gaitz, galdez gauden egitekoari
ihardestea. Zeren, iduriz frogatu baitugu asko klarki, errazago eta plazentago dela
ifernuko bidea parabisukoa baino, parabisukoa hain gaitz denaz geroztik.

20 Baina, guztiarekin ere, aihertzen naiz erraitera, eta erraiten dut, parabisuko
bidea errazago, plaunago eta plazentago dela, ifernukoa <482> baino. Eta ifernura
joaiten denak, pena eta trabailu gehiago iragan behar duela, are mundu hunetan ere,
ifernura joiteko, parabisuratzen denak parabisuratzeke baino.

Eta hartarakotzat froga dezagun lehenik, erraz dela parabisuko bidea, eta gero
frogatuko dugu errazago dela ifernukoa baino.

Nola parabisuko bidea den erraz

KAP. XLIX

312 Egia haur, parabisuko bidea erraz dela, anhitz moldez eta arrazoinez froga ahal diteke. Lehenbizikorik, erraiten du Jondone Joanes ebanjelistak: *Mandata eius gravia non sunt* (Ioan. 5). «Jainkoaren manamenduak ez dira pisu, eta ez gaitz». 5
Halaber, erraiten du Spiritu Sainduak: *Qui custodit praeceptum, non experietur quicquam mali* (Eccles. 8). «Manua konplitzen duenak ez du gaitzik frogatuko, halakoa aise eta bere gogara izanen da». Eta, guztien gainera, erraiten du gure Salbatzaileak berak: *Venite ad me omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam vos. Tollite iugum meum super vos, et discite a me, quia mitis sum et humilis corde; et invenietis requiem animabus vestris. Iugum, enim, meum suave est, et onus meum leve* (Matth. 11). «Zatozte <483> enegana trabailatzen zaretan guztiok, eta kargaturik zaudetenok, eta nik arinduko eta aise ibeniko zaituztet. Har ezazue ene uztarria zeuen gainera, eta ikhas ezazue eneganik ni naizen bezala, eme eta humil izaiten, eta edirenen duzue zuen arimentzat bake eta sosegu». 15
Legis difficultatibus laborantes, et peccatis saeculi oneratos ad se vocat (Hilarius cano. 12 in Matth.). Lege Zaharreko zirimoniez trabailaturik eta bekhatuzko egitekoez kargaturik daudezinak, deitzeintu beregana. Eta hei erraiten deraue, legez aldaturik, lege zahar hura utzirik eta bekhatuen karga ere bereganik egotzirik, har dezatela bertze karga molde bat, uztarri leunago bat, zein baita lege berria, ebanjelio saindua, eta haren arauaz bizitzen direla, ikhusiko dutela zein aisia handian ibeniko dituzten bere buruak, zein kontent eta bere gogara biziko diren, eta zein plazent, aisit eta erraz idurituko zaien Jainkoaren zerbitzatzea, eta haren lege sainduaren uztarriari errendaturik, manamendu sainduen bidean ibiltzea.

Jainkoak berak erraiten du plazent dela haren uztarria, eta karga ere arin; beraz, hala da, plazent da eta arin. Zeren Jainkoak ezin derrake gezurrik. 25

Ordea, nola Jainkoak erraiten baitu haren uztarria plazent dela, eta karga ere arin, hala erraiten du, halaber, Jainkoak berak, parabisura joaiteko bidea bide heretsia, meharra eta gaitza <484> dela, eta gutik edireiten duela bide hura. Baina ifernuko bidea dela handi, zabal eta plazent, eta eztela bide hartan jende eskasik, badela 30
konpainia franko. Batean emaiten du aditzera erraz dela eta zabal parabisuko bidea;

eta, berriz, bertzean gaitz dela eta mehar. Nolatan ahal dateke, bada, haur hunela, erraz eta gaitz, zabal eta mehar?

§ 1

5 **313** Pontu huni ihardesteko, jakin behar duzue ezen, baldin alde batetik Jainkoaren lege sainduari berari, hain osoki eta konplituki konplitu eta begiratu behar denari, eta bertzetik geure haragiari ere berari, hain gauza flakoari eta flakazten erraxari, soilki eta baxharrik beha badiazegu, latz eta gaitz dela Jainkoaren zerbitzatzea, eta haren lege sainduaren begiratzea eta konplitzea. Baina, baldin 10 konsidera baditzagu Jainkoaren laguntza, ethorkizuneko esperantza, pagamendua-
ren segurantza, gogotik eta borondatez dagoenaren indarra eta, guztien gaiset, ontasunean dabilanari Spiritu Sainduak emaiten dioen indarra, berotasuna, konso-
lamendua eta donua, edirenen dugu, ez gaitz, baina erraz; ez hertsia, baina zabal; ez pisu, baina arin eta plazent dela Jainkoaren <485> zerbitzatzea eta haren lege sain-
duaren konplitzea.

15 Gaitz da Jainkoaganako bidea, haren manamenduen konplitzea. Ordea, noren-
tzat da gaitz? Berrientzat, usatu gabeentzat, nagientzat, laxoentzat, enseiatzen
eztirenentzat, aitzinerat behatu gabe, ethorkizunaz konturik egin gabe, haragiaren
arauaz bizi nahi dutenentzat; eta, guztien gaiset, gogotik eta amorioz eztaudezinen-
tzat. Ez, ordea, ezta latz, eta ez gaitz, haragiari gibela emanik, arrazoinaren arauaz
20 gobernatzen direnentzat, ethorkizunera behatzen dutenentzat, eta gogotik eta delibe-
ratuki, zin-zinez eta amorioz enseiatzen direnentzat.

Hala emaiten du aditzera San Krisostomok: *Quod si onus audiendo formidas
nimium, atque perhorrescis, non naturae rerum huiusmodi timorem, sed ignaviae
tuae totum tribue. Nam, si accintus et praeparatus eris, et nulla desidia effemina-
tus, cuncta facilia videbuntur* (Chrysost. *Hom. 3 in c. II Matt.*, tom. 2). «Baldin
25 Jainkoaren ebanjelioa eta uztarria karga dela enzuteaz lazten eta larritzen bazara,
zeure hotzetasunari eta nagitasunari emozu hoben eta falta, eta ez bertzeri. Zeren baldin
gogotik, zin-zinez prestatu eta istalgaraturik abia bazindezi eta perma, etzindezke
izi, eta ez ikhara, baina iduri lekidikezu guztia erraz, plazent eta arin».

30 **314** Zeren oraino San Krisostomok berak dioen <486> bezala: *Fieri potest, quod
natura est intolerabile sit leve, si cum alacritate animi suscipiamus* (Chrys. in cap.
16 *Luc.*, tom. 2). «Bere egitez gaitz den gauza ere erraxten da, gogotik eta alegeraki
hartzen denean». Eta badio San Agustinek ere: *Omne praeceptum leve est amanti*
(Aug. *Sent. 2, 22*, tom. 3). «Manamendu guztiak dira erraz, amorio duenarentzat».
35 Den gauzarik errazena egin bedi gogo gaitzez, eta gaitz izanen da; den gaitzena egin
bedi gogo onez, eta erraz izanen da.

Halatan, Jondone Joanes ebanjelistak, amorio dutenez eta ez tutenez mintzo
dela, emaiten du aditzera, amorio dutenei manamendu guztiak iduritzen zaiztela
manamendu bat. *Si quis diligit me, sermonem meum servabit* (Ioan. 14). Baina
40 amoriorik ez tutenei, manamendu bat bera iduritzen zaiela anhitz manamendu. *Qui*

non diligit me, sermones meos non servat. Batean dio sermonem, eta bertzean sermones. Halatan erraiten du San Agustinek ere: Ita corpus pondere, sicut animus amore fertur, quocumque fertur (August. *De civitate Dei*, c. 28, to. 5). Amorioak erabiltzen du batbedera nahi duen lekhura, pisuak balantza erabiltzen duen bezala. Guztia dago gogoan, guztia dago borondatean eta amorioan.

5

Manamendu guztiak amoriotik eta karitatetik hasten dira, amorioaz eta karitateaz konplitzen dira, eta amoriora eta karitatera, bere finera eta xedera bezala, biltzen eta bihurtzen dira. Beraz, ezin dateke gaitz, amorio <487> duenarentzat, manamenduen konplitzea. Zeren amorioak manamenduei, bere garratzasuna ezitzen, mintasuna gozaten eta gaitzetasuna errazten baiteraue. Errege Dabitek, nola ezpaitzuen amorio eskasik, halatan Jainkoaren manamenduak erraz iduriturik, erraiten zuen: *In via testimoniorum tuorum delectatus sum sicut in omnibus divitiis*. «Zure manamenduen bidea, hain da bide atsegina eta plazenta, non hartan ibiltzeaz, munduko aberatstasun guztien eskuen artean erabiltzeaz bezanbat atsegin hartu baitu». *Quam dulcia faucibus meis eloquia tua!* «Ezin derraket zein gozo eta ezti zaizkidan neure ahoan eta eztarrian zure manuak, solhasak eta perpausak, are ezti baino eztiago edireiteintut». *Super mel ori meo*.

10

15

Amorioak beroturik egiten zuten lehenagoko sailduak Jainkoaren zerbitzuan hanbat balentia. Halatan pairatzen zuten hanbat pena eta trabailu, heriotze eta martirio, dolore eta estira.

20

315 Nola Patriarka Jakobi iduritu baitzeikan labur eta deus guti, Rakel ederraren erdiesteagatik zazpi urtez haren ondoan eta zerbitzuan ibiltzea, zeren maite baitzuen, amorio baitziadukon, *Videbantur illi pauci dies prae amoris magnitudine* (*Genes*. 29): hala saildui ere iduritzen zaie deus guti Jainkoagatik egiten duten guztia, zeren gogotik baitaude, amorioa baitute handia. Halatan Apostoluek ere orduan zedutzaten bere buruak dohatsuenik eta ziren alegerenik, <488> noiz eta Jainkoagatik desohore eta laido gehiago errezibitzen baitzuten. *Ibant gaudentes a conspectu concilii, quoniam digni habiti sunt pro nomine Iesu contumeliam pati* (*Acto*. 5). Zeren nola desohore eta laido hek guztiak borondatez eta amorioz hartzen baitzituzten, amorio harekin batean, etzituzten sentitzen, etzeizten trabailu iduritzen. Hunen arauaz erraiten du San Agustinek: *Nullo modo sunt onerosi labores amantium; sed etiam ipsi delectant, sicut venantium, aucupantium, piscantium. Nam in eo quod amatur, aut non laboratur, aut et labor amatur* (August. *De bono viduita.*, tom. 4). Amorioz eta gogotik dabilzanen trabailuak eztira trabailu; aitzitik, hetan atsegin hartzen da: ihiztariak, arranzaleak, pilotariak, dantzariak nekhatzen dira, trabailatzen dira; eta, alabaina, trabailu hura guztia bestatztat hartzen dute. Zeren maite den gauzan, edo ezta nekerik, edo maite da nekea ere; edo ezta trabailurik, edo baldin bada ere, hartan atsegin hartzen da.

25

30

35

271-35 *pilotariak, dantzariak*: «San Agustinen pasarte bat itzultzean sartu ditu Axularrek bi jolas hauek, euskaldunen artean oso ezagunak zirelako, noski; San Agustinen latinezko testuan ez da hoi enaipurik» (Villasanteren oh.).

316 Iklusiko duzu zenbat pena iragaiten duen ama batek bere haur ttipiarekin; eta, guztiz ere, haurra xarra, zakartsua eta hazkari gaitza denean. Eztio lorik egitera utzten, gau eta egun haren mainatzen eta errekaizatzen, bere burua deseginik, hari behar du. Eta, guztiarekin ere, ama erhoa hartan loriatzen da; gauaren erdian jaikirik eta bere
 5 loa galdurik, haur harekin, mila erhokeria erraiten duela, dostatzen da. Zeren maite baitu, amorio baitiaduko. <489> Eta amorioak trabailu guztiak arintzen, gozaten, zaphoratzen eta ezeztatzen baiterautza. Hala bada giristino onari ere, amorioak, gogotik egoiteak arintzen, errazten, gozaten eta ahantz arazitzen derautza Jainkoaren manamenduen konplitzean iragan behar diren neke-trabailu guztiak. Hala erraiten du
 10 San Agustinek: *Omnia saeva et immania prorsus facilia et prope nulla efficit amor* (August. *De verbis Domini* serm. 8 et ser. 46 *De tempore*, tom. 10). Diren gauzarik gogorrenak, moldegaitzenak eta hezgaitzenak ere, hezten, beratzen, moldatzen eta eskuetarazteintu amorioak. Ezta gauzarik, amorioak hez, hauts, balaka eta errenda eztezakeienik. Amurus batek anhitz pena eta trabailu pairatzen du bere amurusagatik,
 15 anhitz gau eta egun gaixto iragaiten du haren erdiesteagatik. Baina hek guztiak, zeren amorioak itsutua baitago, deus guti sentitzeintu. Bada, giristino onak, Spiritu Sainduaren amorioaz eta garaziaz ukiturik dagoenak, zenbatenaz gutiago sentitukoitu eta erraxkiago iraganeintu Jainkoaren zerbitzuan ahal dirateken trabailuak? Zeren amorio garbiak, Jainkoaganik heldu denak, indar gehiago behar luke, eta du ere, dea-
 20 bruaganik heldu den amorio higuin, hats, lizunak baino. Eta halatan, arrazoinekin erraiten du gure Jainkoak, haren ebanjelioaren uztarria plazent dela, eta legearen karga ere arin. Zeren hala baita, arin eta plazent baita, gogotik dagoenarentzat, borondatez eta amorioz hartzen duenarentzat.
 <490>

§ 2

25 317 Are gehiago, plazent, aisit, arin eta erraz da Jainkoaren zerbitzatzea, haren manamenduen konplitzea; ez hastean, ez lehenbizian, zeren haragiak eta usantza gaixtoek kontra handia egiten baitute. Baina behin usatuz gero, dastatuz gero eta spiritua haragiari jaunduz gero, ezta munduan hain bianda aphetitosik eta gozorik, nola baita Jainkoaren zerbitzatzea. Zapatak jauntzi berrian hersten du, min egiten
 30 du, baina aphur bat erabiliz gero, moldatzen da, oinaren neurrira eta orkhoiera ethortzen da. Oinak lohakartua dagoenean, eta gorputzak ere zurrundua, manaiu guti dute, jaikitza eta ibiltza herabe dute; baina behin jaikiz gero eta aphur bat higituz gero, berehala zalhuitzen, manaiukortzen eta iratzartzen dira. Halaber, presuna janzaharrak, mathela gogortuak edo horzkitua dagoenak, eztu atseginik
 35 hartzen jaten hastean, lehenbiziko poxinean eta ahamenean; baina behin hasiz gero, handik harat, jaten duena on eta gozo edireiten du. Hala bada, Jainkoaren zerbitzuan ibili nahi dena ere, lehenbizian horzki da, zurrun da, hotz eta nagi da;

272-37 *horzki da*: eta ez *hotzki da* (ik. 272-37 testu-oharra). Itzulpena, beraz, honela: «...al principio tiene dentera, está rígido, está frío y perezoso».

baina enseia bedi, has bedi, eta berehala berotuko eta zalhuituko da, trebe, bithore eta entregu izanen da, aise ibiliko da; eta gero eta gero aiseago, zeren ezta han asetzetik, eta ez <491> higuintzerik. *Agent, enim, spirituales delitiae desiderium in mente, dum satiant; quia, quanto magis earum sapor percipitur, eo amplius cognoscitur quod avidius ametur* (Gregor. *Hom.* 36). «Bertze janhariek hiltzen dute apheetitua —dio San Gregoriok—. Baina Jainkoaren zerbitzatzeko janhari hunek berretzenago eta piztenago du. Zeren barrenago hobeago eta gozoago edireiten baita».

Munduko plazentziek, diren handienek ere, denborarekin unhatzen dute, bere batez aitzinago higuintza emaiten dute. Baina Jainkoarenak, gero eta gero apheetitua pizten eta berretzen dute. Eta handik harat, hala berretuz gero, usatuz gero, atsegin da eta plazent Jainkoaren bidean eta zerbitzuan ibiltzea, haren manamenduen konplitzea eta prestuki bizitzea.

§ 3

318 Are gehiago, atsegin da eta plazent Jainkoaganako bidea, haren manamenduen konplitzea, konplitze hartarik heldu den probetxuari eta irabaziari behatzen dioenarentzat, hartan gogoa eta begiak ibentzen dituenarentzat. Zeren San Krisostomok dioen bezala, *Nulla res est tam difficilis, quae non fiat facilis spe futurae vitae* (Chrys. in *Psal.* 5), ezta hain gauza gaitzik, ethorkizuneko bizitzearen esperantzarekin erraxten eztenik. Hala erraiten du <492> San Agustinek ere: *Omne opus, leve fieri solet, cum eius praemium cogitatur, et spes praemii solatium est laboris* (August. *Ad Demetria Virg.*, c. 28, tom. 2). Den lanik handiena ttipitzen, eta kargarik pisuena ere arintzen du, hartarik heldu den irabazian pensatzeak. Pagamenduaren esperantza da trabailuaren konsolamendua. *Si vis sustinere laborem, attende mercedem*, dio San Agustinek (August. in *Psal.* 38, tom. 8). Nahi baduzu iraun trabailuan, pensa ezazu pagamenduan eta irabazian. Den egitekorik gaitzenari ere, gogotik lotzen zatzaitza, ongi pagatua izanen zarela segur zarenean. *Condimentum cibi ieiunium est. Quanto avidior appetentia, tanto esca iucundior*, dio San Ambrosiok (Ambros. *De Elia et ieiunio*, c. 4). Janhariaren jakia barura da eta gosea. Zenbatenaz gosea handiago, hanbatenaz janharia gozoago. Nola gosea edo apheetitua baita janhari guztien saltsa eta jakia, hala da nekearen eta trabailuaren konsolagarria, zaphoragarria eta arintkarria pagamendua eta pagamenduaren esperantza. Hunen arauaz erraiten du errege Dabitek ere: *Declinavi cor meum ad faciendas iustificationes tuas, propter retributionem* (*Psal.* 118). «Deliberatu nuen zure manamenduen konplitzera, konplitzetik heldu zeitan probetxuagatik». Nehork deus uste ez-tuen lekhuana, herabe du, oinak pisu du, baina irabaziak oinak arin.

319 Laborariak, fruituen esperantzan, gogotik iragaiten du bere lur-lanetako nekea. Merkatariak, irabazi ustez, egiten du itsasoz eta leihorrez <493> hain arintki hanbat bide, itzulinguru eta joan-ethorri. Finean, irabaziaren esperantza hunek, deusen usteak, ernatzen eta iratzartzen du mundu guztia. Hain iratzartzen, non

esperantza hunekin neguak uda, gauak egun, uriak atheri, minak gozo, trabailuak aisia, eta atsekabeak ere atsegintasun eta plazentzia iduritzen baitzaizkigu.

Bada, baldin mundu hunetako irabazi aphur baten esperantzak, anhitzetan ere enganaturik utzten gaituenak, hain gogotik, hain arindurik eta guti sentiturik trabaila arazitzen bagaitu, zer izanen da arrazoin eragin dezan zeruko loriaren esperantzak, usteak eta orhoitzapenak? Eta zer izanen da, halaber, loria haren, irabazi guztien gaineko irabaziaren ondoan dabilanaz? Hain gauza handiaren esperantzan trabailatzen denaz? Halakoari barurtzea, orazinotan egoitea, etsaiari barkhatzea, haragiaren plazeren utztea eta, finean, obra on guztien egitea, iduritzen zaika errax eta deus guti. Zeren trabailu aphur heken gatik, sekulako loriaren, hain irabazi handiaren eta pagamendu abantailatuaren esperantzan jartzen baita. Halatan erraiten du San Agustinek: *Cum attenderis quid accepturus sis, omnia erunt tibi vilia, quae pateris, nec digna aestimabis pro quibus illud accipias* (August. in Ps. 36, t. 8). «Konsidera dezazunean zein pagamendu handia emanen zaitzun hemengo trabailu aphurrakgatik, erranen duzu eztuzula hain deus gutigatik <494> hanbat merezi». Zeren trabailua baita ttipi, labur eta tenporal, eta pagamendua handi, luze eta sekulako.

Konsidera dezagun, beraz, pagamendua, eta edirenen dugu errax Jainkoaren lege saindua.

20

§ 4

320 Are gehiago edirenen dugu errax eta arin Jainkoaren lege saindua. Zeren lege haur uztarri baita, eta uztarria biak jasaiten eta eramaiten baitute. Halatan erran zerauen baratzean nabusiak bere diszipuluei: *Sustinete hic, et vigilate mecum* (Matth. 25). «Sostenga ezazue orai hemen hainbertze trabailu, zaudete aphur bat iratzarririk; eta ez zerok, ez, baina *mecum*, enekin, ni laguntzen natzaitzuela». Hala erraiten du Jondone Paulok ere: *Abundantius illis omnibus laboravi; non ego, autem, sed gratia Dei mecum* (1 Cor. 15). «Ni bertze guztiak baino trabailatuago naiz; ez, ordea, neror, *sed gratia Dei mecum*, Jainkoaren garazia enekin». Hala erran zuen, halaber, Jondone Paulok berak: *Omnia possum in eo qui me confortat*. «Ezta gauzarik, neure esportzatzailearekin batean eztaidikedanik».

Konsolamendu handia da, bere trabailuetan eta egitekoetan lagun on baten izaitea. Beraz, konsola ahal gaitetze gu ere, zeren geure egitekoetan Jesu Kristo lagun baitugu. Obra <495> onetan zabilzanean, etzara behin ere bakharririk, zurekin da Jainkoa, laguntzen zaitzu, kidatzen zaitu. Eta halatan da Jainkoaren lege saindua errax eta arin. Zeren Jainkoak berak gehien partea jasaiten eta eramaiten baitu.

Jainkoaren manamenduak idien orgak, xaluparen arrauak, untziaren belak eta hegaztinaren hegalak bezala dira. Orga karga da, pisu da. Ordea, idiek karga harekin karga gehiago eramaiten dute. Badirudi karga laguntzen zaiela karga eramaiten. Arrauak eta belak ere pisu dira; ordea, hekin batean arintkiago eta lasterrago dohazi untziak eta xalupak. Hegaztinaren hegalek ere badute bere karga eta pisutasuna. Ordea, karga hark, ez kargatzen, baina arintzen du hegaztina. Hala erraiten

du San Agustinek: *Haec sarcina non est pondus onerati, sed alae volaturi; habent, enim, et aves pennarum suarum sarcinas. Et quid dicimus? Portant illas et portantur. Portant illas in terra, et portantur ab illis in caelo* (August. *De verbis Domini* serm. 24, t. 10). Hegaztinak jasaiteintu lurtean bere hegalek, eta airean hegalek jasaiten dute hegaztina: jasaiteintu, eta jasaiten dute. Erran bazeneza: «Hegaztina haur trabatzen eta kargatzen dute bere hegalek» eta, urrikaldurik, edeki baziniatzo, kalte gehiago egin ziniatzaio, probetxu baino. Zeren airatzen eta hegaldatzen zena, lurtean geldi bailiteke. 5

<496> Beraz, karga badira ere, on dira orgak, belak, arrauak, hegalek, eta bai Jainkoaren lege sainduaren uztarria ere. Zeren uztarri haur karga izanagatik ere, hunekin batean hobekiago eta aisekiago iragaiten baitira mundu hunetako trabailuak eta atsekabeak. Zeren Jainkoa bera, legearen emailea, legearen begiratzen eta konplitzen laguntzen baitzaiku, eta hartarakotzat uztartzen bezala baita gurekin. Egia haur ezagaturik, erraiten zioen San Agustinek Jainkoari, hitz gutiz eta ederki: *Da quod iubes, et iube quod vis* (August. *lib. 10 Confes.*, cap. 29 et 31). «Jauna, emazu manatzen duzuna, eta gero mana ezazu nahi duzuna». Zeren indarra franko denean, eta laguna ere ona, ezta kargagatik antsia. Beraz, Jainkoa bera jasaiten laguntzen zaikunaz geroztik, arrazoinekin erraiten da haren uztarria plazent dela, eta karga ere arin. 10 15

§ 5

321 Gure lege sainduaren eta manamenduen karga arin da, eta are arintkarri da. Zeren baldin alde batetarik kargatzen bagaitu, bertzetik arintzen, eta bertze anhitz kargaren eta obligazinoren azpitik atheratzen baikaitu. 20

<497> Galdegiten dute teologoek, ea guk geure bekhatuakgatik geure Jainkoari satisfazionerik eta pagamendurik egin ahal diazaiozun. Eta badiru ezetz. Zeren erraiten du San Tomasek: *Satisfactio est redditio voluntaria aequivalentis, alias indebiti* (S. Thom. 4 *Sent. dis.* 18 q. 1 art. 1). Satisfatzea da, zor ezitugun obrez, geure eskuko ditugunez, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenez, zor dugun bezanbat pagatzea eta bihurtzea. Beraz, ezin egin diazaiogu guk geure Jainkoari pagamendurik. Zeren nola baita Jainkoa guztien gaineko ongi egilea, eta dugun guztia harengatik baitugu, hala, dugun guztia eta ahal dagigun guztia hari diogu zor; beraz, etzaiku deus gelditzen geure eskuko, ezta obra librerik, manamendu eztenik, zein deitzen baitituzte teologoek *opera supererogationis*, obra emendailuzkoak, emanen gainekoak, gure eskuko direnak, libreak, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenak. Badirudi eztela hunelako obrarik; eta baldin ezpada, segur da ezin paga dezakegula geure Jainkoa, eta ez satisfatza. 25 30 35

Baina, guztiarekin ere, ihardesten dute teologoek berek, eta erraiten, alde guztiz zordun bagatzaitza ere geure Jaungoikoari, badela, guztiarekin ere, anhitz obra on, nahi badugu baizen egitera obligatu ezkarenik, geure eskuko dugunik: nola baita orzirale guztietan barurtzea, egun <498> oro meza enzutea, gau erditaraino orazinotan egoitea, eta hunelako bertzerik anhitz. Hauken egitera ezkara obligatu, 40

nahi badugu baizen. Zeren Jainkoari alde guztiz eta geure ahal guztiaz zordun baga-
tzaitza ere, ordea, Jainkoaren miseriakordia eta liberaltasuna hain da handia, non
baldin haren manamenduak konplitzen baditugu, kontentatzen baita hainbertzez, eta
gainerako bertze obra on guztiak geure eskuko utzten baiterauzkigu. Eta hala, ma-
5 namenduen emaitiaz manamenduak gutitu zerauzkigun, karga arindu zerakun.
Zeren bertzela, baldin manamenduak eman ezpalerauzkigu, guztiak manamendu
izanen baitziren.

Beraz, arrazoinekin erraiten du: *Iugum meum suave est, et onus meum leve.*
«Ene uztarria leun, plazent eta aisit da, eta ene karga ere arin»: zeren hala baita. Eta
10 are karga delarik, karga arintgarri eta gutigarri baita.

Eta hala, segur da parabisuko bidea, behar den bidean hartzen duenarentzat,
plaun dela, erraz, plazent eta atsegin.

KAP. L

322 Hunen aitzineko kapituluan eman diren arrazoinen arauaz, ageri da Jainkoaren lege sailaren karga, karga arina dela, eta jasaiteko erraza. Ordea karga da, eta karga denaz geroz, segur da zenbait neke eta trabailu baduela; nola, halaber, ifernuko bidea dadukanak edireiten baitu zenbait atsegin eta plazer. Orai da, bada, kontua eta pontua, ea zeinek duen atsegin eta plazer, edo trabailu gehiago, parabisuko bidean ala ifernukoan dabilanak. Eta gauza segura da, ifernuko bidean dabilanak trabailu gehiago duela, karga pisuagoa darabilala; halako moldez, ezen karga hura ezin jasanez, erraiten baitzuen profeta Dabitek: *Iniquitates meae supergressae sunt caput meum; et sicut onus grave gravatae sunt super me* (Psalm. 32). «Ene bekhatuek iragan eta erdiratu dute ene burua, eta karga sortha pisu batek bezala, aurizki eta zapatu naute naizen guztia». Eta halatan, erraiten deraue Jainkoak halako kargarekin dabiltzanei: *Venite ad me, omnes qui laboratis et onerati estis, et ego reficiam* <500> *vos* (Matth. 11). «Zatozte enegana trabailatzen zaretzen guztiok eta kargaturik zaudetenok, eta nik arinduko zaituztet; nik, karga pisu hori edekirik, karga arinago bat emanen deratzuet». *Tollam, quidem, sarcinas; sed inanes a sarcinis non dimittam. Tollam sarcinas malas, et imponam bonas* (August. *De verbis Domini* serm. 24, t. 10). «Edekiko deratzuet karga, baina karga gabe etzaituztet utziko. Edekiko deratzuet karga gaixtoa, eta emanen ona». Berthuteak, Jainkoaren zerbitzazteak, baditu bere nekeak eta trabailuak, eta bai bekhatuak ere bere atseginak eta plazerak.

Bada, berthutearen neke eta trabailu hek atseginago dira, bekhatuaren atseginak eta plazerak baino. Hala erraiten du San Agustinek: *Dulciores sunt lacrymae orantium, quam gaudia theatrorum* (August. in *Psalm. 127*, tom. 8). Eztiago eta gozoago dira orazinotan eta othoitzetan daudezinen nigarrak, komedietan, dantzetan eta munduko plazeretan dabiltzanen irriak baino.

277-13 *naizen guztia*: «...que explica, por elipsis o supresión, *naizena* ‘todo cuanto soy’, etc., que acabará, al renunciarse a la indicación de persona, en *dena* ‘todo’, de *den guztia*» (Mixelena 1974: 118).

323 Iklusiko duzu saindutto bat zokho batean nigarrez eta hatsbeherapenez, orazinotan dagoela; eta ikhusiko duzu, halaber, orazinoz eta debozinoz konturik egiten eztuen bat, bethiere jendartean, jokoan, dantzan eta atsegin hartzen dabilala. Bada, orai zuri idurituko zaitzu ezetz, baina zokhoan orazinotan dagoen hark, beroago eta
 5 alegerago du bere baithan barrena bere gogoa, munduko <501> atseginetan dabilanak baino. Zeren Jainkoak bere garaziaz eta faboreaz debozinoan dagoenaren nigarrrak gozaten eta zaphoratzen baititu; eta berak ere nigar hetan ondore on bat edireiten baitu. Halakoagatik erraiten du San Agustinek: *Semper doleat, et de dolore gaudeat* (August. *De vera et falsa poenitentia*, cap. 13 in fine t. 4). «Beu bethi dolore, eta doloreaz gozo eta zaphore».

Ikhusten duzunean presuna bat bere bekhatuen dolore hutsez nigarrez dagoela, uste duzu ezen presuna hura triste dela, baina enganutzen zara: zeren alegera da, eta alegeraz nigar hek egiteintu. Zeren San Ambrosiok dioen bezala, *Non solum dolor lachrymas habet; habet et laetitia lachrymas* (Ambros. *De obitu fratris* orat. 4, tom.
 15 5), eztira, ez, nigar guztiak doloretik heldu; badira alegriantzatik heldu direnak ere. Presuna justuen hatsbeherapenak, orazinotan eta penitentiarian daudenen nigarrak, alegriantzatik heldu dira. Nigar hek, arrosak dira elhorrien artean. Egur hezeak egiten du gar eta egiten du nigar; sua datxeka eta ura dario. Hala bada, presuna justuak ere berthutezko obretan egiten du nigar, eta egiten du irri; badu trabailu eta
 20 konsolamendu, badu tristura eta alegriantza: kanpoan tristura, eta barrenean alegriantza. Eta barreneko alegriantza hark garaitzen du kanpoko tristura. Zeren tristura hura bere nahiz eta borondatez, eta bere probetxutan hartzen <502> baitu, eta haren ondoan alegriantza uste baitu.

324 Halakoagatik erraiten du Elizak ere: *In labore requies, in aestu temperies, in fletu solatium*. «Trabailuan pausua, beroan freskura, nigarrean konsolamendua». Halaber, halakoagatik erraiten du Dabid sainduak, *Labores manuum tuarum, quia manducabis* (*Psalms*. 127), bere eskuen trabailuak janen dituela. Trabailatzen denak, bere trabailuaz izaiten duen irabazia jaten ohi du, eta ez trabailua bera. Eta, alabaina, erraiten du errege Dabitek, presuna justuak trabailua bera ere jaten duela. Eta arrazoi-
 30 nekin erraiten du hala (Vide August. super hunc psalmum). Zeren justuak trabailu hartan ere, janhari gozo baten jatean bezanbat atsegin hartzen baitu. Giristino onak jaten ditu mundu hunetan bere trabailuak, eta bertze munduan trabailuaren irabaziak eta fruituak. Zeren trabailu hetan, barurtzean, orazinotan egoitean eta nigar egitean ere, epherki jatean baino atseginago hartzen baitu. *Fuerunt mihi lachrymae meae panes die ac nocte*, dio profetak (*Psalms*. 41). «Ene gauazko eta egunazko ogia, nigarrrak izan ziren. Ogiz asetzean bezanbat, atsegin hartzen nuen nigar egitean». *Gaudet iniquus in pompa, gaudet martyr in catena* (August. in *Psalms*. 137). Gaixtoak munduko banalorietan, ponperietan, bonbazietan eta handirasunetan hartzen du atsegin eta plazer; eta martirak, justuak, gartzelean, trabailuetan eta gathean. Eta martir hark

278-9 «Beu. Inperatiboko forma iragankorra (aditz azkarra [hau da, aditz trinkoa]). Ik. Lafon (1944: I, 515)» (Villasanteren oh.). Hots, 'izan beza'.

atseginago <503> hartzen du bere trabailuetan eta Jainkoagatik iragaiten dituen penetan, gaixtoak munduko plazeretan baino. Zeren San Agustinek dioen bezala, *Maiores est suavitas mentis quam ventris* (August. *De verbis Domini* serm. 28), handiagoa da arimaren konsolamendua eta bere gogara, gorputzarena baino, adimenduaren atsegina sabelarena baino, eta barreneko bozkarioa kanpokoa baino.

5

§ 1

325 Nola gaixtoek, munduko atseginetan, jan-edanean, jokoan eta bertze plazeretan dabilzanek, ezpaitute barurtzearen, orazinoaren eta bertze berthuten barreneko mamia, kanpoko azala baizen ikhusten, ezpaitute penitentzian eta penitentziazko obretan estalirik dagoen gozotasuna frogatzen, uste dute ezen penentziak ezuela batere ontasunik, atseginik, eta ez plazerik; eta, izaitekotz ere, bertze munduan izanen duela, eta ez hemen. Eta nola bertze mundukoa baita geroko, erraiten dute ezutela presenteko plazera geroko esperantzagatik utzi nahi. Eta erraiten dute hunela, zeren baitakusate ezen berthuteak, Jainkoaren lege sainduak, kanpoko iduria eta figura duela itsusi, latz eta gaitz. Eta handik kanpoko gaitzasan hark iziturik, utzten dute barreneko mamia, <504> eta hartzen dute kanpoko azala.

10

15

Emaztetara emana den batek, eztu uste emaztekin segitu gabe nehor bizi ahal ditekeiela. Baldin erran badiazozu badela anhitz segitzen ezteniek, eztu sinhesten. Zeren ezpaita bera egoiten.

Jokari bati, arnegari bati, edale bati edo halako bertze jende thailuei, iduritzen zaie ezen bizio hetan dela plazer guztia; eta berthuteak, Jainkoaren zerbitzatzeak, manamenduen konplitzeak, ezuela batere atseginik, eta ez plazerik, penarik eta atsekaberik baizen. Baina enganatzen dira, ezakitenak bezala mintzo dira. Eztute egundaino frogatu, ezute egundaino Jainkoa zerbitzatu, eta gero erraiten dute gaitz dela Jainkoaren zerbitzatzea; dastatu ezuten bianda arbuiatzen dute, ezakiten gauza kondentzen dute. Gaitz da itsuak koloren berri jakitea, gorri ala more den ezagutzea, hartan sententzia emaita. Saindu guztiek erran dute, eskiribuz ezarri dute, Jainkoaren uztarria plazer dela, haren lege saindua erraz dela; beraz, hek, nola berak frogatuak baitira, sinhetsiago behar dira, batere berririk jakin gabe bere plazerera mintzo direnak baino. Eztu egundaino nehor Jainkoaren lege saindua eskuztatu eta frogatu, non ezpaitu mila ontasun eta laudorio lege hartzaz erran eta kontatu.

20

25

30

<505> Deabruak emaiten derauzte bere jendei bere atsegin eta plazer moldeak. Zer bada, Jainkoa izanen da hain idor eta on-edeki, non utziko baititu bere adiskideak eta zerbitzariak atseginasun mokho bat ere gabe? Zein parte estimatzen duzu hobe, Jainkoarena ala deabruarena? Baldin ba, Jainkoarena! Beraz, Jainkoaren atseginak eta plazerak ere hobeagoak eta handiagoak izanen dira deabruarenak baino.

35

Eta ez naiz, ez, mintzo bertze mundukoaz: hangoaz ezta dudarik. Zeren segur da han gaixtoak izanen direla sekulakotzat penatuak, eta onak golardoatuak eta lorifikatuak. Baina mintzo naiz mundu hunetakoaz. Eta diot ezen, are mundu hunetan ere, giristino onek, Jainkoaren partea dadukatenek, atsegin eta plazer gehiago gozaten dutela, giristino gaixto deabruaren parte segitzen dutenek baino.

40

5 **326** Egia haur eman zerauen aditzera Jainkoak berak, hartaz arrenkuratzen ziren jende batzuei, erraiten zerauela: *Convertimini, et videbitis quid sit inter iustum et impium, et inter servientem Deo et non servientem ei* (Malach. 5). «Konberti zaitezte, bide onean jar zaitezte, eta ikhusiko duzue zer diferentzia den onaren eta gaixtoaren, Jainkoa zerbitzatzen duenaren eta zerbitzatzen ez duenaren artean». Erran baileraue bezala: <506> Bertze munduko begira egon gabe, anarteraino iguriki gabe, konbertitzen zareten pontuan, ezagutuko duzue onaren eta gaixtoaren arteko diferentzia, bataren alegriantza eta bertzearen tristura, bataren bakea eta bertzearen gerla, bataren atsegina eta bertzearen atsekabea, bataren arraitasuna eta bertzearen goibeltasuna. Finean, ezagutuko duzue, eta esperientziaz frogatuko, zein handia den onek gaixtoen gainetik duten abantaila, eta nola diren onak, are mundu hunetan ere, gaixtoek uste duten baino aiseago eta bere gogarago.

15 Egun batez galdegin zeraukaten Apostoluek bere Nabusiari: *Ecce nos reliquimus omnia, et sequuti sumus te; quid ergo erit nobis?* (Marc. 10). «Jauna, guk utzi ditugu ditugun on guztiak zure amoreakgatik, eta jarraiki gatzaizkitzu; zer izanen da, bada, gutzaz edo guretzat?». Ihardetsi zerauen: *Amen dico vobis: nemo est qui reliquerit domum aut fratres aut sorores, aut patrem aut matrem propter me, aut propter Evangelium, qui non accipiet centies tantum in tempore hoc, et in saeculo futuro vitam aeternam.* «Egiaz erraiten deratzuet, segurutzen zaituztet, ezen nork ere utziko baitu enegatik eta ene ebanjelioagatik etxerik, anaiarik, arrebarik, aitarik edo amarik, errezibituko duela orai presenteko denbora hunetan, utziko duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan <507> bizitze eternala». Ikhusazu nola mintzo den mundu hunetako pagamenduaz eta bertze mundukoaz; eta nola, bat az eta bertzeaz diferentzia eginik, erraiten duen, Jainkoaren zerbitzatzegatik deus utzten duenari emanen zaikala, are mundu hunetan ere, utzten duenetik ehun gehiago, eta gero bertze munduan sekulako loria.

Beraz, hunelatan, badu Jainkoaren zerbitzatzek, bertze mundukoaz gainera, mundu hunetan ere zenbait golardoa, zenbait pagamendu, atsegin eta plazer.

§ 2

30 **327** Erranen du zenbaitek: Nolatan ahal dateke orainokoan erran duguna hala? Zeren ez tugu ikhusten ezen Jainkoak bere zerbitzariei, presuna justuei, mundu hunetan horrela gauza handirik emaiten derauela, ez kargurik, ez ohorerik, ez aberatstasunik, eta ez munduko bertze gauzarik. Aitzitik, anhitzetan ere, hek dakuskigu direla probe, eritoki eta munduko arauaz onbehar. Nola aditzen da, beraz, emanen zaiela, are mundu hunetan

35 ere, utzten dutenetik ehun gehiago? Ezta gaitz ihardesten. Aditzen da Jainkoak bere zerbitzariei halako donuak eta aberatstasun espiritualak emaiten derauztela bere baithan barrena, non hek baitira ehunetan ere <508> handiago eta baliosago, mundu hunetako atsegin, plazer eta onhasun korporal guztiak elkarri iratxekirik baino.

40 Jainkoaren atseginak eta plazerak, gehienik ariman barrena dira. Eta barreneko atsegin hek garaitzen dituzte kanpoko atsekabeak, eta bai gorputzaren plazerak ere. *Omnes sancti adiuvantur a Deo; sed intus, ubi nemo videt*, dio San Agustinek

(August. in *Psalms*. 53). Saindu guztiak dira Jainkoz lagunduak eta faboratuak. Ordea, non? Barrenean, nehork ikhusten ez tuen lekhuana.

Baldin utzten badituztu kanpoko plazerak, gorputzarenak, emanen zaizkitzu barrenekoak, arimarenak, izanen baitira ehunetan gorputzarenak baino handiagoak, ez-tiagoak eta abantailatuagoak. Eta baldin gorputzarenak utzirik, dasta bazinitza arimarenak, higuin lekidisketzu berehala gorputzarenak. Handik harat, lehen on eta gozo zeizkitzun atseginak eta plazerak, etzinituzke ikhusi ere nahi, eta ez aipatu. Zeren orduan halako moldez argi lekidikezu zeure adimendua eta alda leheneko gogoia, non gauza guztiek lehen ez bezalako kolore bat, iduri bat eta zaphore bat har bailezakete.

328 Jainkoaren zerbitzariak badirudite kanpotik probe, eztheus, plazer gabe, hil hurranak. Ordea, Jondone Paulok dioen bezala, barrenean darabilate gorderik bideztea, zein baita Jesu Kristo. *Mortui, enim, estis, et vita vestra <509> abscondita est cum Christo in Deo (ad Coll. 3)*. Eta nola Jesu Kristok berak baitzedukan bere dibinitatea eta jainkotasuna barrenean estalia, eta kanpoan baitzirudien ttipi eta probe, hala haren zerbitzariak ere, bere Jaunari jarraitzen zaitzala, dirudite kanpoan deus guti eta triste, baina barrenean dira alegera eta konsolamenduz betheak. *Quam magna multitudo dulcedinis, quam abscondisti timentibus te (Psalm. 3)*. A, zein handia den Jainkoak giristino beldur zaizkonentzat gorderik eta estalirik dadukan eztitasunaren multzutasuna! Hain da handia, ezen frogatu duenak baizen ezin jakin baitezake nolako den. Halatan erraiten du errege Dabitek: *Gustate et videte, quoniam suavis est Dominus (Psalm. 33)*. «Dasta ezazue, froga ezazue, zeren ezta Jainkoa dirudien bezain latz eta gaitz. Orainokoa deabruaren zerbitzuan bezala, enplega zaite hemendik aitzina Jainkoarenean, eta orduan ikhusiko duzu, eta esperientziaz frogatuko, zein gozo, zein ezti, zein atsegin eta plazent den Jainkoa». Nola berthuteak, prestutasunak eta giristino on izaiteak baithakarke berekin, bere baithan barrena, bozkario bat, alegriantza bat eta kontentamendu handi bat, hala bekhatuak eta bekhatutan ibiltzeak ere dakharke berekin desplazatzer bat, atsekabe handi bat; hain handia non, baldin ifernurik ezpaliz ere, zeren bekhatua bera bere baithan baita hain itsusi, <510> eta bera bere buruarenzat penagarri eta gatzigu, hargatik beragatik ere behar baikenduke bekhatu egitetik begiratu.

Iokari batek, nahiz hari dadila dostetan ez tuen batere irabazteaz probetxurik eta ez galtzeaz kalterik, guztiarekin ere, atsegin hartzen du irabazteaz, eta damu galtzeaz. Zeren irabaztea bere egitez baita plazer, eta galtzea desplazatzer. Hala bada, prestu izaiteak ere, parabisurik ezpaliz ere, badu bere baithan barrena bere atsegina eta plazera, eta bai gaixto izaiteak ere, halaber, ifernurik ezpaliz ere, bere desplazera eta atsekabea.

§ 3

329 Batzuei iduritzen zaie ezen bekhatua gozo dela, plazentziaz bethea dela; baina enganatzen dira. Zeren, batatz, plazentzia hura ezta plazentzia, baina da enganamendu; eta enganamendu hura ere ezta, ez, bekhatuarena, eta ez bekhatu-

281-37 Zeren, batatz...: «Bigarren mienbroa (eta berri bertzera...) ez da nehon ageri» (Villasanteren oh.).

5 tik sortzen dena, baina da bekhatorearena, bekhatorea beraganik eta bekhatuaren eragile deabruaganik heldu dena. Orak, bidean edireiten duen hezur idorra gozoki erabiltzen du ahoan, ez zeren hezur hark duen berekin mamirik edo urinik, baina zeren, erabili hutsez, orari berari ahotik odola jarieten baitzaika, eta
 10 gero odol harekin batean hezur idor hura on, gozo eta ezti iduritzen baitzaika. Hala bada, bekhatoreari <511> ere iduritzen zaika bere bekhatu idorra on, gozo eta heze, ez zeren bekhatuak berak bere baithan duen ontasunik edo gozotasunik, baina zeren bekhatoreak baitaduka bere gogoia, bere gutizia eta desira guztia bekhatu hartan ibenia; eta desira hark emaiten baitio bekhatuari gozo eta
 15 zaphore.

Egun batez Israeleko jendeak hain zuen egartsu idorra eta edateko desira handia, non Jainkoak heken premia ikhusirik, eman baitzerauen, harri-muger batetarik atherarik, ithur-ur fresko bat. Eta gero, hartarik edan zutenean, erran zuten ur hura etzela, ez, ura, baina ura baino hobea, munduko arno guztiak baino gozoago, ez-
 20 tiaren pare zela. *Ut suggeret mel de petra (Deut. 32)*. Eta zerk eman zioen ur hari eztitasun hura? Heken gutuziak, heken desirak eta egartsuak; zeren, gainerakoan, bertze ur bat bezala zen ur hura ere. Hala bada, emaiten dio bekhatuari ere bere gozotasuna gure gogoak, gure desirak eta deabruak. Eztu bekhatuak berak bere baithan itxurapenezko eta enganamenduzko gozotasunik baizen.

20 **330** Eta deabruak bekhatuari emaiten dioen enganamenduzko gozotasun hura ere, bortxaz emaiten dio, eta ez borondatez. Baldin bertzela eragin albaleza bekhatua, ez lemaka munduan den plazerik ttipiena ere. Arrantzaleak egotzten du amua urera beitarekin, zenbait jateko eta bazkarekin; eta ez, ez arrainaren <512> urrikariz, ez hari jatera eman nahiz, baina zeren bertzela ezin engana baitezake, eta ez atzeman.
 25 Hala bada, deabruak ere emaiten dio bekhatuari zenbait atsegin eta plazer, zenbait bazka eta gozotasun, ez eman nahiz, ez atsegin sari, baina zeren bertzela ezin engana baitezake bekhatorea, eta ez atrapa.

Eta deabruak bekhatuari emaiten dioen enganamenduzko gozotasun hark ere, denak ere, deus guti irauten du, baina ondoko penak eta atsekabeak anhitz.
 30 Bekhatuaren plazeraz mintzo dela, erraiten du Sofar Joben adiskide hark: *Hoc scio a principio, ex quo homo positus est super terram, quod laus impiorum brevis sit, et gaudium hypocritae ad instar puncti (Job. 10)*. «Munduaren hastetik huneraino, jendeak jende direnaz geroztik, badakit puntu haur: gaixtoen laudorioa labur dela, eta hipokriten alegriantza are laburrago, puntu bat bezala». Bekhatorea deitzen da
 35 hipokrita. Zeren hipokritaren saindutasuna bezala baita bekhatorearen atsegina eta

282-4 *jarieten*: «*Iarien*. Hunela behar du partizipioa aditz hunek, ez AxH-n ageri den bezala [hau da, *iarietu*]. Hiztegi hunetan s.v. *irion* badira jasoak *irion*-i ez, baina *iarien* huni dagozkion etsenpluak» (Villasanteren oh.). **jarien* partizipioa lekukotu gabe dago: ikus orain *OEH* (s.v. *jario*) aditz honen forma jokatu gabeen aldaera ugaritxoetz.

282-13 *ithur-ur*: «Konposizioan, lehen hitzak hiru silaba dituenean, sarritan galtzen du hirugarrena: *behar-ondoko* [139-2], *itsas zabal* [328-5], *burdin gori* [167-17]...» (Villasanteren oh.).

plazera ere. Nola hipokritak kanpotik baitirudi saindu eta debot, ordea, barrenean baita gaixto eta maliziati, hala bekhatoreak ere kanpotik dirudi alegera, kontent, atseginez eta plazerez bethea; ordea, barrenean triste da, goibel eta ilhun.

<513>

§ 4

331 Gaixtakerian dabilanak, guztiak ongi kontatzera, segur da are mundu hunetan 5
ere atsegin baino atsekabe gehiago iragaiten duela. Ohoin batek zenbat trabailu iragan
behar du, bere ohoinkeriaren egiteko? Etsaigoan dabilanak zenbat ikhara, zenbat
bihotz-ukhaldi errezibitu behar du, bere etsaiaz mendekatzeko? Enganatzaile batek,
zenbat pensu eta itzulinguru egin behar du, bere enganamenduaren baliatzeko?
Gezurtiak zenbat gezur, zenbat hitz eder saldu behar du, bere gezurraren edertzatzeko, 10
estaltzeko eta egiazat bulkhatzeko? Bethiere bezala, hemen ere ederki erraiten du San
Krisostomok: *Quemadmodum, enim, deformia corpora multis artificii et indumentis
indigent, quae naturae deformitatem contegant; quae, autem, natura pulchra sunt,
ipsa per se, etsi nihil extrinsecus deveniat, resplendeant; ita etiam in virtute et vitio, in
veritate et mendacio, invenire possumus* (Chrys. in Ps. 26, t. 1). Presuna ederrak, gorpuz- 15
tza bere eskuko eta ongi egina duenak, eztu kanpoko edergarriren beharrik, zeren bera
baita bere baithan eder asko. Baina itsusiak, marketsak, behar du anhitz estalki, anhitz
bernizadura eta aphaindura, eta hekin guztiekin ere, etxean legoke ederkienik. <514>
Hala da, bada, berthutearen eta bizioaren, egiaren eta gezurraren artean ere. Egiak,
berthuteak, eztu edergarriren beharrik, bera da eder asko. Gezurrak bai, hark anhitz 20
estalki behar du, eta edergarri; eta, halarik ere, ezta behin ere asko edertzen, eta ez
estaltzen. Baldin gezurtiak bere gezurra egiazat iraganen eta salduko badu, penatu
behar du; batari eta bertzeari zer ihardetsiko dioen, aitzinetik pensatua eduki behar du,
gogonduri on behar du, akhorduan eta memorioan egon behar du. *Mendacem oportet
esse memorem*. Zeren erran komuna da, gezurrak zainak labur dituela. 25

Zer erranen dugu, bada, emazte baten ondoan dabilanaz? Harekin hartzen den
atsegin hura, guztiak ongi kontatzera, atsegin othe da, ala atsekabe? Iklusiko duzu
gizon gazte bat eta, batzutan, are gaixtoago baita, zenbait zahar ere bai, gauak gal-
durik, onak gastaturik, gorputza deseginik, bere ohorea eta eginbidea gibelat utzirik,
emazte bati darraikala. Eta, berriz, ikklusiko duzu, halaber, bertze bat, emaztez kontu 30
guti eginik dabilan bat. Orai, bada, hetarik bietarik, zein othe da aiseago eta bere
gogarago? Zeinek iragaiten othe ditu gau-egunak geldiago eta malenkonia gutireki-
nago? Ezta zer galdeginik. Zeurk aithortuko duzu, mundu hunetan izatu ditutzun
inkontru gaitz guztiak, edo behintzat <515> gehienak, aldez edo moldez, emazte- 35
tako bekhatuakgatik izan ditutzula. Eta, baldin egia erran nahi baduzu, bekhatu
hetan plazer baino desplazer gehiago iragan duzula. Eta hala da, bere arauaz, bertze
bekhatu suerte guztietan ere.

283-18 *etxean legoke ederkienik*: «Hau ere latinezko testu baten itzulpenean dator. Testu horren muina hartuz, gauza bere erara eta bere gisa esaten du Axularrek» (Villasanteren oh.).

332 Ezta gaixtatasuna baino gauza trabailutsuagorik, eta ez hartako trabailua baino
 trabailu galduagorik. Zeren ezta trabailu hartarik, kalterik eta desohorerik baizen,
 bertze fruiturik biltzen. Halatan galdegin zerauen Jondone Paulok bekhatutan ibili
 ziren jende batzuei: *Quem fructum habuistis tunc in illis in quibus nunc erubescitis?*
 5 (Prov. 6). «Zer fruitu, zer irabazi izan zenduten orduan, orai aiphatzera ere, ahalke
 zaretan bekhatu hetan?».

Bekhatuaren gaztigu handietarik bat da ahalkea. Hartzen duzu deabrua zeure
 nabusi, eta ahalke zara haren muthil zarella erraitera. Gaixto zara; ordea, eztuzu nahi
 gaixto dei zaitzaten. Zeurk egin duzun bekhatua, eztuzu zeurk aiphatu nahi, deso-
 10 hore zaitzu hartzaz minzatzea.

Urrikalkizun dira, onbehar dira gaixtoak. Zeren hetzaz heken adiskideak ere,
 agerriz ezpada ere, kapapetik bedere gaizki mintzo baitira. Baina onez eta prestuez
 guztiek, are etsaiek ere, bere bihotzetan barrena bedere, ongi erraiten dute.

Ordea, guztiarekin ere, halarik ere, bere <516> ahalke, desohore eta trabailu
 15 guztiarekin ere, nahiago dute gaixtoek kontrako bidean trabailaturik ibili, bide onean
 eta arthezean trabailatu gabe baino.

Anhitz gauza egin ahal diteke Jainkoaren zerbitzuan trabailu gutirekin. Zeren,
 zer trabailu da egiaz minzatzea? Falso testimoniorik ez erauzte? Juramenturik ez
 egitea? Giristino lagunari barkhatzea? Baina bertzela egitean bada pena eta trabailu.
 20 Zeren gezurrak, falso testimonioak, juramentuak eta etsaiez mendekatzeak ere,
 anhitz okhasino eta egiteko pitzten ohi dute. Eta, alabaina, haur da egitekoa: nahiago
 dugu ifernutik ifernura joan, ezen ez parabisutik parabisura. Manamenduen konpli-
 tzeko eta begiratzeko eztugu nekhatu behar, ez behintzat hautsteko bezanbat, eta
 halarik ere, nekhaturik eta trabailaturik ere, nahiago dugu ifernura joan, trabailurik
 25 gabe parabisura baino.

Etzuen behin gaizki erran saindu batek, anhitzetan ere ifernura joaitako har-
 tzen dugun trabailuaren erdia, erdiets genezakeiela parabisua. Halaber, saindu hark
 berak, ikhusirik ezen neskato bat, kopetaren edertzeko, xerloak goiti thiraturik pena-
 tzen zela, eta gerriaren ere lerdentzeko bortitzki hersten zela, erran zuen: «Bidegabe
 30 eginen dio Jainkoak neskato huni, baldin hunenbat <517> pena eta trabailugatik,
 emaiten ezpadio ifernua» (In *vita Thomae Mori*, cap. 21). Zeren nola jende batzuk
 penatzen eta trabailatzen baitira parabisura joaitako, hala bertze batzuk are pena-
 tzenago eta trabailatzenago dira ifernuaren erdiesteko.

Eta ifernuko pena hura etzaie pena iduritzen, eztute hura sentitzen; baina bai
 35 parabisukoa, hura sentitzen dute, hura xoil zaie gaitzi, hartan fite unhatzen dira.
 Amorantian, ohoinkerian, jokoan, gau-egunak aise eta guti sentiturik ira-
 gaiteintutzu, hartako etzara eri, hartako baduzu indar. Baina barurtzeko, ora-
 zinotan egoiteko, erien bisitatzera joaitako, flako zara, eri zara, buruan min duzu.
 Jainkoagatik den penarik ttipiena errezibitzen duzunean, berehala arrenkura-
 40 tzen zara; baina deabruagatik, gau-aireak, hotzak eta beroak ere, ixil paira-
 tzeintuzu.

333 Ikhusiko duzu emazte gaixto bat, hasten dela oihuz, heia goraz, deihadarrez eta atzapartaz, zeren bere senharrak, soberaniak gainez eginik, behar-ondoko bat eman dioen. Baina bere amoranteak, bere plazereko dadukan gizon gaixto batek, burua hauts badiazo ere, ixil pairatzen du; eroririk edo bertzela hartu duela edertzatzen du. Senharraren kolpe ttipiaz arrenkuratzen da, eta ez amorantearen handiaz: 5 kontrara dabila. Hala gabiltza, bada, gu ere kontrara, eta arrenkuratzen gara Jainkoaren zerbitzuan <518> iragaiten ditugun trabailu aphurrez, barurtze batez, eta ez deabruarenean pairatzen ditugun pena handiez: hek eztira deus, hek eztitugu sentitzen. Zeren San Krisostomok dioen bezala, deabrua jasaiten laguntzen baitzaiku: *Laborant peccatores, quamvis, adiutorio diaboli, laborem non sentiant* 10 (Chrysost. *Hom.* 29, tom. 2). Baina ethorriko da denbora deabruak laguntzarik eginen ezterakuna, eta ifernuko bidean iragaiten diren trabailuak eta jasaiten diren kargak ere, zein handiak eta pisuak diren frogatuko duguna. Zur bat, handiago eta pisuago bada ere, hosin handian erraxki manaiatzen da, arintki eta guti sentiturik alde batera eta bertzera itzultzen eta erabiltzen da. Baina ur bazterrean, leihorrean, 15 ezin higi dezakezu; han da ageri, han jakiten eta frogatzen da zein pisu den. Hala bada, halaber, bizitzearen bazterrean, akhabatzean, heriotzean ageriko da, han jakinena eta frogatuko da nolakoa den bekhatua, eta bekhatuaren karga eta pisutasuna, eta zein handia deabruaren zerbitzuan, ifernuko bidean, iragaiten den nekea eta trabailua. 20

§ 5

334 Nola Jainkoaren zerbitzatzeko bidea, gogotik dagoenarentzat, baita plaun eta zabal, ez luke nahi deabruak zabaltasun hari <519> beha giniazon; baina, zenbait mehartasun eta buruz gora ere baitu, hura nahi luke ikhus genezan. Eta, berriz, bertze aldera, nola deabruaren zerbitzatzekak baitu anhitz trabailu, ez luke nahi deabruak genegien trabailu hetzaz konturik; baina, atsegin ere zenbait baitu, hura nahi luke bethi geure gogoan eta begien aitzinean eduki genezan. Hala juduak Egiptoko gathibutasunetik iltkirik, libre eta bere gogara, zeruko janhariz asetzen zirela zebiltzanean, zeren ethorri zeien haragi jateko gutizia bat, eta gutizia hura etzuten nahi bezain fite konplitzen, hasi ziren erraiten bihurtu nahi zutela Egiptora, bere leheneko gathibutasunera, zeren han porruz, tipulaz eta baratxuriz asetzen zirela. Etzuten 30 konsideratzen gathibutasun hartan iragaiten zuten bizitze gaixtoa, baina bai eskuen artean zuten eskasia aphurra edo desira desordenatua; eta halatan, bere leheneko tokira eta miseriara bihurtu nahi zuten. Zeren haur da deabruaren malizia, ibentzen deraku geure begien aitzinean bekhatuaren plazera, baina ez desplazera. Pintatzen 35 deraku berthutearen trabailua, baina ez irabazia.

Baldin berthutea eta bizioa, eta berthutearen eta bizioaren joan-ethorriak, onak eta gaitzak, iben baginitza bi balantzatan, eta konsidera behar lizen moldean, ez tute uste ediren <520> litekeiela munduan bekhatu leidikeienik.

285-26 *genegien*: egin genezan (Lekuonaren oh.).

Erranen duzu baduela berthuteak, Jainkoaren zerbitzatzeak, zenbait pena eta trabailu; eta bai bekhatuak eta bekhatutan ibiltzeak ere atsegin eta plazer; beraz, hobe dela bekhatuaren plazera, berthutearen desplazera baino. Ez horrelakorik. Zeren, San Agustinek dioen bezala: *Nec per latam viam diu gaudetur, nec per asperam et angustam longo tempore laboratur. Quia et isti per brevem tristitiam accipiunt vitam aeternam, et illi per parvum gaudium patiuntur sine fine supplicium* (Aug. *Serm. 55 de tempore*, to. 10). «Berthutearen nekeak eta trabailuak labur dira, eta bai bekhatuaren atseginak eta plazerak ere. Ordea, berthutearen trabailu laburrak ondotik du loria luzea eta sekulakoa, eta bai bekhatuaren atsegin aphurra ere gaztigu handia eta fingabekoa». Beraz, hobe da berthutearen desplazera, bekhatuaren plazera baino.

335 Nola penatan eta trabailutan denak, baldin gero ondoan irabazi handi bat edo kargu ohorezko bat uste badu, ezpaititu pena eta trabailu hek guztiak deus sentitzen, hala atseginetan eta plazeretan dabilanak ere, baldin plazer heken ondoan senti badu gaztigu handi bat harentzat prestatua dagoela, ezta posible atsegin hetan atsegin osorik har ahal dezakeien. Aitzitik, orduan atsegina atsekabe bihurtzen zaika.

<521> Gizon batek, urkhabera daramatenean, janhari onak eta edari hobeak izanagatik, eta urkhabeko bidea ere bide ederra, plauna, plazenta, zuhaitz berdez, itzalez eta plazerez bethea ikhusiagatik, zer plazer ahal duke hetan guztietan? Badirudi erraiten dioela halakoari San Agustinek: *Noli attendere qua iturus es, sed quo iturus es* (August. in *Psalms*. 36, tom. 3). «Eztezazula beha nondik iragan behar duzun, baina beha ezazu nora behar duzun». Eztiazozula beha urkhabeko bide ederrari, baina beha iazozu urkhabeari berari, baratu behar duzun lekhuari.

Hala bada, zuk ere bekhatu baten egitera zoazinean, eztiazozula beha bekhatuaren egitean hartzen duzun atseginari, baina beha iozozu atsegin haren ondoko ondoreari, atsegin hark eramaiten zaituen lekhuari eta emanen deratzun atsekabeari.

Bekhatu baten egitera dohanak, konsidera baleza zenbat pena eta atsekabe iragan behar duen bekhatu haren egitean eta egin ondoan, zer gozo, zer zaphore, zer atsegin eta plazer har ahal liazaio bekhatuari?

336 Berthuteak, Jainkoaren zerbitzatzeak, prestuki bizitzeak, ondore ona du, eta zerbait trabailu badu ere, du aphurra eta laburra; eta labur hura ere arintzen, gutitzen eta gozatzen du ondoreko irabaziaren eta plazentziaren segurantzak, gogotik, amorioz eta borondatez egoiteak eta, guztien gaintetik, Jainkoaren <522> laguntzak eta faboreak. Baina bekhatuetan eta bekhatuzko plazeretan eta obretan gauza hauk guztiok dira kontrara: hetan plazera da ttipi eta labur, eta ondoko desplazera handi, luze, eterno eta sekulako.

Eta hala, arrazoin hauk guztiok ongi konsideraturik, batbedera bere balanzan ibenirik, segur da parabisuko bidea errazago dela, ifernukoa baino; eta ifernuratzten denak pena eta trabailu gehiago iragan behar duela ifernuratzeko, ezen ez parabisuratzten denak parabisuratzeko.

Beraz, hunelatan, parabisutik parabisura, bizitze on batetarik hobeagora joiteagatik ere, behar genduke egun beretik, geroko begira egon gabe, Jainkoaren lege saildua, hain uztarri emea eta karga arina, geure gogo eta bihotz guztiaz hautatu, besarkatu eta, halatan, gero urrikirik eztukegun bezala bizitzera enseiatu.



<523>

Nola ezten kofesatzea gerotik gerora luzatu behar

KAP. LI

337 Baldin skritura saindua ongi irakur eta konsidera badezagu, edirenen dugu ez-tela egundaino nehor salbatu, eta ez salbatuko ere, aldez edo moldez kofesatu gabe.

Egundainoz geroz, lege guztietan eta mende guztietan usatu da eta usatzen da kofesatzea. Diferentki, ordea, ez berdin. Lege naturaleko kofesatzea, oraiko kofesatzearen itzala bezala zen. Ordukoa zen oraikoaren seinale bat, figura bat, pintura bat eta signifikantza bat. Lege naturalean asko zen bihotzezko urrikimendu batekin, eta batbederari bere gogoak bere baithan barrena ziotsan kanpoko zenbait seinalerekin, kontu egizu begi ailtxatze batekin edo belhaurikatze batekin, Jainkoari berari kofesatzea eta barkhamendu eskatzea.

Deitu zuen Jainko Jaunak Adan, eta galdegin zuen ea non zen: *Vocavit Dominus Deus Adam, et dixit: «Ubi es?»*. Eta galdegite <524> hura etzuen, ez, egin jakin gabez, baina halatan bere bekhatua ezagun zezan, eta ezaguturik kofesa zezan amoreakgatik. Eta zeren ezpaitzuen behar zen bidean kofesatu, baina desenkusatu eta edertzatu nahi izatu baitzuen, erraiten zuela ezen bere emazteak eragin zeraukala, halatan parte bat bedere, hanbat kalte eta damu errezibitu zuen. Molde berean edireiten da galdegin zioela Kaini ere, bere anaia Abel hil zuenean: *Ubi est Abel frater tuus?* «Non da zure anaia Abel?». Eta zergatik galdegin zeraukan hunela? Bere bekhatua gogora zezan eta gogorarik kofesa zezangatik. Eta zeren ezpaitzuen kofesatu, baina ukhatu baitzuen, halatan hain onbehar eta urrikalkizun egin zen, eta mundutik desterratua ibilirik, azkenean kondenatu zen. Bada, Adan eta Kain ere lege naturalean ziren, jendeak bere naturaleza-
ren arauaz, eskiribuzko kidaririk eta erakuslerik ere gabe, bizitzen ziren denboran.

Ordea, zeren naturalezak berak ere erakusten baitu behar dela arrazoinaren arauaz bizi, gaizki egitea utzirik, Jainkoarekin eduki eta hari bere faltak aithortu, halatan etzen lege naturalean ere zerbait moldez, gogoz eta bihotzez bedere, zerbait seinalerekin kofesatu gabe nehor salbatzen. Egia da, etzen oraino orduan kofesatzeko zirimonia seinalaturik. Hala <525> erraiten du San Tomasek: *Sicut in statu legis naturae homines nulla lege exterius data, sed solo interiori instinctu movebantur ad*

289-23 *kidarik: ala kidaririk?* Ik. 289-23 testu-oharra.

Deum colendum, ita etiam ex interiori instinctu determinabatur eis, quibus rebus sensibilibus ad Dei cultum uterentur (S. Thom. 3 p., q. 60, art. 3 ad 3). Asko zen barreneko urrikimendua, eta urrikimendu haren, batbederari bere baithan iduritzen zeikan kanpoko zenbait seinalerekin agertzea eta signifikatzea. Etzen oraino orduan
5 bertze kofesatze molderik, eta ez erremedio eskiribuz ezarririk eta ibenirik.

338 Baina gero, mundua aphur bat aitzinago iragan zenean, lege naturaletik iltki-rik, lege eskiribatura, Moisenen denborara heldu zenean, hasi zen usatzen bertze kofesatze molde bat. Etzen ja orduan asko batbederak bere barreneko damuaren eta dolorearen, plazer zuen seinalearekin kanpoan agertzea. Baina behar zuen barreneko
10 dolore hura eta urrikimendua, zenbait oferendaz eta sakrifizioz, eta ez, ez zeinetzaz nahi zen, baina hartako eskiribuz ordenaturik zeudezinez deklaratu eta eman aditzera. Baziren Lege Zahar eskiribatuan sazerdoteak eta Tenploko kargudunak. Eta presuna batek bekhatu bat egiten zuenean, behar zuen bekhatu huragatik, urriki-
15 mendu batekin eta gehiago ez egiteko borondatearekin, sazerdote heken <526> aitzinean egin zenbait oferenda eta sakrifizio, eta hartan eman aditzera bekhatore zela. Hala manatzen zen Lebitikoaren kapitulu batzuetan. Eta are hetan seinalatzen ziren bekhatauei zegozten oferendak eta sakrifizioak (Vide *Levit.*, cap. 3, 4, 5 et 6).

Etzen oraino orduan, orai den bezala, nehoi beregainki bere bekhatuaren kofesatze-
20 tzeke manurik, eta ez nola, noiz eta zenbat egin zituen erraiteko premiarik. Asko zen orduan, urrikimendu batekin, legeak manatzen zituen oferenden eta sakrifizioen egitea. Hura zen orduko kofesatze moldea. Errege Dabitek bertzeren emaztearekin bekhatu egin zuenean, eta bekhatu haren estaltzeagatik emazte haren senharra hil arazi zuenean, erraiten du Glosak haren gainean: *Ex verecundia enim non aperiebat peccata sua, faciendo pro eis sacrificia in lege praecepta, quae pro variis peccatis varie imponuntur* (*Glossa Lyrana* in *Psal.* 31). Errege Dabitek, ahalkez eta bere buruaren ez nabarbentzeagatik, utzten zituen egin gabe haren bekhatuenzat ordenaturik zeuden sakrifizioak. Eta etzituen behin ere egin, Natan profeta mehatxatzera eta eranzute egitera ethor zekidikaion arteino. Baina bai orduan, ahalkea benzuturik, egin zituen behar ziren oferendak eta sakrifizio guztiak; eta gero hekin batean
30 erdietsi zuen barkhamendu. Zeren orduan ere, Lege Zahar eskiribatuan ere, egin behar ziren bekhatuaren <527> erremediatzeko ordenaturik zeuden oferendak eta sakrifizioak; eta hura zen orduko kofesatze moldea.

§ 1

339 Orai lege berrion, ebanjelio saindua deklaratur gero, usatzen da giristinoen
35 artean bertze kofesatze molde bat, aphezaren aitzinean egiten dena. Lege naturalekoa eta eskiribatukoa baino seguragoa, indartsuagoa eta baliosagoa. Zeren hitz batez erraitera, oraike kofesatzean obratzen baitu Jesu Kristo Jaunaren heriotzeak eta pasioneak. Bekhatua kofesatzen duzunean eta aphezak absolbazinoa emaiten deratzunean, han da berehala Jesu Kristoren pasioneko meritua eta balioa; han da berehala haren garazia eta faborea, eta harekin batean bekhatuaren barkhamendua.
40

Bi arrazoin eman ahal ditezke prinzipalki, frogatzeko oraiko kofesatzeak indar gehiago duela, Lege Zaharrekoak baino. Lehenbizikoa: zeren oraiko kofesatzeak, Lege Zaharrekoak etzuen, badu bere baithan barrena indar, garazia emaitako. Lege Zaharreko kofesatzeak eta orduko bertze sakramenduek etzuten berek bere indarrez eta berthutez garaziarik emaiten; baina emaiten zuten garazia, emaiten zuten, errezi-
 bitzen zituenak <528> zuen dispoziioarean, debozinoaren eta aparailuaren arauaz. *Sacramenta Veteris Legis conferebant gratiam ex opere operantis*. Nola prestatzen baitziren errezi-
 bitzeko, hala errezi-
 bitzen zuten. Baina oraiko kofesatzeak eta sakra-
 mentuek emaiten dute gure dispoziioari eta prestatzeari dagokan garazia eta fabo-
 rea, eta are gehiago, sakramenduek berek bere baithan dutenetik ere errepartitzen
 dute; eta errezi-
 bitzen dugu guk ere parte hura, baldin gerok geure aldetik traburik
 ibentzen ezpadugu. *Sacramenta Novae Legis conferunt gratiam ex opere operato*.

340 Bigarren arrazoina eman ahal ditek, frogatzeko oraiko kofesatzeak indar ge-
 hiago duela Lege Zaharrekoak baino. Zeren orduko kofesatzean, baldin erdietsiko
 bazen barkhamendurik, behar zen dolore fin bat, bihotzeko urrikimendu bat, Jainkoa
 beragatik eta harenganako amorioagatik izana eta hartua, zein deitzen baita *contritio*,
 kontrizioea, urrikimendu guztien gaineko urrikimendua. Baina oraiko kofesatzean
 asko da, aphezaren absolbazinoarekin batean, kontrizioeaz bertze dolore molde bat,
 parabisuko loriaren galtzeko edo ifernuko penetara joaitako beldurtasunetik heldu
 dena, zein deitzen baita *atritio*, atrizioea. *Ex attrito per sacramentum fit contritus*.
 Asko da oraiko kofesatzean uste izaita baduela kontrizioea. <529> Zeren ezpadu ere
 atrizioea baizen, konplitzen du sakramenduak bitartean den falta eta eskastasuna;
 zein baita kon sideratzeko pontua eta salbatzeko fabore handia.

Hain handia, ezen arrazoinekin galdegiten baitu Jeremias Profetak: *Nunquid resina non est in Galaad? aut medicus non est ibi? Quare igitur non est obducta cicatrix filiae populi mei? (Jer. 8)*. «Zer da haur? Ez othe da arroxinarik edo atriaka-
 rik Galaadteko hirian, edo midikurik han berean? Nolatan, bada, ene herriko alaba-
 ren zauria ezta sendatu?». Erran nahi du: Gristino herrian, arimako eritasunaren
 sendatzeko hain erremedio handia eta midizina eskuarra den lekhuan, zein baita
 kofesioea; eta, halaber, hanbat barber eta midiku, zein baitira kofesorak; nolatan,
 guztiarekin ere, edireiten da hanbat zauri eta eritasun? hanbat bekhatu eta gaixtake-
 ria? Eta nolatan ez tira fitetzago sendatzen? Urthe guztian, eta batzutan gehiago ere,
 bekhatuaren eritasunean ustelduak eta khirastuak baitaude? Ihardesten du Glosak:
Populus nolebat audire medicum, nec eius recipere medicinam (Glos. Lyr. in cap. 8
Ierem.). «Eztira sendatzen, zeren ezpaitira enseiatzen; ezpaitira midikuagana
 konseilatzaera eta midizinarean errezi-
 bitzera joaiten». Erran nahi du, ezpaitira behar
 bezala kofesatzen, eta ez kofesoragana hurbiltzen.

341 <530> Arimako eritasunetik sendatzeko erremedioa da kofesatzea. Untzia
 galduz gero, zer erremedio izanen du marinelak salbatzeko? Zur puska bati lotzea,
 thaula baten edo ohol baten atrapatzea, eta harekin batean, hari datxekala, ieri kos-
 taren irabaztea. *Poenitentia est secunda post naufragium tabula*. Untzia galdu

5 ondoan atrapatzen den thaula haren pare da, bekhatutan erori eta tormentatu denarentzat, kofesatzea. *Si poenitentiam non egeritis, omnes simul peribitis*, dio San Lukas ebanjelistak (*Luc.* 13). «Baldin egiten ezpaduzue penitentzia, guztiok fin gaitz elkharrekin eginen duzue». Bada, penitenziaren partetarik bat da kofesatzea; beraz, ez fin gaitz egitekotz, behar da kofesatu.

10 Bekhatua da arimaren zauria eta handitsua. Eta handitsua irazten denean, eta kanporat lehertzen, esperantza da sendatuko dela. Baina barrenean gelditzen denean eta gogortzen, perilos da. Hala izanen da, bada, halaber, perilos, kofesatu gabe barrenean gelditzen eta gogortzen den bekhatua ere. Halatan galdegiten du, eta ihardesten ere bai, San Gregoriok: *Quid est peccatorum confessio, nisi quaedam vulneris ruptio? Et confitendo peccata, quid facimus, nisi malum quod intus latebat aperimus?* (Greg. *Hom. de divite et Laza.*). «Zer da bekhatuen kofesatzea, zauriaren edo handitsuaren lehertzea baizen? Eta zer egiten dugu bekhatuaren kofesatzeaz, barrenean <531> estalirik zegoen gaitzaren eta eritasunaren agertzea baizen?».

15 Bekhatutan eroriz gero, lehenbiziko erremedioa kofesatzea da. Zeren ezin dake kontrizionerik, eta ez behar den bertze urrikimendurik, kofesatu gabe; edo, ezin kofesa ditekeienean, kofesatzeko borondatea gabe. Hala erraiten du San Agustinek: *Initium operum bonorum, confessio est operum malorum* (*Aug. Tract. 32 in Ioan.*, t. 9). «Obra onen hastea, obra gaixtoen kofesatzea da».

20

§ 2

342 25 **Obra onen hastea baldin bada obra gaixtoen kofesatzea, kofesatze haur nola edo zer moldez egin behar othe da? Galdegiozu Jeremias profetari. Zeren hark Jerusalemeko hiriarren gainean egin zituen nigarren, auhenen eta dolamenen bigarren kapituluan erakusten du, erraiten duela: *Effunde cor tuum sicut aquam in conspectu Domini* (*Thren.* 2). «Isur ezazu zeure bihotza, ura bezala, Jainkoaren aitzinean».**

30 Erran nahi du: Lehen eginen urrikimenduarekin eta gehiago ez egiteko borondatearekin, Jainkoak bere lekhuian ibenirik dadukan kofesoraren aitzinean kofesa, egotz, afen eta isur ditzatzula, egin, erran eta pensatu dituzun bekhatu guztiak. Eztu erraiten <532> isur ditzatzula zeure bekhatuak oliao bezala, ezta bezala edo arnoa bezala. Nola, bada? *Sicut aquam*. Ura bezala. Zeren ezta janharirik, eta ez edaririk, ura bezain garbiki eta osoki hutsten, isurtzen eta xutkatzen denik. Ezta hutsten 35 duzunean, edo oliao, gelditzen zaika bethiere untziari zenbait hondar edo kutsu. Arnoa hutsten duzunean ere, ahal guztia xutkatuagatik, gelditzen da usaina bedere. Baina uretik ezta gelditzen kutsurik, eta ez usainik. Alde guztiz hutsten, xutkatzen eta garbitzen da. Hala bada, guk ere geure bekhatuak kofesatzen ditugunean, behar dugu geure gogoa eta bihotza intenzione gaixto guztietarik alde guztiz hutstu, xutkatu, garbitu; eta, halatan, ura egotu den untzia bezala, batere hondarrik, kutsurik eta bekhatuaren usainik eta urrinik gabe gelditu.

292-28 *afen*: Hapaxa, agian 'desegin, txikitu' (Mitzelena 1954a), **afendu*-tik beharbada (ik. Mitxelena 1974: 110 eta *OEH*, s.v. *afen*).

Ordea, hunela kofesatze haur, zenbatetan egin behar othe da? Asko othe da, geroko luzaturik, urthean behin kofesatzea?

Nola kofesatzeko manamendu haur Jainkoak berak emana baita, konplitu behar da, noiz izanen baita ere, noizbait. Eta hala heriotzeko orenean, edo dakusagunean utzten badugu eskuen artean dugun okhasinoa iragaitera ezkaitezkeiela sekulan kofesa, orduan Jainkoaren manuaren konplitzeagatik ere, behar dugu kofesatu. Ordea, zeren baitirudi <533> ezen kofesatzeko manamendu haur gure Jainkoak eman zuenean, izan zuela intenzione eta borondate kofesa gindezin zenbait aldiz, heriotzeko perilean ezkinenean ere, zeren kofesatzetik anhitz ontasun sortzen baita; halatan, Elizak eduki du bethiere puntu hunez kontu, eta ordenatu du diferentki, denboren diferentzien arauaz, noiz eta zenbatetan behar dugun, heriotzeko pontuan edo perilean ez egonagatik ere, kofesatu.

343 Lehenago, Apostoluen denboran, eta oraino Apostoluak hilez gero ere, lehen-bizi berri hartan, hain zen debozinoa handi eta bero, ezen egunoro gorputz saildua errezibitzen baitzuten, eta hartarakotzat, bekhatuik zutenak egunoro halaber kofesatzen baitziren. Ordea, nola gero, ondoan, debozinoa hotzten hasi baitzen, manatu zuen Fabiano Aita Sainduak, maizago izanen ezpazen ere, urthean hirurretan, bazkoz, mendekostez eta eguerriz kofesaturik, gorputz saildua errezebi genezala. Eta, azkenean, hain hotztu edo iraungi zen debozinoa, non Inozentzio izen hunetako hirurgarren Aita sailduak, manatu behar izatu baitzuen urthean behin bedere kofesa gindezila, eta errezibi gorputz saildua, bazko garizumakoz. Eta hala, orai, heriotzeko perilik ez izanagatik ere, obligatu gara urthean <534> behin kofesatzera. Eta urthean behin kofesatze haur egiten ohi da komunzki bazko garizumakoz. Zeren orduan errezibitu behar baita gorputz saildua, eta gorputz saildua errezibituko duenak, baldin badu bekhatuik, lehenik behar baitu kofesatu.

Ordea, nor izanen da urthean behin baizen kofesatuko eztena? Urthe batez osoki bere konzientzia bisitatu gabe eta nola dadukan auteman gabe pairatuko duena?

Erranen duzu: «Elizak ez nau manatzen, urthean behin baizen kofesa nadila, eta ni egiten naiz hainbertzetan; beraz, ez naiz gaitz erraiteko, gehiagotan ez eginagatik ere». Bada, ordea, gaitz erraiteko zara. Zeren egia da, etzaitu Elizak manatzen gehiagotan; ordea, etzaitu debekatzen ere. Aitzitik, nahi luke gehiagotan egin bazindezi. Eta halatan, erraiten du: *Saltem semel in anno*. «Urthean behin bedere». *Bedere* erraiten du, aditzera emaitteagatik nahi lukeiela gehiagotan ere egin bagindezi. Zeren anhitz eta handiak baitira maiz kofesatzetik heldu diren probetxuak eta irabaziak; eta bai, halaber, gutitan egitetik sortzen diren damuak eta kalteak ere. Hurreneko kapituluan ageriko den bezala.



<535>

Maiz kofesatzeaz, eta handik heldu den probetxuaz

KAP. LII

344 Nola anhitz presuna baita kofesatzera herabe duenik, nagi eta loti denik; halakoen iratzartzeko, nahi nuke kapitulu hunetan eman zenbait arrazoin, eta erakutsi, zenbat probetxu dakharkeien maiz kofesatzeak, eta kalte gutitan egiteak, hek kon- 5
sideraturik batbedera maiz kofesatzera eta bere eginbidearen egitera erna dadin amo-
reakgatik.

Lehenbiziko arrazoina. Maiz behar da kofesatu. Zeren kofesatzeak emaiten dio
bekhatutan dagoenari bere bekhatuen barkhamendua, garaziarik eztuenari garazia, 10
eta garazia duenari eta saildu denari berretzen dio, eta handitzen, bere leheneko
garazia eta saildutasuna.

Ordea, erranen du hemen zenbaitek: Nolatan ahal dateke hori horrela? Nolatan
kofesatzeak berret ahal dezake, eta handi, leheneko garazia eta saildutasuna? Zeren
kofesatzera heldu dena bekhatutan dago, zeren <536> hala ezpalego, ez luke zer kofe- 15
saturik. Beraz, etzuen lehen garaziarik, eta ez saildutasunik, eta baldin ezpazuen,
erran ahal diteke kofesatzeak emaiten duela garazia. Baina ezin erran diteke berre-
tzen duela. Bada, ordea, erran diteke berretzen duela, eta erran ere ongi eta egiazki.
Zeren anhitz ethortzen da kofesatzera bekhatu mortalik gabe, eta bekhatu mortalik
eztuena Jainkoaren garazian dago. Anhitz presuna prestu, anhitz jende debot eta 20
saildu edireiten da munduan, eta hek maiz kofesatzen dira. Zeren bekhatu mortalik
ez izanagatik ere, badute zenbait benial, eta benialak asko dira kofesatzeko. Eta nola
benialak asko baitira, eta baitakusate ezen, kofesatzeak, traburik eztenean, iratxe-
kitzen dioela bethiere zenbait gradu leheneko garaziari, halatan berretura hura eta
benialen ere barkhamendua erdietsi nahiz, kofesatzen dira hain maiz.

345 Eta ongi egiten dute hala egiteaz, zeren hain da gauza handia eta estima- 25
tzekoa, kofesatzeaz erdiesten den garazia edo garaziaren berretura, non hartarik den
gradurik ttipienak ere, mundu guztiak baino gehiago balio baitu; eta bertze mun-

295-2 «Kapitulu luzea, eta barrenean batere zatiketarik ez dakarrena» (Villasanteren oh.).

duan ere, hemendik garazia gehiago eramaiten duenari loria gehiago emanen baitzaika. Beraz, maiz behar da kofesatu.

5 Are gehiago, maiz behar da kofesatu. Bigarren arrazoina. Zeren maiz kofesatzeak <537> arintzen, gutitzen eta laburtzen du purgatorietako pena, eta pena hetan egon behar den denbora. Kofesatzen denari, kofesatzen den guztiaz, ongi kofesatzen bada, barkhatzen zaika, eta gutitzen, bere zor duen penatik parte bat. Eta hain maiz kofesa ahal diteke, eta hain ongi, non guztia pagaturik, hartzekodun ere gertha baititeke, lehenagoko saindu handi maiz kofesatzen ziren hek gerthatu ziren bezala.

10 Eta purgatorietako penen bortitztasuna konsideratzen duenak, eta han iragan behar diren pena hek maiz kofesatzeaz arintzen direla dakienak, segur da akhusatuko duela bere nagitasuna, eta egiten den baino maizago kofesatuko dela. Zeren mundu hunetako pena guztiak elkharri iratxekirik ere, ezpaitira deus, purgatorioetan den penarik ttipienarekin konparaturik. Beraz, maiz behar da kofesatu, eta kofesatzeaz pena heken iraungitzera eta gutitzera enseiatu.

15 Are gehiago, hirugarren arrazoina. Maiz behar da kofesatu. Zeren maiz kofesatzeak haserretzen du deabrua, eta are erhoturik eta zoraturik bezala, zer hari den eta zer egin eztekiela ibentzen du.

20 Bekhatuak kofesatu gabe denbora luzeaz bere baithan barrena gorderik eta estalirik dadutzana baithan, esku handia du deabruak, nabusi da harentzat. Baina egin eta berehala <538> agertzen eta kofesatzen dituenari, beldur zaika, gogan behar zaika, etzaika sobera fida.

346 Ikhesten duzunean ezen presuna bat dela erasle handi, minzatzaile, ahazabal, hitz-mitzti, elhaberriti eta salhati, eztiizu halakoari sekereturik fidatzen. Zeren Spiritu Sainduak dioen bezala: *Qui denudat arcana amici, fidem perdit (Eccles. 27)*.
25 Adiskidearen sekeretuak biluzten, agertzen eta salhatzen dituenak, galtzen du nehork haren baithan ahal dukeien sinhestea, eztu merezi nehor fida dakion. Hala bada, deabruak ere, dakusanean ezen, eragiten derauzkitzun bekhatuak —ixil eta sekeretu eduki bazinitza nahi bailuke— zuk berehala kanporatzen ditutzula, kofesorari erraiten eta agertzen derautzatzula, galtzen du zure baithan zuen sihestea eta
30 fidantzia. Ikhusirik ezen haren iduriz hitz-mitzti eta salhati zarela, utzten zaitu, etzaitu handik aitzina hanbatetan tentatzen, eta ez bekhatu egitera narritatzen. Zeren berdin baitakusa ezuela probetxurik; hark egiten duen guztia, zuk berehala kofesoraren aitzinean desegiten duzula.

35 Gutitan kofesatzen direnak dira deabruaren gogarakoak, hek dira haren zerbitzari finak eta leialak; hek dira haren sekretariak, haren bekhatu sekeretuak sekeretu denbora luzeaz edukitzen dituztenak.

<539> Bada, halako nabusi gaitxoaren sekretari eta zerbitzari ez izaiteagatik, hari damu egiteagatik, eta gure baithan ahal dukeien fidantzia ere galdurik utz gaitzangatik, behar da lehen baino lehen, behar da maiz kofesatu.

40 Are gehiago, laugarren arrazoina. Behar da maiz kofesatu. Zeren maiz kofesatzen dena baithan eztira bekathuak hala gogortzen, eta ez finkatzen, eztira hala erroztatzen, eta ez hain barrena sartzen.

Erranen duzu: Jende batzuk kofesatzen dira maiz, eta bai halaber maiz bere leheneko bekhatuetara bihurtzen; eror eta jaiki dabilta; garbitu bezain fite likitsten dira. Zer probetxu da, bada, halako kofesatzeaz, jaikitzeaz eta garbitzeaz? Zer probetxu den? Bada, bai, probetxu. Zeren baldin maiz erortzen badira, halaber maiz jaikitzen dira; baldin maiz egiten badute bekhatu, halaber maiz erremediatzen dute. Eta erremediatu duten bitarte hartan, jaikiak eta garbituak daudenean, dei ditzake Jainkoak, hil ditezke orduan, eta bai halaber halatan salba ere. Eta hala, batean eror eta bertzean jaiki dabilanak, peril badu ere galtzeko, ez ordea hanbat, nola bethiere eroririk datzanak. 5

347 Egia da, ordea: kofesatzen zarenean, behar duzu ez berriz bihurtzeko borondatearekin kofesatu. Baina hala kofesaturik ere, <540> zure libertatea eta flakotasuna dela kausa, bekhatu egitera berriz bihurtzen bazara ere, behar duzu, halaber, berriz kofesatzera bihurtu. Zeren halatan etzara hala bekhatutan gogortuko, eta ez ezansiatuko. 10

Maiz biluzten eta erabiltzen den ezpata, prest da, manukor da. Baina gutitan dabilana, zokhoan datzana, herdoiltzen da, maginarekin josten bezala da, gakhoaz dagoela erraiten da. Halako moldez non, gero, behartzen zarenean, ezin atheraz zabilzala, etsaiak zutzaz nahi duena egin baitezake. Hala gerthatzen zaika, bada, denbora luzeaz kofesatu gabe, bekhatutan herdoildua eta gogortua dagoenari ere. Ethortzen zaika eritasuna, hurbiltzen zaika heriotzea, batzen da etsaiarekin, eta gero, nola ezpaitago usatua eta ez prestatua, prestatzen den bitartean egiten du etsaiak hartzaz nahi duena. 15 20

Erraiten du errege profeta Dabitek: *Et meditatus sum nocte cum corde meo; et exercitabar et scopebam spiritum meum (Psalm. 76)*. «Gauaz egiten nituen neure buruarekin neure gogoetak eta kontuak, eta gero isatsaz iragaiten nuen neure konzientzia». Bada, nola isatsaz maiz iragaiten den etxea erraz baita garbitzen, zeren hark fits-mits eta likitskeria guti baitu; baina urthean behin baizen garbitzen eztena, neke baita eta gaitz, zeren hark herrautsa eta amaraua lodi baitu; hala, molde <541> berean, maiz kofesatzen dena erraz bezala, gutitan egiten dena ere da neke eta gaitz. Zeren hari denbora luzean anhitz likitskeria eta bekhatu lotzen baitzaika. Beraz, maiz behar da garbitu, maiz behar da kofesatu. 25

Are gehiago, borzgarren arrazoina. Maiz behar da kofesatu. Zeren bekhatu gabe zeneundenean egin zinituen obra onak, zein baitziren obra biziak, eta gero bekhatu egiteaz hildu eta iraungi bezala zirenak, kofesatzeaz pitzten eta koberatzen baitira. 30

348 Eta puntu hunen hobeki aditzeko, jakin behar duzue ezen, laur obra molde, laur obra suerte edireiten direla, orai gure kontuko ongi heldu direnak.

Lehenbizikoak dira *opera viva*, obra biziak, bekhatu gabe zeneundenean egin zinituen obra onak. Bigarrenak dira *opera mortifera*, obra hiltzaileak, arima hiltzen eta erhaiten dutenak, zein baitira bekhatu mortalak. 35

297-37 *erhaiten dutenak*: «hiltzen dutenak. Dirudienez, *erho* da aditz hunen partizipioa. Ikus Iraizoz (FLV 1972: 149)» (Villasanteren oh.).

Hirurgarrenak dira *opera mortificata*, obra hilduak, hildumatuak, lohakartuak. Zeren bekhatu mortal bat egiten duzunean, gelditzen dira lehen bekhatu gabe zeneundenean egin zinituen obra on guztiak hilduak, hebainduak, eta zeruko loriara zeramaten bidetik eta abiaduratik gibelatuak eta trabatuak. <542> Bada, obra hildu, 5 hebaindu, lohakartu eta trabatu hek, libratzen, pitzten, iratzartzen eta erraberritzen dira kofesatzeaz. Zeren kofesatzeak khentzen baitu heken aitzinean zegoen trabua, zein baita bekhatua.

Laugarren obrak dira *opera mortua*, obra hilak. Eta hauk dira bekhatu mortalean zaudela egiten dituzun obra onak. Bekhatutan zaudenean barurtzen zara, orazi-notan egoiten zara, erromerian ibiltzen zara, beharren alderakotzat miserikordios gerthatzen zara, eta anhitz bertze obra miserikordia kotan enplegatzen zara. Eta hauk guztiok, bere egitez eta izanez obra onak dira. Ordea, nola presuna hilak ezin baitaidike obra bizirik, eta zu orduan zeure ariman hila baitzaude, halatan zure orduko obra on hek ere dira hilak, eta deus guti balio dutenak. Eta hala, urrikalkizun da bekhatorea 15 bere alfer trabailuagatik ere. Zeren bekhatutan dagoenean, anhitz obra on egiten duelarik, zeren bekhatutan dagoela egiten dituen, ezpaitzaitza kasi deus baliatzen. Kofesa bedi, beraz, batbedera bekhatua egin duen bezain fite. Zeren, bertzela, bekhatutan dagoeino egiten dituen obra on guztiak galtzeintu, eta are lehenekoak ere, bekhatu gabe zegoenean egiten zituenak ere, hilduak eta trabatuak edukitzeintu.

20 **349** Ordea, benturaz erranen du orai hemen zenbaitek: <543> «Beraz, halatan, bekhatutan nagoenean, eztut zer barurturik, orazinotan egonik, eta ez bertze obra onetan ere zer enplegaturik. Zeren berdin, orduko obra on hek ezpaitute orduan deus balio». Bada, ordea, orduan ere zerbait balio dute; eta on da bekhatutan zaudenean ere ongi egitea eta obra onetan enplegatzea. Zeren egia da: orduko obra on 25 hek eztute zeruko loriaren erdiesteko, orduan deus balio, eztute hartarakotzat berek indarririk asko. Eta hala, hekengatik, baldin orduan hil bazindezi, ifernura zindoazke. Bai, ordea, balio dute bertze anhitz gauzatak. Balio dute munduko on tenporalen erdiesteko, garaziaren bidean eta dispozizioan jartzeko, bekhatu gutiago egiteko, eta usantza onaren ere hartzeko. Eta haur da San Tomasek erraiten duena: 30 *Opera extra charitatem facta, ex condigno, nullius boni meritoria sunt; ex congruo vero alicuius meritoria dici possunt. Quia decet divinam bonitatem, ut ubicumque dispositionem invenit, perfectionem adiiciat. Et secundum hoc, opera ista, ad triplex bonum valent: scilicet ad consequitionem temporalium, ad dispositionem ad gratiam et assuefactionem bonorum operum* (S. Thom. in *additionib.* q. 14 art. 4).

35 Bekhatoreak bekhatutan dagoenean egiten dituen obra onak, balio ezpadute ere deus zeruko loriaren erdiesteko; eta obra on hekengatik bekhatore hark Jainkoaren alderakotzat buruperik ezin baduke ere, zeren obra on <544> hek bere baithan hilak baitira, ezpaitira deusen merezient. Ordea, badirudi ezen Jainkoak, bere ontasunagatik, hetarik okhasino hartzeko duela, hala obra onetan dabilanari, bekhatore 40 izanagatik ere, ongi egiteko, eskuaren emaiteko, eta bide onera heltzeko eskas zaikanaren konplitzeko. Zeren bekhatorea bera ere orduan hartara disposatzen eta enseiatzen baita.

Beraz, nolana den dela, bekhatutan egonagatik ere, egizu ongi, ez titzatzula hargatik zeure oblazinoak eta debozinoak utz. Zeren utzten ez titzatzun denboran, aldez edo moldez, bethiere zerbait baliatuko zaizkitzu. Ez, ordea, kofesaturik egiten baitzinitu bezanbat. Eta hala, hobe da bethiere ahalik eta gutiena bekhatutan egoitea, eta maiz kofesatzea.

5

Are gehiago, seigarren arrazoina. Behar da maiz kofesatu. Zeren urthean behin baizen kofesatzen eztenak badirudi bortxaz egiten dela, eta halakoaren kofesatzeak deus guti balio duela.

350 Komunzki bekhatorea bekhatu egin berrian beldurrago, sentikorrago eta antsia-tsuago da, handik urthe baten edo biaren buruan baino. Bekhatu bat egiten duzunean, albaliz oren berean behar zenduke kofesatu. Zeren baldin luzatzen baduzu, ahantzteko periletan jartzen zara, eta ahantztea ahantzte <545> delarik, bertzerik ere zenbait lo-thuko zaitzu. Hala erraiten du San Gregoriok: *Pecatum, quod mox per poenitentiam non diluitur, suo pondere aliud trahit* (Gregor. *De poenitentia non differenda*).

10

Galdegin baziniazo denbora luzea duela eri den presuna bati, ea nolatan ezten sendatzen. Eta ihardets baliiazazu, midizina bat hartu nahi gabez eta midikuagana joan nahi gabez eztela sendatzen, mirets zenezake, eta arrazoinekin erran ziniazaio erhoa dela. Hala da, bada, erhoa, kofesoragana, arimako midikuagana, joan nahi gabez, urthe guztian, hain denbora luzean, garizumaraino, arimako eritasunarekin dagoena ere. Buruko min batek, sukhar batek edo bertze eritasun batek hartzen zai-tuenean, berehala, lehen baino lehen erremedio bilhatzen duzu, midikurik hoberena deitzen duzu. Zergatik, bada, gorputzeko eritasunagatik egiten duzuna, eztuzu ari-makoagatik eginen?

15

20

Zorrak dituenak, baldin prestu bada, atsegin hartzen du heken pagatzeaz, eta ahalik eta fitetzena pagatzeintu. Bada, bekhatuak dira zorrak; eta halatan egiten diogu egun guztiaz Jainkoari othoitz, barkha diatzagula. *Dimitte nobis debita nostra*. Bada, nola bere nabusiari kontuak ongi eman nahi derautzan muthila, ezpaita <546> ur-thearen bururaino kontuak ikhusi gabe eta bere nabusiarekin mintzatu gabe egoiten; hala guk ere, baldin geure arimako kontuak eman nahi baditugu ongi, eta zorrak pagatu, eztugu urthe guztian, garizumaraino, kofesatu gabe egon behar. Zeren kofesatzea da Jainkoarekin mintzatzea, kontuen egitea eta pagatzeko bidean jartzea. Eta zuk erranagatik garizuman kofesatuko zarela, orduan kontuak eginen eta zorrak pagatuko ditutzula, engana ahal zindezke. Zeren, zer dakizu iraunen duzun garizumaraino? Jainkoak prometatzen deratzu zeure bekhatuen barkhamendua ongi kofesatzen zarenean, noiznahi den dela, garizumaren finean bada ere. Ez, ordea, ezteratzu prometatzen, eta ez segurantzarik emaiten, igurikiko deratzula garizumaraino.

25

30

35

351 Gauza izigarria da, eta erhokeria guztien gaineko erhokeria, bekhatu mortalean dagoela, gauaren iragaitera benturatzeta. Zeren anhitz joaiten baita arratsean sendorik oherat, eta gero ezpaita goizean bizirik jaikitzen. *Qui amat periculum,*

299-2 *oblazino*: Axularrek bestetan *oferenda* deritzona bera.

peribit in illo (Eccles. 3). «Perilean ibili nahi dena, perilean galduko da». Beraz, segurean jokatzeko, ez urthearen bururaino bekhatutan egon, ez hetan sosega; lehen baino lehen, fite eta maiz kofesa.

5 Finean, zazpigarren arrazoina. Maiz behar da kofesatu. Zeren maiz kofesatzeaz, <547> bertzeak bertze direla, aisia handi bat emanen diozu zeure buruari. Gutitan kofesatzen denari, gaitzi zaika kofesatzea, ahalke da halakoa, beldur da, herstura handitan edireiten da. Halakoak egunetik egunera, garizumaren hastetik akhabatzera, akhabatzetik bazko zaharrera, azken ephera luzatzen du, eta batzutan ephe hura ere iragaitera utzten du. Eta hala gerthatzen zaika halakoari eritzen de-
10 nean ere: orduan ere luzatzen du; noiz beharko duen Jainkoak erakutsiko dioela, oraino bihotz on duela, aphur bat utz dezatela erraiten du. Eta gero hala dabilala, maiz gerthatzen dena: kofesatu gabe finatzen da.

Gutitan orraztatzen denak, lehenbiziko orratzta aldian, orraztea nekez iragaiten du, min hartzen du. Zeren ileak nahasiak eta izurtuak baitaude. Baina maiz orraztatzen denak eztu traburik edireiten, eztu minik hartzen, hura aiseki orraztatzen da
15 buruan; hala orraztatzen da, bada, halaber, aiseki bere ariman, urthean laur edo bortzetan kofesatzen dena ere: guztiez orhoitzen da, guztiez akhusatzen da, eztu traburik edireiten, eta ez minik hartzen.

Enzutea bera presuna bat maiz kofesatzen dela, asko da prestu dela erraiteko; eta bai, halaber, gutitan kofesatzen dela jakitea, eztela sobera debot sinhesteko.
20

Bada, nork ere bere arimaz kontu ona eman <548> nahi baitu, eta bere bekhatu iraganez barkhamendu erdietsirik, aitzinerat gehiago egin gabe egoiteko indar hartu, maiz kofesa bedi; gerotik gerora, egunetik biharrera luzatu gabe, urtheke besta-
25 buruetan bedere, Jainkoarekin mintza bedi, kontutan jar bedi. Zeren halatan emanen du orai presenteon kontu ona, eta gero azken finean erdietsiko du bere arimaren salbamendua.

Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten dioen bidegabe Jainkoari

KAP. LIII

352 Erraiten du San Tomas doktor handi hark: *Si homo non peccasset, Deus incarnatus non fuisset* (S. Thom. 3 p., q. 1, art. 3). «Baldin gizonak bekhaturik egin ezpalu, etzen Jainkoa gizon eginen»; eta ageri da ezetz, zeren gizon eginez gero, bethiere bekhatorekin ibiltzen zen, hekin solhastatzen, hekin jaten eta edaten zuen, hekin zuen lakhet. Hain lakhet ezen, soberania iduriturik, gaizki aiphatzen baitzuten skriba fari-seoek, erraiten zutela: *Hic peccatores recipit, et manducat cum illis* (Luc. 13). <549> «Zer da haur? Soberaniak dira hauk, bekhatorekin, jende galdu konzientzia gabe-koekin dabila, eztu nehorekin ere bertzerekin onik». Eta hanbat minzo ziren ezen, azkenean, konparazino batzuk ibenirik, ihardetsi behar izatu baitzerauen, erraiten zuela: Zuek diozue ezen bekhatorekin nabilala, hekin jaten eta edaten dudala, ene jendeak hek direla. Eta ongi diozue, aithortzen dut, zeren hala baita. Baina eztezazuela mirets. Zeren nola ehun ardi dituen arzaina, ehun hetarik bat errebelatzen zaikanean, joaiten baita laur hogoi eta hemeretziak utzirik errebelatuaren bilha, eta haren edirei-teaz atseginago hartzen baitu, bertze guztien ikhusteaz baino: hala jakizue ezen atseginago hartzen dela zeruan ere, penitentzia egiten duen bekhatore batez, lauretan hogoi eta hemeretzi justu penitentziaren premiarik eztutenez baino. Zeren hura baita ardi errebelatuaren edireitea. Hala erraiten du San Lukas ebanjelistak: *Gaudium erit in caelo super uno peccatore poenitentiam agente, quam super nonaginta novem iustis, qui non indigent poenitentia* (Luc. 15).

Halaber, nola hamar erreal dituen emazte batek hetarik bat galtzen duenean, argia iratxekirik, iraultzen baitu etxe guztia; eta gero, ediren duenean, alegeratzen <550> baita eta kontatzen baiteraue bere hauzokoei bere sendagaila, eta erraiten egin diatzotela bozkarioak; hala, jakizue ezen zeruko aingiruak ere alegeratzen di-rela bekhatore baten konbertitzeaz, erreal galduaren edireiteaz.

Konparazino hautan emaiten da aditzera, handia dela gure Jaungoikoak gure salbatzeko duen desira, eta hartan hartzen duen atsegina eta plazera. Zeren erraiten baitu kontentamendu gehiago duela bekhatore baten penitentziaz, lauretan hogoi eta hemeretzi justuren justutasunaz baino.

301-14/16 *Zeren nola... hala jakizue...: perpaus luze eta konplexua.*

§ 1

353 Segur da abantail eramaiten dioela justuak bekhatoreari, garbiak likitsari; eta hobe dela arropa berri osoa, zahar pedazatua baino. Nolatan erraiten da, bada, guztia-
 rekin ere, atseginago duela Jainkoak bekhatorearen penitenziaz, justuaren justuta-
 5 sunaz baino? Ihardesten du San Tomasek: *Caeteris paribus, innocentia dignior est et magis dilecta; dicitur tamen plus gaudere de poenitente, quam de innocente, quia plerumque poenitentes cautiores, humiliores et ferventiores resurgunt* (S. Thom. 1 part. q. 20 art. 4). Hanbatik hanbatean, hobe da hobengabetasuna, eta behin ere likitstu
 gabe egoitea, likistu ondoko garbitasuna baino. Ordea, guztiarekin ere, erraiten <551>
 10 du gure Jainkoak, atseginago duela bekhatore konbertituaz, penitenziaz garbituaz eta eroriz gero jaiki denaz, behin ere erori eztenaz baino. Zeren komunzki halakoa zinezago permatzen eta enplegatzen baita, bethiere justu izatu dena baino. Bekhaturik egin
 eztuena, ezta deusen beldur, baina bai penitentzia egiten eta bere bekhaturen erremedia-
 tzen hari dena: hura beldur da, zinez permatzen da, beroki manaiatzten da; eta hala
 15 manaiatuz iragaiten da anhitzetan ere lehen justu izatu dena baino aitzinago. Hala iragan ziren Jondone Paulo bat, Magdalena bat eta bertzerik anhitz; eta egin ziren, bethi justu eta saildu izan ziren batzuk baino justuago eta sailduago.

Hanbatik hanbatean, *caeteris paribus*, hobe da arropa osoa, pedazatua baino. Ordea, halako pedazua, aphaindura eta berretura eman ahal dakidikaio, non gero berretura hark eta pedazuak, arropa oso berriak baino gehiago balio bailuke. Hunen arauaz
 20 erraiten du San Gregoriok: *Dux in praelio, eum militem plus diligit, qui, post fugam conversus, fortiter hostem premit, quam qui nunquam fugit, nec unquam fortiter fecit. Et agricola eam terram plus amat, quae, post spinas, uberes fructus proffert, quam eam, quae nunquam spinas habuit et nunquam fertilem fructum producit* (Greg. hom. 24 in
 25 *Evang.*). Kapitain batek estimatzenago du, gerlatik ihes egin ondoan bihurturik, <552> balentia handiak egiten dituen soldadua, behin ere ihesik egin eztuena eta balentiarik ere egiten eztuena baino. Halaber, laborari batek ere nahiago eta maiteago du anhitz belhar gaixto izatu duen lurra eta gero hetarik garbitu ondoan fruitu anhitz ekhartzen duena, behin ere belhar gaixtorik izan eztuena eta fruiturik ere emaiten eztuena baino. Hala
 30 bada, gure Jaungoikoak ere du maiteago, bekhatu egin ondoan beroki eta doblatuki obra onetan enplegatzen dena, bekhaturik egin eztuena eta obra onak ere hotzki, ephelki eta laxoki egiten dituen baina. Eta erraiten du maiteago duela halako bekhatorea, hala zintki eta fintki penitentzia egiten duena, bertze moldezko lauretan hogoi eta hemeretzi justu baino. Zeren lehen gaixto eta bekhatore zen hura, egiten baita azkenean, penitenziarekin
 35 batean, justuago eta sailduago, bethi justu eta saildu izatu diren hek baino.

§ 2

354 Are gehiago maiteago eta estimatzenago du Jainkoak penitentzia egiten duen bekhatorea, penitenziaren premiarik eztuen justua baino. Zeren perilean eta galdugordean ibili diren gauzen edireiteaz atseginago hartzen baitugu, bethiere segurean
 40 eta peril gabe egon direnen ikhustez baino.

302-38/39 *galdu-gordean*: «Etxeberrri Sarakoak *galdu ordean* dio. Ikus *Obras vascongadas del*

<553> Gerlaren ondoan estimatzen da bakea; tormenta iragan denean prezatzen da denbora ederra; eritasuna joan denean edukitzen da ezertan osasuna. Eta, zenbate-naz eta gerla, tormenta eta eritasuna izan baitira handiago eta perilosago, hanbatenez gero ondoko bakea, denbora ederra eta osasuna ere dira prezatzenago, estima- 5
Edendi et bibendi voluptas nulla est, nisi praecedat esuriendi et sitiendi molestia. Et ebriossi quaedam salsiuscula comedunt, quo fiat molestior ardor, quem, cum extinguit potatio, fiat delectatio. Et institutum est, ut iam pactae sponsae non tradatur statim, ne vilem habeat maritus quam non suspiraverit dilatam (Aug. *lib. 8 Conf.*, c. 3). Baldin plazera pla- 10
 zer eta atsegina atsegin izanen bada, behar da aitzinetik aphur bat bedere nekhatu eta unhatu. Jakinen bada zer den plazera, frogatu behar da lehenik zer den desplaze-
 ra. Gaitzen berririk eztaienak, eztu ontasuna estimatzen.

Loan ezta gozoric logale ezteanean, eta ez jan-edanean ere aseba dagoenean. Eta halatan, edale on batzuek bilhatzeintuzte bianda gaziak egarriaren pizteko eta, piz- 15
 turik, edatean plazer gehiago hartzeko. Halatan ordenatu zen, halaber, etzekiola espos berriari berehala, lehenbiziko gutziamenduan edo aiphamenean, bere esposa eman, nekez izana hobeki estima zezan edo fite izana arbuia etzezan.

<554> Artzaina alegeratzenago da ardi errebelatu baten edireiteaz, artalde osoaren, larre onean alha dela jakiteaz baino. Aita batek atseginago hartzen du, denbora 20
 luzeaz mututurik egotu den semearen ahotik hitz baten enzuteaz, bertze seme guz-
 tiak ederki minzaten direla aditzeaz baino. Halatan, bere hazienda partea jan-
 edanean eta emaztetan gastaturik, galdua eta desegina bihurtu zen semeari egin
 zioen bere aitak besta gehiago, bethiere etxean bere manuko egon zeikanari baino.
 Zeren etxekoa bethiere segurean ikhusten baitzuen, baina bertzea, galdutzat ze- 25
 dukana, koberatu baitzuen. Hala da, bada, eta halatan gure Jaungoikoak ere hartzen
 du hanbat atsegin eta plazer bekhatorearen penitentziaz. Zeren galduz gero edireiten
 baita, eta bai peril handitik ere ilkitzen eta eskapatzen.

§ 3

355 Bekhatorearen penitentziaz atsegin handia hartzen du gure Jaungoikoak; eta 30
 atsegin hartze haur guztior eragiten derauka bekhatoreagana dadukan amorioak. Eta
 nola, Terenziok dioen bezala, *Amantium ira, amoris redintegratio est*, zinez eta
 egiaz elkhar maite dutenen arteko haserredurak eta diferentziak anhitzetan ere amo-
 rio berretgarri <555> eta fintkagarri ohi dira, zeren elkharrekin minzatu gabe eta
 elkhargana gabe egotu diren denbora hartan ere elkharganatzeko amorioa eta desira 35
 berretzen baitzaie: hala bada, gure Jainkoari ere, gure moldera minzatzera, bekhato-
 reaa apartaturik dagokan bitarte hartan berretzen zaika bekhatore haren beregana-
 tzeko duen desira eta borondatea. Eta badirudi ezuela onik, beregana dezakeien
 arteino. Zeren bitarte hartan, athera ethorririk bezala, bethi deiez baitagoka; eta

doctor labortano... p. 59. Oihenartek *galdu-gordean* (RIEV 4: 228)» (Villasanteren oh.).
 Cf. orain OEH (*galdu-gordean*, s.v. *galdu*). *Galdu-ordean* GG-ren beste pasarte bateko
 irakurketa da (ik. 74-14 testu-oharra).

deiez ere luzaro eta behin ere etsitu gabe. *Expectat Dominus, ut misereatur vestri* (Isai. 30). Urthe batez, biaz eta hamarrez, athal ondoan igurikitzen du. Eta, alabaina, bekhatoarak bere burua gor eta sor egiten du, geroko bere eginbidea luzatzen du. Gauza gaizki egina da, eta itsusia, adiskideari deiez dagotzunean, ez ihardestea, 5 athean iguriki arazitzea; eta berehala eman ahal diazaion errepuestaren eta egin ahal diazaion zerbitzuaren geroko luzatzea.

Beraz, zinez izanen da gauza gaizki egina eta itsusia hain maite zaituen Jainkoari eta adiskideari, zure penitentzia egiteaz eta bide oneratzeaz hanbat atsegin hartzen duenari, eta bethiere deitzen zaituela eta zure bilha dabilala dakizunari, 10 hain kontu guti emaita, hanbat iguriki arazitzea, geroko luzatzea, ez berehala ihardestea. Badirudi <556> ezen, baldin Jainkoak deusez ere albalu damurik, hunetzaz lukeiela.

Beraz, hunelatan, erran behar da handia dela luzamendutan dabilan bekhatoarak, hala ibiltze hartan eta bitarte hartan Jainkoari egiten dioen bidegabea. Eta 15 halako bidegaberik ez egiteagatik ere utzteko lituzkeiela, eta ginituzkeiela, luzamenduarak eta gerotik gerora ibiltzeak.

304-10 *kontu guti eman*: «Itzulika hau ez zen AxH-n jaso. Erderazko ‘conceder poca estimación’ edo horrelako zerbait esan nahi du» (Villasanteren oh.). Hobeto ‘prestar poca atención’ (cf. *OEH, kontu eman* (c), s.v. *kontu*).

304-13 *luzamendutan*: «Kasu mugagabeari. Axularrek zehatz bereizten du *bekhatutan* (‘en pecado’) eta *bekhatuetan* (‘en los pecados’). Ikus, adibidez, 301» (Villasanteren oh.).

Nola luzamendutan gerotik gerora dabilanak egiten derauen bidegabe aingiruei

KAP. LIV

356 Erraiten du Spiritu Sainduak: *Spes quae differtur, affligit animam* (Prov. 3). «Luzatzen den esperantzak nekhatzen du gogoan, penatzen du arima». Beraz, handia da, halaber, bere arauaz, aingiruei luzamendutan ibiltzeaz egiten derauegun bidegabea. Zeren desira handi batekin gure penitziaren eta konbertitzearen beha baitaude, eta berantzeaz damu hartzen baitute. Hala emaiten du aditzera San Agustinek: *Quoties bene agimus, gaudent Angeli et tristantur Demones, gaudium est <557> enim Angelis super uno poenitentiam agente: sed Diabolo super uno poenitentiam deserente* (Aug. in *Soliloq. anima. ad Deum*, c. 27, to. 9). Ongi egiten dugun guztiaz alegeratzen dira aingiruak eta tristetzen deabruak. Eta erraiten denean aingiruak alegeratzen direla, eta deabruak tristetzen, aditzen da ezen geure aldetik denaz bezanbatean, guk alegeratzen ditugula edo tristetzen; eta alegera edo triste albalitezi, guk egiten ditugun obrek alegera eta trista litzaketela. Zeren bertze gainerakoan, aingiruak nola bethi lorian baitaude, ezin triste ditezke, eta ez deabruak ere alegera, zeren hek ere bethi penatan baitira. 5
10
15

Erraiten du San Tomasek: *Demones propter invidiam, profectum hominum impedire nituntur; et propter superbiam, divinae potestatis similitudinem usurpant, deputando sibi ministros ad hominum impugnationem, sicut et Angeli Deo ministrant in determinatis officiis ad hominum salutem* (S. Thom. 1 part. q. 114 art. 1). Badakigu baduela gutarik batbederak, Jainkoak emanik, nor bere aingiru begiraillea; eta aingiru hark bertze guztien artetik eta gaisetarik edukitzen duela bere kargukoaz kontu, eta desiratzen duela haren salbamendua. Eta nola Jainkoak ontasunean egiten duena, nahi bailuke deabruak ere gaixatasunean egin, halatan Luziferrek, deabru buruzagiak eta kapitainak, emaiten du, halaber, zenbait aingiru gaixto <558> eta deabru tentatzeko eta bekhatu eragiteko. Eta hala, erran ahal dezakegu ezen aingiru on bat begiratzeko bezala, badugula, halaber, gaixto bat ere, bere ahalaz gure tentatzeko eta galtzeko; ona Jainkoak emanik eta gaixtoa Luziferrek igorririk. 20
25

357 Eta ezin erran diteke zein gerla handia duten aingiru hek biek, onak eta gaixtoak, gure arimaren gainean. Biak permatzen dira, biak enseiatzen dira. Eta zintkie-
 5 nik, heriotzeko orean enplegatzen dira. Zeren orduan dira zinak eta minak; orduan da arimaren gorabehera guztia, eta balantzaren alde batera edo bertzera erortzeko
 10 pontua eta puntada. Orduan biltzen dira deabruak eta laguntzen zaitza elkharri, erraiten dutela: *Deus dereliquit eum; persequimini et comprehendite, quia non est qui eripiat* (Psalm. 70). «Utzi du Jainkoak; har dezagun, beraz, guk; daramagun, zeren gurea da, eta nori berea, ezin nehork edeki diazaio». Inguratzen dute, tentatzen dute, desesperatzeko pontura ekhartzen dute; eta peril da, zenbait desespera arazitzen ere
 15 baduten. Pontu hartan ethortzen zaitza arima tristeari gogora, egundaino egin dituen falta guztiak; eta hanbat eta hain handiak direla ikhusirik, bihotza hersten zaika, hiltzen zaika; eta jartzen da bere buruarekin gogoetan, erraiten duela: «Zer izanen da orai nitaz? Zer bide hartuko othe dut? <559> Salbatuko othe naiz?». Pontuaren latza! Pausuaren gaitza! Egitekoaren handia! Hersturaren hertsia eta izigarria! Zer eginen du
 20 orduan arima izi hark? Nor deituko du bere faboretan? Nork eskua emanen dio? Nor helduko? Nor lagunduko zaika? Nor, bada? Bere aingiru begirailea: hark orduan, adiskide onak bezala, laster egiten du, hark eskuei eragiten deraue, eta inguruneko etsai guztiak, demonio tentazaileak, alde batera eta bertzera bulkhatzeintu. Eta gero erraiten dio arimari: «Ea arima izitua, bihotz har ezazu, esportza zaitzezi, etzaitzezila errenda, eztezazula gal esperantza. Zeren zure bekhatuak anhitz eta handiak badira ere, jakizu ezen Jainkoaren miseriakordia are dela handiago; eta Jainkoak nahi duela salba
 25 zaitzezin; eta izaitekotz faltarik, zure aldetik izanen dela, eta ez Jainkoarenetik». Orduan Elizak ere egiten du othoitz, erraiten duela: *Occurrite, Angeli Domini, suscipientes animam eius*. «Ea zeruko ainguruak, Jainkoaren aitzinean zaudetenak, orai da ordua, laster egizue, hersturatan dagoen arima huni eskua emozue, hel zakitzate». Orduan arima hark bere barren hartan, bere obrekin, berak iharduki behar du: ezta ahaide-adiskiderik hara heltzen; baina bai aingiru begirailea: hark edukitzen dio on, hura dagoka aldakan, hark eztu utzten, gorputzean dagoen bitartean.
 <560>

§ 1

30 **358** Baldin arima hura, ontasunean, fedean eta esperantzan firme egonik eta bere faltak erremediaturik, partitzen bada Jainkoaren garazian dagoela mundutik: nork erranen du zein handia den orduan aingiru begiraileak hartzen duen atsegina eta plazera? Lehenbizikorik arima haren ondoan zebiltzan deabruak musikatzteintu, eskarniatzeintu, irriz jokatzeintu.

35 Eta gero hartzen du arima hura, besarkatzen du, Jainkoaren aitzinera eramaiten du, erraiten dioela Jainkoari: «Jauna, huna non den zuk gomendiotan eman zenerautan arima; manatu nenduzun begira nezala; begiratu dut, sendorik eta salborik bihurtzen deratzut. Errezibi ezazu, bada, eta emozu huni zeure loria, eta niri ere neure trabailuaren golardoa eta pagamendua.

Ordea, baldin arima hura ilkitzen bada bekhatutan dagoela gorputzetik, baldin kondenatzen bada, orduan utzten du bere aingiru begiraileak, apartatzen zaika, eta apartatze hartan, erraiten dio: «Ha gaiztoa, ene nekharria, ala nik gaizki enplegatu baitut hirekiko denbora! Amaren sabeletik iltki intzen pontutik, puntu hunetaraino, bethiere jarraiki natzain, ez natzain behin <561> ere apartatu. Anhitz enseiu egin dinat, hire horretarik begiratzeko, eta orai daramanan bide gaixtoaren huts eragiteko. Baina alferrik guztiak. Zeren nola baituen libertatea, eta heure burua heure eskuko, hala egin dun heure plazera eta borondatea: garaitu naun, eztun nitzaz konturirik egin, ez aiz nitzaz gobernatu. Galdu dinat nik neure trabailua, eta bai hik ere sekula fingabekotzat heure burua».

359 Baldin aingiru hura triste albaledi, edo ahalke, uste dut ezen arima haren galitzeaz eta etsai gaixtoak daramakola ikhustez triste litekeiela eta alhalke. Eta badi-rudi ahalketurik bezala erraiten derauela bere lagun aingiruei, Jeremias profetak Babiloniako hiriaz erran zuena: *Curavimus Babilonem*. «Nik egin dut neure aldetik egiteko zen guztia. Galdu da arima haur, eta eztu nehork ere nik baino damuago. Berak du, ordea, falta. Ni sinhetsi banendu, ezkinen egiteko hunetan izanen: ez nik izanen nuen hunenbat damu, eta ez hunek ere hunenbat kalte eta atsekabe».

Ordea, zer da haur? Nolatan galdu da arima haur? Etzuen Jainkoak hunen salbatzeagatik odol isuri eta heriotze errezibitu? Eta etzituen, halaber, eritzen zeneko medizina eta erremedioak, sakramendu sainduak, ordenatu? Eta etzeratzun zuri ere, aingiru saindua, <562> begiratzeko kargua eman? Nolatan, bada, galdu da? Nolatan kondenatu da?

Ihardesten du aingiruak: «Egiak dira horiok guztiok: ene kargutan zen, eta etzen erremedio eskasik ere. Ordea, etzaitza deus probetxatu: zeren, bataz, eritasuna baitzuen handia, eta sendatzeko desira ttipia; eta, berriz, bertzea, zeren bere fantasiaz eta borondatez gobernatu baita, eta ez ene konseiluz». Damu hartzeko okhasino handia emaiten zaika aingiru begiraileari, bere kargutan duena bekhatutik ilkitzeko luzamendutan dabilkonean, eta are handiagoa kondenatzen zaikala dakusanean. Handia da hunetan aingiru begiraileari eta bertze aingiru guztiei ere egiten zaien damua eta bigabea. Zeren guztiak gure salbamendua, eta lehen baino lehen bekhatutarik iltkirik ikhustea desiratzen baitute, eta ilkitzen gabela dakusatenean atsegin hartzen baitute.

Beraz, hunelatan, hargatik beragatik ere, aingiruei bai atsegin, baina damurik eta atsekaberik ez egiteagatik ere, behar genduke egun beretik, geroko luzatu gabe, trabu guztiak khendurik, salbamenduko bidea hartu, eta hartan, gelditzen zaikun geure mende aphurra enplegatu.



<563>

Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten derauen bidegabe bere buruari, bere giristino lagunari, eta bai munduko bertze gauza guztiei ere

KAP. LV

360 Baldin luzaro bekhatutan egoitez eta gerotik gerora ibiltzeaz egiten badauegu bidegabe Jainkoari eta aingiruei, segur da hala-hala egiten diogula geure buruari ere bidegabe, damu eta kalte. Zeren baldin orduan, hala bekhatutan gabiltzanean eta gaudenean hiltzen bagara, sekulakotzat galdu eta penatu behar baikara. 5

Guk dugun etsairik handiena geure burua dugu. Ezteraku nehork ere hanbat kalte eta bidegabe egiten, nola gerok egiten baitiogu geure buruari. Gerok geure buruak galtzeintugu, ifernura egotzteintugu. Eztugu nehortzaz ere hanbat okhasino eta arrazoin arrenkuratzeko, nola geure buruoz; eztugu bertzeri zer atxakia emanik, eta ez zer hoben egotzirik: geureak ditugu faltak. 10

Eztakit non dugun adimendua, eta ez zertan <564> pensatzen dugun; ezen munduan ditugun bertze gauza guztiak nahi dugularik diren onak, gure bizitzea bera, gure konzientzia, gure arima nahi baitugu den gaixto. *Quid enim est quod vis habere malum? Nihil omnino; non uxorem, non filiam, non servum, non ancillam, non villam, non tunicam, postremo non caligam; et tamen vellis habere malam vitam? Rogo te praeponere vitam tuam caligae tuae. Si possent respondere bona tua, quibus est plena domus tua, quae habere optasti et perdere timuisti, nonne et tibi clamarent: «Sicut tu nos bona vis habere, sic et nos volumus bonum habere dominum»* (Aug. *Serm. 12 de verbis Domini*, t.10). «Erradazu, othoi —dio San Agustinek—, nahi othe zenduke deus ere gauza gaixtorik? Ez segur. Eztuzu nahi emazte gaixtoa, ez seme gaixtoa, ez zerbitzari gaixtoa, ez athorra gaixtoa, eta ez azkenez goiti zapata gaixtoa ere. Nolatan, bada, nahi duzu guztien gainetik konzientzia gaixtoa? Bertze gauza guztiak onak, baina zeure burua, zeure bizitzea, zeure konzientzia, zeure arima, gaixto. Baldin zure zapatak, eta etxean zeure zerbitzuko dituzun bertze gauzak mintza albalitezi, erran liazai-zute: —Zuk nahi duzu gu garen onak; hala nahi dugu, bada, guk ere zu zaren ona. Zuk nahi dituzu zerbitzari onak; hala nahi dugu, bada, guk ere nabusi ona». 15 20 25

309-23 *azkenez goiti*: «azkenekotz» (Villasanteren oh.).

5 **361** Baldin galdegin baliiazazute, zer den zuk duzun gauzarik maitena, ihardets zenezake zure bizia dela; zeren biziagatik, munduko <565> gauza guztiak utz baititzaketzu. Nolatan, bada, bertze gauza guztiak nahi ditutzularik onak, nahi duzu zuk duzun gauzarik maitena den gaixto? Ezin ediren dezaket bertze arraizoinik, deabruak itsutu eta liluratu zaituela baizen; eta zu zarela jende hetarik, zeinengatik erraiten baitu Sofonias profetak: *Ambulaverunt caeci, quia peccaverunt Domino* (*Sopho.* 1). «Itsutuak ibili ziren, zeren bekhatutan erori baitziren».

10 Egunetik egunera bekhatutarik ilkitzeko luzamendutan zabiltzan bitarte hartan, zeure buruaren etsai zara. Zeren ongi ahal zinatekeiena, zeure faltaz gaizki behar baitzara. Beraz, orduan hala ibiltzeaz, zeure buruari bidegabe egiten diozu. Zeren zerorrek zeure burua galtzen baituzu.

§ 1

362 Bada, halaber, gerotik gerora bekhatutan egoiteaz bidegabe egiten diozu zeure giristino lagunari ere.

15 Batzuek erraiten dute: «Baldin gaixto banaiz, neuretzat naiz gaixto, eztute ene bekhatuek nehor ifernurako, nor bereak jasaneintu». Egia da: nor bereak jasaneintu.

20 Ordea, eztiozu ongi, etzarella zeuretzat baizen gaixto. Zeren, lehenbizikorik, nola ona <566> anhitzentzat baita on, hala gaixtoa ere anhitzentzat da gaixto. Bigarrena, zeren zeure bizitze gaixtoaz, exemplo gaixtoa emanaz, bertzeri ere bekhatu eragiteko okhasino emaiten baitiozu. Hala erraiten du San Agustinek: *Qui in conspectu populi male vivit, eum a quo attenditur, quantum in illo est, occidit* (*Aug. lib. de Past.*, cap. 4, t. 9). Bertzeren agerrian, jendek ikhusten dutela, gaizki bizitzen denak, bere aldetik denaz bezanbatean, agerrian diren hek, beha daudenak, hiltzeintu, kaltiar errendatzeintu. Beraz, zeure bekhatuaz egiten diozu zeure buruaz bertzeri ere kalte eta bidegabe. Zeren anhitzetan ere zure bekhatuagatik bertzeak ere gaztigatzen baititu Jainkoak: ez gaztigu eternalaz, baina bai tenporalaz (*Vide Nico. de Lyra Deut.* 34 super illud: «Non occidentur patres pro filiis»).

25 Finean, ez giristino lagunari berari, baina are munduko bertze kreatura arrazoinaz usatzen eztuten guztiei ere bidegabe egiten derauezu bekhatutan zauden bitartean. Zeren, lehenbizikorik, etxeko jaunari bidegabe egiteaz eta desohore emaitiaz, etxeko guztiak ukitzen dira, familia guztia desohoratzen da. Bada, nola bekhatutan egoiteaz, Jainkoari, mundu guztiko etxeko jaunari eta buruzagiari, egiten baitiozu bidegabe eta emaiten desohore; eta munduko kreatura guztiak, are harriak ere, etxeko jaun hunen familia eta etxatiarrak baitira; hala zure bekhatutan ibiltzeaz guztiak ukitzen dira, <567> guztiek bidegabe errezibitzen dute.

30 **363** Halaber, bekhatutan egoiteaz bidegabe egiten derauezu sentimendurik eztuten kreatura guztiei. Zeren guztiak baitira, errege Dabitek dioen bezala, zure zerbitzuko ordenatuak eta zure oinen azpiko eginak: *Omnia subiecisti sub pedibus eius* (*Psalm.* 8). Ordea, eztuzu merezi zerbitzurik, bekhatutan zauden bitartean: orduan etzara jaten duzun ogiaren ere merezient; zeren orduan bekhatuaren zerbitzari eta azpiko

baitzara, eta munduan den kreaturarik eztheusena eta ttipiena baino eztheusago eta ttipiago. *Omnis qui facit peccatum, servus est peccati*. Eta ezta arrazoin, deusagoak eztheusagoa zerbitza dezan, eta ttipiagoak handiagoa bere azpiko erabil dezan.

Halaber, bidegabe egiten derauezu munduko kreatura guztiei bekhaturan egoiteaz. Zeren guztiak zure bekhatuakgatik gaztigatu baititu eta gaztigatzen baititu Jainkoak; hain gaztigatzen ezen erraiten baitu doktor batek: *Sol et omnes creaturae, propter peccatum hominis, perdiderunt septem partes suarum virtutum* (Petrus Lomb. 4 *Sent. dist.* 48). «Iguzkiak, ilargiak eta munduko bertze kreatura guztiek galdu zuten gizonaren bekhatuakgatik bere berthutearen eta balioaren zazpigarren zathia eta partea». Eta hala, arrazoinekin arrenkura ahal diteke eta gereila iguzkia bekhatoreaz, erraiten dioela: «Ni hiregatik goibeldu ninduan, eta <568> ilhundu. Zeren orai argi banaiz ere eta klar, are lehen ninduan argiago eta klarago». Halaber, abre adimendugabek ere arrazoinekin erran ahal diazaiote: «Hiregatik gu dilubio handi hartan, Noeren denborako uholdean, hondatu eta itho ginituan». Bada, lurak ere egin ahal diazaio eranzute. Zeren lehen garbi zena, harengatik elhorriz, arantzez eta belhar gaixtoz bethe baitzen, eta bai flakatu eta mehatu ere. 5
10
15

364 Finean, *Lapis de pariete clamabit, et lignum quod inter iuncturas aedificiorum est, respondebit* (*Habac.* 2). Munduko kreatura guztiek, paretetan josirik dau den harriek ere, zuzen dute eta arrazoin, bekhatorearen kontra jaikitzeke. Eta hala erraiten ere du Spiritu Sainduak jaikiko direla azken egunean: *Pugnabit pro eo orbis terrarum contra insensatos* (*Sapi.* 1). 20

Eta, nola orai bekhatoreak guztiei egiten baiteraue gerla, hala orduan bekhatorari ere guztiek pagamendu ordaina moneda berean bihurtuko diote; eta orai errezibitzen dituzten bidegabe handiez mendeku hartuko dute.

Beraz, hunelatan, halako egitekotan ez erortzeagatik, eta hanbat bidegabe hanbati, Jainkoari, geure buruari, aingiruei, giristino lagunari eta munduko bertze kreatura guztiei ere ez egiteagatik, behar dugu ernatu, abiatu eta, luzamenduak utzirik, gero <569> egin behar denaren, lehen baino lehen egitera, bide onean jartzera eta hartan egoitera deliberatu. 25

311-25 *egitekotan*: «Kasu mugagabeari. Axularrek ongi bereizten du *egitekotan* ('en conflictos') eta *egitekoetan* ('en los conflictos')» (Villasanteren oh.).

311-26 *hanbati*: «*Hanbat* mugagabeki deklinatua, datibozko kasuan» (Villasanteren oh.).



*Nola ifernuko penen konsideratzeak behar dituen gerotik gerora ibiltzeko
luzamenduak laburtu*

KAP. LVI

365 Nola Jainkoak erakutsi baitzuen bere botherea munduaren kreatean, ja-kindasuna gobernatzean eta miserikordia erremediatzean, hala erakutsi du, 5
erakusten du eta erakutsiko du bere justizia ere gaztigatzean. Zeren baldin ezpada
arrazoin geldu dadin berthutea pagamendu gabe, ezta arrazoin iragan dadin
bekhatua ere gaztigu gabe. Hain ongi dagoka gaixtoari ifernua, nola onari para-
bisua.

Anhitz eta handiak dira (orainokoan ere aditzera eman den bezala) gure *gero* 10
hunek, luzamendutan ibiltzeak, egiten dituen damuak eta kalteak. Baina damu guz-
tien gaineko damua, kalterik handiena, galgarriena eta bertze guztiak xitzen, iragai-
ten eta ahantz <570> arazitzen dituen da, egotzten baitu fingabeko *gerora*, hondar
gabeko lezera, sekulako penetara.

Etsaigoan zaude, amorantearekin zaude, bertzeren ona goraturik zaude. 15
Zein baitira hirur bekhatu suerte perilosak. Eta, benturaz, baduzu bekhatu horie-
tarik ilkitzeko gogo eta borondate. Ordea, noiz? Ez orai, ez egun, bihar, gero. Eta
bethi gero, bethi bihar: horrela zaudela, eritasunak har, heriotzea ethor eta ifer-
nura joan.

Bada, nik ezin ediren dezaket erremedio hobeagorik, atriaka finagorik eta ez 20
medizina seguragorik *gero* hunen orai orairatzeko, sendatzeko eta erremediatzeko,
gero hunek beronek egiten dituen kalten konsideratzea baino. Oraren autsikia, ora-
ren beraren ileak behar du sendatu; ifernuko sua, ifernuko suak behar du iraungi.
Ezta halako erremediorik, ez gero ifernuratzeko, nola orai ifernuratzea. Gero ifernura
joan nahi ez duenak, orai behar du joan ifernura. Orai behar ditu hango penak, he- 25
men, hara gabe konsideratu, gogoan erabili eta, halatan, handik ihes egin, itzuri eta
eskapatu.

313-21 «*Gero* hunen orai orairatzeko. Kasu hitzen joko jatorrari» (Villasanteren oh.).

313-22 *Oraren autsikia...*: «Sendatze kontuan herriak bere usteak eta sineskeriak izan ditu.
Hoietakoa bat aipatzen da hemen» (Villasanteren oh.).

5 **366** Erran komuna da, ezpatak ezpata sar arazitzen duela maginan. Amorioz eta onez onetara ongirik egin nahi ez-tuenari, bortxaz eta gaztiguaren beldurrez eragin behar zaika. Ohoina zerk gibelatzen du, <571> gibelatzen denean ebastetik? Ez ahalkeak, ez neheregana dadukan amorioak. Zerk, bada? Beldurrak. Hala, Jainkoaganako amorioak

Etta haur da egundainoz gero gure Jainkoak bekhatore bihotz gogorri bere gogortasunaren hautsteko eta beratzeko ediren duen erremedio handietarik bat: mehatxatzea, erraitea eta gogora ekhartzea begira duela gaztigu paregabe bat, pena handi izigarri bat harentzat prestatua eta ordenatua dagoela.

10 Halatan Jondone Joanes Baptistak, ziakienak bezala, egin zuen puntu hunetzaz, ifernuko penez, bere lehenbiziko predikua, erraiten zuela: *Facite fructus dignos poenitentiae. Iam enim securis ad radicem arboris posita est. Omnis arbor quae non facit fructum bonum, excidetur, et in ignem mittetur.* «Begirautzue; egizue penitentzia, eta egizue, egin ditutzuen bekhaturen arauaz. *Fructus dignos poenitentiae (Luc. 3).*

15 Bekhatu handiakgatik penitentzia handia. Zeren jakin behar duzue ezen haizkora zuhaitzaren erroari kheinatua dagokala, eta fruiturik jasaiten ez-tuena ebakia izanen dela, eta sura egotzia». Haur da Jondone Joanes Baptistaren lehenbiziko predikua. Haur da ethorri zenean berekin ekharri zuen berria. <572> Eta berri hunekin, hune-lako gaztigua, ifernuko sua, gaixtoenzat ordenatua zegoela enzutearekin, hain izitu eta

20 ikharatu ziren, ezen presenteko guztiak, are ziren gaixtoenak ere, ethorri baitzeitzan galdegitera: *Quid faciemus?* «Zer egingen dugu, bada? Zer izanen da gutzaz? Nola edo zer moldez eskapatuko gara, zuk diozun pena handi hetarik, ifernuko sutik?». Bada, Jondone Joanes Baptistak, predikari handi hark, orduan jende hei erraiten zerauena, erraiten deratzuegu guk ere orai zuei. Egia da, ez hark bezalako saindutasunarekin, eta

25 ez fintasunarekin; bai, ordea, hark erraiten zerauen egia bera.

367 Zeren hark predikatzen zuen legea, fedea eta Jainkoa predikatzen eta eskiribatzen dugu guk ere: ezta hunetan diferentziarik. Erraiten deratzuegu guk ere, hark bezala, begira duzuela, haizkora zuhaitzaren ondoari kheinatua dagokala; herio-tzearen sega, onen eta gaixtoen arrontatzeko haiotza zorrotztua eta prestatua da-goela. Eta bihia, onak, zeruko bihitegian ailtxatuko direla; eta lastoa, gaixtoak, ifernuko labeen. Sekula fingabekotzat sua datxetela egonen direla.

Haur da egia; eta hauk dira geure Jaungoikoak aitzinetik egiten derauzkigun mehatxuak, kheinadurak eta bere predikariez <573> emaiten derauzkigun abisuak, haukin batean izi gaitezin, ikhara gaitezin eta, ikharaturik, gero egingen dugula dio-gun ontasuna, presentean dagigun amoreakgatik.

§ 1

368 Egia da: zeruko loriaren esperantzak, hango plazer handi heken konsideratzeak alegeratzen du giristinoa, eta bai prestuki bizitzeko desira batekin ere iben-

314-29 *haiotz*: «Marraza, sabrea (erderaz, *machete*)» (Villasanteren oh.).

tzen. Baina, komunzki, hobeki ukitzen du batbedera ifernuko penen beldurtasunak, zeruko loriaren esperantzak baino.

Ezkaitu pagamenduak eta pagamenduaren esperantzak hala aitzinatzen eta alegeratzen, nola gibelatzen eta tristetzen baikaitu gaztiguak eta gaztiguaren beldurtasunak. Hunen arauaz erraiten du San Krisostomok: *Regni non ita recordemur, ut Gehennae. Timor enim, promissione potentior est* (Chrysost. *Hom. 2 in epist. Paul. ad Thess. 2*, cap. 1, t. 4). Orhoitu behar dugu parabisuaz eta hango plazer handiez; baina areago ifernuaz eta hango pena izigarriez. 5

Zeren nola osasunak baino, eritasunak hobeki gogoeta eragiten baiteraku, eta bai ethorkizunean ere pensa arazitzen; hala ifernuko <574> eritasunak ere, hango doloren konsideratzeak, hobeki ukitzen gaitu eta aitzin-gibel beha arazitzen deraku, parabisuko plazeretan plazerki pensatzen egoiteak baino. 10

Eta haur ezta miretsteke. Zeren handiak, bortitzak eta izigarriak baitira ifernuko pena hek. Hetzaz erran ahal diteke bere moldean, Jondone Paulok zeruko loriari erran zuena: Eztu egundaino nehork ikhusi, ez enzun, eta ez gogoan iragan, nolakoak izanen diren. Nola onei emanen zaien pagamendua izanen baita abantailatua, guztien gainekoa, hala gaixtoek izanen duten gaztigua eta pena ere izanen da paregabea, alde guztiz handia: hain handia, ezen, nola ezpaita izanen atseginik, eta ez plazerik, salbatzen den batek gozatuko eztuenik, hala ezta edirenen penarik, eta ez atsekaberik, kondenatu batek pairatu beharko eztuenik. Onek on guztiak, gaixtoek gaitz guztiak. Onak bethi ongi, gaixtoak bethi gaizki. 15 20

Eta egiteko huni bere zimendutik eta erroetarik lotzeko; eta, halaber, jakiteko zer pena eta nolakoak izanen diren ifernuko pena hek, eta zergatik erraiten den hek direla pena guztien gaineko penak, har dezagun geure aitzindari San Tomas, doktor handi hura, zeren harekin batean izanen gara ongi kidatuak, eta mintzatuko gara behar den bezala. 25 <575>

§ 2

369 Erraiten du San Tomasek: *Poenae damnatorum in duo genera dividuntur, quae sunt poena damni et poena sensus. Poena damni respondet aversioni a Deo, et poena sensus, conversioni ad creaturam* (D. Th. 1-2 q. 87 art. 4 *in corpor. et 2.2 q. 79 art. 4 ad 4*). Erran nahi du: Presuna batek egiten duenean bekhatu mortal bat, bi gauza egiteintu. Lehenbizikoa, utzten du bere kreatzailea; eta bigarrena, hartzen du kreatura; eta harturik, haren baithan ibentzen du bere gogoia. Gibelaz itzultzen zaika Jainkoari eta begitarateaz kreaturari. Eta nola bi gauza egiten baititu, halatan ditu merezi ere bi pena eta gaztigu. Lehenbizikoa, merezi du utz dezan Jainkoak, egotz dezan bere konpainiatik, eztezan sekulan haren bekhoiririk eta bisaiarik ikhus: utz dezan utz-zailea. Eta pena haur deitzen du San 30 35

315-36 «Utz-zailea. -tzaile atzizkiaren aldaera da *zaile* hau» (Villasanteren oh.). Pentsa daiteke aldaera grafikoa baino ez dela, txistukarien talka eta *utz* forma etimologikoa aldi berean adierazi beharrez sortua.

Tomasek *poena damni, id est: carentia divinae visionis, carentia divinae praesentiae*, Jainkoaren ez ikhustea, haren konpainiatik eta loriatik sekulakotzat kanpoan eta etsaigoan, desterraturik egoitea.

5 Eta haur da ifernuan dagoenak iragaiten duen penarik handiena eta malenkoniarik malenkoniagarriena. Zeren nola parabisuan dagoenari, Jainkoaren ikhustetik eta haren konpainian egoitetik ethortzen baitzaitza ontasun guztiak, hala ifernuan dagoenari ere, Jainkoaz <576> gabeturik, eta haren begi bistatik eta konpainiatik desterratua egoitetik heldu zaitza dituen kalte guztiak.

10 Gauza bat galtzen duzunean, damu hartzen duzu. Eta, zenbatenez eta galtzen duzun gauza hura baita hobeago, handiago eta baliosago, hanbatenez hartzen duzu damuago, hanbatenez sentitzenago duzu. Beraz, zinez eta arrazoinekin sentituko duzu, eta damu hartuko, Jainkoa bera, den gauzarik hoberena, handiena, baliosena eta zuk beharren zenduena, galtzen duzunean. Kalte handia da begietako bistaz, osasunaz eta azienda guztiaz gabetzea; beraz, zinez izanen da kalte handia, Jainkoaz 15 beraz gabeturik jartzea.

370 Erregeren lehenbiziko semeak, zuzenez eta ethorkiz erresuma guztiko jaun eta errege heldu denak, damu har lezake, erregetzat koroatu eta errezibitu behar duten egunean, egotz balezate desterraturik erresuma guztitik kanporat; zer damu, 20 zer despit eta atsekabe errezibituko du, beraz, giristinoak ere, zeruko erresumako heredero eta partale heldu zenak, erresuma hartan sarthu uste zuen egunean athea hersten diotela eta kanporat egotzten dutela dakusanean?

Presuna bati zeure behar orduan, premia premiazkoan, gauza baten eskatzen zatzaitzanean, damu hartzen duzu, baldin duela dakizularik, hutsik egotzen bazaitu, ezetz erraiten <577> baderatzu. Bada, zeure azken finean, heriotzeko orenean, behar 25 ordu guztien gaineko behar orduan, zer damu, zer bihotz ukhaldi errezibituko duzu? Zer pena eta atsekabe sentituko duzu, Jainkoak hutsik, behar duzuna gabe, kanporat egotz zaitzanean? *Nescio vos*. Etzaituela ezagutzen, berandu duzula, eztuzula erremediorik erran diazazunean? Eta hunela erranik, athea herts diazazunean? Badirudi, hunetan pensatzeak berak ere, sekulakotzat musut-huts gelditu behar duela ikhustek, 30 nehori buruko ileak latzten derautzala. Arrazoinekin erraiten du San Krisostomok: *Multi hominum Gehennam tantum formidant; ego autem, gloriae illius amissionem, Gehenna multo amariorem esse dico* (Chrysost. *Hom. 47 ad popul. Anthio*). «Batzuk ifernuaren dira beldur, eta ez bertzeren; baina niri, guztien gainetik, zeruko loriaren galtzea iduritzen zait dela garratz eta izigarri, gehienik ni harentzat naiz beldur».

371 Hunetarik aditzen da profeta Dabiten erran bat: *Pluet super eos ignis et sulphur et spiritus procellarum, pars calicis eorum* (*Psalm. 10*). «Su, zufre, tormenta eta bertzerik anhitz pena emanen deraue Jainkoak kondenatuei».

40 Baina hek guztiak, *pars calicis eorum*, eztira parte bat baizen izanen, eta partetik ttipiena. Zeren guztietako handiena izanen da zeruko loriatik, Jainkoaren begi bistatik eta konpainiatik sekulakotzat kanpoan egoitea.

<578> Hemen erranen du zenbaitek: Linboan dauden hurrek, bathaiatu gabe hiltzen direnek, eztute Jainkoaren begitartea ikhusten, eta ez ikhusiko ere: bethi daude, eta egonen dira, zeruko loriatik desterratuak. Eta, guztiarekin ere, doktoren errana da, eztutela hek penarik izaiten, eta ez tristurarik errezibitzen, eta ez errezibituko ere. Nolatan diogu, beraz, ezen Jainkoaren ez ikhustea, haren konpainiatik kanpoan egoitea dela pena guztien gaineko pena? Ezta gaitz ihardesten. Zeren nola linboko hurrak ezpaitaude han bere faltaz eta ez bere bekhatuakgatik, eztu nahi Jainkoak duten hek hargatik tristurarik, penarik, eta ez atsekaberik. Baina ifernuan daudenak, nola bere faltaz, maliziaz eta bere presunaz libreki egin zituzten bekhatuakgatik baitaude Jainkoaren konpainiatik kanpoan, hargatik, eta Jainkoak ere hala ordenaturik, dute tristura paregabe bat, eta atsekabe guztien gaineko atsekabe bat. 5 10

Eta haur da bekhatuaren lehenbiziko pena eta gaztigua, bekhatoreak izanen duena: Jainkoaren ez ikhustea, haren konpainiatik eta adiskidetasunetik sekulakotzat kanpoan gelditzea.



<579>

Bekhatoreak ifernuan izanen duen bigarren penaz eta gaztiguaz, zein deitzen baita poena sensus, sensuaren pena

KAP. LVII

372 Egia da: handia da Jainkoaren loriatik eta konpainiatik kanpoan egoitetik heldu den damua eta kaltea. Ordea, zeren baitirudi ezen hala egonagatik ere, balukeiela bekhatoreak zerbait konsolamendu; edo ez lizatekeiela alde guztiz onbehar eta ez osoki urrikalkizun, baldin nehon minik edo oinhazerik ezpalu; hartarakotzat, bekhatorearen bigarren pena eta gaztigua, bekhatoreak merezi duena eta izanen duena da *poena sensus*, sensuaren pena, su eternala, akhabatuko eztena. Eta pena haur emaiten zaika bekhatoreari zeren Jainkoa utzirik itzuli zen kreaturetara, eta Jainkoaz eta haren manamenduez baino, munduaz eta munduko plazerez kontu gehiago egin zuen. Hala erraiten du San Tomasek: *Poena sensus respondet inordinatae conversioni ad creaturam*. Pena hunez erraiten du San Mateok: *Ite in ignem aeternum* (*Math.* 25). «Zoazte su <580> eternalera, akhabatuko eztenera». Halaber erraiten du San Mateok berak: *Excidetur, et in ignem mittetur*. «Ebakiko da eta sura egotziko da».

Eta eztezazula, ez, pensa, ifernuko su hura hemengo su hauk bezala izanen dela. Baina hura, nola izanen baita Jainkoak berak pitztua eta egina, hala izanen da hemengo suak baino beroago eta goriago. Halako moldez ezen, hemengo sua, hangoarekin konparaturik, pintatua bezala izanen baita. Eta haur ezta miretsteko, zeren are hemengo suetan ere diferentzia handia da. Sufrezko sua, eta are egurrezkoa ere, beroago eta indartsuago da lastozkoa baino. Hala izanen da, bada, halaber, ifernuko su hura ere hemengo suak baino beroago eta bortitzago.

§ 1

373 Lurrean barrena, gure azpian, lurrak duen lekhurik beherenean, zentruaren aldean, lurraren hondarrean, edireiten da leze handi bat, labe gori bero bat, behin ere hotzten eta iraungitzen eztena, alde guztietarik hertsia, atherik eta leihorik eztuena, kondenuatu guztien edukitzeko asko handia, zein baita eta deitzen baita ifernua.

Eta han, ifernu hartan egonen dira kondenatu guztiak, alde guztietarik, kanpotik eta <581> barrenetik, suz inguratuak, sutuak, burdin goritua dagoen bezala. Eta guztiak elkharrekin eta su batetan.

Ordea, benturaz dudatuko du zenbaitek, eta erranen ere bai: Nolatan ahal dateke hori horrela? Nolatan ahal dauteke kondenatu guztiak elkharrekin, lekhu batetan eta su batetan? Zeren ifernuan daudenen artean bada diferentzia, batak baino bertzeak bekhatu gehiago du; arrazoin da, beraz, halaber, batak baino bertzeak pena ere gehiago duen. *Secundum mensuram delicti erit et plagarum modus (Deut. 25)*. «Hobenaren arauaz izanen da gaztigua ere». *Quantum glorificavit se et in deliciis fuit, tantum date ei tormentum et luctum (Apoc. 28)*. «Zenbat atsegin eta plazer hartu baitzuen, hanbat eta hainbertze desplazer eta atsekabe eman bekio». Beraz, hunelatan, eztira kondenatu guztiak su batetan berdin egonen. Zeren hala baleude, guztiak berdin eta orobat lukete pena eta gaztigu.

374 Bada, ordea, su batetan, guztiak berdin eta elkharrekin egonen dira. Ordea, hargatik, bekhatu gehiago duenak pena gehiago izanen du. Eta zergatik eta nola izanen duen pena gehiago, eman ahal ditezke bi arrazoin. Lehenbizikoa da San Tomasena, eta haren hitzak berak dira hauk: *Ad tertium dicendum quod ignis ille est instrumentum divinae iustitiae punientis. Instrumentum autem non solum agit in virtute propria et per proprium modum, sed etiam in virtute principalis <582> agentis, et secundum quod est regulatum ab eo. Unde, quamvis secundum propriam virtutem non habet quod aliquos cruciet secundum magis et minus, secundum modum praeditum, habet tamen hoc, secundum quod eius actio modificatur ex ordine divinae iustitiae (S. Thom. 3 p., q. 97, art. 5 ad 3)*. Erran nahi du: Ifernuko su hura Jainkoaren justiziaren borrheroa, azotea eta muthila da. Eta halatan, su hark bere naturalezaren arauaz bata baino bertzea erratzenago ezpadu ere, bai ordea erratzenago du Jainkoaren justiziaren muthil bezala. Zeren bere nabusiak manatzen duen bezala batbederaren alderakotzat bere berotasuna eta indarra enplegatu behar baitu. Eta halatan du erratzenago eta penatzenago bekhatu gehiago duena. Zeren Jainkoak, su haren nabusiak, hala nahi baitu.

Bigarren arrazoina. Bekhatu anhitz duena eta gutiago duena, biak daude berdin ifernuko suan. Ordea, bekhatu gehiago duen hark pena gehiago iragaiten du. Zeren hura minberago, sentikorrago eta suari ihardesteko eriago, flakoago eta erbalago baita. Bi presuna daude iguzkian; eta iguzki hark eztio batari deus senti arazitzen, eztio minik egiten; baina bertzeari berehala burua minberatzen dio, iragaiten dio, izerditan ibentzen dio. Zeren hura baita bertzea baino flakoago eta sentikorrago. Hala da, bada, bekhatu anhitz duena ere guti duena baino minberago, <583> sentikorrago eta suari ihardesteko flakoago. Eta halatan, biak berdin su batetan egonagatik, eztira biak berdin erratzen eta ez penatzen, baina batbedera penatzen da bere duen faltaren eta hobenaren arauaz.

§ 2

375 Orai hemen galdegin ahal diteke ea ifernuan berorik baizen hotzik izanen denz. Eta bada erraiten duenik baietz: eta nola ifernuan izanen baita bero handi bat,

hala izanen dela, halaber, hotz handi bat, izotz, horma, elhur; eta ifernuan daudenak aldatuko direla batetik bertzera, bero handitik hotz handira, eta hotz handitik bero handira. Baina bitartean, batetik bertzera aldatzean, etzaiela penarik arinduko. Eta hunela erraiten dutenek, hartzen dute okhasino hunela erraiteko, Job gizon saindu haren erran batetarik: *Ad calorem nimium transiet, ab aquis nivium; et usque ad inferos peccatum illius (Job. 24)*. «Bero handira iragan bedi elhur uretik, eta ezta ifernuraino baratuko haren bekhatua». Beraz, badirudi ezen ifernuan izanen dela hotz eta bero, ur eta su.

Baina egiteko huni ihardesteko, aita Domingo Soto doktor handi hari jarraiki <584> nahi natzaika (Vide Dom. Soto in 4 *Ser. dist.* 5 q. unica art. 4). Eta haren erranaren eta iduriaren arauaz diot ezen, ezteela ifernuan izanen elhurrik, hormarik eta ez bertze hotz suerterik. Zeren gure salbatzaileak, ifernuaz mintzo denean, eztu behin ere aiphatzen elhurrik, eta ez egiten orhoitzapenik hormaz eta ez bertze hotz moldez. Aitzitik, erraiten deraue gaixtoei: *Ite, maledicti, in ignem aeternum*. «Zoazte maradikatuak su eternalera, akhabatuko eztenera». Zeren hotzetik berora edo berotik hotzera aldatzekotz, aldatu behar lizateke gehiago penatzeagatik. Baina hartarakotzat ezta hotzen premiari. Zeren, bataz, bortitzago baita beroa hotza baino; eta bertzea, zeren suaz beraz emaiten baitio Jainkoak bekhatoreari bere dagokan gaztigua. Beraz, badirudi ezen alfer lizatekeiela hotza, beroa bera asko den lekhu.

Eta hala, ifernuan zegoen aberats abariziosak ezin erdietsi zuen ur xorta bat bere mihiaren hezatzeko eta freskatzeko. Eta bertzela ere gaitz da aditzen eta erdiesten, nola ahal dirateien elkharrekin edo bata bertzearen ondoan, ifernuko labe hartan, hotza eta beroa; behintzat, batetik bertzera aldatzeko puntu hartan bedere, zerbait moldez pena arindu gabe.

376 Eta Jobek erraiten duenean iragan bedi elhur uretik bero handira, ezta, ez, han Job <585> mintzo ifernuko penez, eta ez han daudezinez. Baina lekhu berean ikhus ahal ditekeien bezala, mintzo da bekhatoreaz; eta ez, ez, edozein bekhatorez, baina adulterioan, bertzeren emaztearekin dagoenaz, amorantearekin bizi denaz. Eta hari egiten derautza bere mehatxuak, eta egotzten derautza maradizinoak, erraiten duela: *Maledicta est pars eius in terra*. «Maradikatua da hark lurraren gainean duen partea». *Ad calorem nimium transeat ab aquis nivium*. «Egin bedi elhurra bezain hotz debozinoan, eta sua bezain bero malizian; eta hotzetasun hartarik, negutik udara bezala, iragan bedi ifernuko berotasunera, eta ezta hareraino, han hel arteino baratuko». *Usque ad infernum peccatum eius*.

Eta erraiten badu ere gure salbatzaileak, ifernuaz mintzo dela: *Ibi erit fletus et stridor gentium*, han izanen dela nigar eta hortz karrask-hots; ezta, ez, aditzen hortz karrask-hots hura hotzetik heldu dela, eta ez hotzak eragiten duela. Baina hura era-

321-9 «Ifernuan beroaz gainera hotza ere egonen dela diotenen kontra sartzen da hemen Axular. Fr. Luis de Granadak sostengatzen du uste hori (Ikus *Libro de la Oración*, «Meditación del infierno», ostiraleko gauean egitekoa)» (Villasanteren oh.).

giten du, bataz, barreneko damuak, orhoitzeak nola bere faltaz dituen egiteko hek guztiak; eta berriz, bertzea, suak emaiten dioen dolore handiak. Hark gorputzeko parte guztiak ikharatzeintu, eta hortz-haginei karrask-hots handi hura eragiten de-raue. Eta hala, ifernuan ezta elhurrik eta ez bertze hotz suerterik; bethi da bero eta su. <586> Eta su hura ezta behin ere ttipitzen, eta ez iraungitzen. Eta eztu hark egurrik ere behar, eta ez aitzinatailerik. Kondenatuaren arima bethi dago suan, eta bai gorputza ere egonen, azken judizioko eguna iraganez gero.

§ 3

377 Arimak bere penak bezala, arimaren potentziek eta botherek ere —zein baitira adimendua, borondatea eta memoria— izanen dituzte bere pena moldeak, bere-bereak eta bereziak. Adimendua egosiko da bere baithan barrena, hanbat pena eta hain handiak pairatu behar dituela konsideratzeaz; eta gogoaren bertzetara aldatzeko astirik ere gabe, bethiere egonen da pena hetan pensatzen eta penatzen. Borondatea ere ibiliko da haserretua herra errabiatu batekin Jainkoaren kontra, zeren hanbat gaitz eta pena emaiten dioen. Bada, memoria ere bere baithan nahasiko eta nekhatuko da, bere faltaz hartara dela eta bethi hala egon behar duela orhoitzeaz.

Eta arimak eta arimaren potentziek bezala, izanen dituzte gorputzak eta gorputzaren zensuek ere —zein baitira bista, enzutea, usna, gustua eta ukitzea— nor bere gaztigu molde <587> beregainezkoak.

Lehenbizikorik, *visus*, begietako bista izanen da penatua. Zeren ifernuko lupe hartan ezpaitu deus ikhusiko, ilhun izanen baita. Eta suan egonen bada ere, eta suak bere egitez argitzen badu ere, ordea, badateke argitu gabe: edo egurra dela kausa, izanen baita sufrea, zeinek ezpaitu argi klarik egiten, khe ilhunik eta beltzik baizen; edo lekhuia dela kausa, izanen baita lurrean barrena, alde guztietarik hersia, leihorik eta atherik gabea, hats hartzeko eta argiren edo haizeren sartzeko biderik ere izanen eztuena.

Egia da, ordea: ezta, ez, xoil eta alde guztiz ilhun ere izanen. Argi asko izanen da lanhope batean bezala, elkharren ikhusteko, eta ikhuste hartaz gehiago penatzeko eta tristetzeko. Zeren tristura handia errezibituko dute, noiz eta bere lagunak, zeinekin bekhatu egin baitzuten eta zeinengatik galdu baitziren, ikhusten baitituzte bere begien aitzinean. Hala emaiten du aditzera San Gregoriok: *Quamvis ignis ille non luceat ad consolationem, lucet tamen ut magis torqueat* (Greg. li. 9 *Moral.*). Ifernuko su hark argitzen ezpadu ere konsolatzeko, bai ordea argitzen du, eta argituko du, gehiago penatzeko eta malenkoniatzeko. Zeren argi lanbo harekin batean ikhusiko dute hanbat likitskeria, hanbat spiritu gaixto eta itsusi; hain konpainia <588> izigarria, hain su handia, ilhuna eta khetsua, non begietako bista hemen gauza ederren eta plazenten ikhusteaz banoki loriatu zena, han gauza itsusien, izigarrien, nardagarrien eta atsekabekorren begiesteaz dolarezki penatuko baita.

322-25 «Argiren, haizeren. Kasu mugagabeari» (Villasanteren oh.).

378 Halaber, *auditus*, enzutea, beharriak izanen dira penatuak, eta jarriko dira harrituak. Zeren ezteute enzunen, oihurik, nigarrik, marraskarik, deihadarrik, deithorarik, auhenik eta nigarrik baizen. Hango kantuak, leloak eta bozkarioak, izanen dira aiak, hatsbeherapenak, inzirinak, nigar-xopinak eta arrenkurak, bethiere arnegatzen eta maradikatzen dutela bere buruez eta erori zaien zorthen gaixtoaz. 5

Halaber, *odoratus*, usna, sudurrak izanen dira penatuak usain gaixto batez, khirats handiaz. Zeren, bataz, azken egunean jautsiko baitira, gaixtoekin batean, munduko hatskeria guztiak ifernura; eta berriz, bertzea, zeren nola zeruko lorian daudenek izanen baitute usain ona, hala ifernuan daudenek izanen dute gaixtoa; eta usain gaixto hartaz egonen dira bethiere sudurrak betheak eta khirastuak. 10

Halaber, *gustus*, gustua, ahoko zaphorea izanen da penatua: bataz, gosez eta egarriz, eta bertzea, zenbait janhari urdinduz eta <589> edari zurminduz. Hemen hemengoek bezala, han ere hangoek besta eginen diote. Ordea, diferentki. Hemengo gozotasuna eta jan-edaneko plazera, hango mintasunaz eta bianda gaixtoez ahantz arazitzen deraukatela. 15

Halaber, *tactus*, ukitzea, presuna guztia izanen da penatua. Zeren ezteute nehork han, surik, kharrik eta gauza likits nardagarririk baizen utkituko.

379 Finean, nola orai hemen sensu guztiek eta gorputzeko parte guztiek hartzen baitute atsegin eta plazer, hala han, halaber, hartuko dute guztiek damu eta atsekabe, pena eta dolore, min eta oinhaze. Han izanen da dolore guztien eta gaitz guztien junta, bilgura eta batzarrea. Han izanen du kondenatu onbeharrak buruan min handia, hortz-haginetan oinhaze bortitza, bihotzean dolore errabiatua, gorputzean kota, harri, ikhara, sukhar; finean, ahal diratekeien eritasun guztiak. Hanbat gaitz eta dolore izanen du, non dolore hutsez, dolore bihurtuko, konbertituko eta eginen baita. 20 25

Hemengo eritasunek eta oinhazek ezteute komunzki behin ere gorputz guztia osoki hartzen. Batean begietan duzu min, eta ez orduan beharrietan; bertzean eskuetan, eta ez oinetan. Eta hunelatan, parte batean min izanagatik, eztuzu bertzean min, <590> eztuzu oinhaze osoa eta ez guztietakoa. Eta, alabaina, parte batetako oinhazeak berak, hagin batetako minak, hain penatzen eta asaldatzen zaitu, non gau guztian lorik egin gabe edukitzen baitzaitu. Zer lizateke, bada, baldin gorputz guztian eta gorputzeko endrezera, aurkientza, juntura eta parte guztietan, osoki, berdinzki eta batetan oinhaze bazendu, eta oinhaze harekin erreka batetan, guztiek utzia, bazeneuntza? Orduan zinez zinateke onbehar, ondikoizko eta urrikalkizun. Hala da, bada, eta are urrikalkizunago, ifernuko penetan dagoena. Zeren hura da osoki guztia eta guztietan eri; hura da guztietan minez eta oinhazez gainez egina; ezteute bazterrik, ezteute huts-gunerik, guztia da bethea. Eta ongi da hala den. Zeren nola gorputz guztiaz eta gorputzeko parte guztiez, osoki, bekhatu egin baitzuen, arrazoin da, halaber, gorputz guztiaz eta gorputzeko parte guztiez osoki paga dezan, eta guztietan den alde guztiz penatua, gaztigatua eta oinhazeztatua. 30 35 40

380 Oinhaze hek, dolorezko dolore hek, emaiten zaitza ifernuan dagoenari dife-
 rentki, egin zituen bekhatuen diferentzien arauaz. <591> Han urguilua, handinahia,
 5 desohorezki oinen azpian erabiliko eta ostikatuko da. Han abariziosa, diruz betherik
 zegoena, nezesitate handian, munduko beharrik beharrena baino beharreanago ja-
 rriko da. Han sabeldarraio, golosa, lamitia, jan-edanera emana, gulara eroria, gosez
 eta egarriz, ur xorta bat ere ezin erdietsiz, amitua ibiliko da, flakaturia eta iragana
 jarriko da. Han arnegaria, mihitik urkhatua dilindaka egonen da. Han emakhoia,
 haragiaren lohian lizundua eta hidoiztatua ibili dena, deabru izigarriek bere atzapar
 10 zorrotzez ferekatuko, larrutuko, eta halakoari dagotzan bertze pena molde batzuek
 penatuko dute.

Are gehiago, ifernuan abariziosak abarizioekin, ohoinak ohoinekin, arnega-
 riak arnegariekin; finean, kideak kidekin eta suertekoekin egonen dira bereziak eta
 parzelatuak. Hala emaiten du aditzera San Mateo ebanjelistak: *Colligite primum*
 15 *zizania, et alligate ea in fasciculos ad comburendum* (Matth. 13). «Biltzatzue belhar
 gaixtoak, eta biltzatzue multzuka eta zamaka, erratzeko elkharrekin». Eta nahi badu-
 zue jakin zer den hunela multzuka eta zamaka bildurik erratzea, deklaritzen du San
 Gregoriok: *Fasciculos ad comburendum ligare, est eos qui aeterno igni sunt traditi,*
pares cum paribus sociare, ut quos similis culpa inquinat, par etiam paena cons-
 20 *tringat* (Greg. li. 2 *Moral.*, cap. 47). Belhar gaixto zamak, multzuak, <592> eskume-
 nak edo eskutarak elkharrekin erratzeko biltzea eta lotzea, ezta bertze gauzarik,
 ifernura behar dutenen, ohoina ohoinarekin, arnegaria arnegariarekin, kidea kidea-
 rekin konpainiatzea eta juntatzea baizen. Halatan, bekhatu egitean, kulpan eta hobe-
 nean berdin izan zirenak, penan eta gaztigan ere diren berdin, eta batean bezala
 25 bertzean ere elkhar eduki dezaten.

381 Halakoez mintzo dela erraiten du errege Dabitek: *Sicut oves in inferno positi*
sunt; mors depascet eos (Psalm. 48). Ardi artaldeak bezala tropelaka eta parzelaka
 ifernuan egonen dira, herioak bazkatukoitu, herioa izanen da heken bazka, eta bai
 hek ere herioaren. Kondenatuaren penatzea konparatzen da ardiaren belhar jateare-
 30 kin. Hala dio San Gregoriok: *Depascere dicitur. Quia sicut ovis depascens herbam,*
non eam radicitus evellit, sed ita pascit, ut, manente radice, iterum herba crescat,
ut iterum depascatur; ita mors semper depascit miseris, quia semper illis relinqui-
tur vita, ut tormenta valeant sustinere. Nola ardiak ezpaitu behin ere belharra osoki
 akhabatzen, eta ez erroetarik atheratzen, baina gaineko ostoa jan, eta utzten baitu
 35 bethiere barreneko erroa eta zaina, berriz ere ostoa eginik, berriz hartarik jan de-
 zakeien bezala; hala herioak, penak, doloreak, minak eta oinhazeak jaten dute kon-
 denatuatarik, behin ere erroa athera gabe, bizia akhabatu gabe. <593> Halatan,
 bethiere bizitzen direla, bethiere penatzeko. Eta hala, heken bizitzea ezta bizitze, eta
 ez heriotzea heriotze. Ezta bizitze, zeren ezpaitu ontasunik, eta ez konsolamendurik.
 40 Ezta heriotze, zeren ezpaitu akhabatzerik. Arrazoinekin erraiten da halakoagatik:
Bonum erat ei, si natus non fuisset homo ille (Matth. 26). «On zukeien sorthu ezpa-

liz, edo sorthu eta berehala hurtu, hondatu eta ezdeus bihurtu baliz». Zeren San Tomasek dioen bezala, *Melius est non esse quam male esse* (S. Thom. 39 q. 98 ar. 3 *in corpore*), hobe da ez izaitea, gaizki izaitea baino. Hunen arauaz erraiten du Jondone Joanes ebanjelistak ere: *In diebus illis desiderabunt homines mori, et mors fugiet ab eis* (Apocal. 9). Egun hetan, orduan penetan daudenek desiratuko dute bere egunen fina eta akhabantza, hil nahiko dute, herioaren bilha ibiliko dira; baina alferrik: eztute edirenen. Zeren herioak hetarik ihes egingen du; halatan, bethiere bizi-tzen direla bethiere penatzeko. Zeren penatzea hiltzea baita.

§ 5

382 Erran behar da handia dela ifernuan daudenek duten miseria eta ondikoa, orai guk hemen gutien nahi dugun gauza, zein baita heriotzea, hek han hura gehienik bilhatzen eta desiratzen dutenean. 10

<594> Eta ezta miretsteko, hek han hala desiratzea. Zeren bere baithan erreak, deseginak eta alde guztiz deskonsolatuak baitaude. Kanpoan suak erratzeintu, eta barrenean harra alha zaie. Eta har hartaz erraiten du Isaias profetak: *Vermis eorum non morietur* (Isa. 66). «Heken harra ezta hillen». Eta har hura ezta, ez, hemengo har hau bezala, haragiz egina eta bizirik dabilana. Baina hura da konzientziaren akhusamendua, autsikia, alhadura, ximikoa, eranzutea; eta ifernuan daudenek bere baithan duten damua, urrikia eta orhoitzea, nola izan zuten indar, antze, ahal, esku eta bothere, pena hetarik guztietarik eskapatzeko; eta nola, guztiarekin ere, bere faltaz etziren eskapatu, bere faltaz galdu ziren; eta utzi zuten eskuen artean izan zuten denbora, okhasinoa eta aparailua probetxatu gabe iragaitera eta galtzera. 15

Eta hunela, orhoitze hunek akhusatzeintu, larrutzeintu, desegiteintu, erraiten duela batbederak bere baithan: «Ha, ene galdua, ene zoro adimendugabea! Zertan pensatzen othe nuen nik, bizi nintzen denboran, neure burua neure eskuko nuenean? Anhitzetan erran zeitan nori berea bihur niazola, etsaiarekin adiskide nendila, juramentu egiteko usantza utz nezala, behar etzen emazteari aparta nengiola; finean, giristino bezala Jainkoaren manamendu sainduen arauaz eta <595> ereduz mantena nendila, eta ezpere orai naizen egitekoan izanen nintzela. Baina nik, hunela erraiten zeitanean, irri egiten nuen, ez nuen sinhesten». 20 25 30

383 «Bada, orai paga dezadala; lekhu dolozko hunetan, hunenbat doloreekin eta dolozko lagunekin, mendez mende, sekulakotzat geldi nadila. Zeren hala dut merezi. Ez nuen erein, ezta arrazoin bil dezadan. Ez nuen irabazi, ezta arrazoin goza dezadan. Eta neurk dut falta, eztu bertzek parterik; ezin demaiot bertzeri atxakiarik, neurk neure burua galdu dut». 35

325-1 «Hurtu (sic). Hala dator lehen edizioan. Badirudi *h* gabe behar lukeela» (Villasanteren oh.). *OEH*-k adibidea s.v. *urtu* bildu du, 2. adieran («consumirse, debilitarse, decaer (ref. a personas)»); bertako datuen arabera, zuberotarrek batez ere erabiltzen dute *h-z*.

325-34 *ezin demaiot*: ezin eman diezaioket. Ik. 325-34 testu-oharra.

- 5 Hauk dira ifernuan daudenen solhasak, hauk dira heken arteko dolorezko per-pausak. Orhoitzen dira, nola bere faltaz hain onbehar errendatu diren, eta orhoitze hunek bere baithan egosteintu, malenkoniatzaintu. Eta haur da gau eta egun, behin ere ase gabe, sosegatzera utzi gabe, alha zaien eta alhako zaien harra: probetxu gabeko urrikia, denbora joanez gerozko damua, dolua eta nigarra; zein baita ifernuan daudenek duten pena handietarik bat. Zeren zer ahal dateke pena penagarriagorik, eta bihotz erdiragarri erdiragarriagorik, bere buruaren sekula fngabekotzat erremediorik gabe galdua, eta bere faltaz galdua ikhustea eta orhoitzea baino? Ha orhoitze tristea, penagarria, eta penatarik ilkitzeko esperantzagabea!

KAP. LVIII

384 Handiak eta izigarriak dira ifernuko pena hek. Eta, baldin oraino pena heken nehoiz akhabatzeko, arintzeko, laburtzeko edo gutitzeko esperantzarik baliz ere, badirudi balizatekeiela zenbait konsolamendu. Baina hanbat pena, hain handiak, eta finik ez, eta ez finik izaiteko usterik ere, haur da gauza latza, haur da aitzin-gibel beha arazitzeko eta gogoeta eragiteko puntu izigarria. Zeren esperantzarik eztuena, presenteko penak bezala ethorkizunekoak ere penatzen du; hura ere ikhusten du; hura ere presentean bezala eta bere gainean bezala daduka. Zeren baitaki harentzat dagoela, eta eztela akhabatuko. 5
10

Orai hemen dolarez eta oinhazez inguratua zaudenean ere, edireiten da zenbait bide hats hartzeko eta konsolatzeko. Eri zarenean, ethortzen zaizkitzu adiskideak ikhustera, eta hek aphur bat gaitza arintzen deratzute; midikua bisitatzer, hark ere esportzatzen <597> zaitu. Eta, guztien gaintik, bethiere bizi zara gaitza arinduko zaitzulako esperantzan, eta esperantza hark konsolamendu handia emaiten deratzu. Baina ifernuko eritasunean, hango penetan, halako moldez daude esperantzaren atheak hertsia eta portuak hartuak, non hala dauden dolorezkoek eta han daudenek, ezpaitute nehondikan ere konsolamenduaren sartzeko argirik ikhusten. *Clausula est ianua*. Hertsia da halakoentzat miserikordiaren athea, urrikalmenduarena, arartekotasunarena, merezimenduarena, garaziarena; finean, ontasun guztiena. 15
20

Aberats abariziosa, ifernutik erratzen zegoen lekhutik hasi zeikan oihuz eta othoitzez Abrahani, erraiten zioela: «Aita Abraham, badakusazu nola nagoen, su hunetan errea eta idor elkhortua; euzu, bada, nitzaz miserikordia, eta egor iazadazu Lazaro, hark bere erhi puntaz, urean bustirik, mihian utki nazan, aphur bat heza nazan. Eske haur egiten deratzut, haur da ene othoitz». 25

Zer eske eskasagorik edo othoitz ttipiagorik egin ahal ziazaion? Etzeikan ausartu othoitztera egor ziazola pitxer bat ur, edo esku guztia urean sar zezala, eta ez are erhi guztia ere. Baina haren desirkunde guztia zen, erhi punta urean sar zezan,

eta hartaz <598> mihia utki ziazon, plazer hura egin ziazon. Gauza aphurra zen, desirkunde ttipia zen. Baina hura ere, ttipiago bazen ere, etzuen erdietsi, hainbertze plazer ere etzeikan egin. Jakin dezagun ezen, hartaraz gero, den plazerik ttipienari eta konsolamendurik aphurrenari ere atheak hertsi zaitzela.

- 5 **385** Itsas zabalean erortzen denak badarabiltza zerbaiti lothu nahiz eskuak, hersteintu: baina alferrik. Zeren eztu linburtzen eta itzurtzen zaikan ur enganagarririk baizen edireiten. Hala gerthatzen zaie, bada, ifernu zabal hondargabeen erortzen direnei ere. Eztute edireiten non oina fintka; eztute edireiten zeri lot; eztute edireiten girthainik, esku-tokirik, sostengurik, eta ez konsolatzeko biderik, eta ez esperantzarik.

Bada, konsolamendu gabeko, fin gabeko, eta fin izaiteko esperantzarik gabeko puntu hunetan nahi nuke iben bazinitza begiak, huni beha baziniazo, haur konsidera bazeneza; eta animalia suerte batzuek gauaz hasnaur egiten duten bezala, zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur eta gogoeta egin bazeneza.

- 15 Eta hunetakotzat, konsidera ezazu eriak gau luzean iragaiten duen trabailua, guztiz ere eritasuna zorrotza eta bortitza denean: nola iraulkatzen den, nola orenak kontatzen dituen, zein luze iduritzen zaitzan eta nola <599> argia desiratzen duen. Bada, baldin hemengo eriarri hemengo gaua, hain fite iragaiten dena, hain luze iduritzen bazaika, zer idurituko zaika ifernuan dagoenari hango gau luze eterno, fin gabeko hura? Ha gau luzea, gau beltz, ilhun, izigarria, art-urratze gabea, oilariterik izanen eztuena, sekulan argituko eztena, eta ez akhabatuko! Zer pena, zer dolore eta ondiko izanen da, argituko ezten gau hartan, ez hemengo eriak bezala, ohe bera onean, baina labe gori beroan, sugina gogorrean sekulakotzat etzatea eta egoitea? Arrazoinekin galdegiten du Isaias profetak: *Quis habitabit de vobis cum igne devorante? Quis habitabit de vobis cum ardoribus sempiternis?* (Isai. 33). Halako lekhan, hain su beroan, gar eternalean, nor egonen da? Nor biziko da? Nork iraunen du? Nork izanen du sorbaldarik sostengatzeko, indarrrik jasaiteko, eta pairurik eta pazientziarik sofritzeko? Orai hemen, den penarik ttipienak, su ihar batek, kilikatzen zaitu, asaldatzen zaitu: zer izanen da, bada, suz eta kharrez, kanpoan eta barrenean, ariman eta gorputzean hartua, inguratua eta burdin goritua bezala, goritua eta sutua zaudenean? eta sekulakotzat hala egon beharko duzunean? Othe dugu zentzurik? Othe dugu adimendurik? Ala elheak, ametsak edo gezurrak othe dira hauk? Edo gurekin mintzo othe dira? Guri othe dagozkigu, ala <600> bertzeri? Fedeak erraiten deraku guri dagozkigula, gurekin mintzo direla, gureak eta guretzat direla. Eta eztirela ez elheak, ez ametsak eta ez gezurrak, baina egiak, eta egiazki (baldin hobeki gobernatzen ezpagara) iragan beharko ditugunak direla. Edo hobeki minzatzera: behin ere iragan gabe, bethiere egoitzaz, gurekin egonen direnak direla.

328-1 ziazon: 'ziezaion'.

328-14 hausnaur: ala hasnaur? Ik. 328-14 testu-oharra.

328-28 su ihar: ala su inhar? Ik. 328-28 testu-oharra.

386 Zeren oraino pena hek, bertze penen artean, izanen dute pena haur ere gehiago, egonen baitira bethiere estatu batetan, egoitza batetan, molde berean, bethi berde. Ezta ihartzerik, ezta ttipitzerik, ezta muthatzerik, eta ez aldatzerik. Mundu hunetako gauzak eztaude behin ere krozka batean, igaiten eta jautsten dira, egiten eta desegiten dira, maiz aldatzen dira. Baditu itsasoak bere gorabeherak, bere mareak eta muthantzak. Presunak, haziendak, etxeak, onak eta eritasunak ere, eztaude behin ere batetan. Ezta sukharrik hain handirik, non puntu batetara iganez gero, ezpaita behehitzen eta ttipitzen; eta ez oinhazerik ere hain zorrotzik eta bortizik, gorenera denean ematzen eta ezitzen eztenik. Finean, munduko trabailu guztiak, eta egitekoak, denborarekin batean hautsten dira, iraungitzen dira, ezeztatzen dira; baina ez ifernuko sua eta pena. Pena hura bera da, eta ez <601> bertzerik, bethi berde, estante batean dagoena, muthatzen eztena. Hango sukharra eta berotasuna, ezta behin ere jabaltzen, eta ez behehitzen, bethi dago goren pontuan eta leheneko kontuan. Zer ahal dateke, bada, tormenta handiagorik eta nekharriagorik, bethiere lekhu batetan eta molde berean, higitu gabe, aldatu gabe eta muthatu gabe, harritua bezala, penatan geldi egoitea baino? Munduko janharirik preziatuena ere, bethiere hartarik, bertzetara aldatu gabe, jaten denean, gaitzesten da, higuintzen da.

Ezin zatekeien gure artean janhari hobeagorik, eta ez bianda gozoagorik, Jainkoak berak Israeleko semei zerutik eman zerauena baino. Ordea, zeren hartarik beretik, bertzetara aldatu gabe, bethiere jaten baitzuten, hain higuindu zeien, non jaterakoan goragale bat ethortzen baitzeien. Eta hala, ohe on batean ere, behin ere higitu gabe, alde batera edo bertzera itzuli gabe, bethi geldi egoitea eta etzatea ere, zer pena lizate? Nork paira lezake? Bada, baldin denbora luzeaz lekhu batean dagoena, ongi badago ere, penatzen eta nekhatzen bada, zer izanen da pena eternalan, su fin gabekoan dagoenaz?

<602>

§ 1

387 Nahi baduzu jakin zer den su fin gabekoa, akhabatuko eztena, frogatzen duten ondikozkoek dakite, eta ez bertzek. Baldin galdegin baliatzote orai Judasi: —Errazu, diszipulu gaixtoa, zeure nabusiaren saltzailea, zenbat denbora du, barren horretan, ifernuko pena horietan zaudela? Ihardets lezake: —Badu mila eta seietan ehun urthe, eta gehiago. —Eta orduan, lehenbizi pena horietara zinenean, zer zor zenduen? —Pena eternala, akhabatuko eztena. —Eta hemendik bertze mila eta seietan ehun urtheren buruan, zer zor izanen duzu? —Orobat orduan ere, hastean bezala, pena eternala, akhabatuko eztena.

Ezta aitzinatzen, eta ez gibelatzen, bethi dago egoitza batean, krozka batean. Ezta behin ere ifernuko obligantzaren zensua eta interesa iraungitzen, eta ez pagatzen; bethi da zor prinzipala interesarekin.

Eta, nola ifernuan daudenek hanbat pena iragaiten baitute, eta pena hetzaz zerbait pagatzen dutela, edo pagatu behar luketela badirudi ere, eztute, ordea,

pagatzen, bethiere dute orobat zor. Zeren nola borondate <603> gaixtoan eta malizian ostinatuak, gogortuak eta itsutuak baitaude, eta iragaiten duten pena ere, ez borondatez, baina bortxaz iragaiten baitute; eta pagatzeko eta meritu erdiesteko denbora ere iragan baitzaie, ezterae Jainkoak deus ere hartzen kontutan. Bethiere, 5 lehen deus iragan ezpailiz bezala, hasten zaie bere pena. Ehun mila mila urtheren buruan, hain urrun egonen dira pagatzetik, nola lehenbiziko sarthu ziren egunean eta orenean.

Orai hemen pena aphur batez, bihotzeko urrikimendu batez, egiazko konfesion batekin erremedia ditzakezu zeure bekhatu guztiak. Zeren orai Jainkoaren 10 miserikordiaren atheak idekiak baitaude; eta zuk ere orai zeure borondatea libre baituzu, eta libreki bertze aldera, gaixtotik onera, itzul baitezakezu. Baina ifernuraz gero, galdu du libertateak bere indarra; itsutu da adimendua, gogortu da borondatea, akhabatu dira arimako feriak, hertsu dira miserikordiaren atheak.

388 Aingiru gaixtoak bekhatutan erori zirenean, gelditu ziren malizian gogortuak, eta erremediorik gabe sekulakotzat galduak; hala gelditzen dira, bada, bekhatutan hiltzen direnak ere, hil ondoan sekulakotzat erremediotik kanpoan. *Si ceciderit lygnum ad Austrum aut ad Aquilonem, in quocumque loco ceciderit, ibi erit* (Eccles. 11). Zuhaitza norat ere erortzen <604> baita, nahiz iguzki haizerat edo mendebalerat, eskuinerat edo ezkererat, erortzen den lekhuari gelditzen da, ezta 20 handik higitzen; ez eta, behin ifernura erortzen den bekhatorea ere, ezta gehiago jaikitzen, eta ez jaikitzeke esperantzarekin gelditzen.

Baldin aingiru batek erran baliaze Jainkoaren partez ifernuan daudenei: Ea, jende penatuak, indazue albiriste, berri on bat eman nahi deratzuet. Ha, jauna, errazu zer? Zeren beharrean gaude. Jakin behar duzue ezen lurretik hasi eta zeruraino, mundu guztiak eduki ahal dezakeien artho bihi kontu bezenbat urthez, pena horietan egon zaretenean, ilkitko zaretela hortik, orduan zuen penak akhabatuko direla. Edo erran balekie, halaber, Jainkoaren partez: Jakizue ezen itsasoko ur guztia, eta munduko bertze ur guztiak xinhairri batek, urthean behin, bere asean edanez, xutka, agor, hondar eta akhaba ditzanean, akhabatuko direla zuen horko 30 penak ere. Hunela erran balekie, alegera litezke, esportza litezke, ez lukete handik aitzina leheneko penaren erdia. Zeren noizbaiteko esperantzarekin konsola bailitezke. Eta arrazoinekin konsola litezke. Zeren lurrak, ehun mila milaren ere, eduki ahal dezakeien artho bihi kontu baino urthe gehiago egonen baitira, eta egon beharko <605> baitute pena hetan. Eta xinhairri batek ere, mila urthetarik mila 35 urthetara behin edanez, lehen agor, xuka eta akhaba bailitzake munduko ur guztiak, itsasoa bera barrenean dela, heken penak akhabatuko diren baino. Zeren den gutienaz ere, bethi gutitzen dena, eta ez behin ere berretzen, noizbait akhabatuko da; baina ez ifernuko pena, ezta sekulan akhabatuko. Zeren irautez eta iraupezez baita fingabe eta infinitu.

330-34/35 *mila urthetarik mila urthetara*: «Kasu mugagabeari» (Villasanteren oh.).

§ 2

389 Gogoetan jartzen naizenean, zer izanen den ifernuko pena hartaz, noiz akhabatuko den, eta finik ezin ikhus, akhabatzerik ezin ediren, hondarrik ezin erdiets, gelditzen naiz benzutua, errendatua, non nagoen eztakidala. Zeren nola Jainkoak ezpaitu izanen finik, eta ez akhabatzerik, hala ifernuko penek ere ez tute izanen finik, eta ez akhabatzerik. Zeren iraunen baitute Jainkoak dirauen bitartean. 5

Ha mundu zoroa, giristino itsu, adimendugabea! Hemengo pena aphur batez, oren batetako minaz eta oinhazeaz, hanbat kasu eta kontu egiten duzuna, egizu halaber zerbait kontu eta gogoeta fin gabeko mende hartaz ere; orhoit zaitezi sekula, sekula gabeko *sekula* hartaz, esperantza gabeko *bethiere* hartaz; eta orhoiturik, utzkitzu <606> luzamenduak, gerotik gerora ibiltzeak, pensu gaixtoak eta maliziak. 10

Ifernuan daudenek anhitz mila urthez pena hetan egonez gero, ikhusirik bere pena iraganez ez tute la batere probetxurik, konsidera ahal diteke, ezen bere gogoetan tristerik eta ilhunik, minzatuko zaitzala Jainkoari, eta erranen diotela: Zer da haur, Jainko handia, non da zure miseriak, urrikalmendua eta pietatea? Nolatan duzu horrein bihotz gogorra eta alzairuzkoa? Noiz arteino egonen gara hunein penatuki, lekhu penatu hunetan? Noiz asko etsiko duzu gure hunela edukitzea? Anhitz mila urthe, anhitz mende du hemen gaudezila. Zer izanen da, bada, gutzaz? Noiz ilkitko gara hemendik? Ihardetsiko zaie: Ha galduak, ontasunik merezi eztuzuenak, eta izanen ere eztuzuenak, erremediotik kanpoan zaretanak! Galdez zaudete zer izanen den zuetzaz, noiz ilkitko zarten hortik. Igurikazue oraino aphur bat, goiz urgoitu zarete. Jakin behar duzue ezen, zuen penak eta doloreak, oraino orai hasten direla; eta hemendik bertze horreinbertze urtheren buruan ere, orobat, orduan hasiko direla. Gal ezazue, gal, hortik ilkitzeko esperantza. Zeren sekula fin gabekotzat hor egon beharko duzue. 20

390 Erreputa haur, hunein hotza, motza eta gogorra enzun dezatenean, nork pensatuko <607> du zer eginen eta erranen duten? Zer sentimendu erakutsiko duten? Hasiko dira oihuz, hasiko dira deihadarrez, nigarrez eta marraskaz; hasiko dira bere ondiko handiaren deithorutzen eta auhentzen; hasiko dira bere buruen maradikatzan, begitarten larrutzen eta atzaparkatzen. Eta geldituko dira alde guztiz dolutuak, etsituak, deskonsolatuak eta desesperatuak, nehondikan ere erremediorik, konsolamendurik eta esperantzarik ez tute bat gelditzen den bezala. 25

Eta zergatik haur hunela? Zergatik hunenbat gaitz eta pena? Eta zergatik fin gabe, akhabantzarik gabe, eta akhabantzaren izaiteko esperantzarik ere gabe? Zergatik? Bekhatu mortal batengatik. Zeren asko da bat. Bekhatu mortal, hain erraxki, laburzki eta denbora gutitan egiten den batengatik. Hain gutitan, non baiturudi ezen bidegabe egiten dioela Jainkoak bekhatoreari, buru-itzultze batez egiten den bekhatuagatik, sekulako gaztiguaren emaitiaz. Baina ez tute bidegaberik egiten, hunen hurreneko kapituluan ageriko den bezala. 35

331-9/10 *sekula, sekula gabeko sekula hartaz*: «Ohar zakizkio *sekula* hitzaz egiten duen jokoari» (Villasanteren oh.).

331-23 *Gal ezazue, gal*: «Kasu esateko moldeari» (Villasanteren oh.).



<608>

Ea zergatik hain denbora aphurrean eta laburrean egiten den bekhatuari emaiten zaikan hain gaztigu handia, luzea eta sekulakoa

KAP. LIX

391 Egia da, badirudi bidegabe egiten zaikala bekhatoreari, hain denbora gutitan egiten den bekhatuagatik hanbat denboratako gaztiguaren emaitiaz. Baina arrazoin guztiak ongi pensaturik eta konsideraturik, edirenen dugu eztela hartan bidegaberik egiten. Aitzitik, justuki eta zuzentki, den bekhatu mortalik ttipienari ere emaiten zaikala sekulako pena eta pena infinitua. Ez infinitua *intensive*, bortitztasunez. Zeren halako pena ezin jasan dezake kreaturak. Baina infinitua *extensive*, irautez eta iraupez, zein baita sekulan akhabatuko eztena. 5
10

Eta emaitetu arrazoinak San Tomasek bere hirugarren partean. Eta emaiten du lehenbizikoa: Denbora gutiz eta laburzki egiten den bekhatuari emaiten zaika sekulako gaztigua, <609> *quia peccatum est contra Deum, summum bonum, quod est infinitum* (S. Thom. 3 part. q. 99 art. 1), zeren bekhatua baita Jainkoaren kontra, zein baita infinitu. Beraz, gaztigua ere eman behar zaika infinitua eta akhabatuko eztena. 15

Baldin lurreko errege bati behar-ondoko bat emaiten dioenak gaztigu handiagoa merezi badu, edozein bertzeri emaiten dioenak baino, zinez mereziko du gaztigu handia, Jainkoari berari, mundu guztiko erregeari, emaiten dioenak, nola bekhato-reak, bere aldetik denaz bezanbatean, emaiten baitio, bekhatu mortal bat egiten duenean. 20

Eta hunetakotzat, hemen ere, munduko legen arauaz ere, emaiten ohi zaika, anhitzetan ere, denbora gutiz egiten den faltari, ohoinkeriari, heriotzeari edo bertze gaixtakeria bati, gaztigu handia eta luzea: desterrua, galerak eta batzutan heriotze penatua ere. 25

392 Oraino, egia hunen frogatzeko, beha diazogun ongi gizonaren bekhatuagatik egin zen pagamenduari eta satisfazioneari, eta edirenen dugu arrazoinekin emaiten zaikala denbora gutiz egiten den bekhatuari sekulako gaztigua. Zeren bekhatuaren bere bidean eta osoki, *ad aequalitatem iustitiae*, berdinzki justiziaren arauaz paga-

tzeko, behar izatu zen presuna infinituak, Jainko eta gizon zenak paga zezan; eta hartarakotzat heriotze errezibitu <610> zuen; halatan, zorra bezala, pagamendua ere izaiteko infinitu.

5 Eta hala, orai pagamendu hartzaz, Jainkoaren pasione sainduaz probetxatzen denak erremediatzen eta pagatzeintu bere bekhatuak. Zeren, baldin bekhatuak me-rezi badu gaztigu infinitua, halaber, egiten duen pagamendua ere, zein baita pasione sainduaren meritua eta balioa, infinitu baita. Baina Jainkoaren pagamendu hartzaz, haren pasione sainduaz eta infinituaz probetxatzen eztenak, eta probetxatu gabe hemendik ilkitzen denak, nola zor infinituarekin ilkitzen baita, justuki eta arrazoi-
10 nekin pairatzen du eta pairatuko du pena infinitua, finik eta akhabatzerik izanen eztuena.

§ 1

393 Denbora gutiz egiten den bekhatuari emaiten zaika gaztigu luzea eta seku-
lakoak. Zeren bekhatuaren gaztigatzeko, ezta, ez, hain konsideratzen bekhatuaren
15 egitean iragaiten den denbora eta bitartea, nola konsideratzen baita eta kontutan har-
tzen, bekhatoreak bekhatu egiteko izan zuen gogoak, borondatea eta deliberamendua.
Zeren bekhatua berekin duela eta bekhatu egiteko gogoarekin dagoela hiltzen den-
nak, gehiago bizi izan baliz, bekhatu gehiago eginen <611> zuen. Nahi zukeien ge-
hiago bizi, bekhatu gehiago egiteko. Akhabatzen zaika bizia; ez, ordea, bekhatu
20 egiteko gogoak eta nahia. Halakoari eta halakoei gerthatzen zaie, gauaz kandela argi-
tan jokoan hari direnei gerthatzen zaiena. Gelditzen dira jokotik, zeren akhabatzen
baitzaie kandela. Iraun balu kandelak, bazirauen jokatzeko gogoak. Hala dira, bada,
bekhatutan hiltzen direnak ere. Iraun arazi albaleraukate gehiago biziari, bekhatu
gehiago eginen zuten. *Voluissent sine fine vivere, ut sine fine possent in peccatis*
25 *permanere*, dio San Gregoriok (Gregor. 4 *Dialog*). Nahi zuketan fin gabe bizi, fin
gabe bekhatutan egoiteko; eta halatan, fin gabeko gaztigua ere emaiten zaie. Zeren
oraino San Gregoriok berak dioen bezala: *Ad magnam iustitiam iudicantis pertinet*
ut nunquam careant supplicio, qui nunquam voluerunt carere peccato. Arrazoin da,
justiziaren arauaz da, eztitezin behin ere penarik eta gaztigurik gabe egon, behin ere
30 bekhaturik gabe egotu nahi etzirenak. Eta hala, arrazoin hunengatik, denbora gutiz
eta laburrez egiten den bekhatuari emaiten zaika sekulako pena eta gaztigua. Zeren
bekhatuaren egitean iragaiten den denbora labur bada ere, ordea, bekhatu egiteko
borondatea baita luze eta bizi direino.

35 Eta batzutan halakoek erraiten badute ere hitzez, nahi luketela bere bekhatue-
tarik iltki, <612> eztutela aitzinerat hetan egoiteko gogorik; ordea, obraz kontrara
erakusten dute. Zeren hetan daudela akhabatzen dira eta, halatan, akhabatuko ezten
gaztigua ere justuki emaiten zaie.

334-20/21 *kandela argitan*: «Kasu mugagabeari. Orduko ohitura eta bizimoldetik jasotako irudi edo
laster-izpi bat gorde digu hemen Axularrek» (Villasanteren oh.).

§ 2

394 Denbora gutiz egiten den bekhatuari emaiten zaika sekulako gaztigua. Zeren, San Tomasek dioen bezala: *Culpa manet in aeternum, cum culpa non possit remitti sine gratia, quam homo non potest post mortem acquirere, nec debet poena cessare quandiu culpa manet* (S. Thom. ubi supra). Bekhatua eta bekhatuaren kulpa, hobena eta notha gelditzen da sekulakotz. Zeren ezin barkha diteke eta ez garbi bekhatua, Jainkoaren garazia gabe eta penitentsia egin gabe; eta hilez gero ezta garazia erdiesterik, eta ez penitentsia egiterik. Beraz, bekhatuaren penak eta gaztiguak ere iraun behar du sekulakotz. Zeren ezta arrazoin dagoen bekhatua, eta dagoen gaztigu gabe. 5

Merkatalgoa, sal-erosia, fite da egin. Ordea, handik harat, salduz gero, gelditzen da sekulakotz saldua saldu, eta bai erosia ere sekulakotz, erosia erosi. Buruan ere kolpe bat emaiten deratzutenean, kolpea fite da egin; ordea, sendatzea nekez eta luzaro. <613> Eta gero ere, sendatuz gero ere, gelditzen da komunzki seinalea, gelditzen da marka. Hala bada, bekhatuaren sal-erosia eta kolpea ere fite da egin. Ordea, gelditzen den seinalea, marka, notha, kulpa, zorra eta obligazinoa, sekulakotz gelditzen da. *Transit actus et remanet reatus*. «Iragaiten da kolpea, eta gelditzen da ondoko ondorea». 10

Beraz, arrazoinekin, gelditzen den ondoko ondoreagatik, laburzki egiten den bekhatuari emaiten zaika gaztigu luzea eta sekulakoa. 15

Eta hala emaiten zaika, halaber, laburzki egiten den obra onari ere, sekulakoa loria eta pagamendua. 20

335-12 «Saldua saldu, erosia erosi. Kasu esateko molde jatorrari» (Villasanteren oh.).



Zergatik Jainko miseriordiosak, denboraren buruan bedere, ezterauen ifernuan daudenei barkhatzen

KAP. LX

395 Gogoak emaiten deraut, benturaz erranen duela zenbaitek: Ez lizateke hobe, Jainko miseriordiosak, hain miseriordios denaz geroz, usa lezan bere miseriordiaz osoki eta <614> konplituki; eta azkenean barkha liazen guztiei, guztiz ere, plazer duen bezanbat denboraz ifernuan edukiz gero, eta han bere faltak ezagut arazirik, penitentzia eraginez gero? Eta izatu da zenbait, bere nahiarekin batean hala erran duenik. Eta gaixtoek hala nahi lukete. Ordea, ezta hala izanen, eta ezta arrazoin ere hala den. Zeren, bataz, baldin ezpaliz sekulako ifernurik eta ifernuren bel-durtasunik, eztaikit lizatekeienz bat ere munduan onik eta presturik. Dakigularik badela ifernu bat, guztiarekin ere, gara garen bezalako; zer lizateke, bada, baldin baginiaki eztela halakorik izanen, eta izaitekotz ere, zenbait denboratako izanen dela, eta ez sekulako? Purgatorioetakoaz konsolatzen gara, handik noizbait ilkitko garelako esperantzarekin, hala konsola gindezke, bada, ifernukoaz ere. 5
10

Eta berriz, bertzea, ezta arrazoin dagoen Judas nehoiz ere zeruko lorian, Jondone Pauloren eta bertze Apostoluen konpainian. Ezta arrazoin diren gaixtoak hain ongi zortheatuak, nola onak. Ezta arrazoin Jainkoaren kontra ibili direnak eta haren zerbitzuan enplegatut direnak, hemen baino gehiago, bertze munduan ere diren berdin. Hura ez lizateke miseriordia, baina lizateke justizia falta; eta Jainkoa baitan ezin dateke halako faltarik. 20

396 <615> Eta ezterauka, ez, Jainkoak bidegaberik egiten ifernuan dagoen kondenatuari, ez nehoiz barkhatzeaz; hargatik, ez barkhatuagatik, miseriordios da Jainkoa. Zeren San Tomasek dioen bezala: *Deus, quantum in ipso est, miseretur omnibus. Sed, quia misericordia sapientiae ordine regulatur, inde est, quod ad quosdam non se extendit, qui se misericordia fecerunt indignos, sicut demones et damnati, qui sunt in malitia obstinati* (S. Thom. 3 p., q. 99, art. 2 ad 1). Jainkoak bere aldetik denaz bezanbatean guztiei barkhatzen deraue, guztiez edukitzen du miseriordia. Ordea, behar den moldean, justiziaren arauaz eta nehor hartako gai eta merezient denean, eta ez bertzela. Eta nola deabruak eta presuna kondenatuak ezpai- 25
30

tira miserikordia erdiesteko gai eta ez merezient, zeren malizian eta borondate gaixtoan ostinatuak eta gogortuak baitaude; halatan, ezta Jainkoaren miserikordia hetara heltzen. Eta heken beren faltaz ezta hetara heltzen. *Perditio tua ex te, Israel (Oseae. 13)*. Baldin ifernuan daudenek balute bere bekhatuez behar den urrikimendurik, balegite penitenziarik, itzul balezate bere borondatea bertze aldera, gaixtotik onera, usa lezake bai Jainkoak heken alderakotzat bere miserikordiaz, eta barkha liatzaie bere bekhatu guztiak, orai guri penitentzia egiten dugunean barkhatzen de-
 5 rauzkigun bezala.

<616> Orai gu bidezkoak gara, badaidikegu penitentzia. Baina ifernuan daudenek eztute halako eskurik, eta ez bothererik; ezin daidikete hek penitenziarik, iragan zaie hei bere denbora, akhabatu dira heken feriak.
 10

Hek han bere bekhatuez damu eta urriki badute ere, eztute, ez, damu eta urriki hura behar bezalako; eztute Jainkoagatik, eta ez Jainkoari zor dioten amorioagatik, baina dute iragaiten dituzten penakgatik. Abre batek ere min hartzen duenean egiten du sentimendu; hala bada, ifernuan daudenek ere minagatik, iragaiten dituzten penakgatik dute sentimendu, damu eta urriki. Baina bertze gainerakoan itsutuak, ostinatuak, eta bere faltarik behar bezala ezagutzen eztatela, eta ezin konberti ditezkeien bezala, malizian eta borondate gaixtoan gogortuak, harrituak eta finkatuak daude. Eta hala, mundu hunetako aldia eginez gero, ezta erremediorik. *In inferno nulla est redemptio*. Ifernuan ezta reskatik, ezta libramendurik. Eta halatan, hanbatetan abisatzen gaitu geure Jaungoikoak, eta bai mehatxatzen ere, begira dugula, orai bizi
 15 gareino, geure bekhatuak erremedia ditzagula, zeren hilez gero, eztela erremedia-
 20 tzeke lekhurik izanen.

<617>

§ 1

25 **397** Baina oraino ezin etsituz, eta hala baliz nahiz, erranen du agian zenbaitek: Egia da, Jainkoak hala abisatzen gaitu, eta bai mehatxatzen ere. Ordea, benturaz mehatxu hek eztira mehatxu baizen izanen, hitzetan iraganen dira. Zeren hala Jonas profetaren denboran ere mehatxatu zuen Jainkoak Niniveko hiria, eta erran hondatuko zuela berrogoi egunen buruan; ordea, etzuen hondatu, etzuen mehatxuaren
 30 arauaz obratu; kheinatzea egin zuen, baina ez kolperik eman. Beraz, hala izanen da ifernuko penetara sekulakotzat egotzteko egiten dituen mehatxueta ere. Egia da, hala izanen da, baldin Niniveko hiri hark orduan bezala, guk ere orai penitentzia egiten badugu (Vide S. Th. 3 p., q. 99, art. 3 ad 3).

Gure Jaungoikoak mehatxatu zuen Noeren denboran mundu guztia, eta erran hondatuko zuela uholde handi batez. Eta hala hondatu zuen, bere mehatxua bere mugan konplitu zuen. Etzerauen Ninivekoei bezala barkhatu, zeren ezpaitzuten Ninivekoek bezala penitenziarik egin. Egiten denean penitentzia, eztira Jainkoaren mehatxuak mehatxu baizen. Hala emaiten du <618> aditzera Jeremias profetak Jainkoaren partez: *Si poenitentiam egerit gens illa a malo suo, agam et ego poenitentiam super malo quod cogitavi ut facerem ei (Jerem. 18)*. «Baldin nik mehatxatu
 35
 40

nuen jendeak egiten badu penitentzia bere bekhatuaz, eginen dut nik ere egin gogo nioen gaztiguaz». Erran nahi du, baldin jende hura, edo nornahi den bertzerik ere, gelditzen eta gibelatzen bada bekhatu egitetik, geldituko eta gibelatuko naiz ni ere, mehatxatu bezala gaztigatzetik. Eta nola ifernuan daudenek ezpaitzuten egin hemen penitentiari, eta han bertze munduan ezin baitaidikete, halatan konplitzen dira orai han, hemen egin zeitzen mehatxuak. 5

398 Mehatxatzeko puntu hunen ganean, ederki erraiten du San Krisostomok: *Vis id esse minas? Ipse Dominus es facti. Melior efficere, et ad minas tantum progredietur; si vero, quod absit, minas contempseris, venies ad experientiam. Qui diluvii tempore fuerunt, si minas timuissent, periculum non sustinuissent; et si nos minas timuerimus, periculum non subibimus* (Chrysost. *Hom. 50 ad popul. Anthioc.*, tom. 5). «Zuk nahi zenduke Jainkoaren mehatxuak ez liren mehatxu baizen; bada, hori zure eskuan dago», dio San Krisostomok. On zaitezi, hobe zaitezi, eta eztira mehatxu baizen izanen. Baina, baldin hobetzen ezpazara, baldin mehatxuez konturik egiten ezpaduzu, ethorriko zara zeure ordu gaitza, forogura, penaren <619> esperientziaz frogatzera eta kaltearen pairatzera. Noeren denborako jende hek probetxatu balira egin zeitzen mehatxuez, Ninivekoak probetxatu ziren bezala, etziren galduko, etzeien gerthatu zeiena gerthatuko. Ez eta guri ere, etzaiku kalterik ethorriko, baldin mehatxuek iziturik, orai penitentzia egiten badugu, orai onera konbertitzen bagara. 10

Eta hala, baldin orai gerok nor bagara, eztira guretzat Jainkoaren mehatxuak mehatxu baizen izanen. Ezta guretzat ifernurik gerthaturen. Baina bertzela, baldin bekhatutan gaudela begia hersten bazaiku, egin da, arima galdu da, ezta gero gehiago onera konbertitzerik eta ez penitentzia egiterik. 15

399 Haur da egia garbia, eta Elizak errezibitua. Gainerako guztia, Jainkoak bertze munduan, denboraren buruan, bere miseriakoz gaixtoen alderakotzat usatuko duela erraitea, gogoratzea eta uste izaitea, da erhokeria, enganamendua eta jende galduen desirkundea, kontua eta pensua. 25

Beraz, hunelatan, *dum tempus habemus, operemur bonum* (*Ad Gal. 6*), denbora duguino, dagigun ongi. Eta badio Isaias profetak ere: *Quaerite Dominum dum inveniri potest* (*Isai. 55*). «Bilha ezazue Jauna ediren ahal ditekeien denboran». Bada, orai ediren ahal diteke, eta <620> ez gero. Hala erraiten du Jainkoak berak: *Quaeritis me, et non invenietis* (*Ioann. 7*). «Bilhatuko nauzue eta ez nauzue edirenen». Gauza galdua galdu den lekhuan bilhatu behar da, eta bai ediren ere. Beraz, Jainkoa ere galtzen den lekhuan, hemen bilhatu behar da, eta ez bertze munduan. Zeren hemen galtzen baita, eta ez han. 30

Erran komuna da, eta ongi errana da —lehen ere erran dugun bezala— eztaizaiola nehorik ere nehorik hanbat kalte eta bidegabe egin, nola berak bere buruari. Mundu herri guztiak ere, baldin zerorrek biderik emaiten ezpadiozu, ezin egotz zaitzake ifernura. Baina zerorrek, bat baizen etzarelarik, zerorrek egotzen duzu zeure burua. 35

400 Etzarella, bada, zerori zeuretzat horrein etsai handia, urrikal bekizu zeure burua. *Non tardes converti ad Dominum, et ne differas de die in diem.* Eztezazula berant, eztezazula luzat: bihur zaitezi lehen baino lehen zeure Jainkoagana; etzabil-tzala gerotik gerora, egunetik biharrera. Eta ez hala ibiltzeko, konsidera itzatzu
5 ifernuko pena handi izigarri hek. Eta, guztien gaintetik, *sekula* fingabe hura, behin ere ez akhabatze hura, eta akhabatzeko esperantzarik gabe, etsitua eta desesperatua egoite hura. Hartan pensa ezazu, hartaz egizu pensamendu, hasnaur <621> eta gogoeta. Eta gogoeta harekin lohatkar zaitezi arratsean, eta bai iratzar ere goizean.

Eta hala egiten duzula, eta hunen aitzineko kapituluetan eman zaizkitzun arra-
10 zoinak ere konsideratzen ditutzula, esperantza dut Jainkoa baithan, ongi edirenen zarella; egun beretik bide onean jarriko, edo jartzera enseiatuko zarella.

Eta halatan, mundu hunetako itsaso hunen tormenta guztiak iraganik, azken finean salbamenduko portura salborik helduko zarella.

Jainkoak hala nahi duela

LIBURU HUNETAKO
kapituluen kontua

Kap. i. — <i>Nola, bertzeak bertze direla, alferkeriatik ihes egiteagatik ere behar den trabailatu</i>	
Kap. ii. — <i>Zenbat kalte egiten duen alferkeriak, eta nola handik sortzen den gerotik gerora ibiltzea</i>	5
Kap. iii. — <i>Nola nahikunde hutsetan eta desirkunde xoiletan iragaiten zaikun denbora</i>	
Kap. iv. — <i>Nola eztugun geroko segurantzarik</i>	
Kap. v. — <i>Nola geroko benturaren benturan benturaturik galtzen garen</i>	10
Kap. vi. — <i>Nola den geroago gaitzago bekhatutik ilkitzea</i>	
Kap. vii. — <i>Nola gerotik gerora ibiltzeaz koberatzen den usantza gaixtoa</i>	
Kap. viii. — <i>Nola usantza gaixtoak gogortzen eta ezansiatzen duen bekhatorea</i>	
Kap. ix. — <i>Nola gerotik gerora gabiltzala betha ditekeien bekhatuen neurria, eta osa kontua</i>	15
Kap. x. — <i>Anhitz balio duela Jainkoaren miseriakordiak, eta nola behar den hartan fidatu</i>	
Kap. xi. — <i>Jainkoaren miseriakordian fidaturik eztela penitentzia egitea geroko utzi behar</i>	
Kap. xii. — <i>Nola gerotik gerora ibiltzeaz galtzen dugun denbora</i>	20
Kap. xiii. — <i>Gaztetik zahartzera penitentzia luzatzen duenaz</i>	
Kap. xiv. — <i>Zahartzean ere penitentiariak egiten eztuenaz</i>	
Kap. xv. — <i>Heriotzeraino bekhatutan egon gogo duenaz</i>	
Kap. xvi. — <i>Erremusina egiteaz eta handik sortzen den probetxuaz</i>	
Kap. xvii. — <i>Nola erremusinak eta bertze obra on borondatezkoak, zerorrek zeure eskuz, edo bertzerenez, zerori bizi zarela, ondokoetara utzi gabe egin behar dituzun</i>	25
Kap. xviii. — <i>Nola obra obligazinozkoak, konzientziaz zor dituzunak, ondokoetara utzi gabe, zerorrek egin behar dituzun</i>	
Kap. xix. — <i>Zenbat kalte egiten duen juramentuak eta juramentu egiteko usantzak, eta nola behar den lehen baino lehen usantza hura utzi</i>	30
Kap. xx. — <i>Zenbat kalte egiten duten kolerak eta etsaigoak, eta nola behar den lehen baino lehen etsaigoatik kanpora</i>	
Kap. xxi. — <i>Koleraren iraugitzeko lehenbiziko erremedioa: batbederak, bere kondizino haserrekorra ezagaturik, hari begiaren edukitzea</i>	
Kap. xxii. — <i>Koleraren iraugitzeko bigarren erremedioa: dirakien eltzeari egiten zaikana, kolerari ere egitea</i>	35
Kap. xxiii. — <i>Koleraren iraugitzeko hirugarren erremedioa: ez orduan lehiatzea, kolera iragan arteino pausatzea</i>	
Kap. xxiv. — <i>Koleraren iraugitzeko laugarren erremedioa: konsideratzea etsaiek egiten derauzkiguten bidegabeak Jainkoaren gaztiguak direla</i>	40
Kap. xxv. — <i>Koleraren iraugitzeko borzgarren erremedioa: konsideratzea zer moldez dagoen zure etsaia, haserre denean</i>	

- Kap. xxvi. — *Koleraren iraungitzeko seigarren erremedioa: ez bilhatzea zer dioten gutzaz*
- Kap. xxvii. — *Koleraren iraungitzeko gainerako bertze erremedioak, kapitulu huetan laburzki ezarriak*
- 5 Kap. xxviii. — *Zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu eta amorio eduki. Lehenbiziko arrazoina: zeren Jainkoak manatzen baitu*
- Kap. xxix. — *Bigarren arrazoina zergatik behar diogun geure etsaiari barkhatu: zeren mendekatzea beretzat begiratzen baitu Jainkoak*
- Kap. xxx. — *Hirurgarren arrazoina, eta oraikotz azkena: barkhatu behar diogu geure etsaiari, Jainkoak guri barkha diazagun amoreakgatik*
- 10 Kap. xxxi. — *Zenbat kalte egiten duen haragiaren bekhatuak. Lehenbizikorik, itsutzen duela adimendua, eta nola behar den hartan sartzetik begiratu, eta sarthuz gero ere, lehen baino lehen ilkitzera enseiatu*
- Kap. xxxii. — *Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen bigarren eta hirugarren kalteaz: eztuela den ahaikoarik hurkoenaz ere konturik egiten, eta ez hartako juramenturik konplitzen*
- Kap. xxxiii. — *Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen laurgarren kalteaz: amoltsu eta bakezko zirenak, egiten baititu kruel eta gerlati*
- Kap. xxxiv. — *Haragiaren amorio desordenatuak egiten duen borzgarren kalteaz: sosegurik eta pausurik gabe ibentzea*
- 20 Kap. xxxv. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko eta handik heldu diren kalten erremediatzeko lehenbiziko erremedioa eta bidea: orazinoa*
- Kap. xxxvi. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko bigarren erremedioa: hartako gogoetei lekhurik ez emaita*
- 25 Kap. xxxvii. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko hirugarren erremedioa: borondatearen deliberamendua*
- Kap. xxxviii. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko laurgarren erremedioa: ez alfer egoitea*
- Kap. xxxix. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko borzgarren erremedioa: konsideratzea zein ttipia eta laburra den hartako plazera*
- 30 Kap. xl. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko seigarren erremedioa: hartako plazerak zein ondore gaixtoa bere ondotik utzten duen konsideratzea*
- Kap. xli. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko zazpigarren erremedioa: borz zensuez, eta lehenbizikorik begiez, kontu edukitzea*
- 35 Kap. xlii. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko zortzigarren erremedioa: mihiaz eta gustuaz kontu edukitzea*
- Kap. xliiii. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko bederatzigarren erremedioa: sabelari ez sobera emaita*
- Kap. xliiv. — *Haragiaren bekhatutik begiratzeko lehenen gainerako erremedioak*
- 40 Kap. xlv. — *Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean alha zaikun konzientzia gaixtoa*
- Kap. xlvi. — *Nola gerotik gerora gabiltzan bitartean galtzen dugun konzientzia onaren bakea eta sosegua*

- Kap. XLVII. — *Nola oraidanik behar dugun, geroko begira egon gabe, ontasunean irautera eta perseberatzera enseiatu*
- Kap. XLVIII. — *Nola, ikhusirik ifernuko bidea den gaitzago parabisukoa baino, behar den gerotik gerora ibiltzea utzi*
- Kap. XLIX. — *Nola parabisuko bidea den erraz* 5
- Kap. L. — *Nola parabisuko bidea den errazago ifernukoa baino*
- Kap. LI. — *Nola ezten kofesatzea gerotik gerora luzatu behar*
- Kap. LII. — *Maiz kofesatzeaz, eta handik heldu den probetxuaz*
- Kap. LIII. — *Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten dioen bidegabe Jainkoari* 10
- Kap. LIV. — *Nola luzamendutan gerotik gerora dabilanak egiten derauen bidegabe aingiruei*
- Kap. LV. — *Nola gerotik gerora luzamendutan dabilanak egiten derauen bidegabe bere buruari, bere giristino lagunari, eta bai munduko bertze gauza guztiei ere* 15
- Kap. LVI. — *Nola ifernuko penen konsideratzeak behar dituen gerotik gerora ibiltzeko luzamenduak laburtu*
- Kap. LVII. — *Bekhatoreak ifernuan izanen duen bigarren penaz eta gaztiguaz, zein deitzen baita poena sensus, sensuaren pena*
- Kap. LVIII. — *Nola infernuan daudenek ez tuten handik ilkitzeko esperantzarik* 20
- Kap. LIX. — *Ea zergatik hain denbora aphurrean eta laburrean egiten den bekhatuari emaiten zaikan hain gaztigu handia, luzea eta sekulakoa*
- Kap. LX. — *Zergatik Jainko miserikordiosak, denboraren buruan bedere, ezterauen ifernuan daudenei barkhatzen?*



TESTU-OHARRAK

- 1-7 geroko G: guerocotz GG
- 1-11 bildua G: vildua eta arguitara amana [sic]. // Bigarren Edicionea corrigetua eta emendatua GG
- 1-15 Inprimatzailea: Imprima-/zaillea G: Imprimat-/zaillea GG: inprimazaillea V [OEH-k ere *-zaille* letraldatu du. Materreren bigarren edizioan berdin (1623), baina *-tzaille* hala Etxeberri Ziburukoaren *Noelak*-en nola *Manual*-aren bigarren edizioetan (1645 eta 1669, hurrenez hurren), denak ere Millanges-en etxean eginak.
- 3-2 aitonen seme G L V: aitoren seme GG [Cf. *aitonen semea* (10-22), etab.]
- 3-20 Euskal G: Escal GG
- 3-22 euskaldunen G: escaldunen GG
- 4-1 euskaldunen G: escaldunen GG
- 4-4 dagoen G: dagoën GG
- 4-5 egundainoz Gesk L V: egundainos Gbi: egundaino GG
- 4-9 erortzera L V: erotcera G GG
- 4-24 gorputzak Gbi L GG: gorputza? G [azken hizkia irakurgaitz]: gorputza V
- 4-30 badirudi G: badiruri GG
- 4-31 bestitzeko [Gainerakoetan *bezt*:- *beztitu* (14-25, 112-2, etab.), baita *beztimenda* (14-26, 234-34, etab.) eta *beztidura* ere (234-36, 257-1).
- 5-8 euskaraz G: escaraz GG
- 5-8 euskaldunen G: escaldunen GG
- 5-10 ttipi G: tipi GG
- 5-23 zatzaizkidala Gesk L V: çatçaizquidela Gbi GG
- 5-27 derauzkitzudala Gesk [garbi ez] GG L V: derauzquiçtudala Gbi
- 7-2 D.D. G: Domini Domini GG
- 7-9 rectore G V: Rectori GG
- 7-13 de Lus V: delus G: de Luz GG
- 7-20 authoris G: Auctoris GG
- 9-8 aditzera L V: aditceira G GG
- 9-11 zinez Gesk GG L V: cines Gbi
- 9-11 zeizkidan V: zeiskidan G GG L [Cf. *zeizkidan* (9-8, baita 28-10 ere).
- 9-12 baitzerauzkidaten V: baitzerauskidaten G GG L [Cf. *derauzkitzudala* 5-27, etab.]
- 10-12 huts L V: hutz G GG
- 10-20 esatea Gesk GG L V: esaitea Gbi
- 11-14 muturturic G GG V: muturturik L [Cf. *muthurtua* (156-9), bustidurarik gabe.]
- 11-21 fransesez: franseses G GG V: frantsesez L
- 11-24 xoil: choil G: Ioil *in m.*: joil Gesk *in m.*
- 13-18 bekhaturen G L V: beccatuaren GG
- 13-23 *experientiam* G GG: *experimentum* L V
- 13-28 ez GG L: ez / ez G: ez ez V
- 14-11 erratzen G L V: erretzen GG
- 14-13 bertzea G L V: bertzeaz GG [*bataz...* *bertzea...* egitura sarri agertzen da (48-34, 87-6, 113-21, etab.).

- 14-19 *Acto*. 5 G: Act. 15 V [*Vulgata Clem. Act.* 15, 10].
- 14-23 sakrifizioz Gesk GG V: sacrificios Gbi
- 14-27 animaliak G GG
- 14-32 eho G: ego GG
- 15-1 ameen [Honelakoetan maizenik $a + e > e$ emaitza izan arren (cf. *amen* 266-13), gutxi batzuetan bokal bikoitza jasotzen du: *arantzeez* (47-22), *peneetara* (79-38) eta *falteen* (104-30). $e + e$ bokal topaketatik sorturikoez ik. 16-31 testu-oharra.
- 15-2 hauk L V: hanc G GG
- 15-12 Luc. 12 Gesk GG L V: \emptyset G Gbi
- 15-21 presunatan G V: presunetan GG L
- 15-32 ausart G: ausarta GG
- 15-32 arrenkuratza G: arnancuratcera GG
- 16-17 axolduritzen: acholduritzen G: ajolduri *in m.*
- 16-21 laxo: lacho G: lafo Gbi *in m.*: lajo Gesk *in m.*
- 16-26 huts L V: hutz G GG
- 16-31 adiskideek [Maizenik $e + e > e$ emaitza jasotzen du (cf. *adiskiden* 16-21, *adiskidek* 152-9, etab.), baina ez guztietan: *erleek* (20-1), *bertzeen* (59-6), *semeen* (66-38), *jendeekin* (82-38), *emazteetako* (98-24), etab. $a + e$ bokal topaketatik sorturikoez ik. 15-1 testu-oharra.
- 17-6 bakhotx L V: baccothz G GG
- 17-12 Plutarko gaztearen *Apophthegmata* lana.
- 17-27 Izan G GG V: Izatu* [*Izan (2.^a ed.)] L [Nahastuta, nonbait.
- 17-34 handiago G: handio GG
- 17-36 dakhazkeien Gesk: dekhazkeien G Gbi GG L V [Cf. orain arte *dakharkeien* (5-11), *dakharke* (41-28). Ez dago pluraleko beste adizkirik.
- 17-37 nahastekak G V: nahasteriac GG: nahasketak L
- 18-1 artean: arthean G GG V [Bakarra, askoren artean (cf. 20-7, 35-7, 51-19, etab.).
- 18-7 bulkhatzen G: bidalcen GG
- 18-9 nahasteka G V: nahasteria GG: nahasketa L
- 19-6 Nicolaus Damascenus, *De moribus graecorum aliarumque gentium libellum* (ap. Gisbert & Ortells 2005).
- 19-13 aithortzeagatik GG L V: aithorcea gatic G [Gainerakoetan *aithortze-* (19-21, 134-18, 215-10, 301-13).
- 19-23 huts L V: hutz G GG
- 20-1 aniamalia G V: animalia GG L
- 20-14 gobernatzen G: gouvernatcen GG
- 20-19 aniamalia G V: animalia GG L [Ik. 14-25 oin-oh.
- 20-22 bidexkak G L V: bidescac GG
- 20-27 kanpoan G: campohan GG
- 23-2 ibiltzea G [aurkibidean] L V: ibiltzea G [testuan] GG [Honezaz beste behin bakarrik (179-29), maiz agertu arren.
- 23-24 Oratiok G V: Oraciok GG: Horatiok L
- 23-27 gaztigu G: gaztigua GG
- 24-7 nola G: nora GG
- 24-11 kanaberaren G L V: kañaberaren GG

- 24-12 Kanaberak G: Kañaberac GG
 24-15 semper GG L V: sempr G
 25-7 ielez G V: iëlez GG: ihelez L
 25-27 laxoak: lachoac G: Lajoac *in m.*
 26-5 eztezazun L V: eztezacun G GG
 26-11 halakatu G: halocatu GG
 26-15 xoil: choil G: Ioil *in m.*: joil Gesk *in m.*
 26-20 gaixtoa G: gaiztoa GG [Oso maiz aldatzen du hala.
 27-6 hersten eta idekitzen da G GG L: hertsten da eta idekitzen da V [Beti *herste-* dugu (24-40, 26-2, 27-6, etab.).
 27-14 anarterainoko L V: anarteiañoco G: anarceiañoco GG
 27-16 xisteran: chisteran G: Gisteran *in m.*
 27-16 baratzen da G L V: baratzen eta gelditzen da GG
 28-3 *indarrrik asko*: gaur *eskerrik asko* esapidean fosilduta dagoen egitura hau beti erabiltzen du Axularrek, oker ez bagaude: *penagarririk asko* (29-7), *egitekorik asko* (95-9), *ekhairik asko* (112-20), etab.
 28-27 geroko G: guerocotz GG
 28-32 infernua [Gehien-gehienetan *ifernu*, baina honako hau ez da adibide bakarra: *infernuko* (67-17), *infernura* (67-22) eta *infernuan* (327-1, kapituluaren izenburuan, baita aurkibidean ere). Latin-erromantzeen eragina hortxe zegoen: Axular ala konposatzailea? Ez jakin.
 29-1 itxatxekitzen G GG [<it-/chat chetquitcen> bietan] V: itxatxekitzen L [Cf. *itxatxekitzen* eta *itxatxeki* (116-27 eta 31, hurrenez hurren).
 29-23 egiazko G: eguiazcoa GG
 29-27 itzurpide G L V: itzulpide GG [Hona hemen *itzulpide* iratxoaren iturria, Hegoaldean Larramendi eta Añibarroren bitartez oihartzunen bat izan duena (cf. *OEH*, s.v. *itzurpide*).
 29-30 barurtzera: barutzera G GG L V [Gainerakoetan *barur-* (89-32, 91-31, 94-5, 98-4, etab.).
 29-34 anhitz G: hanhitz GG
 29-35 estakuruak G: estaculuac GG [*Estakulu* aldaera ez dago ondo lekukotua (cf. *OEH*, s.v. *estakuru*); nolana ere, ez dira kontuan hartu bi edizioen arteko gorabehera hauek.
 29-36 itzurpideak G: itculpideak GG [Cf. gorago 29-27 testu-oharra.
 30-1 ixiritu G: dichiritu GG [Honako hau da *dixiritu* aldaeraren lehen agerraldia, eta ez Intxausperen ediziokoa, beraz (cf. *OEH*, s.v. *dijeritu*, eta ikus, halaber, s.v. *ixiritu* ere).
 30-2 ixiri G: dichiri GG
 30-2 hasi Gesk L V: has Gbi GG [Indikatibotik kanpora bitan baino ez da agertzen, eta bietan *has* dugu: *has baititeke* (103-23) eta *has bedi* (273-1). Hala ere, Gesk-en zuzenketa argia da: okertu ez bada, aditzoina *has* bezalako silaba bakarrek erroetan kolokan zegoelako beste lekukotasun bat liteke (cf. Urgell 2007: § 2.7.1 eta 31. oh.).
 30-4 anarteraino Gesk GG L V: enayte-/raino G [orri batetik bestera igarotzean].
 30-12 okhasinoek: okhasionek G GG L V [Gainerakoetan *okhasino* (4-35, 17-1, 29-34, etab.), behin izan ezik (157-29).
 30-19 concupiscentiae, quam malebam expleri quam extingi Gesk L: concupiscentiae, quam extingi G V: concupiscentiae malebam expleri quam extingi GG [Agustin

- Conf.* 8.7.17 (non *quem... quam...* baitago, bidenabar). G-n berdinetik berdinerako jauzia dugu, beraz.
- 30-20 zeikan G: ceitzan GG [«zeritzan» ulertu ote zuen?
- 30-25 khexa: khecha G: Kheja *in m.* [Gainerako guztietan hasperen gabe, <qu> grafiak eta orri bazterrean errepikatuak zalantzarik ez uzteko moduan, gainera: *kexatu* (150-13), *kexadurak* (152-14/15), *kexo* (152-27) eta *kexa* (161-8).
- 30-27 asko L V: azco G GG
- 33-7 huts Gesk L V: hutz G GG
- 33-17 Zaudete L V: Zaudate G GG [Aginterazkoak bakarrik aintzat emanik, cf. *zaudete* (69-18, 212-33 eta 274-24).
- 33-22 garzele G L V: garcel GG
- 33-22 heriotzera G: eriotzera GG
- 34-2 erraxean: errachean G: Erragean *in m.*
- 34-20 baitzioen, erran zioen bertze Gesk [AKesk-n *erran* garbi irakurtzen da, baina ez gainerakoa]: baitci-/oen, bertze G L V: baitcioen erraten cioëla bertze GG
- 34-26 eztakigu L V: estaquigu G GG
- 35-8 azkena L V: asquena G GG
- 35-10 garzele G: garcela GG
- 35-10 garzele G: garcela GG
- 35-15 uste L V: vzte G GG
- 35-16 aitzinerat G: aitcinera GG
- 35-16 anhitz G: hanhitz GG
- 35-24 alha G: ala GG
- 35-28 dituzunean [Gehienetan *ditutzu* (cf. 33-9, 36-25, 38-25, etab.), baina hau ere lekukotzen da bestetan (38-26, 66-13, 66-31, 124-3, 133-11, etab.). <t> ahazten erraza izanik posizio horretan, proportzioak (76/15) *ditutzu* formaren alde datoz.
- 36-2 PL 38, sermo 109 (Agustin, *IIG*).
- 36-5 eztheusago: ezteusago G GG V [Gainerakoetan *eztheus* (49-26, 90-15, 138-36, 159-38, etab.); bestalde, adibide gutxi batzuetan badu *ezdeus* ere (52-21, 88-21, 90-19, 325-1).
- 36-12 biatan G V: bietan GG L
- 36-14 muthatuaz G: mudhatuaz GG [Aurrerago ere GG *muda* (ik. 54-18. testu-oh.).
- 36-29 baitugula G GG V: baititugula L [*baditugula*-ren ordezkoko hutsa baino, egiantzekoago deritzagu uzkurdurari, honelako formetan joera handia baitu (ik. 123-31 testu-oh.). Ez dago honelako gehiago, ez *d*-kin ez gabe, aldi berean *ba-* aurritzia eta *-la* atzizkia duenik.
- 37-11 egunoro L: egun oro G GG V [Lerro bereko *Egunoro*, berriz, denek bildurik.
- 37-12 poxin: pochin G: Pogin *in m.*
- 37-21 sinhets L V: sinhetz G GG
- 37-33 frogatuz L V: frogatus G GG
- 38-1 itzurtzerik L V: itzurterik G GG: [Gainerakoetan *itzurtze-* (226-19, 328-6).
- 38-22 gainerakoa: gaiñeracoa G: gaigneracoa GG
- 38-26 dituzunak [Ik. 35-28 testu-oh.
- 38-32 espazioa L: espatioa G GG V [AxH-k *espatio*, *espazio* ulerkera zalantzas proposaturik. *OEH*-k letraldatu du. Deigarria da Axularrek behin ere ez aldatua (cf. 70-4,

- 93-18, 161-10), *espaziotsu* eratorrian izan ezik (267-19). Beste hitzetan bakanki agertzen da: *persecutione* (267-14), *contritione* (291-18, 292-16, baina *-cione* 110-26, 291-17), *dispositione* (298-28, baina *-cione* 122-11), etab.
- 39-5 gaitz L V: gaitz G GG
- 41-13 eskuetan L V: ezcueta G GG
- 41-15 et nobis G GG V: vobis et nobis L [nobis et vobis *Vulgata Clem. Mt. 25, 9*. Axularren iturriko arazoa bide da, euskaraz ere *geuretzat* baino ez baitago.
- 41-19 hemen G: hunen GG
- 41-21 bentura GG L V: venrura G
- 41-24 Aitzinerat G: Aitcinera GG
- 42-3 misericordios L V: misericordios G GG
- 42-6 guztia L V: gustia G GG
- 42-7 penitentiata L V: penitentiata G GG
- 42-7 guztiak L V: gustiak G GG
- 42-13 mehatxatzen GG L V: mehatihatzen G
- 42-16 benturaz GG L V: venturas G
- 42-19 Zerk aratza lo? [OEH-k (s.v. *eratzan*) «acostar; hacer acostarse» itzuli arren (eta L-k «etzanarazten au», *in m.*), *etzan*-ekiko erlazio etimologikoagatik, adibide honetan 'atxiki, mantendu' adiera dugu, Lazarraga agertu berriaren adibide argi hauetan ere bezala: *a daraçanean bere senarrac / bere beso laztanaz estalduric* (1181v) edo *aldi bat ceure besoan naraçaçu* (1186r) (adibide zahar gehiagotan ere bai, bidenabar). Hitez hitzeko itzulpena, hortaz: «¿Qué te retiene dormido?».
- 42-24 Benturaz GG L V: Venturas G
- 42-27 bilhatzen L V: bilhaltzen G GG
- 43-9 jaten G: iaren GG
- 43-14 orhoitzen G: orhizen GG
- 43-22 Benturaz GG L V: Venruraz G
- 43-29 Krisostomok L V: Chrisostomo G GG
- 44-1 emanen GG L V: emaren G
- 44-3 dihoatzula G: dioatzula GG
- 44-7 Agustinek G: Agustinek GG L V [Gutxi batzuetan baino ez (52-17, 53-40, 55-10, 60-23, 78-1, 81-36, 99-11, 116-2 eta 203-26).
- 44-14 eta halatan, ez benturan G: eta halatan eta ez venturan GG
- 44-18 aberats L V: aberatz G GG
- 44-34 benturan G GG L: benturaz V
- 45-2 Espiritu G V: spiritu GGL [Beti *Spiritu*, gutxi batzuetan izan ezik (ik. 87-12 eta 121-3).
- 45-4 *iltki*: «Se trata casi siempre de los grupos *l, n + k*, donde la sonorización habitual (*lg, ng*) no se ha producido: *-t-* puede representar ahí un sonido de transición, que el fino oído de Axular percibía, como percibía que la *l* de *altxatu*, escrito por él *ailtchatu*, era en realidad una *ll* palatal. (...) se trata, al parecer, de oclusivas no aspiradas» (Mitxelena 1974: 108). Adierazpena defektiboa da, agian inprentakoen erruz; hitz honetan adibideen erdiak ia *t*-dunak dira (ik. 50-36, 74-4, 78-5, etab.; geroaldiko formen arazo bereziaz ik. 49-30. testu-oh.), eta aditzizena beti ere *t* gabekoa, baina kontuak bestela doaz *ukitu* aditzean (ik. 69-22 testu-oh.).
- 45-15 onhasun G: onthasun GG

- 45-20 segurantzarik GG L V: segurautzaric G
- 47-17 iratxekitzeko V: iratxekiteko G L: iratchequitaco GG [Gainerakoetan *iratxekitze-* (16-2, 48-26, 50-32, 155-8, 295-23). Cf. *jaikite* (55-11 eta 311-19) eta *edukite* (203-22). *-te* ezinezkoa ez izan arren, betiere *-tze-* dunak gehiago dira eta erraza dirudi <tc>-ren ordez <t> jartzeak.
- 47-21 aranzetsuak G GG: arantzetsuak V [*aranzetsu* berriro (157-15), baina beti *arantze* (47-20, 47-22, 119-12, 119-14, 311-15).
- 47-27 egiteko L V: equiteko G GG
- 47-28 zenbatenaz GG L V: cenbatenas G
- 48-1 hetzaz GG V: hetças G
- 48-5 akometa: accometa G GG: akhometata V [Cf. *OEH*: «*akometatu* (mejor que *akho-*, ya que se trata de la grafía románica <cc>, que no requiere la aspiración vasca)».
- 48-7 «*Operi novis nuntiatio* was a summary remedy provided by the Edict against a person who was making an *Opus Novus*» (Smith 1870).
- 48-9 akometatu: aco- G: acco- GG: akho- V [Ikus 48-5. testu-oh.
- 49-1 harizan G GG L: hari izan V
- 49-3 harizan G GG L: hari izan V
- 49-5 laburzki Gesk AKesk GG: labuzqui G
- 49-9 *gutitzago* hapax da (cf. *OEH*, s.v. *gutxi*). Tristukaria azalgaitza da: *fitetzago*-k erakarria ote?
- 49-18 urruntzea G: urrhuntzea GG
- 49-25 bekhatutan egonago G: beccatutan ago GG
- 49-26 borondatea L V: vorondetea G GG
- 49-30 ilkitko G GG: iltkiko V [Ezin kasualitateari egotzi zortzi adibidetan batean baka-
rriik (50-33) egotea espero genezakeen *iltquico* idazkera, gainerakoetan *ilquitco*
dagoen bitartean (50-36, 74-35, 201-24, 330-26, 331-18, 331-20 eta 337-14).
- 49-30 zarella GG L V: zarele G
- 50-5 berretzeintuzu V: berretzentuzu G GG L [<i> ez da ahazten zaila, nonbait:
cf. 62-5, 99-32, 152-33 eta 333-11.
- 50-6 handiarekin L V: haudiarequin G GG
- 50-10 langorem G GG: languorem L V
- 50-14 haur Gesk AKesk GG L V: hau G
- 50-15 Suri. [Lorenzo Surio edo Laurentius Surius, *De probatis Sanctorum historiis ab Al. Lipomano olim conscriptis nunc primum a Laur. Surio emendatis et auctis* (1570-77). «He began a second edition which was finished after his death by his colleague in the monastery, Mosander, who added a seventh volume (Cologne, 1582)» (*Catholic Encyclopedia*, s.v. *Laurentius Surius*).
- 50-19 zezakeienz L V: ceçaqueyens G GG
- 50-25 erraxkiago G: errazquiago GG [Oso maiz aldatzen du hala.
- 50-25 Sainduonek G V: Saindu hunec GG L
- 50-33 iltkiko G GG [ala *ilkitko*? Cf. 49-30 testu-oh.
- 50-33 erhokeriaren G: ethorqueriaren GG
- 50-36 ilkitko G GG: ilkiko L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
- 51-4 komunzki L V: comuzqui G GG
- 51-11 gazitzen G: gatcizen GG

- 52-6 eskuperako: *manukortuko* eta *plegatuko*-ren parean doanez gero, pentsatu behar dugu *manukortu dituzu*-ren parean *eskupera dituzu* erabiliko lukeela, *hara gabe* (101-6) eta *hartara dela* (322-16) formen antzera.
- 52-11 erraiten L V: erraten G GG
- 52-11 Krisostomok L V: Chrisostomek G GG
- 52-29 atsegin GG: atzeguin Gbi
- 53-7 ikhorzirinak G L V: icccorciniac GG
- 53-11 nimiae G GG: nimia L V
- 53-15 errax Gesk AKesk [garbi ez] V: errex G Gbi: erraz GG [Gainerakoan, *errax* (gutxiagotan *erraz*) baino ez dago.
- 53-16 ditzatkezu G: ditzakezu V [Adibide bakarra.
- 53-20 emaitentuela G: emaiten tuela V [Oker zuzenduta, berariazkoa bada; cf. *atzemaiteintu* (35-21), *berretzeintuzu* (50-5), etab.
- 53-21 baratx L, AxH: barath G, V: baratz GG
- 53-23 August. G GG: Arist. L V
- 53-27 quae G GG: qua L V
- 53-28 Anhitzetan G: Hanitzetan GG
- 53-32 sartzen: sarzen G GG V [Beste adibide bat baino ez dugu bildu (221-18), *sartze*-ugarien aldean.
- 53-34 kirats L V: kiratz G GG
- 53-36 Usat zaite [Baita *etzadila... usat* (142-28) eta *usat zaitezi* (144-36) ere, beti 'ohitu' esanahiaz, baina *usa lezan* (337-5) eta *usa lezake* (338-6), 'baliatu' esanahiaz.
- 53-39 usantzak GG L V: vsantçat G
- 53-40 Agustinek Gesk AKesk GG V: Agustinek L: Augustinen Gbi
- 53-40 novitate GG L V: uouitate G
- 54-1 hautsten GG V: hautzten G
- 54-2 nahizu [Uzkurtua. Esapidea errepikatzen da (124-11, 303-5).
- 54-4 sup. GG L V: snp. G
- 54-7 zahartzean GG L V: zaharrcean G
- 54-17 Mairu G: Mahiru GG
- 54-18 mutha G: muda GG
- 54-19 muthatukoitu G: mudatucoitu GG
- 54-24 eremetica G GG: eremitica L V
- 55-8 xoil: choil G: Ioil *in m.*: joil Gesk AKesk *in m.*
- 55-9 sarthurik V: sarturik G GG [Bakarra, berrogeitaka *sarthu*-ren aldean.
- 55-9 gaixtoa G: gaiztoaz GG
- 55-11 jaikitza: jaikitera G GG L V [*jaikitze*-k 18 bat agerraldi ditu, eta *jaikite*-k honezaz beste bat baino ez (311-19). Ik. 47-17 testu-oh.
- 55-16 kirastua G GG L: kiratsua V [Ez dago horrelakorik AxH-n eta, gainera, ez dago dudarik irakurketaz, beheraxeago *kirastua* bi aldiz agertzen baita lerrokada berean: V-ren edizioko hutsa, beraz.
- 55-18 luzeaz GG L V: luceas G
- 57-5 hazi G GG L: eta V
- 57-18 *Matth.* 23: Mt 25 V [*Vulgata Clem. Mt.* 25, 33.
- 58-20 inoranziaz G: ignoranziaz GG [Aldaketa bera aurrerago (65-9).

- 58-24 ihardesten G: inhardesten GG
- 58-24 behintzat L V: behinzat G GG [Bakarra, hainbat *behintzat*-en aldean.
- 58-28 ibenzen G GG: ibentzen L V [Besteak gehiago izan arren, badira *ibenze* zenbait (59-24, 141-30, 179-1), baita *ibenze* (226-12) ere.
- 58-33 baititu Gesk AKesk [garbi ez] GG L V: baitito G
- 59-6 bertzeen G GG L: bertzeren V [Beherago ere *bertzeen* (59-18).
- 59-8 diferentziaren: diferenziaren G GG V [Beste agerraldi bat baino ez (172-19), hainbat eta hainbat *diferentzia*-ren aldean.
- 59-19 Parentesikoa *in m.*
- 59-24 Anhitz GG L V: Anhiz G
- 59-24 ibenzeko G GG: ibentzeko L V [Ik. 58-28. testu-oh.
- 59-25 borundatea G GG: borondatea L V [AxH-n s.v. *borondate*, «sic»-ez lagunduta. *OEH*-k aintzat hartu du, eta lekukotasun gehiago (Voltaire) bildu. Halere, forma ezinezkoa ez izan arren, ehundik gora agerraldi ditu *borondate*-k hemen, paragrafo honetan biltzen diren *borundate* bien aldean.
- 59-26 borundate G GG V: borondate L
- 59-27 araubaz G GG V: arauaz L [Ez da ezinezkoa, noski, baina ez dago honezaz besterik, *arauaz* formak 80 agerralditik gora dituen bitartean.
- 60-2 hala-hala L: hala, hala G GG V [Ik. 135-20, 309-5, eta cf. *OEH*, *hala-hala*, s.v. *hala*.
- 60-4 adiskidetasunean L V: adisquidetasunean G GG
- 60-12 exseccati G GG L: excaecati, V
- 60-24 sermo GG: semo G: serm. V
- 61-9 ixil: ichil G: Igil *in m.*
- 61-13 Pharar. G GG: Pharao. L V
- 61-39 eztaduka GG L V: eztaduça G
- 62-5 ibentzeintu: ibentzentu G GG L V [Cf. *ibenzeintut* (179-1), *ibenzeintuzte* (141-30) eta, oro har, 50-5 testu-oh.
- 62-9 hatsbeherapen GG L V: hatz-beherapen G
- 62-32 gaixtoz G: gaiztoz GG
- 62-34 diferentziatik G: diferentiatic GG: diferenziatik V
- 63-4 Eccles. 5 G GG: Eccli. 3 V [*Vulgata Clem. Eccli.* 3, 27.
- 63-11 kofesatu G: confessatu GG
- 63-14 profundam G: profundunt GG: profundum L V [profundum *Vulgata Clem. Ex.* 15, 5.
- 63-16 hunelatan GG L V: hunelaten G
- 63-18 ezantsiatzetik G: ezantsiatzetik GG V
- 65-7 Eccles. 11 G GG: Prov. 16 V [*Vulgata Clem. Prov.* 16, 11.
- 65-8 julgamenduak [Forma erromantze bat da (cf. portugesez *julgar*; hurbilago ere ibiliko zen, noski). *julgatu* Materrek ere badarabil (*OEH*, s.v.). Ez dago *MDELV*-n jasota.
- 65-9 inorantziarik G L V: ignorantziarik GG [Aldaketa bera gorago (58-20).
- 65-11 xehero: chehero G: Geher. *in m.*: Genes. GG *in m.*
- 65-16 praedestinatorum G Gbi [argi ez] AK-720: praedestinatorum GG: praedestinatorum L V
- 65-17 art. GG L V: gat. G: at. Gesk eta AKesk
- 65-20 Israel G: Israël GG
- 65-21 galtzea G: çure galtzea GG [cf. lat. *Perditio tua*.

- 65-24 zenbatetaraino G L V: zenbateraino GG
 66-4 betha G V: bethe GG L
 66-9 xedea: chedea G: Gedeia *in m.*
 66-13 hautsikoituzu [-*tutzu* ote? Cf. 35-28 testu-oh.
 66-22 itsasoari GG L V: itzasoari G
 66-30 herts L V: hertz G: hers GG
 66-30 Aski GG L V: Azqui G
 66-31 ikhusikoituzu [-*tutzu* ote? Cf. 35-28 testu-oh.
 67-15 hirurhogoi G GG: hirurogoi L V
 67-18 erortzen L V: erocen G GG
 67-24 atrapatuak GG: atrapatuac G
 67-27 egitera Gesk AKesk GG L V: eguitera ere Gbi
 68-21 Animalia G GG [Ik. 99-31 oin-oh.
 68-33 gutzaz Gesk AKesk GG: gutças Gbi
 68-35 hartzaz: harçaz G GG V [Adibide bakarra liteke, hirurogei agerralditik gora duen *hartzaz*-en aldean.
 69-6 lyrana Gesk AKesk V: lyranam Gbi
 69-6 Genes. GG: Gens. G
 69-17 cressere G GG: crescere L V
 69-22 utki [Adibide gehienak *t* gabekoak izan arren, halako hiru edo, ondo ordezkatuta dago testuan *t*-dun forma (cf. *utkitu* 97-16, *utkitzen* 138-40, *utkitzeak* 235-21, etab.). Ik. Mitxelenaren azalpena 45-4 testu-oh.
 69-24 gaixtoekin GG L V: gaixoequin G
 70-1 etxatier Gesk AKesk [garbi ez]: etxatier Gbi GG L V [Badago beste bat (310-34).
 70-4 espazio L: espatio G GG V [Ik. 38-32 testu-oh.
 70-4 penitentzia [Bietara idazten du, baina *penitencia* anitzez maizago (94/4). Halere, tradizio idatziaren indarra ezagaturik, *penitentzia* gutxi horiek (70-4, 85-10, 301-17, 304-8, baita *penitentzialea* 197-14 ere) gehiago dioskute ahoskeraz, ha- maika *penitencia*-k baino.
 70-5 Noeri G: Noheri GG
 70-6 aniamalia G GG: animalia L V
 70-22 Hom. Gesk AKesk GG: Aom. Gbi
 71-4 *Vulgata Clem. Ier* 44, 7.
 71-40 zoazin G GG: zohazin V [Cf. goraxeago *zohazinean*, baina bietara agertzen da, ba- naketa deigarri batean: *zoazin* (136-9), *zoazila* (33-7, 207-12), *zoazinean* (286-24) eta *zohazinean* (71-39, 174-18, 174-37).
 72-7 bira G: diren GG
 73-7 eskentzea G V: escaintcea GG: eskeintzea L [Beste adibide bat baino ez dago: *eskentzek* (131-30).
 73-10 han G L V: haren baithan GG
 73-11 are G L V: areago GG
 73-11 diratekeien G L V: diratezqueyen GG
 73-14 are G: ø GG
 73-19 guztiekin V: guztiequin G GG: guztiakin L
 73-20 erraiteaz G L V: erraitearequin GG

- 73-21 erraiteaz G L V: erraitearequin GG
 73-23 Acte. 7 G GG: Act. 17 V [*Vulgata Clem. Act.* 17, 28].
 73-27 despexit GG L V: dexpexit G
 73-27 Eccles. 1 G: Eccli. 2 V [*Vulgata Clem. Eccli.* 2, 11-12].
 73-27 jenderazino G: ienneracino GG: ienderaziño* [*ienñerazino (2.^a ed.)] L [Cf. *OEH*, s.v. *jenerazio*. Adibide bakarra da: zuzena balitz, herri-etimologia polit bat litzateke.
 74-4 ibeintzatu G GG V: ibentzatu L [Aginterazko adizki bakarra; beste era batekoa da *ibenzue* (226-12). Halere, forma beste honek bermatzen du: *kheintzatu* (248-36).
 74-5 fidantzia GG: fidantça G Gbi L V [Ez da ezinezkoa, Etxeberri Ziburukoak ere biak erabiltzen dituelako —*fidantçia* (Man I, 1323), baina *fidantça* sarriago (*id.* 3401, *Man* II, 3737 eta 4194; *Eliç* 626 eta 4812; Isaak Atutxak eskainitako datuak), besteak beste (cf. *AxH* eta *OEH*). Alabaina, hemen egoera oso bestelakoa da: honako hau kapitulu osoan bakarra da, vs. 16 *fidantzia*, eta beste agerraldi bat baino ez dago, are testualki hau baino hutsa izateko aukera gehiagokoa (77-7). Hitzaren itxura jatorxeagoak salbatu ote du?
 74-13 plane G GG: maxime L V
 74-14 galdu-gordean G L V: galdu ordean GG
 74-21 egiten Gesk AKesk GG L V: equiten G
 74-24 hark Gesk AKesk GG: har Gbi
 74-27 Israeleko G: Israëleco GG
 74-31 izan zela G L V: içan çuela GG
 74-35 ilkitko G GG: ilkiko L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
 74-35 Israeleko G: Israëleco GG
 75-8 alditan G L V: faboretan GG
 75-16 untzirik GG V: vent-/ciric G
 75-24 fidantziaren galduaz [Osagarri zuzena genitiboan, baina ez aditzizenarekin, ohi bezala, partizipioarekin baizik. Ik. *denboraren galduaz* (90-6) ere. Adibide biok Mikel Martinez Aretak (a.e.) Etxahunengan aurkitu dituen ondokoetatik ez daude oso urrun: *Haren hatzaman nahiz* («Mündian malerusik»), *haren ezin sofritiis* («Etxahunen bizitziaren khantoria») eta *Nahis haren zerbützatü* («Gure jaun aphešküpia»). Are bereziagoa da *eskatu zeikan suma handi baten, gehiago borzehun ezkuturen baino* perpausa (ik. 219-15/16 testu-oh.).
 76-2 gaixto G: gaizto GG
 77-1 penitentzia G: penitentzia GG V
 77-2 xı L V: ıı G GG
 77-7 fidantzia GG: fidantca G: fidantza L V. [Aurrekoa nabarmena bazen (ik. 74-5 testu-oh.), hau areago: «esperANTZA, fidantza eta segurANTZA».
 77-17 erraxki G: errazqui GG
 78-3 Jaungoikoak GG V: Iaungoicac G
 78-3 heriotze G: heriotcea GG
 78-4 ilkitzea G: iltquitcea GG [Cf. 45-4 testu-oh.
 78-8 (Mathi.) G: (Math. 4) GG [*Vulgata Clem. Mt.* 4, 6].
 78-26 sorbalden GG L V: sorbaldcen G Gbi [Cf. aurreko adibidean *sorbalden* (78-23). Halere, ez litzateke ezinezkoa *sorbaldeen* izatea: cf. 15-1 testu-oh.
 78-28 ausartzen G L V: ausartacen GG

- 78-36 Basi. G: Basilio GG
- 79-6 aseegirik L: ase eguiric G GG: ase eginik V [Ez dago *ase egin*-en beste alerik testuan, ezta hemendik kanpora ere (cf. *OEH*, ASE EGIN, s.v. *ase*). Cf. *handituegirik* (104-5)].
- 79-7 Justizia L V: Iutzicia G GG
- 79-9 da Gesk GG L V: ø G
- 79-11 miserikordios L V: misericoidios G GG
- 79-17 misereri Gesk GG L V: miserere G Gbi
- 79-18 Deo convenit G GG V: convenit Deo L
- 79-27 100 V: 10 G [*Vulgata Clem. Ps.* 100, 1. G agian ebakia; Gbi ebakiago: *Psalmo*. baino ez. GG eta GGfb-n ez dago argi: puntua ere izan daiteke.
- 79-29 Misericordiaz GG V: Misrricordiaz G
- 79-37 Jainkoaren GG L V: Iainoaren G
- 79-37 adiskiderik L V: adizquideric G GG
- 80-2 itsusienik Gesk GG L V: itzusien Gbi
- 80-3 Esaias V: Esaias G GG: Esaias L [Cf. 68-32 ere. *Isaias* izena sarriago darabil (27-21, 325-15, 328-24, 339-29)].
- 80-4 jautsopen GG L V: iautzopen G
- 80-5 erori GG L V: errori G
- 80-11 miretsteko V: miretzteco G GG: miresteko L
- 80-19 hautsten Gesk GG V: bautsten Gbi
- 81-3 harri preziatuekin, aditzera emateagatik harri preziatu bezala Gesk GG [salbu *emateagatik* aldaketa edo hutsa]: harri preziatu beçala G: *arri preziatu bezala *[arri preziatuekin, aditzera emateagatik (2.^a ed.)] L: harri preziatuekin, aditzera emateagatik V [Berdinetik berdinerako jauzia.
- 81-5 Salomonek L V: Solomonek G GG
- 81-15 ez Gesk GG L V: ø G
- 81-33 infinituki handi G L V: infinituqui handia GG
- 82-38 jendeekin G L V: iendequin GG
- 83-4 apelatu G: apellatu GG
- 83-5 apelatu V: apellatu G GG
- 83-14 gatzaitza: gaitzaitza G GG L V [Cf. 42-16, 60-1, etab.
- 83-24 zarella G L V: çarelaric GG
- 83-24 zarella G L V: çarelaric GG
- 84-1 huts GG L V: hutz G
- 84-4 euzue G L V: duçuen GG
- 84-11 aberatstasunez V: abertstasunez G GG: aberastasunez L
- 84-11 penitenziatan G L V: penitencietan GG
- 84-13 zuk Gesk GG L V: ø G
- 84-14 bizitzen GG L V: becitcen G
- 84-17 esperantza GG V: esperança G [Honetaz beste <ñç> bat baino ez (135-38 testu-oh.).
- 84-26 zaudela G L V: çaudelatic GG
- 85-18 erdiets L V: erdietz G GG
- 87-11 Fili Gesk GG L V: Filii Gbi: Filij AKesk [garbi ez]
- 87-12 (Ecclesi. 4) [*Vulgata Clem. Eccli.* 4, 23.
- 87-12 Espiritu G V: Spiritu GG L

GERO

- 87-15 xerlotsu: cherlotsu G: Gerlotsu *in m.*
- 88-1 Parentesi artekoa *in m.* G eta GG-n.
- 88-3 higitzea V [oharrean azaldua]: higitzea G GG: igartzea L
- 88-5 gure G L V: gureac GG
- 88-12 orhoitze V: ohor-//itce G GG [orri batetik bestera igarotzean]: oroitze L
- 88-23 edo G GG L: eta V
- 89-3 asko L V: azco G GG
- 89-5 luela G GG L: duela V [Alegiazko adizkien erabilera zaharra, oraingoan beste alegiazko baten mendeko gisa.
- 89-18 hic in G GG V: in hac L
- 89-22 balioko du orduko urthea Gesk AKesk GG: balioko du urthea G V: balioko du [orduko] (2.^a ed.) urthea L
- 89-23 eguna G: egunac GG
- 89-27 orai L [oharrean azaldua] V: ori G GG
- 90-1 Jainkoak Gesk AKesk GG L V: Iaincac G
- 90-6 denboraren galduaz... eta bere buruen... ez penatuaz [Genitiboa partizipioarekin. Ik. 75-24 testu-oh.
- 90-10 baino GG L V: baizo G
- 90-14 Bernard. L V: Bernad. G: Bernar. GG [Bernard de Clairvaux-en gutunetako bat, beharbada (cf. Migne, PL 182).
- 90-16 denboraz GG L V: dembaraz G
- 90-22 aberats L V: aberatz G GG
- 90-30 egotzteintuzu V: egorzteintuzu G L: egorteintuçu GG
- 91-8 Bernard. in Medit. [Agian Bernard de Clairvaux, *Meditationes Piissimae De Cognitione Humanae Conditionis* (Migne, PL 184).
- 91-11 Eustho. G: Eust. GG: Eustoch. L: Eusthoch. V [Hieronymus (347-420), *Epistola xxii ad Eustochium, Paulae filiam, De custodia virginitatis* (Migne, PL 22: 394 eta hur.).
- 91-13 Ezta asko Gesk AKesk L V: Eta azco G: Ezta azco GG
- 91-13 asko GG L V: azco G
- 91-15 gabe GG L V: gobe G
- 91-28 eskuen GG L V: ezcuen G
- 91-36 herstuki G L V: herstqui GG
- 91-38 julgatuko G V: iuzgatuco GG L [Cf. 65-8 testu-oh.
- 91-39 kondenatukoitu G: condemnatucoitu GG
- 92-10 aitzinerat L: aitzinarat G GG V [Cf. 270-17 ere. *Aitzinat* bai (53-38/39, 60-2, etab.), baita *aitzinerat* pilatxo bat ere. Cf., adibidez, ...*erremediatzeko, eta bai are aitzinerat gehiago egitetik ere begiratzeko* (17-2).
- 92-16 (Psal. 54) G: Ps. 54 GG: (Ps. 54, 24) V [Vulgata Clem. Ps. 54, 24. Erreferentzia hurrengo orrialdeko bazterrean dago G-n, baina GG-n lekuan jarri dute.
- 92-34 gaizto G: gaixto GG [Eskuarki alderantziz gertatzen da. Dena dela, badira *gaizto* gehiago G-n (61-2, 92-34, 307-3, etab.).
- 92-35 dimidiant GG L V: dimidiam G
- 93-1 ikhusten GG L V: iccustun G
- 93-18 espazioaren L: espatioaren G GG V [Ik. 38-32 testu-oh.
- 93-20 zeitzan G L V: ceitzcan GG

- 94-11 laster Gesk: laxter Gbi AK-720 L V [Adibide bakarra litzateke.
- 94-15 arratsaldean L V: arratz aldean G GG [Ia guztiak <arratz alde> idatzia, *arratsean*-eta ez bezala (cf. 61-30, 98-13, etab.), ziurrenik hitz bukaerako posizioan gaskoieraz <tz> ohikoa delako.
- 94-17 arratsaldean L V: arratz aldean G GG
- 94-18 alokairu G L V: alacairu GG
- 94-18 arratsaldean L V: arratz aldean G GG
- 94-24 berea GG L V: bera G
- 95-8 zahartzeak L V: çahatceac G GG
- 95-17 zaphoretzuago: zaporetzuago G GG V [Ik. 248-11 testu-oh.
- 95-20 Praecocas G GG V: Praecoces L [praecoquas *Vulgata Clem. Mich.* 7, 1.
- 95-24 obligatu G L V: obligatua GG
- 96-17 vindimiae G GG: vindemiae L V [vindemiae *Vulgata Clem. Mich.* 7, 1.
- 96-17 botrus G L V: hortus GG
- 96-23 hondarrak G: ondarrak GG
- 96-31 uztekoa G GG L: utztekoa V
- 97-4 esperantzatan G L V: esperantçetan GG
- 97-10 Jainko haren G L V: Iainkoaren GG
- 97-11 etsai GG L V: etzai G
- 97-11 etsai GG L V: etzai G
- 97-26 jautsi GG: jautzi G V: jauzi L [Cf. *jautsirik* (73-14), *jautsi* (77-12), etab.
- 98-1 borxaz G GG V: bortxaz L [Gehienetan *bortxaz*, baina cf. 113-24 eta 118-3 ere.
- 98-20 merem. G GG: herem. L V
- 98-24 desonheskeriarik L V: desonhezqueriaric G GG
- 98-24 akometetzen: acco- G GG: akho- V [Ik. 48-5 testu-oh.
- 98-34 Badituzte L V: Badituste G GG
- 98-35 ereiteko: eraiteco G GG L V [Berez ezinezkoa ez izan arren, Etxeberri Ziburukoak eta Gasteluzarrek ere bederen erabili baitute, ezinezkoa da hemen —*AxH*-k (s.v. *erain*) eta *OEH*-k (s.v. *erein*) aintzat hartu badute ere— *erein* baitugu gainerako guztietan (14 aldiz, orotara), eta pasarte honetan bertan ere, hainbat *erein*-ez launduta baitago.
- 99-7 § 2 L V: § 3 G GG
- 99-10 segurantzarik L V: segurantzarik G GG
- 99-31 aniamalia G GG: animalia L V [Bere oharra *aniamalia* formaz da, ordea.
- 99-32 zalhuitu G GG L [«bigun ditu» *in m.*] V [*AxH*-n aditzaren pean dago jasota, baina bai bertan, bai argitalpenean ere (1976: 200) V-k «...tiene las rodillas y demás articulaciones bien flexibles» itzultzen du, ezinbestean. Egiantzekoa da *zalhui ditu*-ren uzkurdura izatea, pluraleko adizkiokin maiz gertatzen baita (ik. 121-31 testu-oh.).
- 99-32 plegatzeintu: plegatzentu G GG L V [Cf. 50-5 testu-oh.
- 99-35 erakutsirik G L V: erautciric GG
- 100-6 gazte zarenean ere G L V: gazte çarenean ere beçala GG
- 100-8 zeure gazte denboran Gesk AKesk GG: zeure denboran G L V
- 100-21 errenkuratuko G GG L: arrenkuratuko V [Beste agerraldi bat bada (200-29), baina gainerakoan *arrenkuratuko* darabil (cf. 15-32, 78-20, etab.).

- 100-30 Zertako G L V: Certatuco GG
 101-9 (Climac. *Scala*, 8 in fine) [Joannes Climacus (525-606), *Scala Paradisi*.
 101-16 Jainkoa L V: Iaincoa G: Iaincoac GG
 103-4 (Reg. 13) G GG: (1 Reg. 13) V
 103-22 hasten GG L V: hazten G
 104-1 hastera L V: haztea G GG
 104-5 apendizkoan G: apendizcoan GG
 104-21 (Icor. 4) G GG: (2 Cor. 4, 16) V
 104-35 konseilatzeintu: conseillat//ceintu G [187. orrialdeko azken lerroa ez da ertzeraino iristen: bi espazio huts-edo ditu.
 105-4 huts GG L V: hutz G
 105-6 akometatuak: aco- G GG: akho- V [Ik. 48-5 testu-oh.
 105-11 aberats L V: aberatz G GG
 105-13 haur G L V: haur GG
 106-1 Hemendik aurrerakoan laburdura tildeak ugari dira orri bukaeraraino, eta letra estua. Beste hainbeste gertatzen da hurrengo orrialdearen hasiera osoan ere, nahiko beheraino. Konposaketarekin duke honek zerikusia.
 106-9 likits L V: liquitz G GG
 106-10 likits L V: liquitz G GG
 106-12 likitskeriakgatic V: liquitzqueric gatic G GG: likiskeriakgatic L
 106-14 akhabanza G V: akhabantza GG L
 106-14 likits L V: liquitz G GG
 106-15 likits L V: liquitz G GG
 106-17 Ziprianok L: Cipri. G GG: Zipirianok V
 106-20 Cyprian.: Cypriprian. G: Ciprian. GG [Cyprianus Carthaginensis (200-258), *De Duodecim Abusionibus Saeculi Tractatus*, cap. 2 (Migne, PL 4: 870B).
 107-8 nobis G GG V: vobis L [nobis *Vulgata Clem. Ier.* 6, 4.
 107-8 factae G GG V: facti L [factae *Vulgata Clem. Ier.* 6, 4.
 107-11 arratsaldean L V: arratz aldean G GG
 107-12 luzeago L V: luce ego G GG
 107-13 arratsaldean L V: arratz aldean G GG
 107-16 arratsaldean L V: arratz aldean G GG
 109-2 xv L V: xvii G GG
 109-10 ezpaineraukaio: ezpaneraukaio G GG L V
 110-1 hatsaren Gesk AKesk L V: hatzaren Gbi: hatzaren GG
 110-6 hats Gesk AKesk L V: hatz Gbi GG
 110-12 erdiesteko V: ardiesteko G GG L [Ez dago honezaz besterik; cf. *erdieste-* (15-8, 28-21, 66-5, etab.).
 110-16 <197> Gesk AKesk GG: <198> Gbi
 110-18 orazinotan Gesk AKesk GG L V: oracinatan Gbi
 110-25 itsasoan Gesk AKesk L V: itzasoan Gbi: itzasoan GG
 110-39 daidi G V: daidique GG: daidi [2.^a ed. daidike] L
 110-39 laxoak: lachoac G: lajoac in m.
 111-23 duenz V: duens G GG: duentz L
 111-33 besta L V: bezta G GG [Bestetan *besta* (29-9, 29-10, 34-5, etab.).

- 112-3 Alexandro L V: Alexando G GG
 112-6 heriotzeko GG V: heriotseko G: eriotz L
 112-10 egitekoek L V: eguiticoec G: eguiticoc GG
 112-19 Oso orrialde zabala. Honek ere konposaketarekin duke zerikusia.
 112-25 Hugo de S. Victore (1096-1141), *De Sacramentis Christianae Fidei*, «Pars quarta decima», cap. 5, «De iis qui in extremi poenitent» (Migne, PL 176: 560B)
 113-24 borxazkoa G GG V: bortxazkoa L [Ik. 98-1 testu-oh.
 114-2 dixidaturik: dichidaturic G: digidaturic *in m.*
 114-22 metus lausa l. qui in G GG: mortis causa l. qui in L: metus causa legat in V
 114-31 arrazoin L V: arañoin G GG
 115-5 Domingo de Soto (1494-1560), agian *In IV sent. libros comment* (1555-6).
 115-19 xisteran: chisteran G: gisteran *in m.*
 116-13 utzteaz Gesk [garbi ez] L V: hutzteaz G AK-720 GG
 116-24 arratsaldeko L V: arratz aldeko G GG
 116-27 itxatxekitzen G L V: eratchequitcen GG [Beheraxeagoko *itxatxeki*-z gainera, cf. *itxatxekitzen* (29-1) ere, beti loreez mintzo. Bestalde, *iratxeki*- forma erabiltzen du (cf. *OEH*, s.v. *eratxiki*), eskuarki 'lotu', 'gehitu' eta 'piztu' adieretan (ik. 37-6, 43-11, 43-18, etab.).
 116-31 itxatxeki G: eratchequi GG
 116-32 ekharri L V: eccari G GG
 116-35 Israel G: Israël GG
 117-9 zihoakola: ziohakola G GG L V [Cf. *zihoanean* 4-9, *zihoakeiela* 19-2, *zihoakon* 211-25, etab.).
 117-11 kapitain L V: capitan G GG [Goraxeagokoaz gainera, cf. 17-32, 80-2, etab.
 117-14 ezen GG L V: ecin G
 117-17 zareneon G L V: çaraneon GG
 117-33 hetara GG L V: hetera G
 117-35 quoque GG L V: quo; G
 118-3 borxazko G GG V: bortxazko L [Ik. 98-1 testu-oh.
 118-10 Oinarria hemen egon liteke: *Institutionum Seu Elementorum Divi Iustiniani Sacratissimi Principis*, Tit. 1. «De Rerum Divisione», § 30-31.
 118-17 xutxenduco L V: chutchenduco G GG: Iugenduco *in m.*: jugenduco Gesk AKesk *in m.*
 118-21 baita G L V: baitu GG
 118-24 ehaiten G L V: cheiten GG [Pasarte honetatik sortua da *txeitu* «tejer» Larramendiren hiztegiko iratxoa (ik. *OEH*, s.v.).
 119-1 xidorrak: chidorrac G: Gidorrac *in m.*
 119-18 *arthez*: Aditzondoa beti *artez*, eta izenondoa hasperenduna (honezaz gainera ik. 255-4 eta 284-16). Ezberdintasun honekin jokatzeko du Axularrek 255-4ko adibidean.
 119-20 tormentatsua Gesk AKesk GG: tormentatua G V: tormentatua* [*tormentatsua (2.^a ed.) in m.] L [Etxeberri Ziburukoaren adibide bat baino ez dago *OEH*-n (s.v.).
 119-21 ederrarekin GG L V: ederarekin G
 119-23 bazterreraz GG L V: baztereraz G
 119-27 bazterra G L V: bazterrera GG

- 119-27 heriotzea Gesk AKesk: heriotzeak Gbi V: eriotzeaz L [Beraz, *bizitzearen bazterra*-ren aposizio gisa kokatuta dago *heriotzea*, metafora esplizitatu, hainbatetan bezala.
- 119-36 edireiten zaituenean G L V: ediren çaitçan artean GG
- 120-1 egintzatu G L V: eguitçatçu GG
- 121-1 Erremusina G L V: Erremusina edo limosna GG
- 121-3 Espiritu G V: spiritu GG L
- 121-12 sinu Gesk AKesk L: corde G GG V [Bi bertsoiak aurkitu ditugu: lehena *Vulgata Nova*-n (*Eccli.* 29, 15), eta bigarrena *Vulgata Clementina*-n, baita San Agustinen *Summa Theologica*-n ere (IV, 522, Pariseko 1858ko edizioan), besteak beste. Axularrek euskaraz *golkhoan* dakar, eskuak egindako zuzenketarekin bat.
- 121-13 erremusina GG L V: erremusiuia G
- 121-16 erremusinalari G: erremusinac lari GG
- 121-19 Lyrana Gesk V: Cyrana Gbi AK-720: yrana GG: Iyrana L
- 122-15 aberats GG L V: aberatz G
- 122-22 hiltzen G GG V: il zen L [Ez du beti egiten: cf. *hil zela* (36-36), etab., baina *hiltzen* (148-15) eta *hiltzela* (241-38) ere.
- 122-31 Parentesikoa *in m.*
- 122-38 eleemosinis G: eleemosynis GG L V
- 122-42 Jainkoaren GG L V: Ioaincoaren G
- 123-9 orthuz G V: orthus GG: ortuts L
- 123-11 mehatxurik L V: mehatechuric G GG
- 123-22 partituz GG L V: partitutz G
- 123-29 eta ethorkizuneko kasuetako ere zerbait gelditu, eta gainerakoak probe beharrenak dira G L V: eta gaiñeracoac probe beharrenac GG [berdinetik berdinerako jauzia, besteak beste.
- 123-31 Eztu: Ez tu* [*ditu] L [Baita *Eztu* ere (205-21). Badu **edun*-en pluraleko formak uzkuertzeko joera bestetan ere: cf. *eskiribatukoituz* (11-2) eta *gibelatzeintu* (23-7) egitura usuak, eta *baitugula* (36-29) eta *zalhuitu* (99-32 testu-oh.) zalantzazkoak. Halaber, **ezan*-enak ere ikusiko ditugu: *baitza* (ik. 157-16 testu-oh.).
- 123-32 aberatsei GG L V: aberratsey G
- 123-34 esse permisit, etiam Gesk AKesk GG L V: esse etiam G
- 124-3 dituzularik [*ditutzu*- ote? Cf. 35-28 testu-oh.
- 124-19 Jondone Marthiek G GG V: Jondone Martin'ek V
- 124-20 sendagailaz G L V: sendagailaz beçala GG
- 125-13 anhitzetan G: hanhitzetan GG
- 125-21 eleemosyna L V: elemosyna G GG
- 125-23 aberats L V: aberatz G GG
- 125-31 heken L V: hequin G GG
- 125-32 probetto GG L V: probeto G
- 125-34 aberats L V: aberatz G GG
- 125-37 euzu G L V: eçu GG
- 125-37 batean Gesk GG L V: baten Gbi AK-720
- 125-38 euzu G: eçu GG
- 126-1 borondatera V: vorondateera G GG L

- 126-6 ixilkiena: ichilquierna G: Igilquy-/ena *in m.*
- 126-8 albaliz [Esanahiaren aldetik urrun ez badabiltza ere, ohartzekoa da ezen, itxuraz, bana-banako egokitasuna dagoela *alba-* aurrizkiaren eta alegiazko laguntzaileon artean, *ahal* gainerakoekin agertzen den bitartean; bigarren perifrasi mota hau, bestalde, oso bakana da testuan bestearen aldean: *ahal badateke* (45-19/20), *ahal badezazu* (134-4), *ahal badeza* (144-13) eta *ahal bazakitza* ‘zatzaizkio’ (208-9).
- 126-17 ausartzen L V: ausarzen G GG: [Itxuraz paretsuan dabilta: <rz> (178-21) eta <rtz> (78-28, 178-23, 252-7), baina bigarren <rz> dudazkoa da oso.
- 126-32 emaile G L V: emaillea GG
- 126-34 (Prov. 11) G GG: (Prov. 11, 24) V
- 126-35 aberats L V: aberatz G GG
- 126-37 errumes L V: errumez G GG
- 127-8 atheraagatik [Aukera bakarra testuan, eta honek erakusten digu Axularrek egiazki *agatik* partikula zuela buruan —hala analizatzen zuela forma— *erran agatik* (169-15/16) edo *begiratu agatik* (36-7) idazten zuenean.
- 127-8 erraitekorik G: ø GG
- 127-8 eztela, erraitekorik, ura handitzenago [V-k honela itzultzen: «...no se puede decir que el agua se aumenta». Ulerkera honek arazo bat dauka: balirudike orduan *eztela erraitekorik ura handitzenago dela* behar lukeela. Agian zailago bada ere, hobetsi dugu: «...que, como quien dice, no aumenta el agua» ulerkera, non *erraitekorik* = (gutxi gorabehera) *esateko moduan* (?). Edonola ere, GG-k ere sentitu du zerbait txarto dagoela (cf. aurreko oharra, eta hurrengoa).
- 127-9 eta ez G GG L: eta V. Hau da testuinguru honetan espero duguna, hots, *ez dela... eta ez* egitura, baina perpausa ulergaitza da puntuazioaz argitu ezean: hemendik bide dator GG-k beste *ez* bat gehitu izana: ik. hurrengo oharra.
- 127-9 ttipitzenago G: eztipitzenago GG
- 127-12 aberatstenago V: aberatzenago G GG: aberastenago L
- 127-14 aberats L V: aberatz G: aberaz GG
- 127-14 aberats L V: aberatz G GG
- 127-17 hargatik Gesk AKesk GG V: hargatin Gbi: hargatikan L
- 129-9 Aberats L V: Aberatz G GG
- 129-11 neurk G: neure GG
- 129-17 eta trentena G L V: ø GG [Ik. 135-5 testu-oh. ere.
- 129-19 zure ondokoak, eta zeurk G L V: çure ondocoa, eta ceure GG
- 130-6 praemium ne G GG: praemiumve L V
- 130-7 Eztu nehor: Eztu / nehor G [Bigarren lerroko lehen bi-hiru hutsuneak hutsik, age-riko arrazoirik gabe.
- 130-9 zeurk G: ceure GG
- 130-10 de Gesk AKesk L V: dei G: det GGbfb
- 130-14 divites Gesk AKesk GG L V: diuiutes Gbi
- 130-15 ordenatuko GG V: ordenatu G L [Pleguaren azken orriko azken hitza da, eta AK-720-n argi ikusten da <u> ez dela azken ikurra, marratxoa edo puntua ere bai baitago. Edonola ere, cf. jarraian *eginen*.

- 130-15 *derauztezula*: *deraztezula* G GG L V [Cf. *derauztegun* (186-28), *derauztet* (135-24) eta *derauztetzun* (4-35).
- 130-29 eta GG L: eto G: edo V [ez... eta ez... egitura maiz ikusi dugu: cf. *ez gogotik, eta ez bihotzetik* ezaguna (3-4), esaterako.
- 130-32 *zeurk* G: *ceure* GG
- 131-14 *ziatzela*: Hemendik hasita, orria zabalegi doa (eta Q4 da); aurrekoa, berriz, bete-betea. Paragrafoak inprentakoak dirateke, beraz, baita *usus*-ari begiratuta ere.
- 131-21 *Lucis* G GG: *Luciae* V
- 131-30 *ditutzten* G GG V [Ik. 200-34 ere.
- 131-30 *eskentzek* L V: *ezquentcec* G GG
- 131-35 *facias* G GG: *facies* L V
- 131-37 *esportzagariago* V: *ezportzagariago* G GG L [Cf. *esportzatzen* (10-10), *esportza* (122-27), *esportzatzailearekin* (274-30), etab.
- 132-4 *gara*: *gare* G L V: *garen* GG [Cf. *bagara* (15-9), *gara* (16-21), *garateke* (147-29), *baikara* (173-23), eta horrela 50 agerralditik gora, bakar honen aldean.
- 132-12 *ezpaita* L V: *espaita* G GG
- 133-11 *ezpadituzu*: [-*tutzu* ote? Cf. 35-28 testu-oh.
- 133-20 *kontatuetarik* G V: *contuetaric* GG L
- 133-23 *zeurk* G: *ceure* GG
- 134-6 *gaizki* G L V: *gaixki* GG [Alderantziz gertatu ohi da.
- 134-7 *Decedentes* GG L V: *Dececedentes* G
- 135-5 *trentena* G V: *Meça* GG: *Trentena** [**Meza* (2.^a ed.)] L [Ez dakigu zergatik ez duen *trentena* onartzen GG-ren zuzentzaileak (ik. 129-17 ere).
- 135-8 *ezen* Gesk GG L V: *ecin* Gbi AK-720
- 135-16 *Petrus Damianus* (1007-1072), *Epistolarum libri octo*; S. Antonino (1389-1459), *Summa moralis* (Venice, 1477).
- 135-18 *bortxaturik* L V: *borthaturic* G: *borchaturic* GG
- 135-20 *bertzerenean*: *berzerenean* G GG V [300dik gora agerraldi ditu *bertze*-k, eta *berze*-k honekin bost (*berze* 183-10, *berzela* 147-20, 186-12, *berzerekin* 301-10).
- 135-28 *neurk* G: *neure* GG
- 135-38 *esperantzan*: *esperançan* G GG V [Ik. 84-17 testu-oh.
- 135-39 *zeurk* L V: *zeure* G Gbi GG [baina honek *zeure*... *zeure*... ohi bezala: ik. 130-9 testu-oh., etab. ...*zeure duzun eskua eta botherea* (191-23) adibidea dateke hurbilena, baina ez dator bat. *zeurk*... *zeurk* egiturak ziburra dirudi, bada.
- 135-40 *zeurk* G: *ceure* GG
- 136-2 *dugu esperantza*. Baina *esperantza* banoa Gesk AKesk L V: *dugu esperantza banoa* G: *dugu esperantza, bainan esperantza banoa* GG
- 136-7 *da* GG L V: *du* G Gbi AK-720
- 137-1 *usantzak* L V: *usantçat* G GG
- 137-6 *gaixtatasunera* G: *gaiztatasunera* GG
- 137-7 *dugu* Gesk AKesk GG L V: *duguo* Gbi
- 137-8 *memorian* G GG L V [Orain arte *memorio* beti (5-1, 49-24, 49-26, 110-8, etab.), baina aurrerantzean bada *memoria* gehiago (199-26, 322-10 eta 322-15).
- 138-19 *erabakitze* G: *ebaratquitceco* GG

- 139-34 <257>: <157> G GG [GG-ren konposatzailearen lan itsuaren berri ematen digu honek.
- 139-35 hautsteaz V: hautzteaz G: hauzteaz GG
- 140-1 eta ez, ez konplitzeaz Gesk [txertatzeko marka bakarrik ikusten da] L V: eta ez konplitzeaz G: ez eta, ez konplitzeaz GG
- 140-14 benturaz GG L V: veuturaz G
- 140-18 juramentu batzuk Gesk GG: juramentuak, batzuk Gbi L V
- 140-19 nabusiek GG L V: nabusiiec G
- 140-19 derauztezenak: deraustezatenak G GG L V [Formaz, ik. 177-21 testu-oh.
- 140-20 borondaterik GG L V: vorondtaterik G
- 140-26 semetarik bata G V: ilhoba Chanaan GG: semetarik bata* [*illoba Channan (2.^a ed.)] L
- 140-33 ileak GG L V: illeac Gbi
- 140-38 anhitz GG L V: anhitz G
- 141-5 te manifestum facit G GG V: manifestum te facit L
- 141-5 (Mat. 16) G GG: (Mt. 26) V [*Vulgata Clem. Mt. 26, 73.*
- 141-18 seme-alabak: seme-alaba G GG L V [Cf. *seme-alabek, sheiek, ondokoek...* (112-10).
- 141-30 ibenzeintuzte G GG V [Ik. 58-28 testu-oh.
- 141-30 hastean Gesk GG L V: haztean Gbi
- 141-34 ibentzen Gesk GG L V: ibeni Gbi
- 142-1 ekharri L V: eccari G GG
- 142-7 derauela G: derauela GG
- 142-15 sinhets L V: sinhetz G GG
- 142-20 arrazoin L V: araçoin G GG
- 142-20 dakizun Gesk AKesk GG L V: daquiçon G
- 142-25 damua G L V: dainua GG
- 142-27 Sainduak L V: Saindoak G GG
- 142-31 huts GG L V: hutz G
- 142-33 behatu Gesk AKesk GG L V: beccatu G
- 142-39 (Eccles. 23) G GG: (Eccli. 23, 12) V
- 143-3 erortzen L V: erotcen G GG
- 143-17 sinhets L V: sinhetz G GG
- 143-20 zeurk G: ceure GG
- 143-22 Acta. GG: ata. G
- 143-22 prestki Gesk V: prestuki Gbi L [AxH-n argi jaso bezala, *prestuki* beti *bizi* aditzaren laguntzan agertzen da, eta maiz, gainera; nolana ere, urrun dago adieraren aldetik hemen esan nahi denetik, hemengo adiera bere aldetik ere maiz agertzen den *prest-i* baitagokio.
- 143-25 deierant G: dejerant GG: dederant L V
- 143-25 obi. G: ubi GG: ibid. L: ibi. V [Ez dago era honetako erreferentzia gehiago; *ibidem* hutsa bai, ordea (17-17, 36-11/12).
- 143-27 sinhets L V: sinhetz G GG
- 143-29 anhitz G: hanhitz GG
- 143-31 sinhets L V: sinhetz G GG
- 143-34 sinhets L V: sinhetz G GG

- 143-38 sinhets L V: sinhetz G GG
 143-38 sinhets L V: sinhetz G GG
 144-5 gezurrean Gesk GG L V: queçurrean Gbi
 144-17 halakoak L V: haloac G GG
 144-19 lizatekeiela GG L V: liçatequyela G
 144-21 amorz G V: amotz GG: amabortz L
 144-26 sarthua GG L V: satrhua G
 145-4 huts GG L V: hutz G
 145-18 deus L V: deuz G GG
 147-4 lehenbicitik L V: lehenbicittic G: lehenbicittic GG
 147-4 xedeari: chedeari G: Gedeari *in m.*
 147-4 diogula: dioguela G GG L V [Hamaika aldiz *diogula* (180-1, 185-1, 204-19, etab.)
 zein *diogun* (123-24, etab.).
 147-6 erriertatsuen Gesk GG: errietatsuen G V AxH [«en la 2.^a ed. dice *erriertatsu*»].
 [Agerraldi bakarra du.
 147-10 ezantsiatukoago G L V: ez hansiatuco ago GG
 147-14 seminibus Gesk L V: hominibus G [Gbi-n ere eskuz zuzendua, letrakera berdin xamar
 batekin.
 147-14 lib. 1 G GG: lib. 2 L V
 147-16 sortzetik: sorzetik G GG V [Beti *sortze*, beste behin izan ezik (*sorzen* 231-26
 testu-oh.).
 147-17 Ephes. Gesk GG: Epges. Gbi
 147-20 bertzela: berzela G GG V [Ik. 135-20 testu-oh.
 148-2 (Homil. 13, tom. 2) Gesk: ø G Gbi: (Hom. 13, tom. 2) GG
 148-2 Haragiak: haragiac G: haraguiac Gesk GG
 148-2 onhets GG L V: onhetz G
 148-2 bere G L V: ø GG
 148-4 onhets GG L V: onhetz G
 148-7 gaitzerizkoa G V: gaitcerizco GG: gaitzerizkoa* [*gaitzerizko (2.^a ed.)] L
 148-10 gaitzerizkoa G L V: gaitcerizco GG
 148-10 gaitzesten GG L V: gaitzezten G
 148-13 gaitzerizkoa G L V: gaitcerizco GG
 148-15 hiltzen G GG V: il zen L [Lehenago ere bai (122-22 testu-oh.).
 148-16 gaitzerizkoa G L V: gaitcerizco GG
 148-17 gaitzerizkoa G: gaitcerizco GG
 148-20 gaitzerizkoa G: gaitcerizco GG
 148-20 gaitzerizkoa G: gaitcerizco GG
 148-36 gaitzerizkoa G: gaitcerizco GG
 149-18 ere G L V: ø GG
 149-27 bihurritu G GG L: bihurtu V [Ez dago AxH-n, eta OEH-k V-ren irakurketa
 1643kotzat ematen du.
 149-32 erresuzitatu: errezuzitatu G GG L V AxH OEH [Adibide bakarra da testuan ez
 ezik, tradizio osoan ere.
 149-33 (Luc. ultimo) [*Vulgata Clem. Lc. 24, 25.*

- 149-35 (Ad Galat. 5) [V-k iradoki bezala (Gal. 5 al 3,1), perpausa bi zati ezberdinez osatuta dago: *O insensati Galatae, quis vos fascinavit (...)?* (Gal 3, 1) eta *quis vos impedivit veritati non oboedire?* (Gal 5, 7). Axularren iturri zuzenaren kontua ote?
- 149-41 dena Gesk GG L V: da Gbi
- 150-13 kexatu: quechatu G: Quejatu Gesk GG *in m.*: Guefatu Gbi *in m.*
- 150-16 xedea: chedea G: Gedea *in m.*
- 150-20 haserretzen V: asserretcen G GG [Adibide bakarra litzateke.
- 150-20 zentzutik: zenzutik G V. [Cf. 190-7 testu-oh.
- 150-29 nahizkoa L V: nohizkoa G GG
- 150-34 ibentzeak V: ibenteac G GG L [Bakarra litzateke, hainbat *ibentze*-ren aldean (15-30, 45-21, 60-4/5, etab.). Honezaz beste bat bakarrik aurkitu dugu: *ezarten* (186-10 testu-oh.).
- 151-17 iharrak [Ala *inharrak?* Ik. 328-28 testu-oh.
- 152-3 dagoenak Gesk GG L V: dagoena G
- 152-10 erhokeriez GG: erhorkeriez Gbi: erhotkeriz L: erhotkeriez V [Hamaikatxotan agertzen, beti ere ustezko *t* hori gabe.
- 152-14 kexadurak: quechadurac G: Quejadurac *in m.*
- 152-25 arimaren GG V: arimarem G: arimearen L
- 152-27 sukharra GG L V: sukharta G
- 152-27 kexo: quecho G: Quejo *in m.*
- 152-33 egiteintu: egitentu G L V [Bakarra, hainbat *egiteintu*-ren artean (153-5, 190-6, etab.). Gainera, cf. 85-5 testu-oh.
- 153-2 zelaturik Gesk GG V: coleraturic G: koleraturik* [*zelaturik (2.^a ed.)] L
- 153-5 haserretzailea G: asserretçaillea GG
- 153-5 haserretua G: asserretua GG
- 153-10 Orduan urruititik hurbil Gesk: Orduan urruititik ez hurbil G: Orduan urruititik egon, ez hurbil GG L: Orduan urruititik [egon, ez] hurbil V [oharrean azaldua]. [Urruititik lauzpabost aldiz agertzen da, baina behin ere ez *egon*-ekin. Beraz, zuzentzea ez da erraza: *urruititik [ere] ez hurbil* izan liteke konponbide bat, baina nahiago izan dugu ustez Gesk-ena den zuzenketari atziki eta «quédate lejos, no te acerques»-en ordez, «arrímate de lejos» ulertu: paradoxa bat, alegia.
- 153-22 erraxenik G: erracenic GG
- 153-22 iraungitzeko G L V: iraunguiteco GG
- 155-1 iraungitzeko G L V: iraunguiteco GG
- 155-22 arroari G L V: harroari GG
- 156-3 vitae GG L V: vtiae G
- 156-11 fida Gesk: fide Gbi: fidea GG: fido* [*fida (2.^a ed.)]: fido V [Gainerakoetan ere beti *fida* (*izan*) (160-1, 184-21, 244-13...), AxH-n ere ikus daitekeenez. OEH-k (s.v. *fio*) zalantzazkotzat jotzen du, eta eskuzko zuzenketaren berri ematen, nahiz azpiko irakurketa (*fido*) aieruz asmatu.
- 156-22 zeraukatela: ceraucatela G GG: zerautzatela L: zerautkatela V [Cf. *zeraukatenean* 17-18, 18-27, *etzeraukaten* 29-12... dozenatik gora.
- 156-23 baxera: vachera G: Vagera *in m.*
- 157-16 baitza G GG: balitza L V [Baina cf. *konsidera baitzagu* (105-22) eta *ken baitzatzu* (212-6): dudarik gabe, beraz, *baditza* osatzekoa zatekeen, osatu beharrik baleuka

- (adibide oso bakarra: *konsidera baditzagu*, 270-9). Pluraleko uzkurdurez ik. 123-31 testu-oh.
- 157-16 Harri Gesk GG V: Hari G
- 157-22 Roma. 12 G: ad Rom. 12 GG
- 157-24 guztietarik L V: guztieataric G GG
- 157-29 okhasinoetarik: okhasionetarik G GG [Gainerako guztietan (salbu 30-12, q.v.) *okhasino*.
- 157-29 ihes GG L V: ihez G
- 158-3 edetea G L V: edeitea GG
- 158-3 sukhaien L V: succaien G: succain GG [Hemendik sortua da, zalantza izpirik gabe, Larramendiren hiztegiaren eranskineko *sukain* iratxoa (cf. *OEH*, s.v.).
- 158-5 ixilik: ichilic G: Igilic *in m*.
- 158-6 haserretua G L V: haserredura GG [Agian bada zuzentzekoa; cf. goraxeago: *ko-leraren eta haserreduraren* (158-2). Gainerakoan, *haserretua* beti izenondoa da (83-4, 151-16, 157-4, etab.).
- 158-9 enganatzaile: enganatçalle G [Orain arte <ill> ez duen adibide bakarra, ziurrenik oharkabea, beraz.
- 158-11 buirakan G V: buiracan edo buruan GG: buirakan* [*edo buruan (2.^a ed.)] L [GG-ren eransketak ez dirudi zentzu handirik duenik. Bestalde, baliteke *burjaka*-ren aldaera edo haren ordezko hutsa izatea, eskuizkribuan *huriaca* jartzen zuela suposatuturik (cf. *OEH*, s.v. *burujaka* 2).
- 158-12 ixiltzen: ichiltcen G: Igiltcen *in m*.
- 158-15 gaixki G: gaizqui GG
- 158-26 ixil L V: icil G: igil Gesk: ichil GG
- 158-32 bada GG L [bai G-n, bai Gbi-n <baða> antzeko zerbait ikusten da, <d> zuzendu izan balitz bezala-edo.
- 158-32 iraungitzeko V: iraunguiteco G GGL [Cf. *iraungitzeko* (138-19, 153-22, 156-36, etab.).
- 158-36 solhas L V: solhaz G GG
- 159-6 gaitzerizkoa L V: gaitz errizcoa G GG
- 159-10 lakhet: lacquet G GG [<cc>ren ordez, *e, i* aurrean hasperena adierazteko.
- 159-12 aldaratzen Gesk L V: alderatzen Gbi GG [*aldaratu*-k hamaika adibide (4-22, 47-6, etab.); bada *alderatzea* ere (227-1), baina antonimoa da, 'hurbiltzea' alegia.
- 159-12 ihes L V: ihez G GG
- 159-16 erraiten L V: eraiten G GG
- 159-17 esurrierit GG L V: esurrierit G
- 159-18 (Roma. 13) G GG: (Rom 12, 20) V
- 159-22 amorioaren G: amoriaren GG
- 159-25 itzultzen L: içultçen G GG: izultzen V [Ez dago inolako ziorik hemendik ***izuli* aterazteko (cf. *AxH*, baina ez *OEH*), ez testuan bertan (adibide bakarra baita), ez hemendik kanpo ere.
- 159-32 handirasunetan [Berriro (278-38), baina bestetan *handitasun* (68-16, 79-30, 81-34), esanahia aldatu gabe (cf. Mitxelena 1974: 118).
- 159-33 gibelatzen L V: guibellatcen G GG
- 160-1 hitz Gesk GG V: hitz//hitz G [orrialde batetik besterako igarobidean.
- 160-3 dudala L V: dudula G GG

- 160-6 Paragrafo batean bildu dugun hau hirutan banatuta dago, pleguaren bukaera delako, nonbait.
- 160-9 gaixtoki G: gaiztoqui GG
- 160-10 Quum G Gbi: Quoniam L: Quam V
- 160-11 ridebimus Gesk L: videbimus G Gbi GG V [Cf. euskaraz ...*etsaiaren erranei irri egiteaz*...]
- 160-13 errumes L V: errumez G GG
- 160-13 errumes L V: errumez G GG
- 160-14 deus L V: deuz G GG
- 160-27 atsegin L V: atsequin G GG
- 160-31 ihardets L V: ihardetz G GG
- 161-9 espazioa L: espatioa G GG V [Ik. 38-32 testu-oh.]
- 161-16 konseilaria G: bere konseillaritçat GG
- 161-23 lib. 1 *Officio*. [Antza denez, *De Officiis* 1.25.89koa da.]
- 162-1 huts GG L V: hutz G
- 162-6 denbora eder arteino G L V: dembo-/eder arteraiño GG
- 162-23 haserretzen L V: haserretcen G GG
- 162-27 Aurreko orrialdean ohi baino paragrafo gehiago dago, eta honetan dena paragrafo berean doa, eta are «Plat.» laburdura («Platonek» jarri beharrean) erabili du konposatzaileak lekua lortzeko.
- 162-29 Arkita: Archita G GG L: Arkhita V
- 162-36 koleretan G L V: coleratan GG
- 162-37 baithan GG L V: baitham G
- 162-38 Basiliok Gesk GG L V: Basililioc G
- 162-39 Platonek ere GG: Plat. G V: Platonek L [Plegua eratzerakoan izandako arazoen-gatik. Cf. 162-27 testu-oh.]
- 162-41 haserretuari G: asserretuari GG
- 163-9 Nec ira consilii est repletus capax G GG V: Nec ira repletus, consilii est capax L
- 163-13 artean G: hartean GG
- 163-20 spacium G [Polita da: euskaraz beti <t> (cf. 38-32 testu-oh.), eta latinez, berriz...]
- 165-3 xxiv GG L V: xiv G
- 165-8 mihi dedit G GG V: dedit mihi L
- 165-12 zerautzanean GG L V: ecerautçanean G
- 165-27 bere ardiak GG L: eta bere ardiak G V [Halere, V-k bere egiten du beste bertsioa itzulpenean: «...les permitió que se llevaran sus ovejas...».]
- 166-1 haurrak L V: haurac G GG
- 166-8 potestatem Gesk L V: votestatem Gbi
- 166-25 dihoatzula Gesk GG V: diohoatzula Gbi
- 167-3 eta G L V: ez GG
- 167-3 ez G L V: eta GG [Ik. aurreko oh.]
- 167-17 baldinba etzara burdin goriaren kontra... haserretuko [V-k eta *OEH*-k galdera marka mantendu dute, baina L-k kendu, guk bezala. Izan ere, galdera mantentzeko, V-k baiezkotan itzuli du: «Acaso te enfadas...?». Kontuan izan dezakegu G-n batzuetan galdera-marka beharrik gabe agertzen dela, ez bakarrik zehar-galderetan (non beti-edo agertzen den), baita bestela ere: cf., esaterako, hurrengo perpausa,

edizio honetan marka gabe transkribatu duguna: *Zeren hura da saindutasuna, perfetasuna, debozinoan konplitu izaitea, eta Jainkoak karitateaz eta amorioaz eman derakun manuaaren konplitzea?* (G 327). Honela itzuliko nuke, bada, oraingo hitzetan jarrita: «Es de suponer que no te enfadarás...». Testuan bada *balidinba* galderan (34-7), baina baita hortik kanpo ere (105-14, 107-11, etab.).

- 167-27 haserretzeko G: asserretceco GG
 169-10 baliazazu GG L V: baliazacu G
 169-23 ezazu L V: ezacu G GG
 169-24 erraxki G V: errazqui GG: erraxki* [*errazki (2.^a ed.)] L
 169-24 pairatukoituzu [Agian *-tutzu*: cf. 35-28 testu-oh.
 169-25 haserretuac L V: hosserretuac G GG
 171-1 erremedioa GG L V: erremodioa G
 171-3 xxvi L V: xxv G GG
 171-11 Bilha: G Billa [Cf. *bilha* 96-19, 197-25, etab.
 171-29 Plutar. L V: Plutan. G GG
 172-1 erraxkiago G: errazqui ago GG
 172-4 etzegokan L V: etcegoçan G GG [Beheraxeago dugu *zegokan* berriz (172-6).
 172-10 Beraren G L V: Berearen GG
 172-19 diferentzian V: diferenciarian G GG [Ik. 59-8 testu-oh.
 173-15 estimatzeintuzte L V: eztimatzeintuzte G GG
 173-15 eztituzte: ezituzte G GG L V [Honekin lautan dago (10-23, 92-16, 92-35), eta beste hirurak *eztituzte* dira. Haplografia, beraz.
 173-16 faltatzen L V: faltetzen G GG
 174-1 zeurk G: ceure GG
 174-11 <317> GG: <318> G
 174-14 faltatan... faltatan... L: faltetan... faltatan... G V: faltetan (...) faltetan GG [Cf. *faltatan erori* (144-5, 160-28, 193-4).
 174-14 erortzen L V: erotcen G GG
 174-29 (Zonar. t. 2. *Annal.*) [Ioannes Zonaras (1050-1150), *Annales* (Migne, PG 134 eta 135).
 174-38 komunzki L V: komunski G GG
 175-8 errekaitzen Gesk GG L V: errecaitzen G
 175-12 da G L V: da eta GG
 175-14 labor GG L V: labar G
 175-19 serm. 21 G: serm. 27 L: serm. 28 V
 177-3 xxviii GG L V: xviii G
 177-15 gaitzets Gesk GG L V: gaitz [orrialdearen bukaeran] G
 177-19 uste L V: uzte G GG
 177-21 deratzueazanei [Ergatibo pluralaren adierazlea *-za* dugu, eta ez *-te*. Cf. taiu bereko *derauzeza* 'diete' (126-25) eta *zerauezan* 'zieten' (41-14). Leizarragak pluralgile pleonastikoarekin *drauzuezate* (1 Petr 1, 12). Bigarren tankera honetakoak dira bertoko *zaituztezate* 'zaituztete' (16-3) eta *derauztezatenak* 'dizkietenak' (140-19).
 177-22 derauezue L: derauezu GG V: deraueçcu G [Adizki zehatz honen beste agerraldirik ez dago, baina testuinguruak hala behar luke.
 177-28 vobis GG L V: vebis G
 177-29 onhets L V: onhetz G GG

- 178-6 onhets L V: onhetz G GG
 178-12 erraxki G: errazqui GG
 178-13 ezpazatzaitza: ezpatzatzaitza G GG V
 178-15 deus GG L V: deuz G
 178-16 erraxki G: errazqui GG
 178-21 ausartzen: ausarcen [edo <ausatcen>] G Gbi: ausatcen GG: ausarzen V [Ik. 126-17 testu-oh.
 178-25 onhets L V: onhetz G GG
 178-28 daudenek... dutena GG L: daudenek... duena G: daudenak... dutena V
 178-33 elkharrekin GG V: elcarrequin G
 179-1 ibenzeintut G GG V [Ik. 58-28 testu-oh.
 179-11 Caie. G GG: Caiet. L V
 179-15 laburzki GG V: labuzrqui G
 179-20 ihes Gesk GG L V: ihez Gbi
 179-21 apartaturik GG V: aparraturic G
 179-21 ihes L V: ihez G GG
 179-29 ibiltzera L: ibilzera G GG V [Ik. 23-2 testu-oh.
 179-37 perfet-tasuna G GG V: perfetasuna L [Idazkera etimologikoa (ik. § 3.2).
 179-38 amorioaz G: amoriaz GG
 179-38 derakun G L V: deraçun GG
 180-4 kandela eskuan G GG L: kandela bere eskuan V
 180-8 diszipuluei GG L V: discipuley G
 180-8 Kaieraren azken orrialdeak oso zabal, 328. honetan perpausak zatitzeraino, vs. 329.a bete-betea.
 180-11 ordu G: orduan GG
 180-12 onhets L V: onhetz G GG
 180-17 patriarka GG L V: Pariarcha G
 180-29 antequam L V: antequ Gbi: anteqū Gesk: antequã GG
 180-30 verbis illius Gesk L: verbis ellius GG: verbis G V
 180-30 fratrum GG L V: fratum G
 180-32 (Gen. ulti.) Gesk GG: (Gen. c. 50) L: (Gen. ult.) V
 180-34 hatsbeherapen Gesk GG V: hatz beherapen Gbi
 180-39 *nahi deratzuen barkhatu*: nahi diezazuen barka. Indikatiboko perifrasi erabili arren, subjuntibo batekin (*eztadin orhoit*) koordinatua da.
 181-10 gauza G: igauça GG
 181-13 onhets L V: onhetz G GG
 183-3 xxix L V: xxiii G GG
 183-6 (Deut. 32; Roma. 12) [Aipua lehenengoan dator (*Vulgata Clem., Deut. 32,35*); bigarrenak hari egiten dio erreferentzia: *...scriptum est enim: «Mihi vindicta, ego retribuam», dicit Dominus (Vulgata Clem., Rom. 12, 19).*
 183-10 bertze V: berze G GG [Ik. 135-20 testu-oh.
 183-12 eskas L V: eskaz G GG
 184-18 niri G: hiri GG
 184-19 zaren GG L V: çarren G
 184-21 zeurk G: ceure GG

- 185-12 bakharrik L V: baccaric G: baccari GG
 185-13 Plegu hasiera bete-betea orrialde hau. Villasantek egin zuen paragrafo zatiketa.
 185-16 bakharrik L V: baccaric G: baccari GG
 185-17 errax G V: erraz GG L [Aurreko agerraldian (185-15), berriz, denek dute *erraz* (G GG L V).
 185-18 Erraxki G L V: Errazqui GG
 185-18 barkhatuko V: bar-/catuko G GG
 185-22 barkha GG L V: barrcca G
 185-27 behar GG L V: hebar G
 186-1 edergailu G V: edergailluz GG L
 186-5 badiadukozu [*eduki*-ren hiru pertsonako trinkoak, XVI eta XVII. mendeetako Iparraldeko idazle gehiagotan lekukotzen direnak bezalakoak (*OEH*, s.v. *eduki*): cf. *diadukon* (197-26). Ez da *dia*- duen *nori*-dun adizki bakarra: ugarietak **ezan*-en erroko laguntzaileak dira (*diazadan* 10-2, adibidez), baina cf. *diabilkola* (199-30) ere.
 186-8 gaixtoak G: gaiztoac GG
 186-10 ezartzen L V: ezarten G GG [Ik. 150-34 testu-oh.
 186-12 bertzela L V: berzela G GG [Ik. 135-20 testu-oh.
 186-22 facit G GG V: fecit L
 186-26 dimittimus GG L V: dimittim⁹ G
 186-29 alderakotzat G: alderatcotçat GG
 186-30 alderakotzat G: alderatcotçat GG
 186-35 deratzunean L V: daratçunean G GG
 187-3 Aithari G GG V [Ez dago honen berririk *OEH*-n, ez eta *AxH*-n ere. Cf. *aita* (3-14, 4-10, 18-18, 33-21, etab.).
 189-6 utzteak G: usteac GG
 189-15 oihalari zerrena G: oihelari errena GG
 189-17 erraxago G: erraçago GG
 189-31 laxioez L V: lachioez G GG [V-k (*in m.*) *latxio* forma markatzen du (*OEH*-k dioenez, s.v. 1 *lakio*), baina ez *AxH*-n. Zoritxarrez, agerraldia bakarra da: forma ez da ezinezkoa, beharbada, baina egia da, bestalde, Etxeberri Sarakoak *latxio* dakarrela, *latxibo* Haranederrek eta, urrutixeago, *latxigu* Harizmendik (ap. *OEH*), denak ere bat datozenak txistukariaren aldetik.
 190-7 zentzutik V: zenzutik G GG [Gehienetan *zentzu*, baina cf. *zentzutik* (150-20) eta *zenzuz* (233-16).
 190-8 haur GG: haurr G
 190-9 Haur GG: Haurr G
 190-11 gaixtoan G: gaiztoan GG
 190-20 erakutsirik L V: eracutsiric G GG
 190-25 ahozpez L: ahoz-peç Gbi V: ahoz-pes Gesk: haoz-pes GG
 190-33 beharondoka G GG V: beharrondoka L
 192-14 hartzen: harzen G GG V [Honezaz beste adibide bat (225-25) baino ez.
 195-6 amorioa G: amoria GG
 195-7 Israel G: Israël GG
 195-16 amurustu G L V: amuruztu GG
 196-5 erregeak GG L V: erreguac G

- 196-8 zituen G: cituen, Lutherren heregiari entrada emanik GG
- 196-15 egiati Gesk AKesk GG L V: egiatic Gbi
- 197-9 Urias GG L V: vriaz G
- 197-13 hilarazi zuen G L V: hil çuen GG
- 197-13 *Historia Mont. Serrat.*, zehaztu du L-k.
- 197-14 hari Gesk AKesk GG L V: harc Gbi
- 197-20 zerauena G L V: cerauela GG
- 197-25 okhasino bilha dabiltzanez? Gesk AKesk GG L V: occasino G [lerroa eta orrialdea amaitzen dira hitz honekin.
- 197-26 diadukon [eduki-ren hiru pertsonako trinkoak: cf. *badiadukozu* (186-5).
- 198-5 zuela GG V: cela G: zela* [*zuela (2.^a ed.)] L
- 198-13 kondizino Gesk AKesk [garbi ez] GG: konplezino G L V [Alegiazko lekukotasun honezaz besterik ez du *konplezino* hitzak, ez bakarrik Axularrenean (non *kondizino* maiz ageri baita; ik. *AxH*, s.v.), baita gure tradizio guztian ere (ik. *OEH*, s.v.).
- 198-21 abszintio G L V: absintio GG [beheraxeago *absintio* (198-34) baita G-k ere.
- 198-30 inprentzuaz GG: imprentsuaz G V: inprentsuaz* [*inprentzuaz (2.^a ed.)] L [Cf. *inprentzuaz bezala* (159-25), eta ik. *OEH*, s.v. *ifrentzu*].
- 198-34 beraskatik GG L V: berazcatic G [Cf. *beraska* (198-20), eta ik. *OEH*, s.v. *aberaska*].
- 198-34 absintioa [Gorago *abszintio belharra* (198-21). Leizarragak *absinthio* (Apoc 8, 11, ap. *OEH*, s.v. *absintio*, non Axularren *absz-* forma bakarrik jaso den, *AxH*-en bezalaxe, s.v. *abszintio*). Hutsa izan liteke, baina baita kontsonante taldearen bakunetzea, batzuetan ohi duen bezala (cf. *inorantzia* 65-9, adibidez).
- 198-37 amoriogabe L V: omorio gabe G GG
- 198-38 egitea G: eguiteare GG
- 199-6 gizon emakoiak Gesk GG L V: ema-coiac G
- 199-20 erortzea V: erotzea G GG L [Hutsa dago tartean, edo *er[h]otzea* edo *ero[r]tzea*, eta bigarrenari errazago deritzagu, baita gehiagotan gertatu delako ere: ik. 4-9 eta 67-18 testu-oh., adibidez.
- 199-21 bekhatu GG V: becatu G
- 200-4 Quicquid G: Quidquid GG L V [Cf. «*quicquid*, alternative spelling of *quidquid*» (*Wiktionary*).
- 200-13 ekhartzen GG L V [G eta Gbi-n, bietan azken *n* puntu beltz lodi bat bezala baino ez da ikusten.
- 200-13 bereaz G V: berez GG: bereaz* [*berez (2.^a ed.)] L
- 200-15 baino: ø G GG L V [itzulpenean ere ildo beretik] [Alabaina, uste dugu hor *baino* falta dela, konparazio bat dagoela, *jarraikiz izaiten dena* ezin egoki dakiokela *eskas den gauza*-ri; aitzitik, haren aurkako ideia dela.
- 200-16 bertzerenera G L V: bertzerena GG
- 200-19 errumestu: errumeztu G GG L V
- 200-21 edoskitzen G L V: edoquitcen GG
- 200-21 ihartzen V: ihar-/cen G GG
- 200-28 (Eccles. 4) G GG: (Eccli. 41) V [Zehazki, *Eccli.* 41, 10.
- 200-29 errenkuratzen [Ik. 100-21 testu-oh.
- 200-29 desohorezko GG L V: dezohorezko G
- 200-34 ditutzten G GG V [Ik. 131-30 ere.

- 201-15 aphezari Gesk AKesk [garbi ez] GG V: appeçeri Gbi L
- 201-17 nothatzen [nothatu 'lohitu, zikindu', baina notatu: notatzekoak 'ohargarriak' (230-8).
- 201-24 ilkitko G GG: ilkiko L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
- 203-18 gerthatu GG V: gertatu G
- 203-22 edukitzen: edukiten G GG V [Adibide bakarra. Cf. 47-17 testu-oh.
- 204-8 gaitzala G L V: çaitçala GG
- 204-9 kastitatearen L V: castitearen G GG
- 204-17 De institutio. GG: de instutio. G [Ziurrenik *De Institutione Virginis Et Sanctae Mariae Virginitate Perpetua* (Migne, PL 16).
- 205-5 gogoetei: gogoetey Gesk AKesk: gogoetey G GG L V. Cf. beheraxeago berriz: «...hartako gogoetei <-ey> begiaren edukitzea» (206-15/16).
- 205-6 erraxenik G: erracenic GG
- 205-12 behin G: bein GG
- 205-15 gaixtoa GG L V: gaitxoa G
- 205-18 garaitzen: garaiten G GG L V [Gainerako guztietan *garaitzen*; cf. paragrafo honen beronen amaieran *garaitzeintut* (205-24).
- 205-21 Eztut: ez ditut (Lekuonaren oh.). Ik. 123-31 testu-oh.
- 205-25 harekiko G L V: berequico GG
- 206-11 nahiz G GG L: nahirik V [Edizioko hutsa (*konsideraturik*-ek erakarria, nonbait): Axularrek *nahiz* ugari, baina *nahirik* behin ere ez darabil.
- 206-16 heken G: equen GG
- 206-17 gauteke G GG L V [Beti *gaude* (206-17-25, *gaudezila* 31-3, etab.), *-teke*-rekin izan ezik: cf. *dauteke* (320-5).
- 207-5 deliberamendu GG L V: deliberomendu G
- 207-11 Ethortzen V: Ethorzen G GG [Adibide bakarra, hainbaten artean.
- 207-21 ixilduko: ichilduco G: Igilduco *in m.*
- 207-25 errax G: errax GG: errax* [*errax (2.^a ed.)] L
- 208-6 egitekoek: eguitecoec G: egoitecoec GG
- 208-14 onez onetara G V: onez onean GG: onez-onetara* [*onean (2.^a ed.)] L
- 209-13 adversarius Gbi GG L V: pauerarius [lehen bi letrak hankaz gora edo] G AK-720 [Hitz hau eta hurrengo biak (ik. 209-13 eta 209-14 testu-oh.) orrialdeko azken hiru lerroen hasieran daude, eta hirurak oker daude *princeps*-aren hiru aleetatik bitan, agian moldeak izandako istripuren batengatik (enpastelamendu moduren bat, nonbait: cf. Martínez de Sousa 2002: 113).
- 209-13 expellitit Gbi GG L V: ex-/f lilitit G AK-720 [Ik. 209-13 testu-oh.
- 209-14 Zahar: çahar G AK-720: Çahar Gbi [hautsia ohi baina askoz handiagoa da, letraren tamainakoa ia]. [Ik. 209-13 testu-oh.
- 209-28 zahartzean GG L V: zahrtzean G
- 211-3 enplega G L V: emplegat GG
- 211-12 frogatzeko GG L V: fragatzeko G
- 211-12 *Epistola cxxv. Ad rusticum monachum* (Migne, PL 22).
- 211-20 erauzarazi G L V: erauçaraci GG
- 211-20 gaixto G: gaizto GG
- 211-28 etsitu GG L V: erfitu Gbi AK-720
- 211-30 xedeari: chedeari G: Gedeari *in m.*

- 212-6 dirateke V: dirataque G GG L
 212-7 nehor G L V: nehorc GG
 212-13 *Epistola cxxv. Ad rusticum monachum*, § 11: «Ama scientiam Scripturarum, et carnis vitia non amabis» (Migne, PL 22, 1078).
 212-15 laxoki: lachoqui G: Lajoqui *in m.*
 212-19 igorri G: igoric GG
 212-20 xispiltzeko: chispiltceco G: Gispiltceco *in m.*
 213-6 zerbaitetan G L V: cenbaitetan GG
 215-7 baldin ttipia eta laburra bada GG L: baldin ttipia eta laburra baldin bada G V
 215-22 Rom 6, 21
 215-22 in iis in quibus G GG: in his in quibus L: in iis quibus V
 215-23 ailtxatuz V: ailxatuz G GG [Adibide bakarra askoren artean.
 215-28 Haragiaren GG L V: Haragiarem G
 215-29 gose Gesk AKesk GG V: goseac Gbi L
 216-1 *Epistola cxxiii ad Ageruchiam. De monogamia*, § 14 (Migne, PL 22, 1055).
 216-6 Lyrana Gesk AKesk L V: Cyrana Gbi
 216-8 iraungiagatik Gesk [iraun-/gui agatic] AKesk [iraū-/...] L V: ira-/guiagatic Gbi
 216-10 Tantalus Gesk AKesk GG L V: Tandalus Gbi
 216-11 Tantalo Gesk AKesk GG L V: Tandalo Gbi
 216-11 onbehar L V: on-bebar G GG
 216-12 eta [lerroko bigarrena] Gesk AKesk [garbi ez] GG L V: ete Gbi
 216-19 nekha GG V: nehka G
 216-22 edanago, egarriago; usatuago, nahiago G L V: edanago eta egarriago; vsatuago eta nahiago GG
 216-23 nummi Gesk AKesk [bietan <m> gainean marra] GG V: numi G: numni L
 216-25 Segituago, nahiago; usatuago, barrenago; aseago, goseago G: Seguituago eta nahiago; usatuago eta barrenago; aseago eta goseago GG: segituago* [*segituago eta naiago etc. (2.^a ed.)] L
 216-36 halakoak G: alacoac GG
 216-38 buruaren L V: burruaren G GG
 216-39 sortua GG: sorttua G: sorthua V [Egia da beti *sorthu* dagoela, baina 'jαιο' adieran (cf. *OEH*, s.v. 2 *sortu*).
 219-12 Aul. Gelits. G GG: Aulo Gelio V [*Noctes Atticae* (3, 8).
 219-15 *eskatu zeikan suma handi baten, gehiago borzehun ezkuturen baino*: osagarri zuzena genitiboan *eskatu* partizipioaren mendean badago ere (ik. 75-24 testu-oh. adibide gehiagotarako). Adibide hau oso berezia da, itxura batean bai baitirudi genitibo konparazioan erabilia dela (cf. Lakarra 1996: 192-193).
 219-16 borzehun: borz ehun G GG: bortz ehun V
 219-18 Aphothothe. G GG L: Aphothe. V
 219-24 gero: gero G: guero Gesk AKesk GG
 220-3 me ipsum G: meipsum GG L V
 220-3 Plutar.: Plutan. G: Plutarc. L V [Cf. 219-18.
 220-15 huts GG L V: hutz G
 220-16 osasunan G GG L V [Ez dago leku-kasuetako beste adibiderik. Konparazio baterako, hamaika aldiz dugu *ontasunean* (42-15, etab.).

- 220-21 bihurtzen V: bihurzen G GG [Bakarra, askoren artean.
220-22 uli-farfaila: Papillio *in m.*
- 220-26 eta [lerroko bigarrena] L V: era G GG
- 221-1 zazpigarren L V: çaspi garren G GG
- 221-5 ukitzea G L V: utquitcea GG
- 221-6 leihoak G: lehioac GG
- 221-10 visus [*in margine* ere agertzen da, lehen lerroaren parean, gero beste zentzumenak ere agertuko diren bezala.
- 221-16 zioen G: ciohen GG
- 221-18 sartzen: sarcen G [Ik. 53-32 testu-oh.
- 221-19 erdiets V: erdietz G GG [Paragrafo hau faltan dago L-n.
- 222-6 Augus. Gesk AKesk: Stugos Gbi
- 222-6 *Regula ad Servos Dei* (Migne, PL 32).
- 222-7 baditutzue Gesk AKesk [garbi ez] GG L V: beditutzue G
- 222-16 Guigo I Carthusiae Prior Quintus (1083-1137), *Vita Sancti Hugonis Episcopi Gratianopolitani* (Migne, PL 153).
- 222-18 gogarako G: gogorako GG
- 222-24 treben: trébén G GG
- 222-29 horren beronengatik [Gehienbat lehen graduko erakuslearekin erabiltzen du, eta *hunek beronek* (10-10, 313-22) ergatiboa kenduta, ia beti *haur beror* hutsean (23-18, 27-11, etab.). Ez du ematen bigarren gradukoarekin honezaz beste adibiderik dagoenik (cf. *OEH*, s.v. *berau*).
- 223-2 amorioa G: amoria GG
- 223-4 zein GG L V: cen G
- 225-5 gustuarenari: Gustus *in m.*, baina aurreko kapituluaren azken lerroan (behar baino goraxeago, alegia).
- 225-23 okhasinoa GG L V: occosinoa G
- 225-25 hartzen V: harzen G GG [Ik. 192-14 testu-oh.
- 225-26 sinhets L V: sinhetz G GG
- 226-12 ibenzue G GG L [Ik. 58-28 testu-oh.
- 226-23 ihes L V: ihez G GG
- 226-37 Ordea Gesk AKesk GG L V: Odea G
- 226-39 istupa G GG L V [Cf. *istupa* (227-25), baina *iztupa* (235-28).
- 227-3 haragiagana L V: harragiagana G GG
- 227-8 baita G: baitara GG
- 227-15 akometamendua: acco- G GG: akho- V [Ik. 48-5 testu-oh.
- 227-25 elkharrekiko GG L V: elccartequico G
- 227-32 alderakotzat G: alderatcotçat GG
- 227-36 (Prov. 31) G GG: (Prov. 31, 13) V
- 227-38 lihoa Gesk AKesk GG L V: lihoac Gbi
- 227-40 pulchra GG L V: pulcra G [Hurrengo agerraldian, berriz, <ch>.
- 228-7 eztemela [*eztemala* espero genuke, baina adibide bakarra da. Gainerakoak nori eta hari formarenak dira, ordea, *demo-* erakoak guztiak: *demola* (178-30), *demogula* (157-22), etab.

- 228-12 bekhatu eragiteko L: bekhatu eragitzeko G GG V [Hutsaren errazaz eta formaren ezezagunaz gainera, cf. goraxeago ere *bekhatu eragiteko* (228-5).
- 228-22 ixilik: ichilic G: Igilic *in m.*
- 228-22 errax G: erraz GG
- 229-3 XLIII GG L V: XXXXIII G
- 229-17 bertzerentzat G GG: bertzerentzat V
- 229-25 usainik: vsaiñic G: vsanic GG
- 230-15 hala G: halac GG
- 230-29 egiten GG L V: eguitan G
- 230-33 Etzaitzeltela GG L: Etzaitzela G V [Haplografia, dudarik gabe: hurren dator osorik.
- 230-39 Gaitz L: Gaiz G GG V [Cf. *gaitz da* (51-13, 106-16, etab.).
- 231-11 midikuek G L V: medicuec GG
- 231-24 erra arazi G V: errearaci GG: erra-arazi* [*errearazi (2.^a ed.)] L
- 231-26 eroriago L V: eroria-/ago G GG: eroriac / ago Gesk AKesk
- 231-26 sortzen V: sorzen G GG [Cf. 147-16 testu-oh.
- 233-5 enzuteaz, beharriez: *Auditus in m.*
- 233-10 Erraxki G: Errazqui GG
- 233-16 zentzuz: zenzuz G V. [Cf. 190-7 testu-oh.
- 233-22 *Augustini Sermo ix. Tractatvs Sancti Avgvstini De Decem Chordis Sermo Habitvs Chvsa.*
- 233-22 gutiago GG L V: guti aga G
- 233-27 usnaren: *Odoratus in m.*
- 233-28 balsamoz G V: balzamoz GG L
- 233-29 onez GG L V: oñez G
- 233-29 usaintzaturik GG: usaintzurik G L V [Cf. beheraxeago *urrintzaturik* (234-6). Saila oso emankorra da, eta betiere -ztatu-duna: *atsekabezatu* (245-30), *pipiztatu* (248-19), *eskuztatu* (279-30), *ederztatu* (289-15), *oinhazetzatu* (323-40), *hidoiztatu* (324-9), etab.
- 234-5 emazteki GG L V: emaztexki G
- 234-6 urrintzaturik G L V: urrintzaturik GG
- 234-15 ona GG L V: ono G
- 234-22 gorputzean G L V: gorputzetan GG
- 234-26 desonhetskeriaren G GG V [Beste bat baino ez dago, eta hura *desonhez-* da G-n (98-24 testu-oh.).
- 234-28 (Eccles. 9) G GG: (Eccl. 19, 27) V
- 234-31 eskas L V: eskaz G GG
- 235-8 lehenbiziko Gesk AKesk GG L V: lehenbicic Gbi
- 235-17 tactus: *Tactus in m.*
- 235-19 jitoen: ijtoen G GG V: ijtoen L [Cf. *OEH*, s.v. *ijito*: «*Ijto*, que aparece en Axular, podría ser errata por *ijito* o por *jito*»; zalantza, formari ez, baizik eta XIX. mendeko lapurterazko testuetan *jito* aurkitzeari zor bide zaio. Alde honetatik, ez dago ebazterik, lehentxeago Sunbilan (1597) *ijito* lekukotzen baita. Halere, formari begiratu behar lehen-lehenik, guk uste, eta ohartu grafia bereziari: Axularrek *gito* idatziko baitzukeen /j/ ez den guztia; <ijto> idatzi zuenez, hitz hasierako <i> = /j/ hori ez ote da, lehenik, eta gero <ij> ohiko segida klasikoa, bi <i> elkarrekin suertatzean erabiltzen zen konbentzio grafikoa?

- 235-21 utkitzeak G GG: ukitzeak V [Ik. 69-22 testu-oh.
- 235-31 handiagorik L V: handiagorik G GG
- 236-2 behar L V: hebar G GG
- 237-11 aitzindaririk Gesk GG L V: aitzinda-/rik G: AKesk [<ri> lerro hasiera honi erantsi beharrean, hurrengo lerrokoari egin dio].
- 237-12 kidaririk: guidariric G GG L V [Beti *qu-z*, bai bestetan (20-24, 238-6, 240-14), baita familiako beste formetan ere: *kidatu* aditza (*kidatzen* izenburuan, *kida* 3-24, *kidatuko* 5-12, etab.) eta *kidoin* (80-2) izena.
- 237-16 indidit G L V: incidit GG
- 238-7 erakuts L V: erakutz G GG
- 238-10 badiogu L: badigu G GG V [oharrean: «Badirudi *diogu* behar lukela». [Testuinguru argiaz gainera, gogora dezagun Axularrek *dio*-erako formak (nori eta hari dagozkionak) baino ez dituela: *diot*, *dio*, *diogu*, *diozu* eta *diote*, besterik ez. Gainerakoan, **eradun*-enak darabiltza: *derautazu*, *derauku*...]
- 238-11 xuxen: chuchen G: Sugén *in m*. [Hau ez du Gesk-ek zuzendu. GG-k are okerrago: *Suguen*.
- 238-22 erakusten L V: erracusten G GG
- 238-28 Jainkoarekin GG L V: Iaincorequin G
- 238-32 larrutzen G: lurrutcen GG
- 239-1 huts L V: hutz G GG
- 239-8 hamarretan G: amarretan GG
- 240-14 etzaiku: etçaicu G: etçaïçu GG
- 240-25 gozatasun [Gehienetan *gozotasun* (ik. 279-10 testu-oh.).
- 240-28 kaltea GG L V: calca G
- 240-31 ibentzen baitu bekhatorea G L V: ibentzen baitu bekhatorea nahigabez bethea GG [Jatorrizko perpausa arineketan edota ulertu ezinik osatutakoa?]
- 241-10 etxe barrenekoa da L V: etche barrêcoea Gesk AKesk: etche barrêcoada G Gbi: etche barrenkoa GG [Ohiz kanpokoa da, zeharo, bokal arteko sudurkaria adierazteko modua: espazio faltak eragindakoa dirudi, orrialdea oso beteta baitago (eta pleguaren azkena da). Irtenbidea zuzentzaileari ez gustatu, nonbait, eta beste proposamen bat egin zuen lerroa letrez arintzeko: testuko «soberako» hitzak —eta ez hain soberakoak ere— hala kentzeko eta testua konposizioaren beharrei egokitzeko eskua bere hartzen zuten inprintako langileek (ik. § 1.2).
- 241-17 ez eta ezta G L V: ez ezta GG [Aurkitu dugun antzekoena: *Ez eta, beraz, ezta erraz izanen...* (51-9).
- 241-23 S. Anbrosio, *De Officiis ministrorum* (Migne PL 16).
- 241-28 bagek: baguec Gesk AKesk: bagueac G GG: bageek L: bageak V
- 241-37 zapatagileari G GG L: zapata egileari V [eta honetan oinarrituta, nonbait, baita *AxH* eta *OEH* ere, s.v. *zapatagile*.
- 241-38 hiltzela G GG V: il zela L [Cf. 122-22 testu-oh.
- 242-10 azotatzen G: acotatcen GG [Larramendiren *acotatu* iratxoaren sorburua (cf. *OEH*, s.v. 2 *akotatu*).
- 242-21 Supplicii L V: Supplicii G GG
- 242-23 dituen GG L V: dutuen AK-720 [G-n eta Gbi-n, baita AK-720-n ere agian, balirudike <u>ren lehen makilaren gainean <i>ri dagokiokeen puntua jarri dela.

- 242-26 konzientzia L V: conscientia G GG
- 242-36 Gaixtoa G: Gaiztoa GG
- 242-36 beldurri G: beldurri GG
- 242-38 ez GG L V: ex G
- 243-6 ezpaitu deus ere deus balio duen G GG L: ezpaitu deus ere balio duen V [Axularren hitz joko ohikoetako bat dirudi: cf. *nahi othe zenduke deus ere gauza gaixtorik?* (309-21/22).
- 243-21 occidet G L V: occidit GG
- 243-35 Seliloq. G: Soliloq. L V [G-k bi lerrotan «2 *Seliloq.* / Isidor. lib.» ordenan ematen du. Cf. 247-26.
- 244-2 xitzen L V: chitcen G GG
- 244-17 konzientzia GG L V: concientia G
- 244-20 timueris: teneris G GG L V [Cf. euskaraz *etzarela... hain beldur*. Latinezko bertsoia Singer (1999: 494) bilduman, besteak beste.
- 244-20 ipsum GG L V: ipsnm G
- 245-6 audientziak L V: audien-//dientciak G GG
- 245-13 ukha Gesk AKesk GG V: ukga G
- 245-15 ez G: est GG
- 245-17 batek hartzen G: batec hac hartcen GG
- 245-26 anaia G: anania GG
- 245-26 baikaude G: baiçaude GG
- 245-33 zerauela V: zeraula G GG L
- 245-34 En G L V: in GG
- 246-9 ahantz L V: ahants G GG
- 247-3 XLVI GG L V: XLVII G
- 247-10 halaber GG L V: halaher G
- 247-14 serm. 10: serm. G GG V [S. Agustin, *Sermones ad fratres in eremo commorantes* (Migne, PL 40). Erreferentziaren egituraz, cf. 212-32.
- 247-26 Seliloq. G: Sel. GG: Soliloq. L V
- 247-27 euzu G: ençu GG
- 248-9 izana [lerroko bigarrena] AKesk GG V: içena AK-720 [G eta Gbi-n ere lehen <a>ukituta dago; ohartu, dena den, <ç> dagoela hasieratik, <a>ri dagokionez.
- 248-11 zaphoratzeko V: zaporatzeko G GG L [Beste bi aldiz (95-17, 323-11), hainbatetan hasperenduna dagoen bitartean (12-6, 118-22, 205-27, 273-32, etab).
- 248-12 conscientia GG L V: conscientia G
- 248-19 datxekana L V [oharrean azaldua]: datechecana G GG [Cf. *datxeka* (278-18), *datxekala* (291-40), etab.
- 248-20 edireiten V: edirenten G GG L
- 248-26 aberatstasunakgatic V: aberatz tasunac gatic G GG
- 248-30 quicquid G L: quidquid GG V [Cf. 200-4 testu-oh.
- 248-36 *Kheintzatzu*: Hurrengoa ere berdin. Cf. *ibeintzatzu* (74-4 testu-oh.).
- 249-25 S. Agustin, *Contra Litteras Petilianii Donatistae Cirtensis Episcopi*, cap. 7.8 (Migne, PL 43). *Luter*. anakronismo bat bide da.
- 249-35 (Bernard. *Super Cantica*) [Bernard de Clairvaux, *Sermones in Cantica Cantorum* (Migne, PL 183).

GERO

- 249-39 eztutela Gesk AKesk L V: eztute G: eztutea GG
 249-40 halakorik G: alacoric GG
 250-2 eztuzula Gbi AK-720 GG: eztuzul G
 250-7 gaixto GG V: goixto G
 250-9 gaixtakeriez GG V: gaiztaqueriez G
 250-10 Laert. [Diogenes Laertes, *Vitae philosophorum*.
 250-15 conscientiae GG L V: conscientiae G
 250-19 (dio Jondone Paulok) [Parentesia, badirudi lekuz kanpo dagoela, hau ez baita Pauloren esana, Axularren azalpena baizik.
 251-9 ausartzia V: autsartzia G GG L
 251-17 euzu G: ençu GG
 251-25 Daniel GG L: Damel. G Gbi
 252-4 esperantza. Bekhatutan dagoenaren esperantza Gesk AKesk GG: esperantza G [berdinetik berdinerako jauzia]: esperantza. [Bekhatutan dagoenaren esperantza] (2.^a ed.) L: esperantza. [Bekhatutan dagoenaren esperantza] V [oharrean azaldua]
 252-26 bekhatutan G: beccatuan GG
 252-27 dagoela GG L V: degoela G
 252-31 duzula G: duçu GG
 253-1 antsiarik G: antsiriatic GG
 253-3 alegera G: alleguera GG
 255-10 Konzilioak: Concillioac G GG: Konzillioak V: Kontzilioak L
 255-12 sessic. G GG [*sessio*. izango da, noski.
 255-14 usque L V: usq; G GG
 255-16 borondate G L V: vorontate GG
 255-18 indarra G: indartea GG
 255-22 boni G GG: bonae L V
 256-8 hurbiltzean Gesk AKesk GG L V: hurbitcean G
 256-12 mutha G: muda GG
 256-14 daritzan GG L V [G, Gbi eta AK-720-n badirudi <ç> hautsiaren ordeaz <e> hautsia dagoela.
 256-14 Plin. Gesk AKesk [garbi ez] GG: Pleu. Gbi
 256-19 apartatzen GG: aparratzen G
 256-23 ontasunean G: onatasunean GG
 256-26 ontasunean G: onatasunean GG
 256-31 moreretur L V: moretur G GG [*De dono perseverantiae Liber unus*, 1.1 (Agustin, *IIGG*, PL 45).
 256-32 domo pertea. G: domo perteac. GG: domo pertrac. L V [Ik. aurreko oharra.
 257-24 erortzetik L V: erotcetic G: erorcetic GG
 257-25 ontasunean G: onatasunean GG
 257-34 erdiets L V: erdietz G: erdiertz GG
 258-4 ontasunean G: onatasunean GG
 258-19 harekin GG: haraquin G
 258-24 ontasunean G: onatasunean GG
 258-27 aitzinerat G: aitzinera GG
 259-2 behaztopatzen G: bebaztopatcen GG

- 259-12 nehoiz G: neohiz GG
 259-15 behaztopatzen G: beaztopatcen GG
 259-22 egoiteko Gesk AKesk [garbi ez] L V: eguiteko G GG
 259-32 ontasunean G: onatasunean GG
 260-10 trabailua Gesk AKesk [garbi ez] GG L V: trababailua G
 260-17 iltki zen V: iltquicen G GG: iltkitzen L [*hasi*-ren ondoren doanez, lehen begiratuan ez dirudi *iltkitzen* ezinezkoa denik, baina *iltkitzen* bai da ezinezkoa (ik. 45-4 testu-oh.).
 260-25 Mementote G: Memento GG L V
 261-7 eskiribatzea G: esquiribatcea GG
 261-10 artez G: hartez GG
 261-14 aniamalia G: animalia GG L V
 261-15 animaliak G GG L V [Ik. 14-25 oin-oh.
 261-19 bidea jakin gabe Gesk AKesk GG V: bidea gabe G: bidea [iakin] (2.^a ed.) gabe L
 262-7 konparatzen L V: comporatcen G GG
 262-11 aiphatzera: aippatcera G: aitppatcera GG
 262-21 akometatzen: acco- G GG: akho- V [Ik. 48-5 testu-oh.
 262-35 edireiten G: edireinten GG
 263-3 finak G V: azquen finak GG: [azken] finak (2.^a ed.) L
 265-24 Glosa Lyr. Gesk: Glosa Cyr. G AK-720
 265-27 nor G: norc GG
 266-18 soldadutasuna G: soldatdutasuna GG
 266-28 berretzenago G: beretceren ago GG
 266-29 Fili Gesk GG L V: Filii G
 266-34 persequotionem patiuntur G: persecutionem patientur L V [*Beati qui persecutionem patiuntur...* (Mt 5,10) ezagunaren oihartzunez?
 266-34 (2 ad Tim. 2) G: (2 Thim. 3, 12) V
 266-39 ausart G: autsart GG
 267-14 persekuzionerik V: persecutionerik G GG [<tiV> bakan ageri da (ik. 65-32 testu-oh.).
 267-24 huts Gesk GG L V: hutz Gbi
 267-29 jan-edanean, jokoan G V: ian-edanean, dantcetan, iocoan GG: ian-edanean, [dantzetan] (2.^a ed.), iokoan L
 267-35 barurtzea G L V: barutcea GG
 267-38 penos GG L V: penoz G
 268-4 okhasinotan: occasionatan G: okhasinoetan GG L V [oharreen azaldua] [Axularrek mugagabe darabil beti: *okhasinotan zarenean* (226-28), bai eta *okhasinotan sartu ere* (156-6, 226-24).
 268-11 errendaturik G: errandaturik GG
 269-2 XLIX L V: LIX G: LXI GG
 269-16 Hilarius Pictaviensis, *In Evangelium Matthaei Commentarius*, cap. 11 (Migne, PL 9).
 269-17 trabailaturik GG L V: trabillaturic G [*trabilatu* ez da erabat ezinezkoa, ‘trabatu’ adierarekin (cf. *OEH*, s.vv. *trabela* eta *trabelatu*), baina *trabilatu*-ren testuko maiztasunari begiraturik eta adiera honetan ondo lekukotua egonik, zuzenketa ontzat eman dugu.
 270-7 erraxari V: errax ari G: erraz ari GG: errazari L
 270-11 ontasunean G: onatasunean GG

- 270-16 laxoentzat: lachoentçat G: Lajoentçat *in m.*
 270-17 aitzinerat V: aitzinarat G GG L [Ik. 92-10 testu-oh.
 270-23 naturae G GG L: natura V
 270-32 erraxten G: errazten GG
 271-17 Super GG L V: Snper G
 271-33 *De bono viduitatis*, 21.26 (Agustin, *IIGG*, PL 40).
 271-35 ihiztariak G: hiztariak GG
 271-35 arranzaleak G: harran çaleak GG
 272-12 hezgaitzenak G: ez-gaitzenenak GG
 272-13 Ezta GG L V: Eztu G [Bakarra litzateke, *ezta* pilatxo bat dagoen bitartean.
 272-13 hauts GG L V: hautz G
 272-14 Amurus G L V: Amuruz GG
 272-18 erraxkiago G: errazquiago GG
 272-18 iraganeintu G: iragaineintu GG
 272-18 dirateken G GG L V [Gainerakoetan *diratekeien* darabil (73-11, 323-23, etab.), eta *naitekeien* (5-4), *ditekeien* (44-12), *zitekeien* (171-24), etab.
 272-18 trabailuak GG V: trabilluac G
 272-20 hats Gesk AKesk GG L V: hatz G
 272-31 ere G: eta GG
 272-35 poxinean: pochinean G: Poginean *in m.*
 272-37 hozki G [batez ere argi AK-720-n] GG: hotzki V (eta *AxH*): ozki L [Irakurketaz gain, gorago *horzkitua* eta *zurrundua* erabili ditu, hemengo *horzki* eta *zurrun* hauen aurreko. *OEH*-k (s.v. 2 *hozki*) guk bezalaxe ulertu du, Harrieti jarraituz esanahian («*Hortzki iatea*, éprouver un agacement de dents»), baina ez forman, *hotzki* letraldatu baitu.
 273-20 erraxten G: errazten GG
 274-9 errax G: erraz GG
 274-10 irabazi Gesk AKesk GG L V: irababazi G
 274-15 erranen duzu G: erramenduça GG
 274-18 errax G: erraz GG
 274-19 saindua L V [oharrean azaldua]: saindu G: sainduac GG
 274-21 errax G: erraz GG
 274-24 (Matth. 25) G: (Matth. 26) V [*Vulgata Clem. Mt.* 26, 38.
 274-35 errax G: erraz GG
 274-36 arrauak G: arauak GG
 274-39 Arrauak G: Arraüak GG
 274-40 dohazi GG: dohaci ? [sic, galdera markaz] G
 275-3 August.: Abgust. G: Aug. GG
 275-6 Hegaztina haur G GG L V [*OEH*-k Leizarraga eta Etxeberri Sarakoarenean aurkitu du *hegaztina* mugagabe (baina ez Axularrenean). Testuko mugagabe bakarra da.
 275-8 hegaldatzen zena, lurrean geldi [*hegal[datcen cena lurrean gueldi]*]: taket artekoa Gesk-ek idatzi du lerroan, edota gainetik pasatu. AK-720-n ere zuzenketa bera egin du; beraz, ale zenbaiten akatsa zatekeen. Gbi-n lerroa ondo dago, ondoko aleetan akatsa zuzendu zelako seinale, nonbait (ik. § 1.2).
 275-19 arin G: arina GG

- 276-12 atsegin Gbi [G-n eta AK-720-n ematen du eskuz osatu dela, <atseg> zatia zehazki.
 277-4 jasaiteko G: iatsaiteko GG
 277-11 (Psalm. 32) G : (Ps. 37) V [*Vulgata Clem. Ps.* 37, 5; *Vulgata Nov. Ps.* 38(37), 5.
 278-1 Iklusiko V: Icusico G GG
 278-8 du G: ø GG
 278-16 penitenziatan G: penitencietan GG
 278-20 badu GG L V: bada G Gbi AK-720
 278-22 baitu GG V: baita G V
 278-28 alabaina G: hala baina GG
 279-5 sabelarena G: sabellarena GG
 279-7 atseginetan G: atseginetan, dantcetan GG
 279-7 jokoan G: ø GG
 279-10 gozotasuna G: goçatassuna GG [Cf. *gozatasun* (240-25), baina gehienetan *gozotasun* (282-7, 282-26, 323-14).
 279-12 hemen G: emen GG
 279-12 baita Gesk AKesk GG L V: bai-/ia Gbi
 279-15 gaitztasun G: gaixtasun GG
 279-20 edale bati G: edale bati, dantçari bati GG
 280-19 (Ibid.) L
 280-35 dutenetik G: dutenic GG
 281-6 lekidizketzu G GG V: lekidizketzu L [nor pluraleko *-kidi-* erako adizki bakarra.
 281-7 aiphatu [<pp>] Gesk V: aipgatu Gbi AK-720: aippuatu GG
 281-17 (Psalm. 3) G: (Ps. 30, 20) V
 282-11 Israeleko G: Israëleco GG
 282-25 bekhatuari GG V: becatuari G
 282-32 (Iob. 10) G [*Vulgata Clem. Iob.* 20, 5.
 282-33 gaixtoen GG L V: gaxitoen G
 283-11 estaltzeko: estalzeko G GG V [Beste behin baino ez (290-22), askoren artean.
 283-15 gorputza L V: gorpuztça G GG
 283-33 Zeurk G: Ceur GG
 283-33 ditutzun G: dituçun GG
 283-35 ditutzula G: dituçula GG
 284-1 gaixtatasuna G: gaiztatasuna GG
 284-5 (Prov. 6) G GG: (Rom. 6) L V [*Vulgata Clem. Rom.* 6, 22.
 284-11 Urrikalkizun L V: Virriçalquiçun G GG
 284-15 guztiekin GG L V: guztiequin G
 284-16 arthezean: artezean G GG V [Cf. *bide onera eta arthezera* (119-18, eta ik. testu-oh.).
 284-27 erdiets L V: erdietz G GG
 284-28 xerloak: cherloac G: Gerloac *in m.*
 284-35 xoil: choil G: Soil Gbi AK-720 *in m.*: joil Gesk *in m.*
 284-36 iragaiteintutzu G: iragaiteintuçu GG
 284-40 ixil: ichil G: Igil *in m.*
 285-4 hauts L V: hautz G GG
 285-14 erraxki G: errazqui GG

- 285-23 beha Gesk AKesk GG L V: dela Gbi [Aurreko orri bukaerako erreklamoa *beha* da, eta eskuak *dela* tatxatu du.
- 285-24 ikhus L V: iccuz G GG
- 285-35 desplazera LV: dezplacera G GG
- 286-5 Quia et isti G: Quia et ipsi L
- 286-8 laburrak ondotik G: laburra condotic GG
- 286-9 aphurrak V: appurak G GG
- 289-3 saindua L V: saidua G GG
- 289-17 edireiten G: edireinten GG
- 289-22 Kain: Cain G: Caïn GG
- 289-23 kidaririk G GG V: kidaririk L [Ezinezkoa ez izan arren (cf. *OEH*, s.v. *gida*), egiantzekoa da haplografia izatea, *kidaririk*-en ordez, Lekuonak zuzendu bezala: cf. *erakuslerik eta kidaririk gabe* (20-24) eta *aitzindaririk, kidaririk, argi egilerik eta ez erakuslerik* (237-12).
- 290-4 zenbait L V: zeinbait G GG
- 290-7 Moisenen G: Moïsenen GG
- 290-22 estaltzeagatik: estalzeagatik GG L V: eztalceagatic G [Ik. 283-11.
- 291-16 amorioagatik G GG L: amorioakgatic V [Motibatiboko postposizioa, halakoek ohi duten bezala, jabego-genitiboaz egiten da (cf. *aitaren amoreakgatic* 3-14): gramatikaldu gabeko *amorioaz* ari da hemen.
- 291-18 kontrizioneaz L: kontritoneaz G GG V [<tiV> bakanki ageri da (ik. 38-32 testu-oh.).
- 291-26 (Ier. 8) [*Vulgata Clem. Ier. 8, 22*.
- 291-26 arroxinarik: arrochinaric G: arroginaric *in m.*
- 291-34 Glos. Lyr L: Glos. Cyr. G [Cf. 121-19 testu-oh.
- 292-5 behar da kofesatu G V: behar da ongui cofesatu GG: behar da ongi (2.^a ed.) kofesatu L
- 292-7 esperantza da sendatuko dela: esperantza sendatuko dela G GG L V [Cf. *Beraz, esperantza ahal dukezu, eztuzula oraino neurria bethe* (72-4), *Baina duenean esperantza sendatuko dela* (166-31), etab.
- 292-12 Gregorio, «Lectio S. Evang. Sec. Luc. xvi, 19-31», § 2.
- 292-13 bekhatuaren GG V: beccetuaren G
- 292-16 kontrizionerik L: kontritinerik G GG V [Ik. 291-18 testu-oh.
- 292-25 (Thren. 2) G [*Vulgata Clem. Lam. 2, 19*.
- 292-25 bezala Gesk AKesk GG L V: beça G
- 293-10 eduki: eduquï G GG
- 293-18 errezebi G [Gainerakoan, *errezibi* (3-14, 3-24, 5-13, 15-5, etab.), baina aldaera ondo lekukotzen denez ekialde zabalean (cf. *OEH*, s.v. *errezibitu*) ezin aldaketa ziurtzat eman.
- 293-19 Inozenzio L V: Inocentio G GG
- 293-29 naiz G: nahiz GG
- 295-2 LII L V [oharrean azaldua]: LVIII G GG
- 295-16 kofesatzeak emaiten duela garazia. Baina ezin erran diteke berretzen duela. Bada, ordea Gesk AKesk: kofesatzeak emaiten duela. Bada, ordea G V [berdinetik berdinerako jauzia]: cofesatceac ematen dioela garazia. Baina ezin erran diteke berre-

- tzen dioela. Bada, ordea GG: kofesatzeak emaiten duela [garazia. Baina ezin erran diteke berretzen dioela] (2.^a ed.). Bada, ordea L
- 295-17 duela G V: dioela GG: duela* [*dioela (2.^a ed.)] L
- 296-15 G-k hemen hirugarren arrazoiari dagohion 3 zenbakia dakar, baina ez aurreko biak, ezta ondokoak ere. GG-k osatu ditu.
- 296-24 (Eccles. 27) G [*Vulgata Clem. Eccli.* 27, 17.
- 296-32 egiten GG L V: agiten Gbi AK-720
- 296-35 leialak L V: levelac G GG
- 297-24 isatsaz G: itsatsaz GG
- 297-29 maiz G: mahiz GG
- 297-37 erhaiten G: ethaiten GG [Ik. *OEH*, s.v. 2 *ero*.
- 298-6 heken: hekin G GG L V [Cf. *heken aitzinera* 51-20/21.
- 298-9 ditutzun G: dituñun GG
- 298-28 dispozicionean L: dispositionean G GG V [<tiV> bakanki ageri da (ik. 38-32 testu-oh.).
- 298-35 dagoenean L V: degoenean G GG
- 298-38 ontasunagatik G: onatasuna gatic GG
- 298-40 eskas L V: eskaz G GG
- 299-16 ihardets L V: ihardetz G GG
- 299-17 mirets L V: miretz G GG
- 299-36 igurikiko G: iduriquico GG
- 301-8 (Luc. 13) G GG L: (Luc. 15) V [*Vulgata Clem. Lc.* 15, 2.
- 301-10 bertzerekin: berzerekin G GG V [Ik. 135-20 testu-oh.
- 301-14 mirets GG L V: miretz G
- 301-16 *hala jakizue* goragoko *Zeren nola*-ren jarraipena bada ere, G-n bi paragrafotan banatuta dago, beharbada konposatzaileak hala erabakita (ik. § 1.1.1).
- 301-21 (Luc. 15) G: (Luc. 19) GG L V [*Vulgata Clem. Lc.* 15, 7.
- 301-29 lauretan hogoi eta L: laur eta hogoi eta G GG V. [Ik. gorago, 301-17/18.
- 302-15 lehen justu izatu dena baino aitzinago Gesk: behin justu izatu dena baino aitzinago G AK-720 V [baina «...que el que *siempre* ha sido justo» itzulita (etzana gurea)]: bethi justu izatu dena baino aitzinago GG L [Gesk-en zuzenketa ez zen ulertu, nonbait.
- 302-32 laxoki: lachoqui G: Lajoqui *in m.* Gbi AK-720: Lajoqui Gesk
- 302-34 justu L: justuz G GG V [baina ez du instrumentalaz itzultzen: «...que ama más a dicho pecador (...) que a noventa y nueve justos (...).»]
- 303-3 perilosago L V: perilozago G GG
- 303-12 Gaitzen Gesk AKesk GG V: Guztien G: Guztien* [*Gaitzen (2.^a ed.)] L
- 303-28 § 3 L V [oharrean azaldua]: § 2 G GG
- 303-34 amorioa G: amoria GG
- 305-10 Soliloq. anima. ad Deum [Pseudo-Augustinus, *Soliloquiorum animae ad Deum*, cap. 27.
- 306-1 hek Gesk AKesk [garbi ez] GG L V: hen Gbi
- 306-9 desespera arazitzen G: desespe aratcitcen GG
- 306-22 eta izaitekotz G: eta/aitekotz GG
- 306-22 eta G: etça GG

- 306-30 ontasunean G: onatasunean GG
 306-35 besarkatzen G: besartcen GG
 307-2 utzten V: utsten G GG: uzten L
 307-6 hire horretarik begiratzeko G V: etsai horretaric hire beguiratceco GG: ire horretarik* begiratzeko [*etsai horretarik ire (2.^a ed.)] L
 307-26 gobernatu GG L V: gouetnatu G
 309-5 hala-hala G: hala GG
 309-19 optasti Gesk AKesk GG L V: optati G
 309-22 *seme gaixtoa*: latinez *alaba* dio.
 309-23 gaixtoa [lerroko lehena] GG L V: gaiztoa G
 309-24 gaixtoa L V: gaiztoa G GG
 310-26 Nico. de Lyra [Nicolaus Lyranus (c. 1270-1349).
 310-29 bitartean G: bitardean GG
 310-33 bidegabe G: bibe gabi GG
 311-19 jaikitzeke: jaikiteko G GG L V [Ik. 47-17 testu-oh.
 313-4 jakintasuna G L V: jaquintasuna GG
 313-13 ahantz V: anhantz G GG
 314-3 gibelatzen du Gesk AKesk GG L V: guibelatzen du, gui-//belatcen du G
 314-14 ditutzuen G: dituçuen GG
 314-17 egotzia G: egoitcia GG
 314-23 hei Gesk AKesk GG L V: hec G
 314-30 bihia, onak G V: bihi onak GG: bihia* —onak— [*bihi (2.^a ed.)] L
 315-14 loriaz L V: lorriaz G GG
 315-18 guttiz GG L V [oharrean azaldua]: gutitz G [Oso egitura erabilia liburuan (cf. 61-35, 62-31, 89-37, 96-1, etab.).
 315-24 gaineko: gaiñeo G GG
 316-6 haren G: aren GG
 316-9 galtzen GG L V: galltcen G
 316-14 azienda [Gainerako guztietan *hazienda* (17-2, 115-12/13, 134-30, etab.), esanahi ezberdintasunik gabe (cf. Mitxelena 1974: 118).
 316-20 uste L V: uzte G GG
 316-27 zaitzanean Gesk AKesk V: çaicanean Gbi GG: zaizanean L
 316-28 herts L V: hertz G GG
 316-29 huts L V: hutz G GG
 316-37 Psalm: Psam. G: Psal. GG
 320-2 suz L V: sus G GG
 320-3 batetan G L V: batean GG L
 320-5 dauteke G GG L V [Beti *daude*, *-teke*-rekin izan ezik: cf. *gauteke* (206-17 testu-oh.).
 320-9 Hobenaren G: Hoberen GG
 320-21 praeditum G GG: praedictum L V
 320-22 S. Thom. [*Super Sent.* (= *Scriptum super Sententiis*), lib. 4 d. 44 q. 3 a. 2 qc. 1 ad 3 (*Corpus Thom.*).
 320-26 muthil G: mithil GG
 320-29 anhitz: hanitz G GG V [oharrean azaldua] [Bakarra, askoren artean.
 320-32 arazitzen L V: araziten G: aracite GG [Bakarra, askoren artean.

- 321-3 etzaiela GG L: eçaiela G: ezaiela V
- 321-5 transiet G GG: transeat L V [Berriri aipatuko du berehala (321-32), eta han *transeat* dakarte G eta GG-k ere.
- 321-10 Ser. dist. G GG L: Sent. dist. V
- 321-21 aberats L V: aberatz G GG
- 321-23 dirateien G GG L V [izan-en adizkietan *-teke* gabe *-te* bakarrik erabiltzea (cf., ostera, *dirateke* 212-6, *diratekeien* 73-11, *diratekeiela* 148-16, etab.) lehenago ere ikusi dugu behin (*baitirate* 37-2), eta bada besterik (cf. *lizate* 329-24, adibidez). Gutxiengoan daude honelako formak Axularren testuan, galduz doan arkaismoari dagokionez.
- 321-37 gentium G GG: dentium L V [Vulgatan (Mt. 8, 12) *dentium*, baina Axularren iturriak, nonbait, *gentium* zekarren, ez baita irakurketa ezezaguna (cf. Urgell 2015). Dena dela, latinez ez bezala, euskaraz Vulgatari ondo egokitzen zaio, parte Leizarragarenetik hartu zuelako (cf. Salaberri Muñoa 2000).
- 321-37 karrask-hots Gesk AKesk L V: carrasc-hotz Gbi GG
- 321-38 karrask-hots Gesk AKesk L V: carrasc-hotz Gbi: car-/hotz GG
- 322-3 karrask-hots Gesk AKesk L V: carrasc-hotz Gbi GG
- 322-4 bero eta su. Eta su hura: bero eta su- // Eta su hura G: bero eta su- // eta su hura GG: bero eta su; eta su hura L: bero, eta su hura V
- 322-18 gustua GG L V: guztua G
- 322-20 Lehenbizikorik L: Lehenbicoaric G GG V (eta AxH) [Hainbat aldiz erabili du *lehenbizikorik* honelakoetan (cf. 58-24, 73-13, 105-15, 138-35, etab.).
- 322-20 visus [Zentzumen guztietan latinezko izena orri bazterrean ere agertzen da G-n, honetan izan ezik. GG-k osatu du.
- 322-25 hats Gesk AKesk GG L V: hatz G
- 323-1 auditus [in m. ere bai.
- 323-6 odoratus [in m. ere bai.
- 323-7 khirats L V: khiratz G GG
- 323-11 gustus [in m. ere bai.
- 323-11 zaphorea: zaporea G GG V [Ik. 248-11 testu-oh.
- 323-16 tactus [in m. ere bai.
- 323-17 likits L V: liquitz G GG
- 323-22 oinhaze: oiñhace G: oiñaze GG
- 323-23 ikhara L V: ikharra G GG
- 323-28 batean min [G-n eta AK-720-n marra bat dago <tean>en azpian (tinta natoa?) eta <min>eko <n>aren barrua tintaz estalita dago, Gbi-n ez bezala.
- 324-1 diferentki GG V: differenqui G L
- 324-4 diruz betherik zegoena G V: diruz betheric cegoena edo egon nahi çuena GG: diruz beterik zegoena [edo egon nai zuena] (2.^a ed.) L
- 325-22 aparailua G V: apparailua GG [Cf. *aparailuaren* (291-6).
- 325-28 eta [Hemen Gbi gardena da, baina G eta AK-720-k <cta>-edo dute, eta lehen letra hori marra batek (tinta natoa?) zeharkatzen du ezker-eskuin.
- 325-34 ezin demaiot [Ahalera vs. subjuntiboa: *demola* (178-30), *demogula* (157-22). Oposaketa bera aurkitzen dugu **ezan*-en, adibidez: *ziazaion* (160-24/25) vs. *ziazon* (328-1). Horrela edo bestela, *-(k)ai*o ilun honexekin (eta ez *-ke*-rekin) markatuta dau-

- de hainbat aditzen ahalerazko formak: *zerauzkaion* (15-2), *lekidikaio* (20-30), *dadukaio* (68-31), *zitzaikaion* (75-5) eta *ezpaineraukaio* (109-10).
- 326-4 probetxu Gesk AKesk [ez garbi] GG L V: probotchu Gbi
- 326-6 dateke L V: dateq; G: dateque ; GG
- 327-1 infernuan G [testuan eta aurkibidean] GG: ifernuan L V [Ik. 28-32 testu-oh.
- 327-18 nehondikan [Esapide honetan bakarrik, bada beste bat (331-30).
- 328-9 girthainik: guirthainic G: guirthanic GG
- 328-13 animalia G GG [Ik. 14-25 oin-oh.
- 328-13 hasnaur G: hausnaur GG L V [Perpau bereko *hausnaur* forman oinarritu bide dira, baina cf. hurrengo oharra.
- 328-14 hausnaur [Hitz honen lekukotasun guztiek, aldaerak aldaera, diptongo bakarra dute, silaba batean edo bestean (cf. *OEH*, s.v. *hausnar*), baita Axularren hiru adibidetatik bik ere (ik. *hasnaur* 340-7). Balirudike, beraz, erratarik egotekotan, hementxo honek lukeela aukera gehiena.
- 328-16 iraulkatzen *OEH* (s.v. *iraulkatu*): irautcalcen G GG V: irautkaltzen L
- 328-20 art-urratze gabea G: argui-vrratcegabea GG: art-urratze-gabea* [*argi-urratze-gabea (2.^a ed.)] L: art-urratze gabea [oharrean azaldua] V
- 328-23 bera G GG L: bero V [Cf. *ohe berora* (27-10), baina *bera* 'biguina' bestetan ere badarabil (cf. 18-30).
- 328-28 su ihar [Agian *ihar inhar*-en ordezt dago. Cf. *OEH* (s.v. *inhar*): «La forma *inhar* es de uso general; Axular, que también la emplea [155-22 eta 205-13], tiene 2 ejs. de *ihar*, de donde ha pasado comúnmente a los lexicógrafos posteriores, y tbn. *su ihar* (...); no debería descartarse la posibilidad de sendas erratas por *inhar*. El otro ej. que aduce Villasante en *AxH*: *Batzuei den okhasinorik ttipienean, sua lotzen zaie: zeren sukhoi baitira, ihar baitira* (Ax 286 (V 191)), traducido 'son pura chispa', parece más bien un ej. normal de *ihar* 'seco' (q.v.)». Esanahiaren aldetik *iharrak* (151-17) ere argiki 'txinparta' da.
- 328-29 suz L V: sus G GG
- 329-7 batetara GG L V: batetera G
- 329-8 zorrotzik [<t> oso ahula da G, Gbi eta AK-720-n, hiru aleetan. Are AK-720-n eskuz egina dirudi.
- 329-15 higitu G: iguitu GG
- 329-20 Israeleko G: Israëleco GG
- 329-30 saltzailea V: salçaitllea G: salçaillea GG
- 329-33 ehun G: egun GG
- 330-18 (Eccles. 11) G GG: (Eccl. 11, 3) V
- 330-18 erortzen Gesk AKesk GG L V: erort-// Gbi [orri bukaeran, eta ez du jarraitzen hurrengoan.
- 330-19 erortzen L V: errotcen G: errotcen GG
- 330-19 lekhuan L V: leccucan G GG
- 330-26 ilkitko G GG: ilkiko L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
- 331-1 akhabatuko GG V: aççabatuco G
- 331-15 urrikalmendua GG L V: urricalmendua G
- 331-18 ilkitko G GG L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
- 331-20 ilkitko G GG L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.

- 331-35 erraxki G: errazqui GG
- 333-11 emaitentu: emaitentu G L V: emaitendu GG [Cf. 50-5 testu-oh.
- 334-25 Gregoriok GG: Grehorioc G
- 335-12 saldua saldu, eta bai erosia ere sekulakotz, erosia erosi: saldua, saldu: eta bai erosia ere sekulakotz erosia, erosi G GG: «saldua saldu»; eta bai erosia ere sekulakotz, «erosia erosi» L: saldua, saldu: eta bai erosia ere sekulakotz erosia, erosi V [L bakarrik saiatu da nola edo hala konpontzen, baina egiazki ematen du *erosia* bi horietatik bat soberan dela, bigarrena apika; beraz, badirudi *eta bai erosia ere sekulakotz erosi* behar lukeela.
- 337-13 eztela halakorik izanen, eta izaitekotz ere Gesk AKesk GG: eztela halacoric içaitecotz ere G: eztela halakorik [izanen, eta] (2.^a ed.) izaitekotz ere L: eztela halakorik, izaitekotz ere V (itzulpena: «...que no lo hay o que, aunque lo hay...»).
- 337-14 ilkitko G GG L: iltkiko V [Ik. 49-30 testu-oh.
- 337-17 konpainian GG L V: compaiñiam G
- 337-27 (S. Thom. 3 p. q. 99 art. 2 ad 1) [*Super Sent.*, lib. 4 d. 46 q. 2 a. 3 qc. 1 ad 1. (*Corpus Thom.*).
- 337-28 guztiez G: guztiey GG
- 338-6 alderakotzat G: alderatcotçat GG
- 338-10 penitenziarik G V: penitenciaric, nahiago balute ere GG: penitentziarik [naiago balute ere] L [edizioa zehazteke]
- 338-38 mehatxuak GG L V: mehatchnac G
- 339-4 hemen G: emen GG
- 339-15 zeure ordu gaitza, forogura G GG L V [Zerbait gaizki dago. Villasantek honela itzuli: «vendrás a tu hora y crítica», baina orduan «ordu gaitzera, forogura» edo «ordu gaitz, forogura» espero genuke.
- 339-17 zeitzen G GG L: zeitzen V
- 339-25 alderakotzat G: alderatcotçat GG
- 339-28 Ad GG: Ap G [Burus behera jarritako <d> ematen du.
- 339-37 buruari L V: burruari G GG
- 340-10 ditutzula V: dituçuela G L: dituçuela GG [Pasarte osoan *zuri* zuzentzen zaio.
- 341-18 misericordian: misericordiam G GG
- 341-23 Heriotzeraino: Heriotzeko oreneraino G [liburu barruan]
- 341-25 borondatezkoak: borondatezkoak ere G [liburu barruan]
- 341-33 erremedioa: erremedioa da G [liburu barruan]
- 341-39 erremedioa: erremedioa da G [liburu barruan]
- 341-39 etsaiek G [liburu barruan]: etsaiac G [berton]
- 341-41 erremedioa: erremedioa da G [liburu barruan]
- 342-2 gutzaz: gutzaz jendek G [liburu barruan]
- 342-3 kapitulu: capttulu G: capitulu GG
- 342-7 barkhatu: barkhatu, da G [liburu barruan]
- 342-9 diogu: diogula G [liburu barruan]
- 342-20 ibentzea: ibentzeaz G [liburu barruan]
- 342-35 mihiaz eta gustuaz: mihiaz G [liburu barruan]
- 343-6 ifernukoa: ifetnucoa G
- 343-20 infernuan G [liburu barruan ere bai] GG [Ik. 28-32. testu-oh.





